

GOTTFRIED WILHELM LEIBNIZ

Giza adimenari

buruzko

entseiu berriak

HITZAURREA

1. Leibnizen bizitza eta lanak

Gottfried Wilhelm Leibniz Leipzigen jaio zen 1646ko uztailaren 1ean eta bertan bizi izan zen 1666an bere lehen liburua, *Dissertatio de Arte Combinatoria*, argitaratu arte; liburu honek sakon-sakonetik moldatu zuen Leibnizen pentsamendua. Notario eta Leipzigekeko Unibertsitateko moral-irakaslearen seme izaki, familia-giro erlijioso, luterano, kulturadun eta nahiko aberatsean hazi zen.

1667an Altdorfeko Unibertsitatean Zuzenbide doktoregoa eskuratu zuen. Filosofia doktoregoa, ordea, atzeratu egiten zitzaion, Unibertsitateko azpijokoak zirela eta. Leibnizek Leipzigitik alde egitea erabaki zuen eta harrezkero oso gutxitan itzuli zen bere jaioterrira. Alemaniako zenbait hiritan ibili zen (Jena, Altdorf, Nürnberg, Frankfurt, Mainz, Strasburg, etab.); Altdorfeko Unibertsitatean Katedra bati uko egin eta 1668an Schönborn-eko Joan Felipe, Mainz-eko Printze Hauteslearen zerbitzura jarri zen. Honek Printzerriko Apelazio Goi Auzitegiko epaile izendatu zuen. Joan Kristobal von Boineburg izan zen Gorte hartan Leibnizen babeslea eta elkarrekin jardun zuten zenbait ekintza politikotan, hala nola, Poloniako erregearen hautaketan, eliza kristauak bateratzeko lehen egitasmoetan eta, batez ere, Consilium Egyptiacum zeritzon egitasmoan; Leibnizek 1670 eta 1671n idatzia da berau, Luis XIV.a Frantziako erregea Holandaren aurkako gerrari ekitetik aldendu nahian. Gerra barik, Egipto konkistatzera bultzatzen zuen Leibnizek Frantziako erregea, eta Ekialdea Mendebaldearekin lotuko zukeen kanala eraikitza; era horretan kontrolpean izango zuen komertzio holandarra Herbehereetan gerra piztu beharrik gabe, ez eta, ondorioz, Alemanian ere, hau baitzen Leibnizek eta Boineburgekin inondik ere nahi ez zutena. Gero noizbait Napoleonek (konkista) eta britainiarrek (Suezko kanala) gauzatutako egitasmo futurista honekin ekin zion Leibnizek ondorengo urte askotan Hannoverren eta Europako beste hainbat gorteetan burutuko zuen aholkulari politikoaren bideari.

Asmo diplomatiko honek porrot egin bazuen ere, Paris eta Londres bisitatzeko parada behintzat eskaini zioten eta hiri horietan pertsonalki ezagutu ahal izan zituen garai hartako filosofo eta matematikaririk ospetsuenetakoak, Arnould, Malebranche, Huygens, Oldenburg, Hooke, Boyle, Pell, Mariotte, Collins, besteak beste. Paris zen, artean, Europako hiriburu intelektuala eta Leibnizek onura atera zien Boineburgen eta Joan Felipe Hauteslearen heriotzei bertan luzaro geratzeko (1672-1676), Mainzeko gorteko aholkulari gisa lehendabizi eta gero bere egotaldia autofinantzatuz. Parisen, Huygensen zuzendaritzapean, matematika arloa sakondu zuen. Bestalde, gero bere korrespontsal-sare zabalean bilduko zituen harreman pertsonal ugari hasi zituen Parisen: milatik gora pertsonetikiko korrespondentzia idatzia landu zuen Leibnizek Europa osotik eta Txinatik ere zenbait. 1673an Royal Society-ko bazkide egin zen, 1700ean Académie Royale des Sciences-en partaide. Erakunde hauen aurrean aurkeztu zituen bere lehen aurkikuntza zientifikoetariko batzuk, esaterako, zirkuluaren koadratura eta elipsea eta hiperbolea serieen bidez, bai eta asmakizun tekniko batzuk ere (kalkulagailua, kronometroa, etab.). Zientzietako Akademia Frantsesean partaide arrunt izenda zezaten saiatu zen, Robervalen ordezkotza, Parisen jarraitzeko modu bakarra baitzen, baina ez zuen lortu eta Hannoverreko Joan Federiko dukearen esanetara Gorteko aholkularitza bereganatu zuen. Londresera azken aldiz 1676ko udan bidaiatu eta Amsterdamen

Spinozarekin pertsonalki hitz egiteko pausaldi labur baten ondoren, Hannoverreko Gortean 1677ko urtarrilean hasi zen eta bertako zerbitzuan iraun zuen heriotzara arte.

Hannoverreko lehen hiru urteak oso emankorrak izan ziren ikuspegi filosofiko eta zientifikotik. Joan Federiko dukearen bibliotekari izendatu zuten eta Pariseko urte oparoetan bildutako ideiak ordenatzeko astialdi franko izan zuen, bai eta zenbait aurkikuntza termino zientifiko zehatzetan formulatzeko ere. Garrantzi handikoak dira hiru urte hauetako Leibnizen idazlan metodologiko, logiko, matematiko, zientifiko gehienak. Esate baterako, garai honetan finkatu zuen Leibnizek kalkulu diferentzialari eta integralari buruzko bere aurkikuntza, 1675ean zehazki, horri buruzko lehen artikulua 1684ra arte kaleratu ez bazen ere, Nova Methodus pro Maximis et Minimis, Leipzigecko Acta Eruditorum-en argitaratua. Ernesto Augusto duke berriarekin (1680-1698) Leibnizen eragin publikoa areagotu zen, lehenik Hannoverren (dukearen aholkulari pribatua, Harz-eko zilar-meategietako zuzendaria, Braunschweig-Lüneburg Etxeko historialaria, Wolfenbüttel-eko bibliotekaria, etab.) eta 1690etik aurrera Europa osoan, Hannoverreko Sofia printzesaren eta haren alaba Sofia Karlota, Prusiako lehen erregina izatera iritsi zenaren babesari esker. 1700. urtean Federiko Gillermo erregeak Prusiako Gorteko Aholkulari eta Leibnizek berak sortarazitako Brandenburgeko Zientzien Akademiako Lehendakari izendatu zuen. Urte horietatik aurrera Europa osoan sona handiko jakintsua izan zen; zientzia, filosofia, politika eta diplomazia arloetan aholku eskatzen zioten Vienako enperadoreak, Errusiako tsarrak eta Danimarka, Polonia, Suedia, Italia eta Alemaniako gorteetatik; Vatikanoko hiritik ere Biblioteka Vatikanorako zuzendaritza eskaini zioten, aurrez katolizismora bihurtzen bazen; Leibnizek ez zuen baldintza hori onartu; luteranismoari zintzo eutsi zion azkeneraino.

Newtonekin eta honen jarraitzaileekin kalkulu infinitesimalari buruz izandako polemikak ekarri zion Leibnizi Hannoverreko Gortearen gaitzespena. Newtonek isilpean bultzatuta, zenbait matematikari ingeles (Fatio de Duillier, Craig, etab.) maltzurki hasi ziren salatzen, Leibnizek Newtonen fluxioen kalkulua plagiaturaz atera zuela bere kalkulu diferentziala, eta honek polemika mingotsa zabaldu zuen. Zientziaren historiak inongo zalantzarik gabe argi utzi du geroztik, bai Leibnizek eta bai Newtonek, biek ere, nork bere kalkuluak burutu zituztela, bakoitzak bere bidetik. Leibnizek bere aurkikuntza Newtonek baina zenbait urte lehenago plazaratu zuen arren, Newtonek aurkitua zuen kalkulua Leibnizek baino lehenago, garai hartako ohituren arabera isilpean gorde bazuen ere. Nolanahi ere, Royal Society boteretsuak alderdikoi jokatu zuen Newton, Elkarteko Zuzendariaren alde eta Leibnizen aurka, honen ospea iluntzeko asmotan.

Jorge, Hannoverreko dukea, 1698an Ernesto Augustoren ondoren agintea hartu zuena, Ingalaterrako Koroarako hautagaia zen eta azkenik lortu ere lortu zuen 1714an, eragozpen ugari eta gerra arriskua gainditu ondoren. Leibnizek sutsuki defendatu zuen bere dukearen kandidatura eta helburua lortu zenean, Ingalaterrako Historialari izenda zezaten eskatu zuen. Jorge I.a errege berriaren izen onari eusteko Leibnizen presentzia eraginkorra ez zen inondik inora egokia, are gutxiago Newton eta haren jarraitzaileak kontuan izanda. Jorge erregea, Galesko printzesa Karolina eta Hannoverreko Gorteko ministroak biziki saiatu ziren Leibnizen eta newtondarren arteko polemika baretzen. Eztabaida zientifiko-filosofikoa goi mailako arazo politiko bilakatu zelarik, galtzeko aukera guztiak zituen Leibnizek, batez ere Prusiako Sofia Karlota erregina eta Hannoverreko Sofia printzesa, bere babesleak, hil eta gero (1705 eta 1714). Azken honen heriotzaren ondoren Leibnizen gainbehera berehala etorri zen; erregearen izenean Bernstorff ministroak agindu zion, Braunschweig-Lüneburg Etxearen historialari lanetara soilik muga zedin. Leibniz adimen-mailarik gorenean aurkitzen zen, garai horretakoak baitira bere lan filosofikorik distiratsuenak, eta sakonena ere agian, hala

nola, Monadologia eta Naturaren eta Graziaren Printzipioak edota Des Bosses eta Clarke-rekiko harreman idatziak; baina Leibnizen ospea Hannoverren eta Londresen gainbehera ikaragarrian amildu zen, pertsonaia ez eroso ez ezik konprometigarria ere izatera iritsi arte.

Hannoverreko Gorteak ez zion hileta duinik ere antolatu. Leibniz 1716ko azaroaren 16an hil zen eta ia-ia klandestinitatean lur eman zioten; laguntaldean Eckardt, idazkari pribatua, bakarrik joan zen. Are eta gehiago, Hannoverreko Etxeak Leibnizen eskuizkribu guztiak Errege-Etxeko Artxibategi Sekretuan gordetzeko agindua eman zuen. Hori dela eta, Giza Adimenari buruzko Entseiu Berriak, Monadologia eta Metafisikari buruzko Diskurtsoa eta beste hainbat eskuizkribu zientifiko ezin argitaratu izan ziren egilea hil eta urte asko geroago arte. Von Kersland adiskideak esan bezala, "gaizkile bat bailitzan ehortzi zuten herriaren ohore izandako gizona"; eta bere lanak ere lurperatuta geratu ziren 1763 eta 1765ean (Raspe eta Dutens argitalpenei esker) idazlan filosofiko handiak argitara ateratzen hasi ziren arte. Idazlan zientifikoei dagokienez, Gerhardt-ek eman zituen lehenik argitara zazpi liburukitan (1848-1860) eta ondoren Couturat argitalpenak idazlan logiko-matematikoak (1903). Esan daiteke, egun ere ez dugula Leibnizen obra zientifikoa ezagutzen, nahiz eta azken urteotan agertu diren argitaratu gabeko gai monografikoen edizioak, hala nola, kalkulu bitarra (Zacher), determinanteak (Knobloch 1973), dinamika (Fichant), karakteristika geometrikoa (Echeverría eta Parmentier), estatistika eta jokoaren teoria (Parmentier) eta kalkulu infinitesimalaren aurkikuntza (Knobloch 1993). Beste hainbaten artean, oraindik ere argitaratu gabe daude gizarte zientzien matematizazioari buruzko testuak, teoria ekonomikoa, kontabilitatea eta enpresa-kudeaketari buruzko idazlanak, ikerketa filologikoak eta linguistikoak, eta teknika, kimika, biologia eta historiari buruzkoak.

XX. mende hasieran ekin zitzaion Akademia deritzon argitalpenari, Akademie-Ausgabe, franko-alemaniar lankidetzan, gaur egun Europa osora hedatua; bertan Leibnizen idazlan guztiak argitara eman nahi dira, ordena kronologikoz antolatuta eta gaika hiru sailetan banatuta (lehenengoan, historia, politika eta zuzenbidea; bigarrenean, zientzia eta teknika, eta hirugarrenean, filosofia); era berean, gutunezko harremanak ere antzeko beste hiru sailetan antolatuta. Ehun urte igaro dira ia, eta Akademie-Ausgabe delakoak 35 liburu baino ez ditu argitaratu hasieran aurreikusitako 80 haietatik. Argi dago gaur egun argitalpen hau ehun baino gehiago liburukik osatzen dutela. Adibidez, data zehazte eta transkripzio neketsueneko idazlan zientifikoen sailean liburu bakarra agertu da eta Parisen (1672-76) idatzitakoak soilik 8 liburuki izango direla uste da; beraz, Akademiaren lana osatzeko agian XXI. mende osoa ere joango zaigu.

Labur esanda, Leibnizen idazlan guztien argitalpena egundoko zeregina da, katedral baten eraikuntzaren antzekoa.

2. Giza Adimenari buruzko Entseiu Berriak

Teodizea, Monadologia, eta Metafisikari buruzko Diskurtsoa-rekin batera Giza Adimenari buruzko Entseiu Berriak Leibnizen lan filosofikorik gorentzat hartzen dira. Egilea hil ostean (1765) argitaratu zituen Raspek eta agertu zirenetik filosofia unibertsaleko klasikoa bihurtu zen.

Bi liburu besterik ez zituen argitaratu Leibnizek bizi zelarik: *Dissertatio de Arte Combinatoria* (1666) eta *Teodizea* (1710)¹. Lehenengoa gaztaroko lana da, eragin lulliarrez idatzia; bertan Leibnizek munduari buruzko bere ikusmolde konbinatorioa azaltzen digu: ikusmolde honetatik ondorioztatuko du gero mundu infinitu ahalgarrien tesia; adimen jainkotiarrek bururatutako amaigabeko munduak, berauetarik Jainkoak onena hautatu eta une berean sortuz, mundu erreala izatera iritsiko zena. Teodizea-k luze garatzen du lehendik Metafisikari buruzko Diskurtsoa-n azaldutako tesi leibniztar hau, eta aurrezarritako harmoniaren hipotesiarekin osatzen du. Hipotesi hau 1695ean

plazaratu zuen Naturaren eta substantzien komunikazioaren Sistema Berria izenburupean argitaratutako artikuluan². Baylek eta beste zenbaitek hipotesi honi egindako kritikei erantzunez³ idatzitako Teodizea Leibnizen lan filosofikoaren ezaugarri nagusi izan da askorentzat; ez dugu, baina, ahaztu behar Entseiu Berriak ere argitara ateratzeko idatzi eta taxutu zituela, Metafisikari buruzko Diskurtsoa eta Monadologia ez bezala, hauek pertsona berezi batzuek irakur zezaten idatzi baitzituen. Hau esatean azpimarratu nahi dugu, Entseiu Berriak Leibnizek argitalpenerako prest burututako lan bakanetakoa dugula, gero inprimatuta ikusterik izan ez bazuen ere. Entseiu Berriak liburuak Leibnizen filosofia osoa biltzen du, arreta berezia eskainiz ezagutzaren teoriari eta gaur egun mintzairaren filosofia, adimenaren filosofia eta zientziaren filosofia deritzogunari. Acta Eruditorum aldizkarian (1686) Leibnizek argitaratua zuen bere Gnoseologiaren laburpena (Hausnarketak ezagutzaz, egiaz eta ideiez), ezagutzari buruzko teoria cartesiarra kritikatzeko eta, bide nabar, 80ko hamarkadan Arnauld, Malebranche, Foucher eta beste filosofoen arteko eztabaidan parte hartu nahian idatzia⁴. Lockek 1690ean argitaratu zuen Essay concerning human understanding. Garai hartako irakurle ikasien jakin-mina berehala piztu zen liburu honen inguruan. Leibniz ez zetorren ados idazle ingelesaren tesi enpiristekin; 1695ean Oharrak bidali zizkion Thomas Burnett-en bitartez⁵. Lockek irakurri eta ez zituela oso ongi ulertu jakinarazi zionean, Leibnizek erantzuna luzatu egin zuen Essay-ari buruzko Gogoetak idatziz. Bi testu hauek eta 86ko Gogoetak osatzen dute Entseiu Berriak liburuaren hitzaurre gisakoa⁶. Lockek aitzakia adeitsuz errefusatu zuen Leibnizekiko debate pribatua; dena den, Leibnizek igorritako Gogoetak liburuko tesiekin erabateko desadostasuna azaldu zuen.

Testu horiek zabaldu eta Lockeren Essay-ari ihardespen publikoa egitera animatu zen Leibniz, ingelesaren liburua Costesek 1700ean frantsesera itzuli eta Hannoverreko printzesen modako irakurgaia eta solasgai bilakatu zenean Leibnizek haiekin eta beste gortesauekin egin ohi zituen ibilaldi filosofikoetan. Sofia printzesak horretarako baimena emanda, Leibnizek Entseiu Berriak 1703ko uztailetik 1704ko urtarrilera idatzi zuen ia etenik gabe. Argitaratu aurretik testua adiskide frantses batzuei bidali zien (Jaquelot, Hugony eta Barbeyrac) frantsesezko idazkera orraz zezaten. Leibnizek oso ongi menperatzen zuen frantsesa baina liburuak hutsik gabe eta bikain idatzia behar zuen, European ospe handiko politiko eta idazle zen Lockeri kritikak hala merezita⁷.

Testuari inprentara bidali aurreko azken ukituak egiten ari zela 1704ko urriaren 28an Lockeren heriotzaren albisteak hunkituta utzi zuen. Teofilo eta Filaletesen arteko elkarriketa zuzentzen zitzaion solaskidea hilik, Leibnizek uko egin zion memento argitaratzeari. 1709an berriro Entseiu Berriak argitaratze ahaleginetan ibili zen, arrakastarik gabe. Horrela, guztiz burututako eta zenbait aldiz zuzendutako liburua argitaragabe geratu zen, Leibnizek hil ostean utzitako eskuizkribuen multzo handia areagotuz.

Une honetan erabaki zuen Teodizea idaztea eta argitaratzea. Beraz, garaikideek ez zuten Leibniz ezagutu Entseiu Berriak liburuaren egile bezala, berak hala nahi izan bazuen ere; Teodizea-ren idazle bezala egin zen ospetsu: Jainkoaren kreazioa munduko gaitzaren, bekatuaren eta betiko kondenazioaren aurrean justifikatzen da Teodizea-n, mundu hau baita, Leibnizen ustetan, izan zitezkeen guztien artean mundurik onena, izaki infinituki on batek sortua⁸. Ideiez, ezagutzaz eta mintzairaz Leibnizen tesiak 1686an idatzitako artikuluen bidez ziren ezagunak, gero XVIII. mendean, batez ere wolffiarrek haietaz egindako berrinterpretazioaren leibnizianismo zimeldua sortaraziz, Alemaniako filosofia akademiko ofiziala bilakatu bazen ere. Leibnizek Entseiu Berriak liburuan idatzitako bere ideien azalpen argia eta osoa argitaratu gabe geratu zen. Hume

ezin izan zuen irakurri liburu hau eta Kant berak ere oso berandu eskuratu zuen, filosofia leibniztarrari buruzko ideiak ortodoxia wolfiarrak moldatuta zeuzkanean.

Entseiu Berriak elkarrizketa gisa daude idatzita. Teofilo, Leibnizen ohiko goitizena, egilearen bozeramailea da; Filaletesek ia hitzez hitz hartzen ditu Lockeren liburuko pasarteak; Entseiuaren paragrafo batzuk Leibnizek moldatu egin ditu. Leibnizen eta Lockeren pentsamenduen arteko alderatzea sistematikoa da, paragrafoz paragrafo. Entseiu Berriak, beraz, ezer baino lehenago Lockeren Entseiuari iruzkin kritikoa dira; kontuan hartzekoa da puntu hau, Leibniz une oro egokitzen baitzaio filosofo ingelesak markatutako adierazpenen ordenari, norberaren ordena proposatu beharrean. Entseiu Berriak Sofia Karlota, Hannoverreko printzesa eta Berlineko erreginari zuzenduta idatzi ziren; hori dela eta, daude ziurrenik iruzkin zehatz gisa idatzita. Baina andere hau ere 1705ean hil zen, Leibnizek bere lana burutu aurretik.

3. Ezagutzari eta mintzairari buruzko teoria leibniztarra

Entseiu Berriak liburuan

Liburu honek Leibnizen sistema filosofiko osoa biltzen duela esan dugu, elkarri sakonki lotutako atalez osatutako sistema. Labur-labur eta soilik komentatuko ditugu hemen haren tesi gnoseologikoak, mintzaira naturalei eta mintzaira formalei buruzko haren ikusmoldea bereziki. Mintzairak dira, azken finean, ezagutzaren tresna nagusia, sentimenak alde batera utzita.

Hitzaurreak erakusten digu zein testuingurutan idatzi zen liburua eta aldi berean idazlearen helburuak zeintzuk diren. Bertan aurkitzen dugu sistema leibniztarraren aurkezpen argi bezain laburra liburuaren ikuspegi berri eta bereizitiki begiratuta: pertzepzio xumeak edo pertzepzio sentiezinak. Leibnizek baieztatzen du, cartesiarren aurka, ez garela ezagutzen dugun ororen jakitun; horregatik bereizten ditu pertzepzioa eta apertzepzioa.

Bestalde, egitatezko egiak eta arrazoizko egiak daude eta era guztiz ezberdinean geureganatzen ditugu batzuk eta besteak. Egia kontingenteak (hala nola, munduaren existentzia edota beronen xehetasunak) sentimenen bidez ezagutu ditzakegu. Badira, halaber, arrazoizko egiak (logikazkoak eta matematikazkoak adibidez) eta hauen printzipioak arimak ezagutzen ditu lausoki bada ere, sentimenen premiarik gabe. Arrazoizko zein egitatezko egiak aztertzeke metodoa behar dugu, analisiaren eta sintesiaren metodoa, geometrialari greziarrek erabilia eta silogistika aristotelikoaren ezberdina. Gure pertzepzioak aztertuz, (adibidez, sentimenak baino zorrotzagoak eta ahaltsuagoak diren behaketarako eta neurtzeko tresnen bidez, mikroskopioa, teleskopioa...) argiago eta bereiziago geureganatzen ditugu egitatezko egiak. Gauza bera egin daiteke arrazoizko egiekin, baina prozedura ezberdinez. Gure ideiak hitzez adierazten direnez edota batzuetan irudiez, formula edo adierazpide matematikoez, ezagutza arrazionalako tresna horiek aztertu eta hobetu behar dira, mintzaira arruntak eta mintzaira formalak, gure ideiak bereiziagoak eta egokiagoak izan daitezen. Leibnizek analisi-metodo zehatza erabili ohi zuen horretarako, nozioen azterketa definizio bidez; honen adibide bat baino gehiago dago liburuan.

Laburbilduz, ez gara ezagutzen dugun ororen jakitun eta kontzienteki dakiguna ere ez dago gure baitan nahiko argi, nahiko bereizi, nahiko egoki. Giza ezagumena beti da hobegarri, egitatezko egien gainekoa bezala arrazoizko egien gainekoa ere; ez da, baina, ezaguera sentigarriara murrizten, Lockek baieztatzen zuenez, eta are gutxiago gure sentimenek eskaintako ezaguera sentigarriara. Gure ezaguera enpiriko eta arrazionalaren hobekuntza da zientziaren oinarria eta etengabe aurrera egin dezakegu alor horretan. Leibniz da, Baconekin batera, aurrerapen zientifikoaren aitzin defendatzaile kontsekuenteenetarikoa. Horregatik, aldi barrokoaren ordezkari handia ez ezik, pentsalari ilustratua ere badugu Leibniz. Aurrezarritako harmoniari buruzko bere

sistemak munduaren irudi biziki barrokoa eskaintzen digu: konplexua, anitza eta xehetasunik xumeenetan ere mugarik gabea.

Leibnizen ustez, zientziaren eginkizun nagusia da Karakteristika Unibertsalaren eraikuntza. Hizkuntza edo ikur-sistema bakoitza da Karakteristika jakin bat, inguratze kontzeptual sinboliko zehatz batetik mundu sentigarria eta mundu ulergarria ezagutarazten diguna. Gainera, hiztun (edo ikur-sistemaren erabiltzaile) bakoitzak eransten dio inguratze horri bere ikuspegi pertsonala eta horrela gauzatzen da mundu-ikuskera eta esperientzia zehatza. Baina beti dira hobegarri, bai ikuspegi pertsonal horiek eta bai inguru fisikoaren, giro kulturalaren eta gertatu diren garai historikoaren eraginpean dauden esparru sinboliko partzialak. Euklidesen Elementuez ari garelarik edo landare exotikoen marrazkiez edo planeten higidurez edota inguruaren gure pertzepzio partikularraz, munduari buruzko gure ezagumena beti da hobegarri, bai eta geuri buruzko ezagumena ere, batez ere horretarako metodo egokiak erabiliz. Karakteristika ezberdinak, ezagutza-sistema bakarkakoak edo konpartituak izaki, erabat birpentsatu eta aztertu behar ditugu oinarriak hedatzeko helburuaz, horrela izango baitira unibertsalagoak, ulergarriagoak, hobeto egituratuak eta bereizpenerako finagoak. Hori da matematikariaren egitekoa, mailen eta ekuazioen koefizienteen arabera konikoak sailkatzen dituenen edota matematikoki adieraztera iristen denean ordura arte ezin matematiza zitezkeen irudiak eta fenomenoak; eta antzekoa da, halaber, botanikariak edota kimikariak egiten duena, landareen edota osagarri kimikoen sailkapen sistema berria aurkitzean, batez ere ikergai guztiak zehazki eta bereiziki definituko dituen formalismoa asmatzen badu; beste horrenbeste egiten du tresna eta teknika hobeez artegaia lantzen duen artisauak. Karakteristika Unibertsalaren bilaketa da eginkizun moralik gorena, era horretan hobeto ezagutzen baitugu geure adimena (sortzetiko bere ezagutza-printzipioekin) bai eta gure ingurua osatzen duen kanpoko mundua ere. Gure asabek egindakoa (hots, irakatsi zaiguna) dugu horretarako abiapuntu betiere aldatuz hobetzeko, gure pentsaera eta gure esperientzia, banakakoa zein taldearena, mugitzen diren esparru sinbolikoa unibertsalago eta oroulerkorrago bihur dadin.

Enpiristak ez bezala, Leibniz gure sentimenen bidez jasotako esperientziaz mesfidatzen da, bai eta geure buruaz izan dezakegun berehalako ideiaz ere. Norberaren ezagutza hobia izateko, izadia eta bizi garen garaia hobeto ezagutzeko, gudanaino iritsi dena aztertu eta hausnartu egin behar da. Azterketa hori metodikoa den heinean, berak eramango gaitu printzipio zabalago eta orokorragoetara, eta gai egingo gaitu hobeto ikusteko, hobeto ebazteko, hobeto oroitzeko eta, batik bat, hobeto asmatzeko. Zientzia munduaren bilakaera progresiboa da, eta mundutzat hartzen dugu norbanako gisa eratzen gareneko mikrokosmosa, biztanle edo hiritar garen herrialdeko mesokosmosa eta gizaki gareneko makrokosmosa. Ezagutza hobearen bilaketak mundua aldatzen du, hartaz ohartezineko modu xumean bada ere.

Izaki bizi batzuen eta besteen ekarpen infinitesimalez eraikitzen da izan daitezkeen munduetarik onena, ahalik eta neurririk bikainenean mundua hobetu nahian euren buruak eta euren ingurua ondoen ezagutzen saiatzen diren izaki bizi batzuen eta besteen ekarpenez alegia.

4. Entseiu Berriak, lehenbizikoz euskaraz

Leibnizek hizkuntza eta ikur-sistema ezberdinei ematen zien garrantzia kontuan hartuta, hauen existentzia ez baita inoiz ere eraginik gabea, munduaren eta geure buruaren azterketa sistemak direlako, azpimarratzekoa da liburu hau hizkuntza "bizkaitarrera", Leibnizek zeritzenez, itzultzeak duen garrantzia. "Project de descente en Viscaye", Leibnizek bere dukearentzat idatzi eta oraindik argitaratu ez den txostenaz gain eta Euskal Herriarekin zerikusirik duten arazo historikoez izan daitezkeen beste

eskuizkribuak ahaztu gabe, badakigu euskarak jakin-mina sortarazi ziola eta noizbait Gure Aita euskaraz eskatu zuela (beste hainbat hizkuntzatan bezala) eta katixima edo hiztegiren bat ere, ahal izanez gero. Karakteristika Unibertsalaren egitasmoak hizkuntza guztien eta hiztegi guztien azterketa eskatzen du, batez ere haien egitura sintaktikoak eta obra horietan ager daitezkeen landareen, animalien, gauzen, tresnen eta abarren definizioak eta deskribapenak ikertzeko. Hiztegi edo Entziklopedia Unibertsala, Leibnizen esanetan, kultura ezberdinek munduaz oro har eta zehazki euren inguruaz dituzten ezagupenak bilduko lituzkeen sintesi-lana litzateke. Ezberdintasunaren baina aldi berean integrazioaren pentsalari handietarikoa delarik (bere lan matematiko nagusia "kalkulu diferentziala eta integrala" da), Leibnizen ustez beti da aipagarri hizkuntza batean idatzitako lana beste hizkuntza batera itzultzea. Berak defendatutako substantzien arteko interkomunikazio-sisteman, euskaraz mintzatzen direnek Entseiu Berriak edo beste edozein obra filosofiko euren hizkuntzan irakurri ahal izatea beti da hobestekoa. Bestalde, liburu baten itzulpenak beti erakartzen ditu termino berriak xede hizkuntzara, bai eta hizkuntza horren kultur altxorra aberastuko duten ideia berriak ere. Horregatik,

Leibnizen obra euskaratzean (eta euskaraz irakurtzean) Karakteristika Unibertsala eraikitzen ari gara, hizkuntzek osatzen dituzten Karakteristika zehatzen arteko interkomunikazioaren bidez.

Itzulpen lan honi esker, lehenbizikoz bilakatzen da Leibniz euskaldun, idatziz baino ez bada ere eta haren heriotzaz gero 280 urte igaro direlarik. Ospatzekoa da topaketa hau, Leibnizen irudiari bezainbeste mesede egiten baitio euskarari eta euskal kulturari.

Javier ECHEVERRÍA

Oharrak

¹ Novissima Sinica (1697) ere, Txinari buruzko berri damaiguten zenbait dokumentu, Leibnizek argitaratu zuen baina argitaratzaile soil gisa. Garai hartako aldizkari filosofiko eta zientifikoetan artikulu ugari argitara eman zuen Leibnizek eta bere gutunei erantsita testu garrantzitsuak igorri zituen. Hala eta guztiz ere, gaurko ikuspegitik begiratuta, Leibnizen lan zientifikorik garrantzitsuena bere artxibo pribatuan geratu zen argitaratu gabe.

² Artikulu hau Journal des Savants aldizkarian agertu zen, idazlearen izenik gabe. Foucherrek egindako kritiken ondoren aurrezarritako harmoniaren nozioa Leibnizek aldizkari berean 1696an argitara emandako Eclaircissement batean azaldu zen, bai eta garai hartako Leibnizen gutun-harreman pribatuan ere (L'Hôpital, Basnage de Beauval, Coussin, etab.).

³ Robert Bayle pentsalari eszeptikoak 1695/97an plazaratu zuen bere Dictionnaire Historique et Critique ospetsuaren lehen argitalpena eta bertan

"Rorarius" artikuluan luze-zabal komentatzen du Leibnizen pentsamendu filosofikoa. Bayleren Hiztegiak eragin handia izan zuen garai hartan. Bigarren argitalpenean Baylek hobetu egin zituen bere argudioak, Leibnizek Journal des Savants aldizkarian argitara emandako Eclaircissements-ak kontuan harturik. Egilearen asmotan Entseiu Berriak izanen ziren aurrezarritako harmoniaren sistemaren aurkezpen publiko horien burutze lana. Eskuizkribua bera ere "aurrezarritako harmoniaren egileak" sinatuta geratu zen.

⁴ Gizakien ideien jatorria eta eraketari buruzko eztabaida.

⁵ Burnett izan zen Lockeren Entseiu kritikatu zuten lehenetariko bat. Hannoverrera etorri ohi zen noizean behin eta Leibnizen korrespontsal bat izan zen.

⁶ Leibnizen obren Akademie-Ausgabe-n bi testu horiek Entseiu Berriak agertzen den liburuki berean kokatu dituzte, liburu honen lehen idazkeraren zati bailiran.

7 Entseiu Berriak testu frantsesaren argitalpen kritikoetan (Robinet eta Scherer Akademie-n II, 6) estilo-zuzenketa horiek gabe agertzen da, edota batzuetan orriaren behealdean agertzen dira zuzenketak; testu ka-

nonikoa, beraz, Leibnizen eskuizkribua da, inongo ukitu estilistikorik gabe.

⁸ Teodizea ere aurrezarritako harmoniaren egileak sinatu zuen.

Bibliografia

Leibnizi buruzko gaztelaniazko

liburuak:

E.J. AITON: Leibniz. Una biografía. Madrid, Alianza, 1992.

G. DELEUZE: El pliegue. Leibniz y el Barroco, Barcelona, Paidós 1989.

J. ECHEVERRÍA: Leibniz. El autor y su obra. Barcelona, Barcanova, 1981.

F. MARTÍNEZ MARZOA: Cálculo y ser: aproximación a Leibniz, Madrid, Visor, 1991.

J. ORTEGA Y GASSET: La idea de principio de Leibniz y la evolución de la teoría deductiva, Madrid, Alianza, 1979 (berrinpr).

J. DE SALAS: Razón y legitimidad en Leibniz. Una interpretación desde Ortega. Madrid, Tecnos, 1994.

M. SÁNCHEZ-MAZAS: Fundamentos matemáticos de la lógica formal, Venezuela, Universidad de Caracas, 1964.

Leibnizi buruzko frantsesezko

liburuak:

Y. BELAVAL: Leibniz, critique de Descartes. Paris, Gallimard, 1960.

Y. BELAVAL: Etudes leibniziennes. Paris, PUF, 1976.

L. COUTURAT: La logique de Leibniz d'après des documents inédits. Paris 1903 (berrinpr. Hildesheim, Olms, 1969).

M. DASCAL: La sémiologie de Leibniz, Paris, Aubier-Montaigne, 1978.

F. DUCHESNAU: Leibniz et la méthode de la science. Paris, PUF, 1993.

M. GUÉROULT: Leibniz, Dynamique et Métaphysique. Paris, Aubier-Montaigne, 1967.

A. ROBINET: Malebranche et Leibniz. Paris, Vrin, 1955.

M. SERRES: Le système de Leibniz et ses modèles mathématiques. Paris. PUF, 1968, 2 libk.

Leibnizi buruzko ingelesezko liburuak.

A.R. HALL: *Philosophers at War: the Quarrel between Newton and Leibniz*. Cambridge, Cambridge University Press, 1980.

H. ISHIGURO: *Leibniz's Philosophy of Logic and Language*. Cambridge, Cambridge University Press, 1990 (2. ed.).

I. LECLERC (de): *The Philosophy of Leibniz and the Modern World*, Nashville, Vanderbilt University Press, 1973.

B. MATES: *The Philosophy of Leibniz*. Oxford, Oxford University Press, 1986.

G.H.R. PARKINSON: *Logic and Reality in Leibniz's Metaphysics*. Oxford, Clarendon Press, 1965.

N. RESCHER: *Leibniz's Metaphysics of Nature*. Dordrech, Reidel, 1981.

N. RESCHER (de.): *Leibnizian Inquiries*. Lanham, University Press of America, 1989

B. RUSSELL: *A critical exposition of the philosophy of Leibniz*, Londres, 1990.

Leibnizi buruzko alemanezko

liburuak:

H. BURKHARDT: *Logik und Semiotik in der Philosophie von Leibniz*, München, Philosophia Verlag, 1980.

E. CASSIRER: *Leibniz' System in seinen wissenschaftlichen Grundlagen*, Hildesheim, Olms, 1980.

W. KABITZ: *Die Philosophie des jungen Leibniz*. Heidelberg, 1909 (berrinpr. Hildesheim, Olms, 1974).

R. KAUPPI: *Über die leibnizsche Logik*, Helsinki, Societas Philosophica, 1960.

D. MAHNKE: *Leibnizens Synthese von Universalmathematik und Individual Metaphysik*, Halle, M. Niemeyer, 1925.

K. MÜLLER: *Leibniz-Bibliographie*. Frankfurt, Klostermann, 1984.

K. MÜLLER eta G. KRÖNERT (eds.): *Leben und Werk von G.W. Leibniz: eine Kronik*. Frankfurt Klostermann, 1969.

W. TOTOK eta C. HAASE (eds.): *Leibniz: sein Leben, sein Wirken, seine Welt*. Hannover, Verlag für Literatur, 1966.

Leibnizen testuen gaztelaniazko

itzulpenak:

Obras (itzul. P. de Azcárate), Madrid, 1877.

Teodicea (itzul. E de Ovejero), Madrid, Aguilar, 1928.

Discurso de Metafísica (itzul. J. Marías), Madrid, Revista de Occidente, 1942, berrinpr. Madrid, Alianza, 1982.

Verdad y Libertad (itzul. F. Soriano-Gamazo), Puerto Rico, Universidad de Puerto Rico, 1965.

Nuevos Ensayos sobre el conocimiento humano (itzul. J. Echeverría), Madrid, Editora Nacional, 1977; berrinpr. Madrid, Alianza, 1993.

Escritos Políticos (itzul. J. de Salas), Madrid, Centro de Estudios Constitucionales, 1979.

La polémica Leibniz-Clarke (itzul. E. Rada), Madrid, Taurus, 1980.

Monadología (edizio hirueleduna J. Velardenen ardurapean), Oviedo, Pentalfa, 1981.

Escritos Filosóficos (de. E. de Olaso), Buenos Aires, Charcas, 1982.

Análisis infinitesimal (itzul. T. Martín Santos), Madrid, Tecnos, 1987.
Escritos de Filosofía Jurídica y Política (itzul. J. de Salas), Madrid, Editora Nacional, 1984.
Escritos políticos II (itzul. E. Tierno Galván eta P. Mariño), Madrid, Centro de Estudios Constitucionales, 1985.
Filosofía para princesas (itzul.
J. Echeverría), Madrid, Alianza, 1989.
Escritos en torno a la libertad, el azar y el destino (itzul. R. Rodríguez Aramayo eta C. Roldán), Madrid, Tecnos, 1990.
Escritos de dinámica (itzul. J. Arana eta M. Rodríguez), Madrid, Tecnos, 1991.

Egilearen hitzaurrea

Adimenari buruzko Entseiuia, ingeles ospetsu batek idatzia, garai hauetako obrarik eder eta estimatuenetariko bat delarik, hari ohar batzuk egiteko erabakia hartu dut, zeren eta han ukitzen den gaiaz beraz eta bertan tratatzen diren materiari gehienetaz aspalditik aski hausnartua naizelarik, abagune aparta izan litekeela pentsatu baitut Giza adimenari buruzko entseiu berriak izenburupean zerbait argitara emateko; horrela, nire pentsamenduei irtenbide egokia erraztuko nieke, halako laguntza paregabea. Inoren lanaz profitatu nahi izan dut, ez nirea murrizteagatik bakarrik (errazago baita betiere idazle on baten lorratzari jarraitzea, ildo erabat berriak urratzen hastea baino), bai eta hark emandakoari zertxobait gehitzeko ere, samurrago baita hau, hutsetik norbera abiatzea baino; hark azaldu ere ia egiten ez dituen zailtasun batzuk gainditu ditudala uste dut. Haren ospea nire mesedetan da; eta bestalde, nire baieztapenak pisurik balu, ospe hura areagotu liteke, gogoan baitut justizia egitea eta nire asmotik urrun dago obra horrek lortu duen estimua murriztea. Egia da sarri ez gatozela biok bat, baina idazle trebe haren merituei ezer ukatu barik, ohore egiten diot aditzera ematean zertan eta zergatik urruntzen naizen haren irizpidetik, funtsezko zenbait puntutan bere jakituriak arrazoa gailen dezan eragotzi beharra ikusten dudanean; gainera, gizon bikain hauek abonatzear, egiaren aurkikuntza errazagoa izan dadin lortzen da, eta funtsean egiaren ildotik dihardutela pentsatu behar dugu.

Nolanahi den ere, Entseiuaren egileak milaka gauza eder eta niretzat txalogarri esaten dituen arren, gure sistemak arras bereizten dira bata bestetik. Harena gertuago dago Aristotelesengandik, nirea, berriz, Platonengandik; bi-biok ere sarritan urruntzen gara, baina, bi zahar horien doktrinatik. Hura herrikoiagoa da, ni, aldiz, batzuetan apur bat akroamatikoago¹ eta abstraktuago izatera bortxatuta aurkitzen naiz, eta hau ez da nire mesedetan, batik bat hizkuntza bizi batez idazten ari naizelarik. Halere, bi pertsona solasean jartzean, bata idazle horren Entseitutik ateratako iritziez, eta bestea nireak hari erantsiz, kontra-jartze hori irakurlearen gustukoago izanen dela uste dut, ohar soilak baino; nire ohar soilen irakurketa behin eta berriro eten beharrekoa izango baitzen, haren liburura jotzeko, nirea ulergarri gerta ledin. Hala eta guzti, ongi legoke gure izkribuok noizbehinka parekatzea eta haren irizpideez epairik ez egitea, jatorrizko bere obratik izan ezik, ni, oro har, haren espresioak errespetatzen saiatu banaiz ere. Egia da, inoren diskurtsoaren hariari oharra eginez jarraitu beharraren poderioz ezin izan dudala elkarrizketaren bizitasuna lortu; baina gaiak beteko duela, espero dut, formaren hutsune hori.

Garrantzizko gaietan dauzkagu elkarren arteko diferentziak. Jakin beharrekoa baita, ea arima erabat hutsa den berebaitan, idatzirik gabeko xaflak bezala (tabula rasa) Aristotelesi² eta Entseiuaren egileari jarraiki, eta bertan itsatsita dagoena sentimenetatik eta esperientziatik soilik sortzen ote den; edota, ea arimak badauzkan sortzetik zenbait nozio eta doktrinen printzipioak, kanpoko objektuek noizbehinka iratzarri besterik egingo ez dituztenak, nik neuk hala uste baitut Platonekin eta Eskolarekin bat, bai eta Paulo Donearen pasarte (Rom. 2, 15)³ zentzu honetan ulertzen dutenekin; bertsikulu horretan azpimarratzen baitu Jainkoaren legea bihotzetan dagoela idatzita. Printzipio hauei Proleptikoak deitzen diete estoikoek, esan nahi baita, oinarrizko geureganatzeak, edo aurrez baieztatutaz hartzen dena. Matematikariek Nozio orokorrak deitzen diete (κοινὰς ἐννοιας)⁴. Filosofo modernoek beste zenbait deitura politez izendatzen dituzte, eta Jules Scaliger-ek bereziki deitzen zien Semina aeternitatis edo zopyra⁵, zera adierazi nahian:

su biziak, gure baitango ezkutuko argi-zirrimarrak, sentimenekiko topaketak sortzen dituenak, tiroak fusiletik jaulkitzen dituen txinpartak bailiran. Eta uste dugu, ez arrazoirik gabe, argitasun horiek jainkozko zerbait betierekoa nabarmentzen dutela, halabeharrezko egiatan batik bat agertzen dena. Beste galdekizun hau datorkigu hortik: jakitea, alegia, ea egiak oro esperientziaren menpe dauden, hots, indukzioaren eta adibideen menpe; edota bestelako oinarriarik duen egia ba ote dagoen. Gertakizun batzuk, izan ere, haiek egiaztatu baino lehen aurrikus badaitezke, argi dago guk geure aldetik nolabait han parte dugula. Sentimenak, ezinbestekoak izaki gure gaurko ezagupen guztietarako, ez dira berez aski guri ezagutze oso hori eskaintzeko, ez baitigute adibideak baino ematen, hau da, egia partikular eta banakakoak. Beraz, egia orokor bat baiesten duten adibide oro, zenbatnahi izanda ere, ez dira aski, ez eta egia beronen beharrian unibertsala erabakitzeke, ez baita ondorio zilegia, inoiz gertatua era berean berriro gertatuko dela baieztatzea. Esate baterako, grekoak eta erromatarrak eta lur ezagunean diren gainontzeko herriak betidanik ohartu dira 24 ordu segidan iraun aurretik eguna gau bihurtzen dela eta gaua egun. Baina oker geundeke sinetsiko bagenu nonahi arau berau betetzen dela; kontrakoa gertatzen baita Lur Berrian⁶. Oker legoke, orobat, gurea moduko klimetan bederen hau halabeharrezko eta betiereko egia dela uste duena, zeren eta pentsatu behar baitugu lurra eta eguzkia bera ere ez direla besterik ezinean existitzen, eta agian etorriko dela garaien bat, non izar eder hori izanen ez den, gutxienik oraingo moldean, ez eta bere sistema osoa ere. Horregatik, badirudi halabeharrezko egiek, matematika hutsetan eta bereziki aritmetikan eta geometrian aurkitzen direnek, printzipioak eduki beharko dituztela eta hauen frogak ez dagoela adibideen menpe, ez eta sentimenen testigantza pean; baina egia da, baita ere, sentimenik gabe ez litzaigukeela sekulan haiez pentsatzea otuko. Ongi bereizi beharrekoa da Euklidesek hain ongi ulertu zuena, alegia, berak arrazoi bidez frogatzen duela sarri esperientziaz eta irudi sentikorren bidez aski ikusten dena. Logika, metafisika eta moralarekin batera, batak teologia gauzatzen duenarik eta besteak jurisprudentzia, zein baino zein naturalagoak biak, denak mota horretako egiaz josita daude eta, ondorioz haien frogak derrigorrez etorri beharko da sortzetiko deritzegun barne printzipioetatik. Pentsatu ezinezkoa egiten zaigu, arrazoiaren betiereko arau hauek ariman, liburu batean bezala, irakurtzeko modukoak izatea, pretorearen ediktua bere album-ean lanik eta nekerik gabe irakurtzen den moduan; baina aski dugu geuregan arretaz edireitearekin, horretarako sentimenek eskaintzen baitituzte aukerak; eta horrela esperientziaren arrakastak arrazoiak sendotzen du, gutxi gora-behera aritmetikan frogak kalkulu errakuntzak ekiditeko balio duten era beretsuan, arrazoiak luze jotzen duenean. Honetan bereizten dira gizakien eta piztien ezaguerak: piztiak enpiriko hutsak dira eta adibideetan soilik oinarritzen dira, ez baitira inoiz halabeharrezko proposiziorik osotzera iristen; gizakiak, aldiz, zientzia frogagarrietarako gai dira. Horra zergatik piztien baitan ondorioak ateratzeko gaitasuna gizakiek daukaten arrazoimenaren baino eskasagoa den. Piztiak ateratzen dituzten ondorioak enpiriko soilen berdin-berdinak dira; uste baitute hauek, inoiz gertatua berriro ere gertatuko dela antzeko zerbaitek hunkituko dituenan, lehengo kausa beraiek ba ote dirauten bereiztera iritsi ezinik. Horregatik zaie hain erraz gizonei piztiak harrapatzea, erraza den moduan enpiriko soilak tronpatzea. Adinaz eta esperientziaz ikasi dutenak ere arrisku berean daude eta hala gertatu zaio askotxori hiriko eta militar arazotan, ez baita nahiko kontuan izaten mundua aldakorra dela, eta gizakiak gero eta trebeagoak, eta trikimailu berriak asmatzen dituztela; gaur eguneko oreinak eta erbiak, aitzitik, ez dira iraganekoak baino maltzurragoak. Piztiak ateratzen dituzten ondorioak arrazoinamenduaren itzala besterik ez dira, hau da, irudimenaren loturak, eta irudi batetik hurrengora bidea, zeren eta aurrekoaren antzeko dirudien egokieran, inoiz lotuta aurkitzen zena berriro hala aurkitzea espero da, gauzek errealitatean, euren irudiak oroimenean hala egonagatik,

lotuta egon beharko balute bezala. Egia da, bai, arrazoimenak aholkatzen duela iraganeko esperientzia luzeari dagokiona espero izatea etorkizunean berriro ere hala gertatzea, baina ez da horregatik halabeharrezko eta hutsezinezko egia, eta gutxien uste denean huts egin dezake, bere horretan eutsi dioten arrazoiak alda daitezenean. Horra zergatik zuhurrenak ez diren gehiegi fido eta egintzaren kausetan zer bait sakontzen saiatzen diren (ahal denean), salbuespenak noiz egin jakiteko. Arrazoimena soilik baita gai arau seguruak finkatzeko eta seguruak ez zirenak osagarri hornitzeko, salbuespenak eginez; eta gai da, baita ere, egiazko loturak aurkitzeko ezinbesteko ondorioen indarrean, eta honek ematen digu bide sarritan, gertakizuna aurrikusteko irudien arteko sentipenezko lotura esperimendatu beharrik gabe; hauetara murrizten dira piztiak, halako moldez, non nahitaezko egien barne printzipioak justifikatzen dituen baita era berean gizakia eta piztia bereizten dituen ere.

Ez da agian gure idazle prestua erabat urrunduko nire pentsakeratik. Zeren eta bere lehen liburu osoa sortzetiko argiak, nolabaiteko zentzutan ulertuak, ukatzeko erabili badu ere, aitortzen du bigarrenaren hasieran eta jarraian, jatorria sententzioan ez duten ideiak hausnarketatik datozela. Hausnarketa bera, gure baitan dagoenari arreta besterik ez da, eta sentimenek ez digute inondik ere emango lehendik geure baitan dagoaguna. Gauzak horrela, uka al daiteke gure izpirituan sortzetiko ugari dagoela, nolabait esateko gero ere geurekiko sortzetikoak garelako? Eta geure baitan dagoela Izate, Batasun, Substantzia, Iraupen, Aldakuntza, Ekintza, Pertzepzio, Plazer eta beste hainbat, gure adimenezko ideien objektu direnak? Eta objektu hauek, arartegabekoak izaki eta beti gure adimenean daudelarik (horretaz beti ohartzen ez garen arren, gure distrakzio eta beharrianen poderioz), zergatik harritu zera diogunean, alegia, ideia horiek sortzetikoak ditugula, beraien menpe dagoen guztiarekin? Marmolezko marradun harriaren adibideaz baliatzea nahiago izan dut, marmolezko harri trinkoarenaz baino, edota ohol xafla hutsarenaz, filosofoek tabula rasa deritzotenaz. Arima ohol xafla huts horien antzekoa balitz, egiak gure baitan egongo lirake Herkulesen irudia marmol harritzarrean bezala, berdin-berdin zaiolarik marmolari irudi hau edo beste edozein bereganatzea. Baina harriak edukiko balitu marra batzuk Herkulesen irudiari beste edozeini baino hobeto lihoazkiokkeenak, harri hau horretara bideratuago legoke eta Herkules nolabait harriari sortzetikoa litzaioke, nahiz eta gero nekeak kostata marrak azaleratu, leunduz, garbituz, trabak kenduz nabarmen gera dadin. Halaxe zaizkigu sortzetikoak ideiak eta egiak, berezko joera, jarrera, ohitura edo birtualtasun natural gisa, eta ez ekintza gisa, birtualtasun horiei beti ekintzaren batek, sarritan ohartezina izan arren, laguntzen badie ere.

Ezer birtualik ez dagoela guregan erakutsi nahi digu, antza, gure idazle trebeak, ez eta deus, zeinaren apertzepziorik izan dezakegun une oro, aktualki; baina ezingo du hau nahitaezkoz hartu, bere iritziak paradoxikoegiak izan daitezen nahi ez badu, zeren eta hartutako ohiturei eta gure oroimenean metatuta dagoenari ere ez baitiogu beti erreparatzen, eta haien premian gaudenean ez datoz beti gure laguntzan, gero haiek gogoraziko dizkigun ezein une aldakorretan izpirituak aise bereganatuko dituen arren; hala nola, abestia gogora ekartzeko honen hasiera aski dugun. Beste zenbait lekutan ere mugarrizten du hark bere tesia zera esanaz, alegia, gure baitan ez dagoela ezer, inoiz hartaz ohartu ez garenik. Baina arrazoimen soilez inortxok ere ziurtatu ezin izateaz aparte, noraino joan zitezkeen guk ahaztuta dauzkakegun iraganeko pertzepzioak (batez ere platonikoen oroitzapenari jarraiki, honek, guztiz alegiazko izanda ere, ez baitauka deus elkartu ezinezkorik arrazoimen hutsarekin), horrez aparte, diot, zergatik behar dugun oro geureganatu kanpoko gauzen pertzepzio bidez eta ezin den ezer ere geure baitan aurkitu. Gure arima ote da soilik hain hutsa, kanpotik hartutako irudirik gabe ez dela deus? Ez da hori (ziur nago) gure idazle prestuak onar dezakeen irizpidea. Non

aurki daitezke berez nolabait bereziak ez diren ohol-xaflak? Ez dugu eta inoiz ikusiko bete-betean bat eta uniforme den gainazalik. Zergatik litzaiguke, beraz, ezinezko geure altxor propiotik guri geuri pentsakizun gairen bat eskaintzea, guk bertan sakondu nahi izanez gero? Horrela bada, nire ustetan, puntu honi buruz sakonean haren pentsakera ez da nireagandik, hobe esan, iritzi orokorretik urruntzen, berak ere aitortzen baititu gure ezaguerentzat bi iturburu: sentimenak eta hausnarketa.

Ez dakit aise izango ote zaigun hura gurekin eta kartesiarrekin ados jartzea, izpirituak ez duela beti pentsatzen baieztatzen duenean eta, bereziki, segurtatzen duenean ametsik gabe lo gaudelarik izpirituak ez duela pertzepziorik, eta argudiatzen du, ezen nola gorputzak izan daitezkeen higidura gabe, hala arimak ere pentsamendurik gabe. Ohikoa ez den eran erantzuten diot nik honi. Neuk ere mantentzen baitut bere izakeraz iharduerarik gabeko substantzia batek ezinezkoa duela izatea, are eta ez dagoela higidura gabeko gorputzik. Dagoeneko nire alde daukat esperientzia eta aski da kontsultatzea atsedean absolutuaren aurkako Boyle jaun ospetsuaren liburua⁷, horretaz sinetsirik egoteko, baina nire ustez arrazoimenak areago frogatzen du eta hauxe da, hain zuzen, atomoak birrintzeko daukadan frogetariko bat.

Bestalde, milaka dira zantzuak, gure baitan uneoro amaierarik gabeko pertzepzioak daudela pentsarazten digutenak, baina apertzepziorik eta hausnarketarik gabe, hots, arima berean guk antzematen ez ditugun aldakuntzak, inpresio txikiegiak eta ugariegiak direlako, edota trinkoegiak, non eta banan-banan ezer bereizgarriarik ez daukaten, baina elkarri lotuta egonagatik euren eragina dute eta multzoan nabarmentzen dira, nahasian bada ere. Horrela gertatzen da, ohituraren poderioz, ez diogula arretarik ipintzen errotaren mugimenduari edota urjauzi bati, alboan aldi batez bizi izan garelarik. Ez da, mugimendu horrek ez duelako etengabe gure sentimenetan eraginik eta jarraian arimak ez dielako inpresio hauei erantzuten, arima eta gorputzaren arteko harmonia dela medio; baizik eta ariman eta gorputzean dauden inpresioak, berritasunaren xarmarik gabe, ez dutela indar nahiko gure arreta eta oroimena erakartzeko eta hauek ardura handiagoko objektuetara jotzen dutela. Arreta orok oroimena eskatzen du, eta nolabait esateko, uneko gure zenbait pertzepziori adi egoteko prest ez gaudenean, hausnarketa barik joaten uzten diegu, are haietaz ohartu ere gabe; baina berehala norbaitek ohartarazten badigu, adibidez, entzun berri den hotsen batez, gogoratzen dugu eta ohartzen gara arestian haren inpresioen bat izana. Une berean atzeman ez ditugun pertzepzioak ziren, baina apertzepzioa kasu honetan gertatzen zen ohar baten bidez, txikia izanagatik ere aldiune baten ondoren. Multzoan bereizi ezinezko pertzepzio txikiei buruz oraindik hobeto arrazoitzeko, ertzetik antzematen den itsasoaren marrua edo burrunbaren adibidea erabili ohi dut. Marru hori den moduan entzuteko, erabatekoaren atal osagarriak oro entzun behar dira, hots, olatu bakoitzaren soinua, soinu txiki hauetariko bat ere bereiziezina izan arren gainontzeko guztiek elkarrekin osotzen duten multzo nahasitik, hau da, marrutik at, ez baitzen nabarmenduko olatua soilik entzungo baten. Olatu horren mugimenduak norbera zertxobait uki dezan behar da eta, txikietan txikiena izan arren, hots bakoitzaren pertzepzioren bat sentitzea; bestela, ehun mila olaturena ere ez genuke entzungo, ehun mila ezdeusek ezin baitute zer bat osotu. Ez gaude, bestalde, inoiz hain sakon lotan, non inpresio arin, lausoren bat ez dezakegun soma, eta munduko zaratarik handienak ere ez gintuzke iratzarriko, haren hasiera apalaren pertzepziorik ez bagenu, soka inoiz etengo ez litzatekeen moduan munduko eraginik handienarekin ere, hura aurrez ahalegin apalagoz apur bat luzatu eta teinkatu ez balute, nahiz eta atezu apal hau nabarmen ez geratu.

Uste baino eragin handiagokoak dira pertzepzio xume hauek. Beraiek eragiten dituzte zera horiek, gustu horiek, sentimenen koalitteen irudi horiek, multzoan argiak direnak baina atalka nahasiak, inguratzen gaituzten gorputzek amairik gabe gudan eragiten

dituzten inpresio horiek, izaki bakoitzak unibertsoarekin duen lotura hori. Esan daiteke, beraz, pertzepzio txiki horien ondorio gisa, orainaldia geroaren irrikaz dagoela eta iraganaz beteta, oro dela konspiratzaile (*συνπνστω παντα*, Hipokratesen hitzetan) eta Jainkoarenak bezain begi zorrotzak substantziarik txikienean ere irakurri ahal izango zukeela unibertsoko gauzen ibilbide osoa.

Quae sint, quae fuerint, quae mox futura trahantur.⁸

Gainera, pertzepzio sentigaitz hauek markatzen dute eta gauzatzen norbanakoa bera, eta norbanako honen aurreko egoeratik haiek mantentzen dituzten aztarnai esker karakterizatzen dute, beronen oraingo egoerarekiko lotura eginez; aztarna hauek goi izpirituarentzat dira ezagugarri, norbanakoak berak sentitzen ez baditu ere, hau da, haien oroitzapen zehatza galdua izan arren. Baina pertzepzio hauek oroitzapen hura berraurkitzeko aukera ematen dute, egunen batean suerta daitezkeen aldizkako bilakapenen bidez, hala behar izanez gero. Horra zergatik heriotza ezin izan daitezkeen ametsa besterik eta amets gisa ezin duen iraun, pertzepzioak aski zehatzak izateari uzten baitiote, animalengan apertzepzioa deusezten duen nahasmendu egoerara murrizten direnean soilik, baina honek ezin dezake betiko iraun; ez gara hemen gizakiaz ari, abantaila handiak behar baititu honek bere nortasun propioari eusteko.

Hautemate sentiezin bidez azaltzen da baita ere gorputza eta animaren arteko aurrezarritako harmonia miresgarria, bai eta Monada edo substantzia bakun ororen artekoa; harmonia honek ordezkatu du elkarrekiko eraginaren teoria eutsiezina eta, hiztegirik ederrenaren egilearen iritziz⁹, jainkozko perfekzioen handitasuna goraltzen du orain arte sekulan sumatu dena baino areago. Gutxi erantsiko nioke esandakoari, zera azaldu eta gero, alegia, pertzepzio txiki hauek direla gu sarri askotan baldintzatzen gaituztenak ustekabea, eta orekaren indiferentzia itxuraz iritzi arrunta tronpatzen dute, berdin bailitzaigun, adibidez, ezkerretara zein eskuinetara jo. Ez dut, halaber, hemen azpimarratu beharrik, liburuan ere egina baitut, pertzepzio txiki beraiek direla kezka horren eragile, nik erakusten baitut hura dela oinazetik bereizten ez den zerbait, txikia eta handia bereizten ez diren bezalaxe, eta hala ere, gure desira eta plazerra eragiten dituela, horien gatz-piperrarena eginez. Orobat, gure pertzepzio sentigarrien atal sentiezinazkoek harremana sortzen dute kolore, hotz-bero eta beste koalitate sentikorren pertzepzioak eta haiei erantzuten dieten gorputzen mugimenduen artean, eta ez, kartesiarrek eta gure idazleak berak ere, hain zorrotza izan arren, uste dutenaren arabera, hauen iritziz koalitate horietaz ditugun pertzepzioak arbitrarioak-edo baitira, hau da, Jainkoak bere gustura arimari eskaini balizkio bezala, inondik ere kontuan izan gabe pertzepzio horien eta beraien objektuen arteko harreman esentziala: pentsakera honek harritzen nau, eta harmoniarik eta arrazoirik gabe deus ere egiten ez duen gauzen egilearen jakiturari ez doakiola deritzot.

Laburbilduz, sentitu ezinezko pertzepzioak hain erabilgarriak dira Pneumatikan¹⁰, nola Fisikan sentitu ezinezko gorpuzkuluak, eta hain da arrazoigabeko batzuk zein besteak gaitzestea, gure sentimenen eskumenetik kanpo dauden aitzakiapean. Deus ez da bat-batean egiten, eta nire esakera handi eta egiaztatuenetariko bat da naturak ez duela inoiz jauzirik egiten; Jarraiaren Legea deitzen nion nik horri, horretaz inoiz ihardun nintzenean *Nouvelles de la République des lettres*¹¹ delakoan, eta lege horrek oso kontuan hartzeko erabilgarritasuna dauka Fisikan: lege horren arabera, txikitik handira bidean eta alderantzizkoan beti tartekotik pasa beharra dago, bai gradutan, bai ataletan, eta mugimendua ez da sekulan berehalakoan sortzen atsedenetik, ez eta atsedenera murrizten, mugimendu txikiago baten bidez izan ezik, inoiz ere lerro edo luzera bat ibiltzea burutzen ez den moduan, aurrez lerro laburragoa ibili ez badugu. Eta hau guztia, mugimenduaren legeak ezarri dituztenek arau hau erakutsi ez duten arren, sinetsirik baitzeuden gorputz batek beregana dezakeela supituki mugimendu bat, aurrekoaren

kontrakoa. Honek pentsarazten digu pertzepzio ohargarriak ere ohartzeko txikiegiak direnetatik datozela, mailaketa bidez. Beste nolabait pentsatzea, beti eta nondik-nahi amaigabetasun aktuala inguratzen duen neurrigabeko sotiltasuna eskas ezagutzea litzateke.

Halaber, adierazi dut, sentiezinezko aldakuntzen poderioz banakako gauza bi ezin daitezkeela erabat berdinak izan, eta kopuruz ezezik, beste zerbaitetan ere bereizi behar dutela; honek suntsitzen ditu arimako ohol xafla hutsak, pentsamendurik gabeko arima, eraginik gabeko substantzia, espazioko hutsunea, atomoak eta materiaren beste atalak, gaurregun zatitu gabeak, atsedeen betea, denbora, leku edo materiaren atal batean eraberdintasun osoa, bigarren elementuaren esfera beteginak, jatorrizko kubo perfektuetatik sortuak¹², eta filosofoen milaka fikzio, hauen nozio murriztuetatik datozenak eta naturarentzat jasanezinak direnak; gure ezjakinak soilik eta sentiezinezkoari eskaintzen diogun arreta eskasak eusten die fikzio horiei guztiei, ezin baitzitezkeen hauek jasan, izpirituaren abstrakzioztatik hartuta izan ezik, eta izpiritua kexu da ezin ukatu izanaz berak alboratu duena eta orainaldiko arretarik merezi ez duena. Nolabait esateko, zinez uste izango bagenu ohartzen ez ditugunak ez daudela, ez ariman, ez gorputzean, orduan erratuko genuke filosofian bezainbat politikan ere, aurrerapen ñimiñoak το μικρον gutxiestean; abstrakzioa ez da haatik akatsa, estaltzen den hura existitzen dela dakigun unetik. Horrela ihardun ohi dira matematikoak, proposatzen dizkiguten lerro perfektuez ari direnean, higidura uniformeez eta beste gertakizun arautuez, nahiz eta materiak (hots, inguru infinituko efektuen konbinazioa) beti eskainiko duen salbuespenen bat. Horrela jokatzen da kontsiderazio ezberdinak bereizteko eta, ahal dugun neurrian, efektuak euren kausetara hurbiltzeko, bai eta, halaber, haien ondorio batzuk aurrikusteko: arautan zehaztu dezakegun ezein kontsiderazio ez gutxiesteko zenbat eta arreta gehiago jarri, orduan eta baitetsiago ikusiko da teoria praktikan. Infinitu osoa gardenki ulertzea eta kausa guztiak eta ondorio guztiak ikustea Arrazoi Gorenari bakarrik dagokio, ez baitio beroni ezerk ihes egiten. Infinituei buruz guk egin dezakeguna da, lauso artean ezagutu eta hor daudela, bederen, gardenki jakin; bestela oker iritziko diogu unibertsoaren edertasunari eta handitasunari, eta oro har gorputzen izakera azal dezakeen fisikarik ezin genezake eduki, are gutxiago Jainkoaren ezagutza, arimena eta substantzia bakunena orohar bereganatzeko gai den pneumatika on bat.

Sentitu ezinezko pertzepzioen ezagutza honek balio digu baita ere adierazteko, zergatik eta nolatan bi giza arima (edo beste edozein espezie bereko bi) ez diren inoiz irteten Sortzailearen eskuetatik erabat antzekoak; beati edukiko du bakoitzak bere jatorrizko harremana unibertsoan izango dituen ikuspuntuekin. Eta hau dator jadanik bi norbanakoez aipatu dudanetik, hots, euren arteko ezberdintasuna beti dela zenbakizkoa baino zerbait gehiago. Bada oraindik ere beste ondorio puntu bat, non beharturik aurkitzen naizen urruntzera gure idazlearen pentsamoldetik ezezik, modernoetariko gehiengoarenetik ere; sinetsi ere sinesten baitut, antzinako filosofo gehienekin, jeinu oro, arima oro eta kreazioko substantzia bakun oro beti daudela gorputz bati itsatsita, eta ez dagoela inoiz guztiz aske dagoen arimarik. Horretarako apriorizko arrazoiak ditut; baina horiez gain doktrina honek beste abantaila bat du, alegia, arimen egoerari, betiereko iraupenari, hilezkortasunari eta iharduerari buruzko traba filosofiko guztiak gainditzen dituela. Arimen egoera batetik hurrengora aldea ez da, eta ez da sekulan izan hau baino: sentikortasunaren gora-beherakoa, perfekzioaren gora-beherakoa; horregatik da arimen iraganeko zein etorkizuneko egoera orainaldikoa bezain adierazgarri. Ez da askorik hausnartu behar argi ikusteko doktrina hau arrazoizkoa dela eta egoera batetik infinituki ezberdina den bestera jauzia ez litzatekeela naturala izango. Natura arrazoirik gabe alboratuz, eskolak egundoko zailtasunetan propio murgiltzea nahi izateak harrituta uzten

nau; eta itxurazko garaipen argudioak eskaintzen dizkiete, gainera, izpiritu askeei, hauen arrazoi guztiak batera lurjota geratzen direlarik gauzen azalpen honen aurrean: ez da zailago ulertzen arimen iraupena (edo hobeto, animaliarena, nire aburuz), beldarretik tximeletara dagoen garapena baino, edo loaldiko pentsamenduen iraupena, zeina Jesukristok heriotzearekin konparatu baitzuen dibinalki¹³. Dagoeneko esan dut ez dagoela betiko dirauen loaldirik; eta gutxiago iraungo du, edota ia batere ez arima razionalen baitan, hauek deituak baitaude Jainkoaren Hirian eman zaien pertsonaia eta ondorioz oroitzapena ere betiko zaintzera: eta hau, zigorrak edota sariak hobeto eskuratu ahal izateko. Gehitu behar dut, ageriko organoen ezein nahastek ezin duela orokorki eraman animalia gauzen erabateko lardaskara, edota organo guztiak hondatu eta arimari bere gorputz organiko osoa eta aurreko inpresio ororen arrasto ezabaezinak kentzera. Baina aingeruei erantsitako gorputz sotilen doktrina zaharrari amore emateko errazkeriak (aingeru beraiei korporeitatearekin nahastu zena), bai eta kreaturen munduan sartutako adimenak, haiengandik aske omen zeudenak (adimen hauek arras ugaltu ziren Aristotelesen zeruak jira-biran darabiltzatenekin)¹⁴, orobat oker ulertu dugun irizpideak, alegia, piztien arimek ezin iraun zutela metempsikosian jausi gabe eta haiek gorputzez gorputz ibiltzera bultzatu gabe, eta arazo honi irtenbiderik aurkitu ezinak eragindako trabak, honek guztiak, nire ustetan, eraman gaitu arimaren iraupena adierazteko bide naturala gaitzestera. Errakuntza asko sartu dira hortik erlijio naturalean, eta askotxo eraman ditu sinestera gure hilezkortasuna Jainkoaren mirakuluzko grazia besterik ez zela, eta hortik datorkio gure idazleari horretaz zenbait zalantzez mintzatzea, aurrerago azalduko dudanez. Desiragarri litzateke, halere, horrela pentsatzen duten guztiak hura bezain zuhur eta fede onez mintzo balira, beldur bainaiz hilezkortasunari buruz diharduten askok berau graziari atxikiz, itxurak gordetzeko besterik ez ote duten egingo, eta ez ote diren funtsean hurbiltzen aberroistengana eta kietistarik okerrenengana¹⁵, zeinak irudikatzen duten arimaren zurrupatzeko eta biltzea jainkotasunaren ozeanoan, nozio honen ezina, agian, nire sistemak soilik frogatzen dezakeelarik.

Materiari buruzkoan ere, elkarrengandik banatzen garela dirudi, egilearen ustez hutsunea ezinbestekoa baita hura mugi dadin, sinetsirik baitago bera, materiaren atal txikiak zurrunkatuta direla. Aitortu beharra daukat, materia atal mota horiez balego osotuta, erabateko mugimendua ezinezkoa litzatekeela harri kozkorrez lepo betetako gela batean bezala, hutsune izpirik ere ez baitago han. Baina arrazoirik eskaintzen ez dion suposizio hau ez da onargarri, nahiz eta gure idazle prestua sinestera iritsiko den, zurruntasunak edo atal txikien arteko kohesioak gauzatzen duela gorputzaren esentzia. Aitzitik, jatorriz jariakor den materiaren beteta irudikatu behar dugu espazioa, zatiketa mota guztiak beregain jasateko gauza, eta oraintxe bertan ere amaigabeko zatiketa eta azpizatiketatan puskatua; baina ezberdintasun honekin, alegia, era ezberdinean dela zatigarri eta zatitua, leku ezberdinen arabera, lehendik han gutxi gora-behera biltzen diren mugimenduengatik. Hau dela eta, zurruntasun eta jariakortasun maila batez jaten da materia eta ez dago maila gorenean zurrunkatuta eta jariakor den gorputzik, hau da, ez dago gogortasun gainditu ezinezko atomorik, ez eta zatitzea erabat indiferente zaion masarik. Naturari datzekion ordenak eta jarraitasunaren legeak bereziki birrintzen ditu bi posibilitateok.

Frogatuta daukat, halaber, berez inpulsiio edo mugimenduaren ondorio ez den kohesioak derrigorrean trakzioa eragingo liokeela gainontzeko materiari. Zeren eta, jatorriz zurrunkatuta den gorputzen bat balego, Epikuroren atomo bat adibidez, gako gisako zati aurreratu batez (atomoak edozein trazatutakoak irudika baititzakegu), gako horretatik sakatzean atomoaren gainontzekoa erakarriko luke berekin, hots, sakatu ez dugun atala, inpulsiorekin norabidean ere ez dagoen atala. Baina gure idazle trebea, hutsuneari

beldur, antzinatik onartuak ziren trakzio filosofiko hauen aurka dago, eta bultzadetara laburbiltzen ditu, modernoekin defendatzen duelarik materiaren atal batek ez duela berehalako eraginik beste batengan, ez bada hurbiletik bultzatuz; eta horretan zuzen daudela uste dut, ez bailegoke bestela iharduera horretan ezer ulergarririk.

Ezin ezkuta dezaket, dena den, honi buruz gure idazle prestuaren nolabaiteko atzera egitea sumatu dudala, eta horretan haren zintzotasun apala laudatu beharrean aurkitzen naiz, bestetan bere jeinu zorrotza mirestu dudana bezalaxe. Worcesterreko gotzain defuntuaren¹⁶ bigarren eskutitzari erantzunean, 1699an argitaratua berau, 408. orrialdean, apezpiku jakintsu haren kontra defendatutako iritzia justifikatzeko, materiak pentsa zezakeela alegia, honela dio, besteak beste:

"Aitortzen dut zera esana (Adimenari buruzko entseia, II. liburua, 8. atala, § 11), alegia, gorputzak bultzada bidez jokatzen duela, ez bestela. Hala pentsatzen bainuen hori idatzi nuenean, eta orain ere ez zait beste ekintza biderik bururatzen. Geroztik, ordea, Newton jaun txit zuhurraren¹⁷ liburuak komentzitu nau, harrokeria itzela dela Jainkoaren ahalmena gure ikusmolde mugatuaren esparrura zedarritu nahi izatea. Materiaren materiarentzako grabitazioa pentsaezinak gertatzen zaizkidan bideetan zehar, ongi deritzon, Jainkoak gorputzari buruz irudika dezakegunaz gain edota materiaz dakigunetik ondoriozta daitekeenaz gain, gorputzetan ahalmenak eta jokamoldeak ezar ditzakeela frogatu ezezik, halaxe burutu izanaren argumentu errefutaezina ere bada. Horregatik, nire liburuaren hurrengo argitaraldian pasarte hori berriatzea izan dadin neurriak hartuko ditut."

Zalantzarik gabe azken argitalpenetatik egin den liburu horren frantses bertsioan ohartu naiz, § 11n honela dioela:

"Nabari gertatzen da, ulergarri zaigun mailan bederen, gorputzek elkarrekiko bultzada bidez, eta ez beste moldez, jokatzen dutela, ulertezina baitzaigu gorputzak ukitzen ez duenaren gain eraginik eduki ahal izatea; ez dagoen lekuan eraginik izatea imajinaezina egiten zaigun neurri berean."

Gure idazle ospetsuaren jainkozaletasun apala goratu beharrean aurkitzen naiz, aitortzen baitu, guk uler dezakegunaz haraindi Jainkoak ekin dezakeela, eta era horretan sinesgaietan misterio pentsaezinak egon daitezkeela; baina ez zait batere atsegin naturaren ibilbide arrunta azaltzeko mirakulura jo beharra, guztiz azalgaitzak diren ahalmenak eta ekintzak onartuz. Bide horretatik, Jainkoarentzat oroahalgari dela eta, filosofo traketsei lizentzia gehiegi ematen zaie, eta ontzat ematen baditugu indar zentripetu horiek edota urruneko bitartegabeko erakarpak horiek, ulergarri egin ezin direlarik, ez dakit nik zerk eragotziko liekeen gure eskolastikoei zera baieztatzea, alegia, oro gertatzen dela haien ahalmenez, eta defendatzea haien espezie intentzionalak, objektuetatik gureganaino doazenak, eta gure arimetan sartzerainoko bidea aurkitzen dutenak. Eta hau zuzen badago,

*Omnia jam fient, fieri quae posse negabam.*¹⁸

Era horretan gure idazlea, hain zuhurra izaki ere, mutur batetik bestera gehitxoegi dabilelakoan nago. Arimen eragiketei buruz, eragozpenak jartzen ditu sentigarria ez dena ontzat ematerakoan, eta gorputzei egozten die ulertezina ere, eskaintzen baitizkie izpiritu sortuak, nire ustetan, burutu eta uler dezakeen ororen gain dauden ahalmenak eta ekintzak, erakarmena lotzen baitie distantzia luzeetara ere, inongo ekintza moldetara mugatu barik; eta hau guztiau, adierazgaitzago ez den iritzi bat defendatzeko, hots, materiaren pentsamenduaren posibilitatea eremu naturalean.

Kontra egin zion gotzain ospetsuarekiko auzia hau da, alegia, ea materiak pentsa al dezakeen, eta nolanahi ere garrantzi handiko gaia denez, obra honetan ere, ezinbesteko zait auzi horretan zerbait sakontzea eta haren erantzuna kontuan hartzea. Gaiari buruzko funtsezkoena gogoratuko dut eta horretaz pentsatzen dudana azaltzeko lizentzia hartuko

dut. Worcesterreko gotzain defuntuak, gure idazlearen ideiei buruzko doktrinak kristau fedeari kalterik ekar liezaiokeen beldurrez (horretarako motiburik gabe, nire ustez), Hirutasunaren dogmaren defentsan haren atal batzuen ikertze zehatzari ekin zion, eta gure idazle ospetsuari justizia egin ondoren zera aitortzean, alegia, gorputzarena bezain egiazkoa kontsideratzen duela izpirituaren existentzia, bata zein bestea, biak ere, hain gutxi ezagunak izan arren, galdetzen du (241. eta hurrengo orrialdeetan) ea nolatan hausnarketak ziurta diezagukeen izpirituaren existentzia; gure idazlearen ustetan, Jainkoak materiari eskaini baitiezaioke pentsatzeko ahalmena (IV liburua, 3. atala); zeren eta ildo horretatik, arimari ala gorputzari legokioketena bereizteko balio duen ideien bidea alferrikakoa bilakatuko bailitzateke, Adimenari buruzko entseiuaren II liburuan azaltzen denaren kontra (23. atala, § 15, 27 eta 28); han dioenez, arimaren eragiketek izpirituaren ideia hornitzen digute, eta adimenak nahimenarekin batera gorputzaren natura bezain ulergarri egiten digu ideia hau, solidotasunaren eta bultzadaren poderioz. Honela erantzuten du gure idazleak bere lehen gutunean (65. orrialdea eta hurrengoak):

"Gure baitan substantzia izpiritual bat existitzen dela frogatu dudala uste dut, pentsamendua esperimentatzen baitugu; baina, ekintza edo modu hau ezin daiteke izan berez subsistente den zer baten ideiaren objektu, eta ondorioz, modu horrek beharrezko du euskarri bat edo atxikipen subjektu bat, eta euskarri horren ideiari deritzogu substantzia..."

eta substantziaren ideia orokorra beti bera denez,

"ondorio hau ateratzen da: pentsamendu edo pentsatzeko ahalmena deritzan aldakuntza hari atxikita dagoela, eta honek izpiritua osatzen du, beste aldakuntzarik baduen kontsideratu beharrik gabe, hau da, solidotasunik baduen ala ez. Eta bestalde, solidotasun deritzan aldakuntzaren jabe den substantzia materia izanen da, pentsamendua hari atxikita egon, nahiz ez egon. Baina substantzia materiagabekoa substantzia izpiritualtzat hartuz gero, aitortzen dut ezin frogatu izan dudala horren existentzia gure baitan, eta nire printzipioetan oinarriturik ez dela frogagarri. Halere, sistema materialei buruz azaldu dudanak (IV liburua, 10. atala, § 16) Jainkoa inmateriala dela frogatzean, guztiz frogagarri egiten du gure baitan pentsatzen duen substantzia inmateriala izan daitekeela... Hala eta guztiz, erakutsi dut, (gaineratzen du egileak 68. orrialdean) erlijioaren eta moralaren helburu nagusiak arimaren hilezkortasunak ziurtatzen dituela, eta ez da horregatik beharrezko haren inmaterialtasuna suposatzea".

Gotzain jakitsuak eskutitz honi egindako erantzunean, egileak Entseiu-aren bigarren liburua idaztean era ezberdinez pentsatzen zuela adierazteko, hurrengo pasarte hau dakar 51. orrialdean (II liburutik hartua, 23. atala, § 15):

"...gure izpirituaren eragiketetatik ondorioztatzen ditugun ideia bakunen bitartez osa dezakegula izpiritu baten ideia konplexua; eta elkartzen baditugu pentsamenduaren ideia, pertzepzioarena, askatasunarena eta gure gorputza higitzeko ahalmenarena, substantzia materialena bezain argi daukagula materiagabekoen nozioa".

Beste zenbait pasarte ere badakar, idazleak gorputza eta izpiritua elkarren aurka jartzen zituela nabari uzteko. Eta dio (54. orr.) erlijioaren eta moralaren helburuak hobe betetzen direla arima naturaz hilezko delako frogatuz gero, hau da, materiagabekoa dela. Orobat (70. orr.) zera aipatzen du:

Eta era honetan, dio, sinetsi duela idazleak, pentsatze eta nahi izatearen ideiak eskaintzen duen substantzia solidotasun eta bultzadaren ideiak emandakoaren ezberdina zela. Eta ohartarazten duela (§ 17) ideia hauek egiten dutela gorputza izpirituaren aurkako.

Worcester jaunak erants zezakeen substantziaren ideia orokorra gorputzean egotetik ez dela inola ere ondorioztatzen haren ezberdintasunak gauza bat beraren aldaketak izatea, gure idazleak baieztatu berri duenez, aipatu dudan bere lehen eskutitzaren pasartean. Aldaketak eta atributuak bereizi egin behar ditugu. Pertzepzioak edukitzeko edota ekiteko ahalmenak, hedadura, solidotasuna, atributu edo predikatu betiereko eta funtsezkoak dira, baina pentsamendua, oldarra, irudiak eta mugimenduak atributu horien aldaketak dira. Gainera bereizi beharra dago genero fisiko (hobe esan, erreala) eta genero logiko edo ideiazkoaren artean. Genero fisiko bereko edo homogeneo diren gauzak materia berekoak dira, nolabait esateko, eta sarri elkar truka daitezke aldaketaren mudantza baten bidez, zirkuluak eta laukiak bezala. Baina bi gauza heterogeneok eduki dezakete baterako genero komun logikoa, eta orduan euren arteko ezberdintasunak ez dira subjektu bat beraren edota materia fisiko ala metafisiko bat beraren aldakuntza akzidentalak. Horrela adibidez, denbora eta espazioa gauza oso heterogeneoak dira eta oker legoke irudikatzea subjektu erreal komuna, bere baitan etengabeko koantitate orokorra besterik ez lukeena, honen aldakuntzen ondorio denbora eta espazioa sortuko liratekeelarik. Agian norbait trufa daiteke filosofoen bereizketak diren hauetaz: bi genero, bata logikoa soilik, bestea erreala; bi materia, bata fisikoa, gorputzena, eta soilik metafisikoa edo orokorra bestea; norbaitek esango balu bezala, espazioaren atal bi materia berekoak direla, edota bi ordu elkarren artean materia berekoak direla. Halere, hauek ez dira terminoen arteko bereizketak soilik, gauzen beraien artekoak baizik, eta oso egoki datozkigu hemen, zeren eta haien nahasteak, hain zuzen, sortu baitu ondorio okerra. Bi genero horiek nozio komuna dute eta genero errealaena bi materiaren bikoizten da; euren genealogia honela zehaztuko genuke:

Idazleak gotzainari egindako bigarren eskutitza ez dut irakurri, eta apezpikuaren erantzunak doi-doi ukitzen du materiaren pentsamenduari buruzko puntua. Baina bigarren erantzun honi idazlearen Erantzuna gaiari lotzen zaio berriro. Gutxi gora-behera honela azaltzen da 397. orrialdean:

"Jainkoak, berari gogoko zaizkion koalitateak eta perfekzioa erasten dizkio materiaren esentziari: atal batzuetan higidura sinplea, baina barazkietan, landareetan eta animaliengan sentipena. Honainokoa ados daudenak urrats bat aurrera egiteaz dira kexu, zera esatean alegia, Jainkoak luza diezaiokeela pentsamendu, arrazoimen eta borondatea materiari, honek materiaren esentzia birrinduko balu bezala. Eta hau frogatzeko, zera diote, alegia, pentsamendu edo arrazoimena ez dagoela materiaren esentziaren barnean; baina honek ez du zentzurik, zeren eta mugimendua eta bizitza ere ez baitaude materiaren esentziaren baitan. Orobat azaltzen dute, materiak pentsatzea bururatu ezinezkoa egiten zaiela: baina gure asmamenak ez du Jainkoaren ahalmenaren neurria ematen".

Jarraian materiaren erakarpenaren adibidea aipatzen du (99. orrialdean, eta batik bat 408.ean) eta materiaren materiarentzako grabitazioaz mintzo da, (Newton jaunaren arabera gorago aipatuta utzi dugunez) eta grabitazioa nola gertatzen den sekula ere ez dugula jakingo aitortzen du. Eta hau koalitate ezkutu, are esplikaezinetara, berriro itzultzea litzateke. 401. orrialdean gehitzen du eszeptikoei mesederik handiena egiten zaiela ulertzen ez dena ukatuz, eta 402.ean arimak nola pentsa dezakeen imaginatu ezinezkoa dela. 403.ean bi substantziak, materiala eta imateriala, euren esentzia hutsean, inongo iharduerarik gabe, bururatuak izan daitezten saiatzen da, eta batari zein besteari pentsatzeko ahalmena luzatzea Jainkoari dagokiola dio. Etekin atera nahi dio, nonbait, bere lehiakideak egindako adierazpenari, hark piztiei sentimena aitortzen baitie, haiengan inongo substantzia imaterialik onartzen ez badu ere. Askatasuna, konszientzia eta abstrakziorako ahalmena (408. eta 409. orrialdeak) materiari atxiki dakizkiokeela dio, ez ordea materia bezala, jainkozko ahalmenez aberastuak izan direlako baizik. Eta azkenik 434. orrialdean La Loubère jaun bidaiari ospetsu eta

zorrotzaren oharpena aipatzen digu¹⁹, hau da, Sortaldeko paganoek arimaren hilezkortasuna ezagutzen dutela, honen inmaterialtasuna ulertu ezin badute ere.

Nire iritzia azaltzen hasi aurretik, aurrekoari buruz ziurtasun osoz adierazi nahi dut ezinezkoa duela materiak bide mekanikoz sentipenak burutzea, arrazoiak ere burutu ezin duen bezalaxe; eta honetan gure idazlea ados dago; aitortzen dut, halaber, zinez ez dela zilegi, ulertzen ez dena ukatzea; baina erantsi nahi dut, ukatzeko eskubide badugula (eremu naturalean bederen) inondik ere ulertu edota azaldu ezin dena. Mantentzen dut, baita ere, substantziak (materialak ala inmaterialak) bururatu ezin ditugula euren esentzia hutsean, inolako iharduerarik gabe; iharduera, oro har, substantziaren esentziarena dela; eta, azkenik, kreaturen bururapenak ez digula Jainkoaren ahalmenaren neurria ematen, baina euren gaitasuna edo bururatzeko indarra naturaren ahalmenaren neurria dela; zeren eta eremu naturalari doakion oro kreaturaren batek burura edota uler baitezake.

Nire sistema ulertzen dutenak ohartuko dira ezin naizela erabat ados egon bi idazle bikain hauetariko ez batarekin, ez bestearekin, nahiz eta beraiekiko polemika oso aberasgarria izan. Esan nahi baita, beste ezer baino lehen kontuan hartzekoa dela subjektu bati era naturalean, mirakulurik gabe, komeni dakizkiokeen moduak, genero erreala edo natura jatorrizko, iraunkor eta absolutuaren mugapen edota aldaketatik abiatuta iritsi behar direla subjektu harengana. Horrela bereizten dituzte filosofoek izaki absolutuaren moduak eta izakia bera, eta gauza jakina da handitasuna, irudia eta mugimendua gorputzezko naturaren mugapen eta aldaketen agerpide direla. Argi dago, esparru mugatuak irudiak eskaintzen dituela, eta bertan gertatzen den aldaketa mugimendua besterik ez dela. Eta subjektu baten baitan koalitete bat aurkitzen den aldioro, pentsatu behar da, subjektu horren eta koalitetearen natura konprenitua izango balitz, guztiz ulergarri gertatuko litzazigukeela nolatan koalitetea subjektuari itsatsi zaion. Esate baterako, eremu naturalean (mirakuluak alde batera utziz) Jainkoari ez zaio berdin substantziei halako edo bestelako koaliteteak nahierara ematea, eta ez die inoiz emango naturalak ez zaizkienak, hau da, euren naturari darizkiokeenak, aldaketa adierazgarri gisan. Era berean pentsa daiteke materiak berez ez daukala arestian aipatu dugun erakarmen hori eta ez dela berez mugituko lerro makurrean, ezinezkoa baita hori nola gertatzen den bururatzea, hots, mekanikoki adieraztea; izate naturalari dagokionak era berezian bururagarri izan behar baitu, gauzen sekretuetan sakonduz gero. Natural eta adierazgarriaren, eta adieraztezineko eta mirakuluzkoaren arteko bereizketa honek zailtasun guztiak gainditzen ditu: hau arbuatuz gero, koalitete ezkutuak baino okerrago den zerbait defendatuko genuke, eta filosofiari eta arrazoiari uko egitea litzateke, ezjakinari eta alferkeriari babes emanez sistema hits baten bitartez, zeinak ulertzen ez ditugun koalitete ugariak onartu ezezik, arik eta izpiriturik ahaltsuenarentzat ere pentsaezinak diren koaliteteen existentzia suposatzen baitu, Jainkoak ahalmen posible guztiak emanda ere; beraz, koalitete mirakulutsuak ala absurduak liratekeela; eta aldi berean absurdua litzateke Jainkoak mirakuluak arrunki burutzea; beraz, alferreko hipotesi honek hondatuko luke bai arrazoi bila dabilen gure filosofia, bai arrazoioren hornitzaile den jainkozko jakituria.

Pentsamendua orain zer den zehazterakoan, argi dago, eta idazleak hala aitortzen du behin eta berriro, ezin dela materiaren aldaketa ulerkorra izan, ez eta materiatik abiatuz uler ala adieraz daitekeen zerbait, esan nahi baita, sentitzen eta pentsatzen duen izakia ez dela izaki mekaniko bat, erlojua edo errota bezala; magnitude, irudi eta mugimenduen elkartzeak ezin duela sortu pentsatzen edota sentitzen duen zerbait, iharduera horiek gabeko masatik abiatuz; eta nolanahi ere, edozein akats mekanikoren ondorioz, izaki horrek existitzeari utziko ziokeela. Materiak ez ditu berezkoak pentsatzea eta sentitzea, bi eratara etor dakizkioke hauek: bata, Jainkoak materiari

pentsatzea berezko lukeen substantzia erantsiz, eta bestea, Jainkoak mirakuluz materiari pentsamena ezarriz. Honetan erabat nago ados kartesiarrekin, salbuespen honekin, alegia, piztiengana hedatzen naizela eta uste dut sentimena badutela eta arima inmaterialak ere (adiera zehatzean), atomoak Demokritorengan edo Gassendirengan diren bezain eskas galkor; bitartean cartesiarrek, animalien arimek buruzkoan arrazoirik gabe nahasiak, eta arima horien iraupenarekin zer egin ez dakitela (animalia gutxienera murriztua ere badirauela ohartu barik), piztiei sentimena ere ukatzera behartuta aurkitu dira, itxura guztien eta gizadiaren agizko iritziaren aurka. Baina norbaitek baieztatuko balu Jainkoaren esku dagoela horretarako prestatu den makina, gutxienik, pentsamenaz hornitzea, orduan erantzungo nuke; hori gertatuz, Jainkoak erantsiko balio materiari ahalmen hori, bertan aldi berean men horren atxikipen subjektua litzatekeen substantzia ezarri gabe (nik ulertzen dudanez), hots, arima inmaterialik gehitu gabe, beharrezko gertatuko zatekeen materia mirakuloski goratua izatea, berez eskuratzeko gai ez den ahalmen hori bereganatzeko: halatsu zenbait eskolastikok irakatsi nahi izan du Jainkoak goratzen duela sua arik eta materiatik banandutako izpirituak bat-batean erretzeraino, eta hau mirakulu hutsa litzateke. Aski da ezin defendatu izatea materiak pentsa dezakeela, bertan arima hilezkorra edota mirakulua ezartzen ez badugu, eta beraz, gure arimen hilezkortasuna naturala den zerbaiten ondorio dela; ezin baita defendatu mirakulu bidez gure arimak ahitzen direla, materia goresetuz edo arima ezereztatuz. Ondotxo baitakigu Jainkoaren ahalmenak hilkor bilaka litzakeela gure arimak, inmaterialak izanda ere (edota berez hilezkorrak), noiznahi berak deusezta baititzake. Nolanahi den ere, arimaren inmaterialtasunaren egia hau, zalantzarik gabe, ondoriozkoa da. Erlijioari eta moralari arras komenigarriago baitzaie, batez ere bizi garen garaiotan (askok eta askok egunotan ozta-ozta errespetatzen baitute errebelazioa bere horretan eta mirakuluak), arimak berez direla hilezkorrak erakustea eta mirakulua litzatekeela hala ez izatea, beste doktrina hau defendatzea baino, alegia, berez gure arimak galkorrak diren arren, ez direla hiltzen Jainkoaren promesan oinarritutako mirakuluzko graziari esker. Aspalditik da, halaber, gauza jakina, erlijio naturala desegin eta dena errebelatuan bildu nahi izan dutenak, arrazoimenak gai horretan zeresanik ez balu bezala, susmagarritzat hartuak izan direla, eta ez arrazoirik gabe. Gure idazlea ez da horien artean aurkitzen, Jainkoaren existentziaren demostrazioari eusten baitio eta arimaren inmaterialtasunari egozten dio maila goreneko probabilitatea, ziurtasun moralizat har genezakeena; hori dela eta, pentsa dezaket, zorrotz bezain zintzo dena, aise egon daitekeela ados azaldu berri dudak doktrinarekin, edozein filosofia arrazoizkori funtsezko zaiona; ez baitut bestela ikusten nolatan eragotzi litekeen filosofia fanatikoan jaustea, Fludd-en²⁰ Filosofia mosaikoan adibidez, honek fenomeno guztiak salbatzen baititu ararteko barik Jainkoari mirakulu bidez leporatuz, edota filosofia barbaroan, hala nola noizbaiteko filosofo eta medikuena, euren sasoiko basakeriaz kutsatuta, gaur egun arrazoiz mesprezatua: haiek itxurak salbatzen zituzten, koalitate ezkutuak berariaz landuz, edota deabru txiki eta iratxoan antzeko ahalmenak asmatuz, edozer burutzeko gai zirenak inongo nekerik gabe, sakeleko erlojuek orduak emango bailituen halako gaitasun horodeiktiko baten poderioz, gurpiltxoan beharrik gabe, edota errotak alea ehotuko bailuen hausteko ahalmen batez, inongo errotarraren premiarik gabe. Materiari gabeko substantzia bururatzeko zenbait herrik izan duen zailtasuna aise desagertuko da (zati batean bederen), baldin eta substantziak materiatik bereiztea eskatzen ez bada, eta zinez uste dut horrelakorik ez dela berez sekulan kreaturengan gertatu.

LEHEN LIBURUA

Sortzetiko nozioak

I

Ba ote dagoen sortzetiko printzipiorik giza izpirituan²¹

FILALETES: Ingalaterrako nire zereginak burutu ondoren berriro itsasoa zeharkatu dudalarik, ezer baino lehen pentsatu dut zuri, Jaun horri, bisita egitea, aspaldiko gure adiskidetasunari eutsi nahian eta bioi biziki interesatzen zaizkigun gaiez solastatzeko, uste baitut hauei buruzko argi berriak eskuratu ditudala Londresen egon naizenean. Elkarrengandik oso hurbil Amsterdamen bizi ginen sasoian, atsegin handiz burutzen genituen gauzen barnerantza sakontzeko printzipio eta bideei buruzko ikerlanak. Gure pentsakerak sarri ezberdinak ziren, baina ezberdintasun honexek areagotzen zuen gure poza, elkarrekin gaia hausnartzen genuenean, eta noizbehin gertatzen zitzaigun ideien aurreko kontrajarrerak ez zuen ezer gogaikarririk nahasten gure harremanean. Zu Descartesen alde zeunden eta Recherche de la veritéren egile ospetsuaren iritzien alde²², nik, aldiz, soilagoa eta naturalagoa aurkitzen nuen Gassendiren²³ pentsakera, Bernier jaunak argitua²⁴. Orain biziro sendotzen nau pertsonalki ezagutzeko ohore dudan ospe handiko Ingeles batek geroztik idatzitako obra bikainak, Ingalaterran zenbait aldiz berrinprimatua izan dena izenburu apal honenpean, Giza adimenari buruzko entseia. Eta pozik nago arestian frantsesez eta latinez ere argitaratu delako, erabilpen hedatuagoa izango baitu horrela. Obra horren irakurtzea oso ongarri izan zait, bai eta egilearekiko solasaldiak, sarri izan bainaiz berarekin Londresen eta noizbehinka Oates-en Milady Masham²⁵, Cudworth jaun ospetsuaren²⁶ alaba sotilaren etxean; Cudworth jauna, filosofo eta teologo ingelesa, Sistema intelektualaren egilea da; eta beronen izpiritu hausnartzailea eta ezagutza ederren maitasuna, alabak heredatu zuen; dirudienez, andere horrek Entseiu-aren egilea adiskidetasunagatik zaintzen zuen. Eta meritu goreneko zenbait doktorek eraso egin diotenez, atsegin handiz irakurri dut andereño txit zuhur eta izpiritual batek²⁷ hari egindako apologia, berak bere buruaz egindakoez aparte. Idazle hau bat dator hein batean funtsean Demokritorena den Gassendiren sistemarekin; hutsa eta atomoak defendatzen ditu, materiak pentsa lezakeela uste du, ez dagoela sortzetiko ideiarik, gure izpiritua tabula rasa dela eta ez gaudela uneoro pentsatzen: eta prest dago, dirudienez, Gassendik Descartesi egindako objekziorik gehienak onartzeko²⁸. Sistema hau aberastu eta bultzatu du mila hausnarketa bikainez; eta ez dut zalantzarik egiten, gaur egun gure taldeak aise menperatzen dituela bere arerioak, bai peripatetikoak eta bai kartesiarrak. Hori guztiarengatik gonbite egiten dizut liburu hori irakurtzera, oraindik irakurri ez baduzu, eta dagoeneko irakurria baduzu, esaidazu, arren, zein den hari buruzko zure iritzia.

TEOFILO: Ausentzia luze horren ostean, pozten naiz hain garrantzizko zenuen aferaren burutzeagatik zu zoriontsu ikusteaz, osasunean, nirekiko adiskidantzan tinko eta egia inportanteen ikerketarako betiko lehiaz. Nik ere neure gogoetei eutsi diet betiko adoreaz; eta zuk adina probetxu atera diodala uste dut, gehiago ere agian, nire aldetik harrokeria ez bada. Premia ere gehiago nuen nik, bestalde, ni baino aurreratuago zeundelarik zu. Gertuago zeunden filosofo espekulatiboengandik, nik, aldiz, moralerantz nuen joera gehiago. Baina gero eta ohartuago nago noraino sendotzen den morala zinezko filosofiaren printzipio ziurretan, eta horregatik aztertu ditut geroztik arreta gehiagorik, eta gogoeta arras berrietan murgildu naiz. Horrela biok izanen dugu abagune atsegin iraunkorra elkarri eskaintzeko, gure aurrerapenak bata besteari adieraziz. Baina hasteko, azaldu behar dizut ez naizela jadanik cartesiarra eta, halere, inoiz baino urrutiago nagoela zure Gassendirengandik, zeinaren jakituria eta meritua, bestalde, aitortzen dudan. Txundituta utzi nau Paris, Leipzig eta Holandako²⁹

Jakintsuen Aldizkarietan eta Bayle jaunaren Hiztegi miresgarrian, Rorarius-en artikuluan³⁰, ezagutu dudana sistema berri batek; eta harrezkero gauzen barreneko aurpegi berria ikusten dudala uste dut. Sistema honek Platon Demokritorekin lotzen du, Aristoteles Descartesekin, eskolastikoak modernoekin, teologia eta moralaren arrazoimenarekin. Alderdirik onena hartzen du, antza, eta jarraian ordurarte sekular joan dena baino areago doa. Bertan aurkitzen dut arima eta gorputzaren arteko batasunaren azalpen ulergarria, aurretik etsipenez bila nenbilena. Sistema honek dakartzan substantziazko batasunetan eta jatorrizko substantziak aurrezarritako euren harmonian aurkitzen ditut nik gauzen egiazko printzipioak. Badu sistema honek soiltasun eta uniformetasun miresgarria, non eta baieztatu daitekeen beti eta nonahi dela bat bera, perfektio maila ezberdinen gora-beheraz. Orain ulertzen diot Platoni materia izaki inperfektu eta iragankortzat³¹ hartzen zuenean; orain ulertzen dut Aristotelesek bere entelechia-rekin³² adierazi nahi zuena; zertan datzan Pliniok³³ beste bizitzari buruz egiten zuen promesa, Demokritok bezala; orain ulertzen dut, norainoko arrazoiak zuten eszeptikoek sentimenei aurka aldarrikatzean; nolatan diren automatak animaliak, Descartesek zioenez, eta nolatan, halere, arimak eta sentimendua daukaten, gizakiak oro har uste duenez; nola ulertu behar zaie razionalki, bizitza eta pertzepzioa gauza guztietan ezarri dituztenei, hala nola Cardanori³⁴, Campanellari³⁵, eta hauei baino gehiago oraindik Conaway-ko kondesa zenak³⁶, platonikoa bera, eta François Mercure van Helmont³⁷ gure lagunari (honen iritzia batzuetan paradoxa ulertezinez josita agertzen diren arren), bai eta adiskide zuen Henry More jaunari ere³⁸. Nola naturaren legeak (hauetarik asko ezezagunak sistema honen aurretik) materia baino goragoko printzipioetan duten euren iturburua, eta, halere, nola materiaren baitan oro gertatzen den mekanikoki; eta honetan erratu zuten aipatu berri ditudan idazle izpiritualistek euren alderdi delakoei, bai eta kartesiarrek ere, uste baitzuten hauek materiari gabeko substantziek aldatzen zituztela gorputzen mugimenduen indarra ez baina³⁹ bai bederen hauen norabidea edota determinazioa. Nolanahi den ere, arimak eta gorputzak, sistema berriaren arabera, euren arauak zaintzen dituzte bete-betean, nor bereak, eta halere, bata besteari esanetara dago, behar den heinean. Azkenik, sistema hori hausnartu ondoren jabetu naiz animalien arimak eta haien sentipenak ez direla eragozpen giza arimen hilezkortasunarentzat, are eta, gure hilezkortasuna molde naturalez konprenitzeko, ez dagoela ezer egokiagorik arima guztiak hilgaitzak direla pentsatzea baino (morte carent animae)⁴⁰ inongo metempsikosiren beldurrik gabe, zeren eta arimek ezezik animaliek ere bizirik baitiraute eta iraungo dute sentipenez eta ekintzaz; nonahi hemen bezala eta beti eta edonon gure baitan bezala, esan berri dizuedanaren arabera. Animalien egoerak beteginak eta garatuak dira gora-beherekin, baina arima erabat bananduak ez ditugu sekular onartu behar; guk, aldiz, izpiritu ahalik eta huts-garbienak dauzkagu, gure gorputz atalen trabarik gabe, ezin baitituzte gure espontaneitatearen legeak inola ere asalatu. Hutsunea eta atomoak alboratzen ditut kartesiarren sofismarekin zerikusirik ez duten metodoen bidez, hauek gorputzaren eta hedaduraren arteko ustezko kointzidentzia oinarritzen baitira. Gauza guztiak ikusten ditut nik arautuak eta hornituak orain arte pentsatu izan duguna baino askoz areago, materia organikoa dago edonon, deus ez hutsik, antzurik, mesprezagarrikerik, deus ez uniformeagorik, oro aldakor baina ordenaz; eta gure irudimena gainditzen badu ere, unibertso osoa dago laburbildua ikuspuntu ezberdin batetik bere ataletariko edozeinetan, are eta bere substantziazko zatienetarikoa edozeinetan, ikuspuntu ezberdin batetik. Gauzak aztertzeko molde berri honez gain, hobeto ulertzen dut orain nozio edo ideien analisia, bai eta egia ere. Ulertzen dut noiz den ideia bat egiazkoa, argia, berezia,

egokia, hitz hau erabiltzea zilegi bazait. Ulertzen dut zeintzuk diren jatorrizko egiak, zeintzuk egiazko axiomak, zein den beharrezko egien eta egitatezko egien arteko aldea, zein den gizakien arrazoinamendua eta honen itzala den, piztien ondorioak ateratzeko ahalmenaren arteko aldea. Harrituta geratuko zara, jauna, esango dizudan guztia entzutean eta, batik bat, ulertzean nolatan goستن den Jainkoaren handitasun eta perfektzioen ezagutza. Ezin dizut disimulatu, inoiz ezer ezkutatu ez dizudan jaun horri, zeinen sentitzen naizen orain miresmenez eta (zilegi balitzait hitz hau erabiltzea) maitasunez beteta gauzen eta edertasunen iturburu goren horrengana, ikusi ondoren nolatan sistema berrian aurkituak gaintitzen duen orain arte bururatu dugun oro. Ondotxo dakizu urruntxoegi desbideratu nintzela noizbait eta espinozisten alderantza makurtzen hasia nintzela, hauek Jainkoari soilik ahalmen infinitua egozten baitiote, beragan perfektzioa eta jakituria onartu gabe, eta kausa xedezkoen ikertzea gutxietsiz, halabehar itsutik ondorioztatzen dute oro; baina argi berriek sendatu naute; eta Teofilo izena hartu dut harrezkero. Aipatu berri duzun ingeles ospetsuaren liburua irakurri dut. Biziki gustatu zait eta bertan hainbat gauza jakingarri aurkitu dut. Baina aurrerago joan behar dugula uste dut, eta haren irizpideetatik aldendu, berauek behar baino estuago mugatzen gaituztenean eta giza egoera ezezik unibertsoarena ere gutxiesten dutenean.

FILALETES: Txundituta uzten nauzu azaldu dizkidazun mirariekin, aldeko gehiegizko aurrejarreraz agian zeure aldetik, nik aise sines ditzadan. Baina eskaini nahi didazun hainbat berriren artean zerbait sendorik aurkitzea espero dut. Hala balitz, prest naukazu. Badakizu beti izan naizela arrazoiaren aurrean makurtzeko gertu, eta noizbehinka Filaletes izena erabili izan dudala. Atsegin baduzu erabil ditzakegu hemendik aurrera hain elkarren hurbil dauden bi izen hauek. Saioari ekiteko modua ikusten dut, zeren hain gustuko dudan ingeles ospetsuaren liburua irakurria duzunez, eta aipatu berri dituzun gaietarik gehienak bertan jorratzen direnez, batik bat gure ideien eta ezagutzen analisiarenak, haren ildotik zer azpimarratu nahi duzun ikustea izan daiteke biderik egokiena.

TEOFILO: Bat nator zure proposamenarekin. Hona liburua.

(§ 1) FILALETES: Hain ongi dut irakurria, ezen esapideak ere gogoan baititut, eta haiei lotzen saiatuko naiz. Beraz, liburura jo beharrik ez dut izango beharrezko iritzi diezaigun okasio solte batzuetan baino. Mintzatuko gara lehenik ideia edo nozioen jatorriaz (1. liburua), ideia mota ezberdinez jarraian (2. liburua) eta hauek adierazteko hitzez (3. liburua), eta azkenik haietatik ondoriozta daitezkeen ezagutza eta egiez (4. liburua), hau izango delarik gehien arduratuko gaituen atala. Ideien jatorriari buruz sinetsita nago, idazle honekin eta beste hainbat pertsona jakitunekin bat, ez direla sortzetikoak eta sortzetiko printzipiorik ere ez dagoela. Eta kontrakoa baieztatzen dutenen errakuntza errefusatzeko, aski da azaltzea, aurrerago ikusiko denez, ez dugula haien beharrik eta gizakiek euren ezagutza guztiak bereganatu ditzaketela inongo sortzetiko inpresiotara jo gabe.

TEOFILO: Ondotxo dakizu, Filaletes, aspalditik beste molde batez pentsatzen dudala; beti izan naizela, eta halaxe naiz orain ere, Descartesek defendatu zuen Jainkoaren sortzetiko ideiarene alde, eta honen ondorioz, sentimenetatik ezin etor daitezkeen beste zenbait sortzetiko ideien alde ere. Gaur egun, sistema berriaren ildotik, areago noa, eta sinesten dut gure arimaren pentsamendu eta ekintza guztiek beronen altxor propioan dutela jatorria, sentimenek ezin baitiote hori eskaini, jarraian ikusiko duzunez. Baina, alde batera utziko dut oraingoz auzi hau eta, ohiko adierazpideei egokituz, onak eta sinesgarriak baitira, eta baieztagarri delarik nolabait kanpoko sentimenak direla zati batean gure pentsamenduen kausa, aztertuko dut zein moldetan esan behar den, nire iritzian eta sistema arruntaren arabera (gorputzen arimarekiko eraginari gagozkiola, kopernikarrek enparauekin fundamentuz eguzkiaren higiduraz diharduten bezala),

badirela ideia eta printzipio zenbait, sentimenetatik ez datozenak, geure baitan aurkitzen baititugu guk landu gabe, haien existentziaz jabetzeko aukera sentimenek eskaintzen badigute ere. Zure idazle prestua, nik uste, ohartu zen sortzetiko printzipioen deiturapean, sarritan, norbere aurriritziak eta eztabaida neketsuetatik aldegin nahia baino ez direla agertzen eta uste dut, halaber, nabarmenkeria honek suposizio horren kontra bere gogoa biziagotu egingo zuela. Orobat uste dut, borrokatu nahi izango zuela nagikeriaren aurka eta zenbaitzuen axaleko pentsakeraren aurka; sortzetiko ideien eta izpirituan berez itsatsitako egien tankerako aitzakiapean, gu ere aise makurtzen baikara egia hauen aurrean, ez dute hauek arretarik hartzen ezagutza hauei dagozkien iturburuak, loturak eta ziurtasuna bilatzeko eta aztertzeko. Erabat ados nator berarekin horretan, are eta bera baino urrutirago noa. Gure analisia muga ez dadin gustatuko litzaidake horretarako gai diren termino ororen definizioak eman daitezela, eta primitiboak ez diren axioma guztiak frogatzea edota frogatzeko bideak erraztu; hau guztia, gizakiek horretaz duten iritzia kontuan hartu gabe eta hauek beren baietza ematen dioten ala ez, inongo axolarik izan gabe. Uste baino erabilgarriago izan zitekeen. Bestalde, beldur naiz bere lehia guztiz laudagarriak ez ote duen gure idazlea kontrakoen talderantza urruntxoegi eraman. Nire ustez, ez du behar hainbat bereizi iturburu adimenean duten beharrezko egien jatorria egitatezko egien jatorritik, hauek sentimenen esperientzietatik eta gure baitan gertatzen diren pertzepzio nahasietatik ondorioztatzen baitira. Dakusazunez, ez nator bat zurekin egiaztat hartzen duzun puntu horretan, alegia, ezagutza oro geuregana ditzakegula sortzetiko inpresioen beharrik gabe. Jarraian ikusiko da biotarik nork duen arrazoi.

(§ 2) FILALETES: Ikusiko dugu. Aitortzen dut, Teofilo maitea, iritzirik arrunki onartuena izanen dela zera erabakitzen duena, alegia, badirela gizakiok, oro har, adosten gaituzten egiazko printzipio batzuk; horregatik deitzen zaie Nozio orokorrak, κοινὰ ἐννοιαί; hortik ondorioztatzen da printzipio horiek, halabeharrez, gure izpirituek existentziarekin batera hartutako inpresioak direla (§ 3). Baina, egia izanda ere badirela gizadi osoa adostasunean biltzen duten zenbait printzipio, akordio unibertsal horrek ez luke haien sortzetikotasuna frogatuko, ahalgarri balitz, eta hala dela uste dut, gizakiak pentsamenduzko adostasun horretara iristeko beste biderik aurkitzea (§ 4). Baina, okerrago dena, adostasun unibertsal hori ez dugu aurkitzen, ez eta bi printzipio espekulatibo (aurrerago mintzatuko gara praktikoez) famatu horien inguruan ere; printzipio horien arabera, den oro da, eta ezinezkoa da gauza bat bera izatea eta ez izatea aldi berean. Zuretzat halabeharrezko egiak eta axiomak diren bi proposizio hauek gizadiaren zati handi batek ezagutu ere ez ditu egiten.

TEOFILO: Sortzetiko printzipioen ziurtasuna ez dut nik adostasun unibertsalean oinarritzen, jadanik esan dizudanez, primitiboak ez diren axioma guztiak frogatzen saiatu behar baitugu, Filaletes, nire ustetan. Unibertsala izan gabe, sentimendu orokor bat gizadi osora hedatu den tradizio batetik etor daitekeela onartuko dizut, tabako erretzearekin gertatu dena, adibidez, mendetsu batean herri guztien ohitura bilakatu baita, uharte-herri batzuk aurkitu diren arren erretzeko arriskurik ez dutenak, sua bera ere ezaguna ez dutelarik. Horrela jakintsu batzuek, Arminius-en⁴¹ taldeko teologoen ere tartean, uste izan dute jainkotasunaren ezagutza tradizio oso zahar eta hedatu batetik zetorrela; eta ni neu ere sinetsita nago, irakaskuntzak sendotu eta zuzendu egin duela ezagutza hau. Halere, naturak berak lagundu dio jainkotasunaren ezagutzari, inongo doktrinaren beharrik gabe; unibertsoko mirariek garamatzate goragoko ahalmen batengana. Izan dira gor eta mutu jaiotako umeak Ilargi betearen benerezioa erakutsi dutenak. Izan dira, baita ere, nazioak inongo herrirengandik ezer ikasi gabe, botere ikustezinen beldur bizi izan direnak. Egia da, Filaletes maitea, ez dela hori Jainkoari buruz daukagun ideia; baina, ideia hori berori arimaren sakonean daroagu, inork ere han

ipini gabe, ikusiko dugunez; eta Jainkoaren lege eternalak han daude senaren antzeko zerbaitek markatuta, are eta molde irakurgarriagoan. Printzipio praktikoak diren hauetaz ere izango dugu solas egiteko beta. Baina aitortu behar dugu giza naturaren baitan dagoela Jainkoaren ideia onartzeko dugun joera. Eta ideia honen lehen irakaskuntza erreibelazioari egokitzen badiogu ere, gizakiek doktrina hau berenganatzeko erakutsi duten ahalmena euren arimen izakeratik datorkie⁴². Jarraian ikusiko dugu, kanpoko doktrinak lehendik gure baitan dagoena iratzarri baino ez duela egiten. Ondorio hau ateratzen dut: gizakien arteko adostasun nahiko orokorra adierazle bat da, ez, inondik ere, sortzetiko printzipio baten froga; haien ziurtasuna gure baitan dagoenetik, ez beste inondik, datorrela adieraztean datza printzipio horien froga zehatz eta erabakigarria. Bi printzipio espekulatibo nagusiei emandako baiespen orokorraren aurka diozunari arrapostu, tinkoen ezarriak beraiek direlarik, esan diezazuket, ezagunak izan ez arren ere, ez lioketela, horratik, sortzetikoak izateari utziko, entzunak direnez geroztik soilik baitira ezagunak; eta gehituko dut funtsean mundu guztiak ezagutzen dituela, eta kontraesanaren printzipioa, esate baterako, uneoro dela erabilia, hortaz zehazki jabetzen ez garen arren, eta barbarorik barbaroena ere, serioa deritzon auzian, larriki gogaituko duela bere buruari kontraesaten dion gezurtiaren jarrerak. Zehazki erreparatu gabe erabiltzen dira maxima horiek. Eta gutxi gora -behera horrela existitzen dira izpirituan entimematan⁴³ ezabatu ditugun proposizioak, kanpotik ezezik, geure baitatik ere egotzi ditugunak.

(§ 5) **FILALETES**: Ezagutza birtualei eta barne ezabatzeari buruz diozunak harritzen nau, zeren eta ariman antzematen ez diren egia itsatsiak daudela esatea, nire ustez, kontraesan nabarmena baita.

TEOFILO: Ez da harritzekoa zure aurriritzi horietatik abiatuta sortzetiko ezagutzak arbuiatzea. Baina txunditurik nago nolatan bururatu ez zaizun pentsamendu ugari ditugula, antzeman gabeak sarritan, premiazoak izanda ere. Gordetzea oroimenari dagokio, eta oroitzapenak errepikatu behar ditu, sarri egin ohi duenez, ez beti. Oroitzea deitzen zaio horri (subvenire), oroitzapenak beti eskatzen baitu laguntzaren bat. Eta beharrezkoa dugu, hainbat ezagutzen artean zerbaitek eragin gaitzan, bata bestea baino gehiago nabarmentzea, ezinezkoa bailitzateke dakigun guztia dena batera eta gardenki pentsamenera ekartzea.

FILALETES: Horretan arrazoi duzula uste dut: baieztapen orokorregia egin dut, arreta handirik gabe, zera esatean, alegia, gure ariman dauden egia guztiez beti ohartzen garela. Baina nekezago gertatuko zaizu planteatzera noakizunari erantzutea. Esan nahi baitizut, ezein proposizio partikularrez baieztada badaiteke sortzetikoa dela, arrazoi beragatik litzatekeela baieztagarri arrazoizko proposizio oro, izpirituak halakotzat joko dituenak alegia, ariman itsatsita daudela jadanik.

TEOFILO: Zurekin nago sentimenen irudikapenei kontrajartzen diedan ideia hutsei dagokien heinean, bai eta egitatezko egien alderantzizkotzat ditudan beharrezko edo arrazoizko egiei dagokienean ere. Zentzu horretan esan behar da Aritmetika eta Geometria osoa sortzetikoak ditugula eta gure baitan daudela era birtual batez, eta ahalgarri zaigu haiek aurkitzea, arreta jarri gero, izpirituan daukagun beste guztia alboratuz, esperientziaz ala inoren tradizioz ikasitako inongo beste egiaz baliatu gabe, Platonek solasaldi batean erakusten digunez⁴⁴, Sokrates aurkezten baitigu bertan haur bat egiaz abstrusuetarantz bideratzen galdera soilez baliatuz, ezer ere irakatsi barik. Nork bere langelan, beraz, zientzia osoak ekoitz ditzakeitsu-itsuan ere, horretarako beharrezko ditugun egiak ikusmenaz edota ukimenaz ikasi gabe; egia izaki, baita ere, darabilzkigun ideia hauek inoiz ere ez zirela kontuan hartuak izango, sekulan ezer ukitu eta ezer ikusi ez bagenu. Naturaren ekonomia miresgarri baten poderioz, sentigarri den zerbaitetan oinarriturik ez dagoen pentsamendu abstrakturik ezin dugu eduki, letren irudiak edota soinuak diren seinaleetan besterik ez bada; pentsamenduak eta seinale

arbitrario horien artean inongo loturarik ez du egon behar halere. Seinale sentigarri hauek beharrezkoak ez balira, ez litzateke arimaren eta gorputzaren arteko aurrezarritako harmoniarik, honetaz luzeago solastatzeko aukera izango dugularik. Baina honek guztiak ez digu eragotziko izpirituak halabeharrezko egiak bere baitatik har ditzan. Noizbehinka somatzen da zeinen urruti joan daitekeen hura inoren laguntzarik gabe, natural hutsak diren logika eta aritmetikaren poderioz; hala nola, oroimena landuz, buruz eta instantean kalkulu handiak burutzera iritsi zen mutiko suediar hura, ohiko zenbaketa era ikasi gabe, irakurtzen eta idazten jakin gabe, oker ulertu ez badut hari buruz kontatu zaidana. Egia da, ezin izan zituela alderantzizko problemak ebatzi, adibidez, erroak ateratzerakoan; ez du, baina, horrek esan nahi ez zukeela berez lortzerik izango bere izpirituaren dohain berriren baten bidez. Horrek frogatzen digun gauza bakarra da, gure baitan dagoenaz jabetzeko zailtasun mailak daudela. Badira sortzetiko printzipioak guztionak eta guztiontzat arrunt sinpleak direnak; badira teorema, berehala deskubritzen direnak, zientzia naturalak osotzen dituztenak, batzuentzat ulergarriago direnak besteentzat baino. Azken finean, nozio hedatuago eta zehaztuagoetara iristeko erabili behar den zentzu zabalago batean, sortzetiko ezagutza primitiboetatik erator daitezkeen egiak oro sortzetikoak dei ditzakegu, izpirituak bere altxor propiotik ateratakoak izan daitezkeelako, hau sarritan erraza gertatzen ez den arren. Eta norbaitek hitzei beste esanahiren bat eman nahi izango balie, ez naiz ni hitzei buruzko eztabaidan sartuko.

FILALETES: Aitortu dizut ariman norberak antzeman ez dituenak egon daitezkeela, ez baitugu beti dakigun oro une egokian gogoratzen, baina beti da beharrezko haiek noizbait ikasiak izana eta inoiz espreski ezagunak. Horrela, zerbait ariman dagoela baieztatzea zilegi bada, arimak oraindik hura ezagutu gabe, hark hura ezagutzeko gaitasuna edo ahalmena duelako izan daiteke soilik.

TEOFILO: Eta zergatik ez beste arrazoiren batengatik, adibidez, arimak zerbait eduki dezakeelako bere baitan, hartaz ohartu ere gabe? Zeren, onartzen baduzu hartutako ezagutzaren bat ezkutuan gorde dezakeela oroimenak, zergatik Naturak ezin izango dio ezkutatu jatorrizko ezagutzaren bat? Ezaguna den substantzia batek beharrezkoa al du lehenik jakitea prezeski zer zaion berezko? Gure arima moduko substantzia batek ezin al du eta ez al du behar eduki anitz tasun eta afekzio, lehen momentutik denak batera antzemanezinekoak? Platonikoen ustetan gure ezagutza guztiak ziren oroipenak, eta horrela, gizakiaren jaiotzarekin arimak zekartzan egiek, sortzetikoak deritzenak, ezagutza zehatz, aurretiazko baten hondarrak izan behar zuten. Iritzi honek, ordea, ez du inongo euskarririk, eta argudio erosoegia da esatea ezen arimak aurreko egoera horretan ere, antzinakoa izanagatik, eduki beharko zituzkeela sortzetiko ezagutzak (aurrexistentzia egiazkoa balitz), hauek ere aurreragoko egoeraren batetikoak izango zirelarik, zeinetan zinez izango baitziren sortzetikoak edota aldi berean sortuak; bestela, infinituraino jarraitu beharko genuke, arimak betierekoak izatera behartuz, eta orduan ere ezagutza horiek sortzetikoak izanen ziratekeen, ariman abiapunturik ez zuketelako sekulan izan; eta norbaitek esango balu aurreko egoera bakoitzak aurreragokoaren zerbait baduela, hurrengoei utzi ez diena, erantzungo zaio, zenbait egia ebidentek existitu behar izan zutela egoera horietan guztietan. Eta nolanahi hartuta ere, beti eta arimaren egoera guztietan izango da argi, beharrezko egiak sortzetikoak direla eta barnetik frogatzen da horien existentzia, esperientzietatik frogaezina dena, egitatezko egiatan gertatzen den bezalaxe. Zergatik ezin izango du arimak eduki inoiz erabili ez den zerbait? Eta hartaz baliatu gabe zerbait edukitzea, hura lortzeko ahalmena soilik edukitzea al da? Hala balitz, gure gozamenerako gauzak besterik ez genituzke edukiko: gauza jakina baita, ahalmenak objektuan eraginik izan dezan, ahalmenaz eta objektuaz gain sarritan premiazkoa dela moldaketaren bat ahalmenean zein objektuan, ala bietan.

Filaletes: Gauzak horrela ulertuz gero, esan daiteke ariman itsatsita daudela arimak sekulan ezagutu ez dituen eta ezagutuko ere ez dituen egiak. Eta hau bitxi egiten zait.

TEOFILO: Nik ez dut ezer absurdurik ikusten horretan, egia horiek existitzen direla baieztatu ezinean ere. Zeren eta oraingo bizimoduan ezagutu ditzakegunak baino gauza nabarmenagoak garatu baitaitezke gure arimetan, hauek egoera berri batean egon daitezenean.

Filaletes: Baina egiak adimenean, beronek antzeman gabe, itsatsita egon daitezkeela onartuta ere, ez dakusat nolatan hauek bereiz ditzakegun, jatorriari begira, izpirituak bakarrik ezagutu ditzakeen egietatik.

TEOFILO: Ezagutzeko ezezik, haiek bere baitan aurkitzeko ere gai da izpiritua, eta ezagutzak hartzeko gaitasuna besterik ez balu edo horretarako ahalmen pasiboa, argizariak irudiak, edota tabula rasa-k letrak bereganatzeko dutena bezain zehazgabea, ez litzateke izango halabeharrezko egien jatorri, hala dela arestian frogatu dudan moduan: ukaezina baita sentimenak ez direla aski egia horien beharritzana guri ikustarazteko eta, beraz, izpirituak baduela joera (aktiboa zein pasiboa) berak bere altxorretik haiek azaleratzeko; horretarako parada eta gogoia eskaintzeko eta batzuetara besteetara baino joera nabarmenago izateko, sentimenak ezinbesteko badira ere. Ikus dezakezu beraz, jauna, beste era batez pentsatzen duten pertsonak, trebeak izanda ere, ez bide dutela aski hausnartu beharrezko edo betiereko egiak eta esperientziakoen artean dagoen aldearen ondorioez, ohartarazi dudanez eta gure ihardespenez honek jadanik frogaturik uzten duenez. Beharrezko egien frogatzeak adimenetik dator soilik, eta gainontzeko egiak esperientzietatik edota sentimenen behaketetatik datoz. Batzuk zein besteak ezagutzeko gai da gure izpiritua, baina lehenengoan jatorri; eta egia unibertsal baten esperientzia partikularrak, zenbatnahi izanda ere, beronen beharritzana arrazoi bidez ezagutu gabe, ezinezkoa litzaiguke hartaz betiko ziur egotea indukzio soilaren bitartez.

FILALETES: Ez al da, baina, egia hitzek, zerbait positiborik adierazteko, zera adierazi beharko dutela, alegia, adimenak hautemana eta ulertua izan?

TEOFILO: Guztiz bestelako zerbait esan nahi digute: aski da, adimenean dagoena bertan aurkitu ahal izatea eta aipatu ditugun egien iturburuak edo jatorrizko frogak adimenean soilik egotea; sentimenek iradoki, zuzenetsi eta sendotu ditzakete egia hauek, inoiz ere ez, ordea, berauen betiereko eta hutsezinezko ziurtasunik frogatu.

(§ 11) FILALETES: Halere, adimenaren eragiketez gogoeta egiteko lana arretaz hartu nahi duen edonork aurkituko du izpirituak nekerik gabe zenbait egiari eskaintzen dion onarpena giza izpirituaren ahalmenaren menpe dagoela.

TEOFILO: Oso ondo. Baina giza izpirituaren egia horiekiko erlazio partikular horixe da, hain zuzen, ahalmenaren ariketa erraza eta naturala egiten duena eta haiei sortzetikoak deitza garrantzitsua. Ez da, beraz, haiek ulertzeko ahalbidea damaigun fakultate hutsa; gure arima taxutzeko joera, gaitasuna, aurremoldaketa da eta haiek handik atera ahal izatea eragiten duena. Ezberdinak diren bezala harriari zein marmolari ezartzen zaizkion irudiak eta haien zainek markatzen dituztenak edota langileak, haietaz baliatuz, azalera ditzakeenak.

FILALETES: Egiak, haien iturburu diren ideien ondoren datozela, ez al da baina egiazkoa? Ideiak, berriz, sentimenetatik datoz.

TEOFILO: Beharrezko egien iturburu diren adimenezko ideiak ez datoz sentimenetatik: zuk aitortua da badirela ideiak izpirituaren hausnarketari zor zaizkionak, honek bere buruaz gogoeta egiten duenean. Egiazkoa da, bestalde, egiak adierazten dituen ezagutza ideien berariazko ezagutzaren ondorengoa dela (tempore vel natura)⁴⁵ eta, halaber, egien izaera ideien izaeraren menpe dagoela, batzuk zein besteak argiki egituratu aurretik; eta sentimenetatik datozen ideiekin bat egiten duten egiak sentimenen menpe

daude, zati batean bederen. Baina sentimenetarik datozen ideiak nahasiak dira, baita haien menpe dauden egiak ere, zati batean bederen; adimenezko ideiak eta hauen menpe dauden egiak, aldiz, bereziak dira, eta ez batzuek ez besteei dute euren jatorria sentimenetan, egia izanik ere sentimenik gabe ez genukeela inoiz haietaz pentsatuko.

FILALETES: Dizionaren arabera, zenbakiak adimenezko ideiak dira eta gertatzen da, halere, kasu honetan zailtasuna ideien berariazko eraketan datzala; gizaki batek, adibidez, badaki jakin 18 gehi 19 37 direla, bat gehi bi berdin hiru dela jakitearen ebidentzia berarekin; baina haur batek ez du lehen proposizioa bigarrena bezain laster bereganatzen, eta hau gertatzen da ideiak ez dituelako eratzen hitzak bezain arin.

TEOFILO: Onar diezazuket egien eraketa zehatzean aurkitzen den zailtasuna sarritan ideien eraketa zehatzean aurkitzen denaren menpe dagoela. Halere uste dut jadanik eratuta dauden ideiez baliatzen zarela zure adibidean. Zeren eta, 10eraino eta hamarrekoak errepikatuz aurrera eginez zenbatzen ikasi dutenek neke handirik gabe ulertzen dute zer den 18, 19, 37, hots, behin, birritan, hiru aldiz 10, gehi 8, 9 ala 7: baina hortik, 18 gehi 19 37 direla ondorioztatzea iristeko, arreta askoz ere biziagoa behar da, bi gehi bat hiru dela jakiteko baino, funtsean azken hau hiruen definizioa besterik ez baita.

(§ 18) FILALETES: Entzun ahala hutsik gabe ontzat ematen ditugun proposizioak ekoiztea ez da zenbakien edota adimenezko deritzezen ideien pribilegioa. Fisikan eta gainontzeko zientzia guztietan ere aurkitzen ditugu eta sentimenek eskaintzen dizkigute batzuk. Proposizio hau, adibidez: bi gorputz ezin daitezke aldi berean leku berean egon, egia bat da, eta egia honetaz beste hauetaz bezainbat gaude sinetsita: ezinezkoa da gauza bat aldi berean izatea eta ez izatea; zuria ez da gorria; laukia ez da zirkulua; kolore horia ez da gozotasuna⁴⁶.

TEOFILO: Proposizio hauen artean aldeak daude. Lehenak, gorputzen sarkortasuna ezinezkoa dela baieztatzen duenak, frogatua izan behar du. Izan ere, kondentsazioetan eta arrarifikazio egiaztagarrietan, adiera hertsian hartuta, sinesten dutenek hura arbuiatzen baitute, hala nola peripatetikoek eta Digby zaldunak⁴⁷; eta ez ditut kristauak aipatuko, hauek gehienbatean sinesten baitute ahalgarri dela Jainkoarentzat kontrakoa, hau da, dimentsioen sarkortasuna. Gainontzeko proposizioak, oster, identikoak dira edota horrela izateko gutxi falta zaie, eta identikoek edo arartegabekoek ez dute frogaren beharrik. Sentimenek hornitutako materialak erabiltzen dituztenak, kolore horia ez dela gozotasuna dioenak adibidez, esaera orokor bera kasu partikularretara aplikatu besterik ez du egiten.

FILALETES: Bi ideia ezberdinek osotutako edozein proposizio, hauetarik bata bestea kontraesaten duelarik, esate baterako, laukia ez dela zirkulua, edota kolore horikoa izatea ez dela gozo izatea, zalantzarik gabekotzat kontsideratu behar da, hitzak ulertu bezain pronto, eta honako esaera orokor hau bezain ziur onartu behar da: ezinezkoa da gauza bat aldi berean izatea eta ez izatea.

TEOFILO: Bata (hots, esaera orokorra) printzipioa da, eta bestea (hots, ideia baten eta honen kontrakoaren ukapena) aurrekoaren aplikazioa.

FILALETES: Printzipio orokorra ezeztapen partikularren menpe dagoela eta hau haren oinarri dela hobesten dut nik; aiseago ulertzen da gauza bera dena ez da ezberdin dioena, kontraesanak gaitzesten dituen printzipio orokorra baino. Horretan, beharrezko litzateke sortzetiko egia gisan onartzea molde horretako proposizio kopuru amaigabea, ideiak, bata zein bestea, ezeztatzen dituztenak, gainontzeko egiak ukitu ere gabe. Kontuan izanez gero, gainera, proposizio bat ezin dela sortzetikoa izan, hura osotzen duten ideiak hala izan ezik, suposatuta beharko da sortzetikoak direla kolore, soinu, gustu, irudi etabarrez ditugun ideia guztiak.

TEOFILO: Ez dut ikusten nolatan hau, alegia, , kontraesan-printzipioaren iturburua izan daitekeen, eta hura baino sinpleagoa; uste baitut askatasun gehiago ematen dela A ez da B baieztatzean, A ez da ez-A esatean baino. Eta A-ri B izatea eragozten dion arrazoia hau da, alegia, B-k beragan duela ez-A. Bestalde, zera dioen proposizioa ez da sortzetikoa, kontuan hartzen badugu sortzetiko egia terminoari arestian eman diogun esanahia. Gozoaren eta garratzaren sentipenak kanpoko sentimenetatik baitatozkigu. Beraz ondorio nahasia dugu hau (hybrida conclusio), axioma erantsi baitzaio egia sentigarri bati. Baina beste proposizio honi dagokionez, alegia, , sortzetikoa dela esan daiteke, zeren honi erreparatzean kontraesan-printzipioaren barnehartze edo aplikazioa egiten baitzaio adimenak berez hornitzen duenari⁴⁸, sortzetikoak diren ideia horiek nozio bateraezinak inplikatzeko dituztela ohartzen garenetik.

(§ 19) FILALETES: Proposizio partikular eta berez nabari diren horiek, hauen egia entzun ahala onartzen baita (hala nola, berdea ez dela gorria), beste proposizio orokorragoen ondorio direla defendatzean, hauek ere beste hainbat sortzetiko printzipiotzat hartzen dituzularik, ez duzu, antza, kontuan hartzen proposizio partikular horiek dudaezineko egiatzat hartzen dituztela esaera orokrago haien inongo ezagutzarik ez dutenek.

TEOFILO: Lehen ere honi erantzuna emana dizut: entimema bidez arrazoitzen denean agertzen ez diren premisa nagusian oinarritzen garen bezalaxe, esaera orokor horiek ere funtsezko ditugu: zeren sarritan egintza zehatz horretan pentsatzen ez dugun arren arrazoitzen ari garenean, ez eta gabiltzanean edo jauzika ari garenean, egia da beti ondorioaren indarra partzialki isilpean geratu den horretan datzala, eta ezin daiteke beste inondik etorri, ondorio hori frogatzerakoan argi geratuko denez.

(§ 20) FILALETES: Baina ideia orokor eta abstraktuak arrotzago zaizkio nonbait gure izpirituari nozio eta egia partikularrak baino: beraz, kontraesan-printzipioaren aplikaziotzat hartzen dituzuen egia partikular horiek naturalagoak izango dira izpirituarentzat printzipioa bera baino.

TEOFILO: Egia da erreparatzen diegula lehenik egia partikularrei eta, orobat, egia konposatuago eta zakarragoetatik hasten garelako: hori ez da, baina, eragozpen naturaren ordena bakunetatik has dadin, eta egia partikularragoen kausak orokorragoen menpe egon daitezen, hauen eredu baino ez direlarik. Gure baitan apertzepzio oro baino lehen birtualki existitzen denari erreparatu nahi zaionean, bakunetatik hastea da bidezko. Printzipio orokorrak gure pentsamenduetan barneratzen baitira, beraien arima eta lotura izaki. Hain zaizkie beharrezkoak, nola giharreak eta zainak ezinbesteko diren ibiltzeko, gogoan ez baditugu ere. Izpiritua printzipio hauei eusten zaie uneoro, baina ez zaio hain erraz egiten hauek bereiztea eta banan-banan berezirik irudikatzea, horrek arreta bizia eskatzen baitu egiten den gauzetan, eta hausnartzeko ohiturarik ez duen jendea ez da horretan ia saiatzen. Ez al dituzte bada txinarrek geure moduko soinu elkartuak? Baina beste idazkera moldeetara ohitu direlarik, ez zaie oraindik bururatu soinu horientzat alfabetua moldatzea. Horrela gertatzen da gauza asko ditugula guk jakin ere gabe.

(§ 21) FILALETES: Izpiritua hain prestuki makurtzen bada zenbait egiaren aurrean, ez ote dator hau gauzen naturaren gogoetatik, ez baitio honek beste modu batean epaitzen uzten, aipatutako proposizioak izpirituan jatorriz itsatsita egon ordez?

TEOFILO: Bata zein bestea, biak dira egiazkoak. Gauzen natura eta izpirituarena bat datoz biak. Eta zuk kontrajartzen badituzu gauzaren gogoeta eta izpirituan itsatsita dagoenaren apertzepzioa, objekzio honek berak adierazten du, jauna, irizkide dituzun horiek sortzetiko egiatzat hartzen dutela soilik senak berez onartuko lukeena, nahasiki baino ezaguna izango ez balitz ere. Badira mota horretako egiak, eta izango dugu beta horietaz mintzatzeko. Baina argi naturala deritzonak ezagutza berezia eskatzen du, eta sarritan gauzen naturaren gogoeta ez da besterik, gure izpirituaren eta kanpoan bilatu beharrik ez daukagun sortzetiko ideia horien naturaren ezagutza baino. Horregatik

deitzen diet sortzetikoak ziurtatuak izateko gogoeta mota hori behar ez duten egiei. § 5-ean erantzunda geratzen da § 22-ko objektzioa, zeinetan hau nahi den, alegia, sortzetiko egiak inplizituki izpirituan daudela baieztatzen denean, honek adieraztea soilik, izpirituak haiek ezagutzeko ahalmena duela; zeren ohartarazi baitut horrez gain baduela izpirituak ahalmen haiek bere baitan aurkitzeko eta haiekin ados egoteko joera, behar bezala pentsatzen duenean.

(§ 23) FILALETES: Badirudi, jauna, esaera orokor hauek lehen aldikoz proposatzen zaizkienek ez dutela ezer erabat berririk ikasten, zure ustetan. Baina argi dago lehenik haien izenak ikasten dituztela, eta jarraian egiak, bai eta egia hauen euskarri diren ideiak ere.

TEOFILO: Ez gara ari hemen nolabait arbitrarioak diren izenez, ideiak eta egiak naturalak diren bitartean. Baina ideia eta egia horiei dagokienean, nigandik urrun sumatzen dudak doktrina mota egozten didazu, jauna, oraindik ere ados azaltzen bainaiz sortzetiko ideia eta egiak ikasi egiten ditugula dioen doktrinarekin, hala jatorriari begira, nola esperientzia bidez egiaztatuz. Nik ez dut, beraz, zuek diozuen suposatzen, aipatzen duzuen kasu horretan ezer berririk ikasiko ez bagenu bezala. Onartezina egiten zait, halaber, proposizio hau: . Izenei dagozkien egiak gure baitan daude eta etengabean ikasten ditugu, bai euren iturburutik erakarriz, arrazoi frogagarri ezagutzen ditugunean (sortzetikoak diren erakusgarri), bai adibidez frogatuz, aritmetikari arruntek egin ohi dutena, zeinak, arrazoirik jakin gabe, tradizioz soilik ikasten dituzten arauak, eta haiek irakatsi aurretik gehien-gehienez ere esperientzia bidez justifikatzen dituzten, berau beharrezko deritzoten bezain urrun eramanaz. Batzuetan, matematikari oso trebeek ere, inoren aurkikundearen iturburuen ezjakinean, haiek aztertzerakoan metodo induktibo honekin konformatu beste irtenbiderik ez dute; horrela ziharduen idazle ospetsu hark Parisen, han bizi nintzenean, tetragonismo aritmetikoari buruzko nire saiakera aztertzean⁴⁹, Ludolforen zenbakiarekin konparatuz⁵⁰, bertan errakuntzaren bat kausituko zuelakoan: zalantzak izatean zuzen zebilen, demostrazioa ezagutarazi zitzaion arte, honek dispensatzen baikaitu amairik gabe iraun zezaketen saiakeretatik, sekulan erabat ziur izatera iritsi gabe. Eta hauxe berau, hots indukzioen inperfekzioa, berriro ere froga daiteke esperientziaren instantzietara joaz. Badira, izan ere, oso urrun eraman gaitzaketen progresioak, bertan dauden aldaketak eta legeak aurkitu aurretik.

FILALETES: Baina, erabiltzen ditugun hitz edo terminoak ezezik, ideiak ere kanpotik etor daitezten, ez al dago modurik?

TEOFILO: Gu gerau geure baitatik kanpo izatea litzateke orduan beharrezko, adimenezko edo gogoetazko ideiak gure izpiritutik sortuak baitira. Eta jakin nahi nuke nolatan eduki genezakeen guk izatearen ideia, gu geu izaki ez bagina, geure baitan izatea aurkitu gabe.

FILALETES: Eta nola erantzuten diozu zuk nire lagunetariko batek egindako erronka honi? Honela dio berak: norbaitek aurki baleza sortzetiko ideiak dituen proposizio bat, adieraz diezadala; egundoko atseginik handiena eskainiko lidake.

TEOFILO: Aritmetika eta Geometrizko proposizioak aipatuko nizkioke, jite horretakoak baitira denak, eta beharrezko egien eremuan ezin daiteke besterik aurkitu.

(§ 25) FILALETES: Harrigarri gertatuko zaio hau askori. Zientziarik zailenak eta sakonenak sortzetikoak direla baieztatu al daiteke?

TEOFILO: Orainaldian haiei buruz ditugun ezagutzak izan ez arren, sortzetikoa da birtuala deritzokegun ezagutza, marmolaren lerroetan zehar gauzatutako irudia marmolean dagoen bezala, hura landuz azaleratu aurretik.

FILALETES: Baina ahalgarri ote da haurrek, kanpotik datozkien nozioak bereganatuz eta euren baietza emanaz ari direlarik, ez edukitzea inolako ezagutzarik euren baitan sortzetikoak erne bide diren egia haietaz, euren izpirituaren atal bat osatzen dutenak, bertan daudelarik, diotenez, hizki ezabaezinetan itsatsiak, oinarri gisan erabiliak izan

daitezen? Hala balitz, naturak alferrik hartutako nekea litzateke edota, gutxienik, hizki horiek oker itsatsiak, hauteman ezinezkoak bailirateke beste hainbat gauza oso ondo ikus ditzaketen begientzat.

TEOFILO: Gure baitan dagoenaren apertzepzioa arreta baten eta ordena baten menpe dago. Ahalgarri ez ezik, egoki ere bada, haatik, haurrek arreta gehiago eskain diezaieten sentimenen nozioei, beharrianak gidatzen baitu arreta. Hala eta guztiz, ondorioak ikustarazten digu jarraian natura ez dela alferrik ahalegindu gure baitan sortzetiko ezagutzak inprimatzen, ezinezkoa bailitzaiguke haiek gabe halabeharrezko egien gaurko ezagutzara iristea zientzia frogagarrietan, eta egintzen kausetara; eta ez genuke piztien gainetik ezer edukiko.

(§ 26) FILALETES: Sortzetiko egiak existitzen badira, ez ote da beharrezko sortzetiko pentsamenduak ere izatea?

TEOFILO: Inondik ere ez, zeren eta pentsamenduak ekintzak baitira, eta ezagutzak edota egiak, gure baitan dauden heinean, haietaz ohartzen ere ez garelarik, ohiturak dira edota gaitasunak; eta pentsatu ere apenas egiten ditugun hainbat gauzaren jakitun gara.

FILALETES: Egia bat izpirituan egotea izpirituak hartaz sekulan pentsatu gabe, ulergaitz egiten zaigu.

TEOFILO: Norbaitek esan lezake, baita ere, lerroak marmolean irudigileak azaleratu aurretik inprimaturik egotea bururagaitza dela. Gainera, objekzio hori gehiegi hurbiltzen bide zaio printzipio eskabideari. Oroitzapen platonikoan oinarritu gabe, sortzetiko egiak onartzen dituzten guztiek oraindik ere pentsatu ez ditugun egiak onartzen dituzte. Arrazoinamendu horrek, bestalde, gehiegi frogatzen du; izan ere, egiak pentsamenduak badira, ukatu beharko zaizkigu sekulan pentsatu ez ditugun egiak ez ezik, inoiz pentsatu arren, orain pentsatzen ez ditugunak ere; eta egiak ez badira pentsamenduak, ohiturak eta gaitasunak baizik, berezkoak zein hartuak, zerk eragozten du gure baitan existitzea zenbait, sekulan pentsatu ez ditugunak, ez eta sekulan pentsatuko ere.

(§ 27) FILALETES: Printzipio orokorrak sortzetikoak balira, askoz ere distiratsuago agertu beharko lirateke haien trazarik ere aurkitzen ez dugun zenbait pertsonaren izpirituan; haurrez, inozoez, basatiez ari naiz: hauek baitira, izan ere, gizaki orotarik ohituraren poderioz eta iritzi arrotzen eraginez izpiritua gutxien aldatua eta usteldua dutenak.

TEOFILO: Beste molde batez arrazoitu behar dugu hemen, nire ustez. Sortzetiko printzipio orokorrak eskaintzen zaien arretarengatik agertzen dira soilik; eta pertsona hauek ez daukate apenas arretarik edota daukatena beste zerbaitetan darabilte. Gorputzaren beharrianetara iraultzen dute euren ia ardura osoa; eta bidezkoa da pentsamendu huts eta askeak ardura nobleagoen sari izatea. Egia da, bai, haurrek eta basatiek izpiritua ez dutela ohituren eraginez besteek bezain aldatua, ezta ere besteek bezain landua, arreta ematen duen doktrinaren eraginez. Ez litzateke zilegi argirik bizienak hobe distiratzea gutxien merezi duten izpirituetan, lausorik lodienez inguraturik daudenetan. Ez nuke gogoko izango, Filaletes, gehiegizko ohore ematea ezjakinari eta basakeriari, zu eta zure idazle gailena bezain jakintsu eta trebe izaki; Jainkoaren dohainak gutxiestea litzateke. Norbaitek agian esan dezake, zenbat eta ezjakinago izan, orduan eta marmol bloke bikainaren edota enbor akatsik gabearen abantaila gehiago ditugula. Baina, tamalez, ez datza horretan haiekiko antza; ezagutzarako gai garenetik, hura lortzeko axolarik eza bekatu da, eta zenbat eta gutxiago ikasia izan, orduan eta errazkiago huts egingo du.

II

Nolatan ez dagoen sortzetiko printzipio praktikorik

FILALETES: Morala zientzia frogagarria da, baina hala eta guztiz, ez dauka sortzetiko printzipiorik. Oso zaila litzateke arau moral bat bera sortzea, berez printzipioak bezain adostasun orokor eta berehalakoa lortuko lukeena.

TEOFILO: Guztiz ezinezkoa da egia identikoak edota arartegabekoak bezain nabari diren arrazoizko egiak aurkitzea. Eta zinez baieztatu daitezkeen arren moralak printzipio frogaezinak dituela, eta lehenetariko eta erabilienetariko bat hau dela, alegia, pozari jarraitu behar zaiola eta tristura saihestu, honi erantsi behar zaio ez dela hau arrazoi hutsez ezagututako egia, barne esperientzian finkatuta dagoelako, edota ezagutza nahasitan, zoriona eta tristezia ez baitira erraz bereizten.

FILALETES: Ezin ziurtatu ditugu egia praktikoak arrazoinamendu bidez, diskurtso bidez edota izpirituaren beste edozein iharduera mota bidez.

TEOFILO: Hala balitz ere, sortzetiko printzipioak izaten iraungo lukete. Halere, aipatu berri dudana esaterik izakera ezberdinekoa dirudi; ez du hura arrazoiak, senak baizik, ezagutzen, nolabait esateko. Sortzetiko printzipioa izanda ere, ez dagokio argi naturalari, ez baitugu hura argi betean ezagutzen. Hala eta guztiz, printzipio hori bere horretan utzita erakar ditzakegu handik ondorio zientifikoak, eta erabat ados nago zurekin, jauna, moralaz esan berri duzunaz, alegia, zientzia frogagarria dela. Ikusten dugu, izan ere, irakasten dituela egia hain nabariak, non lapurrak, piratak eta gaizkileak ere euren artean kunplitzera beharturik dauden.

(§ 2) FILALETES: Baina gaizkileek euren artean Justiziazko arauak errespetatzen dituzte, hauek sortzetiko printzipiotzat hartu gabe.

TEOFILO: Eta zer axola dio? Arduratzen al da ba, akaso, inoiz jendea arazo teoriko horietaz?

FILALETES: Justiziazko printzipio horiek komenientziazko arau soiltzat errespetatzen dituzte, jokamolde hori ezinbestekoa baita euren elkarrearen iraupenerako.

TEOFILO: Halaxe da, bai. Ezin mintza daiteke egokiago gizaki guztietaz, oro har. Eta horrela daude ariman itsatsita legeak, hots, gure biziraupen senaren eta benetako ondasunen ondorio gisan. Inork, agian, uste al du guk nahi dugula egiak adimenean egon daitezen elkarrengandik aske, pretorearen ediktuak bere pregoi edo albumean egon ohi ziren gisan? Alde batera uzten dut nik, hemen, gizakia bere lagun urkoa maitatzera daraman sena, horretaz geroago mintzatuko baikara; orain arrazoi bidez ezagunak zaizkigun egiez soilik nahi dut hitz egin. Aitortzen dut, orobat, Justiziari dagozkion zenbait arau ezin daitezkeela frogatu beren hedadura eta perfekzio osoan, ez bada Jainkoaren existentzia eta arimaren hilezkortasuna onartuz, bai eta giza senaz bulkatuak ez diren arauak ariman daudela itsatsita egia eratorriak bailiran. Baina Justizia bizitza honetako premietan soilik oinarritzen dutenak, edota guk daukagun haren beharrean, eta ez zintzo izateak damaigun zorionean, hau baita bozkariorik handienetarikoa funtsean Jainkoa dagoenean, hauek gaizkileen elkarrearen pareko izateko arriskuan daude.

Sit spes fallendi, miscebunt sacra profanis.⁵¹

(§ 3) FILALETES: Aitortzen dut Naturak gizaki ororen baitan ezarri duela zoriontsu izateko eta miseriaren aurkako grina bizia. Hauek bai, hauek dira benetan sortzetiko printzipio praktikoak, eta printzipio praktiko ororen xedeari jarraituz, etengabeko eragina dute gure ekintzetan. Baina arimaren ongirantza joerak dira eta ez gure adimenean itsatsita legokeen egia baten lortatzak.

TEOFILO: Pozarren sentitzen naiz, jauna, sortzetiko egiak onartzen dituzula ikusiz, jarraian azalduko dizudanez. Printzipio hori nahiko hurbil dago nik zehaztu berri dudanetik, pozaren bila eta tristeziatik aldentzera garamatza printzipiotik, alegia. Poz iraunkorra besterik ez baita zoriona. Baina gure joera ez da, hain zuzen, zorionerantz, pozerantz baizik, hau da, oraindirantz; arrazoiak, aldiz, etorkizunerantz eta iraupenerantz garamatza. Adimenak adierazten duen joera agindu edo egia praktikoa

bilakatzen da: eta joera sortzetikoa baldin bada, egia ere halakoxea da, ez baitago deus ariman adimenak adierazten ez duenik, beti orainaldiko kontsiderapen berezi bidez ez bada ere, nahiko argi azaldu dudanez. Senak ere ez dira beti praktikoak; egia teorikoak gordetzen dituzte batzuek, hala nola, zientzien eta arrazoinamenduaren barne printzipioak, haien arrazoa ezagutu gabe, berezko senez erabiltzen ditugunean. Zentzu honetan ezin ukatu dituzu sortzetiko printzipioak, errefusatu nahi izan arren egia eratorriak sortzetikoak direla. Deitura arazoa besterik ez litzateke izango nik sortzetikoa zeri deritzodan eman dudan azalpen honen ondoren. Eta norbaitek deitura hau ezarri nahi izango balio senez hasieratik hartutako egiei soilik, ez naiz ni horrekin eztabaidan sartuko.

FILALETES: Ongi da. Baina gure ariman berez itsatsita baleude zenbait bereizgarri, hainbat ezagutzazko printzipio gisan, guregan eragile bezala ezagutu ahal izango genituzke soilik; guregan etengabe ari diren bi printzipioen eragina sentitzen dugun bezalaxe, hots, zoriontsu izan nahia eta miserable izateko beldurra.

TEOFILO: Badira ezagutzazko printzipioak, printzipio praktikoak gure nahimenean bezainbesteko eragin etengabea dutenak gure ariman; esate baterako, mundu guztiak oharkabea erabiltzen ditu ondorioak logika naturalez ateratzeko arauak.

(§ 4) FILALETES: Arau moralek froga beharra dute, beraz, ez dira sortzetikoak; hala gertatzen da gizarteari buruzko bertuteen jatorria den arauarekin: .

TEOFILO: Jadanik errefusatua dudan objektzioa egiten didazu behin eta berriro. Zuzen zaude sortzetiko printzipioak ez diren arau moralak ba daudela esatean; ez du, baina, horrek eragozten, sortzetiko egiak izan daitezen, zeren eta egia eratorri bat sortzetikoa izanen da gure izpiritutik erakar genezakeenean. Baina, badira sortzetiko egiak, gure baitan bi eratara agertzen direnak: argi naturalez eta senez. Aipatu berri ditudanak gure ideien bidez frogatzen dira, hortik sortzen da argi naturala. Baina, badira argi naturalaren ondorioak, senarekiko printzipioak direnak. Horrela gertatzen da ekintza humanitarioetarako grina senez sortzen zaigula gogoko zaigulako, eta arrazoiz, bidezko ikusten dugulako. Hortaz, existitzen dira gure baitan senezko egiak, sortzetiko printzipioak berauek, sentitzen eta onartzen direnak, haien frogarik gabe ere; eta froga eskura daiteke sen horren arrazoa emanez gero. Horrela, ondorioak nahasian, eta senez bailitzan, erakartzearen arauak erabiltzen ditugu batzuetan, baina logikoez frogatzen dute haien arrazoa, matematikariek ere ibiltzean edota jauzi egitean oharkabea burutzen denaren arrazoa eskaintzen diguten modura. Zera dioen arauak, alegia, ez zaiola inori egin behar guri inork egitea nahi ez dugunik, arau honek froga ezezik testigantza ere behar du. Ugazaba denak gehiegi nahi badu, orduan besteei ere gehiegi zor ote die? Bidezko borondateari bakarrik dagokiola esango didazue. Baina, era horretan arauak, neurri izateko aski ez izateaz gain, neurriaren premia izango luke. Arau horren zinezko esanahia hau da, alegia, inoren lekua dela bidezkotasunez ebazteko egiazko ikuspuntua, norbera han kokatzen denean.

(§ 9) FILALETES: Sarritan burutzen dira egintza okerrak, inongo barrendamurik gabe: adibidez, hiriak erasoan hartzen direnean, soldaduek eskrupulurik gabe burutzen dituzte egintzarik ankerrenak; herrialde zibilizatuek abandonaturik utzi izan dituzte euren haurrak, zenbait karibetarrek⁵² irendu egiten dituzte, gizendu ondoren jateko. Garcilaso de la Vega⁵³ kontatzen digu nola Peruko zenbait herritan preso hartzen zituzten emakumeak ohaidetzat, eta umeak hamahiru urte kunplitu arte nola elikatzen zituzten ondoren jateko, eta gauza bera egin ohi zutela amekin, haurrak egiteko gai ez zirenean. Baumgarten-en bidaian kontatzen zaigu⁵⁴ bazela Egipton gizon santutzat zeukaten santoi bat, eo quod non foeminarum unquam esset ac puerorum, sed tantum asellarum concubitor atque mularum.

TEOFILO: Zientzia morala (senak salbu, pozaren bila eta tristeziatik urruntzera garamatzan irrika, adibidez) ez da sortzetikoa, aritmetika ez den bezala, hau ere barne argiek hornitzen dizkiguten frogapenen menpe baitago. Eta froga hauek lehen unetik begibistan ez daudenez, ez da mirari sinesgaitz gertatzen, gizakiak beti eta hasieratik euren baitan daukaten oroz ez jabetzea, eta nahiko laster ez irakurtzea Jainkoak, San Paulok dioenez, haien izpirituetan itsatsi dituen lege naturalaren ikurrak⁵⁵. Hala eta guztiz, moralak garrantzi gehiago izaki matematikak baino, Jainkoak gizakiari senak eman dizkio, berehalakoan eta arrazoiketarik gabe, arrazoiak agindutakorantza joera duten senak, alegia. Hala gabilta gu ibili, mekanikaren legeen arabera, haietaz pentsatu ere gabe, edota elikatu elikatzen gara, ez horren premia dugulako soilik, areago horrek damaigun plazerragatik baizik. Baina sen horiek guztiek ez garamatzate ekintzara ezinbestean; grin bidez kontraeusten diegu, aurriritzi bidez lausotzen ditugu eta kontrako ekanduen bidez aldarazten ditugu. Halere, gehienetan kontzientziaren sen horiekin ados gaude eta jarraitu ere jarraitzen diegu zirrara ahaltsuagoek gainditzen ez dituztenean. Gizadiaren gehiengoak eta zatirik sanoenak ohoreak egiten dizkio. Ekialdekoak eta grekoak nahiz erromatarrak, Biblia eta Korana, denak datoz horretan bat; mahomatarren poliziak ere zigortu ohi du Baumgartenek kontatzen duena; bestalde, amerikar basatiak bezain aberetuak egon behar, basapiztien krudelkeria gainditzen duten ohitura horiek onesteko. Halere, basati horiek beroiek beste zenbait unetan ezin hobeto sentitzen dute justizia zer den; eta nonbait, noizbait zilegi ez den praktika zitalik existitzen ez den arren, gutxi izanen dira gehienetan eta gizadiaren gehienak kondenatzen ez dituenak. Hau ez da arrazoirik gabe gertatzen, eta arrazoiketa soilaren poderioz ere gertatzen ez delarik, zati batean bederen instintu naturalei egotzi beharko diegu. Ohiturak, tradizioak eta disziplinak ere esku hartzen dute horretan, baina naturalari esker izan da, oro har, ohitura eginbeharreko horiei dagokienetan alderdi onerantz bideratzea. Halaber, naturalak erakarri du Jainkoaren existentziaren tradizioa. Naturak, bestalde, eskaini egiten dio gizakiari, bai eta animalia gehienei ere, bere espeziekideekiko afektu eta gozotasuna. Tigreak berak ere parcit cognatis maculis⁵⁶: hortik dator legelari erromatarraren esaldi ospetsua: quia inter omnes homines natura cognitionem constituit, unde hominem homini insidiari nefas esse⁵⁷. Armiamak dira salbuespen bakarra, elkar jaten baitute, halako molde non emeak arraz gozatu ondoren hura irensten duen. Filantropia deritzokeen lagunarteko instintu unibertsal honez aparte, badira gizakiarengan beste zenbait partikularragoak, hala nola ar eta emearen arteko erakarmena, aita eta ama euren seme-alabengana duten maitasuna, zeinari grekoek *στοργήν* deritzoten, eta antzeko beste joerak, zuzenbide naturalak edota, hobe esan, Naturak animaliei irakatsi dien zuzenbidearen irudia osotzen dutenak, legelari erromatarraren esanetan. Gizakiaren baitan bereziki bada duintasunaren eta egokieraren kezka, makurrarazten gaituena ezkutatzera, pudorea jagotera, intzestuak higuintzera, gorpuak ehorztera, gizakirik edota piztia bizirik sekulan ez jatera garamatzan kezka. Kezka beronek garamatza, baita ere, izen ona zaintzera beharrezana eta bizitza bera baino areago batzuetan; kontzientzi minei lotuta egotera eta laniatus et ictus horiek eta Tazitok⁵⁸ Platonen ildotik⁵⁹ aipatzen dituen tortura eta laztasunak sentitzera; eta horrez gain, geroari eta molde nahiko naturalez agertzen den botere gorenari ikara. Errealitatea dago honetan guztian; baina funtsean inpresio natural horiek, zeinahi izanda ere, arrazoiarentzat laguntza baino ez dira, eta Naturak aholkatzen duenaren adierazgarri. Ohiturak, heziketak, tradizioak eta arrazoiak laguntzen dute horretan, baina giza naturak ere hartzen du parte. Egia da arrazoirik gabe laguntza horiek guztiak ez lirakekeela aski moralari ziurtasun osoa eskaintzeko. Lizunkeriez mintzatzen soilik gozatzen duten pertsona zenbaiten aitzakiatan, edota zimaurrea maneiatzan bizi direnak ere badirela eta,

hala nola Butan-ekoak, zeinak erregearen kaka zerbait lurrintsutzat daukaten, ez dugu bada ukatuko, adibidez, gizakia berez aldentzen dela gauza zantarretatik. Ongi zintzorantza berezko ditugun instintu hauei dagokienez, funtsean, jauna, nire iritzikoa zarela uste dut; apika baieztatuko dutun arren pozkariora eta zorionera garamatzen instintuari buruz jadanik esan duzuna, alegia, zirrara horiek ez direla sortzetiko egiak. Baina erantzuna dizut dagoeneko, sentipen oro dela egia baten pertzepzioa, eta sentipen naturala sortzetiko egia baten pertzepzioa, maiz nahasia, kanpoko sentimenen esperientziak halakoxeak baitira; horrela bereizi daitezke sortzetiko egiak argi naturaletik (ez baitauka honek era bereizian ezagugarri ez denik deus); era berean bereizi behar da generoa bere espezieetik, sortzetiko egiek berenganatzen dituztelako bai instintuak, bai argi naturala.

(§ 11) **FILALETES**: Zuzena eta zuzenkontrakoaren mugak ezagutu arren, beti nahasian erabiliko lituzkeen pertsona, bera partaide den gizartearen atsedean eta zorionaren arerio nabarmentzat hartu beharko genuke. Gizakiek, ordea, uneoro erabiltzen dituzte haiek nahasian; ez dituzte, beraz, ezagutzen.

TEOFILO: Gauzak apur bat teorikoegi hartzea da hau. Egunero gertatzen da gizakiek euren ezagutzen aurkakoa egitea, haiek euren buruei ezkutatzuz, grinei jarraitzekotan izpiritua beste norabait bideratzen dutenean: hala ez balitz, ez genuke inor ikusiko, gaitzak eta heriotza bera ere erakarriko dioen hura jakinaren gainean jaten eta edaten. Ez lituzkete euren negozioak lardaskatuko; ez lukete egingo nazio osoek noizbehin egin dutena. Etorkizunak eta arrazoinamenduak gutxitan dute orainaldiak eta sentimenek adina eragin. Ondotxo zekien hau italiar hark, zeina, torturara eramane zutelarik, urkamendia etengabe gogoan edukitzen saiatu baitzen oinazetan, horrela eutsi ahal izateko; eta noizbehinka entzuten zitzaion: *Io ti vedo*⁶⁰, eta liberatu ondoren azaldu zuen bere hitzen zergatia. Zinezko ongiari eta zinezko gaizkiari beti erreparatzeko erabaki tinkoa hartzen ez badugu, batoren bila joateko, bestea saihesteko, menperatuak izanen gara, eta bizitza honetako premia nagusiekin gertatzen zaigu paradisuarekin eta infernuarekin horietan gehien sinesten zutenei gertatzen zitzaien gauza bera, hain zuzen.

Cantantur haec, laudantur haec

Dicuntur, audiuntur

Scribuntur haec, leguntur haec,

*Et lecta negliguntur.*⁶¹

FILALETES: Sortzetikotzat hartzen den ezein printzipio, bidezko eta egokitza soilik onar dezake norberak.

TEOFILO: Berriro gatoz hainbat aldiz errefusatu dudana suposiziora, zera dioena alegia, sortzetiko egia oro beti eta denontzat dela ezaguna.

(§ 12) **FILALETES**: Baina legea haustearen adostasun publikoak frogatzen du lege hori ez dela sortzetikoa; adibidez, haurrak maitatu eta zaintzeko legea hautsi zuten aintzinekoek, zilegi baitzitzaien haien abandonatzea.

TEOFILO: Legearen haustura hori gertatu dela kontuan hartuz, atera dezakegun ondorio bakarra hau da, alegia, naturaren ikurrak ez direla zuzen irakurriak izan, gure arimetan itsatsita egon arren, geure bihurrikerien erruz, leku ezkutuegian daudelako ere, batzuetan; betekizun baten ezinbestekoa era errefusaezinez erakusteko, gainera, hura frogatzera iritsi behar dugu, eta hau ez da ohikoa. Geometria gure grinen eta gure gaurko interesen aurka balego, moralak dagoen bezala, hura ere bortxatuko genuke, haren aurka jarriko ginateke, Euklides eta Arkimedesen frogapen guztien gainetik, paralogismoz betetako fantasiatzat hartuko baikenituzke hauek; eta Joseph Scaliger⁶², Hobbes⁶³ eta beste zenbait, Euklides eta Arkimedesen aurka idatzi dutenak ez leudeke gaur dauden bezain bakarti. Zirkuluaren karratura eta hainbat problema zailetan aurkitu

nahi zuten aintzaren grinak soilik itsutu ahal izan ditu puntu horretaraino hainbeste merituko pertsona hauek. Eta berdin jokatuko lukete interes berarekin leudekeen beste zenbaitek ere.

FILALETES: Betekizun orok dakar berekin lege ideia, eta legea ezin daiteke ezagutu, ez susmatu ere, hura idatzi duen legegilerik gabe, ez eta zigorrik edota saririk gabe.

TEOFILO: Legegilerik gabe ere sari eta zigor naturalak egon daitezke; adibidez, neurrigabekeriari zigorra gaixoaldiak dira. Hala eta guztiz, printzipioz denei gertatzen ez zaienez, aitortzen dut, gaiztakeriarik zigortu gabe eta ekintza onik saritu gabe utziko ez duen Jainkoa ez balego, ia ezinezkoa litzatekeela ezinbestez betebeharreko agindurik izatea.

FILALETES: Ezinbestekoa da, beraz, Jainkoaren ideia eta geroko bizitzarena sortzetikoak izatea.

TEOFILO: Bat nator zurekin horretan, azaldu dizudan adieran.

FILALETES: Baina ideia horiek hain urrun daude, antza, giza izpirituan berez grabatuak izatetik, ez zaie argi eta zehatz iruditzen gizaki ikasi askori, gauzak zehazki ikertzen dituztela aldarri egingo dizutenei ere; are eta gutxiago izanen dira ezagunak gizaki ororentzat.

TEOFILO: Suposaketa berera gatoz berriro ere; ezaguna ez dena sortzetikoa ez dela dioenera alegia, lehendik ere hainbat aldiz errefusatu dudan suposaketa. Sortzetikoa izanagatik ez da bestegabe argi eta bereiziki ezaguna: arreta bizia eta ordena behar izaten da sarri hartaz jabetzeko; eta batzuetan jende ikasiak ere ez dabilta horretan soberan, are gutxiago edozein gizaki.

(§ 13) FILALETES: Baina gizakiek sortzetikoa ez-jakin eta zalantzan jarri ahal badute, alferrik da sortzetiko printzipioez mintzatzea, haien beharrezana frogatu nahian; gauzen egiara eta ziurtasunera iristen lagundu beharrean, eta horretan saiatzen dira, printzipio horiekiko zalantzan aurkituko ginateke, geure baitan ez baleude bezala.

TEOFILO: Ezin ditugu zalantzan jarri sortzetiko printzipio guztiak. Kontraesan eta berberatasun printzipioekin ados zeunden horretan, jauna, ukaezinezko printzipioak badaudela aitortuz, sortzetikoak zirela adierazi ez bazenuen ere une hartan; baina hortik ez da halabeharrezko ondorioz ateratzen sortzetiko den orok ala sortzetiko printzipio horiei loturiko orok dudarik gabeko nabaritasuna ere eduki behar duenik.

FILALETES: Nik dakidala, oraindik ez da inor ahalegindu printzipio horien zerrenda osoa eman nahian.

TEOFILO: Eta eskaini al digu, bada, inork Geometriako axiomen zerrenda osoa eta zehatza?

(§ 15) FILALETES: Mylord Herbert-ek⁶⁴ zehaztu nahi izan ditu printzipio horietatik batzuk, hala nola: 1. Goreneko Jainko bat dago. 2. Jainkoari zerbitzua zor zaio. 3. Bertutea eta errukia dira gurpenik egokiena. 4. Nork bere bekatuen damu hartu behar du. 5. Bizitza honen ondoren zigorrak eta sariak daude. Egia nabariak direla ados nago, eta halako moldekoak non gizaki arrazoidunarentzat onartu beharrekoak diren, zuzen azalduz gero. Baina, nire lagunaren ustetan, sortzetikoak izatetik urrun daude; eta bost proposizio horiek Jainkoak gure arimetan itsatsitako nozio arruntak badira, beste asko ere badirela, diote, zerrenda horretan ezartzekoak.

TEOFILO: Ados neu ere, sortzetikotzat hartzen baititut beharrezko egia oro, senak barne. Baina, nire ustez, bost proposizio horiek ez dira sortzetiko printzipioak, frogatu ahal eta behar direlako.

(§ 18) FILALETES: Hirugarren proposizioan, Jainkoari bertutea zaiola gurpenik gogokoena dioena, ez dago argi zeri deritzogun bertute. Esanahirik arruntenean hartzen badugu -hots, herrialde ezberdinetako iritzi ezberdinek ohoregarritzat daukatena- proposizio hori ebidentea izan ala egiazkoa ere ez izan, berdin litzateke. Eta Jainkoaren

nahiarekin bat datozen egintzei deitzen badiegu bertute, proposizioak ez digu gauza berri askorik erakusten, idem per idem izango bailitzateke; adieraziko liguke, soil-soilik, Jainkoaren gogoko dela bere nahiarekin bat datorrena. Gauza bera gertatzen da bekatuaren nozioarekin laugarren proposizioan.

TEOFILO: Ez naiz oroitzen inon irakurri izana bertutea iritzien menpean sarri kontsideratua izan denik; filosofoek behintzat ez diote hori. Egia da ohitura eta egintza ezberdinei izen hori damaiotenen iritzia menpe dagoela bertute izena, ongi ala gaizki irizten dioten eta euren arrazoimena nola darabilten; baina bertutearen nozio orokorraren inguruan denok bateratsu datoz, aplikapenean gero bereiziko badira ere. Aristotelesekin dio, eta beste askok ere, arrazoiaren laguntzaz grinak bideratzeko bizimoldea dela bertutea⁶⁵, are eta errazagoa oraindik, arrazoiaren arabera jokatzeko ekandua. Eta hori atsegin gertatu behar zaio, ezinbestez, gauzen zio gorena eta azkena denari, zeinari ez zaion deus ez-axola, eta beste ezer baino gutxiago arrazoidun kreaturen egintzak.

(§ 20) FILALETES: Sarri esan ohi da, ohiturak, heziketak, gurekin harremanetan direnen iritzi orokorrek lauso ditzaketela sortzetikoak bide diren printzipio moral horiek. Baina, hau egia bada, adostasun orokorretik atera nahi den frogak deusezten du erantzun honek. Askoren arrazoibidea honako honetan laburbiltzen da: pertsona zuhurrek onartzen dituzten printzipioak sortzetikoak dira; gu eta gure irizkideak zuhurrak gara; beraz, gure printzipioak sortzetikoak dira. Arrazoibide bitxia berau, zuzen zuzen hutsezintasunera garamatzana!

TEOFILO: Ez dut nik erabiltzen adostasun orokorra frogak nagusi gisa, berrespen gisa baizik; zeren eta arrazoiaren argi naturalez lortutako sortzetiko egiek barnean baitaramatzate euren ikurak, Geometriak bezala, bitartegabeko printzipioetan bildurik daudelako, zuk zeuk ukatu ezinezkotzat onartutako printzipioetan. Aitortzen dut, halere, zailago dela intuituak eta zenbait berezko ohikuntza ekanduetatik bereiztea, gehienetan ahalgarri omen den arren. Gainera, euren izpiritua landu duten herriek zuhurtzia barbaroek baino hobeto bereganatu dutela uste dut, hauek ia piztiak bezain aise menperatzean arras erakusten baitute euren nagusitza. Eta ezin bada beti azken muturreraino iritsi, piztiak bailiran oihan sarratuetan ezkututzen direlako da; menperagaitzak dira han, eta arriskuak ez du nekeak adina balio. Zalantzarik gabe, abantaila da izpiritua landu izana, eta ankerkeriaren alde, kulturaren aurka mintzatzea zilegi balitz, era berean piztien mesedetan arrazoiari eraso egiteko eskubide izanen genuke eta seriotzat hartuko genituzke Despréaux jaunaren zakarraldi izpiritualak bere Satira batean gizakiari animaliarekiko abantaila eztabaidatzeko galdera hau egiten duenean:

Eta, Libiako artzainen ediktuz

lehoiek hustuko balituzte Numidiako larreak...".⁶⁶

Aitortu beharra dugu, hala eta guztiz, garrantzizko zenbait puntutan barbaroek aurrea hartzen digutela, bereziki gorputzaren sasoari dagokionean; arimari begira ere baieztatu daiteke batzuetan haien moral praktikoa gurea baino hobea dela ez daukatelako, ez pilatzeko diruzalekeriarik, ez menperatzeko handinahirik. Eta gehitu dezakegu kristauekiko harremanak gaiztoagotu egin dituela gauza askotan; mozgorkeria irakatsi zaie (pattarra eskainiz), juramentuak, biraoak eta lehendik apenas ezagutzen zituzten hainbat bizio. Ongia eta gaizkia, biak dira gurean, haien artean baino oparagoak; europarraren zitalkeria basatiarena baino zitalagoa da; gaiztakeria landuagoa baita harena. Halere, naturak herri horiei ematen dizkien dohainak guri arrazoimenak eskaintzen dizkigunekin gizakiok bat egin dezagun ez dago inongo eragozpenik.

FILALETES: Eta nola erantzungo zenioke, jauna, nire lagun baten dilema honi?: Zinez poztuko nintzateke -dio berak- sortzetiko printzipioen aldekoek esango balidate ea printzipio horiek ezaba daitezkeen, ala ez, heziketaren eta ohituraren eraginez; ezabaezinak badira, gizaki ororengan aurkitu beharko ditugu, eta gizabanako bakoitzaren izpirituan agertu beharko dute; eta nozio arrotzek alda baditzakete, jatorritik zenbat eta gertuago, orduan eta gardenago eta distiratsuago agertu beharko dute, esan nahi baita, haurrengan eta ezjakinengan, hots, iritzi arrotzek eraginik ahulena izan dutenengan. Zeinahi alderditara makurtu, argi ikusiko dute -dio berak- etengabeko egintzek eta betidaniko esperientziak gezurtatzen dutela edozein aukera.

TEOFILO: Zure lagun trebeak lausotze eta ezabatze kontzeptuak nahasi izanak harritzen nau, horrela pentsatzen duzuenon artean ez izatea eta ez azaltzea nahasten den bezala. Sortzetiko ideiak eta printzipioak ezabaezinak dira, baina lausotuta daude gizaki ororen baitan (orain gertatzen dena) gorputzaren beharrianetarantz daukagun joeragatik, eta oraindik gehiago, sarritan hartutako ohitura txarregatik. Barne argizko ezaugarri horiek adimenean noiznahi distiratuko lukete, nahimenari berotasuna ekarriz, gure sentimenen pertzepzio nahastuak geure arretaz jabetuko ez balira. Idazti Santuak bezainbeste mintzatzen zaizkigu lehia honetaz filosofia antzinakoa eta modernoa.

FILALETES: Beraz, inongo argirik ez balego bezain iluntasun trinkoan eta egundoko zalantzatan aurkitzen gara.

TEOFILO: Jainkoak ez beza hala nahi; ez genuke zientziarik, ez legerik, ez eta arrazoimenik ere.

(§ 21, 22, etab.) FILALETES: Aurriritzien indarrean, bederen, ados egongo zarela uste dut; hauek sarritan naturalizat onartarazten baitigute berez haurrei emandako irakaskuntza okerretik datorrena, bai eta heziketak eta elkarrizketak ezarritako ohitura txarretatik ere.

TEOFILO: Aitortzen dut maisutzat duzun idazle ospetsuak honi buruz gauza miresgarriak eta meritu handikoak esaten dituela, zuzen ulertuz gero; ez dut, halere, uste, naturalaren eta sortzetiko egien doktrina zuzen ulertuaren aurkako ezer dioenik. Bere oharrak urrutiegi ez dituela eramango uste dut; sinetsita bainago, orobat, iritzi asko egiaztat hartuak direla, ohituraren eta sineskeriaren ondorio besterik ez izaki, eta badirela beste hainbat, filosofo batzuek aurriritzizat pasarazi nahi lizkiguketenak, arrazoi zuzenean eta naturan oinarrituta egon arren. Berriztatu nahi dutenengandik, handinahiez gehienetan, jagoteko bezainbeste arrazoi dugu, inpresio zaharrez mesfidatzeko. Eta lehengoak eta oraingoak luze hausnartu eta gero, ondorio honetara iritsi naiz, alegia, doktrinarik gehienetan aurki daitekeela zentzurik. Atsegin izango nuke, beraz, izpirituzko gizakiek beren handinahia nola asetu aurkituko balute, eraikitzen eta aurrerantz egiten, atzera bidean eta hondatzen baino arreta gehiago jarritz. Nahiago nuke eraikuntza publiko ederrak egiten zituzten erromatarren antzekoa izatea, eta ez errege bandalo harena⁶⁷, zeinari amak gomendatu baitzion, eraikuntza handi haien ospera iristea espero ezinean, haiek suntsitzen saia zedila.

FILALETES: Sortzetiko egien aurka ihardun diren idazle jakintsu guztien helburua izan da, hain zuzen ere, beren alferkeria estaliz, izen polit honen anparuan aurriritzi hutsak ezartzen ez uztea.

TEOFILO: Bat gatoz puntu horretan, zeren eta zalantzazko printzipioak baieztearen aurka ez ezik, Euklidesen axiomak ere frogatzen saia daitezela eskatuko bainuke nik, jadanik antzinako batzuek egin dutena. Eta sortzetiko printzipioak nola ezagutu eta nola aztertu galdetzen denean, hau da nire erantzuna, alegia, lehenago ere esan dudanez, instintuak salbu, haien zioa ezezaguna gertatzen zaigulako, oro lehen printzipioetara biltzen saiatu behar dugula, hau da, axioma identiko edo arartegabekoetara, gauzen aurkezpen berezia baino ez diren definizioen bidez. Ez dut zalantzan jartzen orain arte sortzetiko

egien aurkako izan diren zure lagunek, beraiek ere, metodo hau ontzat emango dutela, euren xede nagusiarekin itxuraz bat datorkeelako.

III

Sortzetiko printzipioei buruzko beste zenbait hausnarketa, bai espekulazioari dagozkionak, bai praktikazkoak

(§ 3) FILALETES: Egiak lehen printzipioetara laburbil daitezten nahi duzu, baina aitortu behar dizut, inolako printzipiorik izatekotan, bat, ez bairik gabe, hau dela: . Halere, zaila bide da hau berau sortzetikoa dela mantentzea, horretarako komentziturik egon behar baituzu ezintasun eta berberatasun ideiak sortzetikoak direla.

TEOFILO: Sortzetiko egien alde daudenak ideia horiek ere sortzetikoak direla behar dute sostengatu eta horretaz sinetsita egon; eta aitortzen dut nik neronek ere halaxe pentsatzen dudala. Izate, ahalgarri, berberatasun ideiak sortzetikoak dira, gure pentsamendu eta arrazoinamendu orotan sartzen baitira, eta izpirituarentzat esentzialtzat hartzen ditut; baina lehen ere esan dut ez zaiela arreta berezirik eskaintzen eta luzarora soilik iristen garela haiek antzematera. Adierazi dut, halaber, nolabait esateko, sortzetikoak garela geurekiko, eta izakiak garenetik, sortzetikoa zaigula izatea; eta izatearen ezagutza guk geure buruaz daukagun ezagutzan bilduta dagoela. Gainontzeko nozio orokorretan ere antzeko zerbait gertatzen da.

(§ 4) FILALETES: Identitatea ideia naturala bada, eta ondorioz hain ebidente eta izpirituan hain presente, sehaskatik ezagutu beharko genuke; atseginez entzungo nioke zazpi urteko ume bati edota berdin hirurogeita hamarreko gizakiari azalduko balit, gorputz eta arimaz osotutako izakia dugun gizakia, ea berbera den gorputza aldatu zaionean, eta, metempsikosisa ontzat hartuz, ea Euforbo Pitagoras bera ote zen⁶⁸.

TEOFILO: Aski argi utzi dut naturala zaiguna ez dugula horregatik sehaskatik ezagun; ezagutu ere ezagut dezakegu ideia bat, bertatik abiatuz sor daitezkeen arazo guztiak ebazteko gaitasunik gabe. Haur batek karratua eta haren diagonalak zer diren ezin dezakeela jakin uste izatea bezala da, nekez ikasiko duelako haurrak diagonalak karratuaren aldearekiko elkarneurgaitza dela. Auziari berari dagokionez, beste nonbait azalduko monaden doktrinan argi frogatu nuela uste dut; luze mintzatuko gara jarraian gai horretaz.

(§ 6) FILALETES: Ongi konturatzen naiz alferrik argudiatuko nizukeela zera esanaz, alegia, baieztatzen duen axioma ez dela sortzetikoa, osoari eta zatiari buruzko ideiak erlatiboak eta zenbaki eta hedadura ideien menpekoak diren aitzakiaz: ezen sostengatuko bide baitzenuen haiekiko sortzetiko ideiak existitzen direla, eta bai zenbakiarenak bai hedadurarena sortzetikoak direla orobat.

TEOFILO: Zuzen zaude, eta nire ustetan, gainera, hedaduraren ideia osoarena eta zatiarenaren ondorengoa da.

(§ 7) FILALETES: Zer deritzozu Jainkoa gurtu behar dela dioen egia? Sortzetikoa al da?

TEOFILO: Nire ustez, Jainkoa gurtu beharrak berekin darama zera azpimarratu beharra, alegia, beste ezein objektu baino areago hura goratzen dugula, eta hau haren ideiarene eta haren existentziaren ezinbesteko ondorio dela; honek adierazten dit egia hau sortzetikoa dela.

(§ 8) FILALETES: Ateok, ordeak, euren enxepluz frogatzen digutela dirudi, Jainkoaren ideia ez dela sortzetikoa. Eta antzinakoek aipatzen dituztenak albora utziz, ez al dira bada aurkitu nazio osoak, Jainkoaren inongo ideiarik ez dutenak, ez eta Jainkoa edota arima adierazteko izenik ere, hala nola Brasilen Soldaniako golkoan, Karibeko irlatan, Paraguaian...?⁶⁹.

TEOFILO: Fabrizio jaun defuntuak⁷⁰, Heidelbergeko teologo ospetsua bera, gizakiaren apologia egin zuen, berau ateismo salaketatik zuritzeko. Zehaztasun handiko idazlea da eta aurriritzi askoren gainetik dabilena; ez naiz, baina, sartuko egintzen eztabaida

honetan. Onartzen dut herri osoek substantzia gorenean inoiz ez pentsatua, ez eta arimaren izatean. Gogoan dut orain, behin Holandan, nire eskariz, Witsen jaun agurgarriaren laguntza⁷¹, Aita Gurearen Barantolako⁷² hizkuntzara itzulpena eman nahi izan zidatenean, nola itzuli ezinean geratu ziren puntu honetan, , erabat ezinezkoa baitzitzaien adieraztea Barantolakoei santu hitzak zer esan nahi zuen. Gogoan dut, halaber, hotentoteek egindako Kredoan adierazteko, bertan esan nahi duten hitzak erabili zituztela. Eta ez arrazoirik gabe, zeren gure πνεῦμα, anima, spiritus, greko eta latinezko hitzek jatorrian ez baitute besterik adierazten, arnasten dugun aire edo haizea baino, sentimenen bidez geureganatzen dugun gauzarik sotilena baita berau: sentimenetatik hasi, eta gizakiak apurka-apurka sentimenen gainetik dagoenera bideratzen dira. Baina ezagutza abstraktuetara iristeko daukagun eragozpenak ez die ezertan ukitzen sortzetiko ezagutzei. Badira herriak hitzik ez daukatenak Izakia adierazteko; zalantzan jarriko al dugu, izatea zer den badakitela, haiek horretan bereziki apenas pentsatuko duten arren? Bestalde, hain eder eta hain nire gustuko aurkitzen dut gure idazle bikainak Jainkoaren ideari buruz idatzi duena (Adimenari buruz Entseiua, I liburua, 3. atala, § 9), haren aipua egitea ezinbesteko dudala:

"Gizakiek apenas eragotzi dezakete ideia motaren bat edukitzea euren solaskideek izen ezberdinez maiz aipatzen dituzten gauzez, eta gorentasun, handitasun ideia berekin daroan zerbaitetaz mintzatzen denean, edota edozergatik interesa duen ezein koallitate nabarmenez, izpirituari aurkeztzen zaiona botere absolutu eta euskaitzaren ideia denean, halabeharrez ikaratuko gaituena (nik erantsiko nioke: halabeharrez maitagarri zaigun, berebiziko onberatasunezko izaera duena) horrelako ideiak, itxura guztien arabera, zirrara bortitzagoak eragin behar ditu eta beste edozein baino areago hedatu: batez ere, arrazoimenaren argirik arruntenekin bat datorren ideia izanik, eta gure ezagutzen edozein ataletik berez erator daitekeena. Horrelakoxea da Jainkoaren ideia, zeren jakituria eta ahalmen nabarmenen ezaugarriak hain argi agertzen baitira kreazio osoan, horretaz hausnartu nahi duen ezein arrazoidun kreaturak ezinbestean edirenen du mirari horien guztien egilea: eta Izaki horren deskubrimenduak Berataz behin baino entzun ez duen edozein ariman berez eragingo duen zirrara hain da handia eta berekin dakartza pentsamendu hain garrantzitsuak eta munduan zehar hedatzeko hain egokiak, guztiz harrigarri egiten zaidala Lurbiran nazio oso bat bera izatea Jainkoaren inongo ideiarik gabeko gizaki tentelez osotua. Suaren edota zenbakien inongo ideiarik gabeko gizakiak irudikatzea bezain harrigarri deritzot honi".

Zinez poztuko nintzateke zilegi balitzait hitzez hitz gure idazlearen beste hainbat pasarte eder hona ekartzea, baina aipatu gabe utzi beharko ditugu. Azalduko dut, halere, hemen, idazle hau Jainkoaren ideiarekin ados datozen eta haietatik berez ondorioztatzen denaz mintzo denean, ez dirudiela askorik urruntzen denik nik sortzetiko egiei ezartzen diedan esanahitik; eta Jainkoaren inongo ideiarik gabeko gizakiak zenbakien edota suaren ideiarik gabekoak bezain arraroak berari gertatzeaz, ohartaraziko dut, bertoko misioak lagundu izanagatik Espainiako erreginaren izena ezarri zitzaizen Irla Marianetako biztanleak aurkitu zituztenean, ez zeukatela haiek suaren inongo ezagutzarik, Aita Gobien⁷³ urrutiko misioak bisitatzeko ardura duen jesuita frantsesak argitara eman duen eta igorri didan txostenean kontatzen duenez.

(§ 16) FILALETES: Gizaki zuhur orok ideia hori izatetik Jainkoaren ideia sortzetikoa dela ondoretzea zilegi balitz, bertuteak ere sortzetikoa beharko du izan, gizaki zuhurrek beti izan dutelako hari buruz egiazko ideia.

TEOFILO: Bertutea bera barik, bertutearen ideia da sortzetikoa, eta hori zen akaso zuk esan nahi zenuena.

FILALETES: Hain da egia Jainkoa existitzen dela, nola egia den bi lerro zuzenek elkargunean sortzen dituzten aurkako angeluak berdinak direla. Eta ez da sekulan izan

izaki arrazoidunik, bi proposizio hauen egia aztertzen saiatu eta baietza eman ez dionik. Hala eta guztiz, zalantza barik, horretaz inoiz pentsatu ez duten gizakiak askotxo dira eta bi egia hauek, hala bata nola bestea, ezagutzen ez dituztenak.

TEOFILO: Onartzen dut, baina horrek ez du eragozten egia horiek sortzetikoak izatea, hots, norberaren baitan aurkitu ahal izatea.

(§ 18) FILALETES: Probetxugarri litzateke, baita ere, substantziaren sortzetiko ideia edukitzea; baina, gertatzen dena zera da, alegia, ez daukagula substantziaren ideiarik, ez sortzetikorik, ez hartutakorik, ez baitugu hura geureganatzen, ez sentipenez, ez hausnarketaz.

TEOFILO: Nire ustez, aski dugu hausnarketa substantziaren ideia gure baitan aurkitzeko, substantzia baikara gu geu. Eta garrantzitsuenetarikoa dugu nozio hau. Baina luzeago mintzatuko gara honetaz solasaldian barna.

(§ 20) FILALETES: Izpirituan sortzetiko ideiak egotekotan, izpirituak aktualki haietan pentsatu gabe, oroimenean bederen egon beharko dute, handik oroitzapen bidez erakarriak izan daitezkeelarik, hau da, oroimenak gogora ekartzen dituenean ezagunak izan, ariman lehendik izan diren hainbat pertzepzio bezalatsu, oroitzapenak oroitzapenik gabe ezin iraungo badu behinik behin. Lehendik gure izpirituan ideia bat egon den barne segurtasunak soilik bereizten baitu oroitzapena beste edozein moldetako pentsamendutik.

TEOFILO: Ezagutzak, ideiak edo egiak gure izpirituan egon daitezen, ez da inondik ere beharrezko guk haietan inoiz aktualki pentsatu izana: ohitura naturalak besterik ez dira, hots, gaitasun eta jarrera aktibo eta pasiboak, eta ez tabula rasa soilik. Egia da, baina, platonikoek uste zutela jadanik aktualki noizbait pentsatua genuela geure baitan aurkitzen dugun hura; eta platonikoak ezeztatzeko, ez da aski hartaz oroitzen ez garela argudiatzea, gauza segurua baita ahaztuta geneukan hainbat eta hainbat pentsamendu itzultzen zaigula gogora. Gertatu izan da norbaitek uste izatea olerki berri bat idatzi duela, eta olerki hori hitzez hitz aspaldi irakurria izana olerkari zahar bati. Eta sarritan gauza zehatz batzuk asmatzeko gaitasun bereziaz jantzirik aurkitzen gara, lehendik ere asmatuak ditugulako, hartaz oroitzen ez bagara ere. Itsu geratu den umea inoiz argia eta koloreak ikusi izanaz ahaztu daiteke, Ulric Schonberg ospetsuari gertatu zitzaion bezala; Weiden, Palatinatu Garaian jaioa zen eta Könisbergen (Prusia) filosofia eta matematika irakasle mirestua izan ondoren, 1649an hil zen. Halako gizon batengan, bera oroitu gabe, antzinako bizipenen zantzuak irautea ez da harritzekoa. Ametsek sarritan antzinako pentsamenduak era horretan berriztatzen dizkigutela uste dut. Julio Scaligerrek Veronako gizon ospetsuen gorespina bertsotan idatzi zuenean, Brugnolus autoizendatzen zen gizon bat agertu zitzaion ametsetan, jatorriz bavaroa bera, baina Veronan bizi izan zena, eta aipatua ez izana deitoratu zuen. Julio Scaliger ez zen oroitzen inoiz hartaz lehendik ezer entzuna, baina ametsak eraginda bertso elegiakoak idatzi zituen haren ohoretan. Handik urteetara, Joseph Scaliger, semeak, Italian bidaiari zebilela, zehazki jakin zuen Veronan behinola izen horretako gramatikari edo kritikari jakintsu ospetsu bat izan zela, Italiako letra ederren berreraikuntzan irmoki saiatu zena. Elegiarekin batera historia hau Scaliger aitaren poemetan aurkitzen da, eta semearen gutunetan. Aipatuta agertzen da, baita ere, Scaligerana deritzon Joseph Scaligerren solasaldien bilduman. Susmoak ugari dira Julio Scaligerrek Brugnolusi buruz zerbait inoiz jakin zuela eta oroimenean galdu; ideia zahar baten nolabaiteko berrikuntza izan zela ametsa, ideia hori lehendik ere izan dugula jakinarazten digun berariazko oroitzapenik izan ez bazuen ere. Ez naiz behintzat ondokoa baieztatzeraz behartuta sentitzen, alegia, pertzepzio batek ez duela inongo arrastorik uzten, hura izana gogoratzeko lain sakona izan ez denean ere pertzepzioa.

(§ 24) FILALETES: Aitortu beharra daukat nahiko natural erantzuten diezula sortzetiko egien aurka planteatzen dizkizugun eragozpenei; agian, guk jazartzen ez diegulako zuk

defendatzen dituzun zentzuan. Beraz, behin eta berriz esango dizut beldur izateko arrazoirik izan dela, sortzetiko egien existentzia aitzakitza hartuko ote zuten zenbait alferrek ikerkuntza ahaleginari uko egiteko, eta doktore eta jakintsu askoren irtenbide eroso bilakatuko ez ote zen printzipioen printzipio gisa proposatzea, printzipioak ez direla eztabaidara atera behar.

TEOFILO: Esan dut lehenago ere, zuen lagunen asmoa bada onartzeko dituzten egien frogak bila daitezen aholkatzea, sortzetikoak izan ala ez, erabat gaude ados, eta sortzetiko egiak nire erara defendatzeak ez dio inori ahaleginik aurreratuko, zeren intuituen arrazoia bilatzearen alde egoteaz gain, nire arauetarik garrantzitsuenetako bat hau da, alegia, mesedegarri dela axioma beraien frogapenak bilatzea; eta gogoan dut, Parisen Roberval zenari zahartzaroan⁷⁴ trufa egiten ziotenean, Euklidesenak frogatzen ahalegintzen zelako, Apolonio⁷⁵ eta Prokloren⁷⁶ bidetik, nola aldarrikatu nuen mota horretako ikerketen premia. Printzipioak ukatzen dituenekin ezin eztabaida daitekeela pentsatzen dutenen printzipioa onartzen duenak ez dauka nire sisteman lekurik, ez zalantzarik, ez frogarik, ezin eduki dezaketen printzipioei buruzkoetan izan ezik. Egia da, iskanbilak eta nahaspilak alboratzeko, eztabaida publikoetarako eta beste zenbait diskusiotarako arauak ezar daitezkeela eta, hauen indarrez, finkaturik dauden zenbait egia zalantzan jartzea debekatu; baina, hau polizia lana litzateke, filosofiarena baino gehiago.

BIGARREN LIBURUA

Ideiak

I

Ideiez oro har eta, bidenabar,
aztertzen da ez giza arimak beti pentsatzen duen

(§ 1) FILALETES: Ideiak sortzetikoak diren aztertu ondoren, begira dezagun orain haien izakera eta haien aldeak. Ez al da egia ideia pentsamenduaren objektua dela?

TEOFILO: Hala da bai, baina erantsi behar diozu horri barne objektu arartegabekoa dela, eta objektu hori gauzen izakera edo koalitategen adierazpide dela. Ideia pentsamenduaren forma balitz, berari erantzuten dioten pentsamenduekin sortuko eta amaituko litzateke; baina haren objektu izaki, pentsamenduen aurreko eta ondorengo izan daiteke. Kanpo objektu sentigarriak bitartekoak besterik ez dira, ez baitaude arimarengan zuzenean eragiterik arartegabeko eran. Jainkoa da arartegabeko kanpo objektu bakarra. Esan zitekeen, baita ere, arima bera dela haren barne objektu arartegabekoa, ideiak edo gauzei erantzuna gordetzen dituen heinean. Mundu txiki bat baita arima, bertan ideia bereziak Jainkoaren errepresentazio direlarik, eta nahasiak unibertsoaren errepresentazio.

(§ 2) FILALETES: Hasieratik arima tabula rasa, inolako ikurrik edota ideiarik gabea dela uste duten nire lagunek galdetzen dute, nolatan hartzen dituen gero ideiak, eta zein moldez iristen den kopuru hain miresgarria edukitzera. Hitz batez erantzuten diote horri: esperientziaz.

TEOFILO: Hain sarri aipatzen den tabula rasa hau, nire ustez, naturarekin bat ez datorren fikzioa besterik ez da eta filosofoen nozio osagabeetan soilik oinarritzen da, hala nola, hutsean, atomoetan, edota osoaren zati bik elkarren artean duten atsedeen absolutu nahiz erlatiboan, edota inongo formarik gabe ulertzen den lehen materialian. Beren baitan aldakuntzarik ez daukaten gauza uniformeak abstrakzioak baino ez dira, halatsu denbora, espazioa eta matematika hutsetako gainontzeko izakiak. Atalak atsedenean dauzkan gorputzik ez dago, ez eta beste edozeinetatik zerbituetan bereizten ez den substantziarik. Giza arimak gainontzekoenengandik bereizi ez ezik, elkarrengandik ere bereizten dira, espezifikoa ez badira ere ezberdintasun hauek. Eta eskura bide ditudan frogen arabera, ezein gauza substantzialek, arima zein gorputz izan, bere harreman propioa dauka gainontzeko guztiekin; eta bata besteagandik beti bereiziko da izendapen intrisekoz. Eta arimari ideiak kendu ondoren tabula rasa-z mintzatzen diren horiek ezin esango dute zer geratzen den, euren lehen materialari deus uzten ez dioten Eskolako filosofoei gertatzen zaie bezala. Agian erantzungo zait filosofoen tabula rasa honek adierazten duena zera dela, alegia, arima berez eta jatorriz ahalmen hutsez dagoela hornituta. Baina akturik gabeko ahalmenak, hau da Eskolako ahalmen hutsak, naturak ezagutzen ez dituen fikzioak baino ez dira, abstrakzioz soilik erdiesten direnak. Non aurki liteke inoiz munduan, akturik gauzatu gabe, potentzia soilera mugatzen den ahalmenik? Beti dago ekintzarako gaitasun bat, ekintza baterako hobia, gainera, besterako baino. Eta gaitasunaz gain, ekintzarako joera ere badago eta hauetarik noiznahi zenbatnahi joera subjektu bakoitzarengan: eta joera hauek ez daude sekulan nolabaiteko ondoriorik gabe. Aitortzen dut beharrezkoa dela esperientzia arima pentsamendu batzuetara ala besteetara determina dadin, eta gure baitan dauden ideiak kontuan har ditzan, baina esperientzia eta sentimenak nolatan irits daitezke ideiak gauzatzera? Leioak al ditu arimak? Xaflen antzekoa al da? Ezkoaren antza al du? Argi dago arima horrelakoa dela uste dutenek gorputzezko egiten dutela hura. Filosofoen artean onartua den axioma honekin argudiatuko zait, . Baina arima bera salbuetsi behar da, eta honen afekzioak. Nihil est in intellectu quod non fuerit in sensu, excipe: nisi ipse intellectus. Arimak bere baitan biltzen du substantzia, bata, berbera, kausa, pertzepzioa, arrazoinamendua eta sentimenek eskaini ezin duten beste hainbat nozio. Entseiuaren

egilearekin nahiko ados dator hau, hark ere ideia askotxoren iturburua izpirituak bere izakeraz egiten duen hausnarketan bilatzen baitu.

FILALETES: Idazle trebe horrekin, beraz, bat etorriko zara ideia oro sentazio edota hausnarketa bidez datorrela dioenean, hots, kanpoko objektu sentikorrak edo arimaren barne eragiketak behatzetik.

TEOFILO: Dagoeneko soberan komentatu dugun erantzuna saihestuz, aurrez adierazi nahi dizut, jauna, ideiak kausa horietarikoren batetik datozkigula diozunean, beren pertzepzio aktualetik ulertzen dudala nik; uste baitut erakutsi dudala, guk hauteman aurretik, haiek gudan daudela, zerbait berezirik duten heinean.

(§ 9) FILALETES: Ikus dezagun bada, horren ondoren, pertzepzioa bereganatzen eta ideietan aktualki pentsatzen arima hasi dela noiz esan daitekeen. Ondotxo dakit badela ikusmolde bat zera baieztan duena, alegia, arimak beti pentsatzen duela, eta pentsamendu aktuala hain zaiola bereizgaitza arimari, nola hedadura aktuala zaion bereizgaitz gorputzari⁷⁷. (§ 10) Baina, ezin dut ulertu beharrezkoago izatea arimari beti pentsatzea gorputzei beti mugimenduan aritzea baino, pertzepzioa baitzaio arimari, mugimendua zaiona gorputzari. Azken hau, bederen, arrazoizko ikusten dut eta zinez jakin nahi nuke, jauna, horri buruz duzun iritzia.

TEOFILO: Zerorrek esan duzu. Ekintza ez doakio arimari gorputzari baino gehiago, berdin irizten baitiot naturaren aurkako bai pentsamendurik gabeko arimaren egoerari, bai gorputzaren atsedean absolutuari, munduan ez dago, gainera, horren adibiderik. Inoiz ihardunean ari den substantziak beti ihardungo du horretan, inpresio guztiek baitiraute eta beste berri batzuekin soilik nahasten baitira. Gorputz bat kolpatzean, egundoko zurrumbilo kopurua eragiten edo sustatzen da bertan, likidoan bezala, funtsean solido orok likidotasan gradu bat duelako, eta likido orok solidotasun gradua, eta barne zurrumbilo horiek erabat geldiarazteko modurik ez dago: beraz, zilegi zaigu sinestea, gorputza inoiz ere ez dagoelarik atsedenean, hari dagokion arima ere ez dela inoiz pertzepziorik gabe izango.

FILALETES: Agian, ordea, gauza guztien egile eta jagolearen salbuespen izan daiteke, perfekziotan bera mugarik gabea izaki, ez duela lorik, ez kuluskarik ere egiten. Eta hori ez doakio ezein izaki mugaturi, ez behintzat giza arimaren gisako izaki bati.

TEOFILO: Gauza segurua da loak hartzen gaituela eta lo kuluskak egiten ditugula eta Jainkoa horietatik salbu dagoela. Ez du baina horrek esan nahi kuluskan gaudelarik ez daukagula pertzepziorik. Alderantzizkoa gertatzen da, ondo begiratu gero.

FILALETES: Bada gure baitan pentsatzeko ahalmena duen zerbait, baina horrek ez du esan nahi beti horretan diharduenik.

TEOFILO: Egiazko ahalmenak inoiz ere ez dira posibilitate soil. Joera eta iharduna daude beti hor.

FILALETES: Baina dioen proposizioa ez da berez ebidentea.

TEOFILO: Eta nik ez diot hori. Arreta eta arrazoinamendu apur bat behar da hura kausitzeko; jende arrunta ez da hartaz jabetzen, airearen presioaz edota lurraren biribiltasunaz jabetzen ez den bezalaxe.

FILALETES: Aurreko gauean pentsatu ote dudana zalantzak ditut; egitatezko arazoa da sentipenezko esperientzien bidez erabakitzekoa.

TEOFILO: Gorputz somaezinak eta mugimendu ikustezinak, batzuek absurdutzat jotzen dituzten arren, badaudela frogatzen den bezalaxe konpontzen da arazo hori. Zenbaezinak dira apenas hautematen ditugun pertzepzioak, haietaz ohartzeko edota oroitzeko bezainbeste bereizten ez direnak, baina ondorio zehatzengatik ezagutzera ematen direnak.

FILALETES: Idazle batek salatu digu, loaldian arimaren existentziaz jabetzen ez garelako, hark existitzeari uzten diola defendatzen omen dugu⁷⁸. Ardura guztiz bitxi batetik etor

daiteke soilik objekzio hau; zeren eta ez baitiogu guk gizakiaren baitan arimarik ez dagoela, loaldian haren existentzia somatzen ez dugulako; guk diogu gizakiak ezin pentsa dezakeela hartaz ohartu gabe.

TEOFILO: Objekzio hori dakarren liburua ez dut irakurri, baina pentsamendua hautemana ez izate soiletik ezin daitekeela haren existentziarik eza ondorioztatu objektatzea ez litzateke huts izango; zilegi bailitzateke arrazoibide horretatik esatea arimarik ez dagoela, hartaz jabetzen ez garen bitartean. Eta objekzio hau errefusatzeko, pentsamenduari buruz bereziki frogatu beharra daukagu esentziazko zaiola berataz ohar gaitezen.

(§ 11) FILALETES: Zerbaitek pentsatu ahal izatea, eta pentsatzen duela sentitu ezina, ulergaitz egiten zaigu.

TEOFILO: Horra, ezbairik gabe, arazoaren muina, hainbat pertsona trebe nahasi duen katramila. Eta hona hortik irteteko bidea. Gauza askotan batera pentsatzen dugula onartu behar dugu, baina pentsamendurik nabarmenenak bakarrik hautematen ditugu; eta ezin du bestela izan, zeren eta orotaz ohartuko bagina, aldi berean kontatu ezinezko gai kopuruaz pentsatu beharko baikenuke arretaz, hots, sentitzen ditugunak eta gure sentimenak ukitzen dituzten guztiak. Areago oraindik: iraganeko pentsamendu orotik beti geratzen da zerbait gure baitan, sekulan ere erabat ezabatuko ez dena. Ametsetan egin gabe lo gaudenean, edota kolpe batek, jausialdiak, edozein sintoma edo istripuk zorabiatzen gaituenean, sentipen xume nahasiak zenbatu ezinezko kopuruan sortzen dira gure baitan; heriotzak berak ezin du besterik sortu animalien arimetan, euren pertzepzioak lehenago ala beranduago bereiztera itzuli behar baitute, naturan dena ordenaturik dagoelako. Aitortzen dut, halere, nahasmen egoera horretan arimak ez lukeela plazerrik ez oinazerik izango, hauek pertzepzio nabarigarriak direlako.

(§ 12) FILALETES: Ez al da egia orain guk gogoan ditugun haiek (hau da, arima beti pentsatzen ari dela uste duten kartesiarrek) gizakiarengandik bereizten den animalia orori bizia ematen diotela, pentsa eta ezagutu dezakeen arimarik gabe ere; eta hauek berauek ez dutela inongo trabarik zera baieztatzeke, alegia, gorputzari erantsita egon beharrik gabe arimak pentsa dezakeela?

TEOFILO: Ni neu ez naiz iritzi horretako; kartesiarrekin bat etorri arren arimak beti pentsatzen duela esaterakoan, ez nago haiekin ados gainontzeko bi puntuotan. Piztiek arima iraunkorrek dituztela uste dut, eta giza arimak bezala gainontzeko beste guztiak ezin direla nolabaiteko gorputzik gabe izan; Jainkoa dela uste dut, bera aktu hutsa izaki, erabat gorputzik gabeko bakarra.

FILALETES: Kartesiarren iritziko izan bazina, honela argudiatuko nizuke nik, alegia, Kastor eta Polluxen⁷⁹ gorputzak arimadun ala gabeko izan zitezkeelarik, bizitzeari horratik utzi barik, eta arima gorputz baten baitan nahiz kanpoan egon ahal izanez, Kastorrek eta Polluxek arima bat bera zutela suposa zitekeen, txandaka lo eta iratzarrik zeuden bi gizon hauen gorputzetan eragin izango zukeena; horrela arima hori bi pertsona ezberdin izango litzateke, Kastor eta Herkules elkarrengandik diren bezainbat ezberdin.

TEOFILO: Zurea baino errealago bide den beste suposaketa hau egingo dut nik neure aldetik. Ez al da egia beti onartu beharrekoa dela aldarte baten edota aldakuntza handi baten ondoren erabateko ahanzturan jaus gaitezkeela? Sleidanek⁸⁰, diotenez, zekien guztia ahaztu omen zuen hil aurretik; eta gertakizun triste honen gisakoak asko dira. Demagun halako gizon batek birgaztetu eta berriro dena ikasi duela; beste gizon bat ote da horregatik? Ez da, beraz, oroitzapena gizakia bera izan dadin egiten duena. Hala eta guztiz, gorputz ezberdinak txandaka animatuko lituzkeen arima bat beraren fikzioa, batean gertatuak bestean eraginik izan gabe, gauzen izaeraren aurkako fikzioetarik bat da eta filosofoen nozio osagabeetatik dator, hala nola gorputzik gabeko espazioa edota

mugimendurik gabeko gorputzak; nozio hauek deuseztu egiten dira apur bat sakontzen denean; jakin beharrekoa baita arima orok aurreko inpresio guztiak gordetzen dituela, eta ezinezko zaiola bitan banatzea, aipatu berri dugun gisa: substantzia bakoitzean, geroa eta iraganaren arteko lotura erabatekoa gertatzen da; honetan datza, hain zuzen, norbanakoaren identitatea. Hala ere, oroitzapena ez da beti beharrezko, ez eta ahalgarri ere batzuetan, gure oraingo pentsamenduetan biltzen diren oraingo eta iraganeko inpresio anitzengatik; ez baitut uste gizakiaren baitan pentsamendurik dagoenik eraginen bat edota hondakin nahasiren bat izango ez duenik beronen hurrengo pentsamenduetan. Gauza asko ahantz daitezke, bai, baina hurreneko zenbait gogora ekarri ere bai, beraietara egokiro hurbiltzen jakinda.

(§ 13) FILALETES: Ametsetan egin gabe loak hartzen dituenak ezingo ditu gero inork konbentzitu beraien pentsamenduek ekintzan dihardutela.

TEOFILO: Lokarturik ere, ez gaude inoiz sentipen ahulen bat gabe, ametsetan egon ez arren. Iratzartzeak adierazten digu, zenbat eta iratzarterrezagoa izan, orduan eta inguruan gertatzen denaren inpresio biziagoa izango dugula, inpresio horrek gu iratzartzeko beste eragin izan ez badu ere.

(§ 14) FILALETES: Ulergaitza dirudi une honetan arimak lo dagoen gizakiaren baitan pentsatzea eta hurrengo unean iratzarrita dagoenaren baitan, arima bera horretaz berriro oroitu gabe.

TEOFILO: Ulerterraza izateaz gain, horren antzeko zerbait egunero suma daiteke, itzarrik gaudela; noiznahi baititugu begiak eta belarriak ukitzen dizkiguten objektuak, beraz, gu hartaz ohartu gabe arima ukitzen digutenak, gure arreta beste objektuetan daukagula; eta hala gertatuko da objektu horrek, bere eragina bikoiztuz edo beste nolabait, arimaren arreta bereganatzeko gaitasuna gara dezan bitartean; aurreko objektuari buruz amets berezi gisakoa zen; eta ametsa orokorra izatera iristen da, objektu guztietatik batera arreta erretiratzen dugun unean. Moteldu nahian, arreta banatzea lokartzeko bidea da.

FILALETES: Gizon bat ezagutu nuen oroimen onekoa, gaztaroan estudiatzen ihardun zena eta sekulan ametsetan egin ez zuena, lehenengoz sukarrak hartu zuen arte; 25 - 26ren bat urte izango zituen, sendatu berritan nirekin mintzatu zenean.

TEOFILO: Entzuna dut nik ere, hori baino askoz helduago zen gizon ikasi batez, sekulan ametsetan egin ez zuela. Baina arimaren pertzepzioaren iraunkortasuna ez dugu ametsetan soilik oinarritu behar, lehendik ere azaldua baitut nolatan lo gaudelarik ere arimak baduen kanpoan gertatzen denaren pertzepzioaren bat.

(§ 15) FILALETES: Sarritan pentsatu, eta pentsatuaren oroitzapenik une batez ere ez gordetzea, alferrik pentsatzea da.

TEOFILO: Inpresio orok du bere eragina, eragin hauek guztiak nabarmen izan ez arren; alde batera bihurtzen naizenean, eta ez bestera, sarri askotan zenbait inpresio txiki elkarrekin kateatzearen ondorio izan ohi da, ni neu haietaz jabetu gabe, mugimendu bata baino bestea ezerosoagoa gertatzen baitzait. Oharkabeko gure egintza guztiak pertzepzio xume askoren multzoak eraginak dira; gure erabakietan hainbesteko zerikusia duten ohiturak eta grinak ere hortik datoz; ohitura hauek apurka-apurka sortzen dira; pertzepzio xumerik gabe, beraz, ez genituzke joera berezi horiek burutuko. Esana dut lehen ere, moral arloan ondorio horiek ukatuko lituzkeena, fisikan ikustezinezko gorpuzkuluak ukatzen dituzten ezjakinen parekoa litzatekeela; eta alderantziz, askatasunaz mintzatzen direnen artean badira, nire ustez, balantzaren oreka batera edo bestera eramanez inpresio sentiezin hauetaz jabetu gabe, iharduera moraletan erabateko indiferentzia imajinatzen dutenek, Buridanen astoa⁸¹ bezala bi larreraren artean zalantzan erdibanatuak. Horretaz luzeago mintzatzeko gara jarraian. Aitortzen dut, hala eta guztiz, inpresio hauek makurtzen gaituztela batera ala bestera, hartara behartu gabe.

FILALETES: Agian esango da itzarrik egon eta pentsatzen duen gizaki batengan gorputzak zerbait egin behar duela eta oroitzapena burmuinetako aztarnetan gordetzen dela, baina lo dagoela arimak bere kaxan, bere baitan dituela bere pentsamenduak.

TEOFILO: Ez dut nik horrelakorik esango, sinesten baitut gorputza eta arimaren artean egokitzen zehatza dagoela beti, eta arimak bere antzekoak badituela frogatzeko, gorputzaren ohartezinezko inpresioez baliatzen bainaiz, lo dagoelarik, nahiz itzarrik. Zera baieztatzen dut gainera, alegia, odol zirkulazioaren edota errailetako barne eragin guztien pareko zerbait gertatzen dela arimaren baitan, honetaz jabetzen ez bagara ere, errotaren alboan bizi direnak uraren burrunbaz jabetzen ez diren bezalaxe. Lotan edota itzarrik, arima inondik ere ukitzen ez duten inpresioak baleude gorputzean, mugatu egin beharko genuke arima eta gorputzaren arteko lotura, gorputzezko inpresioek itxura eta neurri zehatz baten premia balute bezala, arimak haiek nabari ditzan; eta hori defendaezina da, arima gorpuzgabekoa izaki, zeren eta ez baitago proportzio gunerik gorpuzgabeko substantzia eta materiaren edozein aldakuntzaren artean. Laburbilduz, arimaren pertzepzioak berak hauteman ditzakeenak soilik direla sinestea errakuntza askoren iturri da.

(§ 16) FILALETES: Gogoratzeko ditugun amets gehienak bitxiak eta loturarik gabeak dira. Esan beharko genuke, beraz, rasionalki pentsatzeko ahalmena gorputzari zor diola arimak, edota ez duela gordetzen bere zentzuzko bakarriketarik batere.

TEOFILO: Zentzuzko izan ala ez, gorputzak erantzun egiten die arimaren pentsamendu guztiei, eta ametsak beren arrastoa uzten dute burmuinean, itzarrik dauden pentsamenduek bezalatsu.

(§ 17) FILALETES: Arimak beti aktualki pentsatzen duela hain seguru zaudelarik, zera argi diezadazun eskatuko nizuke, alegia, ea zeintzuk ideia dauden haurraren ariman gorputzarekin bat egin aurretik, edota bateratze une berean, sentazio bidez inongo ideiarik oraindik bereganatu ez duenean.

TEOFILO: Aise erantzungo dizut, gure printzipioen arabera. Arimaren pertzepzioak berez gorputzaren egiturari egokitzen zaizkio beti, eta burmuinean mugimendu nahasi eta antzeman gabeko asko dagoenean, esperientzia guttikoei gertatzen zaiena, arimaren pentsamenduak ere (gauzen ordenaren arabera) ezin dira orduan bereiziak izan. Halere, arima ez dago inoiz sentazioaren babesik gabe, beti bere gorputza adierazten duelako, eta gorputz hori mila mota ezberdinetako giroek kolpatzen dute, hauek sarritan inpresio lausoa baino eskainiko ez badute ere.

(§ 18) FILALETES: Hona hemen, Entseiuaren egileak galdetzen duen beste zerbait. Gizakiaren arimak (edota gauza bera dena) gizakiak beti pentsatzen duela hain seguru defendatzen dutenek esan diezadaten nahi nuke (dio berak) nolatan dakiten hori.

TEOFILO: Ez dakit ba, hartaz ez jabetze soilak baino segurtasun gehiago beharko ez ote den, ariman zerbait gertatzen dela ukatzerakoan; zeren eta atzeman dezakegun orok ezin atzeman ditugun zatiz osotua behar baitu egon, ezin baitaiteke deus bat-batean sortu, ez mugimendua, ez eta pentsamendua ere. Gaur egun norbaitek galde baleza bezala da, ea nola ezagutzen ditugun sentitu ezinezko gorpuzkuluak.

(§ 19) FILALETES: Arimak beti pentsatzen duela esaten digutenek ez naiz oroitzen gizakiak beti pentsatzen duela inoiz esaten digutenik.

TEOFILO: Arima bananduaz ari direlako izango da, agian; baina atseginez aitortuko dizute, gorputz-arimak bat eginik, gizakiak beti pentsatzen duela. Nik neuk, arima ezein gorputzetik aske sekulan ere ez dagoela defendatzeko arrazoiak ditudalarik, uste dut absolutuki esan daitekeela gizakiak beti pentsatu egiten eta egingo duela.

FILALETES: Gizakiak hedadura badeu baina zatirik ez, esatea, eta zerbaitek pentsatzen duela, pentsatze horri erreparatu gabe, antzeko baieztapenak ditugu, biak ere ulertezinak.

TEOFILO: Barkatu, jauna, baina esan behar dizut, arimaren baitan berak hautematen ez duen deusik ere existitzen ez dela onartzen duzunean, printzipio eskabide baten aurrean gaudela, eta honetaz gure lehenengo solasaldian ihardun ginen, bertan ideiak eta sortzetiko egiak suntsitzeko erabilia izan zelarik. Printzipio horrekin ados egonez gero, esperientziarekin eta arrazoiarekin, gure ustez, topo egiteaz gain, uko egingo genioke arrazoirik gabe nahiko argi aurkeztu bide dudana gure irizpideari. Baina gure arerioek, diren bezain jakitsu izanda ere, hain sarri eta hain positiboki defendatzen dutenaren frogarik ekarri ez arren, aise azal diezaiekegu kontrakoa, hots, ezinezkoa zaigula etengabe eta espreski gure pentsamenduak oro hausnartzea; bestela, izpirituak hausnarketa bakoitzaren hausnarketa egingo luke infinituraino, inoiz ere pentsamendu berri batera pasa ezinik. Esate baterako, orain dudana pentsamendu zehatz batez ohartzen naizelarik, beti pentsatu beharko nuke horretaz pentsatzen dudala, eta pentsatuaren pentsamendua bururatu, eta horrela infinituraino. Hausnarketa guzti horietaz hausnartzeari utzi beharko diot, beraz, eta existitu beharko du beraz pentsatu gabe garatzen den pentsamenduren bat; bestela beti gauza berean egongo ginateke.

FILALETES: Hori bezain ongi finkatua ez al legoke beste baieztapen hau, alegia, gizakia beti dela gose, hartaz jabetu gabe ere gose izan daitekeela argudiatuz?

TEOFILO: Alde handia dago; gosearen zergatiak zehatzak dira eta noiznahi gertatzen ez direnak. Egia da, hala ere, gose gaudelarik ez dugula une oro hartan pentsatzen; baina pentsatzen dugunean hauteman ere egiten dugu, pertzepzio nabarmengarria baita gosea: urdailean beti ditugu sumindurak, baina nahiko biziak izan arte ez dute gosea suspertzen. Bereizketa berau egin behar da beti, pentsamenduen (oro har) eta pentsamendu nabarmengarrien artean. Horrela, gure pentsakerari trufa egiteko ekartzen diren argudioek hura sendotzeko balio digute.

(§ 23) FILALETES: Orain galdera egin dezakegu, ea noiz hasten den gizakia bere pentsamenduan ideiak edukitzen. Eta, nere ustez, erantzun beharko da: sentipenen bat dagoen unetik.

TEOFILO: Hala uste dut nik ere; baina printzipio apur bat bitxi honengatik, alegia, ez baikaude inoiz pentsamendurik gabe, ez eta sentsaziorik gabe. Ideia eta pentsamenduen artean bakarrik egiten dut bereizketa; ideia guztiak beti hutsak edo bereziak ditugulako, sentimenetatik at; pentsamenduak, oster, sentipenen bati erantzun dira beti.

(§ 25) FILALETES: Baina ezagutzaren oinarri diren ideia soilen pertzepzioan bakarrik da pasiboa izpiritua; ideia konposatuak osotzean, aldiz, aktiboa.

TEOFILO: Nolatan gerta daiteke, baina, ideia bakun guztien pertzepzioari dagokionean bakarrik izatea pasiboa, zuek aitortua izaki ideia bakun batzuen pertzepzioa hausnarketatik datorrela, eta izpirituak berak hausnartzen duelarik, nolatan eskaintzen dizkio bere buruari hausnarketarako pentsamenduak? Haiek arbuia ahal izatea beste arazo bat litzateke, eta, ezin izango du ziur aski, haiengandik aldentzen ez duten arrazoirik gabe, zerbaitek horretara behartzen duenean.

FILALETES: Honaino ex professo eztabaidatu dugula iduriko luke. Hemendik aurrera, ideiak banaka aztertuko ditugularik, adosago izango garela eta arazo partikularren batzuetan baino ez garela bananduko espero dut.

TEOFILO: Biziki gustura ikusiko nituzke pertsona prestuak nik egiazkotzat ditudan irizpideen alde, hauek balioztatzeko eta egun argitan defendatzeko gai direlako.

II

Idea bakunak

(§ 1) FILALETES: Bat etorriko zara nirekin, jauna, ideia bakunak eta ideia konposatuak existitzen direla onartzen; ideia bakunak dira, adibidez, berotasunak eta malgutasunak argizariaren baitan edota hoztasunak izotzean damaizkiguten ideia bakunak, arimak haien ikusmolde uniformeak duelako, ideia ezberdinetan bereizi ezinezkoa.

TEOFILO: Esan daiteke, nire ustez, ideia sentigarri hauek itxuraz direla bakunak, zeren eta nahasiak izatean, ez baitiote izpirituari biderik ematen euren barne edukia bereizteko. Horrela, urrunekoek borobil itxura daukate, ertzak bereizi ezin zaizkielako, berauen inpresio lausoturen bat susmatu arren. Gauza jakina da, adibidez, urdina eta horiaren nahastetik sortzen dela berdea; beraz, pentsa zitekeen berdearen ideia beste bi ideia horiek osotzen dutela. Baina berdearen ideia urdinarena edota berotasunarena bezain bakuna iruditzen zaigu. Horregatik da sinestekoa, urdinaren eta berotasunaren ideia horiek itxuraz bakarrik direla bakunak. Hala eta guztiz, gustura onartzen dut ideia horiek bakuntzat erabiltzea, gure apertzepzioak, bederen, ez dituelako zatitzen; baina ulerkorrago egin ahal izanen ditugun heinean, beste esperientzien eta arrazoiaren bidez aztertu beharko ditugu. Hautematen ez ditugun pertzepzioak badirela argi dago, zeren eta itxuraz bakunak diren ideien pertzepzioak, ideia horiexek osotzen dituzten atalen pertzepzioek osotuak baitira, izpiritua horretaz jabetu gabe, ideia nahasi horiek bakunak agertzen zaizkio eta.

III

Sentimen bakar baten bidez datozkigun ideiak

FILALETES: Sailka ditzakegu orain ideia soilak, haien pertzepzioa eman diguten bideen arabera; eta hau gertatzen da: 1) sentimen bakar baten bidez, edo 2) sentimen bat baino gehiagoren bidez, edo 3) hausnarketa bidez, edo 4) sentipen bide guztietatik eta hausnarketatik. Ideiak hartzeko berariaz prestatutako sentimen bakar baten bidez iristen direnei dagokienez, argia eta koloreak begien bidez sartzen dira soilik; mota guztietako hotsak, soinuak eta doinuak belarrien bidez; zapore ezberdinak ahosabaiaren bidez, usainak sudur bidez. Organo edo nerbioek burmuinera eramaten dituzte, eta organo hauetarikoren bat hondatuz gero, sentipen horiek ez daukate beste inolako biderik onartuak izateko. Ukiten koalitatearik nabarmenenak hotza, beroa eta trinkotasuna dira. Gainontzekoak atal sentikorren antolaketatik datoz, hala nola, leuna eta latza; edota atal beroien loturatik, trinkoa, malgua, gogorra, hauskorra, kasu.

TEOFILO: Nahiko ados nator diozunarekin, jakinarazi nahi nizuke, hala eta guztiz, ikusmen faltaz Mariotte zenak⁸² begiko nerbioak egindako esperientziari jarraiki, mintzek hobeto berenganatzen dituztela, antza, sentipenak nerbioek baino; entzumena eta dastamenarentzat, aldiz, bide faltsuren bat badagoela dirudi, hortzek eta vertex-ak soinuren batzuk entzunarazten baitugute, eta ahogozaok nolabait sudur bidez ere hautemanak izan daitezke, usaimena eta dastamenaren artean dagoen loturari esker. Baina honek ez du funtsean ezertan aldatzen ideien azalpenari buruzkoa. Eta ukiten koalitateei dagokienez esan daiteke leuna eta latza edota gogorra eta biguna tinkotasunaren edo erresistentziaren aldaerak baino ez direla.

IV

Solidotasuna

(§ 1) FILALETES: Zalantzarik gabe, ados egongo zarela uste dut beste honetan ere, alegia, solidotasun sentipena gorputz baten baitan aurkitzen dugun erresistentziak eragiten digula, gorputz honek betetzen duen lekua utzi arte, beste gorputz bat sartzen denean. Hori dela eta, solidotasuna deritzot elkarrengana mugitzen diren bi gorputzen hurbiltzea eragozten duenari. Norbaitek egokiago aurkitzen badu horri sartzintasuna deitzea, ni berarekin ados. Baina solidotasun hitzak zerbait positiboagoa duela berekin uste dut. Ideia honek esentzialena eta gorputzari estuen lotua dirudi, eta materiaren baitan soilik aurki daiteke.

TEOFILO: Egia da, bai, ukipenean erresistentzia aurkitzen dugula, beste gorputzak nekez leku uzten diotenean gureari, eta egia da, halaber, zenbait gorputzek leku bat bera okupatzea arbuiazen dutela. Baina askorentzat arbuio hori ez da gaindiezina; eta kontuan hartzekoa da, baita ere, materiaren baitan aurkitzen dugun erresistentzia era

askotara eta arrazoi ezberdinen ondorio azaltzen dela. Gorputz batek erresistentzia kontrajartzen dio beste bati lehen bete duen lekua uzterakoan, edota sartzekotan zegoen lekura sartu ezinik dabilenean, bestea ere sartzan ahalegintzen delako, eta kasu honetan gerta daiteke, ez bata ez besteak amore ematen ez dutelarik, biak gelditzea edo elkar arbuatzea. Erresistentzia nabarmen geratzen da kontrajarri zaionaren aldakuntzan, indarra galtzen duelako batzuetan, norabidez aldatzen duelako besteetan, edota bata zein bestea, biak aldi berean gertatzen direlako. Nolanahi ere, esan daiteke, oro har, bi gorputzek leku berean egoteko duten aldarapenetik datorrela erresistentzia hau, eta horri dei geniezaioke sartzintasuna. Horrela bata, sartzan ahalegintzen den aldi berean, bestea irtenarazten du edo honi sartzan utzi ez. Bata, zein bestea, zein biak amore ematera behartzen dituen elkartzintasuna onartuz gero, gorputz bat lekuz aldatu nahi dionaren aurka kontreustera daramaten hainbat arrazoi daude. Arrazoi horiek beragan daude ala alboko gorputzetan. Beragan daudenetarik bata pasiboa da eta iraunkorra, bestea aktiboa eta aldakorra. Lehenari inertzia deritzot, Kepler eta Descartesen ildotik; inertziaren eraginez, materiak erresistentzia ezartzen dio mugimenduari eta gorputz bat lekuz aldatzeko indarra erabili behar da, grabitaterik eta kohesiorik ez balego ere. Horrela, ezein gorputzek beste bat lekualdatu nahi duenean, horren kausaz erresistentzia jasango du. Bigarren kausa, aktiboa eta aldakorra, gorputz beraren oldarrean datza, ez baitu atzera egingo erresistentziarik ezarri gabe, bere oldarrak norabide batean daraman unean. Arrazoi hauek berauek balio dute alboko gorputzentzat ere, bereari eusten dionak ezin etsi duenean besteak amore ematera bortxatu gabe. Eta orduan burutazio berri bat agertzen da, hots, tinkotasunarena edo gorputzak elkar lotzearena. Lotura honen poderioz, sarritan ezin zaio gorputz bati bultzatu, hari lotuta dagoen beste bati aldi berean bultza gabe, bestearenganako trakzioa eraginez. Lotura honen eragina da, baita ere, inertziarik eta ageriko oldarrak gabe erresistentzia egotea; izan ere, espazioa materia fluido hutsez beteta irudikatzen badugu eta bertan gorputz gogor bakarria ezarri, gorputz gogor hau (fluidoan inertziarik eta oldarrak ez balego) inongo erresistentziarik gabe mugituko litzateke; baina espazio hau kubo txikiz beteta balego, kubo horien artean mugituko litzatekeen gorputzak aurkituko lukeen erresistentzia kuboaren gogortasunetik edota kuboaren atalen elkar loturatik letorke, horientatik nekez zatitu ahal izango baitziren mugimenduak zirkuluaren norabideari jarraitzeko beharko lukeen bezainbeste, eta mugikorrek irtetearen libre utzitako lekua une horretan bertan betetzeko beste. Eta gorputz bi sartuko balira aldi berean hodi baten bi mutur irekietatik eta hodiaren edukiera biek era berdinean beteko balute, barruko materiak, fluidotasun handikoa izaki ere, erresistentzia kontrajarriko luke bere sartzintasunagatik soilik. Beraz, hemen aipatu dugun erresistentziaren baitan kontuan hartu behar ditugu gorputzen sartzintasuna, inertzia, oldarra eta lotura. Egia da, bestalde, nire ikuspegiaren arabera, gorputzen lotura edo kohesio hau gorputz batetik besterako mugimendu sotiletik datorrela; baina puntu hau eztabaidagarri delarik, ez dugu beste barik onartutzat emango. Halaber, arrazoi beragatik ez dugu ontzat emango jatorrizko solidotasun esentziala dagoela, zeinak lekua gorputzaren tamaina berdinekoa egingo duen beti, esan nahi baita, elkartzintasuna, hobe esanda, gorputzen leku bereko inkonsistentzia erabateko sartzintasuna dela, ez gehiagorik ez gutxiagorik onartzen ez duena; asko dira, izan ere, zera diotenak, alegia, solidotasun sentigarria gorputz ezberdinek leku bera betetzeko duten higuinetik datorkeela, baina higuin hau ez dela gaindiezina. Peripatetiko arrunt guztiek eta beste askok ere uste dute materia bat berak espazio gehiago ala gutxiago bete dezakeela, eta honi arrarifikazioa edo kondentsazioa deritzote, ez itxuraz bakarrik (belakia estutuz urusten denean bezala), zehaztasun osoan baizik; hala ulertzen du Eskolak aireari buruz diharduenean. Ez naiz iritzi horretakoa, baina ez dago zertan aurkakoa onartu, beste barik, zeren sentimenak berez arrazoinamendurik gabe ez baitira

aski erabateko sartzintasun hori ezartzeko, nik antolamendu naturalean egiazkotzat hartzen dudana, sentsazio bidez soilik ezaugarri gertatzen ez bada ere. Norbaitek defenda dezake, halaber, gorputzen konpresioarekiko erresistentzia atalak aske ez daudenean barreiatzeko egiten duten indarretik datorrela. Gainontzekoan, koalitateroriek frogatzeko begiak oso dira lagungarri, ukimenaren mesedetan. Eta funtsean, solidotasuna nozio berezia izan daitekeen heinean, arrazoi hutsez bururatzen da, nahiz eta sentimenek arrazoinamenduari hornitu naturan existitzen dela frogatzeko behar dituenak.

(§ 4) FILALETES: Bat gatoz, bederen, hau esaterakoan: gorputzaren solidotasunak berekin dakar gorputz batek okupatzen duen espazioa betetzea, handik erabat aldentzen duelarik beste edozein gorputz, lehen betetzen ez zuen espaziorik aurkitzen ez badu; gogortasuna, aldiz, edota sendotasuna (batzuek tinkotasuna esaten diote) materiaren atal batzuen arteko lotura estua da, hedadura nabarmeneko multzoak osotzen dituen lotura, era horretan masak orokorrean ez duelarik aise itxuraz aldatzen.

TEOFILO: Argi utzi dudanez, sendotasun (konsistentzia) honek eragiten du nekea gorputzaren atal bat bestea gabe mugitzerakoan, batari bultzatzean, bultzatua izan ez den atala, indarraren norabidean ez dagoen arren, norabide horretan higitzera beharturik dago trakzio gisako zerbaitengatik; gainera, bigarren atal honek bere bidean geldiarazten ala errefusatzeko duen trabarik aurkitzen badu, orduan atzeraka egingo du edota lehena geldituko du; eta hau elkarrekiko gertatzen da. Gauza bera gertatzen da, batzuetan, elkar ukitzen ez duten bi gorputzekin, elkarren alboko atalak izango liratekeen etengabeko gorputzik osotzen ez badute ere; baina, bultzatuak bestea mugitzen du bultzatze gabe, sentimenek ezagutzera ematen diguten heinean behinik behin. Imana, erakurpen elektrikoa eta hutsaren ikarari antzina egozten zitzaiona dira, besteak beste, esandakoaren adibide argiak.

FILALETES: Itxuraz, gogorra eta biguna gauzei ezartzen dizkiegun izenak dira, oro har, gure gorputzen egitura bereziari soilik begira.

TEOFILO: Baina horrela filosofo askok ez liekete euren atomoei gogortasunik egotziko. Gogortasun nozioa ez datza sentimenetan; arrazoi bidez asma daiteke haren ahalgarritasuna, hura orain naturan dagoela sentimenen bidez ere komentziturik gauden arren. Hala eta guztiz, nahiago dut tinkotasun hitza (adiera horretan erabiltzea zilegi balitzait) gogortasuna baino, gorputz bigunetan ere nolabaiteko tinkotasunik aurki daitekeelako. Hitz orokorrako eta erosoago baten atzetik nabil, hala nola, kontsistentzia edo kohesioa. Horrela nik gogorra bigunari kontrajarriko nioke, tinkoa jariakorrari; biguna baita argizaria, baina beroak urtu ez badu ez da jariakorra eta bere egitura mantentzen du; eta likidoetan beraietan ere badago kohesiorik, ur edota merkurio tantek erakusten digutenez. Gorputz orok baduela, uste dut, kohesio maila bat, eta ez dagoela jariakortasun punturik gabeko gorputzik, gairitu ezinezko kohesioa duenik; beraz, nire iritziz, gogortasun gairidiezina bide diren Epikuroren atomoak ezin existi daitezke, ez eta kartesiarren materia sotil eta jariakor perfektua ere. Ez da, baina, hau leku egokia pentsakera hau justifikatzeko, ez eta kohesioaren arrazoiak azaltzeko.

FILALETES: Gorputzen solidotasun betegina esperientziak justifikatzen duela dirudi. Hala nola ura, urrezko esfera ahurra batean gordeta, gehiago konprimatu ezinik, poroetan zehar ixuri zen, esfera hori Florentzian prentsa baten eraginpean jarri zutenean⁸³.

TEOFILO: Esperientzia honetatik eta urari jazotakotik ateratu duzuen ondorioari zerbait erantsi nahi diot. Aireak gorputza da, ura ere gorputza den era berean, baina hori gertatu gabe konprima dezakegu ad sensum bederen. Kondentsazio eta arrarifikazio zehatzak defendatzen dituztenek esango dute ura berez dagoela konprimatuegia gure makinaren eraginpean amore emateko; molde berean aurre egingo lioke aire oso konprimatuak

areagoko konpresioari. Aitortzen dut, bestalde, uraren edukian aldaketatxoren bat antzematen denean, bertan dagoen aireari egoz dakiokela. Ur hutsa lurrintzen denean dilatagarri izan arren, berez konprimagarri ote den eztabaidan sartu gabe, sinetsita nago funtsean gorputzak perfektuki sartzinak direla, eta kondentsazioa eta arrarifikazioa itxuran bakarrik gertatzen direla. Baina mota horretako saiakuntzek oraindik ere ezin froga dezakete ezer, Torricelliren hodia⁸⁴ edota Guerickeren makina⁸⁵ gai ez diren bezalaxe huts perfektuaren existentzia frogatzeko.

(§ 5) FILALETES: Gorputzak arrarifikatu edo kondentsatu ahal izango bagenu, orduan bai, bolumenez eta hedaduraz aldagarri lirateke; baina hala ez izaki, beti izango dira espazio beraren berdinak: gorputzaren hedadura, ordea, beti izanen da espazioarenetik bereizgarri.

TEOFILO: Gorputzak eduki lezake bere hedadura propioa, baina horrek ez du esan nahi beti espazio berari mugatua edo espazioa beraren berdina izan behar duenik. Egia izan arren gorputza irudikatzean espazioa baino zerbait gehiago irudikatzen dela, hortik ezin dugu ondorioztat atera bi hedadura daudela, espazioarena bata, gorputzarena bestea; zenbait gauza batera irudikatzean bezalatsu jazotzen baita, kopurua baino zerbait gehiago irudikatzen dela, hau da, res numeratas, baina ez daude bi aniztasun, abstraktua bata, zenbakiarena, eta konkretua bestea, gauza zenbatuena. Era berean esan dezakegu ez direla bi hedadura irudikatu behar, abstraktua bata, espazioarena, eta konkretua bestea, gorputzarena; konkretua ez litzateke konkretua abstraktuaren bitartekotzarik gabe. Eta gorputzak espazioko leku batetik bestera nola aldatzen diren, hots, euren arteko eraketaz aldatuz, hala gauzak ere eraketa leku batetik edo zenbaki batetik bestera aldatzen dira, adibidez, lehena bigarren postura aldatzen denean, bigarrena hirugarrenera, etab. Denbora eta lekua eraketa motak baino ez dira eta ordenamendu horietan hutsik dagoen lekuak (espazioari dagokionean hutsa deritzoguna), baldin eta balego, aktualarekiko falta zaionaren posibilitatea adieraziko luke soil-soilik.

FILALETES: Materia bolumenez aldatzen ez dela esatean nirekin funtsean ados zaudelako, pozik nago. Baina urrunegi zoazela deritzot, jauna, hedadura ezberdin bi ez onartzean, eta kartesiarrengana hurbiltzen zarela uste dut, hauek ere ez baitute espazioa materiatik bereizten. Halere, nire ustez, bi ideia hauek (espazioa eta berau betetzen duen solidotasuna) bereizi gabe biak nahasiz bakartzat hartzen duen inor balego, ez dakit zein moldetan konpon litezkeen pertsona horiek gainontzekoekin. Norbait gorri biziaren itsuari mintzo eta honek kolorea tronpeta hotsaren antzeko irudikatzea bezalatsu litzateke.

TEOFILO: Baina, aldi berean, defendatzen dut nik hedadura eta solidotasun ideiak ez direla, gorri bizi kolorearen antzeko. Kartesiarren aurka, bereizten ditut nik hedadura eta materia. Ez ditut, ordea, bi hedadura onartzen; eta hedadura eta solidotasuna bereizteaz eztabaidatzen dutenak gai honen inguruko zenbait egiatan bat datozenez, nozio ezberdin batzuk gora-behera, elkarren arteko aldeak leuntzeko bide izan daiteke hau; horrela, ideien arteko ustezko aldeak ez dute aitzakia eztabaida amairik gabe luzatzeko, jakin badakidan arren kartesiar batzuek, trebeak izanda ere, beren ideiei nola eusten dieten. Inoiz azaldu dudana eta jarraian ekingo diodan bidea erabiliko balute egiazko eta gezurrezko ideiak bereizteko, gaur egun eutsi ezinezkoa den gordelekutik irtengo lirateke.

V

Zenbait sentimenetatik datozkigun ideia bakunak

FILALETES: Ondoko ideia hauen pertzepzioa sentimen bat baino gehiagoren bidez datorkigu: espazioaren ideia, hedadurarena, irudiarena, mugimenduarena eta atsedena.

TEOFILO: Sentimen bat baino gehiagotik omen datozen ideiak, hala nola espazio, irudi, mugimendu eta atsedena, zentzuzkoak dira gehienetan, hau da, izpirituarena

berarena, adimen hutsaren ideiak baitira, kanpoarekin harremanik dutenak eta sentimenek atxikitzen dituztenak; definizioetarako zein frogetarako gai dira, halaber.

VI

Hausnarketa bidez datozkigun ideia soilak

FILALETES: Hausnarketa bidez datozkigun ideia soilak adimenaren eta nahimenaren ideiak dira, hauetaz jabetzeko geure buruaz hausnartu beharra baitaukagu.

TEOFILO: Ideia horiek guztiak soilak izatea zalantzarik da, argi baitago, adibidez, nahimenaren ideiak adimenarena biltzen duela, eta mugimenduaren ideiak irudiarena.

VII

Sentsazio eta hausnarketa bidez datozkigun ideiak

(§ 1) FILALETES: Badira ideia soilak sentsazio bide orotatik eta hausnarketa bidez ere izpirituan antzematen direnak, hala nola, plazerra, oinazea, ahalmena, existentzia eta batasuna.

TEOFILO: Dirudienez, sentimenek ezin komentzi gaitzakete gauza sentigarrien existentziaz, arrazoimenaren laguntzaz ez bada. Hori dela eta, sinetsita nengo existentziaren kontsiderazioa hausnarketatik datorrela. Orobat, ahalmenarena eta batasunarena iturburu beretik datoz, eta plazerraren zein oinazearen pertzepzioen aldean guztiz ezberdinak dira.

VIII

Idea soilen buruz beste zenbait gogoeta

(§ 2) FILALETES: Eta zer esan koalitete baten eza adierazten duten ideiez? Nire iritzirako, atsedenen, ilunbeken eta hotzaren ideiak, mugimenduarenak, argiarenak eta beroarenak bezain positiboak dira. Baina pribazio horiek ideia positiboen kausa gisa aurkeztean, herri xehearen iritzia azaltzen dut; zaila litzateke funtsean, halere, ea kausa pribatibo batetik datorren ideiarik egiaz existitzen den zehaztea, atsedena mugimendua barik pribazioa ez ote den erabakitzen ez den bitartean.

TEOFILO: Atsedenen izakera pribatiboa zalantzan jartzeko arrazoirik izan zitekeela ez dut sekulan uste izan. Aski da gorputzaren baitan mugimendua ukatzea; mugimendua, aitzitik, ez du aski atsedeni eza; zerbait erantsi behar zaio mugimenduaren norainokoa zehazteko, zeren esentziaz onartzen baitu gehiago ala gutxiago izatea, atsedena oro berdinak diren bitartean. Besterik gertatzen da atsedenen kausaz mintzo garenean, honek positiboa izan behar baitu bigarren materia edo masan. Onartuko nuke atsedenen ideia bera pribatiboa dela, hots, ukapenean datzala soilik. Egia baita, bestalde, ukatze ekintza zerbait positiboa dela.

(§ 9) FILALETES: Gauzen koaliteteak gure baitan ideien pertzepzioa eragiteko duten ahalmena baino ez direlarik, bereiztekoak dira koalitete horiek. Batzuk lehenak dira, besteak bigarrenak. Hedadura, solidotasuna, irudia, zenbakia, mugikortasuna, jatorrizko koaliteteak dira, gorputzetik banaezinak; lehenak deritzet nik. (§ 10) Eta bigarrenak deritzet gure baitan sentsazioak eta gainontzeko gorputzetan beste nolabaiteko efektuak eragiteko gai diren gorputzen ahalmenei, suak, adibidez, argizariaren baitan eragiten duena, hura urtzen duenean.

TEOFILO: Esan beharko litzateke, nire ustez, ahalmena ulergarri eta zehazki adierazgarri denean, orduan dela lehen koalitete; baina sentipenezkoa denean soilik, eta ideia nahasia baino eskaintzen ez duenean, bigarren koaliteteen multzoan sar dezakegu.

(§ 11) FILALETES: Lehen koalitete hauek erakusten digute nola gorputzek elkar eragiten duten. Alabaina, gorputzek bulkada bidez bakarrik jotzen dute, guk uler dezakegunetik bederen; zeren hain bururaezina baitaigu gorputzak ukitzen ez duen zerbaiten gain eraginik izatea, nola imajinaezina den bulkadarik gabeko lekuan hark ihardun ahal izatea.

TEOFILO: Halaxe uste dut nik ere, gorputzek bulkada bidez soilik dihardutela. Baina, eragozpen bat aurkitzen dut entzun berri dudan frogan, zeren erakarpena ez baita beti ukipenik gabe gertatzen; uki eta erakar daiteke begibistako bulkadarik gabe, gorago frogatuta utzi dudanez, gogortasunari buruz aritzean. Epikuroren atomorik balego, haietariko batzuk bultzatzean eurekin erakarriko lituzkete gainontzekoak eta ukituz, bulkadarik gabe mugimendua ezarriko liekete. Alboko bi gauzen arteko elkarrenganako erakarpenean ezin esan daiteke erakartzen duenak ez dagoen lekuan diharduela. Argudio horrek urruneko erakarpenen aurka egiteko bakarrik balioko luke, zenbait gizon ospetsuk vires centripetas⁸⁶ deritzen horiek existituko balira.

(§ 13) FILALETES: Partikula batzuek, gure organoak nolabait hunkitzean, gure baitan kolore edo zapore sentrazioak ernarazten dituzte, edota sentrazio horiek eragiteko ahalmena duen bigarren koalitatearen bat. Eta Jainkoak ideia horiek (beroarena, adibidez) inolako antzarik ez dauzkaten mugimenduekin uztartu ahal izana ez da bururagaitzago beste hau imajinatzea baino, alegia, oinazearen ideia gure larrua urratzen duen burdinaren mugimenduarekin lotzen duela, oinazeak mugimendu horren inongo antzik ez daukalarik.

TEOFILO: Ez dugu pentsatu behar kolore edo oinazearen ideia hauek arbitrarioak direnik eta euren kausekin inongo harreman edo lotura naturalik gabekoak: arrazoi gutxiz eta horren ganoragabe jokatzeko ez da Jainkoaren ohiko portaera. Hobe esango nuke nik halako antzekotasuna dagoela, ez erabatekoa edota in terminis delakoa, adierazkorra baizik, edo ordena mailakoa, elipsea edota parabola edo hiperbolea nolabait zirkuluaren antzekoak diren moduan, zeinaren proiektzio baitira planoan, proiektatzen dena eta honen ondorioz proiektatua denaren artean nolabaiteko erlazio zehatz eta naturala baitago, bataren puntu bakoitza bestearen puntu bati dagokiolako harreman zehatz baten arabera. Cartesiarrek ez dute hau behar bezainbeste kontuan hartu eta oraingoan, jauna, ohi duzuen baino gehiago amore eman diezue, horretarako arrazoirik gabe.

(§ 15) FILALETES: Egiatzat daukadana diotsut, eta itxuren arabera, gorputzen lehen koalitateen ideiak koallitate horien antzekoak dira, eta gure baitan bigarren koalitateek eragindako ideiek ez dute hauen inongo antzik.

TEOFILO: Bigarrenei buruz adierazi berri dut nolatan dagoen antzekotasun edo erlazio zehatza, lehen koalitateei buruzkoan bezala. Oso arrazoizkoa da efektuak bere kausari ihardestea; nolatan, baina, kontrakoa baieztatu? -zehazki ezagutzen ez dugularik (adibidez) ez urdinaren sentrazioa, ez eta hura eragiten duten mugimenduak. Egia da oinazeak ez duela orratzaren mugimenduaren antzik, baina orratz horrek gure gorputzean eragiten dituen mugimenduen oso antzekoa izan daiteke oinazea, eta mugimendu horiek ariman irudikatu; hala gertatzen dela sinetsita nago, inongo zalantzarik gabe. Horrela esan ohi dugu oinazea gure gorputzean dagoela, ez orratzean, eta suan argia, sentimenek bereizi ezin dituzten mugimenduak baitaude suaren baitan; sumatzen dena mugimenduen nahaspila edo multzoa da, eta hau argiaren ideia bidez irudikatzen dugu.

(§ 21) FILALETES: Baina objektua eta hura sentitzeko eraren arteko erlazioa berezkoa balitz, nolatan gerta liteke ur bera esku batentzat bero egotea eta bestearentzat hotz, sarri gertatzen dena. Honek adierazten digu beroa ez dagoela uretan, oinazea orratzean ez dagoen bezala.

TEOFILO: Gehienez ere, beroa ez dela koallitate absolutua frogatzen digu honek, hots, ez daukala bere burua sentitzeko adina indar, berari dagozkion organoekikoa baizik, eskuaren mugimendu aproposa harekin nahasi eta itxura alda diezaiokeelako. Argia ere ez da gaizki osotutako begien aurrean agertzen, eta argi oso biziak itsutzen dituelarik, iluntxoagoa ez zaie hautemangarri. Lehen koalitateak ere (zuk emandako izenei jarraiki), hala nola batasuna eta kopurua, ez dira behar bezala agertzen: zeren,

Descartese⁸⁷ dioen bezala, atzamarrez eta modu zehatz batez ukitutako esferak bikoitzaren itxura hartzen baitu, eta xaflatan landutako ispilu eta beirek objektua biderkatzen dute. Ezin dugu, beraz, hortik ondorioztat atera ez dela objektuaren koalitetea beti berdina agertzen ez dena, eta haren irudiak ez duela bere antzarik. Beroari dagokionez, eskua oso bero daukagunean, uraren epela ez zaio nabarmen, eskuaren beroa freskatu baino ez baitu egiten, eta horregatik hotza deritzogu urari; Baltiko itsasoko ur gaziak Portugaleko itsasokoarekin nahasita bere gazitasun espezifikoak galduko lukeen bezalaxe, lehena berez gazia izan arren. Era berean baieztatu daiteke bainu bateko urak berea duela beroa, baten bati hotza iruditu arren, eta eztiari erabat gozo deritzogu, zilarri zuri, gaixo batzuei ezti mikatz eta zilarra hori iruditu arren; arruntak egiten du izendapena; egia da, hala ere, organoa eta ingurunea egokiro antolatuta daudenean, barne mugimenduak eta hauek ariman irudikatzen dituzten ideiak, kolorea, beroa, oinazea etab. eragiten duten objektuaren mugimenduen antzekoak direla, edota, gauza bera dena hemen, erlazio nahiko zehatzez adierazten dutela, nahiz eta erlazio hau argi agertzen ez zaigun, ez baitakigu guk inpresio xumeen multzo hori bereizten, ez gure ariman, ez gure gorputzean, ez eta gugandik kanpo dagoen giroan.

(§ 24) **FILALETES:** Argizaria zuri eta biguntzeko edota bikea gogortzeko eguzkiak dituen gaitasunak ahalmen soiltzat hartzen ditugu, eta ez dugu eguzkiaren baitan ezer imajinatzen zuriatasun, biguntasun edo gogortasun horren antzekorik: beroa eta argia, ordea, eguzkiaren koalitete errealtzat hartzen ditugu. Alabaina, ondo begiratuz gero, nigan diren argia eta berotasun koaliteteon pertzepzioak eguzkian daude, argizarian gertatzen diren aldakuntzen arabera, argizaria zuritzen edo urtzen denean.

TEOFILO: Hain urrun eraman dute batzuk doktrina hau, komentzitu nahi izan gaituztela inor eguzkia ukitzera iritsiz gero ez lukeela hain berorik aurkituko. Lente edo ispilu baten fokuan agertzen den eguzki irudikatua aski da horretaz edonor desengainatzeko. Baina berotze eta urtze gaitasunen arteko alderaketari buruz, hau esatera ausartuko nintzateke, alegia, argizari urtu eta zurituak sentimena edukiko balu, guk eguzkiak berotzen gaituenean sentitzen dugunaren antzeko zerbait sentituko luke, eta esaterik izango balu, eguzkia beroa dela esango luke, ez bere zuriatasunak eguzkiaren antzarik duelako, (zeren eguzkitan egon ondoren, aurpegiaren beltzaren kolorea ere haren antzeko izan beharko baitzuen), bai ordea, argizariaren baitan mugimendu batzuk gertatu direlako, hauen eragile izan diren eguzkiaren mugimenduekiko zerikusirik dutenak: eguzkiak eragina izanda ere, zuriatasuna beste zerbaitetik etor dakioke, ez ordea bere baitan eduki dituen mugimenduak.

IX

Pertzepzioa

(§ 1) **FILALETES:** Azter ditzagun orain hausnarketazko ideiak. Pertzepzioa da gure ideiez arduratzen den arimaren lehen ahalmena. Lehen ideia ere bada, halaber, eta hausnarketa bidez geureganatzen ditugunetarik bakunena. Pentsamendua sarritan da izpirituaren eragiketa bere ideien gain, gauza bat gogo-arreta maila bereziz aztertzen diharduenean: baina pertzepzioari dagokionean izpirituak gehienetan pasibo hutsa da, eta aktualki antzematen duenaren apertzepziorik izatea ezin eragotzi du.

TEOFILO: Erantsi beharko genuke, agian, piztiekin ere badutela pertzepziorik, eta ez dela horregatik ezinbesteko haiek pentsamendurik edukitzea, hots, hausnarketa edota hausnerketagai izan daitekeena edukitzea. Baditugu guk ere zenbait pertzepzio xume oraingo egoeran nabaritzen ez ditugunak. Egia da, baita ere, nabari genitzakeela eta hausnartu, gure izpirituak zatitzen duen haien egundoko kopuruak eragotziko ez balu, edota beste handiagoek ezabatu edo, hobeto esan, ilunduko ez balituzte.

(§ 4) **FILALETES:** Aitortzen dut, izpirituak zenbait objektu arreta jartzen dionean, ez dela inondik ere ohartzen gorputz batzuek entzumenean eragiten duten zirrarez, zirrara

hau nahiko sendoa izan arren, baina hartaz arimak ezagutzarik ez duen bitartean, ez dago inolako pertzepziorik.

TEOFILO: Pertzepzioa eta apertzepzioa izan hitzen arteko aldea hobeto bereiztea gustatuko litzaidake. Argiaren edota kolorearen pertzepzioa, adibidez, zeinaren apertzepzioa dugun, pertzepzio xume askoren multzoak osotzen du, hauen apertzepziorik guk izan ez arren; eta soinu bat, zeinaren pertzepzioa hari arretarik jarri gabe dugun, ohargarri bilakatuko da bolumena gehitzen diogunean. Zeren aurrekoak ariman deus eragingo ez balu, gehitze xume horrekin ez baikenuke ezer lortuko, beraz, batak eta besteak orotasunean ez lukete ezer eragingo. Puntu honetaz jada ihardun naiz lehen liburu honen II. atalean, § 11, 12, 15, etab.

(§ 8) FILALETES: Apropos datorkit hemen azpimarratzea sentsazio bidez datozen ideiak sarritan pertsona ikasien izpirituaren iritziak aldatzen dituela, haiek horretaz ohartu barik. Kolore eraberdineko esferaren ideia, era ezberdinez ilundu eta argitutako zirkulu lauak eskaintzen digu. Baina, ohituta gaudenetik gorputzen irudiak eta argiaren isla aldaketak bereizten haien gainaldeetako irudien arabera, ikusten dugunaren ordeztirudiaren kausa bera ezartzen dugu, eta iritzia ikusiarekin kideztzen dugu.

TEOFILO: Halaxe da bai, eta perspektiba ongi ulertuak gu tronpatzeko bide ematen dio pinturari. Mutur lauak dituzten gorputzak gerizarik gabe irudika ditzakegu, inguruneaz soilik baliaturik, txinarren erara pintatuz, haiek baino egokiago proportzionatutako moldean. Horrela diseinatu ohi dira dominak, artista ahalik eta gutxien alden dadin jatorrizkoaren trazu zehatzetik. Ezinezkoa zaigu marrazki bidez bereiztea zirkulu baten barrualdea eta zirkulu berorrek mugatzen duen azalera esferikoaren barrualdea, gerizak erabiltzen ez baditugu; batoren zein bestearen barrualdeek ez dute puntu berezirik, ez eta trazu bereizlerik, elkarren artean nabarmendu beharreko aldea egon arren. Horra zergatik Desargues-k⁸⁸ arauak utzi dizkigun tinten eta gerizen intentsitatei buruz. Beraz, pintura batek engainatzen gaituenean, errakuntza bikoitza dago gure iritzietan; lehenik kausa hartzen baitugu efektutzat, eta bitarte gabeko eran irudiaren kausa ikusten dugulakoan gaude; horretan, ispiluari zaunka egiten dion txakurraren pareko gara nolabait. Ez baitugu irudia baino ikusten eta argi izpiek soilik ukitzen gaituzte. Baina argi izpiek, arik eta laburra izanagatik, denbora behar dutenez, objektua aldiune horretan hondatua izan daiteke eta izpia begira orduko iraun ez, eta existitzen ez dena ezin daiteke ikusmenaren objektu aktuala izan. Bigarrenik, kausa bat bestearen ordeztirutzen hartzen dugunean ere tronpatzen gara, sinesten baitugu pintura lau batetik soilik datorren hura gorputz batetik deribatzen dela, eta era horretan gure irizpidean metonimia bat eta metafora bat sortzen dira aldi berean; erretorikako irudi hauexek ere sofisma bilakatzen direlako gu engainatzen gaituztenean. Efektu eta kausaren arteko nahaspila hau, egiazkoa batzuetan, ustezkoa besteetan, sarritan jazotzen da gure irizpideetan. Horrela sentitzen ditugu geure gorputzak edota berauei doakiena, horrela mugitzen ditugu besoak, gorputza eta arimaren arteko harremana osatzen duela uste dugun arartegabeko eragin fisikoz; baina, egiaz era horretan gure baitan dagoena soilik sentitzen eta aldatzen dugu.

FILALETES: Abagunea aprobetxatuz, hain eskuzabal bere jeinu bikaina zientzien aurrerapenerako eskaintzen duen Molyneux jaun jakintsuak⁸⁹ Locke jaun gailenari adierazi zion problema azalduko dizuet. Hona, gutxi gora-behera, berak nola planteatzen duen: demagun jaiotzetiko itsu bat, gaur egun gizon hazia, zeinari irakatsi zaion ukimenez bereizten metal bereko kuboia eta esfera, antzeko lodierakoak biak; beraz, aski du bata zein bestea ukitzea kuboia zein den eta esfera zein den jakiteko. Demagun, kuboia eta esfera mahai gainean daudelarik, itsuak bat-batean ikusmena bereganatzen duela. Hau da galdera, alegia, ikusiz baina ukitu gabe, ea haiek bereizteko eta zein den kuboia, zein esfera esateko gai izango ote zen. Arren eskatzen dizut, jauna, adieraz diezadazula zein den honi buruz zure iritzia.

TEOFILO: Astia beharko nuke oso bitxia deritzodan galdera hori hausnartzeko; baina hitzetik hortzera erantzuna eskatzen didazunez, gure artean zera esatera arriskatuko naiz, alegia, begi bistan dituen bi irudi haiek kuboaren eta esfera direla jakinaren gainean, itsua haiek bereizteko gauza izango zela uste dut eta ukitu gabe esango lukeela: .

FILALETES: Beldur naiz ez ote zaitugun jarri behar Molineux jaunari oker erantzun diotenen taldean. Galdera egiten zuen gutunean azaltzen zuenez, Locke jaunaren Adimenari buruzko Entseia liburuaren inguruan galdera berau luzatu zielarik izpiritu zorrotzeko zenbait pertsonari, ez omen zuen apenas inor aurkitu hauen artean berak uste bezala berehalakoan erantzun zioenik, nahiz eta bere argudioak entzun ondoren euren errua onartzeko prest egon. Egile zorrotz eta sakon honen erantzuna ezezkoa da: zeren -dio berak- itsu honek esperientziaz ikasia duen arren nolatan esfera eta kuboaren bere ukimenaren egokitzen diren, ez daki oraindik ukimenari horrela edo hala egokitzen zaionak honela edo bestela ukitu behar ote dien begiei, ez eta bere eskuak era ezberdinez ukitzen duen kuboaren ertzeko angeluak begien bistan agertu behar duenik kuboan agertzen den modukoa. Entseiuaren egileak azaltzen du, bera ere iritzi berekoa dela erabat.

TEOFILO: Molyneux jauna eta Entseiuaren egilea, agian, ez daude dirudien bezain urruti nire irizpidetik, eta bere pentsamoldearen aldeko argudioak, itxuraz lehenaren gutunean agertzen direnak eta jende aurrean errakuntza azaltzeko arrakastaz erabiliak izan zirenak, bigarrenak desagertaraztea gerta zitekeen, honela irakurleei euren adimena trebatzeko parada emanez. Nire erantzuna aztertu nahi izanez gero, galderaren baitan dagoen baldintza hau ezarri dudala bertan aurkituko duzue, hots, ez dela bi gorputzen arteko bereizketa soilak, baizik eta itsuak jakin ere jakin beharko du euren tankeratik bereizi behar dituen bi gorputzak han daudela, eta, beraz, ikusten dituen itxuretariko bakoitza kuboarena edota esferarena dela. Kasu horretan ez dago zalantzarik, nire ustez, itsu izateari utzi berri dionak bereizi ahal izanen dituela, arrazoiaren printzipio bidez eta aurrez ukimenak hornitu dion sentimen bidezko ezagutzaz. Ez naiz ari, beraz, bat-batean txundituta eta berritasunak nahasita edota ondorioak ateratzeko oraindik ohiturarik gabe egin dezakeenaz. Nire erabakiaren funtsa izan da esferan ez dagoela esfera berarekiko puntu nabarmenik, dena bat eta ertzerik gabea izaki; kuboan, aitzitik, zortzi puntu daude gainontzeko guztietatik nabarmentzen direnak. Irudiak bereizteko baliabide hau ez balego, itsuak ezin ikasiko lituzke geometriaren hastapenak ukimen bidez. Jaiotzetik itsuak direnak ikusten ditugu, ordea, geometria ikasteko gaitasunaz, eta gainera geometria naturaleko zenbait hastapenez hornituta daude beti. Ikusmen soilez ikasi ohi da gehienetan geometria, ukimenaz baliatu gabe; hala beharko luke paralitikoak edota ukimenaz ezin baliatu duen pertsonak. Eta bi geometria hauek, itsuarena eta paralitikoarena, irudi komunik ez badago ere, biak bat etor daitezen ezinbestekoa da, eta biak ideia berberekoak. Honek erakusten digu noraino diren bereiztekoak irudiak eta definizioek biltzen dituzten ideia zehatzak. Zinez litzateke jakingarri eta aberasgarri, jaiotzetik itsua den norbaiten ideiak aztertzea eta irudiak nola deskribatzen dituen entzutea. Ideietara iritsi baitaiteke bera, eta jakinduria optikoa ulertzera ere, jakite hau ideia bereizi eta matematikopean dagoen heinean, nahiz eta ezin bururatuko duen optikaren alorrean argi-ilunari dagokiona, hau da, argiaren eta koloreen irudia. Horra zergatik jaiotzetik itsu batek, nahiko ongi ulertzen bide zituen optika ikasketak egin ondoren, argiari buruz ea zer pentsatzen zuen galdera egin zion bati honela erantzun zion, alegia, beraren ustez zerbait atsegina izan behar zuela, azukrea modukoa. Garrantzi handikoa litzateke, halaber, jaiotzetik gormutu batek irudirik gabeko gauzei buruz eduki ditzakeen ideiak aztertzea, haien deskribapena guk hitzez egin ohi baitugu; berak, zalantzarik gabe,

molde erabat ezberdinetan ulertu behar ditu, nahiz eta gurearen balio berekoa, txinarren idazkerak gure alfabetoaren eragin baliokideak dituen bezala, hura infinituki ezberdin izanda ere, eta gor batek asmatua dirudien arren. Printze handi baten adeitasunari esker⁹⁰, ezagutu ahal izan nuen Parisen jaiotzetiko gormutu bat, zeinaren belarriak azkenik beren egitekoa betetzera iritsi diren, frantsesez mintzatzen ikasi baitu (eta Frantziako Gortean onartua izan da); hark esan ditzake gauza guztiz jakingarriak bere aurreko egoerako irizpideei buruz, eta ideia hauek nola aldatu diren entzumenaz baliatzen hasi zenetik. Jaiotzetiko gormutuak guk uste baino urrunago irits daitezke. Bazen bat Oldenbourgen⁹¹, azken kondearen garaian, pintore ona izatera iritsi zena eta oso zuhur agertzen zena, bestalde. Jatorriz Bretoia den gizon oso jakitun batek kontatu didanez, Nantesetik hamar legoara, Rohango dukearen Blainvilleko lurraldean ba omen zen 1690. urte inguruan gizon pobre bat, hiritik kanpo, gaztelutik gertu, txabola batean bizi zena, gormutua bera, eta gutunak eta beste zenbait gauza eramanez ohi zituen hirira, eta etxeak aurkitzen omen zituen euren zerbitzura zeukaten pertsonak keinuz emandako aginduei jarraituz. Azkenean, gizona itsutu ere egin zen, baina ez zion horregatik bere zerbitzuari utzi, eta gutunak hirira eramanez segitu zuen, ukimen bidez hartutako aginduei kasu eginez. Atetik oinetara zihoakion ohol xafla bat zeukan txabolan, honen mugimenduz inor etxean sartzen zela ohartarazteko. Arras axolagabeak dira gizakiak, pertsona horien pentsamoldeak zehazki nolakoak diren jakiten saiatzen ez direlako. Gizon hori dagoeneko bizi ez bada, leku hartako norbaitek hari buruzko informazioa oraindik bil dezakeela uste dugu, eta guri jakinarazi nola aditzera ematen zitzaion bere egitekoa. Baina, ikusten hasi den jaiotzetiko itsuarengana itzuliz, ea ikusiz eta ukitu gabe esfera eta kuboak bereizteko gai izanenez ote zen galderari nire erantzuna baiezkota da, hots, bereiziko dituela, esan berri dudanez, norbaitek azalduko balio, han jasoko dituen itxura edo pertzepzioetarik bata esferari doakiola, bestea kuboari; baina aurretiazko informazio hori gabe, aitortzen dut hasieran pentsatu beharko duela, begien barnealdean dauzkan koadro moduko horiek, mahai gainean dagoen pintura lau batena izan litezkeenak, gorputzak irudikatzen dituztela; ukimenak errealitateaz komentzituko duen arte, edota optikaren legeen arabera argi izpiez arrazoituz argi eta gerizen bidez ulertzera iritsiko den arte, izpi horiek geldiarazten dituen gauza bat dagoela han eta horixe dela, hain zuzen, berak ukimenaz sumatzen duena; horretara iritsiko da azkenik, kuboak eta esfera itzulika, gerizak eta itxurak nolatan mugimenduaren arabera aldatzen diren ikus dezanean, edota gorputzak geldi, hauek argitzen dituen argia lekuz aldatzean, edo baita ere bere begiak tokieraz aldatzean. Horiek baitira, gutxi gora-behera, urrutitik koadro bat edo gorputza irudikatzen duen perspektiba egiazko gorputzetik bereizteko guk geuk dauzkagun bitartekoak.

(§ 11) FILALETES: Itzul gaitezen pertzepziora oro har. Berak bereizten ditu animaliak beheragoko izakietatik.

TEOFILO: Apetizio eta pertzepzioren bat landareek beraiek ere badutela sinestera joera daukat, landare eta animalien artean dagoen analogiagatik; baldin eta landare-arimarik badago, arrunki onartua dena, honek pertzepzioa eduki beharko du. Alabaina, kausa mekanikoei egozten diet nik landare eta animalien gorputzetan gertatzen den oro, salbu eta hauen lehen sorketa. Ados nago, beraz, sentitiboa deritzogun landareen mugimendua mekanismotik datorrela diotenekin, eta ez dut onartzen arimara jo beharra landareen eta animalien fenomenoek xehetasunak azaltzerakoan.

(§ 14) FILALETES: Ni neu ere halaxe sinetsi beharrean aurkitzen naiz, alegia, ostra eta muskuiloen gisako animalien artean ere pertzepzio xumeren bat egon beharko duela: zeren sententzio biziak gogaitu baino ez bailiokete egingo, halabeharrak kokatutako leku

berean beti egotera kondenaturik dagoen animaliar, ur hotzak zein beroak, garbiak zein zikinak, datozkionak pairatuz.

TEOFILO: Oso ongi; eta gauza bertsua esan daitekeela uste dut landareez; baina gizakiari gagozkiola, hausnartzeko ahalmenaz horniturik daude honen pertzepzioak eta ahalmen hau ekintzara pasatzen da horretarako objekturik duen unean. Baina lozorro antzeko egoerara murriztuta, gizakia ia sentipenik gabe dagoenean, hausnarketa eta apertzepzioa ahitu egiten dira eta ez du jadanik egia unibertsalean pentsatzen. Hala eta guztiz, gaitasun eta joera sortzetikoak nahiz hartuak eta nahasmen egoera honetan jasotzen diren inpresioak ez dira horregatik amaitzen, ez eta ezabatzen, ahanzten baditugu ere; inoiz zer bait nabarmengarritan partaide izateko beren aukera izango dute, deus ez baita alferreko naturan, konfusio orok garatu behar baitu; ezgauza egoerara iritsi diren animaliak beraiek itzuli beharko dira egunen batean euren pertzepzio gorenetera, eta substantzia soilak betiko baitira, ezin juzga dezakegu betierekotasuna urte gutxi batzuetan oinarrituta.

X

Eutsimena

(§ 1, 2) FILALETES: Gauzen ezagutzan izpiritua pertzepzio hutsez baino bizkorrago aurreratzen duen ondorengo gaitasunari eutsimena deritzot nik, sentimen bidez eta hausnarketaz hartutako ezagutzak gordetzen dituelako. Bi eratara jotzen du eutsimenak: unean uneko ideiak zaindus, eta honi kontenplazioa deritzot, eta gordetakoa berriro izpirituaren aurrera ekartzeko ahalmenaz, eta honi oroimena deritzot.

TEOFILO: Eutsi eta kontenplatu egiten dira sortzetiko ezagutzak ere, eta sarri askotan bereizi ezinezkoak dira sortzetikoa eta hartutakoa. Badago, halaber, aspalditxotik geure baitan dauden edota berriro sortzen diren irudien pertzepzioa ere.

(§ 2) FILALETES: Irudi edo ideia horiek aktualki hautemanak ez direnetik izateari uzten diotela sinesteko joera dago gure artean, eta oroimenean ideiak gordeta dauzkagula esateak funtsean ez duela gauza handirik adierazten, ez bada arimak eduki dituen pertzepzioak iratzartzeko ahalmena maiz izan ohi duela eta, aldi berean, aurrez pertzepzio mota horiek izanaren sentipen sinestazlea.

TEOFILO: Ideiak pentsamenduen formak edo moldeak baino izango ez balira, haiekin batera ezabatuko lirateke, baina zerorrek aitortu didazu, jauna, haien barne objektuak direla eta horregatik iraun dezaketela. Biziki harritzen nau, beraz, zuk onartu ahal izateak oraindik ere ahalmen edo gaitasun huts horiek, Eskolako filosofoengan itxuraz behintzat gaitzetsiko zenituzkeenak. Zehazkiago azaldu beharko genuke gaitasun hori zertan datzan eta berak nola diharduen; honela iritsiko ginatke jakitera badirela zenbait jarrera, ariman eta gorputzean noizbait gertatutako inpresioen hondakinak direnak, eta hauetaz ohartzen garela oroimenak horretarako une egokiren bat aurkitzen duenean soilik. Eta pentsatzeari uztean iraganeko pentsamenduetatik deus geratuko ez balitz, haien oroitzapena nola gorde ahal izan dugun esplikatu ezinezkoa litzaiguke; horretarako gaitasun huts horretara jo beharra dagoela esatea ez da inondik inora ulergarri.

XI

Bereizmena edo ideiak bereizteko gaitasuna

(§ 1) FILALETES: Ideiak bereizteko gaitasunaren menpe dago sortzetiko egiazat dauzkagun proposizio askoren ebidentzia eta ziurtasuna.

TEOFILO: Sortzetiko egia horietan pentsatzeko edota egia berauek ordenatzeko argikumenak behar dugula aitortzen dut; baina, hala eta guztiz, sortzetikoak dira.

(§ 2) FILALETES: Ideiak azkarki gogoratzean datza izpirituaren bizkortasuna; baina, hauek gardenki irudikatze eta zehazki bereizteko, zentzumenaren premia dugu.

TEOFILO: Bata zein bestea, biak ere irudimenaren bizkortasunaren menpe egotea gerta daiteke, eta proposizioak arrazoimenaren laguntzaz aztertzean datza zentzumenaren.

FILALETES: Izpiritua eta zentzumenaren arteko bereizketa horretan zugandik gertu nauzu. Batzuetan zuhurra izan daiteke bereizketa hori gehiegi ez erabiltzea. Adibidez: zenbait pentsamendu izpiritualen aurkakoa litzateke nolabait, hauek egiaren eta arrazoinamendu zuzenaren arau zorrozpean aztertzea.

TEOFILO: Zehaztapen egokia egin duzu; pentsamendu izpiritualek, azalekoak baino ez badira ere, oinarriren bat behar dute arrazoiari; ez dira, baina, eskrupulu gehiegiz arakatu behar, koadro bat gertuegitik begiratu behar ez den bezalaxe. Nire iritziz, Aita Bouhoursek⁹² behin baino gehiagotan egiten du huts hau bere Izpirituaaren ekintzetan ongi pentsatzeko artea liburuan, hala nola Lukanoren burutapen hau gutxien duenean: *Victrix causa diis placuit, sed victa Catoni*⁹³.

(§ 4) FILALETES: Hona hemen izpirituaaren bere ideiekiko beste eragiketa bat: ideia bat bestearekin alderatzea, hedadurari, graduei, aldiari, lekuari edo beste edozein zirkunstantziari begira; erlazio izenez ezagutzen ditugun ideien kopuru ugaria horren menpe dago.

TEOFILO: Nire pentsakeraren arabera, erlazioa orokorragoa da alderaketa baino. Zeren erlazioak izan baitaitezke alderatzezekoak ala konkurrentziazkoak. Lehenek egokitze ala ez egokitzeari begiratzen diote (adierarik murriztenean hartzen ditut hitz hauek); bere baitan biltzen ditu honek antzekotasuna, berdintasuna, ezberdintasuna etab. Bigarrenek loturaren bat burutzen dute, hala nola, kausa eta efektuarena, osoa eta zatiena, egoera eta ordenarena etab.

(§ 6) FILALETES: Gure izpirituaaren eragiketa da, baita ere, ideia konplexuak ekoizteko erabiltzen ditugun ideia soilen konposaketa. Honi erants diezaiokegu ideiak hedatzeko gaitasuna, espezie berekoak bilduz, zenbait unitatek dozena egiten dutenekoan bezala.

TEOFILO: Bata konposatzea bada, bestea ere hala izanen da zalantzarik gabe; baina, antzeko ideien konposaketa ideia ezberdinena baino sinpleagoa da.

FILALETES: Txakurremeak azerikumeak elikatuko ditu, hauekin jolas egingo eta bere kumeengana duen grina beraz zainduko, azerikumeek euren gorputz osora hedatzeko adina esne beragandik edoski dezaten lortzen bada. Eta badirudi sabelaldi batean kume asko egiten dituzten animaliek ez daukatela hauen kopuruaren inongo ezagutarik.

TEOFILO: Ohiturak areagotzen duen konplazimenduak ernarazten du maitasuna animaliengan. Baina multzo zehatzari dagokionez, gizakiek ere ezin dituzte jakin gauzen kopuruak maiñaren baten bitartez ez bada, hala nola, kontatzeko zenbaki ordinal bezalatu, edota zenbatu beharrik gabe zerbait falta den jakiteko, irudi forman antolatuz.

(§ 10) FILALETES: Piztiak ez dute abstrakzio egiten.

TEOFILO: Nik ere hala uste dut. Badirudi zurtasuna ezagutzen dutela eta bai kleran, bai elurrean kolore hori nabari zaiela; baina hau ez da abstrakzioa, zeren honek orokorraren kontsiderazioa eskatzen baitu partikularretik bereizia, eta beraz, piztiei eman ez zaien egia unibertsalen ezagutza. Oso egoki adierazten da, halaber, mintzo diren piztiak ez direla hitzez baliatzen ideia orokorrak azaltzeko, eta hitzik edota elerik erabili ezin duten gizakiek ez diotela horregatik beste zeinu orokorrak erabiltzeari uko egiten. Gustura sentitzen naiz zuek hemen eta nonahi ikustean giza naturaren abantailak hain ongi nabarmentzen.

(§ 11) FILALETES: Piztiak ideia batzuk badituzte eta, makina hutsak ez badira, zenbaitek hala uste badu ere, ezin uka dezakegu graduren batean arrazoimena ere badutela, eta niretzat hain da ebidente arrazoitzen dutela nola agerikoa den haien sentimena. Baina, ideia partikularretara mugatzen da haien arrazoimena, haien sentimenek hauek irudikatzen dizkieten heinean.

TEOFILO: Irudipen batetik bestera pasatzen dira piztiak, noizbait sentitutako loturen eraginez; adibidez, nagusiak makila hartzen duenean badaki txakurrak bera zigortzeko dela. Eta sarritan umeek, bai helduek ere, bide beretsua egin ohi dute pentsamendu batetik bestera pasatzeko. Esanahi zabalean honi dei geniezaioke ondorio eta arrazoinamendu. Baina nahiago dut ohikora egokitu, hitz horiek gizakiarentzat gordez, eta sentsazio soilek ezin eman diezazkiguketen pertzepzioen arteko loturaren arrazoiren baten ezagutzari mugatu; hauen eragin bakarra litzateke aurrez hautemandako lotura berberak era naturalean berriro erabilaraztea, arrazoiak berberak ez direnean ere; honek engainatzen ditu sarritan sentimen bidez soilik gobernatzaren direnak.

(§ 13) FILALETES: Ergelek ez daukate bizkortasunik, ez aktibotasunik, ez mugimendurik euren adimenaren gaitasunetan, eta horregatik ezin dute arrazoimena erabili. Eroak, itxuraz, kontrako muturrean aurkitzen dira, ez baitut uste azken hauek arrazoimena galdu dutenik; aldiz, ideia batzuk apropos oker lotzen dituztelarik, hauek egiaztat hartzen dituzte euren buruak tronpatuz, printzipio faltsuen gainean zuzen arrazoitzen dutenak engainatzen diren modu berean. Horrela ikusiko duzue zoro bat bere burua erregetzat duena eta ondorio logikoz bere duintasunari dagokionez zerbitzatua, ohoretua eta obeditua izan dadin eskatzen duena.

TEOFILO: Ergelek ez dute arrazoimena ezertan erabiltzen eta zentzumen sanaa duten burugabe zenbaitengandik bereizten dira, mesprezatuak baitira hauek, eta ezerosoak, ikuskera bizkorra ez edukitzeagatik; halaxe izanzen litzateke, jokoan pertsona azkarrekin egin nahi, eta jokaldi bakoitza nola egin, luzeegi eta sarriegi pentsatuko lukeena. Gogoan dut drogak erabiltzeagatik oroimena galdu zuen gizon gazte bat nola egoera horretara iritsi zen baina zentzumena galdu gabe. Erabateko eroak ez dauka ia inoiz ere zentzumenik. Baina, irudimenaren bizkortasunagatik atsegina ager daiteke. Bereziak dira ero batzuek, euren bizitzako puntu garrantzitsu baten inguruan suposizio faltsua eraiki eta, horretan oinarriturik, arrazoitzen dutenak, zeuk azpimarratu duzunez. Hori gertatzen zaio halako gortean nahiko ezaguna den pertsonaia bati, uste baitu berak protestanteekiko auzia konpontzera deitua izan dela eta Frantzia bere senera itzularaztera, eta horretarako Jainkoak pasarazi dituela pertsonaiarik famatuenak bere gorputzetik, berau sotiltzeko; ezkongai ikusten dituen printzesa guztiak santu egin nahi ditu, ondoren emaztetzat hartzeko, lurra gobernatuko duen leinu santua sortzeko; bere aburuari egin zaion kasu eskasari egozten dizkio gerraren ondoko zoritxar guztiak. Erregeren batekin mintzo denean behar diren neurri guztiak hartuko dizkizu bere duintasuna murriztua gera ez dadin. Eta berarekin arrazoitzen hasten zara eta hain ongi defendatzen du bere burua, behin baino gehiagotan zalantzan jarri dudala itxura hutsezko eroa ez ote den, ez baita gaitzaren kausaz gaizki aurkitzen. Baina, hobeto ezagutzen dutenek ziurtatu didate benetan dela eroa.

XII

Idea konplexuak

FILALETES: Gela erabat ilunaren antzekoa dugu adimena, kanpoko irudi ikusgarriak pasatzen uzteko zirrikitu txiki batzuekin, halako moldez, non irudi horiek gela ilunean pintaturik geratuko balira eta bertan ordenaturik finkatu, behar dituenak aurkitzeko moduan, gela hau giza adimenaren guztiz antzekoa izango baitzen.

TEOFILO: Antzekotasuna handiagoa izan dadin, gela ilunean irudiak itsatsiko lituzkeen oihala dagoela suposatu beharko genuke, eta oihala ez eraberdinekoa, sortzetiko ezagutzak irudikatzen dituzten tolesdurek ezberdindua baizik; horrez gain, zabaltzerakoan oihal edo mintz honek erresorte edo indar eraginkorra eduki beharko luke, baita akzioa eta erreakzioa ere, iraganeko tolesduretara bezala irudien inpresioetatik etorri berri direnetara egokitua. Bibrazio eta oszilazioek, soka tinkoa ukitzean ikusten ditugunen antzekoek, osotuko lukete akzioa, honek soinu musikalaren

gisakoa sortuko lukeelarik. Irudiak edo aztarnak garunean bildu ezezik, berriak ere sortzen ditugu, ideia konplexuei gagozkielarik ditugunean. Beraz, gure garuna irudikatzen duen oihalak eragilea behar du izan, eta malgua. Alderaketak nahiko ongi azalduko luke garunean gertatzen dena; baina substantzia soil edo monada den arimari dagokionez, honek hedadurarik gabe irudikatzen ditu masa zabalen barietateak, eta berauen pertzepzioa dauka.

(§ 3) FILALETES: Beraz, ideia konplexuak edo moduak dira, edo substantziak, edo erlazioak.

TEOFILO: Gure pentsamenduen objektuak substantzia, modu eta erlazioka sailkatzea nire gustukoa da. Koalitateak substantzien aldaketak baino ez direla uste dut, eta adimenak erlazioak eranstean dizkiola. Uste baino areago doa ondorioa.

FILALETES: Bakunak izan daitezke moduak (hala nola dozena edo hogeikoa, espezie bereko ideia soilez, hots, unitatez osotuak) edota mistoak (edertasuna, adibidez) eta hemen espezie bereko ideia soilek parte hartzen dute.

TEOFILO: Gerta daiteke, baita ere, dozena eta hogeikoa erlazioak baino ez izatea eta adimenarekiko erreferentziaz soilik eratuak. Unitateak banaka existitzen dira eta, sakabanatuta egon arren, adimenak elkarrekin hartzen ditu. Hala eta guztiz, erlazioak adimenarenak izanda ere, ez dira errealtaterik edota funtsik gabekoak. Zeren lehen adimena baita gauzen jatorria; eta gauza ororen errealtatea bera ere, substantzia soilak salbu, substantzia soilen pertzepzioen funtsean bakarrik datza. Modu mistoekin ere sarritan gauza bera gertatzen da, hots, erlazioen multzoan kokatu beharko genituzkeela hauek ere.

(§ 6) FILALETES: Substantzien ideiak ideia bakunen konbinazio mugatuak dira, berez dirauten gauza partikular eta bereziak irudikatzen bide dituztenak; eta ideia horien artean lehen eta nagusitzat hartzen da beti substantziaren nozio iluna, zeina ezagutu gabe suposatzen den, berez zeinahi delarik ere.

TEOFILO: Substantziaren ideia ez da dirudien bezain iluna. Berataz behar dena jakin daiteke eta gainontzekoez jakin ohi dena; gainera, gauza konkretuen ezagutza abstraktuena baino lehenagokoa da beti; beroa ezagunagoa da berotasuna baino.

(§ 7) FILALETES: Substantziei dagokienez, bi ideia mota daude. Bata, banako substantziena, gizakiarena edo ardiarena adibidez; bigarrena, elkarri lotutako zenbait substantziarena, hala nola gizonek osotutako gudalostea edo artaldea; bilduma hauek ideia bakarra egiten dute.

TEOFILO: Elkartzetik datozen ideien batasuna egiazkoa da oso, baina funtsean aitortu beharra dago bildumen batasuna erlazioa besterik ez dela eta honen funtsa ondokoan datzala, alegia, banako substantzia bakoitzean solte agertzen dela. Beraz, agregaziozko izaki hauen benetako batasun bakarra adimenezkoa da; eta ondorioz, entitatea ere nolabait adimenezkoa edo fenomenikoa daukate, ostadarrarena bezala.

XIII

Modu bakunak eta, lehenik, espazioarenak

(§ 3) FILALETES: Bi gorputz banatzen dituen luzeraren arabera kontsideratzen den espazioari distantzia deritza; luzera, zabalera eta sakoneraren arabera kontsideratuz, edukiera deritzake.

TEOFILO: Zehazkiago mintzatuz, bi gauzen arteko distantzia (puntuak ala gauza hedatuak izan) batetik bestera eraman daitekeen lerrorik laburrenaren zenbatekoa da. Distantzia hau absolutuki kontsidera daiteke edota aldendurik dauden bi gauzak biltzen dituen irudiren batean; adibidez, lerro zuzena da absolutuki bi punturen arteko distantzia. Baina puntu bi horiek azalera esferiko berean daudenean, euren arteko distantzia azalera horretan, puntu batetik bestera eraman daitekeen zirkulu arkurik laburrenaren luzera da. Azpimarratu behar da, baita ere, distantzia ez dela bi gorputzen artean soilik existitzen; azalaren artekoa, lerroen artekoa, puntuen artekoa ere distantzia dela. Baiezta daiteke, edukiera edo hobeto esan,

gorputz biren arteko edo bi izaki hedaturen arteko edo izaki hedatua eta puntuaren arteko tarte, bataren puntuetatik bestearenetara eraman daitezkeen lerrorik laburrenek eratzen duten espazioa dela. Tarte hau tinkoa da, salbu eta bi gauzak azalera berean daudenean, eta kokaturiko gauzen puntuen arteko lerrorik laburrenak ere halaberrez azalera berorretan jausten direnean, edota berariaz han hartuak izan behar direnean.

(§ 4) FILALETES: Naturak bereak dituen gain, gizakiek euren izpirituan ezarri dituzte zenbait luzera zehatzen ideiak, hala nola hazbetearena eta oinbetearena.

TEOFILO: Ezinezkoa zaie: ezin baita luzera baten ideia zehatz-mehatza eduki. Izpirituak ezin du adierazi, ez ulertu ere, zer den hazbete, zer oinbete. Hitz hauen esanahiari neurri errealek soilik euts diezaioke, ustez aldatzen ez direlako beti aurkitu ahal izango ditugun neurriak. Horregatik Greave jaun matematikari ingelesak⁹⁴ gure neurriak iraunarazteko Egiptoko piramideez baliatu nahi izan du, nahiko denbora iraun baitute eta oraindik ere, itxuraz, luzaz iraungo, aditzera emanez ondorengoei piramideetarikoa batean markatuta dauden luzera zehatzekiko gure neurriek dituzten proportzioak. Egia da duela gutxi aurkitu dela penduluek neurriak luzarazteko balio dutela (mensuris rerum ad posterios transmittendi)⁹⁵. Huygens⁹⁶, Mouton⁹⁷ eta aspaldi Polonian moneta maisu izandako Buratini jaunak⁹⁸ frogatu dutenez, gure luzerak eta penduluaren luzeraren arteko proportzioak erakutsiz, honek segundo zehatza markatzen duenean (adibidez), hots, egun astronomikoaren edo izar finkoen biraketa baten 86.400ena; eta Buratini jaunak honi buruz txosten berezia dauka idatzita, nik eskuizkribuan ikusi ahal izan dudana. Baina akatsen bat badago oraindik penduluaren neurrian, hala nola, herrialde batzuetara mugatu behar garela, zeren penduluek denbora berean ibiltzeko luzera laburragoa behar baitute ekuatoretik behera. Eta onartu behar da, gainera, funtsezko neurri errearen iraunkortasuna, hau da, egunaren iraupenarena edo lurak bere ardatzaren inguruan dagien biraketarena eta (zergatik ez?) grabitatearen kausarena, beste hainbat zirkunstantzia aipatzen hasi gabe.

(§ 5) FILALETES: Irudiaren ideia moldatzeko, erreparatu egin behar diogu lehenik ertzak nola bukatzen diren: angelu ezberdinak eratzen dituzten lerro zuzenetan, edo angelurik ezin soma daitezkeen lerro kurboetan.

TEOFILO: Azaleko irudia lerroak edota lerroek burutzen dute; baina gorputzaren irudia lerro zehatzik gabe egon daiteke mugatuta, hala nola esferarena. Lerro zuzen soilak edo gainazal lauak ezin du espaziorik bereganatu, ez irudirik moldatu. Baina, lerro batek azaleko irudi bat beregana dezake, adibidez, zirkuluak obaloa, eta halaber, azalera kurbo bakar batek irudi solidoa beregana dezake, esferak eta esferoideak, esate baterako. Hala eta guztiz, zenbait lerro luze edo azalera lau ezezik, zenbait lerro kurbo edota azalera kurbo ere elkarrekin bil daitezke eta elkarrekin angeluak moldatu, non eta bata bestearen tangentea ez diren. Geometrialarien ohituren arabera, ez da, oro har, erraza irudiaren definizioa zehaztea. Hedadura mugatua dela esatea orokorregia litzateke, zeren, adibidez, lerro zuzena, bi muturretara mugatua egon arren, ez baita irudia; bi lerro zuzenek ere ez lukete irudirik osatuko. Beste hedadura batek mugatutako hedadura dela esatea ez da aski orokor, zeren azalera esferiko osoa irudia baita, eta ez du ezain hedadurak mugatzen. Esan daiteke, orobat, irudia zerbait hedatua eta mugatua dela, non puntu batetik bestera bideak infinituak diren. Honek bereganatzen ditu aurreko definizioak biltzen ez zituen lerro-muturrik gabeko azalera mugatuak, eta lerroak baztertzen ditu, zeren lerroko puntu batetik bestera bide bat baino edo bide kopuru zehatz bat baino ez baitago. Zuzenago izango da, beraz, esatea, atal hedatua onartzen duen hedadura mugatua dela irudia, hots, zabalera duena, hitz honen definiziorik eman ez badugu ere orain arte.

(§ 6) FILALETES: Irudiak espazioaren modu bakunak baino ez dira.

TEOFILO: Zure ustez, modu bakunek ideia bera errepikatzen dute; irudietan, ordea, ez da beti gauza bera errepikatzen. Arras dira ezberdinak lerro zuzenak eta kurboak, eta lerro kurboen artean batzuk eta besteak. Modu soilaren definizioak, beraz, ez du hemen lekurik.

(§ 7) FILALETES: Ezin ditugu geure definizioak hitzez hitz hartu. Baina pasa gaitezen iruditik lekura. Xake-taulan pieza guztiak guk utzitako laukietan aurkitzen ditugunean esan ohi dugu leku berean daudela denak, xake-taula lekuz aldatu bada ere. Orobat, esan ohi dugu xake-taula leku berean dagoela, itsasuntziko gelan leku bera betetzen duenean, untziak itsasoan aurrera egin badu ere. Itsasuntzia ere leku berean dagoela esaten dugu alboko herrietako kostaldeekiko distantzia berean dagoelarik, lurra agian bira egin duen arren.

TEOFILO: Lekua izan daiteke berezia, zenbait gorputzekiko kontsideratzen dugunean, edo unibertuala, oroari begira dagoenean eta kontuan hartzen direnean edozein gorputzek berarekiko izan ditzakeen aldakuntza guztiak. Eta unibertsoan deus finkorik ez balego ere, gauza bakoitzaren lekua arrazoimenak zehaztuta legoke, aldakuntza guztien agiria gordetzeko modurik balego, edota kreaturaren oroimena horretarako gai balitz, halatan esaten baita arabiarrek buruz eta zaldi gainean jokatzen dutela xakera. Guk ezin uler dezakeguna ere gauzen errealitatean dago zehaztuta.

(§ 15) FILALETES: Norbaitek galdetzen badit zer den espazioa, erantzuteko prest nagoke, berak hedadura zer den esan diezadanean.

TEOFILO: Niri ere gustatuko litzaidake sukarra edota beste edozein gaitz zer den adierazi ahal izatea, espazioaren izaera, nire ustetan, azaldu daitekeen argitasun bertsuz. Hedatuaren abstrakzioa da hedadura. Hedatua, beraz, zer jarraikorra da, zeinaren atalak bizikide diren, hau da, batera existitzen direnak.

(§ 17) FILALETES: Galdetzen bazait ea gorputzik gabeko espazioa substantzia den ala akzidentea, zalantzarik gabe erantzungo diot fisik ere ez dakidala horretaz.

TEOFILO: Ba ditut arrazoiak zera sinesteko, alegia, ez naizela harrokeriaz ari ez dakizula aitortzen duzun hori zehazten saiatzen banaiz. Arrazoiak badira, halaber, sinesteko, diozuna eta uste duzuna baino gehiago dakizula zuk horretaz. Jainkoa gauzen lekua dela pentsatu dute batzuek. Oker ez banago, Lessius⁹⁹ eta Guerike jaunek horrela uste zuten, baina horien iritzian, guk espazioari egozten dioguna baino gehiago biltzen du lekuak bere baitan, ekintza oro ezabatzen baitugu guk espazioan: eta era horretan ez da areago substantzia arik eta denbora substantzia den baino, eta atalak izatekotan ezin da Jainko izan. Erlazioa da, ordena da, eta existitzen diren izakien artean ezezik, ahalgarrietan ere, hauek existitzen diren izakitzat hartuta. Baina, haren egia eta errealitatea Jainkoaren gain dago oinarrituta, betiereko egiak dauden eran.

FILALETES: Ez nago ni zure irizpidetik oso urruti eta badakizu zuk San Pauloren hura, alegia, Jainkoarengan bizi, mugitzen eta izan ere bagarela¹⁰⁰ dioen pasartea. Horrela pentsakera ezberdinen arabera, esan daiteke espazioa Jainkoa dela, eta esan daiteke, baita ere, antolamendu edota erlazio bat baino ez dela espazioa.

TEOFILO: Beraz, egokiena izango da esatea espazioa antolamendu bat dela, eta Jainkoa dela antolamendu honen iturburu.

(§ 18) FILALETES: Alabaina, espazioa substantzia ote den jakiteko, jakin beharko genuke lehenik zertan datzan substantziaren izaera, oro har. Eta hau ez da erraza. Jainkoak, izpiritu mugatuak eta gorputzek substantziaren izaera berean parte hartzen badute, ez al dugu horren ondorioz atera behar, substantzia horren aldaeretan bakarrik bereizten direla elkarrengandik?

TEOFILO: Aintzat hartzekoa balitz ondorioa, beste hau ere ondoretuko litzateke, alegia, Jainkoa, izpiritu mugatuak eta gorputzak, denek izakera berean komunean parte hartzen dutelarik, izaki horren aldaera ezberdinean soilik bereiziko lirateke elkarrengandik.

(§ 19) FILALETES: Akzidenteak zerbaiti atxikita egon behar zuten izaki errealtzat hartzen lehenbizikoz hasi zirenek derrigor asmatu behar izan zuten substantzia hitza akzidenteen euskarri gisa.

TEOFILO: Akzidenteeak substantziatik at iraun dezaketela uste duzu, jauna, edota hauek izaki errealak ez direla adierazi nahi diguzu? Arrazoirik gabeko eragozpenak sortzen dituzula dirudi, eta lehen ere azaldu dizut substantziak edo izaki konketuak akzidenteak eta izaki abstraktuak baino aiseago bururatzen ditugula.

FILALETES: Substantzia eta akzidente hitzek, nire ustez, ez dute erabilgarritasun handirik filosofian.

TEOFILO: Iritzi ezberdinekoa naizela aitortzen dizut, eta sinetsita nago substantziaren kontsiderazioa filosofiako punturik garrantzitsuen eta emankorrenetarikoa dela.

(§ 21) FILALETES: Noizbehinka bakarrik mintzatu gara orain arte substantziaz, espazioa substantzia ote zen galdetzerakoan. Baina, aski da hemen gorputza ez dela esatea. Horrela, ez da inor ausartuko gorputza infinitu egitera, espazioa den moduan.

TEOFILO: Descartes jaunak eta bere jarraitzaileek, ordea, esan dute materiak ez daukala mugarik, mundua mugagabe bilakatuz, halako moldez non ezinezkoa zaigun haren mugak asmatzea. Eta azkengabe (infinitu) mugagabe (indefinitu) hitzaz ordezkatu dute, eta ez arrazoirik gabe, ez baitago inoiz munduan erabateko infiniturik, noiznahi existituko diren arren erabatekoak batzuk besteak baino handiagoak infinituraino, eta lehenago frogaturik utzi dudanez, unibertsoa bera ere ezin dugu erabatekotzat hartu.

FILALETES: Materia eta hedadura gauza bat beratzat hartzen dutenen ustetan, gorputz hutsaren sakonean beronen barne paretek elkarri erantsiko liokete. Baina gorputz biren artean dagoen espazioa aski da hauen ukipena eragozteko.

TEOFILO: Irizpide berekoa nauzu, zeren hustasuna onartzen ez badut ere, materia eta hedadura bereizten ditut eta aitortzen dut, esfera batean hutsunea balego, kontrako poloak ez lirakekeela horregatik ahurtasunean elkarri erantsiko. Baina ez dut uste jainkozko perfekzioak onartuko duenik posibilitate hau.

(§ 23) FILALETES: Badirudi, halere, mugimenduak frogatzen duela hutsa. Gorputz zatituaren atalik txikiena mustarda-hazia bezain handia denean, mustarda-haziaren tamainako espazio hutsa behar da, gorputz horren atalek aske ibiltzeko leku izan dezaten: eta gauza bera gertatuko da materiaren zatiak ehun milioi aldiz txikiagoak direnean ere.

TEOFILO: Egia da mundua malgutu eta zatitu ezinezko gorpuzkuluz (hala deskribatzen baitzaizkigu atomoak) beteta balego ezinezkoa litzatekeela mugimendua. Baina, egiazki jatorrizko gogortasunik ez dago: jariakortasuna, aitzitik, jatorrizkoa da, eta gorputzak behar adina zatikatzen dira, ez baitago hori eragotziko duenik ezer. Honek ebasten dio mugimendutik eratorritako hutsaren aldeko argudioari bere indar guztia.

XIV

Iraupena eta honen modu bakunak

(§ 10) FILALETES: Hedadurari iraupena egokitzen zaio. Eta ideien segidarik sumatzen ez duguneko iraupenaren zatiari deritzogu aldiunea.

TEOFILO: Aldiunearen definizio hau kontzepzio arruntaren gainean eraikita dagoela uste dut, puntuaren nozio arrunta dagoen bezalaxe. Zeren zorroztasunez hartzen baditugu, puntua eta aldiunea ez baitira denboraren edo espazioaren zati, eta ez daukate osagairik. Azken muturrak baino ez dira.

(§ 16) FILALETES: Iraupenaren ideia ez datorkigu mugimendutik, ideien etengabeko segidatik baizik.

TEOFILO: Pertzepzio jarraien andanak iraupenaren ideia gure baitan sustatu egiten du, baina ez osatu. Gure pertzepzioek ez dute sekulan segida aski iraunkor eta erregularra, denboraren jarraiari egokitzeko, continuum uniforme eta sinplea baita denbora, lerro zuzenaren antzekoa. Pertzepzioen aldakuntzak denboran pentsatzeko parada eskaintzen

digu, eta aldakuntza uniforme bidez berau neurtzera iristen gara: baina, naturan ezer uniformerik ez balego ere, denborak zehaztua beharko luke; halatsu lekuak, gorputz tinko mugiezinik ez balego ere, zehaztua beharko luke. Alabaina, gertatzen da, mugimendu disformeen arauak ezagutuz, beti bihur ditzakegula mugimendu uniforme ulergarri, eta bide honetatik aurrez jakin dezakegula mugimendu ezberdinekin zer gertatuko den, elkar ditzagunean. Adiera horretan da denbora mugimenduaren neurria, hots, mugimendu uniforme mugimendu disformearen neurria da.

(§ 21) FILALETES: Ezin irits gaitezke ziurtasun osoz iraupen zati bi berdinak direla jakitera, eta aitortu beharra dago behaketek hurbiltzea baino ez dutela lortzen. Ikerketa zehatz baten ondorio, aurkitu dute eguzkiaren eguneko biretan ezberdintasunak daudela, eta urteko birak ere ezberdinak ez ote diren ez dakigu.

TEOFILO: Begi bistan jarri digu penduluak eguerditik eguerdira egunen artean dagoen ezberdintasuna: solem dicere falsum audet¹⁰¹. Ezberdintasun hau gauza jakina genuela eta bere arauak dituela ere, egia da. Eguzki egunen gora-beherak orekatzen dituen urteko birari dagokionez, hau ere apika aldatuz joan liteke denboraren poderioz. Oraingo, lurrak bere ardatz inguruan dagien errotazioa dugu neurririk egokiena, arrunki lehen higikorrari egotzia, eta erlojuek zatika banatzen diguten errotazioa. Alabaina, lurraren eguneroko bira hori ere alda daiteke denboraren poderioz: eta piramideren batek nahiko iraungo balu, edota piramide berriak eraikiko bagenu eta bertan eguneko errotazio bitarte horretan gaur egun oszilazio kopuru jakin bat duten pendulu zehatzen luzera gordeko bagenu, orduan jabetuko ginatke hartaz: jakingo genuke, halaber, nolabait zeintzuk aldaketa izan diren bira hauek beste batzuekin erkatuz, hala nola Jupiterren sateliteen birekin, zeren, batzuetan zein besteean aldaketarik gertatzen bada, ez baitauka, antza, zertan beti proportzionala izan.

FILALETES: Denborari guk ezartzen diogun neurria zehatzagoa litzateke iraganeko egun bat gorde ahal izango bagenu etorkizun diren egunekin alderatzeko, espazioaren neurriak gordetzen ditugun bezala.

TEOFILO: Horren ordez, denbora bertsuan beren mugimenduak egiten dituzten gorputzak jagon eta erreparatzera gaude gu behartuta. Ezin dugu, bestalde, baieztatu espazioaren neurri batek, adibidez egurrezko ala metalezko kanabeteak, beti eta perfektuki berdin iraungo duela.

(§ 22) FILALETES: Baina, gizaki guztiek gorputz zerutiarren mugimenduaren bidez neurtzen dutelarik garbiro denbora, bitxia gertatzen da oraindik ere denbora definitzea mugimenduaren neurri gisa.

TEOFILO: Arestian esan dut (§ 16) hori nola ulertu behar dugun. Egia da Aristotelesekin dioela denbora mugimenduaren kopurua dela, ez neurria¹⁰². Izan ere, esan daiteke iraupena jakin ohi dugula aldizkako mugimendu berdinen kopurutik, hauetarik bata amaitzean bestea hasten baita, adibidez lurraren eta astroen hainbat eta hainbat biraketa.

(§ 24) FILALETES: Halere, biraketa hauei sarri aurre hartzen diegu; horrela, Abraham aldi juliotarreko 2712. urtean jaio zela esatea munduaren hasieratik zenbatua balitz bezain ulergaitz mintzatzea da, gauza jakina den arren aldi juliotarra hasi zela, eguzkiaren biraketak mugaturiko egunak, gauak eta urteak baino ehundaka urte lehenago.

TEOFILO: Hala espazioan nola denboran bururagarri zaigun huts horrek adierazten digu denbora eta espazioa izaki ahalgarriei, existitzen direnei bezain ongi doazkiela. Gainera prozedura kronologiko guztien artean desegokiena da urteak munduaren hasieratik kontatzen dituen, besteak beste, Hirurogeita Hamar interpreteak¹⁰³ eta hebraierazko testuaren artean dauden alde handiengatik.

(§ 26) FILALETES: Mugimenduaren hasiera antzeman dezakegu, baina iraupenarena, bere hedadura osoan, ulertezina egiten zaigu. Halaber, gorputzari mugak ezar diezazkiokegu, espazioarekin, ordea, ezin dugu gauza bera egin.

TEOFILO: Horregatik esan berri dut denborak eta espazioak posibilitateak markatzen dituztela, existentzien suposizioez gaindi. Ahalgarria eta existitzen dena berdin ikusten duten betiereko egien izaerakoak dira denbora eta espazioa.

(§ 27) FILALETES: Denboraren eta betierekotasunaren ideiak, izan ere, biak datoz iturburu beretik, zeren guk pilatu baititzakegu gure izpirituan zenbait hedadurazko luzera batzuk besteei erantsiz, geuk nahi bezainbeste alditan.

TEOFILO: Baina, hortik betierekotasun nozioa erakartzeko, bururatu behar da horrez gain, kausa berek dirautela aurrera jarraitzeko. Arrazoiaren gogoramen honek burutzen du infinituaren edota indefinituaren nozioa aurrerapen posibleetan. Horregatik sentimenak berez ez dira aski nozio horiek sortarazteko. Esan daiteke, funtsean, gauzen izaeran absolutuaren ideia, honi geroztik egokitzen zaizkion mugak baino lehenagokoa dela; baina, gu ez gara haren existentziaz jabetzen mugatutik abiatuz ez bada, honek ukitzen baititu gure sentimenak.

XV

Iraupena eta hedapena, elkarrekin kontsideratuta

(§ 4) FILALETES: Errazago onartzen dugu denboraren iraupen infinitua lekuaren hedapen infinitua baino, Jainkoaren baitan irudikatzen dugulako iraupen infinitua, eta hedadura, aitzitik, materia finituari bakarrik egozten diogu, eta unibertsoaz haraindiko espazioei irudimenezko deritzegu. Alabaina (§ 2), Salomonek beste era batez pentsatzen duela dirudi, Jainkoaz honela mintzo denean: ¹⁰⁴; hori esatean, nik uste, gehiegi goraipatzen ditu bere adimenaren ahalmenak, zeren Jainkoa existitzen den lekua baino areago bere pentsamenduak heda ditzakeela uste baitu.

TEOFILO: Jainkoa hedatsua balitz atalak edukiko lituzke. Baina iraupenak bere eragiketei soilik datxekizkie atalak. Halere, espazioari neurrigabetasuna atxiki behar diogu, honek eskaintzen baitizkie atalak eta antolamendua Jainkoaren arartegabeko eragiketei. Bera da posibilitateen jatorria, bai eta existentziena ere, batzuen bere esentziaz, besteena bere borondatez. Beraz, bai espazioak, bai denborak Beragandik dute soilik euren errealitatea, eta hutsa ere bete dezake, hala nahi izanez gero. Adiera horretan esan daiteke leku guztietan dagoela Bera.

(§ 11) FILALETES: Ez dakigu zeintzuk harreman dituzten izpirituek espazioarekin, ez eta nolatan haiek parte hartzen duten hor. Baina, badakigu iraupenean parte hartzen dutela.

TEOFILO: Izpiritu mugatu oro dago beti gorputz organikoren bati atxikita, eta eurenarekiko harremana nolakoa den, gainontzeko gorputzak honela irudikatuko dituzte. Horregatik, espazioarekiko euren erlazioa gorputzena bezain nabarmena da. Eta azkenik, auzi hau utzi aurretik, denbora eta lekuaren arteko beste alderaketa bat erantsiko diet zuek aipatutakoei; alegia, espazioan hutsarterik balego (adibidez, esfera bat barrutik hutsa balego), haren handiera zehaztu liteke; baina, denboran hutsuneren bat balego, hots, aldaketarik gabeko iraupena, ezinezkoa litzateke honen luzera zehaztea. Ondorio hau atera dezakegu hortik: ezeztatu diezaiokegula zera dioenari, alegia, beren artean hutsarte dagoen bi gorputzek elkar ukitzen dutela; ezin baitute elkar ukitu esfera huts batean aurkako bi poloek, geometriak hori eragozten duelako: alderantziz, ezin ezeztatu diezaiokegu hau esango lukeenari, alegia, bata bestearen ondoren datozen bi munduek elkar ukitzen dutela iraupenari dagokionez, halako molde non bata halabeharrez hasten den besteak amaitzen duenean, bien artekorik ezin egon daitekeelarik. Ezin zaiola ezeztatu esan dut, tarteko hori zehaztezina delako. Espazioa lerro bat baino ez balitz eta gorputza mugiezina, orduan ezinezkoa litzateke, orobat, gorputz biren arteko hutsartearen luzera zehaztea.

XVI

Zenbakia

(§ 4) FILALETES: Zenbakietan, ideiak zehatzagoak ezezik batzuk besteetatik bereiziak izateko egokiagoak ere badira, hedaduran baino, hemen ezin baita aztertu edo neurtu berdintasun bakoitza eta handiera lar bakoitza zenbakietan bezain aise; hau gertatzen da espazioan pentsamenduz ezin gaitezkeelako iritsi txikiagorik ez duen txikitasun zehatz batera, unitatea kopuruan den bezala.

TEOFILO: Hau guztia ulertu behar da zenbaki osoari gagozkiola. Zeren alderantziz, zenbakia oro har, zatikizkoa, sorra¹⁰⁵ transzendentea eta bi zenbaki osoren artean har daitekeen oro barne, lerroari proportzional zaio, eta continuum-ean bezain minimo gutxi existitzen da hor. Beraz, zenbakia unitateen anizkoiztasuna dela dioen definizioak zenbaki osoentzat soilik balio du. Hedaduran, ideiei dagokien egiazko bereizitasuna ez datza magnitudean: zeren magnitudea zehatz-mehatz antzemateko zenbaki osoetara jo behar baitugu, edota zenbaki osoen bidez ezagunak ditugunetara; hartaz, magnitudearen ezagutza bereizia izateko, kopuru jarraitik abiatuz, kopuru diskretura jo behar dugu. Hedaduraren aldakuntzak, zenbakiez baliatzen ez garenean, ezin dira irudi bidez bereizi, hitz hau adiera orokor honetan harturik, hots, kanpoko bi izaki elkarren antzeko izan ez daitezela eragiten duena.

(§ 5) FILALETES: Unitatearen ideia errepikatuz eta beste unitate bati erantsiz, ideia kolektiboa eraikitzen dugu eta bi deritzagu. Edonork egin dezake hau: azken ideia kolektiboari bat gehiago erantsi, bere izen partikularra eman eta izen segida jakinik, beronetaz oroitzeko adina oroimen duen edonork zenba dezake.

TEOFILO: Prozedura soil horrekin ez gara oso urruti joango. Oroimenak zamagainez amaituko luke unitate berri bakoitzaren batuketarako izen erabat berria oroitu beharko balu. Horregatik behar dugu antolamenduren bat eta nolabaiteko berbikoizpena izen horietan, progresio bide bati jarraiki berriro hasten.

FILALETES: Zenbakien modu ezberdinen arteko alde bakarra gehiago ala gutxiagoarena da; horregatik dira modu bakunak, hedadurarenak bezala.

TEOFILO: Denboraz eta lerro zuzenaz esan daiteke hori; inola ere ez irudiez, eta are gutxiago zenbakiez, hauek magnitudez ezezik, elkarrekiko ere ezberdinak baitira. Zenbaki bikoitia bi zati berdinetan zati daiteke, bakoitia ez. Hiru eta sei zenbaki triangeluarak dira, lau eta bederatzi laukiak, zortzi kubikoa, etab. Eta hau are eta gehiago gertatzen da zenbakietan irudietan baino, zeren bi irudi ezberdin bata bestearen antzeko izan daitezke erabat, bi zenbaki inoiz ere ez. Ez da, baina, harritzekoa gai honen inguruan hainbeste errakuntza izatea, ez baita arrunki ideia bereizirik antzekoa eta ezantzekoa zer den bereizterakoan. Ikusten duzu, beraz, jauna, nola zure ideia edota modu bakun edota mistoen aplikapena zuzendu premian dagoen.

(§ 6) FILALETES: Zuzen zaude zenbakiei izen gogoragarriak ematea komeni dela adieraztean. Onuragarri litzatekeela uste dut, zenbatzerakoan milioien milioia esan beharrean, laburtzeko, bilioia esango bagenu, eta milioien milioien milioia edo bilioien milioia barik, trilioia esango bagenu, eta horrela jarraian nonilioietara arte; zenbakien erabileran urrutiago iristerik apenas behar izanen dugun.

TEOFILO: Nahiko ongi daude izen horiek. Demagun x berdin 10 dela. Hau horrela, milioia x^6 litzateke, bilioia x^{12} , trilioia x^{18} , etab., eta nonilioia x^{54} .

XVII

Infinitutasuna

(§ 1) FILALETES: Kantitatearen modutzat hartzen dugun finituaren eta infinituaren nozioak garrantzirik handienetakoa du.

TEOFILO: Propioki mintzatuz, egia da gauzen kopurua amaigabekoa dela, hau da, guk izenda ditzakegunak baino gehiago izango direla beti. Baina zinezko orotzat hartzen baditugu, ez dago zenbaki infiniturik, ez amaigabeko lerrorik, ez beste ezein kantitate

infiniturik; aise froga daiteke hau. Eskolek hau adierazi nahi edota behar izan dute infinitu sinkategorematikoa delakoa onartzean, eta ez infinitu kategorematikoa. Berez, egiazko infinitua absolutuan dago, ez beste inon, eta absolutua edozein konposaketa baino lehenagokoa da eta ez dago atalak elkarri erantsiz osatua.

FILALETES: Infinituaren gure ideia lehen izakiari egokitzen diogunean, jatorriari eta ubikuitateari begira egiten dugu hau lehenik, ondoren, irudizko adieran, haren ahalmenari, jakituriari, ontasunari eta gainontzeko dohainei begira.

TEOFILO: Ez irudizko adieran, baina ez hain zuzenki ere, gainontzeko dohainek haien handitasuna ezagutarazten baitigute, atalen kontsiderazioak parte hartzen duenekiko erlazioa dela medio.

(§ 2) FILALETES: Ondokoa ebatzita geratu zela uste nuen, alegia, izpirituak finitua eta infinitua hedaduraren eta iraupenaren aldaeratzat hartzen dituela.

TEOFILO: Ez dut nik hori ebatzita ikusten, finituaren eta infinituaren kontsiderazioa egin ohi baita handitasuna edota aniztasuna dagoen orotan. Egiazko infinitua ez da aldaera bat, absolutua baizik; aitzitik, aldaera ezartzen denetik, mugatu egiten gara, finitu bat sortzen da.

(§ 3) FILALETES: Gure ustez, izpirituak bere espazioaren ideia ezarketa berriez mugagabe hedatzeko duen ahalmen iraunkorretik sortzen da espazio infinituaren ideia.

TEOFILO: Ondokoa erantsi behar zaio horri, alegia, hala gertatzen dela arrazoi berak beti dirauela ikusten dugulako. Har dezagun lerro zuzen bat eta luzatu, beronen luzera bikoiztu arte. Argi dago, bigarrena, lehenaren antz betekoa izaki, berriro bikoiztua izan daitekeela, hirugarren bat erdietsiz, aurrekoen guztiz antzekoa; eta arrazoi berak etengabe dirauenez, ez gaituzte geldiaraziko; horrela lerroa infinituraino luza daiteke. Halako moldez, non infinituaren kontsiderazioa antzekotasunetik edota arrazoi beretik datorren eta egia unibertsal eta beharrezkoen jatorri bera du. Honek erakusten digu infinituaren ideiarekin ikusmolde propioari beteamaiera ematen diona nolatan geure baitan dagoen eta ezin dela sentimenen esperientzietatik etorri, beharrezko egiak ere indukzio bidez edota sentimenez ezin froga ditzakegun modura. Absolutuaren ideia geure barnean daukagu, izakiarena daukagun bezalaxe; absolutu horiek Jainkoaren dohainak baino ez dira, eta baieztatu daiteke ideien iturburua direla, Jainkoa bera izakien jatorria den modura. Espazioari begira absolutuaren ideia Jainkoaren neurrigabetasunarena baino ez da, eta beraz, haren atributuena. Baina oker dago zatiz osotutako oro infinitua den espazio absolutua irudika nahian dabilena; horrelakorik ez dago, bere baitango kontraesana inplikatzeko duen nozio horrek; eta bai oro infinitu horiek, bai euren alderantzizko infinituki txikiak direnak geometrien kalkuluan soilik dira erabiliak, erro irudikariak algebran bezala.

(§ 6) FILALETES: Burura daiteke, halaber, magnitude bat bertan zatiak zatietatik kanpo suposatu gabe ere. Zuririk distiratsuenari buruz eduki dezakedan ideiarik perfektuenari eransten badiot distira bereko ala apalagoko zuriaren beste ideia bat (ezinezkoa baitzait lehenengoa baino distiratsuagorik eranstea, hau baita orain burura dezakedanik distiratsuen), horrek ez luke inondik ere neure ideia gehituko, ez zabalduko; horra zergatik deritzegun graduak zuritasun ideia ezberdinei.

TEOFILO: Ez dut ongi ulertzen argudio horren eragina, zeren ez baitigu deusek eragozten guk orain bururatzen dugun zuritasuna baino distiratsuago denaren pertzepzioa geuregana ahal izatea. Zuritasuna ezin dugula infinituraino areagotu pentsatzera garamatzan zinezko kausa honetan datza, alegia, ez dela jatorrizko koalitatea; sentimenei damaigute haren ezagutza lauso bakarra; eta haren ezagutza bereizira iristen garenean, ikusmenetik eta ikusmenaren organoak mugaturik datorkigula jabetuko gara. Jatorrizko koalitate edota bereziki ezagugarri direnei gagozkielarik, ikusten da badagoela infinituraino iristeko abagunea, hedadura dagoenean ezezik (edo nahiago

izanez gero difusioa, edota eskolak partes extra partes deritzena, hala nola denboran eta lekuan) bai eta intentsitatea edo graduak daudenean ere, abiadurari dagokionean, adibidez.

(§ 8) FILALETES: Espazio infinituaren ideiarik ez daukagu eta zenbaki infinituaren ideia aktualaren zentzugabekeria baino gauza nabariagorik ez dago.

TEOFILO: Iritzi berekoa nauzu. Ez, ordea, infinituaren ideia edukitzera iritsi ezin gaitzkeelako, infinitua den zerbaitek egiazko oroa ezin osatu duelako baizik.

(§ 16) FILALETES: Arrazoi beronengatik ez daukagu iraupen infinituaren edo betierekotasunaren ideia positiborik, neurrigabetasunarena ez daukagun bezalaxe.

TEOFILO: Badugu, nire ustez, bai bataren eta bai bestearen ideia positiboa, eta ideia hori egiazkoa izanen da oro infinitu baten gisan barik, mugarik gabeko absolutu edo atributu gisan bururatzen ez dugun bitartean, zeina betierekotasunari dagokionez Jainkoaren existentziaren premian aurkitzen dugun, hortik atalen existentzia eratortzen ez bada eta nozio hau denboren eransketaz sortu gabe. Hortik ikusten da, baita ere, gorago esan dudanez, infinituaren nozioaren jatorria eta beharrezko egiena iturburu beretik datozela.

XVIII

Beste zenbait modu bakun

FILALETES: Badira, horiez gain, beste modu bakun asko, ideia bakunez osatuak. Halakoak dira (§ 2) mugimenduaren moduak, hala nola, irristatu edota iraulkatu; soinuenak (§ 3), notek eta tonuek aldarazten dituztenak, graduak koloreak aldatzen dituzten bezala, eta ez ditugu hemen zaporeak eta usainak aipatuko (§ 6). Modu konplexuetan gertatzen den legez, hemen ere beti ez dago neurri edota izen zehatzik (§ 7), erabiliaren poderioz arautzen baita; honetaz luzeago mintzatuko gara hitzetara iristean.

TEOFILO: Modu gehienak ez dira aski bakunak, eta konplexuen artean sailka genitzake; esate baterako, irristatu edota iraulkatu zer den adierazteko, mugimenduaz gain lurrazalaren erresistentzia ere kontuan hartzekoa da.

XIX

Pentsamenduaren inguruko moduak

(§ 1) FILALETES: Sentimenen bidez datozkigun moduetatik pasa gaitezen hausnarketak eskaintzen dizkigunetara. Nolabait esateko, sentipena da ideiak sentimenen bidez adimenara eramango dituen sarrera aktuala. Ideia bera izpiritura itzultzen denean, lehenik sortu zuen kanpo objektuak gure sentimenetan eraginik ez duela, izpiritua ekintza horri erremiszentzia deritzo; izpiritua hura gogoratzen saiatzen bada eta ahaleginen ondorio aurkitu eta gogora ekartzea erdiesten badu, horri barruratzeko deritzogu. Izpirituak arretaz eta luzaro hura begiztatzen duenean, kontenplazioa da; izpirituan daukagun ideia adimenaren inolako arretarik gabe, nolabait esateko, bertan azaleratzen denean, horri ametsa deritzo. Berez aurkeztu zaizkigun ideiak hausnartzen ditugunean eta, nolabait esateko, oroimenean sailkatzen dituguneko adiera da; eta izpiritua ardura handiz ideia batean finkatzen denean, alde guztietatik ideia hori begiztatzen duenean eta baztertu nahi ez duenean, beste hainbat ideia traban jartzen bazaio ere, horri ikasketa deitzen diogu edota izpirituak arreta ematea. Ametsik gabeko loaldia gauza horien guztien etenaldia da; amets egitea ideia horiek izpirituan edukitzea da, kanpoko sentimenak itxita daudelarik, non eta ez duten hartzen ohiko bizitasunez kanpoko objektuen hautemana. Kanpoko ezein objektu edo abagune ezagunek iradoki ez dizkigun ideiak edukitzea da ametsaldia, ideia hauek inondik ere adimenak hautatu edo zehaztu ez dituelarik. Estasia deritzogun hori ez ote den begiak zabalik ditugularik amets egitea, beste norbaitek erabaki beza.

TEOFILO: Nozio hauek argitzea ona izanen da eta horretan saiatuko naiz. Esango dut sentipena gertatzen dela kanpoko objektu bat hautematen dugunean, eta

erremiszentzia aurrekoaren errepikapena dela, baina objektuaren presentziarik gabe; eta objektu hau lehen existitu dela badakigunean, oroitzapena deritzagu. Barruratzek guretzat adiera guztiz bestelakoa du, hots, arazoetatik aldentzea hausnarketaren batera lotzeko. Baina, nik dakidala, ez dagoenez zure nozioari doakion hitzik, zuk ekarri duzuna erabil dezakegu. Arreta daukagu bereizten ditugun eta besteak baino nahiago ditugun objektuekiko. Arretak izpirituan dirauenean, kanpoko objektuak jarraitu ala ez, eta objekturik ez dagoenean ere, kontsiderazioa deritzogu; ezagutzarantz jotzen duenean, eta ekintzarekiko harremanik gabe, kontenplazioa izango da. Ikastea (hau da, gordetzeko ezagutzak eskuratzea) helburu duen arretari ikasketa deritzogu. Asmoren bat gauzatzeko kontsideratzea, meditatzea da; amets egitea, aldiz, pentsamendu zehatz batzuei, horretan hartzen den plazerarengatik eta beste helbururik gabe, jarraitzea baino ez dela dirudi; horra zergatik ameskeriak eromenera eraman gaitzakeen: ahaztu egiten da, ahaztu egiten dugu dic cur hic¹⁰⁶ delakoa, ametsak eta ameskeriak ferekatzen ditugu, gazteluak eraikitzen ditugu airean. Ametsak eta sentrazioak, hauek haiekin lotuta ez daudelako bereizten ditugu soilik, aparteko mundua bailitza. Lo egitea sentrazioen etenaldia da eta horrela estasia lo biziki sakona da eta iratzargaitza, barne kausa iragankorretik datorrena; hori dela eta, narkotikoak edota funtzioen lesio iraunkorren batek (letargia egoeran, adibidez) eragindako loaldi sakona baztertzen dugu. Estasiak noizbehinka ikuskariz izaten dira; baina estasirik gabe ere izaten dira ikuskariak eta, dirudienez, ikuskaria sentrazio itxura duen ametsa baino ez da, objektuen egia irakatsiko bailigun. Ikuskari horiek jainkotiarak direnean, egia existitzen da zinez han; hau egiazta daiteke, adibidez, iragarpen zehatzak direnean, gertatuak gero baietsiko dituenak.

(§ 4) FILALETES: Izpirituaren kontentzio edo distentsio maila ezberdinetatik ondorioztatzen da pentsamendua dela arimaren ekintza, eta ez esentzia.

TEOFILO: Zalantzarik gabe, pentsamendua ekintza da eta ezin da esentzia izan; baina ekintza esentziala da eta horrelako ekintzak substantzia orok dauzka. Gorago frogatu dut etengabe dauzkagula pertzepzio xumeak amaigabeko kopuruan, haietaz ohartzen ez garelarik ere. Ez gaude inoiz pertzepziorik gabe, baina sarritan egon behar dugu apertzepziorik gabe, hala nola pertzepzio bereizirik ez dagoenean. Puntu garrantzitsu hau kontuan ez hartzeagatik, filosofia nasaia, tinkotasun eta noblezia gutxikoa gailendu da hainbat izpiritu gorenetan, eta horregatik muzin egin diogu ia oraintsu arte arimek daukaten tasunik ederrenari. Eta hori dela eta, arimak galkorrak direla irakasten duen errakuntza honetan aurkitu izan da itxurazko hainbat egia.

XX

Plazerra eta oinazearen moduak

(§ 1) FILALETES: Gorputzaren sentrazioak eta izpirituaren pentsamenduak indiferenteak direnez edota plazerrez edo oinazez amaituak, ezin deskriba daitezke ideia hauek, gainontzeko ideia sinpleak ere azaldu ezin diren modura, eta haiek izendatzeko erabili ohi ditugun hitzei ezin diegu definiziorik eskaini.

TEOFILO: Ez dago, nire ustez, guztiz indiferente edo ezaxola zaigun pertzepziorik, baina aski da haien efektua bereizgarri ez izatea horrela deituak izateko, zeren plazerra eta oinazea laguntza edota traba nabarmengarriak direla baitirudi. Definizio hau nominala dela aitortzen dut, eta ezin daitekeela besterik idoro.

(§ 2) FILALETES: Gure baitan plazerra eragin eta gehitu dezakeena da ongia, edota oinazeran bat murriztu edo laburtu dezakeena. Gaizkiak, berriz, oinazea eragin eta gehitu dezake gure baitan, edota plazerren bat murriztu.

TEOFILO: Iritzi berekoa naiz ni ere. Zintzoa, atsegina eta onuragarria izan daiteke ongia, baina funtsean berez atsegina izan behar duela uste dut, edota sentimendu atseginik

eskain diezagukeen norbaiten zerbitzura egon; esan nahi baita ongia atsegina edo onuragarria dela, eta ongi zintzoa berez dela izpirituaren plazerra.

(§ 4,5) FILALETES: Plazerretik eta oinazetik sortzen dira grinak: plazerra eragin dezakeena maite dugu; kausa presenteak edota ausenteak eragin dezaketen tristezia edota oinazearen pentsamendua da, aldiz, gorrotoa. Baina zorionerako eta zoritxarrerako gai diren izakiei dagozkien gorrotoa eta maitasuna sarritan gure baitan sentitzen dugun atsekabea edota gozaldia dira, haren existentziaren burutapenak edo zorion gozatuak eraginda.

TEOFILO: Nire Codex juris gentium diplomaticus¹⁰⁷ liburuaren hitzaurrean, justiziaren printzipioak azaltzen nituelarik, maitasuna gutxi gora-behera honela definitzen dut: maitatzea, objektu maitatuaren perfekzio, ontasun edo zorionaren aurrean plazer izatera eramana izatea da. Horregatik ez dugu inongo beste plazerrik ikusten, ez norberarentzat eskatzen, maitearen ongian eta plazerrean aurkitzen dena izan ezik; zentzu horretan, zorionerako edota atsedenerako gai ez dena ez dugu maite, eta mota horretako gauzez gozatzen dugu ez ditugularik maite, prosopopeiaz ez bada, euren perfekzioaz beraiek gozatzen dutela imajinatuko baikenuen. Beraz, koadro eder bat maite dugula diogunean, haren perfekzioak begiztatzean sentitzen dugun plazerragatik, hori ez da zehazki maitasuna. Baina hitzen esanahia hedagarria da eta aldatu egiten da usadioaren poderioz. Filosofoek eta teologoek ere bi maitasun mota bereizten dituzte, hots, konkupiszentziazkoa deitu maitasuna¹⁰⁸, eta hau ez da besterik guregan plazerra eragiten duenaren desira eta sentimentuak baino, hark zer sentitzen duen inongo axolarik gabe; eta ongurazko maitasuna, maitatuaren zoriona edota plazerragatik plazerra sentiarazten diguna. Lehenengoak kontuan hartzen du gure plazerra, bigarrenak, aldiz, bestearena, honek gurea eragiten eta osatzen duen heinean, zeren nolabait guregan eraginik ez duen ezertan ezin baitugu arretarik jarri, norbere ongiaren grinarik eza ezinezkoa zaigulako, askok baietz esan arren. Horra nola ulertu behar den maitasun desinteresatua edo ordainik gabekoa, zuzen bururatu nahi badugu maitasun mota horren noblezia, ameskeriatan jausi barik horregatik.

(§ 6) FILALETES: Present balego, plazerra eragingo liokeen zerbaiten ausentziaren aurrean gizakiak bere baitan sentitzen duen kezkarik (uneasiness ingelesez) desira deitzen diogu. Kezka da gizakien industria eta ekintzak bultzatzen dituen akuilu nagusia, bakarra esango nuke nik; izan ere, zernahi delarik ere gizakiari eskainitako ongia, ongi horren ausentziak ez badakar inolako atsekaberik, inolako oinazerik, eta hura gabe ere pozik eta kontent izan badaiteke, orduan ez zaio haren desirarik bururatzen, eta are gutxiago egingo dizu ahaleginik hartaz gozatzeko. Horrelako ongiagatik nahikeria hutsa baino ez da sentitzen, hau baita desira mailarik apalena izendatzeko erabiltzen den hitza, eta hau da erabat ezaxola zaion zerbaiten aurrean arimaren egoeratik gertukoena, zerbaiten ausentziak eragindako desplazerra hain munta eskasekoa denean, non irrika ahuletara baino ez daroan, hura lortzeko bideak jokoan jartzerainoko puntura iritsi gabe. Ontasun desiratu eskuratzina dela usteak apeta itzali edota hotzitu egiten du, kontsiderazio honek arimaren kezka sendatzen edo murrizten duen neurrian. Bestalde, kezkarik buruz azaldu dizudana gure idazle ingeles ospetsu horrengan aurkitu dut eta honen iritziak sarritan adierazten dizkizut. Ingeles hitz honen esanahia ulertzea kostatu zait apur bat: uneasiness. Baina frantses itzultzaileak, zeinaren trebetasuna zalantzarik gabea den, orriaren oinean ohartarazten digu (20. atala. § 6) hitz ingeles honen bidez egileak gustura aurkitzen ez den gizakiaren egoera adierazten digula, guztiz pasibo geratzen den arimari sosegua eta naretasuna falta zaizkionean; eta hitz hori kezka¹⁰⁹ gisa itzuli behar izan dugu, ideia bera zehazki espresatzen ez badu ere, hurbilen doakiona berau baita. Ohar hau (itzultzaileak gehitzen du) ahalmenari buruzko hurrengo atalari begira bihurtzen da batez ere garrantzitsu, egileak han arrazoitzen baitu luze-

zabal kezka mota horretaz, zeren aipatu berri dugun ideia lotuko ez balitzaio hitz horri, ezinezkoa bailitzateke atal horretan tratatzen diren gaiak ulertzea, berauek direlarik obra guztian garrantzitsuen eta delikatuenetarikoak.

TEOFILO: Arrazoi du itzultzaileak, eta gure egile bikainaren irakurketak zera ulertzea narama, alegia, bere izpiritu sakon eta sarkorra bereziki erakusten duen puntu nagusia dela kezkari buruzko kontsiderazioa. Hori dela eta, arreta berezia eskaini diot, eta ongi hausnartuz gero uste dut, kezka hitzak, egilearen esangura betea adierazten ez badu ere, nire iritziz nahiko ongi doakiola gauzaren izakerari; uneasiness hitza, aitzitik, desplazerra, oinazea, ezerosotasuna, hitz batez, pena efektiboren bat adierazten duen neurrian ez da egokia. Nahiago nuke esan desirak bere baitan duela oinazerako joera eta gertuera, ez oinazea bera. Egia da pertzepzio hau batzuetan ez dela oinazearenetik bereizten gora-beheran ez bada, baina gradua berezkoa du oinazeak, pertzepzio ohargarria baita beti. Era berean sumatzen da apetitua eta gosearen arteko aldea, zeren urdaileko mina biziégia denean, asaldatu egiten baikara, halako moldez non puntu honetan ere beharrezko zaigun pertzepzioei buruzko gure doktrina hura aplikatzea, hauek hautemanak izateko txikiegiak direnean; apetitua edota desira daukagunean gure baitan gertatzen dena nahiko nabarmen izango balitz, oinazea eragingo liguke. Horra zergatik izatea zor diogun Egile guztiz zuhurak gure onerako egin duen gu sarritan ezjakinean eta pertzepzio nahasien artean egon beharra, era horretan senez azkarrago joka dezagun, eta ezeroso senti ez gaitezen erabat oroitzen ez ditugun objektu anitzetatiko sentipen arras ezberdinengatik, naturak bere helburuak lortzeko alboratu ez dituen objektuetatik. Zenbat intsektu ez ote ditugun irensten hartaz jabetu gabe; zenbat pertsona ikusten ditugu, usaimena finegia dutelako aise sentitzen direnak ezeroso, eta zenbat gauza nazkagarri ikusi beharko ote genuen gure ikusmena zorrotzagoa balitz. Maltzurkeria honi esker, naturak desiraren akuiluak eman dizkigu, oinazearen lehengai eta elementu gisa, edota nolabait esateko, erdi-oinazeena edo (gehiégikeriaz mintzo nahi bazarete nabarmenago adierazteko) oinaze xume, sentiezinena, gaitzaren xarmaz goza gaitezen haren nekerik nozitu gabe; zeren bestela pertzepzio hori lar ezberdin balitz, miserable egongo baikinake beti ongiaren esperoan; aldiz, erdi-oinaze horien etengabeko garaipenak, norbere desirrei jarraiki edota nork bere apetak eta grinak nolabait asetuz sentitzen direnak, erdi-plazer ugari eskaintzen digu, hauen iraupena eta pilaketa azken finean plazer oso eta egiazkoa bilakatzen delarik (jausten ari den gorputz aztuna bere inpultsua areagotuz doan moduan, oldar handiko bilakatu arte). Funtsean erdi-oinaze horiek gabe ez legoke plazerrik eta gustura sentitzea eragozten diguten trabak alboratuz, zerbaitek laguntzen edo eztatzen gaituen jakiteko modurik ez legoke. Sokratesek berak ere Platonen Fedon obran¹¹⁰ ohartarazten zigun nola oinetako minetan aurki daitekeen plazerra eta oinazearen arteko kidetasuna. Eragotzitako grinaren laguntza xumeen edota emaitza txikien kontsiderazioak, zeinetatik azken finean plazer nabarmena geureganatzen dugun, laguntza eskaintzen digu argiago ikusta dezagun hain ilun irudikatzen ditugun plazerraren eta oinazearen ideiak; beroaren eta argitasunaren sentipena ere objektuei dagozkien mugimendu xume askoren emaitza da, gorago aipatua utzi dudanez (9. atala, § 13), itxuraz soilik bereizten direnak eta azterketa hau kontuan hartzen ez dugulako; eta, askok gaur egun hala uste duen arren, koalitete sentikorrei buruzko gure ideiak ez dira mugimenduetatik toto genere bereizten, ez eta objektuetan gertatzen denetik, zerbait primitibo eta azaldu ezinezko, are eta nolanahiko gauzatuz, Jainkoak arimari gorputzaren baitan gertatzen dena barik bururatzen zaion oro sentiaraziko bailion; eta hau guztia oso urrun aurkitzen da gure ideien azterketa egokitik. Baina kezkara itzul gaitezen zera esateko, alegia, adi gauzkatzen zirrara apal, ohartezinak erabaki lausoak direla, halako moldez, non sarritan ez baitakigu zeren hutsunea dugun; joera eta grinekin, aldiz, zer nahi dugun behintzat badakigu, hemen ere

pertzepzio lausoek eraginik izan arren eta grin en kasuan egonezina edo irrika hori eragiten badute ere. Desteinkatu nahi duten malguki txikiak modukoak baitira gure makina mugiarazten duten inpulstuak. Hori dela eta, gorago ere adierazi dut ez gaudela sekulan ezaxola, ez eta itxura hori ematen dugunean ere, bide bukaeran ezkerrera barik eskuinaldera biratzen dugunean, adibidez. Hartutako erabakia delibero ohartezin horietatik dator, bai eta objektuen eraginetik eta gure gorputzaren baitatik ere, honek sentiarazten baikaitu aiseago mugitze era batera, bestera baino. Alemanieraz Unruhe deitzen zaio, hots, kezka horma-erlojuaren penduluari. Gure gorputzarekin gauza bera gertatzen dela esan daiteke eta ezingo dela inoiz sentitu erabat gustura: zeren, hala gertatzekotan, objektuen edozein inpresio berrik edota gorputz ataletan, hodian, errainetan aldakuntzarik xumeenak oreka galtzera eramango bailuke, eta berriro sasoi ezin hobera itzultzeko ahalegintzera behartuko luke; horrek eragiten du etengabeko borroka, hau da, nolabait esateko, gure erlojuaren kezka; horra zergatik zaidan biziki gogoko deitura hori.

(§ 6) FILALETES: Arimak ziurtzat daukanean ondasun baten jabetza, orain nahiz etorkizunean, poza sentitzen du; eta ondasun baten jabe gara hura gure eskumenean daukagunean, hartaz nahi dugunean gozatzeko moduan.

TEOFILO: Hizkuntzek ez dauzkate hitz aski egokiak hurbileko nozioak bereizteko. Latinezko gaudium agian gertuago dago pozaren definizio honetatik laetitia baino, azken honek ere poza adierazten duen arren; baina kasu honetan plazerrak menperatzen gaitueneko egoera islatzen du poza hitzak, zeren tristeziarik sakonenean ere eta oinazerik lazgarrienen erdian ere senti baitezakegu plazerren bat, hala nola edanean edota musika entzuten, baina desplazerra da nagusi; eta oinazerik latzenetan ere, izpiritua alai egon daiteke, martiriei gertatzen zitzaiena.

(§ 8) FILALETES: Tristezia arimaren kezka da, luzaroago goza zezakeen ondasun galduaz pentsatzen duenean, edota orainaldiko gaizkiaren torturapean dagonean.

TEOFILO: Orainaldiko presentziak ez ezik, etor daitekeen gaizkiaren beldurak ere tristetu gaitzake; beraz, pozari eta tristeziari eskaini berri dizkiedan definizioak dira, nire ustez, usadioari ondoen doazkionak. Kezka, berriz, oinazean aurkitzen dugu eta, ondorioz, tristezian ere bai; bai eta pozean ere, honek egiten baitu gizakia ekintsu, erne, areago joateko esperantzaz betea. Inoiz izan da poza emozioaren gehiegiaz heriotza eragiterainokoa eta kasu horretan kezka baino zerbait gehiago zen.

(§ 9) FILALETES: Plazerra eskaini diezaiokeen zerbaitetik agian lortuko duen atseginean pentsatzen duen arimaren satisfakzioa da itxaropena. (§ 10) Eta beldurra, etorkizunean gerta dakioken gaizkian pentsatzean arimak sentitzen duen kezka.

TEOFILO: Kezka desplazerra adierazten badu, aitortzen dut izuaren kide dela berau; baina zirikatzen gaituen akuilu sentiezintzat hartuz gero, itxaropenari ere aplika geniezaioke. Grinak iritzizat zeuzkaten estoikoek; hala nola, itxaropena zen etorkizuneko ongiaren iritzia, izua, berriz, etorkizuneko gaizkiaren iritzia. Baina nik nahiago dut esan, grinak ez direla atseginaldiak, ez desplazerrak, ez eta iritziak, joerak baizik, edo hobeto esan, irizitik edo sentimentutik datozen joeraren aldakuntzak, batzuetan plazerrez datozenak, bestetan desplazerrez.

(§ 11) FILALETES: Etsipena, ondasun eskuraezinaren ustea da; samindura eragin dezake eta noizbehin apatia.

TEOFILO: Grinatzat hartuta, etsipena erabat trabatuta aurkitzen den joera bizia izan da; honek borroka zitala eragiten du eta desplazerra ugari. Baina etsipena apatiaz eta nagikeriaz datorrenean, orduan grina ez baina, iritzia izan da.

(§ 12) FILALETES: Kolera irainen bat sufritu ondoren sentitzen dugun kezka edo desordena da, eta berehala mendekua hartzeko desiraz etorri ohi da.

TEOFILO: Badirudi kolera zerbait sinpleago eta arruntago dela, piztiak ere koleratsu izan baitaitezke, eta ez zaie irainik egiten. Ahalegin bortitza dago koleraren baitan, gaitzetik libratzen saiatzen dena. Odol hotzekoengan mendeku nahiak irauten du eta orduan gorrotoa da kolera baino areago.

(§ 13) FILALETES: Bekaizkeria arimaren kezka (desplazerra) da, guk desiratu baina beste norbaitek daukan ongia kontsideratzetik datorkiguna, norbait horrek ez zuelako, gure ustetan, zertan hura eduki behar gurekiko lehentasunez.

TEOFILO: Definizio horren arabera, bekaizkeria beti izanen litzateke grina goresgarria, justizian oinarritua, gure iritzitan bederen. Ez dakit, baina, sarritan aitortutako merituaren bekaizti ez ote garen, halako moldez, non haren nagusi bagina inongo kupidarik gabe zigortuko genukeen. Batzuetan bekaizten ditugu norberak eduki nahi ez dituenak dauzkaten pertsonak ere; gustura sentituko ginateke haiek gabe ikustean, hondakinetatik inongo probetxurik atera nahi ez dugularik eta haien jabe izateko inongo esperantzarik gabe. In fresco pintatutako koadroak bezalakoak baitira zenbait ondasun; honda ditzakezu, baina ez erauzi.

(§ 17) FILALETES: Grinarik gehienek pertsona askoren gorputzetan inpresioak eragiten dituzte eta zenbait aldakuntza, baina aldakuntza hauek ez dira beti nabarmen: hala nola, lotsa, zeina arimaren kezka den, zerbait itsusi edota besteen guganako estimuaren murrizgarri eginarene pentsamentutik datorkiguna, gorrialdiz etorri ohi da, baina ez beti.

TEOFILO: Grinekin datozen azaleko mugimenduak gizakiek hobeto aztertuko balituzte, disimulagaitzak lirateke. Lotsari dagokionean, kontuan hartzekoa da nolatan pertsona apalek lotsaren antzeko mugimenduak sentitzen dituzten, beraiek ekintza makur baten testigu baino izan ez direnean.

XXI

Potentzia eta askatasuna

(§ 1) FILALETES: Izpirituak somatzen duenean nolatan zerbaitek izateari uzten dion eta nola lehen ez zenak izateari ekiten dion, eta hortik ondorioztatzen duenean etorkizunean ere antzekoak izanen direla antzeko egileek eraginda, batean kontsideratzen du bere ideia sinpleetarikoren bat aldagarri izan daitekeela, eta bestean, aldaera hau eragiteko posibilitatea, eta hortik gauzatzen da potentziaren ideia.

TEOFILO: Potentzia latinezko potentia hitzaren ordaina bada, aktuaren aurkakoa da eta ahalmenetik aktura bideari aldaketa deritzo. Horrela ulertzen du Aristotelesekin mugimendu hitza, beroni buruz dioenean, aktua dela edo agian potentzian dagoenaren aktu bilakatzea¹¹¹. Horrela esan daiteke potentzia, oro har, aldaketaren posibilitatea dela. Beraz, aldaketa edo posibilitate hori aktu bilakatzen denean, subjektu batean akzio izaki eta bestean pasio, potentzia bi sortaraziko ditu beti, pasiboa bata, aktiboa bestea. Aktiboari generitzoke ahalmen, eta pasiboari akaso dei geniezaioke gaitasun edo harmen. Egia da potentzia aktiboa batzuetan adiera osoagoan ulertzen dela, ahalmen soilaz gain joera ere badagoenean; horrela ulertzen dut nik dinamikari buruz egin ditudan gogoetatan. Indar hitza ere aplika geniezaioke; eta indarra izango litzateke edo entelekeia, edo ahalegina; zeren entelekia (Aristotelesek zentzu hain orokorrean hartzen duen arren, non ekintza zein ahalegin oro bere baitan biltzen dituen) jatorriz diharduten indarrei dagokiela uste baitut, eta ahalegina, deribazioz dihardutenei. Bada beste potentzia pasibo mota bat partikularragoa eta errealagoa, material dagoena, non mugimenduaren gaitasuna edo harmena den mobilitatea ezezik, erresistentzia ere badagoen, eta honek sartzintasuna eta inertzia bereganatzen ditu. Entelekiak, hau da, joera jatorrizko edo substantzialak, pertzepzioz hornituta datozenean arimak dira.

(§ 3) FILALETES: Potentziaren ideiak zerbait erlatiboa adierazten du. Baina zein ideia daukagu, nolanahikoa izanda ere, erlazioen bat bereganatzen ez duenik? Hedadurari, iraupenari, kopuruari buruzko gure ideia guztiek ez al daukate euren baitan atalen arteko

erlazio sekreturen bat? Gauza bera esan behar da, are eta nabarmenago oraindik, irudiari eta mugimenduari gagozkiola. Zer besterik dira, bada, koalitate sentigarriak, gure pertzepzioarekiko gorputz ezberdinek dituzten potentziak baino? Ez al daude, bada, berez atalen lodieraren, irudiaren, egituraren, mugimenduaren menpe? Horrek guztiak eratzen du euren arteko erlazio mota bat. Horrela, potentziari buruzko gure ideia oso ongi koka daiteke, nire ustez, gainontzeko ideia sinpleen artean.

TEOFILO: Funtsean, konposatuak dira aipatu berri ditugun ideia guztiak: koalitate sentigarrien ideiak gure ezjakinaren kausaz soilik sailka daitezke ideia sinpleen artean, eta zehazki ezagunak ditugun gainontzekoak ez daude leku berean gure indulgentziari esker, baina indulgentziarik ez bageneuka, guretzat hobe. Gauza beretsua gertatzen da teorema bailiran frogatu beharreko axioma arruntekin; axiomatzat hartzen ditugu, jatorrizko egiak izango balira bezalaxe. Indulgentzia honek uste baino kalte gehiago eragiten du. Egia da ez gaudela beti berau gainditzeko egoeran.

(§ 4) FILALETES: Ongi begiratuta, izpirituaren eragiketei buruz gure hausnarketan bidez lortzen dugun potentzia aktiboen ideia bezain argia eta aparta ez digute gorputzek sentimenen bidez eskaintzen. Gure ideien gai izan daitezkeen bi ekintza mota baino ez dago, nire ustetan, eta hauek dira: pentsatu eta mugitu. Pentsamenduari dagokionez, gorputzak ez digu horren ideiarik ematen; hausnarketa bidez soilik eduki dezakegu. Gorputzaren bitartez ez daukagu, halaber, mugimenduaren hasieraren inolako ideiarik.

TEOFILO: Kontsiderazio bikainak dira horiek, eta pentsamendu hitza edozein pertzepzio mota biltzen duen adiera orokorrean hartu bada, ez noa ni hitzen erabilera zalantzan jartzera.

FILALETES: Gorputza bera ari denean mugimenduan, mugimendu hori gorputzean ekintza da, pasio baino areago; baina bilar bola makilaren eraginez mugitzen denean, hau ez da bolaren ekintza, pasio soilak baizik.

TEOFILO: Zerbait esan beharra dago horren gainean, zeren gorputzek ez bailukete mugimendurik bereganatuko talka bidez lehendik beren baitan mugimendurik ez balego, erabaki ahal izan diren legeen arabera. Baina pasa dezagun oraingoz puntu hau.

FILALETES: Bola batek bidean topo egin duen besteari bultza egiten dionean eta mugitzera behartu, lehendik bereganatua zuen mugimendua hari ezartzea baino ez du egin, bertan beste horrenbeste galduz.

TEOFILO: Cartesiarrek modan jarri duten pentsakera hori okerrekotzat daukat, gaur egun esperientziak eta arrazoiak frogatu baitute gorputzek ez dutela galtzen komunikatzen duten mugimendu guztia; Recherche de la vérité liburuaren egile ospetsuak¹¹² berak ere baztertu du teoria hau eta bere gaitzespena adierazteko propio inprimarazi du idazki labur bat; hala eta guztiz, pertsona trebee errakuntza biderako abagunea eskaintzen die oraindik ere, oinarri hain galkorren gain arrazoinamenduak eraikiz.

FILALETES: Mugimenduaren translazioak gorputzaren baitango mugitzeko potentzia aktiboaren ideia guztiz iluna baino ez digu ematen, baina soilik ikusten dugu gorputzak mugimendua itsatsi egiten duela, baina sortu, inondik ere ez.

TEOFILO: Ez dakit nik hemen zera azaldu nahi ote den, alegia, mugimendua subjektutik subjektura pasatzen dela, eta mugimendu bera (idem numero) itsatsi egiten dela. Hala diote, besteak beste, aita Casati jesuitak¹¹³, Eskola osoaren kontra. Baina zure pentsakera edota zure adiskide trebeena hori ote den zalantzan jartzen dut, halako irudikerietatik oso urrun ibili ohi baitira. Alabaina, itsasten dena ez bada mugimendu bera, onartu beharko da hura bereganatzen duen gorputzean mugimendu berria ernaltzen dela; horrela, emailak benetan ekingo luke eta aldi berean eginkizun pasiboa edukiko luke bere indarretik galtzean. Zeren gorputzak eman adina mugimendu galtzen duela egia izan ez arren, beti gorputza galtzaile irteten dela egia da, eta eman bezainbeste indar galtzen duela, lehendik ere azaldu dudanez, halako moldez non, beti onartu

beharko dugun beragan indarra eta potentzia aktiboa: aurrez azaldutako adierarik landuenean ulertzen dut nik potentzia hitza, joera eta gaitasuna batzen dituen adieran, alegia. Hala ere, bat nator zurekin potentzia aktiboaren ideiarik argiena izpiritutik datorkigula diozunean: izpirituarekin analogia duten gauzetan soilik agertzen da, bestalde, hau da, entelekeiatan, zeren materiak bereziki potentzia pasiboa baino ez baitu erakusten.

(§ 5) FILALETES: Gure baitan aurkitzen dugu hasteko ala ez hasteko ahalmena, gure arimaren zenbait ekintza eta gorputzaren zenbait mugimendu iraunarazteko ala amaitzekoa, eta aurkitu ere, gure izpirituaren pentsamendu edo aukera soil batez aurkitzen dugu, zeinak erabakitzen edota, nolabait esateko, agintzen duen ekintza zehatz hori burutu dadin ala ez. Potentzia honi nahimena deritzogu. Potentzia honen erabilpen aktualari nahikunde (volition) deritzogu; honek eragindako ekintzaren amaierari edo ekoizpenari nahitazko deritza, eta arimak zuzendu gabe buruturiko ekintza orori nahigabeko deritza.

TEOFILO: Oso ongi eta guztiz bidezko ikusten dut hori guztia. Biribilago mintzatzeko, ordea, eta agian areago joan nahian, zera esango dut, alegia, nahikunde (volition) on aurkitzen dugun horretarantza ahalegina edo joera (conatus) dela, eta gaitz aurkitzen dugunaren kontrakoa, berez joera hori hartaz daukagun apertzepzioaren ondorio zuzena delarik. Definizio horren korolario gisa daukagu axioma sonatu hura: nahi izatetik eta ahal izatetik, biak elkar hartuta, ekintza sortzen da, zeren joera orok ekintzara bide ematen baitu, horretarako trabarik ez dagoenean. Horrela, conatus horren ondorio dira gure izpirituaren barne-ekintza nahitazkoak ez ezik, kanpokoak ere, hau da, gure gorputzaren nahitazko mugimenduak, lehendik arrazoitu dudak gorputzaren eta arimaren arteko batasunean finkatuta. Guk hautematen ez ditugun pertzepzio sentiezinetik datozen ahaleginak ere badira; hauei apetizioak deitzea nahiago dut, nahikundeak baino (apetizio ohartarazgarriak ere badiren arren), zeren nahitazko ekintza bakarrak hauteman ditzakegunak baitira eta gure hausnarketagai izan daitezkeenak, ongiaren eta gaizkiaren kontsideraziotik datozenean.

FILALETES: Apertzepziorako ahalmenari adimena deritzogu: ideien pertzepzioa izan daiteke, ikurren esanahiaren pertzepzioa eta azkenik, gure ideia batzuen eta besteen arteko egokiera ala desegokiera.

TEOFILO: Gauza asko antzematen ditugu gure baitan eta gugandik at bat-batean ulertzen ez ditugunak; baina, hausnartzeko eta ezinbesteko egiak ondorioztatzeko ahalmenaz haien ideia ezberdinak osotzean, orduan bai, ulertzen ditugu. Horra zergatik ez duten piztiek adimenik, inpresiorik nabarmenenak eta berezienak hautemateko gaitasuna eduki arren; horrela antzematen du basurdeak oihu egiten dion pertsona eta zuzen joango zaio, haren pertzepzio hutsa baina lausoa lehendik ere bazuelarik, bere kristalinoa zauritzen zuten izpiak islatzen zituzten begien bistako gainontzeko objektuena bezalakoxea. Beraz, nire adieran, adimena latinoek intellectus zeritzotenaren ordaina da, eta gaitasun honen ihardunari aditzea deritza, eta hausnartze gaitasunarekin bat pertzepzio berezia da, piztiengan sekulan existitzen ez dena. Gaitasun honi datzekion pertzepzio oro pentsamendua da, eta hau ere ez diet nik piztiei egozten, adimena bezala; esan daiteke, beraz, pentsamendua berezia denean dagoela aditzea. Bestalde, ikurren esanahiaren pertzepzioak ideia signifikatuen pertzepziotik bereizterik ez du merezi hemen.

(§ 6) FILALETES: Arrunki esan ohi da adimena eta nahimena arimaren gaitasun bi direla; deitura nahiko eroso hartaz zuzen baliatuz gero, kontuan hartuz hitzek ez dutela inongo nahasmendurik sortu behar gizakien pentsamenduetan, hemen gertatu bide den modura arima hitzarekin. Esaten zaigunean nahimena dela arimaren gaitasun gorena, gauza guztiak arautzen eta ordenatzen dituen; libre dela, ala ez dela libre; gaitasun apalagoak

zehazten dituela eta adimenaren aginduetara diharduela; baieztapen hauek guztiak argi eta zehatz uler daitezkeen arren, beldur naiz, hauen bidez ez ote diegun pertsona askori iradoki gure baitan gardenki diharduten hainbat eragileen ideia nahasia.

TEOFILO: Aspalditik auzi hauetaz arduraturik ibili dira eskolak, alegia, ea bereizketa errealik badagoen arima eta honen gaitasunen artean, eta ea gaitasun bat bestetik benetan bereizten den. Baietz esan zuten errealistek, nominalistek, aldiz, ezetz; eta auzi hau berau plazaratu da etorkizun parekoa izanen duten beste hainbat izaki abstraktikuren inguruan. Ez dut nik uste auzi latz honi irtenbidea hemen aurkitu behar diogunik, gogoan dudan arren nolatan Episkopiok¹¹⁴ hain garrantzi handiko aurkitzen zuen berau, ezen haren ustetan ezin defenda genezakeen gizakiaren askatasuna arimaren gaitasunak izaki errealak balira. Baina izaki erreal eta bereziak balira, gehiegizko mintzoz soilik kontsidera zitezkeen eragile erreal gisa. Ihardunean ari direnak ez dira gaitasunak edo koalitateak, substantziak baizik, gaitasunen bitartez.

(§ 8) FILALETES: Bere kabuz eta bere izpirituak hala nahi izanda eta aukeratuz, pentsatzeko ala ez pentsatzeko, mugitzeko ala ez mugitzeko ahalmena duen heinean, izanen da gizakia aske.

TEOFILO: Askatasuna hitza oso da zalantzazkoa. Eskubide -askatasuna dago batetik, egitezko askatasuna bestetik. Eskubide-askatasunaren ikuspegitik, esklabua ez da libre, eta ez da erabat libre ezein menpeko; pobrea, ordea, aberatsa bezain libre da. Egitezko askatasuna nahi dena egiteko ahalmenean datza, edota behar dena nahi izateko ahalmenean. Egitezko askatasunaz ari zara zu, eta honek baditu bere mailak eta aldaerak. Orokorrean, bitarteko gehiago dituen izango da nahi duena egiteko askeago; baina partikulariki ere uler daiteke askatasuna, gure esku egon ohi diren gauzen erabileratzat, batik bat gure gorputzaren erabilerara askeaz ari garelarik. Horrela, gartzelak eta gaixotasunak, guk nahi eta usu ahal dugun mugimenduak geure gorputzei eta gorputz-atalei ematea eragozten digutelarik, gure askatasunaren aurkakoak dira: presoak ez da aske, paralitikoak ezin ditzake bere gorputz-atalak libreki erabili. Nahimen askatasunak ere bi zentzu ditu. Lehen, inperfekzioa eta izpirituaren esklabutzaaren aurkako barne-bortxa eta errepresioa, grinek sortzen dutenaren antzekoa; bestea, askatasuna beharrianari kontrajartzen zaionekoa. Lehen adieran estoikoen esanetan, zuhurra soilik da aske¹¹⁵; izan ere, grina handi batek hartzen zaituenean ezin duzu izpiritua aske eduki, ezinezkoa baita orduan behar bezala, hau da, delibero zehatzez nahi izatea. Horrela, Jainkoa bakarrik da osoki aske eta izpiritu sortuak grinen gainetik dauden heinean izanen dira soilik aske: eta gure adimenari begira zertzen da funtsean askatasun hau. Baina izpirituaren askatasuna, beharrianaren aurrez aurrekoa, nahimen hutsari dagokio, adimenetik bereizten den heinean. Horri deritzogu aukeramen askea, eta honetan datza, alegia, nahimen ekintza kontingentea izatearen pretentsioan, nahiz eta adimenak arrazoirik eta inpresiorik eraginkorrenak eskaini; hauek ez dute inoiz beharrian absoluturik edota, nolabait esateko, metafisikorik eurekin ekartzen. Zentzu honetan esan ohi dut nik adimenak nahimena muga dezakeela, pertzepzioen eta arrazoiaren nagusitzaren arabera, halako moldez non segurua eta hutsezina izanik ere, premiarik sortu gabe makurtzen duen.

(§ 9) FILALETES: Kontsideratzekoa da, halaber, inori ere ez zaiola oraingoz bururatu pilota bat egile libretzat hartzea, ez berau sareak bultzata higitzen delarik, ez eta egonean dagoenean. Ezin baitugu guk bururatu pilotak pentsa ahal izatea, ez eta mugimendua atsedena baino nahiago izan dezan inolako nahimenik edukitzea.

TEOFILO: Trabarik gabe diharduena libre balitz, pilota mugimenduan, zabalgun jarraian, egile libre litzateke. Baina Aristotelesekin oso zuhur azaldu zigun ekintzei libre deitzeko berezkoak ezezik deliberatuak ere izan daitezela exigitzen diegula¹¹⁶.

FILALETES: Horregatik hartzen dugu pilotaren mugimendua edota pausagunea beharrezko zerbait bailitzan.

TEOFILO: Beharrezko deiturak aske delakoak bezainbeste begirune merezi du. Balizko egia hau, alegia, ezinbestekoa izan daiteke nolabait, nahiz eta funtsean ondorio hau erabat geometrikoa ez izan, Jainkoaren zuhurtzian oinarritutako presuntzioa baino ez baita, ez baitu Beronek arrazoirik gabe bere eragina aldatzen, kasu honetan, antza, gertatzen ez dena; hurrengo proposizio absolutu hau, aldiz, egia kontingentea baino ez da eta zentzu horretan pilota, librea barik, egile kontingentea da.

(§ 10) FILALETES: Demagun lo sakonean dagoen gizon bat gelaz aldatzen dugula berak ikusi eta solastatu nahi zuen pertsona dagoen lekura, eta bertan dagoelarik giltzaz ixten dugula gelako atea; gizon hau itzarri eta pertsona harekin egoteaz xarmaturik dago eta gustura geratuko da egoitzan. Ez dut nik uste zalantzan jarriko duenik nahita dagoela leku hartan. Hala eta guztiz, ez dauka handik nahi duenean irteteko askatasunik. Askatasuna, beraz, ez da nahimenaren menpe dagoen ideia.

TEOFILO: Oso ondo aukeratu duzu adibidea zera azaltzeko, alegia, ekintza edota egoera bat nolabait nahitazko izan daitekeela libre izan barik. Alabaina filosofoek eta teologoek aukeramen libreaz eztabaidatzen dutenean euren ikuspegia guztiz ezberdina da.

(§ 11) FILALETES: Paralisia traba denean, zangoak izpirituaren erabakimenaren esanetara egon daitezen askatasunak huts egiten digu, nahiz eta paralitikoarentzat eserita egotea nahita izan daitekeen, nahiago baitu eserita egon lekuz aldatu baino. Nahitazko ez da, beraz, beharrezko-ren aurkako, nahigabeko-rena baizik.

TEOFILO: Adierazpidearen zehaztasun hau biziki litzaidake atsegin, baina hortik usadioa urruntzen da; eta askatasuna eta beharrezana elkarren kontra jartzen dutenak ez dira kanpoko ekintzez ari, nahi izate beraren ekintzaz baizik.

(§ 12) FILALETES: Pentsatu ala ez pentsatu artean aukera egiteko, gizaki itzarria ez da libreago, bere gorputzak beste gorputzik uki dezan galarazteko ala ez galarazteko baino. Bere pentsamenduak ideia batetik bestera aldatzeko posibilitatea, hori bai, sarritan egon ohi da giza eskumenean: eta kasu honetan hain da libre ideiekiko, nola libre den euskarri dituen gorputzekiko, batetik bestera fantasiaren agindutara alda daitekeelarik. Badira, halere, zenbait ideia, mugimendu batzuen gisa hain tinko itsatsiak izpirituan, eginahalak eginda ere, aldi batzuetan ezinezko zaigula norberagandik haiek uxatzea. Gizakiak torturapean ez du oinazearen ideia ez edukitzeko askatasunik, eta noizbehinka grina bortitzak jotzen du gure izpiritua, haize-boladarik zakarrenak gorputza astintzen duen modura.

TEOFILO: Pentsamenduetan, mugimenduetan bezala, badago erabiderik eta loturarik, bata besteari egin-eginean baitoakio, nahiz eta mugimenduen eraketa itsua izan, eta pentsatzen duen izakiarena, aldiz, librea edo aukerakoa, zeren ondasunek eta gaitzek alde batera ala bestera makurtuko baitute izaki hau, inoiz ere bortxatu gabe. Nolanahi ere, arimak gorputzak ordezkatzan dituenen haien perfekzioak gordetzen ditu, eta nahigabeko ekintzetan independente da, gorputzaren menpe (zentzu zuzenean) egon arren, eta gainontzekoetan berak hartzen du gorputza menpeko. Baina menpekotasun hau metafisikoa da eta Jainkoaren aurrikuspenean datza, bata bestearen funtzioan arautzeko, bataren ala bestearen alde, bakoitzaren jatorrizko perfekzioen neurrira; menpekotasun fisikoa, aldiz, menpekoak goikoagandik jasoko lukeen eragin hurbila litzateke. Horrez gain, nahigabeko pentsamenduak kanpotik ere badatozkigu, gure sentimenak ukitzen dituzten objektuen bidez; bai eta geure barnetik ere, iraganeko pertzepzioetatik geratu zaizkigun inpresioen (sentiezinak sarri) poderioz, eta hauek ihardunean diraute, berriro datorrenarekin nahasiz. Honetan pasiboak izan ohi gara eta, itzarri nahiz ametsetan, deitu gabe ere imajinak datozkigu (multzo horretan sartzen ditut, figuren irudikapenak ezezik, soinuenak eta gainontzeko koalitate sentigarrienak

ere). Alemanieraz fliegende Gedaneken deritze; pentsamendu hegalariai, nolabait esateko, gure eskumenean ez daudenak; haien artean batzuetan nahiko gauza absurdu sortzen delarik, jende xumearen kezkarri, kasuistei eta kontzientzi zuzentzaileei iharduteko parada ematen dietenak; linterna magikoa bailitzan, barnean zerbait jira-biran dabilelarik horman irudiak islatzen ditu. Gure izpirituak, ordea, irudia birsortzen dela ohartzen denean, esan dezake: geldi hor! eta, nolabait esateko, bertan geldiarazi. Gainera, izpiritua sar daiteke, ondo baderitzo, pentsamenduen progresio zehatz batzuetan, hauek beste pentsamendutara eramango dutelarik. Hala gertatzen bide da kanpoko zein barneko inpresioak gainditzten ez direnean. Egia da honetan gizakiak arras bereizten direla elkarrengandik, bai tenperamentuz, bai euren buruen kontrola nola erabili duten kontuan hartuz, zeren batek gaindi baititzake bestea suntsitu duten inpresioak.

(§ 13) **FILALETES:** Pentsamenduak eraginik ez duen edonon agertzen da beharrezkotasuna. Eta beharrezkotasun hau nahikunderako gai den eragile batengan dagoenean, eta ekintza baten hasiera eta jarraia bere izpirituaren lehentasunaren kontrakoa denean, horri hertsapena deritzot nik; eta egile horren nahikundearen aurkakoa denean ekintzaren etena edo amaiera, zilegi bekit horri kohibizioa deitzea. Erabat pentsamendurik gabeko edota nahikunderik gabeko diren egileak beharrezkoak dira ezbairik gabe.

TEOFILO: Nire ustez, eta argi mintzatuz, nahikundeak kontingenteak izan arren, beharrezkotasunak ez dauka zertan nahikundearen kontrakoa izan, kontingentziaren kontrakoa baizik, 9. paragrafoan adierazi dudanez, eta ez dauzkagu zertan nahasi behar beharrezkotasuna eta erabakia (détermination), zeren pentsamenduetan ez baitago mugimenduetan baino erabaki edo lotura gutxiago (erabakita egotea ez da inondik ere behartua edota hertsapenez bultzatua izatea). Eta beti ez badugu jakiterik zein arrazoik erabakiarazten digun edo, hobeto esan, zein arrazoirengatik erabakia hartzen dugun, hori gertatzen zaigu hain traketsak garelako gure izpirituaren eta gehienetan somagaitz eta lauso diren haren pentsamenduen joko osoaz jabetzeko, nola naturak gure gorputzean jokarazten dituen mekanismo guztiak bereizteko. Horrela, halabeharrez ulertuko bagenu gizakiaren erabaki ziurra, izpiritu perfektuak aurreikus zezakeena, zeinak gizakiaren baitan eta inguruan gertatzen denaren zirkunstantzia ororen ezagutza osoa lukeen, orduan bai, ekintza libre oro beharrezko litzateke; pentsamenduak berauek irudikatzen dituzten mugimenduak bezain erabakiak baitaude; baina bereizi behar dira beharrezkoa eta kontingentea, hau erabakitakoa denean ere. Eta ez dira egia kontingenteak soilik ez-beharrezko, hauen loturak ere ez baitira beti beharrian absolutukoak; aitor dezagun erabakitzeko moduan aldeak daudela, gai beharrezkoan ateratzen diren ondorioak eta gai kontingentean ateratzen direnen artean. Ondorio geometriko eta metafisikoek beharrezkora bultzatzen zaituzte, ondorio fisiko eta moralek, oster, behartu gabe makurtuko zaituzte; fisikoak badu zerbait moraletik eta nahitazkotik Jainkoari begira, zeren mugimenduaren legeek ez baitute onenarena ez den beste beharrik. Nolanahi den ere, Jainkoak libreki hautatzen du, onena hautatzera erabakita egon arren. Eta nola gorputzek ez duten berez hautatzen (Jainkoak hautatu baitu euren orde), beharrezko eragileak deitu nahi izan die usadioak; eta ez nago ni horren aurka, non eta nahasten ez ditugun beharrezkoa eta erabakia, ez dezala, baina, inortxok ere pentsa izaki libreek erabakirik gabe (indéterminé) dihardutenik; hau baita izpiritu askotan gailendu den errorea, egirik garrantzitsuenak hondatzen dituen, oinarritzko axioma hau barne: ; axioma hau gabe ezin frogatu daitezke ongi Jainkoaren existentzia, ez eta beste hainbat egia handi. Bi motatan bereizi behar dugu hertsapena: bata fisikoa, hala nola, gogoz kontra preso daramaten gizakiarena, edota leizetik amildua izan denarena; morala bestea, adibidez, gaitz larriagoren baten mehatxuak

hertsatzen gaituenean; azken hau, nolabait bortxa izan arren, gogozkoa ere bada. Ongi handiago batek ere bortxa gaitzake, adibidez, gizakia negozio bikainegi baten proposamenaz tentatzen denean, honi hertsapena deitu ohi ez zaion arren.

(§ 14) FILALETES: Azter dezagun orain ea gure aspaldiko eztabaidari amaiera eman diezaiokegun, ulertezinagatik guztiz arrazoigabea baita, nire ustez:

TEOFILO: Arrazoiz ernegatu ohi da jendea gizakien portaera bitxia dela-eta, oker asmatutako galderek atsekabetzen baikaituzte sarri: dakitenaren bila dabilta eta ez dakite zeren bila dabilzan.

FILALETES: Potentzia baino ez den askatasuna subjektu egileek berengana dezakete soilik, eta ez da sekulan nahikundearen atributu edo aldaera bat izanen, berau ere potentzia bat baino ez baita.

TEOFILO: Zuzen zaude, jauna, hitzen zentzu zehatzean. Baina nolabait ulertzekoa da hitzek arrunki hartzen duten esangura aldatua. Hala nola, potentzia egozten zaio beroari edota beste koalitateei, hau da, gorputzari, koalitate hori daukan heinean; era berean kasu honetan zera galdetzeko asmoa dago, hots, ea gizakia librea den nahi izatean.

(§ 15) FILALETES: Askatasuna da gizakiak nahi duenarekin ados dagoen ekintza egiteko ala ez egiteko daukan ahalmena.

TEOFILO: Hori bakarrik balitz gizakientzat askatasuna, nahimena edota hautamena libreak diren galdetzen dutenean, zinez litzateke absurdua galdera bera. Baina orain ikusiko dugu zein den benetan euren galdera, eta nola erantzuna eman diodan jada galdera horri. Egia da, baina beste printzipio batengatik, batzuk bederen puntu honetan absurdua eta ezinezkoa eskatzeari ez diotela uko egiten, guztiz ustezko eta erabilezina den oreka askatasuna nahi izatean, eduki ahal izanez gero ere ezertarako balioko ez liekeena, hots, adimenetik datozkeen inpresio guztien kontra nahi izateko askatasuna eduki ahal balezate, honek arrazoimenaren egiazko askatasuna desegingo bailuke, eta piztiena baino maila apalagora eramango baikintuzke.

(§ 17) FILALETES: Mintzatzeko ahalmenak abesteko ahalmena gidatzen duela dioenak, edota abesteko ahalmena mintzatzeko ahalmenaren esanetara dagoela ala ez dagoela, hain desegoki eta ulergaitz mintzo izanen litzateke, nola zera dioena, alegia, nahimenak adimena gidatzen duela eta adimena nahimenaren esanetara dagoela ala ez dagoela, askoren ahotan entzun ohi dena. (§ 18) Hizkera hau gailendu da halere, eta, oker ez banago, nahaspila franko ekarri du, nahiz eta pentsatzeko ahalmenak hautatzeko ahalmenean (eta alderantziz) eragin gehiagorik eduki ez, abesteko ahalmenak dantzatzeko ahalmenean daukana baino. (§ 19) Onartzen dut pentsamendu honek ala besteak horni diezaiokeela gizakiari bere hautamena erabiltzeko abagunea, eta izpirituaren aukeraketak honetan edo hartan pentsatzera eraman dezakeela, bai eta aireren bat kantatzea halako dantza mota dantzatzeko parada gerta daitekeela.

TEOFILO: Aukerek zerbait gehiago ere eskaintzen digute, dependentziaren bat ere badago eta; ona dena baino ez baitakigu desiratzen, eta aditzeko gaitasuna garatzen den heinean nahimenaren aukerak hobera egingo du; eta bestalde, gizakiak nahimen kementsua duen heinean, pentsamenduak zehazten ditu bere aukeraren arabera, nahigabeko pertzepzioek bera mugatu eta behartu ordez.

FILALETES: Potentziak erlazioak dira, ez egileak.

TEOFILO: Gaitasun esentzialak, esentziari ezer erantsi gabe, erlazio baino ez badira, koalitate eta gaitasun akzidentalak edo aldagarriak beste zerbait dira, eta azken hauetaz esan daiteke sarritan daudela batzuk besteen menpe euren funtzioen ihardunean.

(§ 21) FILALETES: Auzia ez da, nire ustez, ea nahimena askea den, gainera desegoki mintzatzea da hau; auzia da ea gizakia aske den. Hau argi utzita, zera esan nahi dut, alegia, aske izanen da norbait, bere izpirituaren aukera edo gidaritzapean, ekintza baten existentzia berorren existentziarik eza baino nahiago izan dezakeen neurrian, eta

alderantziz, bere nahiaren arabera hura existitu ala ez existitu lor dezakeenean. Eta nekez adierazten da nolatan burura daitekeen nahi duena egiteko gai dena baino izaki askeago bat, halako moldez non bere baitan aurkitzen duen aukeramen pean dauden ekintzekiko hain libre baitirudi gizakiak, ezen askatasunak aska baitezake bera, horrela mintzatzea lizentzia bazait.

TEOFILO: Nahimenaren askatasunaz edo aukeramen libreaz argudiatzen denean, galdera ez da ea gizakiak nahi duena egin dezakeen, beste hau baizik, alegia, ea bere nahimenean independentziarik aski badagoen. Ez dugu itauntzen ea zangoak libre dituen gizakiak, edota ukondoak aske, beste zerbaite baizik, alegia, ea izpiritua libre daukan, eta ea zertan datzan hau. Honetan, adimen bat bestea baino libreago izan daiteke, eta adimen gorenak erabateko askatasuna dauka, kreaturak ez direlarik inola horretarako gai.

(§ 22) FILALETES: Berez direnak jakinmin eta errudun izatearen pentsamendua euren izpiritutik ahal bezainbeste urruntzea atsegin duten gizakiek, beharizan ezinbesteko egoera baino okerragora murriztuz bada ere, ez dute horregatik hori askiesten. Askatasuna areago luzatzen ez bada, ez dira ase, eta honek frogatzen du oso ongi, euren ustetan, gizakia ez dela inondik ere aske nahi duena egiteko askatasunaz gain, nahi izateko ere aske izan ez dadin bitartean. (§ 23) Honi buruz uste dut bere esku dagoen baina izpirituak beste noizbait kontsideratutako ekintza gura izate zehatzarekiko ezin dela gizakia libre izan. Argi ikusten da arrazoa, zeren bere nahimenpean dagoen ekintzak ezinbestez beharko baitu existitu ala ez existitu, eta haren existentziak edo existentziarik ezak halabeharrez eta zehazki jarraitu behar diolarik nahimenaren erabakiari eta aukerari, ekintza horren existentzia ala ez-existentzia nahi izatea galarazi ezinekoa zaio.

TEOFILO: Nork bere aukera deusezta dezakeela uste dut, eta maiz gertatzen da hau, batik bat deliberatzen beste pentsamenduek etenda datorrenean: horrela, deliberatzen den ekintzak existitu ala ez existitu behar duen arren, ez du esan nahi haren existentzia ala existentziarik eza halabeharrez erabaki behar duenik, zeren existentziarik eza erabaki faltaz ere baitatorke etorri. Hori izan zen aeropagiten portaera, eta ebazgaitzegiak aurkitzen zituzten auzietan gizakia absolbatu ohi zuten, epaia epealdi luzetara egotziz eta ehun urte hartuz hartaz hausnartzeko.

FILALETES: Gizakia era honetan libre egitean zera esan nahi dut: nahi izate ekintza bere nahimenera badago, beste nahimen bat edo nahi izateko gaitasuna aurrez existi dadin behar da, nahimen honen egintzak erabakitzeke, eta hirugarren bat bigarrena erabakitzeke, eta horrela infinituraino; eta etena gerta dadin gunean, azken nahimenaren egintzak ezin lirarteke askeak izan.

TEOFILO: Egia da ez garelako garbi mintzo nahi izatea nahi dugula diogunean. Ez dugu nahi, beraz, nahi izatea, egitea baizik; eta nahi izatea nahi izango bagenu, nahi izatea nahi izan gura izango genuke, eta horrela infinituraino: ez dugu, baina, ostendu behar gogozko ekintzen bidez sarritan zeharka laguntzen diegula beste ekintza nahitazkoei, eta nahi duguna nahi izan ezin arren, nahi duguna pentsatu ezin dugun moduan; hala eta guztiz, aurrez ihardun daiteke, halako moldez non noizbait nahi izatera edo pentsatzera irits gaitezkeen, gaur egun nahi ala pentsatu ahal izatea desiratuko genukeena. Aldeko ditugun pertsonen, irakurgetan, gogoeten atxikitzen gatzatzen edota talde zehatz bati, eta ez diogu kasurik egiten kontrako taldeetara datorrenari; erraztasun horiek eta erabili ohi ditugun mila bestelako direla medio, sarrienik aurrez gogotan hartu barik eta oharkabea, geure buruak engainatzea lortzen dugu, edota gutxienik norbera aldatzea, edota bihurtzea ala okertzea, bidean aurkitu dugunaren arabera.

(§ 25) FILALETES: Gizakiak, bistan denez, nahi izatea nahi izan ala ez erabakitzeke askatasunik ez duenez gero, hortik abiatuz lehen galdera hau da, alegia, ea gizakia libre

den mugimendua eta atsedenaren artean, adibidez, bitarik bat nahiago izateko? Baina galdera hau hain da bere baitan nabarmenki absurdua, aski litzateke horretaz hausnar dezan edonor konbentzitzeko askatasuna ez dagokiola inoiz ere nahimenari. Zeren galdera hau egitea: ea gizakiak baduen askatasunik zer nahiago duen erabakitzeke, mugimendua ala atsedena, hitz egin ala isildu, beste hau galdetzea bezala litzateke, alegia, ea nahi duena nahi dezakeen, edota atsegin duen hartaz atseginik izan dezakeen, eta galdera honek, nire ustez, ez du erantzun beharrik.

TEOFILO: Horrekin guztiarekin, egia da ebaztea merezi duen eragozpena sortzen dela gizartean. Dena ezagutu eta dena kontuan hartu ondoren ere badutela, diote gizakiek, nahi izateko ahalbiderik, ez atseginen zaiena soilik, alderantzizkoa ere bai, euren askatasuna erakusteko baino ez bada ere. Gogoan hartu behar dugu, baina, apeta edo egosgogorkeria hau berau ere, edota gutxienez aurreko argudioei jarraitzea eragozten dien argudio hau ere, eragile bilakatzen dela, eta hori barik gustatuko ez litzaiena gustagarri izan dakien egiten du, halako moldez non, aukera beti pertzepzioak determinatzen duen. Ez dugu, beraz, nahi izaten nahi izanen litzatekeena, atsegin dena baizik, nahimenak lagun dezakeen arren, zeharka bederen eta urrundik bailitzan, aipatu berri dudanez, gauza bat atsegin izan dakigun ala ez. Eta gizakiek kontsiderazio ezberdin hauek oro askatzen ez dituztelarik, ez da batere harritzekoa hainbeste zokomoko ezkutu dituen gai honetan izpiritua hain korapilatuta ibiltzea.

(§ 29) FILALETES: Nahimena zerk mugatzen duen galderari erantzun egokia hau da: izpirituak mugatzen du nahimena. Erantzun honek betetzen ez bagaitu, argi dago auziaren esanahia honetara murrizten dela, alegia: zerk bultzatzen du izpiritua aldi zehatz bakoitzean, bere gaitasunak mugimendurantz ala atsedenerantz bideratzeko duen ahalmen orokorra mugimendu zehatz honen edo atsedena horren alde izan dadin erabakitzera? Eta honi erantzuten diot nik egoera berean irautera edota egintza berari eustera garamatzana bertan aurkitzen dugun aldian aldiko gogobetetasuna dela soilik. Alderantziz, aldatzera kezkaren batek bultzatzen gaitu beti.

TEOFILO: Aurreko atalean ere azaldu dut kezka hori ez dela beti atsekabe bat; eta, era berean, ongi aurkitzea ez da beti gogobetetasuna edo gozamen. Maiz, banandu edo bereizi ezineko pertzepzio sentiezina izan ohi da batera makurtzen gaituena eta ez bestera, eta erabaki horren arrazoirik ezin dugu eman.

(§ 30) FILALETES: Ez ditzagun nahas nahimena eta irrikamena: irrika dezake norbaitek hezueritik sendatzea, baina ulertzen duelarik oinaze horien desagertzeak eragin diezaiokeela humore oso arriskutsu baten jariora gorputz-atal biziagoren batean, gizaki haren nahia ezin bidera daiteke oinaze hori desagertaraziko dioen inongo ekintzataraz.

TEOFILO: Irrika hau nahikeria hutsa litzateke nahi osoaren aurrez aurre: ez dugu hura nahi izanen, nahi duguna eskuratzeak gaitz handiagoa ekar dezakeelako edo hari uko egitetik ongi handiago bat etor dakigukeelako. Halere, esan daiteke gizakiak hezueritik sendatu nahi duela bere nahimenaren maila batean, baina azken ahaleginera sekulan ez dela iritsiko. Nahi honi nahikeria deritzo, bere baitan inperfekzioa edo ezintasuna biltzen duen neurrian.

(§ 31) FILALETES: Kontuan hartzekoa da, baina, nahimena ekintzara daroana ez dela ongirik handiena, pentsatu ohi dugunez, uneko kezkaren bat baizik, gehienetan premiazkoena. Irrika dei geniezaioke berau baita izpirituaren kezka urruneko ongiaren gabeziak eragina, oinazetik aske izateko desira alboratu. Ez du urruneko ongi orok eragiten berak daukan edota guk aitortzen diogun perfekzio mailari dagokion oinazea, baina oinaze orok bere mailako irrika eragiten du, ongiaren ausentzia ez baita beti gaizkia, oinazearen presentzia, aldiz, bai. Horregatik, urruneko ongia kontsidera daiteke eta aurre egin diezaiokegu oinazerik gabe; baina han edo hemen irrika dagoen heinean kezka ere egongo da. (§ 32) Nork ez du bere irrikamenean sentitu zuhurrak esperantzari

buruz esandakoa (Esaera Zaharrak, XIII, 12), alegia, luzatuz doan neurrian bihotza indargabetzen duela? Oihu egiten du Rakelek (Hasiera, XXX, 1): . (§ 34) Gizakia bere egoeraz erabat gustura dagoenean edota kezka orotik guztiz libre, zer nahi lezake egoera horretan jarraitzea besterik? Horregatik ezarri ditu gure izatearen Egile zuhurrak gizakien baitan gosearen eta egarriaren ezerosotasunak eta gainontzeko irrika naturalak, gizakien nahimenak sustatu eta euren iraupenera eta espeziearen jarraipenera bideratzeko. Hobe da, dio San Paulok (I Korintoarrei, VII, 9), ezkontzea, erretzea baino. Hain da hau egia, ezen eragin biziago baitauka gudan uneko erremina xumeak, etorkizuneko plazerrik handienen erakarpenak baino. (§ 35) Egia da, baita ere, doktrinarik oinarrituenetarikoa dela zera dioena, hots, ongiak eta ongirik handienak determinatzen dutela nahimena, eta ez da batere harritzekoa hau zalantzarik gabekotzat hartua izana. Alabaina, zehatz-mehatz ikertu eta gero, ondorio honetara iritsi naizela esan behar dut, alegia, ongiak eta ongirik handienak, halakotzat epaitua eta aitortua izan arren, ez dutela nahimena determinatzen; ez bada gertatzen, ongia bere bikaintasunari dagokion heinean irrikatua izaki, irrika horrek gu kezkatzea hura kendu zaigulako. Demagun bertutearen balioaz sinetsita dagoen norbait, zeinak zinez uste duen ezinbesteko dela hura mundu honetan gauza handirik egiten saiatzen den ororentzat, edota beste munduan zoriontsu izatea espero duenarentzat: hala eta guztiz, gizaki hori justiziaren gose-egarri senti ez dadin bitartean, bere nahimena ez da bideratuko ongi goren hori lortzera daroan ekintzara, eta edonondik datorkeen ezein kezka beste gauzetara eramango du gizaki horren nahimena. Demagun, bestalde, ardoari emana dabilen norbaitek erabaki duela bizimodu horretan osasuna hondatzen duela eta bere dohainak alferrik galtzen ari dela, jende aurrean ohorea galduko duela, gaitzak erakarriko dituela beragana eta premia gorrian jausiko dela, halako moldez non eta ezin izango duen atseginik hartu berataz hain gogor jabetu den edateko grinan ere. Halere, parranda kideengandik urrun izateagatik berriro sentitzen hasi den kezka tabernara eramango du ohiko orduetan, gogoan izan arren osasunaren eta ondasunaren galera, eta agian betiko zorionarena ere: eta ez du pentsatzen berez munta eskasekoa denik, aitortzen baitu zorion hura edateko plazerra baino eta alproja koadrilaren berriketa hutsala baino askoz ere bikainagoa dela. Neurgabekeria badirau ez da izango ongi gorena begien aurrean ez duelako; zeren gogartzen baitu eta aitortzen haren bikaina eta ardotarako orduen bitarteko astian ongi bikain hori eskuratzen saiatzen baita, eta ohituta dagoen plazerra kenduko zaiola pentsatzeak torturatzen duenean, edatea baino bikainagoa dela aitortzen duen ongiak eragina galtzen du bere izpirituan; eta alderantziz, oraingo kezka erabakitzen du bere nahimena ohiko ekintzarantz, eta horregatik eta horrekin datozen inpresio biziaren poderioz, berriro ere edaria gailenduko da, aldi berean bere buruari hitz emango dion arren ez duela berriro horrelakorik egingo, eta iruditzen zaion arren hura izanen dela bere interes funtsezkoenen aurka jokatu duen azken aldia. Horrela noizbehinka hau esatera beharturik aurkitzen da:

Video meliora proboque,

Deteriora sequor.¹¹⁷

Aukerarik onena ikusten dut eta onesten, baina okerreana hartzen dut. Egiazat onartzen den esaera hau, etengabeko esperientziak baitetsia, adiera honetan ulertterraza da, beste testuinguru batzuetan, agian, hain erraz ulertzekoa ez bada ere.

TEOFILO: Badago ederrik eta mardulik burutazio horietan. Ez nuke, baina, nahi hortik ondorio gisa ateratzea axioma zaharrak abandonatu behar ditugula, berauetan esaten baitzaigu nahimena ongirik handienari lotzen zaiola, eta sentitzen duen gaitzik handienetik ihes egiten duela. Egiazko ongiez daukagun ardura eskasaren jatorria hau izan ohi da gehienbat, alegia, sentimenek ia parterik hartzen ez duten auzi eta gaietan gure pentsamenduetarik gehienak gorra direla, nolabait esateko, (latinez cogitationes

caecas deritzet nik), hots, pertzepziorik eta sentimenik gabeak, eta karaktereen erabilpen hutsera murrizten dira, algebrazoleak bezalatsu, kalkulatu baino ez baitute egiten hauek, noizean behin soilik kontsideratuz tratatu dituzten irudi geometrikoak; hitzen eragina kasu horietan, aritmetikan eta algebran karaktereek dutenaren antzekoa izan ohi da. Hitzetan soilik argudiatzen da sarri, objektua bera gogoan ia eduki barik. Ezagutza honek ezin digu zirrararik egin, zerbait biziagoa behar baitugu hunkiturik sentitzeko. Gehienetan, halere, horrela izaten da gizakiek Jainkoaz, bertuteaz, zorionaz pentsatzen dutenean; ideia zehatzik gabe mintzo dira eta argudiatzen dute; eta ez da ezin eduki dituztelako, izan ere euren izpirituan baitaude. Ez dute, baina, ikerketan sakontze lanik hartzen. Noizbehinka eduki ohi dute urruneko ontasun edo gaitzen baten ideia guztiz ahuldua; ez da, beraz, harritzekoa zirrararik ez eragitea. Horrela, okerreana nahiago izaten dugu han dagoen ontasuna sentitzen dugulako, bertan dagoen gaizkia sentitzen ez dugularik, ez eta kontrakoan dagoen ongia. Uste dugu eta sinetsita gaude, hobeto esan, inoren fedean edota gure iraganeko arrazoinamenduen oroitzapenean oinarrituta, buruz esaten dugu ongi gorena aukerarik onena egitean datzala, eta gaitzik handiena alderantzizkoan. Baina erreparatzen ez diegunean, sentipen horren aurkako gure pentsamenduak eta argudioak papagaien hizkeraren antzekoak baino ez dira, eta ez dute onik izpirituen orainean; eta zuzentzeko neurriak hartzen ez baditugu, haizeak eramango du dena, lehenago ere 2. atalean, 11. paragrafoan azpimarratu dudanez, eta moraleko agindurik sotilenak eta zuhurtziaren araurik onenak ondoriorik gabekoak dira, salbu eta horretara sentikor diren arimengan (bai zuzenean edota, hori ez denez beti ahalgarri, zeharka bederen, segidan erakutsiko dudanez) kontrakora ere sentikor ez diren bitartean. Zizeronek ongi dio nonbait gure begiok bertutearen edertasuna ikusteko gai balira, sutsuki maite izanen genuela berau: baina horrela gertatzen ez delarik, ez eta antzekorik ere, ez da harritzekoa haragia eta izpirituen arteko borrokan izpiritua hain sarri lurjota geratzea, ez baititu honek egoki erabiltzen bere ahalbideak. Borroka hau ez da besterik, pentsamendu nahasi eta pentsamendu bereizietatik sortzen diren joera ezberdinen lehia baino. Pentsamendu nahasiak argi nabarmentzen ditugu maiz; gure pentsamendu bereiziak, aldiz, potentzian baino ez dira arrunki argiak izaten; argiak lirateke hitzen edo karaktereen esanahian arakatze lana geureganatuko bagenu, baina zabarkeriaz edo denbora faltaz hori egiten ez dugularik, hitz hutsak edo gutxienik irudi ahulegiak sentipen biziari kontrajarri besterik ez dugu egiten. Ezagutu nuen gizon bat, Elizan eta Estatuan ospetsua, gaixotasunengatik dieta egitera behartuta zegoena, eta halaz guztiz ere, aitortzen zuen besteei eramaten zizkieten jakien usaina bera ere ezin jasan zuela bere gela aurretik pasatzean. Ahulezia lotsagarria, ezbairik gabe, baina halaxe daude eginak gizakiak. Halere, izpiritua bere abantailaz egokiro baliatuko balitz, aise gailenduko litzateke. Hezkuntzatik hasi beharko ginateke, arauak ezarriz egiazko ongiak eta benetako gaizkiak ahalik eta nabarmenen gera daitezen, hauei buruzko nozioak gehigarri egokienez jantziz; eta heziketa bikain hau hartu ez duen gizaki helduak jadanik hasi beharko du, hobe berandu inoiz ez baino, plazer argitsu eta arrazoizkoak bilatzen, sentimenezko plazer nahasi baina hunkigarriei aurre egiteko. Eta jainkozko grazia bera ere izatez plazer argi emaile da. Gizakiak asmo onak dituenean, legeak eta araudiak egin behar ditu etorkizunari begira, eta hauei zintzoki lotu behar zaie, galdukeria gune izan daitezkeenetatik urrunduz, zakarki batzuetan, emeki besteetan, arazoa nolakoa den. Horretarako propio antolatutako bidaiak maitalea sendatuko du; oporraldiak aldenduko gaitu joera okerreko lagunartetik. Borgiako Frantzisko, jesuiten jenerala, azkenik kanonizatua izan dena, oparo edatera emana zegoen munduko gizona zelarik; mundutik erretiratzea erabaki zuenean, apurka-apurka edari kopurua murriztuz joan zen, egunero argizari tanta bat jarritz bere edalontzian. Zaletasun arriskutsuei bestelako zaletasun xaloak kontrajarri behar zaizkie, esaterako, nekazaritza edo

lorazaintza; lasaikeriari ihes egin behar zaio, natura eta arte bildumak osotu, esperimentuak eta ikerketak egin; zereginik ezean, eginkizun utzi ezinezko eginkizuna hartu behar da edota solasaldi edo irakurketa atsegin bati lotu. Laburbilduz, erabaki eraginkorrak hartzera deitzen digun Jainkoaren ahotsa bailiran probetxatu behar ditugu gure asmo onak. Eta beti ezin azter daitezkeenez egiazko ongien eta egiazko gaizkien nozioak eurek gorderik daukaten atsegin eta oinazearen pertzepzioraino, gu hunkitzera irits daitezen eran, behingoz jokabide hau hartu behar da: arrazoimenaren ondorioei adi egon eta ulertuz gero jarraitu, nahiz eta ondoren pentsamendu isilek soilik hautemango dituzten ia beti, erakarpen sentikorrik gabe, eta hau guztia grinak, joera sentiezinak eta kezkek menperatzera iristeko, arrazoimenaren aginduetara portatzeko ohitura lortze bidez, hartara atsegina eta berezko zerbaiten gisakoa izanen baita bertutea. Ez gara, baina, hemen ari arau moralak irakasten, ez eta egiazko eliz zaletasunean iharduteko aholku izpiritualak ematen; aski dugu gure arimaren portaerari erreparatzea eta ikustea zein den gure ahulezien iturburua, zeren honen ezagutzak emango baitigu aldi berean onbidearen ezagutzea.

(§ 36) FILALETES: Zirikatzen gaituen aldiko kezkek nahimenean soilik du eragina eta gure ekintzen helburu den zorionerantz bideratzen du naturalki, gutariko bakoitzak oinazea eta uneasiness delakoa (hau da, kezka edo, hobeto esan, gustura egoten uzten ez digun ezerosotasuna) zorionarekin uztar ezineko gauzatzat hartzen dugulako. Aski da oinaze txiki bat atsegin guztien gozamina hondatzeko. Honenbestez, gure nahimena eten gabe hurrengo ekintza aukeratzera eramango duena oinazetik aldentzea izango da, oinaze hau nolabait aurreikus dezakegun heinean, eta aldentze hau izanen da zorionerantzako lehen urratsa.

TEOFILO: Zuen uneasiness edo kezka egiazko atsekabetzat hartzen baduzue, zentzu horretan ez nator bat zuekin hori dela ekintzarako akuilu bakarra diozuenean. Gehienetan pertzepzio sentiezinak dira, eta hautemanezinak deitu ahal izan genitzake, oinazearen nozioak bere baitan apertzepzioa bilduko ez balu. Bulkada leun horiek eragozpen xumeetatik eten gabe askatze ahaleginak dira, eta honetan gure izateak pentsatu gabe dihardu. Horretan datza, hain zuzen, oharkabean sentitzen dugun kezka, grinaren gainean ihardutera garamatzana, lasaien gauden itxura ematen dugunean ere, inoiz ez baikaude nolabaiteko ekintza edo mugimendurik gabe; naturak eten gabe dihardu betiere gusturago egon gaitezten. Honek, halaber, makurtzen gaitu zerbaitetarantz inoren iritzirik eskatu aurretik, axolagabekoen deritzegun kasuetan, inoiz ere ez gaudelako erabat balantzaren oreka puntuan, eta bi posibilitateen artean ez dugulako sekulan lortuko erdi-erdian kokatzea. Beraz, oinazearen osagarri horiek (noizean behin, gehiegi ugaltzean, egiazko oinaze edo atsekabe bilakatzen direnak) benetako oinazeak balira, errukarriak ginateke gura dugun ongia arrenkuraz eta sutsuki pertsegitzen dugunean. Baina guztiz alderantzizkoa gertatzen da, eta gorago ere esan dudanez (aurreko ataleko § 6), naturaren etengabeko gertakizun xumeen pilaketa, gero eta gusturago egoten saiatzen dena, onerantzako joeraz eta bere irudiaz gozatuz edota oinaze sentipena murriztuz, berez da atsegin nabarmena eta sarri ongiaren gozamenak baino gehiago balio du; eta kezka honi zorionarekin elkartu ezineko zerbaitzat erreparatu behar izatetik urrun, kezka kreaturen zorionerako esentziala dela uste dut, eta zoriona ez da inoiz akats gabeko jabegoa, izakiak ergel eta sor bihurtuko lituzkeena, aurrerakuntza jarraia eta etenik gabea baizik ongi handiagotarantz, eta honek derrigorrez etorri beharko du irrika batekin edota attergabeko kezkarekin bederen, baina azaldu berri dudanaren modura, mintzera iritsi barik, oinazearen osagarri edo hastapenetara mugatzen dena, hauek banan-banan hautemanezinak izan arren, nahimena zirikatzeo aski izaki; hala gertatzen da sasoiko gizakiaren apetarekin, berau ezeroso bihurtzen ez denean, falta zaigunaren ideari gehiegizko atxikimenduz gogo horrek ernegarazten eta

arduratzen ez gaituenean. Apeta txiki-handi horiei eskoletan motus primo primi deritze, eta zinez dira naturak gugan eragindako lehen urratsak, poz bila areago zorionerantz baino, orainaldiari baino ez baitio erreparatzen: baina, esperientzia eta arrazoimena iritsiko dira apeta horiek arautzera eta zorionera eraman gaitzaten bideratzera. Honi buruz zenbait gauza esan dut dagoeneko (I Liburua, 2. atala, § 3). Apetak harriaren joera bezala dira, hau lurraren erdirantza baitoa biderik artezenetik, ez ordea beti biderik egokienetik, ezin baitu aurreikusi bidean jo ditzakeen harkaitzak; helburura hobeto hurbilduko zen, izpirituz eta trabak saihesteko ahalmenez jokatu izan balu. Horrela gertatzen zaigu guri ere: zuzen-zuzen unean uneko plazererantz goazelarik, miseriaren leizean amiltzen gara batzuetan. Horregatik etor daitezkeen ongi eta gaizki handienen irudiak aurrejartzen dizkigu arrazoimenak, eta ekintza aurretik, onena kontsideratua lortzen saiatu aurretik hausnartzeko erabaki irmoa hartzen du, bai eta gure erabakien kausa sentigarriak izpirituan presente ez daudenean ere, edota irudi ahul bilakatu direnean, edo unean esanahirik gabeko hitz edo ikurrek adierazten dituzten pentsamendu isilek, halako moldez non dena hitz hauetan laburbiltzen den, alegia, ongi pentsa ezazu eta memento; lehena nork bere arauak egin ditzan eta bigarrena arauet lotzeko, haiek sortarazitako arrazoiak gogoan ez ditugunean ere. Hala eta guztiz, onuragarri zaigu hartan ahalik ete gehien pentsatzea, arima poztasun arrazoigarritz eta atsegin argisuz beteta edukitzeko.

(§ 37) FILALETES: Arreta horiek, zalantzarik gabe, hain beharrezko dira, urruneko ongiaren ideiak ezin dezake pisu-berdindu orain arduratzen gaituen kezka edo atsekabearen sentsazioa, ongi horrek gugan irrikaren bat susper dezan punturaino. Asko eta askori paradisuako zorion ezinesanezkoak ahalgarri eta gertakortzat onartzen dituzten deskribapen biziz aurkezten zaizkie, baina mundu honetan gozatzeko zorionarekin aski lukete. Izan ere, haien oraingo irrikeri dagozkien kezkak gailentzen direnean eta bizitzako atseginetarantz azkarki bideratzean, euren nahimenak haien bila jartzen dituzte; eta tenore horretan ez daukate beste bizitzako ontasunetarako inongo sentipenik. TEOFILO: Hala gertatzen da hein batean, sarri gizakiek etsi-etsian sinesten ez dutelako; eta sinesten dutela esan arren, sinesgabekeria ezkutuak agintzen du arimaren sakon-sakonean; zeren ez baitituzte sekulan ulertu arimen hilezkortasunaren aldeko argumentu funtsezkoak, Jainkoaren justiziarik doakiona, eta egiazko erlijioaren oinarria, edota inoiz ulertu izan dutenik ez dute gogoan, eta etsi-etsian sinetsirik egoteko bata edo bestea dugu beharrezko. Gutxi dira, halaber, geroko bizitza egiazko erlijioak eta egiazko arrazoimenak irakasten duen moduan ahalgarritzat hartzen dutenak, eta oso urruti daude horren probabilitatea onartzetik, zer esanik ez ziurtasunetik. Horretaz pentsa dezaketen oro papagaien antzeko hizkera baino ez da, edota irudi zakar, hutsalak, mahomatarren antzera, eurek ere itxuragabeak aurkitzen dituztenak; inondik ere ez zaizkie hunkigarri irudi hauek, assassinoen¹¹⁸ printze Mendiko Jaunaren soldaduei gertatzen omen zitzairen bezala; hauek lo sakonean zeudelarik gauza liluragarritz betetako lekura eraman ohi zituzten, non Mahomaren paradisuaren zeudela uste baitzuten, eta bertan aingeruek edota nolabaiteko santuek printzearen irriekin bat zetozen ideiak bururatzen zizkieten, eta berriro lokartuta, handik lehengo lekura ekartzen zituzten; honek sutan ipintzen zituen eta edozertarako ausardiaz, euren jaunaren printze arerioei bizitza kentzera joateko prest egoterainoko kemenez jantzita. Ez dakit nik Jaun edo Mendiko Zahar horri okerririk egin ote zaion; ez baitira berak hildako printze handi asko aipatzen, historialari ingelesek hark idatzia omen den eskutitza ekartzen duten arren, Rikardo I.a Palestinako printze edo konde baten hilketatik zurtzeko, Mendiko Jaun horrek heriotzara zigortu bide baitzuen, bera iraintzeagatik. Nolanahi delarik ere, eta agian bere erlijioarekiko zaletasunagatik besterik ez zen, assassinoen printze honek jendea paradisuaren ideia mesedegarria eskaini nahi zien, pentsamendu hau izan zezaten beti lagun, eta gorrieriatik

gorde zitzan, paradisuan bertan egonak zirela sinestera behartu gabe horregatik. Eta asmo hori erakutsi balu ere, iruzur zerutiar hauek oker erabilitako egiak baino eraginkorragoak izatea ez da batere harritzekoa. Hala eta guztiz, egia baino indartsuagorik ez legoke, hura ongi ezagutzen eta hartaz balioztatzen saiatuko bagina; eta hura gizakien eskumenean jartzeko bideak aurkituko genituzke. Handinahiak eta dirugoseak bizibide horretatik erakarpen sentigarri eta presenterik gabe abiatzen direnengan zenbaterainoko ahalmena duten pentsatzen dudanean, ez dut ezer galdutzat ematen, eta ziur nago bertuteak, ontasun hain sendoetan finkaturik dagoelarik, eragin infinituki handiagoa izango lukeela, gizadi honen zorioneko iraultza batek noizbait modan ipiniko balu. Guztiz da gauza segurua bertutearen ariketa plazerrik handientzat hartzera ohituko litzatekeela gazte jendea. Eta gizaki helduek ere euren buruei arauak ezarriko lizkiekete eta hauek errespetatzeko ohiturak, bertutetik desbideratuak, bertutera eramango lituzke, tabernara joan ezin duen mozkontiaren kemen eta ardura beretsuarekin. Gure gaitzak sendatzeko daukagun ahalbideaz eta erraztasunaz gogoeta hauek eginagatik pozik sentitzen naiz, zeren gure ahuleziak deskribatzera mugatu izan banintz, egiazko ongiaren bila dabilen jendearengan etsipena besterik ez bainukeen sortuko.

(§ 39) FILALETES: Egiazko ondasunak etengabe irrikagarri egitean datza oro. Eta oso gutxitan gertatzen da gure baitan nahitazko ekintza sortzea, irrikaren batek lagunduta ez bada; horregatik dira hain sarri elkarrekin nahasiak nahimena eta irrika. Ez dugu, baina, sinestu behar gainontzeko grina gehienen parte edota haien ondorio den kezka puntu honetatik at dagoenik; zeren gorrotoak, beldurak, kolerak, bekaitzak, lotsak, bakoitzak dauka bere kezka, eta honen bidez dute eragina nahimenean. Grina hauetarik bat bera ere bakarrik existitzen denik zalantzan jartzen dut, eta nekez aurkituko genuela uste dut irrikarik gabeko grinarik. Erabat ziur nago, bestalde, kezka dagoenean irrika ere badagoela. Eta gure betierekotasuna une presenteari ez datzekiolarik, begirada aurrerantz luzatzen dugu, zeinahi izanda ere oraingo gure atseginak, eta etorkizunerantzako aurrebegirada hauen lagun den irrikak nahimena daroa beti berekin jarraierantz; halako moldez non, pozaren erdian ere, oraingo atseginari dagokion ekintzaren euskarri atsegin berorri eusteko irrika baita, eta hura kenduko diguten beldurra; eta kezka hau baino larriagoa den beste batek izpiritua hartuko duen aldi oro, berehala eramango du izpiritua beste ekintza batera, uneko atsegina gutxietsiz. TEOFILO: Pertzepzio eta joera ezberdinak biltzen dira nahikunde perfektuan, eta haien arteko gatazkaren ondorio da hau. Hauteman ezineko diren batzuen pilatzeak egonezina eragiten du, eta zergatik ez dakigula, bultzatzen gaitu; batzuek elkar bilduz objekturen baterantza eramaten gaituzte edota handik urruntzen, eta orduan sortzen da irrika edo ikara, kezkak lagundurik, baina ez da beti iristen atseginera edo atsekabera. Badira, azkenik, atseginak eta oinazeak lagundutako bulkadak, eta hautemate hauek denak dira edo sentipen berriak, edo lehenagoko sentipen batek utzitako irudikapenak (dagokien oroitzapenarekin ala gabe), eta hauek irudi horiexek aurreko sentipenetan zituzten erakarpenak berrindartuz, bulkada zaharrak ere eraberritzen dituzte irudimenaren bizitasunaren arabera. Eta bulkada horietatik guztietatik sortzen da, azkenik, nahimen osoa gauzatzen duen indar gailena. Baina guk hautemandako irrika eta joerei sarritan deritzegu nahikundeak, hain osoak ez badira ere, non eta gailentzen diren edota erakartzen duten ala ez. Aise ondorioztatzen da, beraz, nahikundeak nekez iraungo lukeela irrikarik eta arbuiorik gabe; horrela deitu behar baitzaio, nire ustez, irrikaren kontrakoari. Kezka grina ezerosoetan ezezik, hala nola, gorrotoan, ikaran, bekaitzean, koleran, lotsan, hauen kontrakoetan ere existitzen da, hots, maitasunean, itxaropenean, adeitasunean, bihotz-zabaltasunean eta aintzan. Irrika dagoenean kezka ere badagoela esan daiteke; alderantzizkoa, ordea, ez da beti egia, zeren maiz izaten baikara kezkatu zer nahi dugun ez dakigularik, eta orduan ez dago irrika zehatzik.

(§ 40) FILALETES: Norberak, ustez, baztertzeko gaitasuna duen kezka eraginkorrak bideratzen du gehienetan nahimena ekintzara.

TEOFILO: Balantzaren orekak azken erabakia ebazten duen modura gerta daiteke, nire ustez, kezkarik eraginkorrena ez gailentzea; zeren kontrako joerak banan-banan hartuta gaindi ditzakeen arren, gainontzekoak bat eginda garaile izatea ere gerta baitaiteke. Izpirituak berak ere nabari ditzake orain hauek, gero besteak, dikotomien bidez, biltzarretan gertatu ohi den bezala, alderdi bat botoen gehiengoaz nagusitzea segun eta nork erabaki bozketaren ordena. Egia da aurrez jabetu behar dela izpiritua horretaz; lehia garaia berandu baita amarru horietarako; behin hasiz gero, dena doa balantzaren platerera eta norabide konposatua osotzen du, mekanika arloan bezala, eta ordurako galga ezarri ez bazaio, ez dago hura gelditzerik.

Fertur equis auriga nec audit currus habenas.¹¹⁹

(§ 41) FILALETES: Galdetzen bazaigu, horrez gain, ea zerk suspertzen duen irrika, gure erantzuna izango da: zorionak, ez beste ezerk. Zoriona eta miseria azken mugak ezezagunak zaizkigun bi muturren izenak baino ez dira. Giza begiak sekulan ikusi ez duena, belarriak entzun ez duena, bihotzak ulertu ez duena¹²⁰. Baina bai bataren, bai bestearen zantzu biziak existitzen dira gure baitan, laket eta poztasun, oinaze eta pena mota ezberdinen bidez; hauek denak laburbiltzen ditut nik atsegina eta oinazearen deiturapean, bata zein bestea izpirituari bezala gorputzari ere dagozkiolarik, edota zehazkiago mintzatuz, izpirituarenak soilik direlarik, nahiz eta orain izpirituan sortutako pentsamendu zehatz batzuen ondorio, orain, berriaz, gorputzean, zenbait mugimendu aldaera dela bide. (§ 42) Horrela, zoriona bere osotasunean gozatzeko gai garen atseginik handiena da; miseria, berriaz, era berean hartuta, senti dezakegun oinazerik handiena. Eta zoriona dei dezakegunaren mailarik baxuena egoera hura da, non, oinaze orotik aske, atsegin presenteaz gozatzen dugun, halako molde eze gutxiagorekin ezin kontenta gintezkeela. Ongia deritzogu atsegina gudan eragin dezakeenari, eta gaizkia, oinazea eragin diezagukeenari. Baina sarritan ez zaie horrela deitzen, ongi edo gaizki horietako bata zein bestea ongi edo gaizki handiago batekin lehian sartzen direnean.

TEOFILO: Atsegin ezin handiagoa ez dakit posible den; infinituraino haz daitekeela nahiago dut sinetsi, zeren ez baitakigu noraino eramanez izanen diren gure ezagutzak eta gure soinalak etorkizun dugun eternitatean. Zoriona atsegin iraunkorra dela sinetsiko nuke, beraz, eta hau ezinezkoa litzateke atsegin berritarantza etengabeko progresiorik gabe. Halatsu, pertsona biren artean, zeinetarik bata bestea baino askoz ere arinago doan eta atsegin handiagotan, biak izanen dira berez eta beren baitan zoriontsu, batengan eta bestearengan zoriona guztiz ezberdina izan arren. Nolabait esateko, zoriona atseginetan doan bidea da; eta atsegina zorionerantz aurrerapauso bat besterik ez da, uneko inpresioen pentzutuan eman daitekeen laburren, baina ez beti onena, 36. paragrafoaren azken lerrotan argi utzi dudanez. Biderik laburren egin nahian egiazko bidea huts egin dezakegu, zuzen jausten den harriak ere behingoan lurraren erdirantza bidean eragozpenekin topo egin dezakeen modura. Honek adierazten digu arrazoimenak eta nahimenak garamatzatela zorionerantz, sentipenek eta apetek, aldiz, atseginerantz baino ez gaituztela eramaten. Hala eta guztiz, atseginak definizio nominalik ezin dezakeelarik har, koloreak eta argiak ezin duten modura, definizio kausala, bai, har dezakete, haien modura, eta funtsean atsegina perfekzio sentipen bat baino ez da, eta oinazea imperfekzio sentipena, hautemanak izateko adina nabarmen diren heinean: zeren perfekzio edo imperfekzioaren baten pertzepzio sentiezin xumeek, atseginaren eta oinazearen osagarri gisakoak direnek eta hainbat aldiz aipatu ditudanak, joerak eta zaletasunak eragiten dituzte, baina ez grinak berak. Badira, beraz, hautematen ez ditugun joera sentiezinak; bai eta sentigarriak ere, zeinaren existentzia eta xedea ezagunak zaizkigun, nahiz eta eraketaz gu jabetu ez; eta horrelakoxeak dira gorputzari leporatzen dizkiogun joera nahasiak, haietan beti dagoen arren izpirituari dagokion

zerbait; badira, azkenik, arrazoimenak eskainitako joera bereiziak, eta hauen indarra eta eraketa sentitzen dugu; mota honetako atseginak, harmoniari dagokion ordenaren ezagutzaz eta produkzioaz eskuratzen direnak, estimagarrienak dira. Arrazoiz esan ohi da joera hauek guztiak, oro har, grina hauek, plazer hauek eta oinaze hauek izpirituarenak edo arimarenak direla soilik; esango nuke, gainera, haien jatorria arima beraren baitan dagoela, gauzak nolabaiteko zorroztasun metafisikoz hartuta; baina arrazoiz esan ohi dela, halaber, pentsamendu nahasiak gorputzetik datozela, zeren auzi horretan gorputza, ez arima, aintzat hartuz lortuko baitugu zerbait bereizi eta adierazkor. Ongia zaio lagungarri eta baliagarri atseginari; gaizkiak, oster, oinazeari laguntzen dio. Baina ongi handiago batekin topo egitean, hura kenduko ligukeen ongia zinez bilaka liteke gaitz, handik sortarazitako oinazeari lagunduko liokeen neurrian.

(§ 47) **FILALETES:** Arimak badu ahalmen irrika horietako batzuen gauzatzea eragozteko; aske da, beraz, haiek bata bestearen ondoren aintzat hartzeko eta elkarrekin alderatzeko. Horretan datza gizakiaren askatasuna, bai eta nire ustez oker deritzan aukeramen librea ere; erabilpen oker horretatik datoz, hain zuzen, gure hainbat desbideratze, akats eta hutsune, nahimena lasterregi edota beranduegi bideratzeagatik.

TEOFILO: Gure irriken egiteratzea atzeratu edo gera daiteke, irrika horiek ez direnean gu hunkitzeko bezain sendoak eta haien burutzeak eskatzen duen ahalegina eta ezerosotasuna gainditzeak merezi ez duenean; neke hau, batzuetan, oharkabean adoregabetzen gaituen alferkeria edo nagi sentiezina baino ez da, eta nabariago gertatzen da leunkeria hezitako pertsonengan edota izaeraz flematiko direnengan eta adinagatik edo porrotengatik nekatuta daudenengan. Baina irrika berez hunkitzeko bezain sendoa denean, beste ezerk eragozten ez badu, orduan alderantzizko joerek geldiaraz dezakete; bai zaletasun soila denean, irrikaren atal edo hasiera gisakoa delarik berau, bai joera horiek irrika bera gauzatzen dutenean. Hala eta guztiz, alderantzizko joera, zaletasun eta irrika horiek jada ariman aurkitu behar direnez, honek ez dauzka bere esku eta, arrazoimenak parte hartzen duen era aske eta nahitazkoan ezingo du, beraz, aurre egin, beste baliabideren bat erabaliz ez bada, esaterako, izpirituia beste norabait desbideratuz. Baina nolatan ohartu horren ezinbesteko egin beharraz? -Hauxe baita gakoa, batik bat grina indartsu baten aurrez aurre gaudenean. Izpirituak alde zurratik behar du prest egon, eta pentsamenduz pentsamendu ibiltzeko gertu, urrats laban eta arriskutsuan luzaroegi gera ez dadin. Horretarako komeni izaten da zenbait gauzatan bidenabar bailitzan soilik pentsatzeko ohitura hartzea, horrela hobeto jagoten baita izpirituaren askatasuna. Baina metodoz jokatzeko ohitzea da onena, eta arrazoiak, ez menturak (hots, inpresio sentikor eta ustekabekoek) elkartutako pentsamendu multzoan oinarritzea. Horretarako noizbehinka norbere baitara biltzen ohitzea komeni da, eta uneko inpresio nahaspilatuen gainetik ibiltzea, gauden lekutik, nolabait esan, irten eta nor bere buruari galdera hau egitea: *dic cur hic? respice finem*, hau da, non gaude? goazen harira, goazen egintzara. Gizakiek sarritan beharko lukete norbait aldika ihardupidea eten eta euren eginkizuna gogora ekarriko liekeena (Filipo, Alejandro Handiaren aitak horretarako propio zeukan gizon bat). Baina horretarako inor ez badaukagu, guk geuk hartu beharko genuke lanbide hori. Adibidez, gure irrika eta grinen eragina deusezteko edo ekintza indargabetzeko egoeran noizbait gaudelarik, lehia horretarako tresnak aurki ditzakegu, bai kontrako irrika eta joeren bidez, bai zeharki, hau da, beste nolabaiteko arduraz. Metodo eta artifizio hauei esker, geure buruaren jabe izatera iristen gara, eta luzera nahi izatea nahi izango genukeena eta arrazoimenak agindutakoa egin ahal izanen dugu. Bide zehatzetatik lortzen da hori guztia, inoiz ez ziorik gabe, ez eta orekaren edo indiferentzia perfektuaren ustezko printzipioz, hor ezartzen baitute batzuek askatasunaren esentzia, ziorik gabe edota zio ororen kontra norbera xedatu ahal izanen bailitzan, zuzen-zuzenik joanez inpresioen eta joeren

nagusitasun osoaren aurka. Ziorik gabe, diot nik, hau da, gainontzeko zaletasunen lehiarik gabe, edota alde zaureratik izpiritua desbideratu nahian ibili gabe, edota antzeko beste ezein bide adierazgarriarik gabe; osterantzean, ameskerietara jotzea litzateke, eskolastikoen gaitasun huts edo koalitate ezkutuetan bezala, ez arrazoirik, ez eta zentzurik ere ez dutenak.

(§ 48) FILALETES: Pertzepzioan eta adimenean dagoenagatik nahimenaren determinazio ulerkorren alde nago ni neu ere. Arazo honi buruz egin den ikerketa zehatzaren azken ondorioarekin ados, nahi izatea eta ihardutea gure izaeraren perfekzio dira, ez akats. Eta gure askatasuna ito edo murrizten duena izatetik bezain urrun dago hau bertan dagoen gauzarik perfektuena eta onuragarriena izatetik. Eta era honetara bideratzetik zenbat eta urrunago gauden, orduan eta gertuago egongo gara miseriatik eta morrontzatik. Izan ere, izpirituan ezaxola erabatekoa eta absolutua suposatzen badituzu, ongiari eta gaizkiari buruz daukan azken ebazpenak ezin mugatuko duena, egoera guztiz inperfektuan kokatuko duzu.

TEOFILO: Biziki atsegin zaidan horrek guztiorrek erakusten du izpirituak baduela ahalmen osoa eta zuzena bere desirak noiznahi menperatzeko, zeren, horrela ez balitz, ezin izango baitzen determinatua, zeinahi azterketa egin ahal izanagatik, zenbatnahi arrazoi egoki eta sentipen eraginkor eduki ahal izanagatik; beti zalantzatsu geratuko litzateke, ikara eta esperantzaren artean kezkatan betiko. Azken finean determinatua izan dadin behar da, eta era horretan zeharka baizik ezin diezaiela aurre egin bere desirari, haien kontrako armak behar direnerako aurrez prestatuz, azaldu berri dudanez.

FILALETES: Halere, libre da gizakia eskua burura eramateko ala gelditu uzteko; bata zein bestea guztiz zaio ezaxola eta posibilitate hau ez edukitzea inperfekzioa litzateke.

TEOFILO: Zehazki mintzatuz, ez gara inoiz ezaxola bi aukera posibleren artean, zeinahi izanda ere, hala nola, eskuinetara ala ezkerretara biratzea, eskuineko oina aurrean jartzea (Trimalzionen etxean betebeharrekoa)¹²¹ edota ezkerrekoa; bata zein bestea pentsatu gabe egiten baitugu, eta honek adierazten digu barne-aginduen eta kanpoko inpresioen (biak ere sumagaitzak) batera gertatzeak hartu dugun erabakia aukeratzera determinatu gaituela. Nagusitasuna, halere, oso apala da eta hartaz ezaxola baikinaren jokatzen dugu, zeren aurkezten zaigun zio sentikorrik xumeenak ere aise makur baikaitzake baterantz zein besterantz; eta eskua burura jasotzeak ahalegintxo bat eskatzen badigu ere, nekerik gabe gaintzen dugu, hain txikia da, izan ere, ahalegina; aitortu behar dut, hala eta guztiz, inperfekzio handia litzatekeela gizakia ezaxola izatea eta besoa jaso ala ez jaso, aise erabakitzeko ahalmenik ez edukitzea.

FILALETES: Inperfekzioa litzateke, halaber, eta ez txikiagoa, edozein egoeratan ezaxolakeria beronegatz jokatzea, adibidez, burua edo begiak defenditu nahi izango balitu erasoan datorkion zartadatik, hots, mugimendu hau geldiaraztea aurrekoetan bezain erraza balitzaio, ia-ia ezaxola baitzitzaien han; horrela izaki, ez bailuke izango premiazoetan behar adina kimen eta bizkortasun. Horregatik zaigu sarri determinazioa oso baliagarri eta ezinbesteko; eta egoera mota guztietan determinazio eskasez aurkituko bagina, eta ongiaren eta gaizkiaren pertzepziotik ateratako arrazoiekiko ez-sentibera, egiazko aukerarik gabe geratuko ginateke. Eta guk epaitutako ekintza baten ongiaren ala gaizkiaren inguruan geure izpirituan eratu dugun azken emaitza ez den zerbaitek determinatuko bagintu, orduan ere ez ginateke aske izango.

TEOFILO: Zinez da egia diozun hori eta beste nolabaiteko askatasunaren atzetik dabilzanek zer nahi duten ez dakite.

(§ 49) FILALETES: Zorion batez gozatzen duten goi mailako izakiak gu baino determinatuagoak daude ongiaren aukerara, baina hala eta guztiz, gu haiek baino askeagoak garela pentsatzeko arrazoirik ez daukagu.

TEOFILO: Horregatik diote teologoeak substantzia doatsu horiek ongian sendotuta daudela eta erortzeko arrisku orotik aske.

FILALETES: Sinetsita nago, halaber, izaki mugatuok Jainkoaren mugarik gabeko jakituriak eta ontasunak zer egin lezakeen pentsa bageneza, esan ahal izanen genukeela Jainkoak berak ezin duela ona ez dena aukeratu eta izaki ahalguztidun horren askatasunak ez diola galarazten onenaren mesedetan determinatuta izatea.

TEOFILO: Hain nago egia horretaz sinetsita, ezen izaki pobre eta mugatu garen arren, ausarki ziurta dezakegula uste baitut, eta uste dut, baita ere, horren zalantzarik izatea oker handia litzatekeela; horrela murriztu egingo baikenituzke haren jakituria, haren ontasuna eta haren gainontzeko perfekzio infinituak. Aukerari, hala eta guztiz, nahimena hartara determinatua izan arren, ezin zaio deitu absolutuki eta derrigorrez ezinbesteko; hautemandako ondasunen nagusitasunak ezinbesteko egin gabe makurtzen zaitu, nahiz eta dena kontuan hartuz, joera hau determinatzaile izan, eta inoiz ere ez eraginik gabea.

(§ 50) FILALETES: Arrazoiak onenera determinatzen gaituenean izanen gara erabat aske. Hausnarketa zuhurrek ergelarengan, zentzudunarengan baino eragin gutxiago dutela-eta, nork nahi du ergel bilakatu? Arrazoiaren uztarria gainetik kentzea izanen balitz askatasuna, eroak eta zentzugabeak lirateke libre bakarrak; ez dut, baina, uste halako askatasunaren maitasunagatik inork zoratu nahi duenik, lehendik zoro denak izan ezik.

TEOFILO: Gaur egun zenbaitek hau uste du, alegia, izpiritu dotorearen ezaugarri dela arrazoiaren aurka prediku egitea, berau pedante eta gogaikarritzat hartuz. Horretan jolasten diren diskurtso hutsezko liburuskak ikusten ditut, eta irakurri ere egin ditut bertsoak, gogoeta hain faltsutan aritzeko ederregiak. Izan ere, arrazoiari iseka egiten diotenak zinez mintzo balira, aurreko mendetan ezagutu ez den nabarmenkeria mota berria litzateke. Arrazoiaren aurka mintzatzea egiaren aurka mintzatzea da, egien kateadura baita arrazoa. Norbere aurka mintzatzea da eta norbere ongiaren aurka, honen ezagutzean eta jarraitzean baitatza arrazoimenaren puntu nagusia.

(§ 51) FILALETES: Nola izaki adimendunaren perfekziorik altuena zinezko zorionaren bila etengabe eta arreguraz saiatzean baitatza, hala gure askatasunaren funtsa ere honetan errotzen da, esan nahi baita arretaz ibili behar dugula itxurazkoa besterik ez den zoriona egiazkotzat ez hartzeko: gure desiren objektu izateari inoiz ere uzten ez dion zoriona orokorrean bilatzen zenbat eta gehiago saiatu, orduan eta gure nahimena askatuago egongo da irrikak ezinbestean determina ez dezan, honek ontasun partikularren batera baikaramatza, gure egiazko zorionari dagokion ala ez ikertzen dugun bitartean.

TEOFILO: Egiazko zoriona izan behar litzateke beti gure irriken xedea, baina hala ote den zalantzan jartzeko arrazoiak baditugu: gutxitan pentsatzen baitugu horretan, eta behin baino gehiagotan azpimarratu dudanez, arrazoimenak gidatzen ez badu, apetak unean uneko atseginerantz du joera, ez zorionera, hau da, atsegin iraunkorrera, hura iraunarazten saiatuko bada ere; ikus § 36 eta § 41.

(§ 53) FILALETES: Gehiegizko asalduraren bat gure arimaz jabetzen bada erabat, hala nola tortura krudelaren oinazea, ez gara geure izpirituaren aski jabe. Halere, gure grinak ahal bezain beste eratzeko, izpiritua ohitu behar dugu ontasun eta gaitz benetako eta eraginkorraz arduratzen, eta berealdiko ontasun bikain bati izpiritutik alde egiteko lizentziarik ez diogu emango bertan zantzu gozorik utzi ez badu, gure baitan haren gailentasunari dagozkion irrikak eragin ez ditugun bitartean, halako moldez non haren ausentziak edota hura galtzeko beldurrak urduri utz gaitzan, hartaz gozatzen garenean.

TEOFILO: Nahiko ados dator hori § 31 eta § 35 paragrafoetan egin berri ditudan oharrekin, orobat atsegin huts eta argitsuez behin baino gehiagotan esan dudanarekin, hor agertzen baita nolatan haiek perfekzionatzen gaituzten, inperfekzio handiagotan jausteko arriskura eraman gabe, sentimenen atsegin nahasietan gertatzen den modura,

kontuz jokatu behar baitugu hauekin, batik bat haietaz segurantzaz nola baliatu esperientziatik ikasi ez dugunean.

FILALETES: Eta ez dezala hemen inork esan, ezin dituela grinak menperatu eta ezin duela galarazi haien piztea eta bere burua egintzara behartzea; zeren printze baten edota pertsona ospetsu baten aurrean egin dezakeena, bakarrik dagoenean ere, edo Jainkoaren aurrean, nahi izanez gero egin ahal izanen du.

TEOFILO: Guztiz egokia da ohar hau eta merezi du sarritan gure hausnarketa gai izatea.

(§ 54) FILALETES: Hala eta guztiz, gizakiek mundu honetan egin ohi dituzten aukera ezberdinek erakusten digute, gauza bat bera ez dela era berean ona denentzat. Eta gizakiaren interesak bizitzaz haraindi luzatuko ez balira, ezberdintasun honen zio bakarra litzateke nork bere zoriona gauza ezberdinetan kokatzen duela; ezberdintasunaren poderioz, adibidez, batzuk luxuan eta gehiegikerian murgiltzen dira, beste batzuek, aldiz, eratasuna nahiago dute atseginkeria baino.

TEOFILO: Zalantzarik gabe da haren bene-benetako kausa, nahiz eta denek eduki, edo eduki behar, begien aurrean guztien xede den betiko bizitza. Egia da, bestalde, zinezko zorionaren gogoeta, bizitza honetakoa ere, aski litzatekeela nahiago izateko bertutea beragandik urruntzen gaituzten gozaldiak baino, nahiz eta kasu horretan betebeharra izanen ez den horren gogor eta horren erabakigarri. Egia da, baita ere, gizakien gustuak ezberdinak direla, eta esan ohi da ez dela gustuez eztabaidatu behar. Baina pertzepzio nahasiak baino ez direnez, ez gatzaiak atxiki behar, axolagabetzat edo kaltegabekotzat hartu ditugun obehjektuetan izan ezik: hala ez balitz, norbaitek gustu aurki lezake bera hilko duten edota galbidera eramango duten pozoitan, eta barregarri geratuko ginатеke esango bagenu bere gustukoa ezin zaiola kritikatu.

(§ 55) FILALETES: Heriotza ondoren ezeren itxaropenik ez balego, ondorioa, zalantzarik gabe, bidezkoa da: jan dezagun eta edan, goza dezagun plazer zaigun oroz, bihar hilko gara- eta¹²².

TEOFILO: Bada, nire ustetan, ondorio horri erantsi beharrekorik. Aristotelesek eta estoikoek eta antzinako hainbat filosofok ez zuten horrela pentsatzen eta zuzen zeudela deritzot. Bizitza honen ondoren deus ez balego ere, arimaren lasaitasunak eta gorputzaren osasunak hauen kontrako atseginak baino hobeak izaten irauten lukete. Ontasun bat gutxiesteko ez da arrazoi betiko ez dela esatea. Aitortzen dut, halere, zenbait kasutan ez legokeela modurik honako hau frogatzeko, alegia, zintzoena dela baliotsuena. Jainkoa eta hilezkortasuna aintzat hartzea da, beraz, bertutea eta justizia ezinbesteko betebeharrak egiten duen bakarra.

(§ 58) FILALETES: Gaur egun ongiari eta gaizkiari egiten diegun ebazpena beti izanen dela baliagarri pentsatzen dut. Eta oraingo zorionari edo miseriari dagokionez, hausnarketa areago iristen ez denean eta ondorio guztiak baztertu direnean, gizakiak ez du sekulan aukera okerririk egiten.

TEOFILO: Esan nahi da, oro mugatuko balitz orainaldira ez legokeela ziorik aurkezten den atsegina arbuiaitzeko. Lehendik ere adierazia baitut atsegin oro dela perfekziozko sentipen. Baina badira perfekzio batzuk bere baitan inperfekzio handiagoak biltzen dituztenak. Norbait saiatuko balitz bizitza osoan ilarrak orratzen kontra jaurtitzen, hutsik gabe puntan jo eta ziriztatzen ikasteko (Alexandro Handiak lakari bete ilarrez saritu zuen hari jarraiki) gizon hau nolabaiteko perfekziora iritsiko litzateke, perfekzio oso pobrea eta berak gutxietsitako hainbat perfekzio beharrezkoekin alderatzeko gai ez dena. Era berean, oraingo atsegin batzuetan aurkitzen den perfekzioa beste zenbait perfekziotarako arretaren menpe jarri behar da; perfekzio horiek ezinbestekoak dira miserian amil ez gaitezen eta miseria da, hain zuzen, inperfekzioz inperfekzio eta zoritxarrez zoritxar garamatzan egoera. Baina orainaldia besterik ez balego, bertan aurkezten den perfekzioarekin poztu beharko genuke, hau da, unean uneko atseginarekin.

(§ 62) FILALETES: Nork bere borondatez, inork ere ez luke bere egoera zoritxarreko bihurtuko, irizpide faltsuen eraginez ez bada. Ez naiz ni hemen ari akats gaindiezin baten ondorio diren hutsegiteez, ozta-ozta merezi baitu honek irizpide faltsuaren izena; gizakiak bere buruari egin beharreko aitortzan irizpide faltsu azaltzen denaz ari naiz. (§ 63) Lehenik eta behin, arima oker dago oraingo atsegina edo oinazea geroko diren atsegin eta oinazearekin alderatzen ditugunean, gugandik distantzia ezberdinen arabera baliotzen baititugu; orain zertxobait eskuratzeagatik ondare oparo eta seguruari uko egingo liokeen oinordeko hondatzailearen antzera. Denok onartu behar dugu irizpide hau faltsua dela, zeren geroa orainaldi bilakatuko baita eta orduan izanen du hurbiltasunaren abantaila bera. Gizakiak edalontzia eskuan hartzen duenetik gogoan izango balu edateko atseginak ordu gutxi barru buruko mina eta urdailekoa ekarriko dizkiola, ez luke ardo tantarik ere ezpainetara eramango. Aldi tarte hain txikiak horrenbeste liluratzekoa badu, tarte handiagoak arrazoi gehiagoz izango du eragin bera.

TEOFILO: Badago puntu honetan harremanik lekuen eta aldien arteko tartealdean. Baina beste alde hau ere badago, alegia, objektu ikusgarriak ikusmenean eragina galduz doazela urrutitasunaren arabera gutxi gora-behera; etorkizuneko objektuekin, aldiz, ez da gauza bera gertatzen irudimenean eta izpirituan eragiten dutenean. Izpi ikusgarriak proportzionalki urruntzen diren lerro zuzenak dira, baina lerro kurbo batzuk urruntzean zuzenarekin itxuraz bat egiten dute eta elkarrekin jarraitzen bide dute, halanola asintotak izeneko lerroak, lerro zuzenarekiko hauen tarte ikusgarria desagertu egiten baita, nahiz eta gauzen errealtatean beti bananduta dirauten. Hemen ikusten da objektuen itxura ez dela distantziaren gehitze proportzioan murrizten, itxura desagertu egiten baita laster erabat, urruntasuna oraindik ere infinitura iritsi barik. Berdin gertatzen da geroa erabat ezabatzen digun aldarte laburrekin, objektua desagertu bailitza. Izena baino ez zaigu geratzen sarritan izpirituan, eta lehendik ere aipatutako pentsamendu mota berezi hori, isilak eta inor hunkitzeko gai ez direnak, metodoz eta ohituraz egokitu ez bagatzaizkie.

FILALETES: Ez naiz ni hemen ari irizpide faltsu mota horretaz, zeinetan bertangoa ez dena murriztu ezezik, deuseztu ere egiten baita erabat gizakien izpirituan, unean eskura dezaketen orotaz gozatzen direnean, hortik, euren ustetan, ezer txarrik etorriko ez zaielarik.

TEOFILO: Geroko ongiaren eta gaizkiaren itxaropena deuseztu deneko irizpide faltsuen beste mota bat da hori, orainalditik ateratako ondorioa ukatu edo zalantzan jartzen delako; horrez gain, etorkizuneko sentipena deusezten duen akatsa, aipatu dugun irizpide faltsuaren izarikoa da, kontuan oso gutxi ala deus hartzen ez dugun geroaren irudikapen ahulegitik sortua berau. Agian hemen bereiztekoak izan daitezke, gainera, gustu txarra eta irizpide faltsua, sarritan zalantzan jarri ere ez baita egiten geroko ongia nahiago beharko ote den, eta inpresio hutsez iharduten dugu, hauek aztertzeke asmorik gabe. Baina pentsatzen hasiz gero, bi hauetariko bat gertatzen da: ez dela aski pentsatzen eta aztertutako auzian sakondu gabe beste zerbaitera pasatzen gara, edo azterketak aurrera egiten du ondorioren batera iritsi arte. Batean zein bestean gutxi gora-beherako barne-damua geratzen da noizbehinka; beste batzuetan ez dago inolako formido oppositi¹²³ edo barne-kezkari, izpiritua guztiz desbideratua dagoelako edo aurre iritziek engainatua.

(§ 64) FILALETES: Gure izpirituaren edukiera eskasagatik egiten ditugu irizpide faltsuak, ongiak eta gaizkiak elkarrekin alderatzean: ezin gara bi atseginez aldi berean ongi gozatu, are gutxiago goza gaitzke atsegin batez oinazeak itsuturik gaudela. Garraztasun tanta batek edalontziaren gozotasuna galarazten digu. Unean uneko gaitza da beti denetan gogorrena eta erostan hasi ohi gara: Ai! Nahiago nuke edozein sufrimendu, haxe baino!

TEOFILO: Hori guztia gizakien izaeraren arabera, sentitzen denaren indarraren arabera eta gure ohituren arabera arras aldatzen da. Hezueriak jotako pertsona oso alai senti daiteke fortuna handia eskuratu duelako, eta ondasunetan oparo dabilena, bere lurraldetan eroso bizi litekeena gorteko zoritxarren bat dela-eta, lurjota bizi da tristezian. Atseginak eta oinazeak nahasten direnean, emaitzatik edo bataren zein bestearen nagusitasunetik poza edo tristura datoz. Leandrok itsasoa gauez igerian zeharkatu beharraren ezerosotasuna eta arriskua mesprezatzen zituen, Hero ederraren xarmak bultzata¹²⁴. Zenbait pertsonak ezin du jan, ez edan edota min latza sentitu gabe beste apetak ezin dituzte ase, gaitz edo kalteren batengatik; hala eta guztiz, apeta horiek asetzen dituzte bidezko diren mugez gaindi. Beste batzuk hain nagiak dira, hain delikatuak, oinazeren bat, atsekaberen bat, ondoezen bat berekin dakarten atseginak arbuiatzen dituzte. Batzuk oinaze eta atsegin presente eta pattalen oso gainetik kokatzen dira eta ikara edo itxaropenaren poderioz baino ez dute jokatzeko; beste batzuk edozein huskeriagatik kexatzen dira eta edozein atsegin sentigarri presenteren atzetik doaz, ia haurrak bailiran, hain emagizon dira. Unean uneko oinazea edo atsegina beti da beraientzat handiena; zentzu gutxiko predikari edo panegiristak bezala dira, haientzat beti baita, esaera zaharrak dioenez, eguneko santua paradisuko santurik handiena. Hala ere, gizakien artean aurkitzen den aniztasuna zabala izan arren, beti da egia unean uneko pertzepzioen eraginez jokatzeko dutela, eta geroak ukitzen dituenean, haren irudipenagatik izan ohi da, edota haren izen soila edo izaera araugabea ulertzeko hartu duten ohitura edo erabakiagatik, haren inongo irudi edo zantzu naturalik eduki gabe; zeren urduritasunik gabe eta batzuetan damu-sentipenik gabe ezinezkoa bailitzateke aurrez hartutako erabaki irmoari eta batik bat ohiturazko jokabide bati aurre egitea.

(§ 65) FILALETES: Etorkizun den atsegina apaltzeko joera dute gizakiek, eta sinetsita daude, atsegin hori dastatzera iritsiz gero, hark ez duela uste izandakoaren antzik ere izanen, ez eta jendeak pentsatzen duena; esperientziaz baitakite besteek famatutako atseginak txepel iruditu ezezik, norberarengan inoiz atsegin bizia sortu zuen gauza berak beste noizbait zapuztu egin diela eta inoiz nazkatu ere.

TEOFILO: Horiek izan ohi dira lizunkoien arrazoinamenduak, baina handinahiek eta diruzaleek guztiz bestelako pentsamenduak dituzte ohoreei eta aberastasunei buruz, zeren sarri haietaz neurritz gozatzen diren arren, inoiz oso eskas ere, beti egoten baitira gehiago edukitzeko irrikaz. Sentimenak hain gutxi ukitzen dituen zerbaitetara gizakiak hain sentibera izatea, natura arkitektuaren lorpen bikaintzat daukat, eta haiek handinahi eta diruzale bihurtzea ezinezkoa balitz, giza naturaren oraingo egoeran zaila litzaike onbidetsu eta zentzuzko bilakatzea euren perfekzioa landuz, hortik desbideratzen dituzten atsegin aktualak gora-behera.

(§ 66) FILALETES: Euren ondorioen arabera eta guri ongia ala gaizkia ekartzeko gaitasunaren arabera, gauza on edo txarren inguruan iritziak oso ezberdinak dira, pentsa baitezakegu ez direla egiaz eragiten duten adinako gaizkia sortzeko gai; eta pentsa dezakegu, orobat, ondorioa garrantzitsua izan arren, hura beste nolabait gerta ahal izatea ez dela gauza segurua, edota gutxienik ezin galaraziko dugula trebeziaz, maltzurkeriaz, portaera aldaketaz, damuaz.

TEOFILO: Nire ustez, ondorioaren garrantziaz ari garenean ondorekoarena ulertzen badugu, hau da, jarrai dakioken ongiaren edo gaizkiaren zenbatekoa, aurreko iritzi faltsu motan jausten gara, zeinetan etorkizuneko ongia eta gaizkia txarto irudikatua dagoen. Beraz, iritzi faltsuen bigarren mota baino ez da geratzen eta hartaz mintzo gara, hots, ondorioa zalantzan jartzen dugunaz.

FILALETES: Erraza litzateke adieraztea nolatan arestian aipatutako ihesbideak arrazoi eskaseko irizpideak diren, baina aski dut oro har agirian jartzea honako hau, alegia, ongi handiagoa beste txikiago baten ordeztaraztea (edota ongi xumea lortzearen edo

gaitz apala eragoztearren nork bere burua miseria zorian jartzea) arrazoiaren kontrakoa dela zuzen- zuzenean, eta are gehiago susmo okerretan oinarrituta eta sakonki aztertu gabe egiten dugunean.

TEOFILO: Ondorioaren zenbatekoa eta ondorekoarena bi burutazio heterogeneo direnez (esan nahi baita, ezin direla elkarrekin konparatu), haiek alderatu nahi izatean moralistak arras nahasiak ibili dira, eta hau argi agertzen da probabilitateaz idatzi dutenengan. Egia esan, hemen eta beste hainbat balioztatze ezberdin eta heterogeneotan eta, nolabait esateko, dimentsio bat baino gehiagokoetan, hizpide dugunaren zenbatekoa balioztatze bataren eta bestearen arrazoi konposatuan datza, irizpide biko (luzera eta zabalera) lauki zuzenean bezala. Probabilitatearen ondorioari eta mailen zenbatekoari dagokionez, oraindik ere ez daukagu horiek zenba ditzakeen logikaren atala¹²⁵, eta probabilitateaz idatzi duten kasuista gehienek ez dute haren izakeraren ulertzerik ere, Aristotelesen maisutasunean oinarritu baitute hura, eta ez egiantzekotasunean, behar zen legez; egiantzekotasuna osotzen duten arrazoi zati bat baino ez baita maisutasuna.

(§ 67) FILALETES: Hona hemen, irizpide faltsu horien kausa arruntetariko batzuk. Lehenengoa ezjakitea da, bigarrena oharkabezia, gizakiak dakienaz hausnarketarik egiten ez duenean. Ezjakite itxurakoak eta presentek liluratzten du bai sena eta bai nahimena ere.

TEOFILO: Beti da presentea, baina ez beti itxurazkoa; zeren norbera ere ez da beti ohartzen dakienaz pentsatu behar duela premian dagoenean, batik bat oroimenaren jabe izanez gero oroitu beharrekoaz. Itxurazko ezjakitea beti doa oharren batekin nahasita itxurazko egiten den garaian; jarraian oharkabezia egon daitekeela ere egia da. Dakigunaz garaiz oroitzeko artea inbentatua balego, inportanteenatarikoa litzateke; baina ez dut uste orain arte gizakiok horren osagaiak eratzerik pentsatu ere egin dugunik, zeren hainbat idazlek jorratu duten oroimenaren artea guztiz bestelakoa baita¹²⁶.

FILALETES: Nahasian eta itsumustuan biltzen baditugu alderdi baten arrazoiak, eta zabarkeriaz alde egiten uzten baditugu emaitzan parte zuten hainbat batugai, erabateko ezjakitean egoteak bezainbeste irizpide faltsu eragingo ditu urdurikeria honek.

TEOFILO: Gauza asko behar da, izan ere, arrazoiak balantzaz pisatzerakoan egoki jokatzeko; merkatarien ipuin liburuetan bezalatsu gertatzen da. Ezin baitaiteke batzekorik gutxietsi, banan-banan kontuan hartzekoak dira denak, egokiro tolestu eta azkenik zenbaketa zehatza egin. Baina puntu asko alde batera uzten dira, batzuetan haietaz pentsatu ere egiten ez dugulako, besteetan gainetik baino begiratzen ez diegulako, bakoitzari bere balioa eman gabe; hala gertatu zitzaion kontu egile hari, zeinak arreta handiz kalkulatzeko baitzituen orri bakoitzeko zutabeak, baina zutabeen ezarri aurretik, lerro edo laukitxo bakoitzeko batuketa partikularrak oso oker kalkulatzeko zituen, eta horrela engainaturik zeuzkan nagusiki zutabeka aztertzen zuten kontu ikuskariak. Eta oro ongi markatuta egonda ere, zutabeetako batuketak biltzean huts egin dezakegu, bai eta batuketen batuketak biltzen dituen azken emaitzan ere. Beraz, oroitzeko artea beharko genuke eta probabilitateak neurtzekoa, eta gainera ongien eta gaizkien balioaren ezagutza, ondorioak ateratzeko artea egoki erabili ahal izateko: eta horiez guztiez gain, azkenera iritsi ahal izateko arreta eta eroapena ezinbestekoak genituzke. Gainera, bizkortasun tinko eta iraunkorra behar da erabakia gauzatzeko, eta trebeziak, metodoak, arau partikularrak eta ongi sendotutako ohiturak, erabakia hartzera eraman gaituzten kontsiderazioak izpirituan ez daudenean ere hari eten gabe eusteko. Egia da, halere, Jainkoari eskerrak, gehien axola zaigunean eta summam rerum¹²⁷ delakoari dagokionean, hots, zorionean eta miserian, ez direla hainbeste ezagutza, laguntza eta trebezia behar, nola beharko liratekeen egoki epaitzeko gudu edo estatu epaiketan, justizia epaitegian, osasun-aholkularitzan, edozein auzi

teologiko nahiz historikotan edo matematika edo mekanikazko edozein arazotan; baina horren ordain, adore eta ohitura gehiago behar da zorionari eta bertuteari dagokion puntu funtsezko honetan, beti erabaki onak hartu eta haiei eutsi ahal izateko. Laburbilduz, zinezko zorionerako ezagutza gutxiagorekin aski dugu, baina gogo zintzo gehiago behar da: hartara, ezjakinena ere iritsi daiteke hara, jakitunena eta trebeena bezain erraz.

FILALETES: Argi ikusten da, beraz, adimenak askatasunik gabe ez duela ezertarako balio, eta askatasuna adimenik gabe ez dela ezer. Norbaitek ikusterik izanen balu ongia eta gaizkia ekar liezaiokeena, berak urratsik ere ezin emanean batera hurbiltzeko ala bestetik urruntzeko, ikusmen hori izateagatik hobea izango al litzateke? Errukarriago bai, zeren alferrik akituko bailitzateke ongiaren atzetik, eta gaitz galarazi ezinaren ikaraz bizi izango litzateke; eta han hemenka iluntasun sakonean korrika ibiltzeko askatasuna duena, zertan dago haizeak noraezean astinduko balu baino hobeto?

TEOFILO: Apur bat asebateago egongo litzateke bere apeta, baina ez legoke ongia eskuratzeko eta gaizkia ekiditeko egoera hobean.

FILALETES: Hona hemen irizpide faltsuaren beste iturria. Eskura etorri zaigun edo ohituraren poderioz atsegin zaigun lehen atseginarekin askietsirik, ez dugu areago begiratzen. Gizakientzat irizpide okerra hartzeko abagune gertatzen da, beraz, euren zorionerako benetan ezinbestekoa dena halakotzat ez hartzea.

TEOFILO: Irizpide faltsu hau aurreko espeziearen baitan biltzen dela uste dut, ondorioei begira huts egiten dugunean.

(§ 69) FILALETES: Aztertzeko dago oraindik ea gizakiak alda dezakeen ekintza partikular bati darraion atsegina edo atsekabea. Zenbait kasutan lor dezake. Gizakiek euren dastamena hobetu ahal eta behar dute eta gustuak bereizten trebatu. Arimaren zaletasuna ere alda daiteke. Azterketa zehatzak, jokabideak, ihardunak eta ohiturak erakar dezakete ondorio hau. Horrela ohitzen gara usadioak edo ohiturak azkenik gustuko bihurtzen digun tabakora. Gauza bera gertatzen da bertutearekin: xarma bizia daukate ohiturek eta ezin ditugu kezkarik gabe alde batera utzi. Paradoxatzat har daiteke agian, gizakiak gai izatea zenbait gauza edo ekintza atseginago bilakatzeko, hain gara, izan ere, nagiak eginkizun honetan.

TEOFILO: Hauxe da, hain zuzen, gorago 37. paragrafoaren eta 47.aren azken lerroetan adierazi dudana. Zerbait nahi izatera behartu dezakegu geure burua eta horretara gustua moldatu.

(§ 70) FILALETES: Zinezko oinarri gainean eraikitako moralak bertutera soilik eraman gaitzake; aski da horretarako bizitzaren azkenean amaigabeko zoriona edo zoritxarra posible izatea. Onartu behar da betiko zorion posiblearen itxaropenean bizitza zintzoa hobea dela bizitza traketsa baino, berau miseriarik gorrienaren izuari lotuta badator, edota, gutxienik, deuseztua izateko itxaropen lazgarriari. Hau guztia begien bistakoa da zintzoak mundu honetako gaitzak xukatzera behartuta baleude ere, gaiztoak, aldiz, etengabeko zorionean bizitzera eta alderantziz gertatu ohi da; zeren gauza guztiak kontuan hartuz, bizitza honetan ere gaiztoek eurek daramate parterik txarrena.

TEOFILO: Beraz, hilobiaz haraindi ezer ez balego ere, bizitza epikurearra ez litzateke zentzuzkoena izango. Eta pozik hartu dut, jauna, 55. paragrafoan esandakoari zuk egindako zuzenketa.

FILALETES: Nor izan daiteke hain zoro (ongi pentsatuz gero) bere burua amaigabeko zorigaitz posiblearen arriskuan jartzeko erabakia hartzeraino, ezdeus hutsa baino ez daukanean irabazteko, ezdeus soilaren beldur, baina betiraun guztiko zoriontasunaren esperantzaz bizi den gizaki zintzo bilakatu orde? Etorkizuneko egoeraren segurantzaz edo probabilitateaz ez mintzatzen saiatu naiz, ez baitaukat gai honetan beste asmorik, norbere printzipioen arabera geure erruz sortzen diren irizpide faltsuak erakustea baino.

TEOFILO: Beste bizitzaren ezina sinestera joera dute gaiztoek. Baina euren arrazoi bakarra hau da, alegia, sentimenen bidez ikasitakora mugatu behar garela, eta ezagunik inor ere ez dela beste mundutik hona itzuli. Garai batean, antzeko printzipio batean oinarrituta, antipoden existentzia gaitzets zitekeen, matematikak nozio arruntekin lotu nahi ez zirenean; eta beste bizitza hori arbuiaitzeko gaurkoa bezain arrazoi eskasa zen ordukoa, egiazko metafisika ez baitugu irudipenaren nozioekin lotu nahi. Hiru nozio edo ideia maila daude: nozio arruntak, matematikoak eta metafisikoak. Antipodetan sinestarazteko ez dira aski lehenak; lehenak eta bigarrenak ez dira aski, halaber, beste munduan sinestarazteko. Egia da, bestalde, haien aldeko zantzuak eskaintzen dizkigutela; baina bigarrenak antipoden existentzia egiaztatzen baziguten orain haietaz dugun esperientzia baino lehen (ez naiz biztanleez ari lekuaz baizik, lurberaren ezagutzak ziurtatzen baitzuen geografoei eta astronomoei honen existentzia), azken nozioek antzeko ziurtasuna eskaintzen digute beste bizitza baten existentziari buruz orain, hura ikustera joan aurretik.

(§ 72) FILALETES: Itzul gaitzen orain atal honen gai nagusira, hau da, potentziara, askatasuna ez baita beronen espezie bat baino, nabarmenetarikoa bada ere. Potentziari buruz ideia bereziagoak edukitzeko, ez da lekuz kanpoko izango, ez eta alferrikako, ekintza deritzogunaren ezagutza zehatzagoa geureganatzea. Potentziari buruzko gure solasaren hasieran esan dut guk nolabaiteko ideiaz ezagutzen ditugun bi ekintza mota daudela soilik: mugimendua eta pentsamendua.

TEOFILO: Pentsamendua baino hitz orokorragoa erabil dezakegula uste dut, hots, pertzepzioa; pentsamendua izpirituei bakarrik egozten diegu, pertzepzioa, aldiz, entelekia orori. Ez diot, halere, inori ukatuko pentsamendu hitza orokortasun beronetan hartzeko askatasuna. Neronek ere agian noizbait oharkabea horixe egin baitut.

FILALETES: Bi gauza horiei egintza deitu arren, ez dagokie beti eta erabat izen hau; kasu batzuetan pasioak deitu beharko genieke. Kasu horietan, mugimenduaren edo pentsamenduaren kokagune den substantziak kanpotik hartzen du egintzaz ohartaraziko dion inpresioa, eta inpresio hau jasotzeko bere gaitasunaren poderioz dihardu soilik, eta hau potentzia pasiboa besterik ez da. Batzuetan substantziak edo subjektu egileak bere indar propioz ekiten dio, eta orduan da bereziki potentzia aktiboa.

TEOFILO: Lehen ere esan dut metafisika hutsean, substantziari funtsetik eta bere kabuz gertatzen zaiona egintzat hartuz gero, propioki substantzia den orok ekin besterik ez duela egiten, beragandik baitatorkio oro, salbu eta Jainkoa, ezinezkoa delarik substantzia kreatu batek eraginik izatea bestearengan. Baina egintza perfekzio ariketa gisa hartzen badugu, eta pasioa alderantzizkotzat, egiazko substantzietan egintza egongo da haien pertzepzioa (denei banatzen diedana) garatzen eta zehazten denean soilik, eta halaber, ez dago pasiorik, nahasiagoa izatera iristen denean baizik; halako moldez non, atseginerako eta oinazerako gai diren substantzietan, egintza oro atseginera baitago bideratuta, eta pasio oro oinazera. Mugimendua, berriz, fenomeno erreala baino ez da, zeren mugimenduari dagokion materia eta masa ez baita berariazko substantzia. Hala eta guztiz, badago mugimenduan egintzaren irudia, masan substantziaren irudia dagoen bezala; eta ikuspegi honetatik esan daiteke gorputzak eragiten duela bere aldakuntzan berezkotasunik dagoenean, eta jasaten duela besteren batek bultza edo eragotzi duenean; era berean, egiazko substantziaren zinezko akzioan edo pasioan beronen egintzat har dezakegu, eta berari egotzi, perfekziora daraman aldakuntza; orobat, pasiotzat har daiteke, eta kausa arrotz bati esleitu, alderantzizko joera duen aldakuntza oro; kausa hau arartegabekoa ez denean ere, zeren lehen kasuan substantziak berak eta, bigarrenetan, gauza arrotzek laguntzen baitigute aldakuntza ulergarri azaltzen. Gorputzei substantziaren eta egintzaren irudia baino ez diet ezartzen, zeren zatiz osotuta dagoena ezin baitezakegu substantziaz har zehazki mintzo bagara, artaldea substantziaz har

hartzen ez dugun modura; esan dezakegu, ordea, zerbait substantzialik badagoela bertan, eta hura izaki bat bilakatzen duen batasuna pentsamendutik dator.

FILALETES: Substantzia arrotzen baten eraginez ideiak edo pentsamenduak hartzeko posibilitateari pentsatzeko ahalmena deritzola uste nuen, nahiz eta funtsean potentzia pasiboa baino ez den, edota gaitasun soila, abstrakzio eginez irudi hartuarekin datozen hausnarketa eta barne-aldakuntzei, zeren ariman dagoen adierazpena ispilu bizian legokeenaren parekoa baita; baina ideia urrunekoak geure gustura gogoratzeko eta egokitze hartzen ditugunak elkarrekin alderatzeko gure ahalmena zinez da ahalmen aktiboa.

TEOFILO: Azaldu berri ditudan nozioekin bat dator hau, egoera perfektuagora igarotzeko bide baita. Baina, nire ustez, sentipenetan ere badago akziorik, pertzepzio bereziagoak eskaintzen dizkiguten heinean bai eta, ondorioz, hausnarketak egiteko eta, nolabait esan, geure buruak garatzeko aukera ere.

(§ 73) FILALETES: Gaur egun, uste dut, lehen ideia jatorrizkoak kopuru honetara murriztu daitezkeela, alegia: hedadura, solidotasuna, mugikortasuna, (hau da, potentzia pasiboa edo mugitua izateko gaitasuna) hausnarketa bidez izpiritura datozkigunak; eta gainera, existentzia, iraupena eta zenbakia, sentipenez zein hausnarketa bidez datozkigunak; ideia hauen bitartez, oker ez banago, adieraz dezakegu koloreen, soinuen, gustuen, usainen eta gure baitango ideia guztien izakera, non eta gure ahalmenak behar bezain sotilak diren sentipen horiek eragiten dituzten gorputz txikien mugimendu ezberdinen apertzepziorik izateko.

TEOFILO: Egia esan, hemen lehenak eta jatorrizkoak deritzen ideia horiek ez dut uste halako direnik inondik ere gehienen kasuan, ondorengo ebazpen baten gai direnetik, nire iritziz: baina ez dizut gaitzetsiko, jauna, horietara mugatzeagatik eta azterketa areago ez eramateagatik. Gainera, uste dut, azterketa bidez haien kopurua murrizterik bazegoela, baina gehitu ere ahal zirela, ideia berriak erantsiz, haiek bezain jatorrizkoak ala agian jatorrizkoagoak. Antolamenduari dagokionean, analisiaren ordenamenduaren arabera batzuk besteak baino lehenago daudela esango nuke, hala nola, zenbakia hedadura baino lehenago, iraupena motibitate edo mugikortasuna baino lehenago, nahiz eta eraketa analitikoa ez datorren bat haietaz pentsatzera garamatzaten aukeren ordenamenduarekin. Sentimenek hausnarketa gaiak hornitzen dizkigute eta beste ezertan pentsatuko ez bagenu, hots, sentimenek eskaintzen dizkiguten berezitasunetan, pentsamenduan beran ere ez genuke pentsatuko. Sinetsita nago arimak eta izpiritu kreatuak ez direla sekulan organorik gabe existitzen, ez eta sentsaziorik gabe, eta ezinezkoa litzaiekeela karaktererik gabe arrazoitzea. Bereizketa erabatekoaren defendatzaileek, eta arima askearen pentsakera adierazteazinekoak gure ezagupenentzat eta gure gaurko esperientzientzat ezezik gauzen ordenamendu orokorrari begira ere, defendatzaile horiek erraztasun gehiegi eskaini dizkiete ustezko libre-pentsatzaileei, eta jende askorentzat susmagarri egin dituzte egia-derrenak eta handienak, eta gauzen ordenamendu orokorrak damaigun hauen egiaztabiderik gabe geratu dira.

XXII

Modu mistoak

(§ 1) FILALETES: Modu mistoetara pasako gara orain. Espezie bereko ideia bakunez soilik osotutako modu bakunagoetatik bereizten ditut nik hauek. Gainera, modu mistoak ideia bakunen zenbait konbinaketa dira, eta ez ditugu ikusten existentzia finkoko ezein izaki errealean ezaugarri gisa, izpirituak elkarrekin bildutako ideia aske eta independente gisa baizik; horretan bereizten ditugu, hain zuzen, substantzien ideia konplexuetatik.

TEOFILO: Hau ongi ulertzeko, gogora ekarri behar ditugu zure aurreko zatiketak. Ideiak bakun eta konplexutan banatzen dituzu. Konplexuak substantziak, moduak edo erlazioak dira. Moduak bakunak dira (hots, espezie bereko ideia bakunez osotuak), edo

mistoak. Beraz, zure esanetan, ideia bakunak daude, moduzkoak (bakunak zein mistoak), substantziazkoak eta erlaziozkoak. Bana genitzake, agian, ideien objektu edo terminoak, abstraktu eta konkretutan: abstraktuak absolutuak izan daitezke edota erlazioen adierazle; absolutuak, atributuak edota aldakuntzak, batzuk zein besteak bakun ala konposatu izan daitezke. Konkretuak substantzian eta gauza substantzialetan banatzen dira, konposatuak batzuetan, substantzia egiazko eta bakunen emaitza besteetan.

(§ 2) FILALETES: Izpiritua erabat pasiboa da bere ideia bakunekiko eta hauek bereganatzen ditu, sentsazioak eta hausnarketak aurkezten dizkion heinean. Baina modu mistoei begira berez dihardu sarritan, zeren ideia bakunak konbina baititzake ideia konplexuak osotuz, kontuan hartu barik naturan horrela bilduta existitzen diren ala ez. Horra zergatik deritzegun ideia mota hauei nozioak.

TEOFILO: Baina ideia bakunetan pentsatzera garamatzan hausnarketa sarritan gogozkoa ere bada, eta gainera naturak burutu ez dituen konbinaketak berez sor daitezke ametsetan eta irudipenetan, oroimen soilez, izpirituak horretan ideia bakunetan baino parte gehiago hartzen ez duelarik. Nozio hitzari dagokionez, ideia edo ikuskera mota guztiei ezartzen dio hitz hau askok, jatorrizko nahiz eratorriak izan.

(§ 4) FILALETES: Izenak adierazten digu nolatan ideia zenbait bakar batean biltzen diren.

TEOFILO: Hori hala da, ideiak bil daitezkeen unetik; ideiak, ordea, ez dira beti bilgarri.

FILALETES: Adineko pertsona hiltzeak izenik ez duelarik, guraso-hilketak duen moduan, ez dugu horregatik lehena ideia konplexutzat hartuko.

TEOFILO: Adinekoaren hilketak izen berezirik ez dauka, baliagarritasun eskasekoa litzatekeelako, ez baitaio arautegian zigor berezirik ezarri hilketa horri. Ideiak, halere, ez daude izenen menpean. Moralista batek izena asmatuko balio hilketa horri eta gerontophoniari buruzko atal batean horri buruz idatziko balu, zaharrei zor zaiena erakutsiz, eta norainoko basakeria den haiek behar bezala ez zaintzea, ez liguke horregatik ideia berririk eskainiko.

(§ 6) FILALETES: Egia da, betiere, nazio baten ohitura eta usadioen hurbileko konbinaketak egitean, hizkuntza bakoitzak bere hitz partikularrak sortuko dituela eta hitzez hitz itzultzea ez dela beti posible izango. Horrela, grekoen ostrazismoa eta erromatarren proskripzioa ezin zuten gainontzeko hizkuntzek berba baliokide batez adierazi. Horrela gertatzen da ekandu berriek hitz berriak ekartzen dituztela.

TEOFILO: Zoriak ere badu hor eraginik, zeren frantsesek inguruko herriek bezainbeste erabiltzen dituztelarik zaldiak, hala eta guztiz, italiarren cavalcar hitzari zegokion antzinako esamoldea baztertu zutenetik, berau perifrasis azaldu behar dute: zaldiz ibili (aller à cheval).

(§ 9) FILALETES: Modu mistoen ideiak behaketaz lortzen ditugu, bi gizon borrokan ikusten ditugunean bezala; asmaketaz ere lortzen ditugu (hots, ideia bakunen borondatezko elkartzaz), adibidez, inprenta asmatu zuenak bazuen asmakizun horren ideia, arte hori existitzen hasi aurretik. Azkenik, sekulan ikusi gabeko ekintzei dagozkien hitzen azalpenen bidez lortzen ditugu ideia horiek.

TEOFILO: Lor daitezke, halaber, ametsetan edota ameskeriatan nahizko konbinaketarik gabe, hala nola ametsetan urrezko palazioak ikusten ditugunean, lehendik horretan inoiz pentsatu ez badugu ere.

(§ 10) FILALETES: Ideia bakunetarik aldatuenak hauek dira: pentsamenduarenak, higidurarenak eta ahalmenarenak; hauen bidez ulertzen ditugu ekintzak, eta gizadiaren funtsezko auzia ekintzan datza. Ekintza oro pentsamenduak dira edota mugimenduak. Ahalmena edo gizakiaren baitan dagoen zerbait egiteko gaitasuna guk ohitura deritzogun ideia da, ahalmen hori gauza bera sarritan eginez lortu denean; eta egintzara jaitsi ahal

dugunean, aurkezten zaigun aldi bakoitzean joera deitzen diogu; horrela samurtasuna adiskidetasunerako edo maitasunerako joera da.

TEOFILO: Samurtasun hitza hemen bihotz samurtzat hartzen duzula uste dut, baina maitasunaren koalitatetzat hartu ohi da samurtasuna, maitalea objektu maitatuaren ontasunetara eta gaitzetara oso sentibera bihurtzen duen koalitetea; honetaz ari bide da Samurraren gutuna Clélieren eleberri bikainean¹²⁸. Eta pertsona txeratsuek lagunurkoa nolabaiteko samurtasunez maite dutelarik, inoren ontasunetara eta gaitzetara sentibera dira. Eta gehienetan bihotz samurrekoek joera dute samurtasunez maitatzera.

FILALETES: Inoren aurrean larritu gabe nahi dena egiteko edo esateko ahalmena ausardia da; konfidantza honek grekoen artean izen berezia zuen, hitzaldiaren azkenaldikoa zenean.

TEOFILO: Ongi legoke hemen hitz bat ematea ausardia deritzogun nozioari, adiera ezberdinean erabiltzen baitugu sarri, hala nola Carlos Ausarta izendatzen dugunean. Larri ez sentitzea izpirituaren oldarra da, baina gaizkileek gehiegikeriaz jokatzeko dute horrekin, likiskeriarraino ere iristen direnean; lotsa, aldiz, ahulezia da baina zurigarri, are eta txalogarri zenbaitetan. Parrhsia hitzari gagozkiola, hau baita agian zuk aipatutako hitz grekoa, egia inongo beldurrik gabe azaltzen duten idazleei egozten zaie, kasu honetan ez baitaukate zertan larri sentitu jendaurrean mintzo ez direlarik.

(§ 11) FILALETES: Potentzia denez ekintza guztien iturri, kausa deritzegu ahalmen hauen kokaleku diren substantziei, potentzia egintzan gauzatzen dutenean; eta efektuak deritze bide honetatik ekoiztutako substantziei, hobe esan, ideia bakunei (hots, ideia bakunen objektuei), potentzia horren eraginez subjektu baten baitan sartu diren ideiei. Horrela, substantzia berria edo ideia (koalitate) bat ekoizten duen eraginkortasunari botere horren subjektu erabiltzailearengan ekintza deritza, eta ideia edo koaliteren bat aldatua edo ekoiztua geratu den subjektuarengan, pasioa.

TEOFILO: Ekintzaren iturritzat hartzen badugu potentzia, honek gaitasun edo erraztasun bat baino zerbait gehiago adierazten digu, beronen bidez azaldu baitugu ahalmena aurreko atalean; joera ere barnean hartzen du, behin eta berriz azpimarratu dudanez. Horregatik, eta adiera horretan, entelekia deitu ohi diot, eta berau izan daiteke jatorrizkoa, abstraktutzat hartutako arimari dagokionean, edo eratorria, conatus-ean, kemenean eta oldarkortasunean bururatzen dugun gisa. Kausa diogunean kausa eginkorraz ari gara hemen; baina uler daiteke azken kausa edo zio gisa ere, eskoletan oraindik kausak deritzen materia eta forma aipatu gabe. Ez dakit zilegi ote den esatea izaki berari egintza deritzola egilearen baitan eta pasioa pazientearenean, horrela aldi berean aurkitzen delarik bi subjektutan, erlazioa kasu, ala ez ote den hobe esatea bi izaki direla, bata egilearen baitan eta pazientearenean bestea.

FILALETES: Itxuraz egintzaren bat aditzera ematen duten zenbait hitzek kausa eta efektua baino ez dute adierazten, hala nola sorpenak ala deuseztapenak ez daukan egintzaren edota moduaren inongo ideiarik, kausarena eta eginarena soilik baizik.

TEOFILO: Kreazioaz pentsatzean, aitortzen dut ez dela bururatzen bertan gertatzen ez den ñabarduraren bat har dezakeen modurik; baina Jainkoaz eta munduaz baino zerbait gehiagoz mintzo garelarik, Jainkoa kausa dela uste baitugu eta mundua efektua, edota Jainkoak sortu duela mundua, egintzan ere pentsatzen dela agerian dago.

XXIII

Substantziei buruzko gure ideia konplexuak

(§ 1) FILALETES: Izpirituak aditzen du nolatan zenbait ideia bakun elkarrekin agertzen diren beti eta nolatan, gauza bat bakarrarenak kontsideratuak direlarik, izen batez soilik izendatuak diren, subjektu bakar baten baitan biltzen direnean... Horregatik, izatez elkarrekin bildutako ideia multzoa baino ez bada ere, jarraian oharkabeagatik, ideia bakun soila bailiran, haietaz mintzatzera behartuta gaude.

TEOFILO: Onartu ditugun esapideetan ez dut deus ikusten oharkabetasuntzat har daitekeenik; eta subjektu bakarra eta ideia bakarra ontzat eman arren, ez du horrek esan nahi ideia bakun soilak onartzen dugunik.

FILALETES: Ezin dugularik irudikatu nolatan ideia bakun horiek berez iraun dezaketen, euskarriren bat (substratum) ezarri ohi diegu; han diraute, handik datoz eta horregatik hari substantzia deritzogu.

TEOFILO: Horrela pentsatzeko arrazoi badagoela uste dut, eta horretara ohitu behar dugula, zeren lehendabizi subjektu bat beraren zenbait predikatu oharmentan baititugu, eta euskarri edo substratum bezalako hitz metaforikoek hori besterik ez dute esan nahi; beraz, ez dago zertan horretan eragozpenik eduki behar. Alderantziz, izpiritura datorkiguna concretum-a da gehienbat (hots, jakitun, bero, argitsu) eta ez abstrakzio edo koalitateak (horiek baitaude, eta ez ideiak, objektu substantzialesan), hau da, jakituria, berotasuna, argia etab. ulertzeko arrazoi zailagoak. Zailentzen jar daiteke, halaber, ea akzidente horiek benetako izakiak ote diren, sarritan erlazioak baino ez baitira. Gauza jakina da, baita ere, abstrakzioek sortzen dutela eragozpenik gehien arretaz aztertuz gero; ondorio dakite hau eskolastikoen ñabarduren jakitun direnek, hauen artean korapilotsuena bat-batean garbitzen baita izaki abstraktuak baztertu eta arrunki izaki konkretuek soilik mintzatzea erabakitzen dugunean eta frogak zientifikoetan subjektu substantzialak ordezkatzeko dituzten hitzak baino onartzen ez direnean. Horrela, koalitateak edo beste zenbait termino abstraktu gauzarik soilentzat hartzea, eta konkretuak guztiz zailtzat, nolabait esateko, modum quaerere in scirpo¹²⁹ litzateke, eta gauzak alderantziz ikustea.

(§ 2) FILALETES: Oro har, substantzia hutsaren nozioak ez daukagu, koalitateen euskarri bide den edozein subjektu erabat ezezagun baten nozioak ez daukagun bezala. Haurren modura mintzo gara; ezezaguna zaienaz zer den galdetzen diezu eta zerbait dela erantzunda pozik geratzen dira, baina era horretan adierazi nahi dute ez dakitela zer den.

TEOFILO: Substantziaren baitan bi gauza bereiztean, hots, atributu edo predikatuak eta predikatu horien guztien subjektua, ez da harrizkoa subjektu horretaz ezer zehatzik ezin bururatu izatea. Hala behar du, aurrez bereiziak baititugu xehetasunen bat ezagutzera eramanez gaitzaketen atributu guztiak. Beraz, oro har subjektu huts honetan gauza bat bera dela gogora ekartzeko behar dena baino gehiago eskatzea (adibidez, aditzen, gura izaten, amesten eta argudiatzen duena bat bera dela) ezinezkoa eskatzea litzateke eta suposizioari berari kontra egitea, abstrakzio egitean eta subjektua eta beronen koalitate edo akzidenteak bereizirik irudikatzean baitatza suposizioa. Ustezko eragozpen berau egotzi leke, era berean, izakiaren nozioari eta erabat garden edota jator den orori; galde baitiezaiekegu filosofoei ea zer ulertzen duten oro har izaki hutsa delakoa aipatzean; edozein ñabardura ukatzen diogularik, hain gutxi egongo da horretaz esateko, nola oro har substantzia hutsaz galdetzen dugunean hitzik gabe geratzen garen. Ez dut, beraz, uste filosofoak iraindu behar ditugunik, hemen egiten den legez, filosofo indiar harekin konparatuz, zeinari galdetu zitzaion ea zerk eusten zion lurrari eta berak erantzun: ; eta galdetu zitzaionean ea zerk eusten zion elefanteari: erantzun zuen; eta, azkenik, dortokari zerk eusten zion esatera behartu zutenean, ihardestera bortxatu zuten. Substantziari buruzko kontsiderazio honek pobrea iduri duen arren, ez da dirudien bezain hutsal eta antzu. Filosofiaren ikuspegi berria emarazteko gai diren garrantzi handiko ondorioak ateratzen dira hortik.

(§ 4) FILALETES: Substantziari buruz, oro har, ez daukagu ideia argirik, eta (§ 5) izpirituari zein gorputzari buruzkoa, bata bezain argia da bestea; zeren hain dago urrun gure pentsamenduetatik gorputzezko substantziaren ideia material, nola izpirituzko substantziarena. Legelari berriari jazotakoa gertatzen zaigu guri ere: honek doktoretza

ospakuntzan promotoreari ¹³⁰ zela esateko aldarri egiten zion, eta hark erantzun: Zuzen zaude, jauna, berdin baitakizu batean zein bestean.

TEOFILO: Objektuak onartzen ez duen ezaguerak eragiten du, nire aburuz, gure ezjakinaren ustea. Objektu baten nozio argi eta bereiziaren ezaugarri benetakoa berarekin egia asko a priori-zko frogen bitartez ezagutzeko dugun bidea da; lehendik ere erakutsia dut nik hau, Leipzigeako agirietan 1684.ean plazaratu zen egiei eta ideiei buruzko hitzaldian¹³¹.

(§ 12) FILALETES: Gure sentimenak behar hainbat zorrotzak balira, koalitete sentigarriak, urrearen kolore horia adibidez, desagertu egingo lirateke eta horren ordez atalen bilbapen miresgarria ikusiko genuke. Nabarmen agertzen da hau mikroskopiaetan. Oraingo ezaguera oraingo gure egoeraren araberrakoa da. Inguruko gauzen erabateko ezagutza ezein izaki finituaren eskumenetik kanpo dago agian. Gure ahalmenak aski dira gu Sortzailearen ezagutzara eta gure zereginez jabetzera eramateko. Gure sentimenak biziagoak balira, aldakuntza hori elkartezina litzateke gure naturarekiko.

TEOFILO: Hori guztia da egia eta jadanik horri buruz mintzatua naiz. Baina hala eta guztiz, kolore horiak errealitate izaten dirau, ortzadarrak dirauen moduan, eta itxuraz gure oraingoa baino askoz goragoko egoerara deituak gara, eta infinitura ere iritsi gaitzeko apika, zeren gorputzezko natura osagairik gabekoa baita. Atomoak baleude, gure idazleak noizbait sinetsi izan bide duenez, izakien ezagutze perfektua ez litzateke izaki finituaren eskumenetik kanpo egongo. Horrez gain, zenbait kolore edo koalitete begien bistatik desagertuko balitzaizkigu, gure ikusmena zorrotzu edota prestuagotu egin delako, beste batzuk sortuko lirateke, itxuraz: eta zolitasunaren areagotzea beharko genuke hauek ere desagertarazteko eta horrela jarraitu infinituraino, materiaren oraingo zatitzea zinez haraino iristen den modura.

(§ 13) FILALETES: Agian beste izpirituek gurekiko duten abantaila handietariko bat honetan datza, alegia, berez osa ditzaketela euren unean uneko asmoari ondoen doazkion sentipen organoak.

TEOFILO: Guk ere hala egiten dugu mikroskopiaok eraikitzerakoan; baina areago iris daitezke, agian, beste kreaturak. Eta geure begiak eraldatzerik izango bagenu, eta hauxe da, hain zuzen ere, egin ohi duguna hurbiletik ala urrunetik ikusi nahi dugunean, berauek baino zerbait egokiago beharko genuke eduki honen bidez hartara iristeko, zeren gutxienik ere oro mekanikoki gerta dadin behar baita, ezin du-eta izpirituak gorputzean artez ihardun. Gainera, nire ustez, gauzak hautemateko jeinuen erak badu geurearekin zerikusirik, nahiz eta haiek eduki Cyrano irudimentsuak¹³². Eguzkian zenbaezineko izaki aldakorrez osoturiko zenbait natura arimadunari egozten dien abantaila bitxia, hots, arimaren aginduz higitzean mota guztietako gorputzak gauzatzeko gaitasuna. Ez dago deus hain harrigarririk, naturaren mekanismoak egin ez dezakeenik; eta Elizako Aita jakintsuak zuzen zeudela uste dut aingeruei gorputzak egoztean.

(§ 15) FILALETES: Izpirituan aurkitzen ditugun pentsatzeko eta gorputza mugitzeko ideiak hain garden eta bereiz burura ditzakegu, nola hedadurarenak, solidotasunarenak eta higikortasunarenak, eta hauekin materialian egin ohi dugu topo.

TEOFILO: Pentsamenduaren ideia dagokionean bat nator zurekin. Baina gorputzak higitzearen ideiaz ez naiz iritzi horretakoa, zeren nire aurrezarritako harmonia-sistemaren arabera, gorputzak daude halako moldez eginak non, mugimenduan abiatuz gero, berez jarraitzen diote izpirituaren ekintzen eskakizunei erantzun. Hipotesi hau ulergarri egiten zaigu, bestea ez.

FILALETES: Sentsaziozko ekintza bakoitzak era berean garamatza aztertzerako gorputzaren zein izpirituaren gaiak; zeren ikusmenak eta entzumenak niganik kanpo gorputzezko

izakiren bat dagoela ezagutarazten nauten bitartean, arik eta modu seguruagoan dakit badela nire baitan ikusten eta entzuten duen izaki izpiritualen bat.

TEOFILO: Oso ondo esana, eta guztiz da egiazkoa izpirituaren existentzia ziurragoa dela objektu sentigarriena baino.

(§ 19) FILALETES: Ez izpirituek ez gorputzek ezin dute ihardun dauden tokian baino, eta garai ezberdinetan eta leku ezberdinetan; hartaz, ezinbestean egotzi behar diot leku aldaketa izpiritu finitu orori.

TEOFILO: Eta nire ustetan arrazoiz, lekua ez baita koexistenteen ordenamendua baino.

FILALETES: Heriotzagatiko gorputzaren eta arimaren bereizketaz hausnartzea aski da arimaren higiduraz konbentzitura egoteko.

TEOFILO: Arimak gorputz nabarmengarri honetan aritzeari utz liezaioke; eta bere esku balego pentsatzeari erabat uztea, gure idazleak gorago defenditu duenez, bere gorputzetik bereiz iraun zezakeen, beste bati lotu barik; era horretan bereizketa higidurarik gabea litzateke. Baina sinetsita nago neure baitan beti pentsatzen eta sentitzen duela, beti dagoela gorputz bati lotuta, are eta ez duela sekulan erabat eta bat-batean uzten berarekin bat egiten duen gorputza.

(§ 21) FILALETES: Inork esan nahi badu izpirituak ez daudela in loco sed in aliquo ubi¹³³, mintza molde hori ez da gaurregun, nire ustetan, batere zentzuzkoa. Eta norbaitek uste badu zentzuzkoa dela, adieraz beza, otoi, mintzaira arrunt eta ulergarrian eta erakar beza handik izpirituak higitzeko gai ez direla frogatzeko arrazoiren bat.

TEOFILO: Hiru ubitasun edo nonbait existitzeko eraz mintzo dira eskolak. Lehenengoari zirkunskriptiboa deritzo eta espazioan dauden gorputzena da; bertan punctatim daude eta neur ditzakegu, han dagoen gauzaren puntuak espazioko puntuei dagozkiekeen heinean. Bigarrenari definitiboa deritzo, bertan definitu, hau da, zehaztu baitaiteke gauza kokatua halako espazioan dagoela, ezin eman zaiolarik puntu zehatz edota leku propiorik han dagoenari bereziki. Horrela ebatzi da arima gorputzean dagoela, baina arima hori edo arimaren zerbait dagoen puntu konkreturik ezin da zehaztu, beste edozein puntutan ere egongo baitzen. Horrela pentsatzen du oraindik jakintsu askok. Egia da Descartesez estuago mugatu nahi izan duela arima berau guruin pinealean propio kokatuz¹³⁴. Ez da, baina, ausartu guruin horren zein puntu zehatzean kokatzen den esatera; ez dugu, beraz, ezer berririk jakin eta gorputz osoa presondegi edo kokalekutat egotzen zitzaionean bezalatsu gaude. Eta arimez buruz dioguna aingeruei buruz ere gauza bertsua esan behar dela uste dut, hauek, Aquinoko doktore handiak dioenez, ez baitaude leku batean, ez bada ihardunez¹³⁵ eta ihardun hau, nire ustetan, ez da arartegabekoa, harmonia aurrezarrira murriztua baizik. Hirugarren ubitasuna beteginekoa (réplétive) da eta Jainkoari egotzen zaio, berak unibertso osoa betetzen baitu, izpirituek gorputzak betetzen dituzten baino molde gorenagoz, kreatura ororengan ararte gabe baitihardu etengabeen sortuz; izpiritu finituei, aldiz, ezinezko zaie arartegabeko eraginez edo ihardueraz baliatzea. Ez dakit nik eskolen doktrina hau lotsagarri uztea merezi duen, orain egiten ari bide direnez. Nolanahi dela ere, beti egotzi ahal izango zaie higidura motaren bat arimez, loturik dauden gorputzekikoa bederen, edota euren pertzepzio moduari dagokionean.

(§ 23) FILALETES: Norbaitek esango balit ez dakiela nola pentsatzen duen, zera erantzungo nioke, alegia, osotasun hedatua gauzatzeko gorputzaren atal solidoak nolatan elkar lotzen diren ere ez dakiela.

TEOFILO: Kohesioa adierazteko badugu aski eragozpen; baina atalen arteko kohesio hau ez dirudi ezinbestekoa denik osotasun hedatua egiteko, zilegi baita esatea materia guztiz sotil eta jariakorrak izaki hedatua osatzen duela, atalak elkarri lotuta egon gabe. Baina egia esateko, erabateko jariotasuna lehen gaiari soilik dagokiola uste dut, hots, abstrakzioz eta jatorrizko tasun gisa, hala nola atsedena den; baina ez bigarren gaian,

egiaz aurkitzen den gisa, bere koalitate eratorriekin, zeren ez baitut uste existitzen denik masarik sotiltasun gorenera iristen denik, eta nonahi dagoela uste dut lotura mailaren bat; lotura hau mugimenduetatik dator, hauek elkartu ondorengo askapenean lorrintzen direlako, eta hau ezinezkoa da nolabaiteko bortxa eta erresistentziarik gabe. Horrez gain, pertzepzioaren izaerak, eta ondorioz pentsamenduarenak, noziorik jatorrizkoenatariko bat hornitzen digu. Eta uste dut unitate substantzialen edo monaden doktrinak argi egingo digula horretan.

FILALETES: Kohesioa esplikatzeko gainazaletara jotzen dute batzuek, hauen bitartez elkar ukitzen baitute bi gorputzek, ingurugiroak (aireak, adibidez) bata bestearen kontra bultzatzen duenean. Egia da, baita ere, ingurugiroko presioak (§ 24) eragoz dezakeela bi gainazal leun elkarrengandik aldentzea perpendikularra zaien lerrotik; ezingo ditu, baina, eragotzi gainazal horiei paralelo zaien higiduraz separa daitezen. Horregatik, gorputzen kohesioaren beste kausarik ez balego, aise bananduko genituzke haien atal guztiak alboz irristaraziz, materia multzoren bat ebakiko lukeen edozein plano bidez.

TEOFILO: Bai, zalantzarik gabe, atal lau guztiak, elkarren kontra jarriak, plano berean ala plano paralelotan baleude; ez da, baina, horrela gertatzen ez eta gertatzen ahal; argi dago, beraz, batzuk irristarazten ditugularik, guztiz bestelakoa izanen dela beste askorengan eragina, hauen planoak lehenengoarekin angelu egiten duenean; gauza jakina baita nekeza dela bi gainazal kongruente elkarrengandik bereiztea, bereizte higiduraren norabidea perpendikularra denean ezezik, gainazalekiko zeiharra denean ere. Baiezta dezakegu, beraz, izadiak mehatzetan eta beste lekutan sortu dituen forma poliedrikoak norabide orotan elkarri erantsitako xaflez osatuak daudela. Aitortzen dut, halere, elkarren kontra erantsitako gainazal lauen gain ingurugiroaren presioa ez dela aski kohesio osoaren funtsa azaltzeko, zeren tazitoki onartzen baita elkarri erantsitako xaflatxo horiek jadanik kohesioa dutela.

(§ 27) FILALETES: Gorputzaren hedadura atal solidoen arteko kohesioa baino ez zela sinetsita nengoen.

TEOFILO: Ez dut uste bat datorrenik hori aurreko zure adierazpenekin. Nire ustez, bere baitan barne mugimenduak dituen gorputzak, edota atalak elkarrengandik askatzen ari zaizkion gorputzak (eta beti hala gertatzen dela uste dut), ez dio horregatik hedatua izateari uzten. Beraz, hedaduraren nozioa eta kohesioarena guztiz ezberdintzat dauzkat.

(§ 28) FILALETES: Gorputzari buruz daukagun beste ideia bat da bulkada bidez higidura komunikatzeko ahalmena; eta arimari buruzko beste hau, pentsamendu bidez higidura eragiteko ahalmena. Esperientziak nabarmenki dakarzkigu egunero bi ideia hauek; baina sakonago aztertu nahi badugu, eta hala gertatzen zaigu, berriro aurkitzen gara ilunpean. Higiduraren komunikazioaz, gorputz batek besteak harengandik hartzen duen adina higidura galtzen duenean, eta hauxe da kasurik arruntena, batetik bestera pasatzen den higidurari soilik erreparatzen diogu; eta hau, nire ustez, hain da ilun eta pentsaezina, nola gure izipirituak higi ala geldiarazi dezakeen gure gorputza pentsamendu bidez. Are eta zailago da oraindik azaltzea egoera batzuetan gertatzen bide den edota ikusten omen den bulkada bidezko higidura gehitzea.

TEOFILO: Ez nau batere harritzen eragozpen gaindiezinak aurkitzeak zerbait hain pentsaezina aditzera ematerakoan; halakoxea baita akzidente baten iragapena ere subjektu batetik bestera; baina ez dakusat zerk bortxa gaitzakeen eskolastikoen beste hura bezain suposizio bitxira, subjekturik gabeko akzidenteena, alegia; haiek, ordea, ahalguztu jainkozkoaren ekintza mirakulotsuari atxikitzeko ardura hartu dute, hemen, aldiz, higiduraren iragapenari arrunta deritzote. Gorago ere honi buruz esana utzi dut (21. atala, 4. paragrafoa) ez dela egia gorputzak besteari ematen dion adina higidura galtzen duenik; higidura zer substantzialtzat hartzen dugula dirudi, urtutako gatzaren

antzeko bailitzan, eta hauxe da, oker ez banago, Rohaut jaunak¹³⁶ darabilen konparaketa. Esan beharra daukat, orobat, ez dela hau kasurik arruntena, zeren frogatu baitut beste nonbait higidura kantitate berari eusten zaiola topo egiten duten bi gorputzak topaketa aurretik norabide berean doazenean eta topaketa ostean ere norabide berean dirautenean. Egia da, halaber, higiduraren benetako legeak materiaz gaineko kausa batetik eratorriak direla. Pentsamendu bidez higidura eragiteko ahalmenari buruz ez dut uste ideiarik dugunik, horretaz esperientziarik ere ez daukagun heinean. Kartesiarrek beraiek ere aitortzen dute arimek ezin diotela indar berririk erantsi materiari, uste duten arren lehendik duen indarrari determinazio edo norabide berria ematen diezaioketela. Nik, aldiz, defendituko dut arimek ez dutela zipitzik aldatzen gorputzen ez indarrean, ez norabidean; bata bezain funtsik gabea eta pentsaezina litzatekeela bestea ere, eta arima eta gorputzaren lotura esplikatzeke aurrezarritako harmoniara jo behar dugula.

FILALETES: Ez litzateke gure ikerketa esparrutik kanpo egongo aztertzea ea ahalmen aktiboa izpirituaren atributu propioa den eta ahalmen pasiboa gorputzena. Hortik susma zitekeen izpiritu sortuak, aktiboak eta pasiboak izaki, ez daudela materiatik erabat bereiz; baina izpiritu hutsa, hau da Jainkoa, aktiboa delarik soilik, eta materia hutsa pasibo soila, pentsa liteke beste izaki horiek, aktibo eta pasibo biak batera direnak, batean zein bestean parte hartzen dutela.

TEOFILO: Atseginez entzuten ditut ideia hauek, guztiz bat baitatoz neure pentsamoldearekin, baldin eta izpiritu hitzari aski orokortasun ezartzen badiogu bere baitan arima guztiak biltzeko, are eta (orokorkiago mintzatuz) izpirituekiko analogia duten entelekia edo batasun substantzial oro bereganatzeko.

(§ 31) FILALETES: Norbaitek erakus diezadan gustatuko litzaidake ea izpirituari buruzko gure nozioan zerbait nahasiagorik edota kontraesanetik hurbilagorik dagoen gorputzari berari buruzko nozioak berekin daukana baino, eta zatigarritasun infinituaz ari naiz.

TEOFILO: Izpirituaren izaera gorputzarena bezainbeste edo areago ulertzen dugula adierazteko orain diozuna zinez da egia, eta Fromondusek¹³⁷. De la compositione continui buruzko liburua idatzi zuenean arrazoi osoz izenburu hau eman zion: Labirinto. Hori guztia dator nola gorputzaren hala espazioaren izaerari buruz daukagun ideia faltsutik.

(§ 33) FILALETES: Jainkoari buruzko ideia bera ere besteak bezala sortzen da, zeren Jainkoari buruz daukagun ideia konplexua hausnarketa bidezko ideia bakunez osotzen baita hauek infinituari buruzkoaz hedatzen ditugularik.

TEOFILO: Horri buruz ikus lehendik ere hainbat aldiz azaldu dudana, froga nahian ideia horiek guztiak, eta Jainkoarena bereziki, jatorriz daudela gure baitan eta horretaz jabetu besterik ez garela egiten, eta batez ere infinituaren ideia ez dela inondik ere gauzatzen ideia finituen hedapenez.

(§ 37) FILALETES: Substantziei buruzko gure ideia konplexuak osotzen dituzten ideia bakun gehienak, ongi aztertuz, ahalmenak baino ez dira, guk koalitete positibotzat hartzeko joera bortitza izanagatik.

TEOFILO: Nire ustez, substantziari esentzialak ez zaizkion ahalmenak, eta gaitasun bat soilik ezezik nolabaiteko joera ere berekin dutenak, hauek dauzkagu, hain zuzen, edo eduki beharko genituzke koalitete errealtzat.

XXIV

Substantzien ideia kolektiboak

(§ 1) FILALETES: Substantzia bakunen ostean, pasa gaitezen substantzia erantsietara. Ez al da egia armada osotzen duten gizon multzoaren ideia gizon batena bezain ideia bakarra dela?

TEOFILO: Zuzen gaude zera esatean, alegia, multzo honek (ens per aggregationem, Eskolaren hitzetan) ideia bakarra egiten duela, nahiz eta, egokiro mintzatuz, substantzien pilatze honek ez duen egiaz substantzia bat osotzen. Arimak bere pertzepzioz eta pentsamenduz emaitza honi ematen dio azken batasun-ebazpena. Zerbait substantziala dela esan daiteke nolabait, hau da, bere baitan substantziak biltzen dituela.

XXV

Erlazioa

FILALETES: Errealitatean pobreenak diren erlaziozko ideiak geratzen zaizkigu aztergai. Izpirituak gauza bat bestearen ondoren erreparatzen duenean erlazio edo erreferentzia baten aurrean gaude eta handik sortzen diren izendapenak edo termino erlatiboak gure pentsamendua gaiaz haraindi zerbait ezberdinerara eramateko balio duten hainbat ikurren gisakoak dira, eta bi hauei deritze erlazioaren subjektuak (relata).

TEOFILO: Erlazioek eta ordenek arrazoizko izakien zerbait daukate, haien oinarria gauzetan badatza ere; zeren esan baitaiteke haien errealitatea, egia betierekoena eta posibilitateena bezala, arrazoi gorenetik datorrela.

(§ 5) FILALETES: Gerta daiteke, haatik, erlazio aldaketa bat, subjektuarengan inolako aldaketarik gabe. Gaur nire aitatzat daukadan Titusek aita izateari utziko dio bihar, beragan inongo aldaketarik gabe, semea hil zaiolako, beste barik.

TEOFILO: Hori oso ongi esan dezakegu hautematen ditugun gauzei dagokienez; metafisikaren ikuspegi estutik egia da, ordea, ez dagoela inongo izendapenik erabat kanpoko denik (denominatio pure extrinseca) gauza guztien artean dagoen lotura errealagatik.

(§ 6) FILALETES: Uste dut erlazioa bi gauzen artean soilik gertatzen dela.

TEOFILO: Gauza zenbaiten artean aldi bereko erlazioaren hainbat adibide daude, hala nola, ordenaren edota zuhaitz genealogikoaren erlazioarena, bertan azaltzen baita termino edo kide guztien maila eta lotura; poligonoaren irudiak ere bere alde guztien arteko erlazioa biltzen du bere baitan.

(§ 8) FILALETES: Kontuan hartzekoa da, baita ere, erlazioei buruzko ideiak sarritan argiagoak direla erlazioaren subjektu diren gauzenak baino. Aitaren erlazioa, kasu, argiagoa da gizonarena baino.

TEOFILO: Hala gertatzen da erlazio hori beste hainbat substantziei ere dagokiekeelako. Bestalde, subjektuak alde argia eta alde iluna eduki ditzakeelarik, erlazioak alde argian oinarri har dezake. Baina erlazioaren formak berak subjektuaren alde ilunaren ezagutza bereganatzen badu, orduan erlazioak ere parte izango du iluntasun horretan.

(§ 10) FILALETES: Termino edo hitza egozten zaion gauzan benetan existitzen omen diren ideietara ezezik, izpiritua halabeharrez beste ideia batzuetara daramaten terminoak erlatiboak dira; gainontzekoak absolutuak.

TEOFILO: Oso egoki ekarria halabeharrez hitza, eta ondo legoke, halaber, espreski ala lehenik, zeren adibidez, kolore beltzean pentsa dezakegu, berorren kausan pentsatu gabe; baina lehenik aurkezten den ezagutzaren mugetan geratuz, ezagutza nahasia edota ongi bereizia, bestalde, baina osagabea; bata ideia erabaki punturik ez dagoenean, bestea ideia mugatzen dugunean. Hala ez balitz, ez dago termino hain absoluturik, hain askerik, non erlazioak biltzen ez dituen bere baitan, eta beronen azterketa erabatekoak beste zenbait gauzataraz edota gauza orotara eramaten ez gaituen, halako molde ezean zilegi baitzaigu esatea termino erlatiboek zehatz-mehatz adierazten dutela barnean daukaten erlazioa. Absolutu hitza erlatibo-ri kontrajartzen diot hemen; beste adiera batez ari nintzen goraxeago mugatu-ren aurkako jarri nuenean.

XXVI

Kausa eta efektua eta beste zenbait erlazio

(§ 1, 2) FILALETES: Ideia bakun edo ez-nahasia eragiten duena kausa da, eta hark eragindakoa efektua.

TEOFILO: Argi dago, jauna, ideiatzat hartzen duzula maiz ideiarene errealtate objektiboa edota hark irudikatzen duen koalitategia. Lehen ere esan dut kausa erazlea baino ez duzula era horretan definitzen. Eta aitortu beharra dago zera esatean, alegia, kausa erazlea eragiten duena dela eta hark eragindakoa efektua, sinonimoak erabili besterik ez dugula egiten. Egia da, baita ere, zehazkiago beste hau ere entzun dizudala, alegia, kausa dela beste zerbait existitzearen hasteari eragiten diona, nahiz eta eragin hitzak zailtasun nagusia bere horretan utzi. Aurrerago azalduko dugu hori argi.

FILALETES: Beste zenbait erlazio ere ukitu nahian, aipatu nahi dut hemen denbora izendatzeko badaudela termino batzuk, ideia positiboen adierazle gisa soilik erreparatu ohi diegunak, ideia erlatiboak izan arren, hala nola, gazte, zahar, etab., zeren egozten zaien substantziarekiko iraupen arruntaren erreferentzia hartzen baitute barnean. Horrela esan ohi zaio norbaiti gaztea dela hogeitertekin, eta oso gazte zazpi urtekoari. Baina hogeiterteko zaldia eta zazpi urteko txakurrari zaharrak deritzegu. Eta eguzkia eta izarrak, errubia eta diamantea zaharrak ala gazteak diren ez dugu esaten, euren iraupenaren gora-beherak ezagutzen ez ditugulako (§ 5). Berdin gertatzen da lekuari eta hedaturari dagokionean, hala nola, zerbaiti buruz garaia ala baxua, handia ala txikia dela diogunean. Horrela, Galesko bati handia leritzokeen zaldia flandiar batentzat txikia izan daiteke; nork bere herrialdeko zaldietan pentsatuko du.

TEOFILO: Ohar bikainak dira horiek eta zuzen zaude sarri ahazten ditugula diogunean; esaterako, zerbaiti zaharra deritzogunean ez bere espeziekieekin alderatuz, beste espeziekiekin baizik. Horrela, esan ohi dugu, adibidez, mundua edota eguzkia oso zaharrak direla. Norbaitek galdetu zion Galileori ea bere ustetan eguzkia betikoa zen. Berak erantzun: eterno nò, ma ben antico.

XXVII

Zer den identitatea, zer ezberdintasuna

(§ 1) FILALETES: Ideia erlatiboetarik garrantzitsuenetarikoak dira identitatea eta ezberdintasuna. Ezin ikusi, ezin burura dezakegu ahalgarri denik espezie bereko bi gauza aldi berean eta leku berean existitzea. Horregatik gauza bat bera den ala ez galdetzen dugunean, beti ari gara garai zehatz batean, leku zehatzean existitzen den zerbait; ondorio hau ateratzen da hortik, alegia, gauza berak ezin dituela existentziara hasiera bi eduki, ez eta bi gauzek hasiera bat, denborari eta lekuari dagokionez.

TEOFILO: Denbora eta leku ezberdintasunaz gain beti da beharrezkoa bereizketazko barne-printzipioa; eta espezie bereko gauza ugari egon arren, beti izanen da egia ez direla sekula erabat antzeko; horrela, denboraz eta lekuaz (hots, kanpokoarekiko erreferentziaz) baliatzen garen arren berez bereizten ez ditugun gauzak bereizteko, gauzak beti dira berez bereizgarri. Identitatearen eta ezberdintasunaren funtsa ez dago beraz denboran eta lekuan, nahiz eta egia izan gauzen ezberdintasunarekin zerikusirik baduela denborarenak eta lekuarenak, gauzari buruzko inpresio ezberdinak aurkezten dituztelako hauek. Edota esan beharko da, agian, gauzek egiten ditutela leku bat edo denbora bat bestetik bereizgarri, berez erabat antzeko direlako, ez baitira substantzia edo errealtate oso. Hemen espezie bereko gauzen artean bereizteko modu bakartzat aurkezten bide duzuna baldintza honetan dago oinarrituta, alegia, sarkortasuna ez datorrela bat naturarekin. Zentzuzko aiherra da, baina esperientziak erakusten digu ez garela horretara mugatu behar, bereizteaz ari garenean. Bi errainu edo argi izpi ikus ditzakegu, adibidez, elkar barneratzen dutenak, eta irudika genezake geure baitan alegiazko mundu bat, non gorputzek gauza bera egin lezaten. Hala eta guztiz, izpi bat bestetik bereiztekoan norabidea ez dugu inolako eragozpen, ez eta gurutzatzen diren unean ere.

(§ 3) FILALETES: Eskoletako banakotze printzipioa, zertan datzan jakin nahiak hainbeste buruhauste ekarri duena, existentzia bera baino ez da, zeinak izaki bakoitza denbora bereizi batean eta espezie bereko izakiekin banatu ezineko lekura mugatzen duen.

TEOFILO: Banakotze printzipioak banakoetan aipatu berri dudan bereizketa printzipioak bezelako balioa du. Bi banako erabat antzeko eta berdina balira, hots, berez bereiztezinak, banakotze printzipiorik ez legoke; are eta esatera ausartuko naiz, baldintza horretan ez dagoela banako bereizketarik, ez banako ezberdinik. Horra zergatik atomoen nozioa ametsezkoa den, giza burutapen osagabeek sortua. Ezen atomorik balego, hau da, gorputz perfektuki gogorak eta perfektuki aldaezinak, edota barnetik aldaezinak, elkarrengandik tamainan eta idurian soilik bereizgarriak, iduri eta tamaina berdina eduki ahal izatean, begi bistan dago kasu horretan ere berez elkarrengandik bereiztezinak liratekeela, eta bereizteko bide bakarra barne-funtsik gabeko kanpo izendapenak lirateke, eta hau arrazoiaren printzipiorik nagusien kontrakoa da. Baina egia honetan datza, alegia, gorputz oro dela aldagarri eta gainera uneoro aldatuz doala, halako moldez ezen gainontzeko orotatik bereizten baita berez.

Gogoan dut, lorategian paseatzen ari zen izpiritu goreneko printzesa bikain batek¹³⁸ nolatan esan zuen behin ez zuela berak uste bi orri erabat antzeko izan zitezkeenik. Lagunarteko gizon jakintsu batek pentsatu zuen aise aurkituko zituela; baina biziki saiatu arren, bere begiez etsitu zen alderen bat beti zegoela. Gaur egun hain balio eskasa ematen zaien burutapen hauen bidez ikus dezakegu filosofia noraino urrundu den noziorik naturalenetatik, eta nolatan aldendu den benetako metafisikaren printzipio handietatik.

(§ 4) FILALETES: Bizitza komunean parte hartzen duen gorputz bateko atalen antolaketak eratzen du landare bat beraren batasuna (identitatea), eta landarea bizi den artean irauten du honek, atalez aldatu arren.

TEOFILO: Nik monada deritzodan bizi-printzipio subsistenterik gabe antolaketa edo taxukera ez litzateke aski idem numero edo banako bera irauteko; zeren taxukerak berariz iraun baitezake, indibidualki iraun gabe. Zaldi-ferra kobre bihurtzen denean hungariar ur mineral baten eraginez, espeziean irudi berak dirau, ez oster banakoan; zeren burdina disolbatzean, uretan inpregnatuta dagoen kobrea prezipitatu egiten baita eta haren lekua oharkabea betetzen du. Irudia, izan ere, akzidente bat da subjektu batetik bestera pasatzen ez dena (de subjecto in subjectum). Esan behar da, beraz, nola gorputz antolatuak, hala beste hainbat, itxuraz soilik dirautela berberak, ez zehazki mintzatuz gero. Beti urez aldatzen ari den ibai baten gisakoa da gutxi gora-behera, edota atenastarrek eten gabe konpontzen ziharduten Teseoren itsasuntziaren antzekoa¹³⁹. Baina beren baitan batasun substantzial erreala eta egiazkoa daukaten substantziei dagokienez, eta hauenak dira berez bizi-ekintzak, eta antzinako legelari baten hitzetan¹⁴⁰ quae uno spiritu continentur izaki substantzialei dagokienez, hots, nolabaiteko izpiritu zatiezin batek biziarazten dituenek, arrazoiz esan ohi da banako berbera dirautela erabat, pentsatzen duten substantzietan nia eraikitzen duten anima edo izpiritu horren bidez.

(§ 5) FILALETES: Abereengandik landareetara arazoak ez du alde handirik.

TEOFILO: Landareek eta abereek arimarik ez badaukate, euren identitatea itxurazkoa baino ez da; baina eduki baldin badaukate, euren banakako identitatea, zehazki mintzo, benetazkoa da euren gorputz antolatuek eduki ez arren.

(§ 6) FILALETES: Horrek erakusten digu, halaber, zertan datzan gizaki beraren identitatea, alegia, bizitza berberaz gozatzean soilik, gero etengabeko isurian ari diren materialazko partikulez jarraitua, aldi horretan gorputz antolatu berari biziaren itsatsita dauden partikulak badira ere.

TEOFILO: Neuk esandakoaren arabera uler daiteke hori. Gorputz antolatua, izan ere, ez da berbera une batez baizik; hortik aurrera baliokidea baino ez da. Eta arimari erreparatzen ez bazaio, ez luke bizi bera ere edukiko, ez eta bizitzazko batasuna ere. Beraz, identitate hau itxurazkoa litzateke soilik.

FILALETES: Gizakiaren identitatea une zehatz batean ongi antolatutako gorputza ez den zerbaiti egozten dion edonork, eta harrezkero bizitzazko antolaketa horri eusten dion gorputzari itsatsita dauden partikulen jarraiatatik, edonor horrek zinez saiatu beharko du ondokoa ulertzen, alegia, ernaberria eta gizaki heldua, zoroa eta jakintsua, gizon bera dela, suposaketa honetatik ezin atera dezakegularik ondorioztat Seth, Ismael, Sokrates, Pilato eta Agustin deuna gizon bat bera izan daitezkeenik... Are eta bateragaitzago litzateke hau transmigrazioa onartzen duten filosofoen nozioekin, hauen ustez gizakien arimak euren gehiegikeriengatik zigortuak izan baitaitezke abereen gorputzetara aldatzera; zeren, Heliogabaloren arima zerri baten baitan dagoela etsi-etsian sinesten duen inor ez baitut nik uste zerri hori gizakia dela esatera iritsiko zenik, are gutxiago Heliogabalo bera.

TEOFILO: Hitz arazoa dago horretan guztian eta objektu arazoa. Objektuari dagokionez, banakako substantzia bat beraren identitatea arima bat beraren iraupenaz bakarrik gorde daiteke, zeren gorputza etengabeko isurian ari baita eta arima ez dago berarentzat egindako atomo txiki batzuetan kokatuta, ez eta hautsi ezinezko hezurtxoan, errabinoen luz delakoan kasu¹⁴¹. Hala eta guztiz, arima bere gorputza erabat utzi eta beste batera aldatuko duen transmigrazio motarik ez dago. Herio ostean ere aurrekoaren zati den gorputz antolatuari eusten dio arimak, gorputz hori betiere ezarian deusezgarri izanda ere, edota indarberri daitekeen arren, edo aldi batez aldakuntza sakona jasan dezakeen arren. Beraz, arimaren transmigrazioa barik, transformazioa gertatu da, inboluzioa, eboluzioa, azken finean arima horren gorputzaren fluxioa. Van Helmont semeak¹⁴² uste zuen arimak gorputzetik gorputzera iragaten direla, espezie beretik irten gabe, horrela beti espezie bereko arima kopuru berak iraungo duelarik, beraz, giza eta otso kopuru berbera, eta otsoak Ingalaterran urritu edo desagertu badira, beste horrenbeste ugalduko ziren beste nonbait. Frantzian argitara emandako gogoeta batzuk¹⁴³ ildo honetatik dabilzala dirudi. Transmigrazioa zentzu zehatzean hartzen ez badugu, hau da, sinetsiko bagenu arimek gorputz sotil berean dirautela eta gorputz baldarretatik soilik aldatzen direla, orduan bai ahalgarri litzateke arimaren iragaitea espezie ezberdineko gorputzera, brahmanen eta pitagorikoen modura. Baina ahalgarri den oro ez dago horregatik gauzen ordenamenduarekin ados. Transmigrazio mota hori egiazkoa izatekotan, Kain, Kam eta Ismaeli, hiruek ere arima bat bera izaki, ea gizon bat bera deitu ahal diezaiekegun, errabinoen eztabaida berau, deiturazko auzia baino ez da; eta hala ikusi dut aitortzen duela zuk defendatzen dituzun iritzien egileak, eta oso ongi adierazten du hau (atal honen azken paragrafoan)... Substantziazko identitatea existi daiteke, baina pertsonaia ezberdinen arteko oroitzapenean arima berak egindako loturarik ez balego, orduan ez legoke pertsona bat bera dela esateko behar den adinako identitate moralak. Eta Jainkoak nahi izango balu giza arima txerri baten gorputzera alda dadin, gizakiaz erabat ahazturik eta jadanik arrazoizko egintzarik burutu gabe, arima horrek ez luke gizakirik osatuko. Baina aberearen gorputzean giza pentsamenduak balitu, are eta aldakuntza aurretik berak biziarazten zuen gizakiarenak, hala nola Apuleioren¹⁴⁴ urrezko astoak, norbaitek, apika, nekerik gabe esan zezakeen Tesaliatik lagunak ikustera etorritako Luzio bera zela Fotisek gogoz kontra ezarritako astoaren larrupean zegoena, eta jabez jabe ibili zela irentsitako arrosek bere jatorrizko izaerara itzuli zuten arte.

(§ 9) FILALETES: Inongo zalantzarik gabe baieza dezakedala uste dut gutariko edonork bere modura egin eta eratutako izakia ikusi eta, beronek katu edo loro batek baino adimen gehiagorik inoiz erakutsiko ez lukeen arren, ez ziola horregatik gizaki izena ukatuko; era berean, loroari entzungo balio arrazoitsu filosofiaz argudiatzen, lorotzat soilik hartuko luke eta loro deituko lioke, eta animalia hauetariko lehenaz esango luke gizaki trakets eta zakarra, arrazoimenik gabea dela, eta bigarrenaz loro argitsu eta zentzuduna dela.

TEOFILO: Bat nator zurekin bigarren puntuan lehenean baino areago, hartaz ere zerbait esatekorik badudan arren. Teologo gutxi ausartuko lirateke txikitan basoan aurkitutako giza itxurako baina arrazoimen izpirik gabeko animalia baten bataioa bat-batean eta zalantza izpirik gabe erabakitzea; agian Eliza erromatarreko apaizen batek esango luke baldintzapean: Gizakia bazara, nik bataiatzen zaitut; ez bailitzateke gauza jakina izango ea giza arrazakoa den edota arrazoimenezko arimarik ba ote dagoen bere baitan; izan ere, orangutan edo tximinoa ere izan zitekeen, kanpotik gizakiaren guztiz antzekoak baitira, Tulpiusek berak ikusitakoa¹⁴⁵ kontatzen digunez eta haien anatomiaz idatzi duen mediku ospetsu batek¹⁴⁶ azaldu duenez. Gauza segurua da (aitortzen dut) gizakia bilaka daitekeela orangutana bezain ergel, baina arrazoiz aritu ez arren arrazoimenezko arimaren muina bere baitan dago, lehen ere azaldu dudanez legez; kontua da, beraz, ezin dela epaitu itxuretan oinarrituz. Bigarren kasuan ez dago eragozpenik gure espeziekoak ez diren animalia arrazoidunak existi daitezen, hala nola eguzkian txorien erresuma poetikoko biztanleak, non mundu hartatik hil ondoren etorritako loroak bizia salbatu baitzion hemen tratua ona eskaini zion bidaiariari¹⁴⁷. Hala eta guztiz, maitagarrien edota Ama Antzararen lurraldean gertatzen denez¹⁴⁸, lora benetan printzesa liluratua balitz eta bere solasean adieraziko balu hala dela, zalantzarik gabe aitak eta amak alaba gisa laztanduko lukete eta halakotzat hartuko, forma bitxi horren azpian ezkutuan egon arren. Halere, Urrezko Astoaren baitan bereak edo banakoak izpiritu inmaterial beragatik dirauela dioenaren aurka ez nintzateke ni joango, era berean Luzio edo pertsona¹⁴⁹, aipatu niaren apertzepzioagatik, gizakia ez den arren; izan ere, gorputzaren itxurari eta eraketari zerbait erantsi behar zaio gizakiaren definizioa egiterakoan, berau animalia arrazoiduna dela esaten dugunean; bestela, genioak ere gizakiak lirateke niretzat.

FILALETES: Pertsona hitzak izaki pentsatzaile eta adimentsua adierazten du, arrazoitzeko eta hausnartzeko gai dena, bere burua berberatzat har dezakeena, leku eta une ezberdinetan pentsatzen duen gauza beratzat; eta hori guztia egin ahal izango du, bere egintza propioak sentitzen dituelako soilik. Ezagutza hori beti doa gure sentsazioekin eta pertzepzio presenteekin (hauek nahiko bereiziak direnean, behin eta berriz gorago azpimarratu dudanez); horregatik da bakoitza beretzat norbera deritzona. Kasu honetan ez da begiratzen ea ni berak substantzia berari eusten dion ala substantzia ezberdinei; zeren kontzientzia (consciousness edo consociété) beti pentsamenduekin datorrelarik, eta horregatik bakoitza gara norbera deritzona, gainontzeko edozein gauza pentsatzailearengandik guztiz bestelakoa, horretan bakarrik datza baita ere identitate pertsonala, hots izaki arrazoiduna beti bat bera izan dadin eragiten duena; eta kontzientzia hau iraganeko egintzen eta pentsamenduen gainetik heda daitekeen bezain urrun barreiatzen da pertsona horren identitatea, eta lehenagoko bera dirau orain ere norbera horrek.

TEOFILO: Iritzi honetakoa naiz ni ere, alegia, ni-aren kontzientziak edo sentipenak identitate morala edo pertsonala frogatzen duela. Horretan bereizten ditut nik aberearen arimaren amaitu ezina eta gizakiaren arimaren hilezkortasuna: bata zein besteak gordetzen dute identitate fisikoa eta erreala, baina gizakiari dagokionean, jainkozko

probidentziaren arauekin ados, arimak identitate morala eta gure itxurakoa zaindu behar du pertsona bera izaten irauteko, zigorrak bezala sariak sentitzeko gai dena. Badirudi, jauna, zure ustetan itxurazko identitate horrek iraun dezakeela identitate errealik gabe ere. Hori ahalgarri izan daitekeela uste dut Jainkoaren ahalmen absolutuari esker, baina gauzen ordenamenduaren arabera, berbera sentitzen den pertsona beraren itxurazko identitateak urrengo urrats bakoitzean identitate erreala eskatzen du, hausnarketaz eta ni-aren sentipenez bat eginda: barne-pertzepzio arartegabekoak ezin baitu berez iruzur egin. Gizakiak derrigorrez eta soilik izan beharko balu makina, eta aldi berean bere buruaren kontzientzia eduki, orduan bai, zure iritzikoak izan beharko genuke, jauna; baina hori ezinezkoa dela deritzot, naturalki bederen. Baina ez nuke horratik esan nahi identitate pertsonala, ez eta norbera ere ez dirautela guregan, eta ni ez naizela sehaskan izan nintzen ni bera, orduan egindako ezertaz oroitzen ez naizen aitzakipean. Nork bere identitate morala aurkitzeko aski da kontzientziatasunaren (consciosité) erdi mailako lotura hurbileko edota apur bat urrunagoko egoeratik beste batera, bertan nahasten denean jauziren bat edo tarte ahantziren bat. Hartaz, gaisotasun batek kontzientziatasunaren lotura jarraia etena eragin izan balu nire baitan, halako molde non ez baitakit nolatan heldu naizen oraingo egoerara, urrunagokoez oroitzen naizen arren, besteen testigantzak bete lezake ene oroitzapenen hutsunea. Testigantza horren bidez zigortua ere izan naiteke, hutsarte horretan gaiztakeriaren bat ohartuki egin izan banu, geroxeago gaisotasun horren poderioz ahaztua baitut ere. Eta iraganeko gauza guztiak ahaztuko banitu eta berriro neure izenetik hasita irakurtzen eta idazten eta oro ikastera beharturik izango banintz, besteengandik jakin ahal izango nuke neure aurreko egoerako bizitza, neure eskubideak gorde ditudan modura, bi pertsonatan banandu eta ni nerauren oinordeko izendatu behar izan gabe. Hori guztia aski da pertsona bera egiten duen identitate moralari eusteko. Egia da, besteak ni engainatzeko batuko balita (nik neuk ere neure burua engaina nezakeen modura, ametsetan, ikuskizunen batean, gaixoaldian, ametsetan ikusitakoa errealtzat hartuz) faltsua litzatekeela itxura; kasu batzuetan, ordea, moralki ziur egon gaitezke inork kontatuaren egitasunaz: eta Jainkoari dagokionez, zeinaren gurekiko gizarte bidezko lotura moralitatearen funtsezko puntua den, kasu horretan ezinezkoa da errakuntza. Ni-ari dagokionez, ongi legoke nire itxuratik eta kontzientziatasunatik bereiztea. Ni-ak identitate erreala eta fisikoa osatzen du eta nire itxurak, egiazkoa denean, identitate pertsonala eransten dio. Ez dut, beraz, esango identitate pertsonala oroitzapena baino areago hedatzen denik, eta are gutxiago ni-a edo identitate fisikoa haren menpe dagoenik. Identitate erreala eta pertsonala ziurtasun gorenaz aurki daiteke unean uneko eta bertatik bertarako hausnartze bidez; aski frogatua geratzen da gehienetan aldiunetako gure oroitzapenez edo besteen testigutzaz, hauek bat datozenean: eta Jainkoak identitate erreala nabarmenki aldatuko balu ere, pertsonalak bere horretan iraungo luke, gizakiak identitate itxurak zainduko balitu, hala barnekoak (hots, kontzientzia) nola kanpokoak, hau da, besteen iritzia eragiten dutenak. Ez da, beraz, kontzientzia identitate pertsonala osatzen duen bide bakarra, besteekiko harremanak eta bestelako zantzuek ere helmuga horretara eramanez gaitzakete: baina eragozpenak agertzen dira itxura ezberdin hauek elkarrekin kontrajartzen direnean. Kontzientzia isil daiteke, ahantzirik bailitzan; baina argi adieraziko balu gainontzeko itxuren aurkako zerbait, erabakian trabaturik eta bi posibilitateren artean zalantzan geratuko ginatke, gure oroitzapenaren errakuntza batetik, eta kanpoko itxuren akatsen bat bestetik.

(§ 11) FILALETES: Esan daiteke giza soinen atalak norberaren zati direla eta, gorputza etengabeko isurian ari delarik, gizakiak ezin duela norberarekiko berdin iraun.

TEOFILO: Atseginago dut ni-a eta bera atalik gabekoak direla baieztatzea, esaten baita, eta arrazoiz, substantzia berak dirauela benetan, edota ni fisiko berak; ezin da, baina,

esan, gauzen egia zehatzaren arabera, atalen bat galdu duen oroak berarekiko berdintasunari eusten diola; eta soin-atalei dagokienez, ezinezkoa da uneoro zerbait galdu barik bizitzea.

(§ 13) FILALETES: Iraganeko egintzei buruz norberak daukagun kontzientzia ezin dugu substantzia pentsalari batetik bestera aldatu (eta substantzia berak dirauela ziurtzat hartzen dugu, gu gerau sentitzen baikara) kontzientzia hau ekintza bakarra eta banakakoa denean, hau da, hausnartze ekintza eta honen apertzepzioa dugunean hausnartzen ari garen ekintza bat bera direnean. Baina iraganeko ekintzaren irudikapena aktuala baino ez denez, frogatzeke dago nolatan ezin den inoiz errealki izan ez den hura izpirituan irudikatzea egiaz izan bailitzan.

TEOFILO: Aldiune zehatz bateko oroitzapenak engaina gaitzake; maiz experimentatuz gero, errakuntza horren kausa naturalen bat bururatzeko posibilitatea daukagu: baina oroitzapen presente edo bitartegabekoak, edota orain hurrengo gertatuaren oroitzapenak, hau da, kontzientziak edo barne-ekintzarekin egindako hausnarketak ezin gaitu naturalki engainatu; hala ez balitz, hontaz edo hartaz pentsatzen dugula ziur jakiterik ez geneukake, zeren hori ez baita esaten norbere baitan gertatu berri den ekintzaz baino, eta mintzo dena ez da ekintza. Hartaz, bitartegabeko barne-esperientziak egiazkoak ez badira, ez dago ziurtzat har dezakegun gauzazko egiarik. Eta lehen ere esan dut bitartezko eta kanpo pertzepzioetan egiten den errakuntzaren arrazoi ulergarririk izan daitekeela, ez ordea barne-pertzepzio bitartegabekoetan, salbu eta Jainkoaren guztiahaltasunera jotzen ez dugun.

(§ 14) FILALETES: Substantzia inmaterial berarekin ea bi pertsona ezberdin izan daitezkeen galdetzen duen auziaren funtsa hau da: ea izaki inmaterial berari ken dakioken iraganeko bere existentziaren sentipen oro, haiek erabat galdu arte, berreskuratze posibilitaterik gabe, halako moldez non epealdi berrian kontu berria hasterakoan egoera berriaz haraindi heda ezinezko kontzientzia izan dezan. Horrela pentsatzen dute, argi dagoenez, arimen aurreexistentzian sinesten dutenek. Gizon bat ezagutu nuen bete-betean sinetsita zegoena bere arima Sokratesena izandako berbera zela; eta baieztza dezaket berak betetako lanpostuan, eta ez zen munta eskasekoa, zentzuzko gizontzat zeukatela, eta argitara eman ziren bere obratan frogatzen du ez zitzaiola falta agudeziarik, ez jakintzarik. Baina arimei berdin zaielarik ezein materia zati, edozein izanda ere, euren izaeraz jakin ahal izan dugunez bederen, suposizio honek (arima bera gorputz ezberdinetatik pasatzen) ez du berekin absurdu nabarmenik. Nestorrek edo Sokratesek, haatik, inoiz egindako edo pentsatutako ezeren arrastorik orain arte izan ez duenak nolatan usteko du, nolatan burura dezake Nestor edo Sokrates bera dela? Greziar zahar hauen ekintzetan parte har dezake? Bere buruaren ardurapean jar al ditzake ekintza horiek, hau da, berak egindakotzat hartu, eta ez inoiz existitu den beste norbaitek eginak? Bera ez da biotariko inor, non eta beragan orain dagoen arima sortua izan ez bailitzan arima horrek orain daukan gorputza biziarazten hasi zenean. Horrek ez lioke Nestor bera izaten lagunduko, inoiz Nestorren zati izandako materiaren partikuletariko bat gaur gizon horren zati balitz baino areago. Zeren kontzientzia bera ez daukan materiagabeko substantzia bat berak, gorputz honi lotuta egonagatik, pertsona bera osotzen ez duen moduan, kontzientzia komuneko gorputzen bati lotutako materiakzko partikula beraiek ezingo baitute pertsona bera eraiki.

TEOFILO: Materiagabeko izakiari edo izpirituari bere iraganeko existentziaren pertzepzio oro ezin zaio kendu. Gertatu zaion ororen aztarrenak geratzen zaizkio eta gertatuko zaion ororen aurrentipenak ere baditu: baina sentipen hauek txikiegiak izan ohi dira gehienetan bereizgarri eta hautemanak izateko, egunen batean, apika, hartaraino garatuko badira ere. Pertzepzioen iraupen eta lotura honek egiten du egiaz banako bera, baina apertzepzioek (hots, iraganeko sentipenez ohartzea) identitate morala frogatzen

dute eta identitate erreala agertarazten. Arimen aurre-existentzia ez da gure pertzepzioen aurrean azaltzen, baina, egiazkoa balitz, egunen batean ezagutu ahal izango genuke. Ez da, beraz, arrazoizko oroitzapenen berreskurapena betiko ezinezkoa izatea, zeren pertzepzio sentiezinak (hainbat une garrantzitsutan erabili izan ditudanak) hemen ere baliagarri baitzaizkigu haziak iraunarazteko. Henry Morus¹⁵⁰ Eliza anglikanoko teologo zenak etsi-etsian sinesten zuen aurre-existentzian eta berau defendatuz idatzi zuen. Van Helmont semea zena areago joan zen, esan berri dudanez, eta arimen transmigrazioan sinesten zuen, betiere espezie bereko gorputzetan; beraz, haren ustetan, giza arimak gizakiren bat biziarazten zuen beti¹⁵¹. Zenbait errabinoekin ados, arima Adanengandik Mesiasengana igaro zela sinesten zuen, eta berau Adan berria zela. Eta ez dakit bere buruaz ere ez ote zuen pentsatzen antzinakoren bat izana zela, gainontzekoan hain iaioa zen gizonak. Arimen igarotze hau egiazkoa balitz, lehenago azaldu dudan moduan bederen (egiantzeko ez dirudien arren), hots, arimak euren gorputz sotilei eutsiz bat-batean beste gorputz baldarretara igaro daitezela, orduan norbanako berberak iraungo luke Nestorrenan, Sokratesengan eta modernoren batengan, eta bere nortasuna ezagutaraz liezaioke bere izaeran nahiko barneratuko litzatekeenari, Nestorrek eta Sokratesek egindakoaren lorratzak eta seinaleak bertan geratu direlako, jainu aski zorrotz batek irakurri ahal izateko moduan. Baina gizaki modernoak ez baleuka inoiz bera izandakoa ezagutzeko barne nahiz kanpo biderik, moralari begira sekulan izan ez balitz bezala da. Itxura guztien arabera ordea, munduan ez da, moralari dagokionean, deus arbuiatzen, Jainkoa baita bertako errege eta haren gidaritzak ez dauka hutsik. Nire iritziz, arimak ez dira, zuk deritzozunez, indiferente materialak edozein zatiri begira; aitzitik, jatorriz adierazten dute zeintzuei lotuta dauden eta egon behar duten erabidez. Era horretan, gorputz berri baldar ala sentibera batera pasako balira, aurrekoetan hauteman duten ororen espresioa gordeko lukete, eta honek guztiak eragina izan beharko luke gorputz berrian, halako moldez non norbanakoaren iraupenak bere egiazko ezaugarriak izango dituen beti. Baina edozein izanda ere gure iraganeko egoera, hark utzitako ondorioa ez zaigu beti antzemangarri. Adimenari buruzko Entseiuaren egile prestuak, zeinaren iritzia zeureganatu dituzun, azpimarratu zuen (II. liburua, Identitateari buruz diharduen atala, 2. paragrafoa) ahalgarritzat hartzen diren arimen ibilbideari buruzko bere suposamendu eta itxurapenen multzo bat arrunki pentsatzen den zerbaitengan oinarritzen dela, alegia, izpiritua materiatik aske ezezik, edozein materia motatik indiferente ere badela. Handik eta hemendik gai honi buruz azaldu dizudanak, jauna, puntu hau argitzeko balioko dizula espero dut eta naturalki ezagutu dezakeguna zer den jakiten lagunduko zizula. Ikusten da, adibidez, nolatan antzinako norbaiten egintzak haren arima bera daukan modernoari legezkiokkeen, berau horretaz jabetu gabe ere. Eta hartaz jabetuko balitz, identitate pertsonala baino areagoko ondorioa leriok. Gainera, gorputz batetik bestera igarotzen den materia zati batek ez du giza norbanako bera gauzatzen, ez eta ni deritzogun hori ere; arimak egiten baitu hori.

(§ 16) FILALETES: Egia da, halere, hain interesatua nagoela eta hain erantzule sentitzen naizela orain dela mila urte egindakoaz, nitaz dudan kontzientziak (self-consciousness) nik egindakotzat orain leporatu didanaz, nola orain hurrengo unean egindakoaz interesatua nagoen eta erantzule sentitzen naizen.

TEOFILO: Zerbait eginaren iritzia iruzurti gerta daiteke urruneko egintzei buruzkoa denean. Batzuek egiazkotzat hartu dute beraien ametsa edota euren asmakeria errepikatuaren poderioz; iritzi faltsu horrek arazoak ekar ditzake, baina ezin da zigorgarri izan, beste batzuen onarpenaz izan ezik. Bestalde, eginaren erantzule izan gaitezke, hura ahaztu arren, egintza egiaztatuz gero.

(§ 17) FILALETES: Gutariko bakoitzak eguneroko esperientziatik dakigu, geure hatz ttipia, kontzientzia horren pean hartuta, beste edozein gorputz atalen neurri berean dela norberaren osagarri.

TEOFILO: Lehen ere esan dut (§ 11) zergatik ez dudan baieztatu nahi nire hatza ni-aren zati dela; egia da, baina, nire gorputzarena dela eta haren osagarri dela.

FILALETES: Beste nolabait pentsatzen dutenek esango dute, hatz ttipi hori gorputzetik apartatuko bagenu eta kontzientzia gorputzaren gainontzekoa abandonatuz hatz tipiarekin joanen balitz, argi legokeela hatz tipia pertsona dela, pertsona bera, eta orduan ni-ak ez lukeela zerikusirik gorputzaren gainontzekoarekin.

TEOFILO: Naturak ez ditu fikzio horiek onartzen, harmoniaren sistemak edota gorputza eta arimaren arteko harremanarenak ezinezko egiten baititu.

(§ 18) FILALETES: Baina gorputzak bizirik balirau bere kontzientzia partikularraz, hatz ttipiaren inongo partehartzerik gabe, arima hatz ttipian egonda ere, badirudi honek ezingo lukeela gainontzekoaren egintza izpirik ere bereganatu, eta ezingo litzaiokeela, halaber, egintzarik leporatu.

TEOFILO: Hatzean legokeen arima, gainera, ez litzateke gorputz horrena izango. Aitortzen dut, Jainkoak egingo balu norberaren kontzientziatasunak beste arimetara aldatuak izatea, berberak bailiran tratatu beharko genituzkeela, nozio moralen arabera; hau, ordea, gauzen ordenamendua arrazoirik gabe nahastea litzateke, eta antzemangarria eta sentitu ezinezko pertzepzio bidez dirauen egiaren arteko bereizketa egingo genuke: eta hau ez litzateke zentzuzko, gaur egungo pertzepzio sentiezinak noizbait gara daitezkeelako, ez baitago deus alferrikakorik, eta betikotasunak egundoko eremu zabala eskaintzen die aldakizunei.

(§ 20) FILALETES: Giza legeek ez dute zoroa zigortzen bere senean zegoelarik eginagatik, ez eta bere senean dagoena zoroak eginagatik: horra zergatik diren bi pertsona. Eta horregatik esan ohi da bere onetik kanpo dagoela.

TEOFILO: Legeek zigorrez mehatxatzen dute eta saria agintzen egintza okerrak galarazteko eta egintza onei laguntzeko. Baina gizakia hain zoro izan daiteke, ez mehatxuek ez promesek ez dutela eraginik aski beragan, arrazoimenak ez baitu bere baitan aginterik; hartaz, arrazoiaren ahuleziaren arabera murriztu behar da zigorraren zorrotasuna. Berak egindako gaizkiaren eragina gaizkileak senti dezan nahi da bestalde, harrezkero berriro krimenak burutzeari beldur har diezaion, baina zoroak ez duelarik hori aski nabari, aise itxaron daiteke aldi batez epaia indarrean jartzeko, bere senean zegoenean eginagatik zigortzen baitu honek. Beraz, kasu horietan legeek eta epaileek egin ohi dutena ez da bi pertsona kontsideratu izanaren ondorio.

(§ 22) FILALETES: Nire modura pentsatzen dutenek objekzio hau egin ohi dute, alegia, mozkor bat mozkorraldia pasa ondoren ez dela jada pertsona bera eta ezin zaiola zigortu mozkor zegoelarik egindakoagatik, ez baita dagoeneko hartaz oroitzen. Eta honi erantzun ohi zaio pertsona bera dela, eta pertsona bera da halaber, zenbait gauza ametsetan egin arren, egoera horretan egindako oker ororen erantzulea.

TEOFILO: Alde handia dago mozkorren eta halakotzat onartutako benetako sonanbuluaren egintzen artean. Mozkorrak zigortzen dira mozkorralditik alden daitezkeelako, eta mozkor daudelarik zigorraren susmoren bat eduki dezaketelako. Ametsibiltzaileen esku ez dago, ordea, beren gau ibilaldiari eta ametsaldian egin dezaketenari itzuri egitea. Baina, egia balitz makilkadaz haiek ohean geratzea lortzen dela, zigortzeko eskubide genuke, eta hala egingo litzateke, zigortzat barik sendagaitzat hartuz jipoia. Eta egiaz konponbide izan omen da.

FILALETES: Giza legeek bata zein bestea zigortzen dute gizakiek gauzak ezagutzen dituzten moduaren arabera egindako justiziaz, zeren kasu mota horietan ezin baitute segurantziaz bereizi erreala eta akastuna; hartaz, ezjakina ez da mozkorturik edo lotan

egindakoaren aitzakiatzat onartzen. Egintza da egilearen aurkako froga, eta honen alde ezin aipa daiteke kontzientziarik eza.

TEOFILO: Arazoa beste honetan datza, alegia, zer egin beharko zen sonanbulua edota mozkorra beretik irtenda zeudela egiaztatuz gero, eta hau sarri gerta daiteke. Kasu horretan sonanbulua maniako soiltzat har daiteke; mozkorra, ordea, gogozkoa delarik, gaixotasuna hala ez den moduan, bata zigortuago dago bestea baino.

FILALETES: Baina Azken Judizioko egun handi eta beldurgarrian, bihotz guztien sekretuak agirian gera daitezenean, sinesteko eskubide dugu inork ere ez duela erantzun beharrik izanen erabat ezezagun zaigunaz, eta zor zaiona jasoko duela bakoitzak, norbere kontzientziaren salaketa edota zuriketapean.

TEOFILO: Ez dakit beharrezkoa izango ote den giza oroimena suspertzea epaiketa egunean ahaztutakoaz oroi dadin eta, gainontzekoen eta batez ere, hutsik ezin egin duen epaile zuzenaren ezagutza aski izanen ez ote den. Egiarekin bat etorri ez arren, gutxienik gertatzerik baduen fikzioa osa daiteke, hots, norbaitek epaiketa egunean bere burua gaizkileztatu edukitzea eta bertan epaia emateko dauden gainontzeko izpiritu sortuek ere egiaz hala dela iriztea, eta hori egia ez izatea: nork esango luke epaile goren eta zuzenak, berak bakarrik dakielarik kontrakoa, pertsona hori kondena zezakeela, berak dakienaren aurka ebatziz? Eta hala ondoriozta daitekeela dirudi nortasun moralaz zuk emandako noziotik abiatuz. Esango da, apika, Jainkoak itxuren aurka juzgatzen badu ez dela behar hainbat goretsia izango eta besteentzat estuasunak sor ditzakeela; baina erantzun daiteke Bera dela bere lege bakar eta gorena, eta gainontzekoek kasu horretan pentsatu beharko dutela eurak direla oker daudenak.

(§ 23) FILALETES: Suposa bagenitzake bi kontzientzia ezberdin elkarrekin komunikazinean, gorputz berean txandaka dihardutenak, bata egunez etengabe eta bestea gauez, eta bestalde suposa bageneza kontzientzia bat bera aldika bi gorputz ezberdinetan diharduena, galdera hau egiten dut, alegia, lehenengo kasuan eguneko gizona eta gaueko gizona, zilegi bazait horrela deitzea, ea ez ote ziren bi pertsona izango, Sokrates eta Platon bezain ezberdinak, eta bigarren kasuan ea ez ote zen pertsona bat bakarra izango bi gorputz ezberdinetan. Eta ez dit ezertarako balio esateak bi gorputz ezberdin hartzen dituen kontzientzia hori eta aldika gorputz bat bera hartzen duten kontzientzia horiek, lehena substantzia inmaterial berekoa dela, eta beste biak kontzientzia ezberdinak gorputz horietan sartzen dituzten bi substantzia inmaterial ezberdinekoak, zeren kontzientziak era berdinean zehaztuko bailuke identitate pertsonala kontzientzia hau substantzia inmaterial banakakoren bati lotuta egon ala ez. Gainera, pentsatzen duen zera inmaterialak noizbehinka iraganeko kontzientzia burutik kendu egin behar du, gero berriro gogoratzeko. Demagun orain oroitzapen eta ahaztura une horiek egunarekin eta gauarekin egokitzen direla beti: bi pertsona dira hor materiagabeko izpiritu bat berarekin. Hortik ondorioztatzen da substantziaren identitateak edota ezberdintasunak ez duela norbera zehazten, honetaz ziur egoteko kontzientziaren identitatea baita ezinbesteko.

TEOFILO: Onartzen dut, itxura guztiak izpiritu batetik bestera aldatuak edo garraiatuak izango balira, edota Jainkoak bi izpirituren arteko trukea egingo balu bataren gorputza, itxurak eta kontzientziak besteari emanez, identitate pertsonalak, substantziarenari lotuta egon barik, giza moralak kontuan hartu behar dituen betiko itxurei jarraituko liekeela: baina itxura horiek ez dira kontzientzia soilak beste barik, eta Jainkoak aldatu beharko ditu norbanako horien apertzepzioak eta kontzientziak ezezik, pertsona horiek besteen aurrean erakusten dituzten itxurak ere, zeren hala ez balitz, kontraesana bailegoke batzuen kontzientziak eta besteen testigutzaren artean, eta honek gai moralen ordenamendua lardaskatuko luke. Alabaina, onartu beharko zait mundu sentigarri eta sentiezinaren arteko dibortzioa, hots, substantzia beroiei eutsiko zaizkien pertzepzio

sentiezinak eta elkartrukatutako apertzepzioen artekoa miraria litzatekeela, Jainkoak hutsunea sortzen duela suposatzen denean bezala; lehendik ere esana dut zergatik ez dagoen hau ordenamendu naturalarekin ados. Hona hemen beste suposaketa bat askoz ere egokiagoa, nire ustez: litekeena da unibertsoan nonbait edota noizbait esfera bat existitzea, gure bizileku den lur honen antzekoa, eta han bizi diren gizakietariko bakoitza hemen gagozkien bakoitzarengandik ere ez gehiegi bereiztea. Era horretan, ehun milioi antzeko pertsona pare baino gehiago izango ginateke aldi berean, hau da, itxura eta kontzientzia bereko bikoteak; eta Jainkoak alda zitzakeen izpirituak soilik, edota izpiritu eta gorputzak bat eginik, lur planeta batetik bestera beraiek hartaz ohartu gabe; baina aldatuak izan ala leku berean gelditu, dena den, zer esango dute zure idazle adiskideek beren pertsonaz edo norberaz? Bi pertsona ote ala bat bera? Zeren bi lur planeta horietako gizakien kontzientzia eta itxurak, azalekoak zein barnekoak, ez baitute bereizteko biderik ematen. Egia da Jainkoak eta izpirituek ezagutu ditzaketela, aldi eta lekuetatik kanpo dauden harreman eta tarteak bereizteko gai eta bi ludietako gizakientzat hauteman ezineko diren barne-antolamenduen jakitun direlarik; baina zuen hipotesien arabera, hau da, pertsonak bereizteko nor bere kontzientzia soilik dela gai dioen hipotesian, substantzien identitate edo ezberdintasun erreala kontuan hartu gabe, ez eta besteei deritzena ere, kalkula ezineko tarte bat besteagandik urrun dauden bi planeta antzekoetan aldi berean bizi diren bi pertsona horiek nolatan ez dugu, bada, esango pertsona bat bera direla, eta hau absurdutasun nabarmena da. Bestalde, naturalki izaterik badaukanaz mintzatzen bagara, antzeko bi planetak eta bertako bi arima antzekoak aldi batez soilik eutsiko liokete antzekotasunari. Zeren banakako ezberdintasuna dagoelarik, alde honek antolamendu sentiezinetan guttienik beharko du oinarritu, eta hauek denboraren joanean garatu behar dute.

(§ 26) FILALETES: Demagun beste bizitza batean egindakoagatik eta hartaz inola ere jabetzerik ez daukala orain zigortua izan den gizaki bat; jokabide honen eta errukarri sortuz pertsona horri emango litzaiokeen tratua artean alderik ba al da?

TEOFILO: Platonikoek, Origenesen¹⁵² jarraitzaileek eta arimen aurreexistentzia sinesten zuten hebraitar batzuek uste izan dute mundu honetako arimak lehendik gorputz imperfektuetan zeudela, aurreko mundu batean egindako krimenengatik sufritzeko. Baina hau da egia: sekulan jakitera iritsiko ez bagara eta orain ere egia hau ez badakigu, ez oroimenez, ez beste inolako zantzuz, ez eta inoren ezagutzaz, ezingo zaiola, beraz, zigor deitu hitz honen ohiko esanahian. Zalantzagunerik bada, ordea, zigorrez, oro har, mintzatzen garenean, ea erabat beharrezko ote den zigorra nozitzen dutenek noizbait haien arrazoia jakitera iristea, edota ez ote den sarritan aski beste izpiritu jantziago batzuk haiengan aurkitzea jainkoen justizia goraltzeko egokiera. Egiantzekoena da, baina, jasaileak zergatia jakitera iritsiko direla, orokorrean bederen.

(§ 29) FILALETES: Zu zeu ere azken finean, agian, bat zatoz nire idazlearekin, zeinak amaitzen duen identitateari buruzko atala auzi hau plazaratuz: gizaki bera izaten irauten ote duen deitura arazoa da, non eta gizakitzat hartzen dugun haren izpiritu razional soila edota gorputz soila gizakizko deritzon eran, edota azkenik halako gorputz bati lotutako izpiritua. Lehen kasuan (gorputz baldarretik bederen), aske den izpirituak gizaki izateari eutsiko dio; bigarrenean, arrazoimena salbu, gure guztiz antzeko litzatekeen orangutana gizakia litzateke, eta gizakiari bere arima razionala kendu eta piztiaren arima ezarriko balitzai, gizaki bera izaten lirauke honek. Hirugarren kasuan, bata zein besteak, batasunarekin, izpiritu berari euts diezaioten behar da, bai eta gorputzari ere zati batean bederen, edota guttienik gorputz forma sentigarriari dagokion hein baliokidean. Horrela fisikoki eta moralki izaki bera izateari eutsi dakioke, hau da, substantzia bera eta pertsona bera izan, gizaki bera izan gabe, figura hau gizakiaren esentziazkotzat hartzen bada, azken adiera honi jarraiki.

TEOFILO: Onartzen dut honetan deitura arazoa dagoela eta hirugarren esanahian animalia bera bailitzan dela, orain beldar, orain tximeleta, edota askoren ustea izan dena, mundu honetako aingeruak iraganeko beste munduren batean gizaki izan direla. Baina gure elkarrizketa honen gaia izenena eta berauen esanahiarena baino garrantzitsuagoa da. Zinezko identitate fisikoaren iturburua zein den erakutsi dizuet; ez identitate morala, ez eta oroitzapena ere, ez zaiola aurkako adierazi dizuet; hauek ezin diotela dagokion pertsona berari identitate fisikoa finkatu, ez eta honekin harremanetan daudenei ere: baina, hala eta guztiz, ez diotela inoiz kontra egiten identitate fisikoari, eta ez dutela inoiz harengandiko erabateko dibortzioa gauzatzen; beti daudela hura zertan den dakiten edo jakin dezaketen izpiritu sortuak: baina badirela arrazoiak zera pentsatzeko, alegia, pertsona beraiei buruz izan daitekeen axolarik-ezak aldi batez baino ezin duela iraun.

XXVIII

Beste zenbait erlazio eta batik bat erlazio moralak

(§ 1) FILALETES: Aztertu berri ditugun denboran, lekuan eta kausalitatean oinarritutako erlazioez gain beste hainbat eta hainbat daude; hauetarik batzuk aukeratuko ditut. Atal eta gradutarako gai den edozein ideia bakunek bere kokagune diren subjektuak alderatzeko abagunea eskaintzen digu, hala nola zuriagoaren ideia (edota ez hain zuri edo berdin zuriarena). Erlazio honi proportzionala deritzake.

TEOFILO: Proportziorik gabeko neurritz gorakoa dago, halere; imperfektua deritzodan handitasunarekin gertatzen dena, alegia, erradioak bere zirkuluaren arkoarekin osatzen duen angelua angelu zuzena baino txikiagoa dela diogunean adibidez, ezinezkoa baita bi angelu horien arteko proportzioa, edota angelu horietako bat eta euren diferentziaren artekoa, berau baita kontingentzia-angelua.

(§ 2) FILALETES: Jatorriaren inguruek ematen digute beste alderaketa gune bat, hau baita aita eta seme-alaben arteko, neba-arreben, lehengusu-lehengusinen eta herikideen arteko harremanen oinarri. Gure artean ez dizu inortxok esango: zezen hori zekor haren aitona da edota bi uso horiek lehengusinak dira; hizkuntzak erabilerari egokitzen baitzaizkio. Baina bada herririk, non gizakiak euren genealogiaz gutxiago arduratzen diren euren zaldienaz baino, eta zaldi bakoitzak ez ezik, hauen arteko ahaidego maila ezberdinek ere beren izenak dauzkate.

TEOFILO: Familiaren ideia eta izenak erants dakizkieke ahaidego izenei. Ez da aski kontuan hartzen, Karlomagnoren inperiopean, arras luzez lehenago eta ondoren ere, bazirela famili izenak Alemanian, Frantzian eta Lonbardian. Oraindik orain baziren Iparraldean deiturarik gabeko familiak (nobleak ere); jaioterrian nor bere izenaz eta aitarenaz elkar ezagutzen zuten, eta herriz aldatzerakoan nor bere izenari jaioterriarena eransten zitzaion. Arabeek eta turkoek oraindik ere hala egin ohi dute, uste dudanez, ez baitaukate familia-abizen partikularrik; aski dute, beraz, nork bere aitaren, aitonaren etabarren izenak aipatzearekin; ohore berau eskaini ohi diete euren lasterketarako zaldi bikainei, hauek ere izen propioz ezagunak baitira gehi aitarenaz eta sarri arbasoenaz. Horrela zeritzen turkoen monarkak Carlowitzeko bake itunaren ondoren enperadoreari igorritako zaldiei; eta Oldenbourgeko konde defuntua, bere leinuko azkena eta bere behor-taldeagatik ospetsua, urte askotan bizi izan zen eta zaldien leinu zuhaitzak zaintzen zituen, halako moldez non hauek euren noblezia erakus baitzezaketen; batzuetan arbasoen erretratuak (imagines majorum) ere bazeuzkaten erromatarrentzat biziki estimagarri. Baina gizakiez ari garelarik, badira arabiar eta tartariarren artean denborarekin asko hedatu eta familia zabalak bailiran bizi diren zenbait tribu deitura. Izen horiek batzuetan aitalehenetik hartzen dituzte, hala Moisesen garaian, bestetan bizilekutik edota beste zirkunstantziaren batetik. Worsley jaun bidaiari prestuak¹⁵³, gaurko arabiar basamortua, bertan aldi batez egonagatik, ondotoxoa ezagutzen duenak,

ziurtatzen digu Egipto eta Palestina arteko lurralde osoan, Moisesek zeharkatu zuenean alegia, gaur egun hiru tribu baino ez direla bizi, hiruen artean 5.000 inguru biztanle egiten dutelarik; tribu hauetariko batek sali du izena, nire ustez, aitalahenetik hartua, zeinaren hilobia santu batena bezala ohoretua den, arabiarrek bertako hautsez euren buruak eta gameluenak igurtzitzen dituztelarik. Nolanahi ere, odolkidetasuna dago, lotuta kontsideratzen ditugunak sorburu bat berekoak direnean; esan liteke, baina, ituna edo ahaidetasuna dagoela bi pertsonen artean, euren arteko kidetasunik ez dagoelarik ere, biek hirugarren bat berarekiko odolkidetasuna izan dezaketenean; ezkontza bidez gertatzen da hau sarri. Baina senar-emazteen artean ahaidetasuna dagoela esan ohi ez dugunez, euren ezkontzak beste hainbatekiko ahaidetasuna eragingo badu ere, hobeto legoke agian esatea odolkidetasunak ematen duela ahaidetasuna, senar-emazteak pertsona bat beratzat hartzen baditugu.

(§ 3) FILALETES: Harreman baten funtsa eskubide morala izan ohi da batzuetan, armadako jeneralaren harremana kasu, edota hiritarrarena. Gizakien arteko akordioetan oinarritzen direlarik, erlazio hauek borondatezkoak dira edota erakundezkoak, eta berezkoetatik bereiz daitezke. Batzuetan bi harremankideek bakoitzak bere izena daukate, ugazaba eta bezeroa adibidez, edota jenerala eta soldadua. Ez da, baina, hau beti gertatzen, hala nola ez dagoen izenik kantzilerrarekiko harremanetan ari direnentzat.

TEOFILO: Badira batzuetan harreman berezkoak, gizakiek zenbait harreman moralen bidez jantzi eta aberastu dituztenak, adibidez seme-alabek eskubide dutenean euren gurasoen ondarearen legezko zatira; gazteek loturak dituzte, helduek, berriz, zenbait jaretasun. Naturaltzat hartzen dira, ordea, natural ez diren zenbait harreman mota; esate baterako, legeen arabera aita da umea egotzi dakiokeen epealdi barruan amarekin ezkondu dena; eta eratua naturalaz ordezkatzeko hau presuntzioa baino ez da batzuetan, hau da, apika egia ez dena egiazat ezartzeko irizpidea, faltsutasuna frogatzen ez den bitartean. Ildo horretatik zuzenbide erromatarrek eta herrialderik gehienek onartu dute harako arau hura: *pater est quem nuptiae demonstrant*. Inoiz esan didate, ordea, Ingalaterran ez duela ezertarako balio norberaren alibi-a frogatzeak, hiru erresumetariko batean egona izanez gero; kasu honetan presuntzioa fikzio bilakatzen da edota, doktore zenbaiten esanetan, *praesuntionem juris et de jure*¹⁵⁴.

(§ 4) FILALETES: Gizakien borondatezko ekintzen arteko egokitza penaren edota desagokitzapena eta, halaber, haiek moralki onak ala txarrak diren epaitzera garamatzen araua da harreman morala. (§ 5) Eta ongi morala edo gaitz morala borondatezko ekintzen eta arau zehatz baten artean dagoen adostasuna edo desadostasuna; honek ongia edo gaitza (fisikoa) dakarkigu, arauemailearen gogo eta ahalmenaren arabera (edota legea indarrean iraunarazten duenarena). Horri deritzogu saria eta zigorra.

TEOFILO: Zuk defendatzen duzun hori bezain idazle jakintsuei zaie zilegi, jauna, hitzak euren gustura moldatzea. Baina egia da, baita ere, nozio horren arabera ekintza bat bera moralki ona eta moralki txarra izango zela, legelaria nor den; orobat, gure idazle prestuak arestian bertutetzat hartzen zuen gorespina merezi duena, beraz egintza bat bera bertutetsua izanen litzateke ala ez, gizakien irizpideen arabera. Baina hori ez delarik egintza moralki on eta bertutetsuei eman ohi zaien zentzu arrunta, nik behintzat nahiago dut ongi moralaren eta bertutearen neurritzat Jainkoak iraunarazitako arrazoimenaren arau aldaezina hartzea. Eta seguru egon gaitezke horren bidez ongi moral oro ongi fisiko ere bihurtzen dela edota, zaharren esanetan, zintzoa onuragarri dela; aldiz, zure idazlearen nozioa azaltzeko esan beharko genuke ongi eta gaitz morala agintezko edo erakundezko ongi edo gaitza direla, agintea duenak jarraitarazten edota baztertzen saiatuko direlarik sari eta zigorren bidez. Ona da Jainkoak eratutako orotatik naturarekin edota arrazoimenarekin ados datorrena.

(§ 7) FILALETES: Hiru lege mota daude: lege jainkotiarra, lege zibila eta iritzizko edo erreputaziozko legea. Lehena da bekatuaren eta egitekoen araua, bigarrena ekintza kriminal edota errugabeena, hirugarrena bertutea eta bizioa.

TEOFILO: Hitzen esanahi arruntari jarraiki, bertuteak eta bizioak ez dira betebeharretatik eta bekatuetatik bereizten, ohiturak ekintzetatik bereizten ez diren bezalaxe, eta inork ere ez ditu bertutea eta bizioa aburupen jartzen. Bekatu larri bati krimena deritzo, baina errugabea ez zaio kriminalari kontrajartzen, errudunari baizik. Bi motatakoa da lege jainkotiarra, naturala bata, positiboa bestea. Lege zibila positiboa da. Erreputaziozko legeak, lege naturalaren barne izan ezik, ez du lege izenik merezi; zera esatea bezala litzateke: osasun-legea, etxeko legea, ekintzek berez onik edo txarrik dakartenean, hala nola inoren baiespina, osasuna, onura.

(§ 10) FILALETES: Mundu guztiak uste du, izan ere, bertute eta bizio hitzek berez adierazten dituztela ekintza onak eta txarrak, eta zentzu honetan hartuta bertutea bete-betean egokitzen zaio lege jainkotiarrari (naturalari). Baina zeinahi izanda ere giza pretentsioak, argi dago hitz horiek, zehazki nola erabiltzen diren kontuan hartzen badugu, etengabe eta soilik egozten zaizkiela egintza hauei ala besteei, herrialde edo gizarte bakoitzak ohoretsu ala lotsagarritzat hartzen dituen arabera: hala ez balitz, gizakiek euren buruak kondenatuko lituzkete. Beraz, bertute edo bizio deritzonaren neurria bai espina edo mesprezu horretan dago, irizkidetasun tazito edo sekretuak gauzatzen duen estimu edo arbuio horretan, alegia. Zeren gizarte politikoetan bildutako gizakiek euren indar guztien eraketa esku publikoetan utzi badute ere, halako moldez, non ezin dituzten haien erkideen kontra erabili legeak ezarritako mugez kanpo, hala eta guztiz ere, ongi ala gaizki pentsatzeko ahalmena daukate beti, onesteko eta gaitzesteko ahalmena.

TEOFILO: Zurekin horrela argudiatzen duen idazle prestuak adieraziko balu bertute eta bizio hitzei oraingo definizio arbitrario eta nominala eman nahi izan diela, aski litzateke esatea hori zilegi zaiola teorian adierazpidearen erosotasunerako, beste esapiderik ezean; baina erantsi beharko zaio adiera hori ez datorrela usadioarekin bat eta ez dela onuragarri, eta askoren belarritarako gogorregia litzatekeela bizitzan eta elkarriketen ihardunean norbaitek erabiliko balu, egileak berak hitzaurrean onartzen bide duenez. Baina askoz urrunago garamatza honek, eta onartuko bazenute ere gizakiak saiatzen direla mintzatzen naturaz bertutetsu edo biziotsu denaz aldaezineko legeetan oinarrituta, orain iritziazen menpe dagoenaz soilik mintzo direla aditzera eman nahi diguzue. Arrazoi beronen indarrez defenda daitekeela deritzot egia eta arrazoia bera ere eta aipa daitekeen gauzarik errealea ere aburupen dagoela, gizakiak tronpatu egiten baitira horretaz ebatzean. Beraz, ikuspuntu guztietatik hobeto dago esatea gizakiek bertutetzat hartzen dutela edota egiazat naturarekin ados dagoena, baina sarritan huts egiten dutela erabiltzean; gainera uste baino gutxiago tronpatzen dira, zeren goraipatzen dutenak sarri askotan hala merezi baitu zenbait ikuspegitatik. Edateko bertutea, hots, ardoa ongi toleratzekoa, ongi etorri zitzaion Bonosus-¹⁵⁵ barbaroekin adiskidetu eta haien sekretuez jabetzeko. Herkulesen gau-indarrek, zeinaren antzeko uste baitzen Bonosus, perfekzioa osatzen zuten. Lapurren sotiltasuna gozesten zuten lazedemoniarrek, eta ez da haien trebetasuna gaitzesgarri, honen erabilpen okerra baizik; sarri gertatzen da bakealdian zigortzen ditugunak borrokalari bikainak izanen liratekeela guda garaian. Beraz, dena da erabileraren arabera, eta norberak dauzkan abantailak onerako ala txarrerako, zein norabidetan erabiltzen diren. Egia izan ohi da, halaber, sarri askotan, eta ez dugu gauza bitxitzat hartu behar, gizakiek euren buruak kondenatzen dituztela, hala nola besteengan gaitzesten dutena egiten dutenean, eta sarritan jendea eskandalura daraman kontraesana dago haien hitzen eta egintzen artean, halatsu epaileak edo

predikariak egiten eta defendatzen duena mundu guztiaren aurrean nabarmen geratzen denean.

(§ 11) **FILALETES:** Bertutetzat hartzen dena nonahi da laudagarri. Bertutea eta laudorioa adierazteko izen bera ere erabili izan da maiz. Sunt hic etiam sua praemia laudi dio Virgiliok (Eneida, 1. liburua, 461. bertsua), eta Zizeronek: Nihil habet natura praestantius quam honestatem, quam laudem, quam dignitatem, quam decus (Quaest. Tusc., 2. liburua, 20. atala); eta aurreraxeago: Hisce ego pluribus nominibus unam rem declarari volo¹⁵⁶.

TEOFILO: Egia da bertutea esateko onestasuna hitza erabili izan dutela zaharrek, hala nola incoctum generoso pectus honesto¹⁵⁷ goretsi zutenean. Eta egia da, halaber, honestus hitza ohore edo laudoriotik datorrela. Ez du honek esan nahi, ordea, gorapatzen dena bertutea denik, laudagarri dena baizik; eta hau egiari dago atxikita, ez iritziari.

FILALETES: Batzuek ez dute serioski Jainkoaren legean pentsatzen edota egunen batean legegile horrekin adiskidetuko direla espero dute eta Estatuaren legeari dagokionean zigorgabetzat dauzkate euren buruak. Ez da kontuan hartzen, adiskide dituzun eta zure alde nahi dituzun horien irizpideen aurkako zerbait eginez gero, ezin galaraziko duzula haien gaitzespenak eta arbuioak zugan eragindako nahigabea. Nor bere izakeraren sentipen izpirik geratzen zaion inor ezin da gizartean etengabe mesprezupean bizi; hor datza erreputaziozko legearen indarra.

TEOFILO: Lehen ere esan dut ekintzak berez ez duela erakartzen lege baten zigorra, zigor naturala erakartzen duen bezainbeste. Hala eta guztiz, egia da jende asko ez dela ia horretaz arduratzen, zeren batzuen mesprezua bereganatu badute egintza arbuigarriren batengatik, kidekoak ere aurkituko dituzte edota mesprezatuko ez dieten errukideak, beste nonbaitetik ere oso gomendagarri ez izatera iritsi badira. Ekintzarik zitalenak ere ahaztu egiten dira eta sarritan aski da ausarta eta lotsagabea izatea, Terenzioko Formion bezala, edozer ontzat hartzeko. Eskumikuak sortuko balu egiazko mesprezu iraunkor eta orokorra, zure idazleak aipatutako lege horren indarra edukiko luke: eta eduki ere halakoxe indarra zeukan lehen kristauen baitan eta jurisdikzioaren egitekoak betetzen zituen, honen beharrik gabe zigortzen baitzituzten errudunak; artesauen antzera, hauek ere ohitura batzuk gorde baitituzte euren artean legeetatik kanpo, hauek betetzen ez dituztenen mesprezurako. Horra zergatik dueloek indarrean dirauten debeku guztien gainetik. Desiragarri litzateke jendea bere buruarekin eta arrazoiarekin ados jar ledin laudoriotan bezala gaitzespenetan; eta batez ere, handikiek ez ditzatela gaizkileak babestu haien makurkeriei barre eginez; sarri iduri baitu, mesprezua eta irria gaizkileak barik, haren egintzak jasan dituenak nozitzen dituela. Hor ikusten da gizakiak, oro har, ez duela bizioa arbuiatzen ahultasuna eta zoritxarra bezainbat. Beraz, erreputaziozko legea eraberritze premian dago eta leialkiago egin behar zaio men.

(§ 19) **FILALETES:** Harremanen gogarpena amaitu aurretik azpimarratu nahi dut gehienetan nozio hain argia edota argiagoa daukagula erlazioari buruz beronen oinarriari buruz baino. Sinetsiko banu nik Senproniak aza azpitik atera zuela Tito haurrei kontatu ohi zaienez, eta jarraian Kaio molde berean eduki zuela, emaginik jakintsuenak bezain argi izango nuke Tito eta Kaioren arteko anai erlazioaren nozioa.

TEOFILO: Hala ere, behinola haur bati esan zitzaionean jaio berri zen bere anaia txikia putzutik aterea zela (Alemanian erabili ohi da erantzun hau jaiotzeaz galdetzen duten haurren jakinahia asetzeko), harrituta ihardetsi zuen umeak ea zergatik ez zuten berriro putzura eramaten amari marruka hainbeste gogait eragiten zionean. Izan ere, azalpen horrek ez zion ezagutzera ematen amaren haurraganako maitasun arrazoirik batere. Esan dezakegu, beraz, erlazioen funtsa ezagutzen ez dutenek haiei buruz pentsamendu nolabait zurrunik eta eskasak baino ez dituztela, pentsamendu hauek aski izan daitezkeen arren ikuspegi batzuetatik eta zenbait alditan.

XXIX

Idea argiak eta ilunak, bereziak eta nahasiak

(§ 2) FILALETES: Ideien arteko ezberdintasun batzuk aztertuko ditugu jarraian. Gure idea bakunak argiak dira, sortarazi dituzten objektuek irudikatzen dituztenean edo irudika ditzaketenean sentipen edo pertzepzio ongi ordenatuari eskatzen zaizkion baldintza guztiekin. Oroimenak horrela gordetzen dituztenean idea argiak dira, eta jatorrizko zehaztasun hau falta zaien heinean edota, nolabait esateko, lehendabiziko freskotasun hura galdu eta denborarekin hits eta zimel bilakatzen diren neurrian, ilunak deritze. Idea konplexuak argiak dira hauen osagarri bakunak argiak direnean eta idea bakun hauen kopurua eta ordenamendua finkatuta dagoenean.

TEOFILO: Idea egiazko eta faltsu, argi eta ilun, berezi eta nahasiei buruz nik egindako hitzaldi xumean, Leipzigekeo agiritan 1684an argitaratu zenean¹⁵⁸, idea argien definizioa eman nuen, bakunei eta konposatuei doakiena eta hemen horretaz esandakoaren adierazgarri. Idea bat argia dela diot gauza antzemateko eta bereizteko aski denean: hala nola, kolore baten idea argia dudanean ez dut besteekin nahasiko, edota landare baten idea argia badut, bereiziko dut berau antzekoen artean; hala ez balitz, idea iluna da. Gauza sentigarrien idea erabat argirik ia ez dugula uste dut. Badira koloreak hain antzekoak ezen bereiztezinak gertatzen diren oroimen soilez, baina batzuetan berezi ahal izanen ditugu elkarren ondoan ipiniz. Eta landare bat zehatz-mehatz deskribatu dugula uste dugunean, Indietatik ekarri ahal izanen digute beti besteren bat, gure deskribapenean zehaztu dugun oro eduki arren, espezie ezberdinekoa: ezingo ditugu, beraz, sekulan zehaztu species infimas, hots, azken espezieak.

(§ 4) FILALETES: Idea argia da izpirituak era bete eta nabarmenean, den bezala hautematen duena, horretarako gai den gurputz-atalean egokiro eragiten duen kanpoko objektu batetik hartzen duenean; orobat, izpirituak beste edozein ideiatatik bereiziko duen ezberdintasunen bat antzematen duenean, idea berezi baten aurrean gaude; eta idea nahasia da, ezberdina behar duen beste batetik nahiko bereizgarri ez dena.

TEOFILO: Idea bereziari eman diozun definizio horrekin ados, ez dakusat zertan bereiz daitekeen idea argitik. Horregatik jarrai ohi diot hemen Descartesen esamoldeari, zeinarentzat idea bera aldi berean argia eta nahasia izan daitekeen, eta halakoxeak dira, izan ere, organoei dagozkien koalitate sentigarrien ideiak, kolorearena edota beroarena kasu. Argiak dira, aise antzematen eta bereizten ditugulako elkarrengandik, baina ez dira bereziak euren muinean daukatena bereizten ez delako. Ezin dugu, beraz, haien definiziorik eskaini. Exenplu bidez soilik eman ditzakegu ezagutzera eta gainontzekoan (auskalo zer!) dela esan beharko da, haren egitura soma dezagun bitartean. Horrela, gure esanetan, idea bereziekin objektua beste batengandik bereizten duten arren, bai idea argiek ere, euren baitan nahasiak izaki, gauza bera egiten dutelarik, guk bereziak deritzegu, ez bereiztaile direnei edota objektuak bereizten dituzten guztiei, ongi bereiztuta daudenei baizik, hots, berez ezberdinak izaki, objektuaren adierazgarri diren markak bereizten dituztenei; honek damaigu haren azterketa edo definizioa; hala ez direnean, nahasiak deritzegu. Zentzu honetan, ideien munduan dagoen nahaspila gaitzespenetik libra daiteke, gure izaeraren akatsa baita; ezin berezi ditugu, adibidez, usainen eta zaporeen kausak, ez eta koalitate hauek beren baitan daukatena. Gaitzesgarri izan daiteke nahaspila hau garrantzitsua denean eta nire esku dagoenean idea zehatzak edukitzea, hala nola urre-itxurakoa egiazko urretzat hartuko banu, legezko urrearen ezaugarriak bereizteko behar diren saioak egin ezagatik.

(§ 5) FILALETES: Esan daiteke, baina, berez idea nahasirik ez dagoela (edota idea ilunik, zure esamoldean) zeren ezin baita ideiarik izan izpirituak hauteman duen gisa ez bada, eta nahiko bereizten du horrek gainontzeko guztiengandik. (§ 6) Eta eragozpen honi irtenbide emateko jakin behar da ideien akatsa izenetatik datorrela, eta ideiak

engainagarri bihurtzen ditu haiek adierazteko erabili den izenaz aparte beste batez ere azaldu ahal izateak.

TEOFILO: Hori ez dugu, nire ustez, izenen menpe utzi behar. Alexandro Handiak, diotenez, landare bat ikusi omen zuen ametsetan, Lisimako sendatzeko landare aproposa; Lisimakia izena ezarri zitzaion belar honi gero, erregearen adiskide hori osatu zuelako¹⁵⁹. Alexandrok landare franko ekar liezaioten agindu zuenean eta hauen artean ametsetan ikusitakoa antzematean, zoritxarrez hau bereizteko ideia aski argia izan ez balu eta Nabukodonosorrek bezala Daniel baten laguntzaren premia izan balu bere ametsaren esanahia argitzeko, orduan, zalantzarik gabe, edukitako ideia iluna eta akasduna zatekeen (nahiago dut horrela deitu nahasia baino), ez izen bati aplikazio zehatzaren faltagatik, ez baitzegoen batere, gauzari, hau da, sendatu behar zuen landareari aplikaziorik ezagatik baizik. Hori gertatuz gero, Alexandrok ñabardura batzuk gogoratuko lituzke baina zalantzak izango lituzke beste zenbaitetan; eta izenak zerbait izendatzeko balio digunez, izenen aplikazioari buruzko zerbait ez daukagunean, izen horrek aipatzen duen gauzarik ere ez dugu edukitzen ohi.

(§ 7) FILALETES: Ideia konposatuak direlarik inperfekzioz kutsatuenak, ideia konposatua ideia bakun gutxiegi osatua izanaren ondorio izan daiteke akats hau; hala gertatzen da, adibidez, orbandun larruko piztia baten ideiarekin, ideia orokorregia baita hau eta ez aski, katamotza, leopardo eta pantera bereizteko, hauetariko bakoitzak bere izen partikularra duelarik ere.

TEOFILO: Animaliei izenak ezarri aurretik Adan zegoen egoeran bageunde ere, akats hau izango zen. Zeren gauza jakintzat emanda ere orbandun piztien artean badela bat ikusmen ikaragarri zorrotzekoa, baina tigrea, katamotza edo beste espeziekoren bat ote den jakin gabe, hura bereizi ezina inperfekzioa da. Ez da, beraz, hainbat kontsideratu behar izena, nola izen horrek subjektuari erantsi diezaiokeena, honek egiten baitu animalia izen bereziaren duin. Orbandun piztiaren ideiak ere berez ona dirudi, iluntasunik eta nahasmendurik gabea, genero gisa soilik erabiltzerakoan; baina, aski oroitzen ez dugun beste ideiaren bati erantsita, espeziea izendatu behar duenean, huraosatzen duen ideia iluna da eta inperfektua.

(§ 8) FILALETES: Alderantzizko akatsa gertatzen da ideia konposatuaosatzen duten ideia bakunak kopuru egokia direnean, baina nahasiegiak eta lardaskatuegiak; hala nola, zenbait koadro hain itxura nahaspilatsukoak dira ezen esan baitaiteke lainoz jositako zerua, eta ez besterik, irudikatzen dutela, salbu eta egiaz hori direnean; orduan ezin esango baikenuke nahasmendurik egon denik, ez eta hura imitatzeke beste koadroa denean ere; baina koadro horrek erretratu bat azaldu behar duela esaten denean, arrazoiz deituko diogu nahasia, ez baitakigu gizakiaren erretratua den ala tximinoarena ala arrainarena; gerta daiteke, halere, nahasmendua desagertzea, ispilu zilindrikoan Julio Zesar dela egiaztatzen dugunean¹⁶⁰. Beraz, adimenaren pinturetako ezein (horrela deitzea zilegi bazait) ezin dugu nahasia deitu, haren atalak nolanahi elkartuta egonda ere; zeren, edozelakoak izanda ere, pintura horiek beste edozeinengandik argi eta garbi bereizgarri izanzen baitira, arik eta izen arrunt batez izendatuak izan daitezen arte, eta ezin ikus dezakegu izen horri adiera ezberdineko beste edozeini baino hobeto doakionik.

TEOFILO: Arik eta modu zehatz batez begiratzen ez diogun bitartean, atalak era ezberdinez eta emaitzarik osatu gabe ikusten den koadro horrek harri pila baten ideia dakarkigu gogora, zeina zure zentzuan ezezik nirean ere zinez baita nahasia, harrien kopurua eta beste zenbait tasun era bereizian irudikatzen ez ditugun bitartean. Hogeita hamasei balira, adibidez, ezin jakingo genuke (pilaturik eta ordenatu gabe ikustean) haiek triangelu bat edota karratu bat osa dezaketela, eta ahal dute, 36 zenbaki karratua eta orobat zenbaki triangeluarra ere badelarik. Era berean mila alde dituen irudiari erreparatzean, haren ideia nahasia baino ez dugu izanzen arik eta beraren alde kopurua,

hots, 10en kuboa jakin arte: ez da, beraz, izen arazoa, nahaspila askatutakoan ideian aurkitu behar diren tasun bereiziena baizik. Eta nekez aurkitzen da batzuetan horretarako gakoa edota ikuspuntu batetik edo ispilu edota lente baten bidez erreparatzeko modua¹⁶¹, hori egin zuenaren helburua ikusteko.

(§ 9) FILALETES: Ukaezina da, halere, ideietan hirugarren akats bat dagoela, zeina hitzen erabilera okerraren menpe dagoen, hau da, gure ideiak zalantzazkoak edota zehaztugabeak direnean. Horrela egunero ikusten ditugu pertsonak, euren amahizkuntzako esapideak berauen esanahi zehatza ikasi aurretik inongo eragozpenik gabe erabiltzen dituztenak, hitz hauei atxikitako ideia aldatuz euren solasean agertzen diren ia aldi oro. (§ 10). Argi dago, beraz, izenek laguntzen diotela ideia bereizi eta nahasien deiturari, eta gauza ezberdinen adierazpen gisa hartutako izen ezberdinen oharpiderik gabe guztiz zaila litzatekeela esatea zer den ideia nahasia.

TEOFILO: Haatik, azaldu berri dut hori, izenak kontuan hartu gabe, bai nahasmena nik (eta zuk ere) iluntasuna deritzodanatzat hartuta, bai neure zentzuan hartuta ere, dagokion nozioaren azterketarik ezean oinarrituz. Halaber, azaldu dut ideia ilun oro zehaztugabea eta zalantzazkoa dela, ikusi dugun piztia orbandunaren adibidean bezala, non badakigun nozio orokor honi zerbait erantsi behar zaiola, zerbait hori gogoan argi ez badugu ere, halako moldez non zehaztu dituzun lehen eta hirugarren akatsa bat bera diren. Egia da, baina, hitzen gehiegikeria akats iturri oparoa dela, kalkulu-akats gisa gertatzen baita, kalkulatzekoan fitxaren¹⁶² lekua ongi adieraziko ez bailitzan, edota zenbaki baten ikurrak hain oker idatziko bailiran non 2a 7tik bereizterik ez legokeen, edo zabarkeriaz bat kendu edota bestea aldatuko bailitzan. Hitzen gehiegikeria hau oro-aren ideiak ez ukitzean datza, edota ideia inperfektua ukitzean, beronen ataletariko bat hutsik baitago eta nolabait esateko, ezer gabe geratzen da; bi kasuotan zerbait huts eta sorgor dago pentsamenduan, izenak soilik bete dezakeena; edota azkenik akatsa izan daiteke, hitzari ideia ezberdinak egozte, zein aukeratu zalantzan gaudelako batzuetan, ideia ilun bihurtuz, atalen bat sorgor geratu bailitzan; eta besteetan, ideiak bata bestearen ondoren hautatzen direlako, eta arrazoinamendu berean hitz beraren esanahia adierazteko orain bata gero bestea erabiltzen ditugulako, okerraren bat eragiteko moduan, ideia horiek bat ez datozela kontuan hartu barik. Hartaz, dudazko pentsamendua hutsa da eta ideiarik gabea, edo ideia bat baino gehiagoren artean zalantzan dabil. Honek ondorio txarrak dakartza, zerbait zehatza izendatu nahi delako edo hitzari eman nahi zaiolako lehen ere erabili dugun edota besteek darabilten esanahiren bat, batez ere denon mintzaira arruntean edota lanbide bereko jendearenean. Hemendik sortzen dira amaigabeko eztabaida hutsal eta alferrak solasaldietan, auzitegietan eta liburuetan, sarri bereizketa bidez ebatzi nahi izaten direnak, gero areago nahaspilatzeke baino balioko ez badigute ere, esapide ilun eta hits baten ordezkotzat are eta ilunagoak eta hitsagoak hartuz, halakoxeak baitira sarritan filosofoek euren bereizkuntzetan darabiltzaten definizio zehatzik gabeko esapideak.

(§ 12) FILALETES: Izenekiko zerikusi sekretua duenaz gain beste nahasmendurik baldin eta badago ideietan, hau izanen da bederen istilu gehien sortzen duena gizakien pentsamenduetan eta diskurtsoetan.

TEOFILO: Ados nator horretan, baina gehienetan nahasi egin ohi da gauzaren nozioa eta izen hori erabiltzen duguneko helburua; hala gertatzen da, adibidez, Elizaz mintzatzean; batzuek gobernu moduan ikusten dute, besteei aldiz, doktrinaren egia dakarkie gogora.

FILALETES: Nahaste hau saihesteko bidea kopuru finkoan eta ordena mugatuan elkartutako ideia bakunen multzoari beti izen bat bera ezartzean datza. Baina, hau ez datorrenez bat gizakien ez nagiarekin, ez harropuzkeriarekin, eta egiaren defentsarako zein aurkikuntzarako soilik balio duenez, eta hau ez da beti haien asmoen jomuga, halako zehaztasuna ez da espero ditugun gauza horietariko bat, desira ditugunetarikoa

baizik. Ia ezdeus hutsa diren ideia zehaztugabe eta aldakorrei izenen aplikazio ilunak (pentsamendu sorgorretan) gure ezjakina estaltzeko balio izaten du batetik, eta bestetik gainontzekoak nahasteko eta aldrebesteko; benetako jakituriatzat hartzen da hau eta ezagutze gaian gailentasun seinaleztat.

TEOFILO: Dotoretasunaren eta hitz sotilen hantustea ere hizkera nahaspildu honen mesedetan izan ohi da: zeren pentsamenduak modu dotore eta atseginez adierazteko, hitzei tropo delakoaren bidez aise ematen baitzaie euren esanahi arrunta ez dena, orokorragoa batzuetan, mugatuagoa besteetan, eta honi deritzogu sinekdoke; edota esanahia aldatu ohi da, izenak aldatzen dizkiegun gauzen arteko erlazioa kontuan hartuz, elkargunezkoa metonimietan, eta alderatzezkoa metaforetan; eta ezin aipatu gabe utzi ironia, zeinetan kontrakoaz baliatzen garen hitza ordezkatzekoan: hala deritzegu aldakuntza hauei, egiaztatzen ditugunean; oso gutxitan egiaztatzen ditugu, baina. Mintzairaren zehazgabetasun honen barnean, ez baitaukagu hitzen esanahia araupetuko lukeen inolako araudirik, zuzenbide erromatarreko Digesto idazpuruan aipatzen direnen antzekoa, De verborum significationibus delakoan alegia, irakurle arruntentzat idazten duten pertsonarik zuhurrenek hitzen esanahi finkoei ertsiki lotu nahi izanez gero ez lituzkete erabiliko euren espresioei xarma eta indarra itsasten dieten esapideak. Zaindu egin behar da aldaketak ez dezan errakuntzarik, ez arrazoinamendu faltsurik eragin. Antzinakoek egin ohi zuten bereizketa hark balio digu hemen ere, alegia, idazkera exoterikoa, hau da, herrikoia eta akroamatikoa¹⁶³, hots, egiaren bila saiatzaren direnena. Eta norbaitek idatzi nahi izango balu metafisikari edo moralari buruz matematikari gisa, ezerk ez lioke zehaztasunez idaztea eragotziko. Horren aitormena egin digute batzuek eta agindu ere agindu dizkigute froga matematikoak matematiketatik landa; baina nekez lor dezakete arrakastarik. Nire ustez, irakurle kopuru xume batentzat horrenbeste neke hartu beharraren beharraz aspertuta amaitu dute, non eta galdera egin baitziezaieketen euren buruei, Persiorenean bezala: quis leget haec?, eta erantzun: vel duo vel nemo¹⁶⁴. Uste dut, halere, behar bezala saiaturik bagina, ez legokeela damuarentzat lekurik. Saiatu ere inoiz saiatu naiz.

(§ 13) FILALETES: Hala eta guztiz, aitortuko didazu ideia konposatuak izan daitezkeela oso argi eta bereiziaz batetik, oso ilun eta nahasiak bestetik.

TEOFILO: Ez dago horren zalantzarik, zeren, adibidez, ideia oso bereiztuak baititugu giza soinen ageriko atal solido gehienena, ez ordea bertan dauden likidoenak.

FILALETES: Norbait mintzo delarik mila aldetako irudi batez, irudi honen ideia oso iluna izan daiteke haren baitan, kopuruarena guztiz bereiziaz izan arren.

TEOFILO: Adibide hori ez da hemen egokia; mila aldeko poligono erregularra mila zenbakia bezain era bereiziaz ezaguna da, zeren bertan argitara atera baitaitezke eta frogatu mota guztitako egiak.

FILALETES: Ez daukagu baina mila aldeko irudi baten ideia hain zehatza, bederatziehun laurogeita hemeretzi alde baino ez dituen beste batengandik bereizteko modukoa.

TEOFILO: Adibide honetan ikusten da nola nahasten ditugun hemen ideia eta irudia. Norbaitek poligono erregularra proposatzen badit, ikusmenak eta irudimenak ezin didate ulertarazi mila alde dituela; irudiaren eta haren kopuruaren ideia iluna baino ez daukat, kopuru hori zenbatuz bereiz dezadan arte. Baina behin aurkituz gero, oso ongi ezagutzen ditut proposatutako poligonoaren ezaugarriak eta izaera, kiliogonoarenak¹⁶⁵ baitira; badut, beraz, haren ideia hau, baina ezin eduki kiliogonoaren irudia, eta sentimen eta irudimen zorrotzagoak eta trebatuagoak beharko genituzke berauen bidez alde bat gutxiago duen poligonotik bereizteko. Baina irudien ezagutzak bezala kopuruaren ere ez daude irudimenaren menpe, lagungarri zaien arren; matematikariak zehatz-mehatz ezagutu dezake eneagono baten eta dekadagono baten izakera hauek eraiki eta aztertzeke moduak dituelako, ikuste soiletik bereizi izango ez baditu ere. Gerta daiteke langile

batek edo injineruak geometrilari jakintsu bati honetan abantaila hartzea, zeren irudien izakera hain sakon ezagutu gabe ere bereiz bailitzakete agian ikuste soilez, haiekin neurtu behar barik; badira zamariak eta bizkarkariak garraiatu behar dutenaren pisua libra baten gora-beherarik gabe esango dizutenak, munduan estatika gehien dakiena aise gaintuz honetan. Iharduera luzez eskuratutako ezagutza enpiriko hau guztiz erabilgarri izan daiteke arin ekin behar denean, sarritan injineruak behar izaten duena, gelditzeak ekar dezakeen arriskuagatik. Halere, irudi argi hori, dekapono erregularrari erreparatzeko edo 99 librako pisua asmatzeko ahalmena ideia iluna baino ez da, ez baitigu balio pisu horren edota dekapono erregularraren izaera eta ezaugarriak argitara ekartzeko, horretarako ideia bereizia behar baita. Adibide honek laguntzen digu ideien arteko aldeak ulertzen, hobeto esan, ideia iruditik bereizten.

(§ 15) FILALETES: Hona beste adibide bat: sinestarazi digute betierekotasunaren ideia positiboa eta osoa daukagula, esan nahi baita, ez dagoela iraupen horren zatirik gure ideian argi ezaguna ez denik: baina handia izanagatik bururatzen dugun iraupen hori, mugarik gabeko luzapenaz ari garelarik, beti geratuko da ideiare zati bat bururatu dugunaz haraindi, eta hau iluna eta zehaztugabea izanen da; horra zergatik betierekotasunari buruz edo infinituaren beste edozein ideiaz eztabaidatzen eta argudiatzen denean absurdutasun nabarmenetan nahasten garen, besterik ezinean.

TEOFILO: Adibide hau ere zure asmoari baino hobeto doakio neureari, zuri amore emanarazteko, alegia, gai honi buruz dituzun nozioetan. Ideia eta irudiaren arteko nahaspila bera da. Betierekotasunaren ideia osoa eta zehatza daukagu, haren definizioa daukagunetik; ez daukagu, baina, haren irudirik; ez dugu, haatik, infinituen ideia zatika osatzen, eta infinituaz argudiatzerakoan egiten ditugun errakuntzak ez dira irudiaren inongo akatsen ondorio.

(§ 16) FILALETES: Ez al da, baina, egia, materiaren zatigarritasun infinituaz ari garenean, zatiketaren ideia argiak eduki arren, partikulei buruz ideia oso ilun eta oso nahasiak ditugula? Galdera hau egiten diot neure buruari, norbaitek hartzen badu sekulan ikusi duen hauts atomorik txikiena, izango ote du ideia bereizirik atomo horren 100.000.aren partikula eta 1.000.000.aren partikularen artean?

TEOFILO: Berriro ere irudiaren eta ideiare arteko quiproquo delakoan jausten gara, bi hauek hain sarri nahasian ikusteak biziki harritzen banau ere: inondik ere ez da txikitasun hain handiaren irudia eduki nahia. Gure gorputzaren oraingo eraketaz ezinezkoa da, eta eduki ahal izanen bagenu, gaur egun antzemangarri iruditzen zaizkigunen antzekoa litzateke gutxi gora-behera; baina ordainez, orain gure irudimenaren objektu denak ihes egingo liguke eta imajinatze handiegi bilakatuko litzauguke. Handitasunak ez du berez irudirik, eta hartaz ditugunak organoekiko eta beste objektuekiko alderaketaren menpe daude; alferrik da honetan irudimena erabiltzea. Beraz, hemen esan dizkidazunengatik ere badirudi, jauna, ziorik gabeko eragozpenak asmatzen iaioak gabela, behar baino gehiago galdetzen baita.

XXX

Idea errealak eta ametsezkoak

(§ 1) FILALETES: Gauzei buruz, ideiak izan daitezke errealak edo ametsezkoak, osotuak edo osotugabeak, egiazkoak edo faltsuak. Ideia errealtzat hartzen ditut naturan oinarria dutenak eta izaki errealarrekin, gauzen existentziarekin eta arketipoekin ados datozenak; bestela, fantastikoak dira, ametsezkoak.

TEOFILO: Azalpen honek badu iluntasunik. Ideiak eduki dezake naturan oinarri, oinarri horrekin ados egon gabe ere, hala nola koloreak eta beroak gudan eragiten dituzten sentipenak berarizko ezereen edo inongo arketiporen antzeko ez direla baieztatzen saiatzen garenean. Hartaz, ideia bat erreala izanen da ahalgarri denean, existitzen den

ezein izaki berarekin ados etorri ez arren. Hala ez balitz, espezie bereko banako guztiak desagertuz gero, espezie horren ideia ametsezkoa bihurtuko litzateke.

(§ 2) FILALETES: Ideia bakun oro errealak dira, zeren askok uste arren zuritasuna eta hotsasuna ez direla elurraren baitan existitzen bertan oinazea existitzen den baino areago, haien ideiak, haatik, kanpoko gauzek dauzkaten ahalmenen ondorio dira gudan, eta ondorio iraunkor horien bidez bereizten ditugu gauzak, gauzen beraien baitan existitzen denaren irudi zehatzak bailiran.

TEOFILO: Lehentxoago aztertu dut puntu hau: baina, diozunagatik, badirudi ez dela beti arketipoarekiko adostasuna eskatzen; eta nik onartzen ez dudana harako iritzi hari jarraiki, zera dioena alegia, Jainkoak ideiak arbitrariedadez eman dizkigula objektuen kalitateak zehazteko, haiekiko antzekotasunik gabe eta are erlazio naturalik gabe; ideia eta arketipoen artean erlazioa hitzena bezain eskasa litzateke, hauek hizkuntzetan ideiei eta gauzei buruz erabiltzen baitira, hala araututa dagoelako.

(§ 3) FILALETES: Izpiritua pasiboa da bere ideia bakunekiko, baina ideia konposatuak eratzeko, zeinetan zenbait bakun izen bat beraren pean geratzen diren, ideia bakunekin izpirituak egiten duen konposaketak nahitazkoaren kutsurik badu: zeren batek ideia konplexuan urrea eta justizia onartzen baititu, besteak, aldiz, ez.

TEOFILO: Ideia bakunekiko izpiritua eraginkor ere bada, batzuk besteetatik askatzen dituen banan-banan aztertzeke. Hau nahitazkoa da, zenbait ideien konbinazioa nahitazkoa den bezala, bai horren ondorio den ideia konposatuari ardura emateko egiten duelako, bai konbinazioari egotzitako izenpean haiek biltzeko asmoa duelako. Izpiritua ezin da honetan okertu, harik eta ideia elkartezinak batzen ez dituen bitartean, eta izen hori, nolabait esateko, birjina den bitartean, hau da, ez dakiola jada noziorik atxiki, honek nahasmena sor baitezake orain atxikiko zaionarekin, elkarrekin existitu ezin dena elkartzuz ezinezko nozioak sortuko baititu, edo gehiegizko nozioak, obrepzioren¹⁶⁶ bat dutenak, bata besteagandik frogapenaren bidez erator daitezkeen ideiak elkartzuz.

(§ 4) FILALETES: Modu mistoek eta erlazioek gizakien izpirituan daukatenaz aparte beste errealiterik ez dutenez, ideia mota hauek errealak izan daitezen elkarrekin existitzeko eta bateragarri izateko posibilitatea baino ez da behar.

TEOFILO: Erlazioek izpirituaren menpe dagoen errealitatea daukate, orobat egiek; ez, ordea, giza izpirituaren menpe, adimen goren bat existitzen baita denak aldi oro finkatzen dituen. Erlazioen ezberdinak diren modu mistoak akzidente errealak izan daitezke. Baina izpirituaren menpe egon ala ez, haien ideien errealiterako aski da modu hauek ahalgarri izan daitezen edo, gauza bera dena, era bereizian ulargarri. Eta horretarako osakinek ahalgarrikide izan beharko dute, hau da, elkarrekin existitzeko gai.

(§ 5) FILALETES: Baina substantzien ideia konposatu oro gugandik kanpo dauden gauzei begira moldatuak izan direnez, eta substantziak errealitatean existitzen diren moduan irudikatzeke, ezin dute errealak izan, ez bada ideia bakunen konbinaketak direlarik, gugandik at elkartzurik existitzen diren gauzetan zinez batuta eta bizikidetuta. Ametsezkoak dira, aldiz, sekulan egiaz batuta egon ez diren eta sekulan substantzia berean elkartzuta aurkitu izan ez diren ideia bakunen bildumez osatuak, hala nola zentauroarenak, edo pisuan izan ezik, urrearen guztiz antzeko eta ura baino arinagoa den gorputzarena, nahimenezko pertzepzio eta mugikortasunez hornituta, sentimenetan antzekoa den gorputzarena, etabar.

TEOFILO: Errealak eta ametsezkoa hitzak era honetan hartuz gero, moduen ideiei buruz eta gauza substantziala osatzen dutenez era ezberdinez ari garenean, ez dut inondik ere ikusten kasu bati zein besteari doakion zein nozio egozten diezun ideia errealei, zein ametsezkoari; zeren zuretzat moduak errealak dira ahalgarri diren neurrian, eta gauza substantzialek existitzen direnean baino ez dute, zure ustez, ideia errealik. Baina

existentziari egokitu nahiean ideia bat ametsezkoa den ala ez ozta-ozta finka dezakegu, zeren ahalgarri dena gu gauden lekuan eta garaian aurkitzen ez bada ere, agian behinola existu izan ahal da edota geroan noizbait agian existituko da, edota aurkitu daiteke gaur egun beste mundu batean edo akaso gurean, inork jakin ez arren, hala nola Demokritok Esne-bideaz izandako ideia, teleskopioek gero egiaztatu dutena¹⁶⁷; badirudi, beraz, zuhurrena dela baieztatzea ideia ahalgarriak ametsezko bihurtzen direla funtsik gabe egiazko existentzia egozten zaienean soilik, harri filosofala aurkitu uste dutenek egin ohi dutenez, edota zentauroz osatutako nazioaren existentzia sinesten dutenek egingo luketenez. Osterantzean, existentziaren gain soilik finkatzean, premiarik gabe aldenduko gara hizkera arruntetik, honek ez baitu onartzen neguan arrosez eta krabelinez mintzatzen dena ametsezko zerbaitez ari denik, salbu eta bere lorategian aurkituko dituela imajinatzen ez duen, Alberto Handiaz edo beste edozein ustezko aztiz kontatzen den moduan¹⁶⁸.

XXXI

Idea osotuak eta osotugabeak

(§ 1) FILALETES: Ideia errealak osotuak dira, hauek perfektuki irudikatzen dutenean jatorrizkoak, zeinetatik izpirituak uste duen haiek sortu direla, zeinak irudikatzen dituzten eta zeinekiko erlazionatzen diren. Ideia osotugabeek honen zati bat baino ez dute irudikatzen. (§ 2). Gure ideia bakun oro dira osotuak. Zuriaren ideia, edota azukrearen baitan nabari dugun gozoarena osotua da, horretarako aski baita, Jainkoak sentipen horiek eragiteko gorputz horretan ezarri dituen ahalmenei ideia horrek osoki erantzutea.

TEOFILO: Ideia osotuak edo osotugabeak deritzezula ikusten dut, zure idazle kutunak ideas adaequatas aut inadaequatas deritzenei; era berean deitu geniezaieke burutuak edo burutugabeak. Inoiz definitu izan dut ideam adaequatam (ideia burutua), hain bereizia, ezen haren osagarri guztiak bereziak baitira, eta horrelakoxea da gutxi gora-behera zenbaki baten ideia. Baina ideia bereizia denean eta objektuaren definizioa edo elkarrekiko ezaugarriak bere baitan biltzen ditutenean, inadaequata edo burutugabea dateke, hots, ezaugarri edo zati osagarri horiek denak ez direnean zehazki ezagunak; adibidez, urrea metal bat da, arragoa eta akuafortearekiko dirauena, beraz, ideia bereizia da, urrearen definizioa edo ezaugarriak eskaintzen dizkigulako; ez da, baina, ideia burutua, arragoketaren izakera eta akuafortearen iharduketa ez ditugulako hain ezagun. Horregatik, ideia burutugabea baino ez daukagunean, subjektu bera defini daiteke elkarrekin zerikusirik ez duten zenbait modutara, bata bestetik ezin beti erator daitekeelarik, ez eta aurreikusi subjektu berarenak direnik, esperientzia baita denak batera hari dagozkiola erakusten digun bakarra. Hartaz, urrea defini daiteke gure gorputzetarik astunena edota malguena, aurki daitezkeen beste hainbat definizio aipatu gabe. Gauzen izakera gizakiok sakonago azter dezagunean soilik jakin ahal izango dugu zergatik dagokion metalerik astunenari ikerlarien bi proba horiei irautea; geometrian, ordea, non ideia burutuak ditugun, gauzak beste era batera dira, zeren froga baitezakegu planoak konoan edo zilindroan eragindako sekzioak beti direla berberak, hau da, elipseak, eta horretan arreta jarritz gero, hau ez zaigu arrotz egiten, hauei buruz ditugun nozioak burutuak direlako. Ideia burutuak eta burutugabeak bereiztea ideia bereizien birzatiketa baino ez da niretzat, eta ez dut uste ideia nahasiak, aipatu duzun gozotasunarena kasu, jauna, deitura hori merezi dutenik; zeren, sentipen horrek eragiten duen ahalmena adierazten dute bai, baina ez erabat, edo guk bederen ezin jakin dezakegu, zeren ulertuko bagenu gozotasunaren ideia horrek bere baitan biltzen duena, erabaki ahal izanen genuke aski ote den hau esperientziak bertan somarazten digun ororen arrazoi emateko.

(§ 3) FILALETES: Ideia bakunetatik konplexuetara iragan gaitezen; hauek moduzkoak ala substantziazkoak izan daitezke. Moduzkoak ideia bakunen nahizko mihiztadurak dira, izpirituak elkar hartuta erreparatzen dituenak, inongo arketipori edo gaur existitzen den eredu erreali egokitu barik; burutuak dira eta ezin dira beste inola izan; zeren kopiak ez baina arketipoak direlarik, izpirituak antolatzen dituenak haietaz baliatzeko gauzak izendapen zehatzen pean lerrokatzean, ezin baitute deusen faltarik ukan, bakoitzak dauka-eta izpirituak moldatu nahi izan duen ideien konbinaketa doia eta, ondorioz, eskaini asmo duen perfektzio zehatza; eta ez da sumatzen inoren adimenik, triangeluaren ideia perfektuagorik edo burutuagorik eman dezakeenik, nola hura bere hiru alde eta hiru angeluz definitzen duen ideiak. Arriskuaren ideia, exekuzioarena, beldurak eragindako larridurarena, egin beharrekoaren gogarren baketsuarena eta arriskuaren ikararik gabe hura orain betebideratzearena mihiztatu zituenak adorearen ideia moldatu zuen, eta nahi zuena lortu, hau da, bere gustura burututako ideia. Bestelakoa da substantziazko ideietan, hauetan errealitatean existitzen dena proposatzen baitugu.

TEOFILO: Triangeluaren edota adorearen ideiak bere arketipoak ditu gauzen posibilitatean, urrearen ideiak bezala. Ideiaren izaerari dagokionez, berdina zaio esperientziaren aurretik asmatua izatea, nahiz naturak egindako konbinazioaren pertzepzio ostean edukia izatea. Moduen egile izanik ere, konbinazioa, halaber, ez da guztiz nahitazkoa edo arbitrarioa, elkarteaz ere batera ekar baitaiteke, mugimendu amaigabekoaren makinaren asmatzaileek egin ohi duten modura; era berean asma daitezke beste hainbat onak eta erabilgarriak, gure artean aurkitzailearen ideien arketipoa baino ez daukatenak, honek, berriz, gauzen ahalgarritasuna du arketipo, hots, ideia jainkotiarra. Halere, makina hauek substantziazko zerbait dira. Ezinezko moduak ere molda ditzakegu, hala nola parabolaren paralelismoaz mintzo garenean, bi parabola elkarren paralelo, bi lerro zuzen edo bi zirkulu bailiran, aurki daitezkeela amestuz. Moduaren zein gauza substantzialaren ideia, beraz, burutua ala burutugabea izan daiteke, ideia osoa moldatzen duten zatikako ideiak ongi ulertzen diren ala ez; eta ideia burutuaren ezaugarri da, honek objektuaren ahalgarritasuna perfektuki ezagutzera garamatzanean.

XXXII

Idea egiazkoak eta ideia faltsuak

(§ 1) FILALETES: Egiaztasuna eta faltsutasuna proposizioei soilik egokitzearen ondorio da, ideiei egiazko ala faltsu deritzegunean, proposizio edo baieztapen tazitoren bat egotea. (§ 3) Gauzaren batekiko haien adostasunaren uste tazitoa dagoela, alegia, (§ 5) batik bat izen horren bidez besteek izendatzen dutenarekiko (justiziaz mintzo direnean, kasu), edota errealitatean existitzen denarekiko (gizakia, adibidez, eta ez zentauroa), edota gauzaren gaitasunak menpean dituen esentziarekiko, eta zentzu horretan substantziei buruzko gure ideia arruntak faltsuak dira, hauen artean substantziazko formak irudikatzen ditugunean. Hobeto legoke, bestalde, ideiei bidezkoak eta iruzurtiak deitzea, eta ez egiazkoak eta faltsuak.

TEOFILO: Ideia egiazkoak eta faltsuak horrela uler zitezkeela uste dut, baina esanahi ezberdin horiek euren artean bat ez datozenez eta nozio komun baten pean ezin direnez lerrotu, nahiago dut ideia egiazkoak edo faltsuak deitu, guztiek berekin duten beste baieztapen tazitoarekiko harremanagatik, posibilitatearena, alegia. Beraz, ideia posibleak egiazkoak dira eta ideia ezinezkoak faltsuak.

XXXIII

Ideen elkarlotzea

(§ 1) FILALETES: Jendearen arrazoinamenduan maiz somatzen da denok ukitzen gaituen zerbait bitxia. (§ 2) Ez da egosgogorkeria edo norberekoikeria hutsa; bihotz zabaleko jendea ere akats honen errudun baita sarri. Ez da, halaber, aski heziketari edo

aurreiritziei errua egozte. (§ 4) Erokeria mota bat da eta beti horrela jokatu bagenu, burutik eginda amaituko genuke. (§ 5) Zorian edo ohituran jatorria duen ideien arteko lotura ez-natural batetik dator akats hau. (§ 6) Joerek eta interesek ere badute eraginik. Zenbait zantzu, izpiritu animalien ibiliaren ibiliz bide tinko bilakatzen da. Doinu bat ezaguna zaigunean, hasi orduko osorik gogoratzen dugu. (§ 7) Hortik datoz gurekin sortu ez diren sinpatiak eta antipatiak. Haur bat ezti larregi janagatik gaixotu bada, gizon egitean gerta dakioke eztiaren izenik ere ezin entzutea goragalea sentitu gabe. (§ 8) Haurrak oso sentiberak dira inpresio mota horietara eta hau kontuan hartzekoa da. (§ 9) Ideien arauzkontrako elkarlotze honek eragin handia du bai gure ekintzetan, bai grina natural zein moraletan. (§ 10) Ilunbeak hurrei mamuen ideia bururatzen die, entzun dituzten ipuinengatik. (§ 11) Ez dugu gorroto gaituenaz pentsatzen, hark egindako edo egin diezagukeen gaitzaz pentsatu gabe. (§ 12) Laguna hiltzen ikusi dugun gela saihesten dugu. (§ 13) Seme kutuna galdu duen amak batzuetan poza ere galtzen du, denborak ideia horren zirrara ezabatu arte, eta zenbait kasutan ez da sekulan ezabatuko. (§ 14) Hil ala biziko ebaketa neketsuari esker, amorrutik erabat sendatua izan den gizona bizi guztian esker oneko agertu behar zaio ebaketa burutu duenari; baina hura ikuste hutsa jasan ezineko egiten zaio. (§ 15) Batzuek gorroto dituzte bizi guztian liburuak, eskolan hartutako tratatu txarregatik. Inoren aurrean izen ona noizbait lortu duenak betiko gordeko du. (§ 16) Bazen gizon bat dantzatzen bikain ikasi zuena baina ezin zuen dantzarik egin ikasi zuen gelako kutxaren antzeko bat ikusten ez bazuen aurrean. (§ 17) Honelako lotura ez-naturalak aurkitzen dira adimenaren ohituretan; materia izakiari lotzen zaio, inmaterialik deus ez balego bezala. (§ 18) Filosofian, erlijioan eta Estatuan atxiki gatzazkion sektaren alderdiaren menpe daude gure iritziak.

TEOFILO: Oharpen hau munta handikoa da eta erabat nire gogokoa; adibide askoz gehiagoz finka genezake. Descartes jaunak bere gaztaroan begi-okor batenganako ongi nahia sentitu zuen eta bizi guztian akats hori noizten zutenen aldeko joera ezin saihestu izan zuen. Hobbes jaunak, filosofo handia hau ere, ezin omen zuen bakarrik egon leku ilunean, mamuen irudiek izutzen zutelako, haiengan sinetsi ez arren, haurtzaroko ipuinen zirrara berpizten baitzitzaion¹⁶⁹. Sineskerien gainetik bizi den pertsona zuhur eta zentzuzko asko mahai inguruan hamahiru biltzera ez zaizkizu ausartuko, guztiz asaldaturik ez bada, euren irudimenean itsatsita daukatelako urte hartan mahaikideetariko bat hilko dela. Haurtzaroan horratz oker itsatsiren batek zauritutako handikiak ezin ikusi omen zuen oker atxikitako horratzik, hiltzorian jarri gabe. Bere jaunaren gortean presidente deituraz aurkeztzen zen lehen ministro bat Ottavio Pisaniren Licurgo¹⁷⁰ liburuaren izenburuak biziki mindu zuen, eta liburu horren aurka idaztea agindu zuen, idazleak justizi funtzionariak aipatzerakoan, hauek alferrikakoak uste zituelarik, presidenteak ere izendatu zituelako, eta ministroarentzat deitura honen esanahia ezberdina izan arren, hain sakonki zeukan ospezko deitura bere pertsonarekin bat eginda, zeren iraindua sentitu baitzen. Elkarlotze ez-naturalen kasurik arruntenetarikoa hitzak gauzei lotzen zaienekoa da, nahasterainokoak batzuetan. Ideien arteko lotura ez-naturalaren iturburua hobeto ulertzeko gorago esan dudana hartu behar da gogoan (XI. atala, § 1) animalien arrazoinamenduaz ari nintzela, hau da, gizakiak, animaliek bezala, oroimenean eta irudimenean bildu behar duela bere pertzepzioetan eta esperientzietan bat eginik hauteman duena. Horretan datza animalien arrazoinamendua, horrela deitzea zilegi bazaigu, eta sarritan gizakiena ere, enpirikora murrizten diren heinean eta sentimenek eta ereduak soilik gobernatzen dituztenean, lehengo arrazoi berak oraindik ere indarrean dirauen aztertu gabe. Eta kausak sarritan ezezagunak zaizkigularik, ereduak kontuan hartzekoak dira ugaritzen diren neurrian; zeren kasu honetan, pertzepzio baten itxaropena edo erreminiszentzia zentzuzkoa da hari lotutako beste pertzepzio bat eduki denean; batez ere, neurriak hartzerakoan. Baina zirrara bizi

baten indarrak bat-batean zenbait zirrara apalagoren maiztasunak eta errepikapenak lortuko zukeen bezain besteko efektua eragiten duenez, gertatu ohi da oldar supitu horrek irudimenean itsasten duela esperientzia luzeak adinako irudi sakon eta bizia. Hemendik dator nolatan zirrara ustekabeko baina bortitzak batzen dituen gure irudimenean eta oroimenean artean elkartuta zeuden ideia bi, eta indarrez eta luzerako egiten du, eta erabilera luzeak lotura hau frogatu izan balu bezalako joera eragiten du gugan haiek bata bestearen ondoren lotzeko eta itxaroteko; horrela kausa bera ez izan arren, elkartze efektu bera lortzen da. Aginteak, alderdiak, ohiturak, arrazoiaren eta esperientziaren efektu bera lortzen dute, eta zalekeria hauetatik ez gara aise libratzen. Baina, gizakiak metodoz jokatu eta egiaren bila serioski saiaturiko balira, batik bat hura aurkitzea garrantzitsutzat daukatenean, ez litzaieke hain zail egingo irizpide hauetan iruzurretik babestea.

HIRUGARREN LIBURUA

Hitzak

I

Hitzak edo hizkuntza oro har

(§ 1) FILALETES: Jaungoikoak gizakia kultura gizartekoia izateko sortu zuenetik, bere espeziekoekin bizitzeko desira iradoki eta horren beharrezana sentiarazi ezezik, mintzatzeko gaitasuna ere eman zion, berau izan zedin gizarte honen tresna nagusi eta erkidezko lotura. Horra, ideiak irudikatzeko eta adierazteko balio duten hitzen jatorria.

TEOFILO: Hobbes jaunaren pentsakeratik zu urruti ikusteak pozten nau, ez baitzuen hark onartzen gizakia gizarterako egina zela, uste baitzuen horretara bortxatu zuela premiak soilik eta espezie berekoen zitalkeriak. Ez zuen, baina, uste gizakirik zintzoenak, gaiztakeria orotik jare zirenak, elkartuko zirenik euren helburua errazago eskuratzeko, txoriek talde egiten duten moduan multzoan hobeto bidaiatzeko, eta kastoreak ehundaka batzen diren moduan eustorma handiak eraikitzeke, animalia hauen kopuru txikiak lortu ezin izango lukeena; eta eustorma horiek ezinbestekoak dituzte era horretan urtegiak edo aintzira txikiak egiteko, bertan muntatzen baitituzte beren txabolak, bertan harrapatzen, jateko behar dituzten arrainak. Horretarako gai diren animalien elkartzearen funtsa hor datza, inola ere ez kidekoen beldurrean, ez baita animalien artean beldurrik ia existitzen.

FILALETES: Oso ongi, eta gizarte hau hobeto antolatzeke gizakiak berezkoak ditu organoak, hots egokituak osatzeko moldatuak: hitzak deritzegun hotsak.

TEOFILO: Organoei dagokienez, tximinoek ere ba omen dituzte hitzak osatzeko gureak bezain egokiak, baina haiengan ez da hitz arrastorik ere somatzen. Beraz, ikusten ez den zerbait falta zaie. Kontuan eduki behar da, halaber, mintzo daitekeela, hau da ahozko hotsez zerbait adierazi, hots egokituak moldatu gabe, horretarako musikazko doinuak erabiliko bagenitu; baina doinuzko hizkuntza asmatzeko abilezia handia behar da, hitzezkoa aldiz, apurka-apurka soiltasun naturalean bizi diren pertsonak eratu eta osatu dute. Badira, halere, herriak, hala nola txinatarrak, doinu eta azentu bidez hitzak aldatzen dituztenak, hartaz, hitz kopuru txikiarekin aski dutelarik. Goliusek, matematikari ospetsuak eta hizkuntzen alorrean jakintsu handiak, uste zuen hizkuntza hori artifiziala dela, hau da, bat-batean gizaki treberen batek asmatua, Txina deritzogun herrialde handi hori osatzen duten hainbat nazio ezberdinetako biztanleen artean nolabait hitzezko harremana antolatzeke, gaur egun hizkuntza hori erabiliaren erabiliaz aldatua aurki daitekeen arren¹⁷¹.

(§ 2) FILALETES: Nola orangutanek eta beste tximinoek organoak baitituzte hitzak osatzera iritsi gabe, hala esan daiteke loroek eta beste zenbait txorik ere hitzak badituztela baina hizkukntzarik ez, zeren irakas baitakieke txori hauei eta beste askori soinu nahiko bereziak osatzen; ez daukate, baina, hizkuntzarako inongo gaitasunik. Soinu horiek barne-gogapenen adierazpen gisa erabil ditzakeen bakarra gizakia da, era horretan besteei azaldu ahal izateko.

TEOFILO: Zinez nago sinetsita elkar ulertzeke gogorik gabe ez genukeela sekulan hizkuntzarik osatuko; eta behin osatuz gero, gizakiari berez arrazoitzeke balio dio, bai hitzek pentsamendu abstraktuez gogoratzeko eskaintzen dioten erosotasunagatik, bai ikur eta pentsamendu korapilatuez baliatuz arrazoitzeke aurkitzen den ahalbideagatik; denbora gehiegi beharko baikenuke oro esplikatzeke eta hitzak beti definizioz ordezkatzeko.

(§ 3) FILALETES: Gauza partikular bakoitza izendatzeko izen bereizi bat behar izan bagenu, hitzen ugaltzeak oso nekeza egingen zigukeen hizkuntzaren erabilera; horregatik, ideia orokorrak adierazteke hitz orokorren erabilerak osoagotu egin du hizkuntza.

TEOFILO: Hitz orokorrak ez dira soilik hizkuntzak osoagotzeko, hauen eraketa esentzialerako ere ezinbestekoak dira. Gauza partikulartzat banakakoak hartzen baditugu, eta izen propioak baino ez baleude, izen apelatiborik gabe, hau da, banakoentzat soilik izango balira izenak, mintzoa ezinezkoa litzateke, eten gabe hitz berrien premian aurkituko baikinakeke banakoez, akzidenteez eta bereziki ekintzez aritzeko, hauek baitira ihardunean gehien aipatzen direnak; eta gauza partikulartzat hartzen baditugu maila apalagoko espezieak (species infimas), hauek bereizteak dakarren zailtasunaz gain, antzekotasunean oinarrituta, dagoeneko unibertsalak direla argi dago. Beraz, generoez eta espezieez mintzo garelarik, antzekotasun hedaduraren gora-beheraz ari garenez, agizkoa da antzekotasun edo egokitasun mota guztiak agertzea eta, ondorioz, gradu guztietako hitz orokorrak erabiltzea; erabilgarrienak eta errazen osatzen direnak orokorrenak izatea gertatzen da sarritan, arinago baitaude biltzen dituzten ideia eta esentziekiko, aplikagarri zaizkien banakoekiko ulergarriago izan arren. Haurrak edota mintzo nahi diren hizkuntzaz edo gaiaz oso gutxi dakitenak begira nolatan baliatzen diren hitz orokorrez, hala nola, gauza, landare, animalia... hauei dagozkien eta ezagutzen ez dituzten hitz propioak erabili beharrean. Eta gauza segurua da izen propio edo banakako oro jatorrian apelatiboak edo orokorrak izan direla.

(§ 4) FILALETES: Badira, orobat, gizakiek erabiltzen dituzten hitzak, ideiaren bat azaltzeko barik, ideia zehatz baten gabezia edo ausentzia aditzera emateko, hala nola, deus, jakineza, antzutasun.

TEOFILO: Ez dakit zergatik ezin esan litekeen ideia pribatiboak daudela, egia negatiboak dauden moduan, positiboa baita ukatze ekintza. Lehendik ere aipatua dut gai hau.

(§ 5) FILALETES: Eztabaida horretan sartu gabe eta gure nozio eta ezagutza ororen iturburura apur bat hurbiltzeko, onuragarriago izanen zaigu erreparatzea sentimenetatik oso urrun dauden nozioak eta ekintzak eratzeko erabiltzen diren hitzen jatorria nolatan ideia sentigarrietan dagoen eta nolatan handik aldatzen diren adierazpen ilunagoetara.

TEOFILO: Hala gertatzen da gure premiek ideien ordenamendu naturala alde batera uztera behartu gaituztelako, zeren ordenamendu hau komuna izanen bailitzateke aingeruentzat, gizakientzat eta adimen guztientzat oro har, eta denon gidari izanen litzateke, gure interesen ardura ez bagenu: baina gure espezieari atxikita dauden okasioek eta akzidenteez eskaini digutenari egokitu behar izan gatzazkio; eta ordenamendu honek nozioen iturbururik ez baina, nolabait esateko, gure aurkikuntzen historia ematen digu.

FILALETES: Oso ongi. Hitzen ikerketak hitzen beraien bitartez irakas diezaguke nozioek ezin eskaini diguten lotura hori, zeuk aipatu arrazoiagatik. Horrela, honako hitz hauek: irudikatu, ulertu, saiatu, bururatu, ekinarazi, nazkatu, larridura, lasaitasuna, etab., denak dira gauza sentigarrietatik hartuak eta pentsakera zehatz batzuei egotziak. Bere lehen adieran izpiritua arnasa da eta aingerua mezulari. Hortik abiatuz barrunda dezakegu zer nolako nozioak zituzten hizkuntza horiek lehenik mintzo zirenek, eta nolatan izadiak berak ustekabean iradoki zien gizakiei izen berauen bidez euren ezagutza guztien iturburua eta printzipioa.

TEOFILO: Nik ohartarazi nizun hotentoteen credo-an Izpiritu Santua izendatzeko nolatan erabili zuten beraiei haize leun, gozoa aditzera ematen dien hitza. Orobat gertatzen da hitz ia guztiekin, beti antzeman ezin bazaio ere, hitzen etimologia jatorrizkoak sarritan galduak direlako. Erlijioari atxikimendu gutxi zion holandar batek¹⁷² gehiegikeriaz jokatu zuen egia honekin (alegia, teologia, moral eta metafisikako hitzak jatorriz gauza itsusietatik eratorriak direla dioen egiarekin), eta barregarri ipini zuen teologia eta kristau fedea flamandar hiztegi labur batean, non definizio eta esplikazioetako hitzei ez baitzien ematen erabilerak eman ohi dien esanahia, hitz bakoitzaren jatorrizkoa bide zen adiera baizik, eta kontrakoa adieraztera bihurritzen zituen maltzurki hitzok; eta bestalde

ere bidegabekeriaren frogak eman zituenez, Rasperhuys-en izan omen zen zigortua. Dena den, tropoen oinarri izan den gauza sentigarri eta sentiezinen arteko analogia hau gogoan hartzea komenigarri izango zaigu. Hau hobeto ulertzeko, preposizioen erabilerak damaigu adibide guztiz arrunta: hala nola, à, avec, de, devant, en, hors, par, pour, sur, vers preposizioak, denak hartu dira jatorrian lekutik, distantziatik eta mugimendutik baina ondoren guk aplikatzen ditugu era guztietako aldakuntzetara, antolamenduetara, jarraipenetara, diferentzietara, komenientzietara. preposizioak hurbiltzea adierazten digu, adibidez, zera diogunean: . Baina zerbait lotu nahi dugunean, erantsi nahi diogunari hurbiltzen zaiolarik, esan ohi dugu gauza bat dagoela . Eta gainera lotura ez-materiala ere, nolabait esateko, gertatzen denez, gauza bat beste zerbaiten jarraian arrazoi moralengatik doanean, orduan esan ohi dugu norbaiten mugimenduei eta borondatee darraiona , pertsona horri begira bailegoen berarengana edo berarekin joateko. Bi gorputz leku berean daudenean esaten da ; baina denbora berean, antolamendu berean edo antolamenduaren atal berean aurkitzen den gauza edota ekintza berean parte hartzen duena adierazteko ere avec preposizioa erabili ohi dugu. Nonbaitetik gatozenez () lekua gure objektutzat hartu dugu, hornitu dizkigun gauza sentigarriengatik, eta oraindik ere gure oroimenaren objektua da, gauza horiez beteta dagoelako; horregatik, objektua adierazteko de preposizioa erabiltzen dugu, esate baterako: diogunean, handik (de) etortzea bailitzan. Eta leku batean (dans) edo oro baten barne dagoena bertan finkatzen delarik eta berarekin desagertzen, akzidenteak ere subjektuaren baitan ulertzen ditugu , sunt in subjecto, inherrent subjecto¹⁷³. Sur partikula ere objektuari gaineratzen zaio; esan ohi da , gutxi gora-behera, langilea ebakitzen eta lantzen ari den harriaz edo enborraz mintzo bagina bezala; eta analogia hauek guztiz aldakorak direlarik eta nozio zehatz batzuen menpe ez daudenez, horra zergatik hizkuntzek era hain ezberdinean jotzen duten preposiziopean dauden edota isilbidez birtualki datxekien partikulak eta kasuak erabiltzerakoan.

II

Hitzen esanahia

(§ 1) FILALETES: Gizakiek hitzak euren ideien adierazteko erabiltzen dituztenez, galdera hau egin daiteke lehenik eta behin: nola zehaztu dira hitz horiek? Denok ados gaude ez dela hots osatu batzuen eta zenbait ideien arteko inongo lotura naturalagatik (zeren, hala balitz, gizakion artean hizkera bakarra izango bailitzateke), araugabeko eratze (arbitraire) batengatik baizik, zeinetan halako hitza halako ideiaren adierazgarri (ikur) izatera iritsi den, hala nahi izan delako.

TEOFILO: Badakit esan ohi dela, eskoletan eta beste hainbat lekutan, hitzen esangurak arbitrarioak direla (ex instituto), eta egia da ez dituela premia natural batek finkatu, bai ordea batzuetan arrazoi naturalek, zeinetan halabeharrak bere eragina duen, besteetan arrazoi moralek, eta hemen aukerak parte hartzen du. Agian, hizkuntza artifizial batzuk erabat dira arbitrarioak eta aukerakoak, halakoa izan omen zen Txinakoa, edota Georgius Dalgarnorena¹⁷⁴ eta Chesterreko gotzaina zen Wilkins jaunarena¹⁷⁵. Hizkuntza ezagunetatik eratorritako beste horiek aukerazkoak dira, baina oinarri duten hizkuntzetan dagoen zorizkoarekin eta berezkoarekin (naturalarekin) nahasita. Halakoxea da lapurrek euren arteko harremanetarako soilik sortu duten hizkera, alemaniarrek Rothwelsch deritzena, italiarrek lingua zerga, frantsesek narquois; ezagunak zaizkien hizkuntz arruntetatik osatzen dituzte, batzuetan hitzen ohiko esanahia metafora bidez aldatuz, besteetan euren gustura konposaketa edo eratorpen bidez hitz berriak sortuz. Herri ezberdinen arteko elkartrukez ere osatzen dira hizkuntzak, bai auzoko hizkuntzak araurik gabe elkar nahasiz, bai, maizen gertatzen dena, bata oinarritzat hartu eta hura desitxuratu, aldatu, nahasi, hondatu, adierazi nahi duena gutxietsiz eta aldatuz, eta hitz berriak ezarriz. Mediterraneoko merkataritzan erabiltzen

den lingua franca italieratik dator, honen gramatika araurik errespetatzen ez duen arren. Parisen ezagutu nuen dominiko armeniar batek¹⁷⁶ latinetik eratorritako lingua franca modukoa sortu edo agian kideengandik ikasi zuen, niretzat nahiko ulergarri zena, ez deklinabide-kasurik, ez aditz-denborarik, ez flexiorik ez zuen arren, bera erraztasunez mintzo zelarik ere hartara ohituta zegoelako. Aita Labbék¹⁷⁷, hainbat liburu idatzitako jesuita frantses ospetsuak, latina oinarri harturik hizkuntza bat sortu du, gure latina baino errazagoa eta malguagoa, baina lingua franca baino erregularragoa. Hizkuntza honi buruz liburu bat idatzi du. Aspalditik datozkigun hizkuntzetatik gaur egun oso aldatua ez dagoenik nekez aurki daiteke. Nabarmen geratzen da hau antzinako liburuekin eta geratzen diren testigantzekin alderatzen badugu hizkuntza bizia. Frantses zaharra probentzeratik eta italieratik gertuago zegoen, tudeskoa, berri, frantsesarekin, edo hobe, behinola lingua romana rustica zeritzan erromanikoarekin kidetzen dugu, Kristo ondoko bederatzigarren mendean mintzo ohi ziren moduan eta Ludovico Pio enperadoreak bere zinagiritan erabili ohi zuenarekin, alegia, honen ahaide zen Nithardek¹⁷⁸ guganaino helarazi digun testigantzari begira. Ez dugu, bestalde, garai haietako frantsesik, italierarik, espainierarik ia aurkitzen. Baina tudeskoz edo antzinako alemanieraz Otfrieden ebanjelioa daukagu, artean Weissenburgon fraide zenarena, Flaciusek argitaratua eta berriki Schilterrek¹⁷⁹ berriro argitara eman nahi izan duena. Eta Britainia Handira joandako saxoniarrek liburu oraindik zaharragoak utzi dizkigute. Bedak jadanik aipatzen ditu Caedmon delako batek¹⁸⁰ idatzitako Genesis eta Testamentu Zaharreko beste zenbait libururen hasierako bertsio edo parafrasiren batzuk. Baina hizkuntza germanikoetako eta Europako hizkuntza guztietako liburutik zaharrena, grekoa eta latina salbu, Ponto Euxinoko godoen Ebanjelioa da, Codex Argenteus¹⁸¹ izenaz ezaguna, ikur guztiz bereiziez idatzia, Westfaliako Werdengo beneditarren monastegi zaharrean aurkitua, eta Suediara eramana, non, agizkoa denez, Florentzian Pandectak¹⁸² deritzonaren lehen idazkia bezain arduratsu zaindua dagoen, nahiz eta bertsio hau sortaldeko godoentzat egina den, germaniar eskandinavieratik arras bereizten den dialektoan: badira, izan ere, zantzuak antzinateko godoak probableki jatorriz Eskandinaviatik etorriak zirela pentsatzeko, edo gutxienik Baltiko itsasotik. Antzinako godo horien hizkuntza, halere, germaniera modernoaren guztiz ezberdina da, funtsean hizkuntza bat bera izan arren. Galesera zaharra are eta ezberdinagoa zen, egiazko galeseraren antzekoena den Gales Herrialdeko, Cornualleseko eta Hego Britainiako hizkuntzari erreparatzen badiogu; baina hiberniera¹⁸³ oraindik ere ezberdinago agertzen zaigu eta hizkera britaniar, galiar eta are zaharragoa den germaniarren baten aztarnak antzematen zaizkio. Hizkuntza hauek guztiak iturburu beretik datoz eta zeltera generitzokeen hizkuntza bat beraren aldaeratzat har ditzakegu. Antzinakoek zeltiarrak deitzen zieten bai germaniarrei, bai galiarrei. Eta jatorrietara jotzen badugu zelteraren, latinaren eta grekoaren iturburuen bila, hauek ere sarritan hizkuntza germaniar eta zeltiarren erro berekoak direlarik, ondorio honetara iritsi gaitezke, alegia, guztiok herri horien jatorri bera diren eszitarretatik datozela, zeinak Itsaso Beltzetik etorri ziren, Danubio eta Vistulan zehar, zati bat Greziarantz abiatu zelarik eta bestea Germanian eta Galian kokatu; europarrak Asiatik datozela dioen hipotesiaren ondorio bat baino ez da hau. Sarmazierak¹⁸⁴ (esklaboieratzat hartuz) erdia gutxienez jatorri germaniarra du edota germaniar familikoa. Finlandierarekin ere antzeko zerbait gertatzen dela dirudi, berau baita eskandinaviarren artean zaharrenetarikoa, herri germaniarrek, hau da, daniarrek, suediarrek eta norvegiarrek itsasertzeko bere lurralderik onenak hartu aurretikoa; eta gure kontinenteko iparmendebaldeko finlandiarren hizkuntza, oraindik ere laponiarrena dena, ozeano germaniarretik, hobeto esan norvegiarretik, Kaspiar itsasora ozta-ozta hedatzen da (tartean sartu zaizkien herri esklaboitarren etenarekin), eta

hungarierarekin badu kidesunak, gaur egun moskutarren menpean dauden herrietako hizkuntzarekin, alegia. Asiako iparrekialde osoa bere aldakiez bete duen hizkuntza tartariarra hunoena eta kumaniarrena ere izan bide zen, gaur uzbekena, turkiarrena, kalmukena eta mugalena¹⁸⁵ den moduan. Beraz, eszitiar hizkuntza hauek guztiak elkarren erro komun ugari dituzte eta gure hizkuntzekikoak ere; arabierak berak (zeinaren pean biltzen diren hebraiera, puniko zaharra, kaldearra, siriarra eta abisiniarren etiopiar hizkuntza) hainbat erro ditu gure hizkuntzekiko harremana nabarmenki salatzen dutenak, ezin zaio hau zori soilari egotzi, ez eta merkataritza hutsari, herrien migrazioei baizik. Honek guztiak nazio ororen jatorri bakarraren eta sorburuan jatorrizko hizkuntza baten usteari eutsi baino ez dio egiten. Jatorrizko hizkuntza horren hurbilenak hebraiera eta arabiera izanik ere, hura arras aldatu dela zalantzarik ez dago, eta badiruri teutoiak gorde duela gehien haren kutsua (eta Jacques Böhmén hitzetan)¹⁸⁶, haren adan-dar izakera: jatorrizko hizkuntza hura bere hartan gorde izan bagenu, edo gutxienik halakotzat onartzeko bezain ongi zaindua, orduan han agertuko liriteke lotura fisikoen arrazoiak, baita lehen Sortzailearen eraketa arbitrario, zuhur eta duinarenak ere. Nahiz eta gure hizkuntzak eratorriak direla onartu, funtsean jatorrizko zerbait daukate beren baitan, sustrai berrikoak diren zenbait hitzekiko zerikusia duena, hauek gero ausaz osatu diren arren arrazoi fisikoen eraginez. Esandakoaren adibide dira animalien soinuak adierazten dituzten hitzak eta hauetatik eratorriak. Esate baterako, latinezko coaxare hitzak, igelei egotzia, alemanierazko couaquen edo quaken hitza ekarri du. Eta badirudi animalia hauen hotsa alemanierazko beste zenbait hitzen jatorrizko sustraia dela. Animalia hauek oso zaratsuek direlarik, alferrikako berriketaldi hutsalei hitz hori egokitzen zaie, hau da, quakeler diminutiboan; baina quaken hitz berau behinola zentzu onean hartzen omen zen ahozko soinu mota guztiak adierazteko, hitza bera barne. Eta kontuan hartuz soinu horiek bizitzaren testigantza direla eta berorien bidez ezer ikusi aurretik ere zerbait bizia sumatzen dugula, hortik dator alemaniera zaharrean quek hitzak bizitza edo biziduna adieraztea, liburu zaharretan ikus daitekeenez; eta hizkuntza modernoan ere badira honen aztarrenak, zeren Quecksilber hitzak zilarbizia (merkurioa) adierazten baitu, eta erquicken suspertzea da, hau da, gogor lan egin ondoren ahituta dagoenaren berpiztea, birsortzea. Halaber, Quäken deritza behe-mailako alemanieraz belar gaizto bati nolabait esateko bizirik daudenak eta, Alemanian diotenez, lurpetik soloetan arin, erraz eta oparo ugaltzen direnak, gainontzeko haziei kalte eginez; eta ingelesez quickly hitzak esan nahi du arin, bizitasunez. Hitz hauei dagokienez, esan dezakegu hizkuntza germanikoa hasierakotzat har dezakegula, zeren igelen soinua imitatze hotsa arbasoek ez baizuten beste inondik hartu beharrik izan. Eta beste hainbat hitzekin gauza bertsua gertatzen dela dirudi. Hala, adibidez, gertatzen omen da antzinateko germanoek, zeltek eta hauen enbor bereko beste zenbait herrik berezko senari jarraiki, R letra erabili zutela bortxazko mugimendua edota letra beronen soinuaren antzeko hotsa adierazteko. Hala gertatzen bide da grekerazko $\rho\epsilon\omega$ hitzean, fluo, rinnen, rüren (fluere), rutir (jario), Rhin, Rodano, Ruhr (Rhenus, Rhodanus, Eridanus, Rura), rauben (rapere, ravir harrapatu), Radt (rota), radere (raser, errautsi), rauschen (hitz itzulgaitza frantsesera: haizearen edo animalia baten eraginez orrien edo arbolen hotsaren gisakoa, gonak arrastaka egiten duen soinua), reckken (bortxaz hedatu); hortik dator Brunswicken mintzo den plattütsch edo behe-saxonieraz, reichen (lortu, eskuratu) eta der Rick, zerbait eskitzeko makila; ildo beretik, (rige, reihe, regula, regere) luzera edo ibilbide zuzenari doakio eta reck hitzak adierazten du gauza edo pertsona hedatsua eta luzea, bereziki erraldoia eta hortik geroago eratorritako gizon ahaltsu eta aberatsa, alemaniarren reich esamoldean ageri denez eta latinetik datozen hizkuntzetako riche edo ricco hitzetan. Espainieraz ricos hombres nobleziakoak dira eta ugazabak; honek ulertarazten digu nolatan metaforak, sinekdokeak eta metonimiak

aldatu dizkiguten hitzen esanahiak, aztarrenik utzi gabe sarritan. Soinu edo mugimendu bortitz hori nabari da riss hitzean (haustura, urratua, etena) eta honekin bat datoz latinezko rumpo, grekoz ρηγγυμι, frantsesez arracher eta italieraz straccio. Eta R letrak berez mugimendu bortitza adierazten duen moduan, L letrak zerbait bigunagoa iradokitzen digu. Horrela gertatzen da haurrei eta beste zenbaiti R ahoskatzea gogorregi egiten zaiela eta L letraz ordezkatzan dutela eta, adibidez, honela esango lukete: (). Mugimendu bigun hori ageri da lehen hitzean (bizi), laben (bizkortu, biziarazi), lind, lenis, lentus (geldi), lieben (maitatu), lauffen (ura bezain arin isuri), labi (labaindu, labitur uncta vadis abies)¹⁸⁷, legen (eztiki ipini), hemendik dator liegen (etzan), lage edo laye (ohe, geruza, harrizko geruza adibidez, lay-stein, harri-geruza, buztina), lego, ich lese (ezarritakoa hartzen dut, esan nahi baita, ezarri-ren alderantzizkoa, geroago esanahiaz erabili zen, eta grekoentzat), laub (orria, gauza arina, eta honi lotuta lap, lid, lenken) luo, λνω (solvo), leien (behe-saxoieraz), disolbatu, elurra bezala urtu, hortik dator Leine, Hanburgoko ibaiaren izena, urak paraje menditsuetatik datozelarik elurteen desizozteek gizendua iristen baita ibaia hirira. Beste hainbat antzeko deitura aipa genitzake hitzen iturburuan zerbait berezkoa badagoela frogatzen dutenak, gauzen eta soinuek eta ahoskera-atalen mugimenduen artean zerikusia ezartzen duen zerbait; honi zor diogu, halaber, L letra beste izenei erantsita diminutiboak osatzeko erabiltzea bai latinean, bai latinetik eratorritako hizkuntzetan, bai goi-germanieran. Ez du, halere, arrazoi honek denetarako baliorik, zeren lehoiak, katamotzak (lynx, lince), otsoak (loup, lobo) ez daukate otzanetik deus. Baina hau ere beste zerbaitegatik izan daiteke, abiaduragatik alegia (lauf), honek egiten baititu beldurgarri eta ihesarazten du ikuslea, halako piztia ikustean gainontzekoei oihu egingo bailien: Lauf (Ospa hemendik!); gainera, zenbait ustekabeko eta aldakuntzagatik hitzik gehienak guztiz aldatuak eta urrunduak iritsi zaizkigu beren jatorrizko ahoskeratik eta adierazpenetik.

FILALETES: Adibide batek, agian, hau hobeto ulertzen lagunduko liguke.

TEOFILO: Hona hemen bat nahiko esanguratsua eta beste hainbat biltzen dituen: oeil (begia) hitza eta honen antzekoak, alegia. Argiago adierazteko, apur bat goragotik abiatuko naiz. Lehen letra den A-ri arnasgora apur bat eransten badiogu, Ah osatzen dugu, eta aire emisioa denez, hasieran soinu nahiko zolia eragiten duena eta gero desagertuz doana, hots horrek putz xumea (spiritum lenem) esan nahi du, eta nahiko ozen ez direnean. Hortik sortuak dira, αω, aer, aura, haugh, halare, haleine, ατμοζ, athem, odem (alemanieraz). Baina ura ere isurkina denez eta hotsa egiten duenez, badirudi Ah hartu dela ura izendatzeko, bikoiztuz eta ozenago eginez, aha edo ahha, alegia. Teutoiek eta beste zenbait herri zeltek batari eta besteari W aurizkia erantsi diote, mugimendua hobeto adierazteko; horra zergatik, wehen, wind, vent, viento hitzek airearen mugimendua aditzera ematen du, eta waten, vadum, water hitzek uraren mugimendua edo uraren baitango mugimendua. Itzul gaitezen, baina, Aha hitzera, zeina, lehen esan dudanez, ura esan nahi duen erroaren moduko zerbait bide da. Oraindik ere eskandinaviar teutonismo zaharraren kutsua gordetzen duten islandiarrek, arnasgora leunagoa eginez, aa esaten dute; beste batzuek ozenagotu egin dute eta Aken diote (Aix, Aquas grani ulertuz); halatsu latindarrek ere euren aqua esatean; alemaniarrek ere batzuetan ach esan ohi dute hitz konposatuetan ura adierazteko, hala adibidez Schwarzach hitzak ur beltza esan nahi du, Biberach-ek kastoreen ura. Antzinako izenburuetan Wiseraha esaten zen Wiser edo Weser esan ordez, eta biztanle zaharrek Wisurach esan ohi zuten, gero latinoek Visurgis bilakatu zutena, Iler eta Ilerach Ilargus bilakatu zuten moduan. Frantsesek aqua, aigues, auue azkenik eau bihurtu dute eta oo ahoskera ematen diote, jatorrizkotik ia ezer geratzen ez zaiolarik. Germaniarrentzat gaur ere Auwe, Auge sarri urez betetzen den lekua da, belarditarako egokia, locus irriguus, pascuus; baina bereziki irla esan nahi du, hala nola Reichenau-ko

(Augia dives) monasterioa eta beste hainbat. Gauza bera gertatu bide izan da herri teutoi eta zeltiko askotan, hortik baitator Auge, Ooge, Oculus deitzea lautada batean isolatuta dagoen zerbaiti. Horrela deritze alemanieraz uretan egiten diren olio-orbanei; eta espainiarrentzat ojo zuloa da. Baina Auge, ooge, oculus, occhio, etabar, begiari (l'oeil) egotzi zaio bereziki, honek osotzen baitu aurpegian zulo isolatu eta deigarri hori; eta zalantzarik gabe, frantseseko oeil ere iturburu beretik dator, jatorria hain bertatik bertara ikusten ez den arren, nik aurkeztutako kateadura bidetik ez bada; eta, dirudienez, ομμυα eta οψιζ grekoak ere jatorri berekoak ditugu. Iparraldekoentzat Oe edo Oeland irla bat da, eta hebraieran ere bada honen zantzurik, irla baita. Hortik eman zioten fenizioek, Bochart jaunaren ustez¹⁸⁸, izena irlez josita dagoen Egeo itsasoari. Augere, gehitzea, auue edo auge-tik dator, hau da, uren isurpenetik; saxoiera zaharrean, orobat, ooken eta auken gehitzea zen eta enperadoreari buruz mintzo zirenean augustus esateko ooker itzuli ohi zuten. Brunswickeko ibaia, Hartzeko mendietatik datorrenez, bat-bateko ujolak sarritan izaten dituelako Ocher du izena, behinola Ouacra. Eta bidenabar esango dut ibaien izenek ikerketa bereizia merezi dutela, zeren ezagutzen den antzinate urrunenetik datozkigularik, berauek baitira mintzaira zaharra eta garai haietako biztanleen adierazpiderik jatorrena. Eta hizkuntzak direlarik, bestalde, herrien monumenturik zaharrenak, idazkiak eta arteak baino lehenagokoak, hauek garamatzate egokien haien ezagutzak eta migrazioak argitzera. Etimologiak sakonetik ulertzea guztiz jakingarri eta ondorio aberatsekoa litzateke, baina horretarako herri ezberdinetako hizkuntzak erkatu behar dira, egiaztapen zehatzetan oinarriarik ez duten jauzi handiegirik egin gabe nazio batetik arras urrunagoko beste batera; tarteko herriak behar ditugu horren bermatzaile. Etimologiei, oro har, ez zaie sinesgarritasun gehiegirik eman behar, aztarren berberetan behin eta berriro bat etortzen ez badira; bestela, goropisatzea litzateke.

FILALETES: Goropisatu? Zer da hori?

TEOFILO: Goropius Becanus¹⁸⁹ XVI mendeko sendagile jakintsuaren etimologia ezagun bezain bitxi eta sarritan xelebreetatik dator hitz hau; hala eta guztiz, ez dabil oso oker zera frogatu nahi izatean, alegia, berak zinbrikoa deritzon hizkuntza germaniarrak aitzintasunaren zantzu gehiago dituela hebraierak berak baino. Gogoan dut Claubergius¹⁹⁰ filosofo bikain zenduak idatzitako saiakera labur bat hizkuntza germaniarraren iturburuez, baina, zoritxarrez, gai honi buruz berak agindutakoa idazteko betarik ez zuen izan. Nik neuk ere gaia zertxobait hausnartzeaz gain, Gerardus Meierus, Bremengo teologoa¹⁹¹, horretan saiatzera bultzatu nuen, eta egin ere hala egin zuen, heriotzak bere lana eten zuen arte. Jendeak, halere, noizbait haren lanari probetxu aterako diola espero dut, orobat Schilter Strasburgoko legelari ospetsuak¹⁹² egindako antzeko lanei, hau ere zoritxarrez hil berri zaigularik. Gauza segurua da, behinik behin, hizkuntza eta antzinasun teutoiek badutela zer esanik Europaren jatorriak, ohiturak eta antzinatea aztertzerakoan. Eta jakintsu gehiagok gauza bera egin dezaten eskatuko nuke valoniera, bizkaiera, esloviera, finlandiera, turkiera, persiera, armeniera, georgiera, etabarrekin, horrela euren arteko harmonia nabarmen dadin, eta, esan berri dudanez, zinez lagunduko liguke honek nazioen jatorria argitzen.

(§ 2) FILALETES: Egitasmo honek bere garrantzia du, baina dagoeneko bada garaia hitzen materialtasuna utzi eta formaltasunera pasa gaitezen, hau da, hizkuntza ezberdinak bat datozen adierazguneetara. Lehenik, nirekin ados egongo zarela uste dut, jauna, honako honetan, alegia, gizaki bat beste norbaitekin mintzo denean bere ideien ikurak azaldu nahi dizkiola, inork ere ezin baitu hitzik egokitu ezagutzen ez dituen gauzetara. Eta gizakiak ideia propioak ez dituen bitartean ez ditu ideioak gauzen koalitateekiko edota inoren ideiekiko adostasunez jantzi behar.

TEOFILO: Alabaina, egia da ugazabari buruz besteek pentsatzen dutenaz hitz egiten dugula sarriago norberak pentsatzen duenaz baino, eta gauza bera gertatzen zaie sarriegi fede inplizitua daukaten laikoei. Onartzen dut, halere, beti ulertzen dela zerbait orokorrean, sorgorra eta ulergarritasunik gabea izanagatik adierazi den pentsamendua; gutxienik ere hitzak besteen ohiturara lerratzen saiatzen gara eta behar izanez gero haien esanahia ulertzera iritsi daitekeela uste dugu, bederen. Hartaz, batzuetan pentsamenduen interpretatzaile baino ez gara, edota inoren hitzaren eroale, letrak egin ohi duena, alegia; eta guk uste baino gehiagotan gertatzen da hau.

(§ 3) FILALETES: Ezjakinak ere orokorrean zerbait beti ulertzen duela diozunean, zuzen zaude. Umeak urrea entzutean kolore hori distiratsua baino ulertzen ez duelarik, urre hitza egotziko dio paumaren isatsean dakusan kolore berorri; besteok astuntasun larria, urtugarritasuna, malgutasuna eskatzen diogu urrearri.

TEOFILO: Halaxe da, bai; baina mintzo garen objektuaz daukagun ideia haur horrena baino orokorragoa izaten da sarritan, eta nik ez daukat zalantzarik itsu batek koloreez hitz egin dezakeela egokiro eta ezagutzen ez duen argiaren laudoriozko hitzaldia ere egin dezakeela, argiaren eraginak eta beronen inguruko zirkunstantziak esperimentatzera iritsi delako.

(§ 4) FILALETES: Diozuna egiazkoa da guztiz. Maiz gertatzen da gizakiek euren pentsamenduak gehiago lotzen dituztela hitzekin gauzeekin baino, eta hitz hauetarik gehienak ikasi dituztelarik beren esanahia ezagutu aurretik, haurrak ezezik gizaki helduak ere badira papagaiak modura sarri mintzo direnak. (§ 5) Hala ere, gizakiek gehienetan euren pentsamendu propioak azpimarratzen dituzte eta hitzei ematen diete besteen ideiekiko eta gauzekiko halako harreman sekretua. Gure solaskidearen baitan soinuak ideia ezberdinei atxikita baleude, hizkuntza bitan ihardungo genuke; egia da ez garela sobera saiatzen besteen ideiak aztertzen, eta ez dugu zalantzarik egiten gure ideia dela arruntena eta inguruko jende jakitsuak hitz horri berorri eratxikitzen diotela ideia hura. (§ 6) Ideia bakunei eta moduei dagokienean gertatzen da hau batik bat, eta bereziki substantziei dagokienean, hauen hitzek gauzen errealitatea adierazten dutela uste baitugu.

TEOFILO: Ideiek era berean substantziak eta moduak ere irudikatzen dituzte; eta gauzak, orobat ideiak, batean zein bestean hitzek zehazten dituzte; ez dut, beraz, ia alderik ikusten nik hor, ez bada gauza substantzialen ideiak eta koalitate sentigarrienak finkoagoak direla. Horrez gain, batzuetan gertatzen da gure ideiak eta pentsamenduak ditugula solasgai, eta adierazi nahi den gauza bera osatzen dute; nozio erreflexiboek uste baino eragin handiagoa dute gauzen nozioetan. Batzuetan hitzez materialki mintzo gara eta ezin dugu haiek betetzen duten lekuan esangurarik edo ideia zein gauzekiko erlazorik ezarri; eta hau gertatzen da gramatikari gisa mintzo garenean ezezik, hiztegitik gisa ari garenean ere, izenen adierazpena ematen.

III

Termino orokorrak

(§ 1) FILALETES: Gauza partikularrak baino existitzen ez diren arren, hitzik gehienak termino orokorrak dira, ezinezko baita (§ 2) gauza bakoitzak bere izen partikular, ezberdina edukitzea; horretarako oroimen miresgarria beharko genuke, euren soldaduak banan-banan izenez ezagutzen dituzten zenbait jeneralena baino askoz ere ahaltsuagoa. Kontua infinituraino ere luza daiteke, izan ere, aipagarri gerta lekigukeen piztia bakoitzak, landare bakoitzak, are eta landare-orri bakoitzak, garau bakoitzak, hare-ale bakoitzak bere izena eduki behar izango balu. Eta nola izenda genitzake nabarmenki uniforme diren gauzen atalak, urarenak edota burdinarenak, adibidez? (§ 3) Gainera, alferrekoak lirатеke izen horiek, zeren hizkuntzaren helburu nagusia baita entzulearen izpirituan nire ideiaren antzekoa piztea. Hartaz, hitz orokorrek eskaintzen duten antzekotasuna aski da. (§ 4) Hitz partikularrak berez ez lirатеke nahiko gure

ezagupideak hedatzeko, ez eta etorkizuna iraganean oinarriturik iragartzeko, ez eta norbaitez hitz egiteko, beste batengan finkatuta. (§ 5) Noizbehinka geure espezieko norbanako zehatz batzuk aipatu behar izaten ditugu eta horretarako izen propioez baliatzen gara; herrialde, hiri, mendi eta zenbait leku bereizi ere izen propioz izendatzen ditugu. Eta zaldiketariak izen propioak ezartzen dizkiete euren zaldiei, Alexandroren Buzefalo kasu, zaldi hau edo hura bereizi ahal izateko, batez ere begi-bistatik urrun daudenean.

TEOFILO: Oso ondo daude ohar hauek eta batzuk nik esandakoarekin bat datoz. Baina lehen azaldutakoari erantsiko nioke izen propioak gehienetan apelatiboak izan direla, hau da, sorburuetan orokorrak, hala nola, Brutus, Zesar, Augusto, Kapiton, Lentulus, Pison, Zizeron, Elba, Rhin, Ruhr, Lena, Ocker, Buzefalo, Alpeak, Brenner edo Pirinioak; zeren gauza jakina baita lehenengo Brutusek bere lerdo itxuratik hartu zuela izena, Zesar, berriz, amaren sabeletik zesarea bidez ateratako umearen izena zen, Augusto beneraziozko izena, Kapitonek buruhandi esan nahi du, orobat Buzefalok; Lentulo, Pison eta Zizeron barazki mota batzuk hazten zituztenen izenak ziren jatorrian. Rhin, Ruhr, Leine, Oker ibaien izenek zer adierazten duten, gorago aipatu dut; eta jakina denez, Eskandinaviako ibai guztiei elbes deritze oraindik ere. Alpeak elurrez estalitako mendiak dira (album, zuri izateari dagokio). Eta Brenner eta Pirinioak gailurra adierazten digute, bren garaia, nagusia baitzen (hala Brennus) zelteraz, eta hego-saxoientzat brinck gailurra da, eta Alemania eta Italia artean bada Brenner bat, Galiak eta Espainia artean Pirinioak dauden moduan. Beraz, zera baieztatzaera ausartuko naiz, alegia, jatorrian ia hitz guztiak zirela orokorrak, harrigarri bailitzateke arrazoi bereizirik gabe deitura aparta asmatzea norbanakoren bat izendatzeko. Esan dezakegu, beraz, norbanakoen izenak espezie izenak zirela, nolabait nabarmentzeko batari ala besteari ezarritakoak, hala buruhandi izena ematen zitzaion herriko bururik handiena zuenari edota halakotzat hartzen zutenari. Halaber, generoen izenak espezieei ematen zaizkie, esan nahi baita, hitz orokorrangoak edo ilunagoak aski ditugula espezie partikularrangoak izendatzeko, bereizkuntzak gehiegi ardura ez zaizkigunean. Hala, adibidez, aski dugu asentsio-belarraren izen orokorrarekin, nahiz eta beronen espezieak hainbat diren non Bauhindarretariko¹⁹³ batek horretaz liburu osoa idatzi baitu.

(§ 6) FILALETES: Izen propioei buruzko zure gogoetak oso zehatzak dira; baina izen apelatibo edo hitz orokorre dagokienez, zalantzarik gabe onartu beharko duzu, jauna, hitzak orokorrak direla ideia orokorren erakusgarri direnean, eta ideiak orokorrak dira abstrakzio bidez denboraz, lekuaz edota halako existentzia partikularrera muga ditzakeen ezein zirkunstantziaz gabetzen ditugunean.

TEOFILO: Ez daukat ezer abstrakzioaren erabilera horren aurka, baina espezieetatik generoetara igotzerakoan gertatzen da hori, ez indibiduoetatik espeziatar pasatzean. Ezinezkoa baitzaigu (paradoxa iruditzen arren) indibiduen ezagutza edukitzea eta edozein gauzaren indibidualtasuna zehazki determinatzeko bidea aurkitzea, hura gordez izan ezik; zeren zirkunstantzia guztiak birsor baitaitezke; sumaezinak zaizkigu alderik ñimiñoenak; berez ezeren determinatzaile ez diren denbora eta lekua beren baitan dauzkaten gauzek zehazten dituzte. Honetan guztian nabarmenena da banakotasunak barne hartzen duela infinitua, eta hau ulertzeko gai denak soilik bereganatu ahal izango du gauza honen ala bestearen banakazko printzipioaren ezagutza; eta hau unibertsoko gauza guztiek elkarrengana duten (zuzen ulertutako) eraginetik dator. Ez litzateke horrela izango Demokritoren atomoak existituko balira; baina kasu horretan alderik ere ez legoke itxura eta tamaina bereko bi banako ezberdinen artean.

(§ 7) FILALETES: Argi dago, halere, euren solaskideez hurrek osatutako ideiak (adibide honetara mugatuz) pertsona horien antzekoak direla, partikularrak soilik izan arren. Beren inudearen edo amaren ideiak oso ongi marratuak daude euren izpirituan eta

haurren hizkeran inude edo ama izenak bi pertsona zehatz hauei soilik dagozkie. Gero, denborarekin jabetuko dira badirela beste hainbat izaki aitaren edo amaren antzeko eta orduan ideia bat osatuko dute, izaki horiek guztiak bilduko dituen, eta gizaki (pertsona) izena emango diote ideia horri. (§ 8) Bide beretik hartuko dituzte izen eta noziorik orokorrenak; adibidez, animalia-izenak berria ez da aurrekoari ezer erantsiz osatuko; bai, ordea, gizakiaren itxura eta berezitasunak alde batera utzi, eta gorputz bizidunari, sentitzeko gai denari eta berezko mugikortasunez hornituari erreparatuz.

TEOFILO: Oso ongi; baina honekin nik esandakoa erakusten duzu, ez besterik; zeren haurra abstrakzioz gizakiaren ideiarekin oharpenetik animalia-izenarekin iragaten den moduan, aitaren edo amaren edo beste pertsonen ideia espezifikoagotik giza izaeraren ideiarekin iragaten da. Banakoaren ideia zehatzik ez zeukala frogatzeko aski dugu kontuan hartzea antzekotasun xumeak aise engainatuko lukeela, eta amatzat hartuko lukeela ama ez duen beste pertsonaren bat. Martin Guerre faltsuaren historia ezaguna da; egiazko Martin Guerreren¹⁹⁴ emaztea bera eta ahaiderik minenak engainatzera iritsi zen, hain antzeko eta hain trebe izaki, eta egiazkoa agertu ostean ere, luzaro eduki zituen epaileak kezkatu.

(§ 9) FILALETES: Eskoletan horrenbesteko zalaparta harrotu duen genero eta espezieen inguruko misterioa eskoletatik kanpo, zentzu osoz, oso gutxi hausnartua izan da; izenak ematen zaizkien gehiago ala gutxiago hedatutako ideia abstraktuen osaketan datza misterio hori.

TEOFILO: Gauzak generotan eta espezieetan sailkatzeko arteak garrantzi handia dauka eta ezaguerari bezainbat mesede egiten dio oroimenari. Badakizu zer nolako eragina duen honek botanikan, animalia-izenak eta gainontzeko substantziak aipatzen hasi gabe, ez eta izaki moralak edota nozionalak direlakoak. Ordena gehienbat honen menpe dago eta idazle ospetsu askok halako moldez idazten dute, non euren diskurtso osoa zatiketetan eta birzaketetan laburbil daitekeen, generoekin eta espezieekin zerikusirik duen metodoari jarraiki, honek gauzak gogoratzeko ezezik aurkitzeko ere balio baitu. Zenbait izenburu eta predikamentu birzaketaren arabera, nozio mota guztiak sailkatzen dituztenek zinez gauza baliagarria burutu dute.

(§ 10) FILALETES: Hitzak definitzeko genero edo hitz orokor hurbilenaz baliatzen gara; horrela, genero horrek adierazitako ideia bakun ezberdinak zehazte lana aurrezten dugu, edota batzuetan agian zehaztapen hori egin ezinaren lotsa ere. Baina definiziorako biderik laburrena, logikarien esanetan, generoarena eta diferentziarena den arren, nire zalantzak ditut biderik egokiena ere bera ote den: ez da behinik behin bakarra. Gizakia animalia razionala dela dioen definizioan (agian definiziorik zehatzena ez den arren, oraingo asmoetarako balio digu) animalia hitzaren ordean honen definizioa ezar zitekeen. Honek erakusten digu definizioa generoak eta diferentziak osatzen dutela dioen arauaren premia urria, eta berau hertsiki errespetatzeak abantaila eskasa dakarrela. Hizkuntzak ere ez daude beti logikaren arauetara eratuak, halako molde, non hitz bakoitzaren esanahia beste bi hitzek adieraz dezaten zehatz eta argi. Arau horrekin bat datozen definizio hain gutxi eskaintzea izan da araugileen akatsa.

TEOFILO: Ados nago zure oharpideekin; baina zio askorengatik hobe litzateke definizioak bi hitz soilaz osatzerik balego; horrela asko laburtuko litzateke eta zatiketa guztiak dikotomia bihurtuko lirateke, hauek zatiketa motarik onena baitira, eta asmamenarentzat, zentzuarentzat eta oroimenarentzat mesedegarri. Ez dut, baina, nik uste logikariek beti eskatuko dutenik generoa edo diferentzia hitz bakar batez adieraz dadin; esate baterako, poligono erregular hitza karratuaren generokotzat har daiteke, eta zirkuluaren irudian generoa izan daiteke lerro kurbodun irudi laua, eta diferentzia honakoa litzateke: inguru lerroaren puntu orotatik zentroa deritzogun puntura distantzia bera dagoela. Azpimarratu behar da, gainera, sarritan generoa

bilaka daitekeela diferentzia eta diferentzia genero, adibidez: karratua erregulardun laukizkoa edo lauki erregularra da, halako moldez non itxuraz generoa eta diferentzia elkarrengandik bereizten diren, substantiboa eta adjektiboa bereizten diren moduan; hizkuntzak lizentzia emango baligu bezala gizakia animalia razionala dela esan beharrean arrazoidun animalizatua dela esateko, hau da, animalia izaeraz hornitutako substantzia razionala; edota lizentzia esateko jeinuak substantzia razionalak liratekeela, baina piztiekin bat egiten gaituen animalia izaerarik gabe. Genero eta diferentzien elkar trukatzeko hau azpibanaketen ordenaren aldakuntzari datxekio.

(§ 11) FILALETES: Esan dudanetik ondorio hau ateratzen dugu, alegia, orokorra eta unibertsala deritzoguna ez dagoela gauzen existentziaren barne, adimenaren menpean baizik. (§ 12) Eta espezie bakoitzaren esentziak ideia abstraktuak baino ez dira.

TEOFILO: Ez dut ondorio hau argi ikusten. Orokortasuna gauza singularren arteko antzekotasunean datza, eta antzekotasun hau errealitatea da.

(§ 13) FILALETES: Espezie horiek antzekotasunetan oinarrituta daudela esatera nindoakizun neu ere.

TEOFILO: Zergatik ez dugu bada, beraz, generoen eta espezieen esentzia ere bilatu behar?

(§ 14) FILALETES: Ez zarete hainbeste harrituko niri entzutean esentziak adimenaren sorkari direla, ideia konplexuak onartzen baditugu bederen, hauek pertsona ezberdinen izpirituan ideia bakunen bilduma ezberdinak baitira sarritan; horrela, norbaiten izpirituan zekenkeria dena beste norbaitentzat ez izatea gertatzen da.

TEOFILO: Zure dedukzioen indarra hemen baino okerrago gutxitan ulertu dudala aitortuko dizut, jauna, eta honek kezkatzen nau. Gizakiok izen ezberdinez iharduteak aldatzen al ditu gauzak edo hauen antzekotasunak? Batak zekenkeria izena ezartzen badio antzekotasun bati, eta besteak beste bati, bi espezie ezberdin ari gara izen batez ezagutzera ematen.

FILALETES: Hurbilen zaigun substantzien espeziean, barru-barrutik ezagutzen baitugu, maiz sortu da eztabaida, ea emakumeak mundura ekarritako fruitua gizakia ote zen, zalantzan jartzeraino hura elikatu edota bataiatu behar ote zen; ez zatekeen hau gertatuko gizakiaren izenari dagokion ideia abstraktua edo esentzia naturaren ekoizpena balitz eta ez ideia bakunen bilduma ezberdina eta zalantzazkoa, zeinari, elkarlotuz gero, adimenak izena ezartzen dion, abstrakzio bidez orokor egin ondoren. Hartaz, funtsean abstrakzio bidez eratutako ideia bereizi bakoitza esentzia ezberdina da.

TEOFILO: Barka, jauna, zure hizkera ulertzeko arazoak ditudala esaten badizut, ez baitiot loturarik antzematen. Kanpotik ezingo badugu barne-antzekotasunen irizpiderik finkatu, horregatik izadian existitzeari utziko al diote antzekotasunek? Munstroa gizakia ote den zalantzak daudenean, haren arrazoimena dago dudan. Badaukala jakin bezain laster, bataia dezaten aginduko dute teologoek eta elika dezaten legelariak. Eztabaida daiteke behe-mailako ezpezieez, logikoki hartzen baditugu, aldagarriak baitira espezie fisiko edo tribu edo belaunaldi berean akzidenteen bidez; ez dago zertan hauek zehaztu beharrik; infinituraino alda ditzakegu, nahi izanez gero, eta hala dago frogatuta jakitunek bereizi eta izenda ditzaketan laranja, limoi eta zitroi mota oparoan. Hala ageri zen, baita ere, tulipetan eta krabelinetan lore hauek modan zeudenean. Gainontzekoan, gizakiok halako eta halako ideiak elkar bildu ala ez, edota izadiak berak orain elkar ditzan ala ez, horrek apenas ukitzen ditu esentziak, generoak eta espezieak, posibilitateei soilik baitagokie, eta hauek gure pentsamendutik askeak dira.

(§ 15) FILALETES: Ontzat eman ohi da gauza bakoitzaren espeziearen eraketa erreala, eta ez bairik gabe existitu behar du beraren menpe egon daitezen gauza horretan biltzen diren ideia bakunen edo koalitateen multzo bakoitza. Baina nabarmena delarik

gauzak ez daudela motatan edo espezieetan sailkatuta zenbait izenen arabera, guk horrela izendatu ditugun zenbait ideia abstrakturi dagozkien neurrian, beraz genero edo espezie bakoitzeko esentzia izen orokor edo espezifikoa adierazitako ideia abstraktua baino ez da, eta beti aurkituko dugu esentzia hitzak, arrunki erabili ohi denez, hori dakarrela bere baitan. Ez legoke gaizki, nire iritziz, bi esentzia mota hauek bi deitura ezberdinez izendatzea, lehenari esentzia erreala deituko genioke eta besteari esentzia nominala.

TEOFILO: Zure adierazpideetan hizkera ikaragarri eraberritzen ez ote duzun nago. Honaino ongi mintzatu gara definizio nominalaz eta kausal edo errealez, baina nik dakidala erreala ez diren esentziarik ez da hemen aipatu, non eta esentzia nominalaz esentzia faltsu eta ezinezkoak ulertzen ditugun, esentzia itxura dutenak baina inondik ere ez direnak, hala nola, dekaedro erregularrena, hau da, hamar aurpegi edo hedrok mugatutako objektu erregularra. Asmotan dugunaren ahalgarritasuna baino ez da funtsean esentzia. Ahalgarritzat duguna definizioak adierazten du; baina definizio hau nominala da soilik, aldi berean definituaren ahalgarritasuna azaltzen ez badu, zeren kasu horretan zilegi baitzaigu definizio horrek ezer errealik, hots ahalgarririk, adierazten ote duen zalantzan jartzea, harik eta esperientzia gure laguntzan etorri arte, errealitate hori a posteriori ezagutzera emanez, gauza benetan munduan dagoenean; arrazoi faltan soilik da hau aski, arrazoiak ematen baitugu ezagutzera errealitatea a priori, gauza definituaren kausa edo sorkuntza ahalgarria agirian jarritz. Ez dago, beraz, gure esku ideiak geure nahitara elkartzea, salbu eta konbinaketa hau oinarritzen ez dugun edo ahalgarri dela frogatzen duen arrazoiari, edota oraingoa, beraz ahalgarri, egiten duen esperientzian. Esentzia eta definizioa ongi bereizteko, gauzaren esentzia bakar bat dagoela kontsideratu behar da, baina esentzia bera adierazten duten hainbat definizio, egitura bat edo hiri bat eskenografia ezberdinez irudika daitekeen modura, hura erreparatzeko erabiltzen ditugun ikuspegi ezberdinen arabera.

(§ 18) FILALETES: Nirekin bat etorriko zarela uste dut honetan, alegia, erreala eta nominala beti direla gauza bera ideia bakunetan eta moduen ideietan; substantzien ideietan, aldiz, erabat ezberdinak dira. Ezpazioa hiru lerroz mugatzen duen irudia triangeluaren esentzia da bai erreala, bai nominala; ez baita soilik izen orokorra dagokion ideia abstraktua, esentzia baizik, hau da, gauzaren izate propioa edo berezkotasunen sorburu eta lotura-gunearen funtsa. Guztiz bestela gertatzen da urrearekin: honen atalen eratze erreala, zeinari atxikita dauden kolorea, pisua, fusibilitatea, egonkortasuna, etab., ezezaguna zaigu, eta haren ideiarik ezean ez daukagu haren adierazpide litzatekeen izenik ere. Halere, koalitate hauek ematen diote urreari izena eta haren esentzia nominala dira, hots, izenera eskubide ematen duena.

TEOFILO: Usadioari jarraiki, nahiago dut esan urrearen esentzia urrea bera eraikitzen duen eta koalitate sentigarri horiek ezartzen dizkion zera dela, hauek nabarmentzen baitute hura, eta haren definizio nominala osatzen; aitzitik, kontestura edo barne-eraketa hori ulergarri balitzaigu, definizio erreala eta kausala edukiko genuke. Definizio nominala batzuetan erreala ere izan daiteke, ez ordea berez (ez baitugu a priori ezagutzera ematen gorputzen ahalgarritasuna edo etorburua), baina bai esperientziaz, gorputz bat badagoela esperientatzen baitugu, koalitate hauek elkarrekin biltzen dituen gorputza; hori gabe zalantzan jar genezake halako pisua halako malgutasunarekiko bateragarri izan ote zitekeen, gaur bertan ere zalantzan jar dezakegun moduan ea naturari egoki dakioken hotzean malgugarri den kristala. Ez nago, halaber, zurekin ados, jauna, zera diozunean, alegia, substantzien eta predikatuen ideien artean aldeak daudela, predikatuen definizioak (hots, ideia bakunen moduenak eta objektuenak) beti errealak eta aldi berean nominalak bailiran, substantzienak, aldiz, nominalak soilik. Izaki substantzialak diren gorputzen definizio errealak edukitzera iristea nekezagoa dela ados nago,

hauen gorpuzkera ez baita hain sentikorra. Ez da, baina, gauza bera gertatzen substantzia ororekin; Jainkoa eta arima bezalako egiazko substantzien edo batasunen ezagutza modurik gehienena bezain barnekoia daukagu. Badira, bestalde, gorputzen egikera bezain gutxi ezagunak diren predikatuak: horia edo mingotsa, adibidez, ideia edo fantasia bakunen objektuak dira, haien ezagutza lausoa baino ez daukagun arren, eta gauza bera matematiketan, non modu berak definizio nominala zein erreala eduki dezakeen. Bi definizio mota hauen arteko ezberdintasuna zertan datzan argi azaltzea gutxik lortu dute, eta honek bereizten ditu esentzia eta berezkotasuna. Nire aburuz, honetan datza ezberdintasuna: definizio errealak definituaren ahalgarritasuna ikustarazten digu, eta definizio nominalak ez; bi lerro zuzen paraleloen definizio hau, plano berean daudela eta infinituraino luzatuz ere ez dutela elkar ukitzen baieztatzen duen definizioa, alegia, definizio nominal soil da, zeren zalantzan jar baitezakegu ea hau izan daitekeen. Baina ulertzera iristen bagara plano batean lehendik marratutako beste batekiko lerro zuzen paraleloa marra daitekeela, paraleloa marrazten duen luma-punta lehengoarekiko distantzia berbera mantentzen arreta hartuz gero, berehala ikusiko dugu aurrekoa ere izan daitekeela eta zergatik bi lerro paraleloek daukaten sekulan ez elkar aurkitzeko berezkotasuna, definizio nominalak zioena, alegia; baina hau paralelismoaren adierazgarri da lerro biak zuzenak direnean soilik; lerroetariko bat bederen kurbatua balitz, sekulan elkar ezineko moduan eratua izan arren, ez ziren horregatik paraleloak izango.

(§ 19) FILALETES: Esentzia ideia abstraktuaren ezberdina balitz ez litzateke erne-ezina, ez ustelezina. Adarbakarra, sirena, zirkulu zehatza izan ezinekoak dira, agian, munduan. TEOFILO: Lehen ere esan nizun, jauna, esentziak betikoak direla ahalgarriari buruzkoak baino ez direlako.

IV

Idea bakunen izenak

(§ 2) FILALETES: Aitortu behar dut beti uste izan dudala moduen eraketa hautazko zerbait zela; baina ideia bakunei eta substantziei dagokienez betidanik etsi-etsian sinetsi dut, ahalgarritasunaz aparte, ideia hauek existentzia erreala adierazi behar zutela.

TEOFILO: Ez dut horren premiarik ikusten. Jainkoak ideiak dauzka ideia horien objektuak sortu aurretik ere, eta ez dio ezerk eragozten ideia horiek kreatura adimendunei ezagutaraztea; gure sentimenen objektuak eta sentimenek aurkezten dizkiguten ideia bakunak gugandik at daudela egiaztatzen duen frogapen zehatzik ere ez dago. Eta hau kontuan hartzekoa da, batik bat cartesiarrekin eta gure idazle ospetsuarekin ados, ondokoa sinesten dutenekin, alegia, koalitate sentigarrien gure ideia bakunek ez dutela inongo antzekotasunik gugandik kanpo objektuetan dagoenarekin: ez dago, beraz, deus ideia horiek nolabaiteko existentzia errealean oinarritzera behartuko gaituenik.

(§ 4, 5, 6, 7) FILALETES: Onartuko didazu, bederen, ideia bakunen eta konposatuen arteko ezberdintasun hau, alegia, ideia bakunen izenak definitu ezinak direla, ideia konposatuenak, aldiz, defini daitezkeelarik. Zeren definizioak hitz bat baino gehiagokoa izan behar baitu eta hitz hauetariko bakoitzak ideia bat adierazten du. Horrela ikus daiteke zer den definigarri eta zer ez, eta zergatik definizioak ezin daitezkeen infinituraino luzatu; hau, nik dakidala, ez zuen orain arte inortxok ere aditzera eman.

TEOFILO: Nik neuk ere duela hogeiren bat urte idatzia daukat, Leipzigeke Agirietan argitaratutako Ideiei buruzko entseia delakoan¹⁹⁵, hitz bakunak ezin direla nominalki definituak izan; baina aldi berean zehazten nuen gurekiko soilik bakunak diren hitzek (ezinezkoa baitzaigu hauek osatzen dituzten oinarritzko pertzepzioetaraino azterketa sakontzea), hala nola, bero, hotz, hori, berde, etabarrek, euren kausa azalduko lukeen definizio erreala onar dezaketela; horrela, berdearen definizio erreala, ongi nahasitako

urdinak eta horiak osatzen dutela dioen definizioan datza, nahiz eta berdeak ezin eduki dezakeen urdina eta horia nabarmen utziko dituen definizio errealik. Alabaina, beren baitan bakunak diren hitzek, hots, ikusmolde argi eta bereizikoek, ezin eduki dezakete inolako definiziorik, ez nominalik, ez errealik. Leipzigeako Agirietan argitara emandako Entseiu xume horretan aurki ditzakezu laburbilduta adimenari buruzko doktrinaren zati baten oinarriak.

(§ 7. 8) FILALETES: Komenigarri litzateke azaltzea eta finkatzea zer defini daitekeen eta zer ez. Hori kontuan ez izanagatik sarri sortzen dira, nire ustetan, eztabaida latzak, eta gizakien solasaldietan hizmordoilo ugari sartzen da. Eskolatan horrenbesteko iskanbila sortzen duten gordiar korapilo horiek ideietan dagoen bereiztasun hori kontuan ez hartzetik datoz. Arte honetan maisurik trebeenek ere ideia bakunik gehienak definitu gabe utzi behar izan dituzte, eta gero definitzen saiatu badira, ez dute arrakastarik izan. Ba al du, esate baterako, giza izpirituak hizmordoilo finagorik inbentatzerik, Aristotelesen definizio honek bere baitan biltzen duena baino: higidura potentzian dagoen izakiaren aktua da, potentzian dagoen heinean? (§ 9)¹⁹⁶ Eta modernoek higidura leku batetik bestera igarotzea dela dioen definizioa ez da inondik ere gutxiestekoa. Aristotelesen definizioa ez da uste bezain absurdua, kontuan hartzen badugu grekerazko κίνησις-ek ez duela guk higidura hitzarekin adierazten dugun esanahia, aldaketa hitzaz azaltzen duguna baizik; hortik dator berak hari eskainitako definizio hain abstraktu eta metafisikoa; guk higidura deritzogunari, aldiz, berak φορὰ, latio deitzen dio eta aldaketa espezieen artean aurkitzen da (τῇ κινήσεωζ).

TEOFILO: Lehen ere gure elkarrizketaren batean adierazia dizut bakuntzat hartzen dituzula bakunak ez diren hainbat ideia. Hauetariko bat higidura da, nire ustez defini baitaiteke; eta hura lekuz aldatzea dela dioen definizioa ez da inondik ere gutxiestekoa. Aristotelesen definizioa ez da uste bezain absurdua, kontuan hartzen badugu grekerazko κίνησις-ek ez duela guk higidura hitzarekin adierazten dugun esanahia, aldaketa hitzaz azaltzen duguna baizik; hortik dator berak hari eskainitako definizio hain abstraktu eta metafisikoa; guk higidura deritzogunari, aldiz, berak φορὰ, latio deitzen dio eta aldaketa espezieen artean aurkitzen da (τῇ κινήσεωζ).

(§ 10) FILALETES: Ez duzu, behintzat, desenkusatuko idazle hark argiari eskainitako definizioa gardenaren aktua dela esanez.

TEOFILO: Zurekin nago definizio hori ez-gauzatzat hartzean, eta guri ezer gutxi argitzen digun aktu nozioaz Aristoteles gehiegi baliatzen dela uste dut. Diafanoa, haren ustez, bide bat da, nondik zehar ikus daitekeen, eta bidetarte aktualean datzana argia da¹⁹⁷. Bejondeiola!

(§ 11) FILALETES: Bat gatoz, beraz, honetan, alegia, gure ideia bakunek ezin dutela definizio nominalik eduki; halako moldez non ezin baitugu jakin ananas-en gustua nolakoa den bidaiari batek hari buruz egindako azalpenetik, salbu eta gauzen gustua belarrietatik dastatzeko ahalmena daukagun, Sancho Panzak Dulzinea entzutez ikusteko zuen ahalmenaren antzekoa, edota beste itsu hark bezala, zeinak hainbeste entzun zuen elgorriaren urratzeaz, ezen uste baitzuen turutaren soinuaren antzekoa zela.

TEOFILO: Zuzen zaude, eta munduko bidaiari guztiek ere ez ligukete euren azalpenetan azalduko bertoko gizon seme batek eskaini diguna, beronek Hannoverretik hiru legoatara, Weser ibaiertzean, ananasa hazten baitu eta hazia ugaltzeko modua aurkitu du, halako moldez non laster agian geure uztan Portugaleko laranjak bezain oparo bilduko ditugun, nahiz eta gustuan, agi denez, zerbait galduko duen.

(§ 12, 13) FILALETES: Guztiz alderantzizkoa gertatzen da ideia konplexuekin. Eskultura lan bat zer nolakoa den ulertzera iritsi daiteke itsua, eta sekulan ortzadarra ikusi ez duenak hura uler lezake, haren osagarri diren koloreak lehendik ikusiak baditu. (§ 15) Alabaina, ideia bakunak azalgaitzak diren arren, ez diote horratik ezbaiezinak izateari uzten. Definizioak baino gehiago erdiesten baitu esperientziak.

TEOFILO: Bada, halere, eragozpentxo bat bakunak guretzat soilik diren ideiekiko. Hala, adibidez, gaitz litzaiguke urdinaren eta berdearen arteko mugak zehazki markatzea eta,

oro har, antzeko koloreak bereiztea, baina nozio zehatzak izan ditzakegu, bestalde, aritmetikan eta geometrian erabiltzen diren hitzena.

(§ 16) FILALETES: Ideia bakunek, gainera, bereizitasun hau daukate, alegia, logikariek lerro predikamentala deritzoten horretan menpekotasun gutxi daukatela, azken espezieetik hasi eta genero goreneraino. Azken espezieari, izan ere, ideia bakun bat baino ez delarik, ezin zaio deus kendu; ezin da, adibidez, zuri edota gorriaren ideietatik deus kendu, bat datozkeen itxura komuna edukitzeagatik; horregatik biltzen ditugu horiarekin eta beste zenbaitekin kolore genero edo izen pean. Eta soinuak, gustuak eta ukimenezko koalitateak biltzeko hitz orokorragoa eratu nahi dugunean, koalitate hitz orokorrak baliatzen gara, hitz honi arrunki eman ohi zaion adieran, koalitate horiek beste hauetatik bereizi nahian, hots, hedadura, kopuru, higidura, plazer eta oinazetik, hauek gure izpirituan eragina baitute eta bertan ideiak sentimen bat baino gehiagoren bidez antolatzen dituzte.

TEOFILO: Adierazpen honi buruz badut oraindik ere zer esanik. Hemen bezala beste puntutan ere zuzentasunaren izenean onartuko didazula uste dut, jauna, ez naizela kontrakotasun nahi hutsez ari, gaiak, antza, hala eskatzen duelako baizik. Koalitate sentigarrien ideiak menpekotasun hain eskasekoak izatea eta hain birzatiketa gutxitarako gauza ez da inolako abantaila; gure ezagutza eskasaren ondorio baino ez baita. Hala eta guztiz, kolore orok komun daukaten horrexek, hots, begientzat ikusgarri izateak, guztiek gorputzak zeharkatzeak, hauetan zehar batzuen itxurak iragazten direlarik, eta iragaten uzten ez dieten gorputzen azal leunduek islatzeak, horrek guztiak jakinarazten digu haietaz ditugun ideietatik zerbait ken dezakegula. Sailka ditzakegu koloreak, eta arrazoiz, batetik larriak (bata, zuria, positiboa eta bestea, beltza, pribatiboa) eta ertainak bestetik, hauei ere kolore deitzen zaielarik zentzu bereizian eta argitik errefrakzioz sortzen direnak; izpi difraktatuaren alde ganbiletan eta alde ahurretan bana ditzakegu, halaber. Eta koloreen zatiketa eta birzatiketa hauek garrantzi handikoak dira.

FILALETES: Baina nolatan aurki ditzakegu generoak ideia bakun horietan?

TEOFILO: Itxuraz baino ez direlarik bakunak, eurekiko loturazko xehetasunez datoz hornituta, lotura hau ulergarri ez bazaigu ere, eta xehetasun horiek zerbait aztergai eta adierazgarri eskaintzen digute eta horrek esperantza ematen digu egunen batean fenomeno horien zergatiak aurkitu ahal izango ditugula. Horrela gertatzen da koalitate sentikorren eta masa sentikorren gure pertzepzioetan pleonasmoko gisako zerbait dagoela: eta pleonasmoko hori haietarik bakoitzeko nozio bat baino gehiago izatean datza. Urrea era askotara defini daiteke nominalki; esan daiteke gure gorputzetarik astunena dela, xaflakorrena dela, arragoa eta akuaforteari dirauen gorputz galdagarria dela etab. Ezaugarri hauetariko bakoitza aski da urrea egiaztatzeko, behin-behinekoan bederen eta gure gorputzen gaur eguneko egoeran, gorputz astunagorik aurki dadin arte, zenbait kimikariek lortu uste duen harri filosofala adibidez, edota iletargi finko hori erakuts dadin arte, bera baita zilarren kolorea omen duen metal bat, eta errearen koalitate ia guztiak, Boyle zaldun jaunak lortutzat eman bide duenez¹⁹⁸. Baiezta daiteke, halaber, enpirikoki baino ezagutzen ez ditugun materietan gure definizioak oro direla behin-behinekoak, eta hau gorago aditzera eman dudala uste dut. Egia da, beraz, frogapenez ez dakigula ezinezkoa ote den islatze hutsez, errefrakziorik gabe, kolore bat sortzea, eta orain arte errefrakzio arruntaren angelu ahurrari erantsi dizkiogun koloreak alde ganbilean ere aurki ote daitezkeen, oraingoz ezaguna ez zaigun errefrakzio motaren baten bidez eta vice versa. Era horretan urdinaren ideia bakuna gure esperientzietatik erantsitako generorik gabe geratuko litzateke. Egoki zaigu, halere, daukagun urdinera eta honi atxikitako zirkunstantzietara mugatzea. Eta horiekin generoak eta espezieak eraiki ahal izatea bada zerbait.

(§ 17) FILALETES: Eta zer diozu baieztapen honetaz, alegia, ideia bakunak gauzen existentziatik hartuak direlarik, ez direla inondik ere arbitrarioak, modu mistoenak, aldiz, erabat hautazkoak diren bitartean, eta substantzienak ere nolabait?

TEOFILO: Arbitrariotasuna hitzetan baino ez da, nire ustez, aurkitzen, ideietan inola ere ez, ahalgarritasunak baino ez baitituzte hauek adierazten: horrela, ahaide-hilketarik inoiz izan ez balitz ere eta legelari guztiak hartaz mintzatzeaz Solon bezainbeste ahaztu balira, hala eta guztiz, ahaide-hilketa hilketa ahalgarria litzateke eta beronen ideia erreala. Ideiak Jainkoaren baitan betidanik baitaude eta guregan aktualki pentsatzen hasi baino lehen, gure lehen solasaldietan erakutsi dizudanez. Inork gizakion pentsamendu aktualtzat hartu nahi baditu, lizentzia du horretarako, baina hizkera arruntaren aurka joango da arrazoirik gabe.

V

Modu mistoen eta erlazioen izenak

(§ 2, 3 eta hurrengoak) FILALETES: Ez al ditu, bada, izpirituak ideia mistoak moldatzen, ideia bakunak egoki deritzan moduan bilduz eta eredu erreala kontuan hartu barik; ideia bakunak, aldiz, aukerabiderik gabe gauzen existentzia errealak emanak datozkion bitartean? Ez al du hark, sarri, ideia mistoa ikusten gauza existitu aurretik?

TEOFILO: Ideiak pentsamendu aktualtzat hartzen badituzu, zuzen zaude. Baina zure bereizkuntza pentsamendu horien formari edo ahalgarritasunari dagokionari atxikitzea ez dut uste beharrezkoa denik; halere hauxe da auzia mundu idealean, existitzen den mundutik bereizten den horretan. Beharrezkoak ez diren izakien existentzia erreala egiteko edo historiako arazoa da, ahalgarritasunen eta beharrezkotasunen ezagutzak, aitzitik, (beharrezko baita beronen kontrakoa ahalgarri ez dena) zientzia frogagarriak osatzen ditu.

FILALETES: Hilketa eta gizakia ideien artean lotura estuagoa al da, bada, hilketa eta ardia ideien artekoa baino? Nozio lotuagoak al dira, agian, ahaide-hilketa osatzen dutenak, haur-hilketa osatzen dutenak baino? Eta ingelesek stabbing deritzoten hilketa, ezpataren puntaz eragindakoa, beraientzat ezpataren ahozkoa baino larriagoa, izena eta ideia merezi izan dituelako naturalagoa al da, ardia edota gizakia zatzakoz hiltzeak izen bereizirik merezi izan ez duela eta?

TEOFILO: Posibilitateez soilik ari garelarik, ideia hauek guztiak dira berdin naturalak. Ardi-hilketa ikusi dutenek ekintza honen ideia osotu dute pentsamenduan, ez izenik ez arretarik eskaini ez badiote ere. Zergatik orduan mugatu izenetara ideiez ari garelarik, eta zergatik atxiki behar gatzazkio modu mistoetako ideien duintasunari, ideia hauetaz oro har ari garelarik?

(§ 8) FILALETES: Gizakiek araugabeki modu mistoetako espezie ezberdinak antolatzen dituztelarik, hizkuntza batzuetan sortzen dira zenbait hitz, beste hizkuntzetan ordainik ez dutenak. Erromatarrek erabili ohi zuten latinezko versura hitzak, adibidez, ez dauka ordainik hainbat hizkuntzatan, ez eta juduen corban hitzak ere¹⁹⁹. Latinezko hora, pes eta libra hitzak ordu, oin eta libra itzultzen ditugu zalantzarik gabe; baina erromatarren ideiak gurengandik guztiz bestelakoak ziren.

TEOFILO: Ideiez eta berauen espezieez ari ginenean eztabaidatu genituenak ideia horien izenen inguruan berriro agertzen zaizkigula konturatzen naiz. Oharpide zuzena da izenei eta giza ohiturei dagokienean, baina ez ditu ezertan aldatzen zientziak, ez eta gauzen izakera; zinez ondo egingo luke gramatika unibertsala idatziko lukeenak hizkuntzen esentziatik berauen existentziara iragaitea, hizkuntza ezberdinen gramatikak alderatuz; era berean, arrazoitik eratorritako jurisprudentzia unibertsala idatzi nahi izango lukeenak ongi egingo luke herrietako lege eta ohituren paraleloak erantsiz, eta praktikarako ezezik onuragarri litzateke hau ikuspegi teorikotik ere, eta egileari berari aukera emango lioke hori gabe itzuriko litzaizkiokeen zenbait oharpen egiteko.

Zientziari berari begira, halere, bere historiatik edo existentziatik aparte, arrazoiak agintzen duenarekin herriek ados jokatu duten ala ez, munta eskasekoa da.

(§ 9) FILALETES: Espezie hitzaren dudazko esanahiarengatik pertsona asko harritu egiten da modu mistoetako espezieak adimenaren bidez moldatuak direla entzutean. Inoren esku uzten dut nik mota edo espezie bakoitzaren mugak finkatzea, zeren bi hitz hauek erabat sinonimo baitira niretzat.

TEOFILO: Espezieen arteko mugak, gizaki eta animaliaen artekoak edo zaztako eta puntzetadaren artekoak, adibidez, gauzen izaerak finkatu ohi ditu. Aitortu behar dut, hala eta guztiz, zenbait noziotan badela zinez arbitrarioak; hala nola, oina zehazterakoan, zeren lerro zuzena uniforme eta mugagabea delarik naturak ez baitu hor mugarik markatzen. Badira, halaber, esentzia lauso eta akastunak, usteak baitu parte berauetan, adibidez, norbaitek galdetzen duenean zenbat ile behar dituen gutxienik gizonak burusoil izan ez dadin; lehiakidea erasotzeko antzinekoek erabili ohi zuten sofismetariko bat zen hau,

Dum cadat elusus ratione ruentis acervi.²⁰⁰

Erantzun zuzena da izaerak ez duela nozio hau zehaztu eta nor bere ustearen arabera geratzen dela nolabait; badira, izan ere, burusoilak ote diren zalantzan jar daitezkeen pertsonak, beste batzuk hala-holakoak, burusoilak batzuentzat, besteentzat ez; zuk zeuk aipatutako zaldia bezala, Holandan txikitzen hartuko luketena, Frantzian, aldiz, handitzen. Horrelako zerbait gertatzen da ideia bakunekin, zeren adierazi berri dudanez, koloreen arteko azken mugak zalantzazkoak baitira; badira, halaber, zenbait esentzia zinez erdizka nominalak, zeinetan izena gauzaren definizioan sartzen den: esate baterako, doktore, zaldun, enbaxadore edota erregearen gradu edo koalitatea ezagutzen dira pertsonak izen hori erabiltzeko eskubide aitortua eskuratzen duenean. Atzerriko ministro bat, ahalmen eta jarraigo handikoa izan arren, ez da enbaxadore gisa onartua izango bere mandatu-gutunek titulu hori egiaztatzen ez badiote. Baina esentzia eta ideia hauek guztiak ilunak dira, dudazkoak, arbitrarioak, nominalak, zuk aurrean aipatutako zentzu bertsuan.

(§ 10) FILALETES: Sarritan badirudi, ordea, zuk arbitrariotzat ez dauzkazun modu mistoen esentziak gordetzen dituela bere baitan izenak; esaterako, garaipen hitza ez bageneuka nekez jakingo genuke erromatarren artean halakoetan zer gertatzen zen.

TEOFILO: Akort nauzu izenak gauzetara arreta jartzeko balio digula eta hauen oroitzapena eta uneko ezagutza gordetzeko; horrek ez du, baina, ezertan ukitzen hemen esandakoa eta ez ditu esentziak nominal bilakatzen; ez dut, beraz, ulertzen zergatik zure lagun horiek etsi-etsian ezarri nahi dituzten esentziak berak ere izenen aukerapean. Hobe zukeen zure idazle ospetsu horrek hartan ahalegindu baino, zehazkiago saiatu izan balitz ideia eta moduen gogarpenean, hauek sailkatuz eta berauen mota ezberdinak garatuz. Ildo horretan berarekin nindukeen atseginez eta denon probetxurako, horrek zalantzarik gabe argi ugari ekarriko baitzigukeen.

(§ 12) FILALETES: Zaldi batez edo burdinaz mintzo garenean, gure ideien jatorrizko moldeak hornitutako gauzatzat hartzen ditugu; baina modu mistoez ari garenean edota hauetarik garrantzitsuenak diren moralezko izateez, hala nola, justiziaz eta eskerronaz, hauen jatorrizko ereduak izpirituan daudela uste dugu. Horregatik justiziaren eta zuhurtasunaren nozioa aipatzen dugu, baina ez dugu inola ere zaldiaren edo harriaren noziorik aipatuko.

TEOFILO: Batzuen ideien moldeak bezain errealak dira besteen ideienak. Izpirituaren koalitateak gorputzarenak bezain errealak dira. Egia da ez dugula justizia ikusten zaldia ikusten dugun moduan, baina hura ez dugu hau baino gutxiago ulertzen, are hobeto ulertzen baitugu; kontuan hartu ala ez, egintzetan egongo da beti, mugimenduaren baitan zuzentasuna

edo oblikuitatea beti dauden moduan. Eta gizakiak, bereziki adimentsuenak eta giza arazoetan adituenak, irizkide ditudala frogatzeko, ondorengo guztiek ontzat hartu dituzten legelari erromatar jakintsuengana joko dut, berauek modu mistoei eta izate moralezko horiei gauzak baitzeritzen eta bereziki gauza gorputzbakoak. Zeren zortasunak, adibidez, (hala nola auzoko eremutik ibiltzeko bide-zorra) beraientzat res incorporales baitira eta haien jabegoa usadio luzearen poderioz eskura, gorde eta errebindika daiteke. Nozio hitzari dagokionez, jende jakintsu askorentzat ideia hitza bezain adiera zabalekoa da; latinezko erabilera ez doa hauen kontra, frantsesena eta ingelesena hala ote den ez dakit.

(§ 15) FILALETES: Ez dugu oraindik esan gizakiok modu mistoen izenak ikasten ditugula hauen ideiak baino lehenago, izenak adierazten baitigu ideia horrek arreta merezi duen ala ez.

TEOFILO: Ongi dago oharra, beste hau ere egia izan arren, alegia, gaur egun haurrek izendegien laguntzaz gauzak baino lehenago ikasten dituztela izenak, moduei dagozkienak ezezik, substantzienak ere, sarritan gainera substantzien izenak moduenak baino areago; izendegi horien akatsa da, hain zuzen, izenak soilik eskaintzen dituztela, ez aditzik; kontuan izan gabe solasaldian beharrezkoago ditugula aditzak, moduak adierazten dituztenean ere, substantzia partikularrak agertzen dizkiguten izen gehientsuenak baino.

VI

Substantzien izenak

(§ 1) FILALETES: Substantzien generoak eta espezieak, gainontzeko izakienak bezala, motak dira soilik. Esate baterako, eguzkiak izar mota bat baino ez dira; hots, izar finkoak, zeren uste baita, eta arrazoiz, edozein izar finko eguzkitzat hartuko lukeela distantzia egokira kokatutako edonork. (§ 2) Halere, mota bakoitza bere esentziak zedarritzatzen du. Eta hau ezaguna zaigu bai egituraren baitatik, bai kanpoko aztarnengatik, hauei esker ezagutzen baitugu, eta izen bat ezartzen diogu: bi modutara ezagutu daiteke Strasbourgeko erlojua, erloju haren egileak ezagutzen duen bezala edota haren ondorioak miresten dituen ikusle gisa.

TEOFILO: Horrela mintzo zarelarik, ez daukat kontrakorik ezer.

FILALETES: Gure eztabaidak berritu ez daitezen mintzo naiz horrela. Orain gehitzen dut esentzia motekin erlazionatzen dela soilik, eta banakoetan deus ez dela esentziala. Istripu batek edo gaitzak alda dezake nire azala edo nire gorpuzkera; sukarrak edo erorketak arrazoimenik eta oroimenik gabe utz nazake, apoplejiaren eraginez sentimenik, adimenik, bizitzarik gabe murriztua gera naiteke. Arrazoimena edukitzea esentzialtzat dudana galdetzen bazait, ezetz erantzungo dut.

TEOFILO: Banakoetan esentzialik badelakoan nago, eta askok uste baino gehiago. Ihardutea esentziala zaie substantziei, substantzia sortuei nozitzea, izpirituei pentsatzea, gorputzei hedadura eta higidura edukitzea esentziala zaien bezala. Esan nahi baita badirela espezieak eta motak, zeinetan banakoak halabeharrez (naturalki bederen) kide izan behar duen, behin kidegokoa izanez gero, izadian gerta daitezkeen iraultza ororen gainetik. Baina badira, halaber, espezieak eta motak, bertako kide diren banakoentzat akzidentalak (aitortzen dut), eta hauek mota honetakoak izateari uko egin diezaiokete. Horrela, sasoiko, eder, jakintsu izateari uko egin diezaiokegu, are eta agiriko ala ukigarri izateari ere; inoiz ere ez, ordea, bizitza eta organoak eta pertzepzioa edukitzeari. Lehen ere sarri azaldua dut zergatik gizakiek uste duten bizitza eta pentsamendua ahitzen zaizkiela, hauek eten gabe iraun eta ondorioak izan arren.

(§ 8) FILALETES: Izen arrunt baten pean sailkatzen eta espezie bereko kideztzat hartzen ditugun hainbat banakok koalitate arras ezberdinak dituzte, euren eraketa errealean (partikularren) menpe daudelako. Nekerik gabe egiazta dezake hau gorputz naturalak azter ditzan edonork, eta kimikariak sarri geratzen dira horretaz etsirik esperientzia

gogaikarrien bitartez, antimonio, sufre edota bitriolo zati batean minerale beroien beste zatitan aurkitutako koalitateen bila alferrik dabiltzanean.

TEOFILO: Zinez da egia eta nik neuk ere ekar nitzake diozunaren beste hainbat adibide. Badira, halaber, liburuak ere de infido experimentorum chymicorum successu²⁰¹ propio idatziak. Baina oker dabilta gorputz horiek antzekotzat edo uniformetzat hartzerakoan, uste baino nahasiagoak baitira; zeren gorputz ez-antzekoetan ez baita inor harritzen norbanakoen ezberdintasunak aurkitzean, eta medikuek ondotoxo dakite zenbateraino diren ezberdinak giza gorputzen tenperamentuak eta berezko izakerak. Laburbilduz, azken espezie logikoak ez ditugu sekulan aurkituko, gorago ere esan dudanez, eta espezie bereko bi banako erreal edo oso ez dira inoiz erabat antzeko izango.

FILALETES: Ez ditugu ezberdintasun horiek guztiak somatzen, zati txikiak ezagutzen ez ditugulako eta, ondorioz, gauzen barne-egitura ere ez. Ezin ditugu, beraz, esentzia horiek erabili gauzen motak edo espezieak zehazteko, eta erabili nahi izango bagenitu, edota eskolek forma substantzialak deritzenak maneiatu, gorputzak margoka sailkatu nahi lituzkeen itsuaren pareko ginateke. (§ 11) Orobat, ez ditugu izpirituen esentziak ezagutzen eta ezin ditugu aingeruei buruzko ideia espezifikoki ezberdinak osatu, jakin oso ondo dakigun arren izpiritu mota zenbait izan behar direla. Badirudi, halaber, gure ideietan Jainkoa eta aingeruen artean ez dugula inongo alderik egiten, ideia bakunetan oinarrituta, salbu eta Jainkoari azkengabetasuna egozten diogula.

TEOFILO: Bada nire sisteman beste berezitasun bat Jainkoa eta izpiritu sortuen artean, alegia, nire ustetan izpiritu sortu orok gorputza eduki behar duela, gure arimak bat duen moduan.

(§ 12) FILALETES: Gorputzen eta izpirituen artean analogia hau bederen existitzen dela uste dut, alegia, nola hutsunerik ez dagoen gorputzezko munduaren aldaeretan, hala ez da aldaera gutxiagorik izanen kreatura adimentsuetan. Gugandik hasi eta beheengo mailatarantz abiatuz maila oso txikitara jaisten gara, gauzen etengabeko segidan, hauek bata bestetik tarte bakoitzean apenas bereizten direlarik. Badira arrain hegaldunak, airea arrotz egiten ez zaienak, eta uretan bizi diren txoriak, arrainak bezain odol hotzekoak, eta zaporea ere hain dute arrainaren antzekoa ezen eskrupulosoei zilegi zaiela barau egunetan hura jatea. Animalia batzuk hain hurbil daude hegaztien eta aldi berean piztien espezieetik bion arteko katebegia direla. Anfibioek berdin daukate lehorreko zein uretako piztiatik. Itsas zakurrak lehorrean bezala itsasoan bizi dira; eta marsupialak (izenak itsas urde esan nahi baitu) odola bero dute eta erraiak zerriarenak. Itsasgizonen kontuak aipatzen hasi gabe, ba omen dira piztiak itxuraz gizaki deritzon zenbait animaliak beste ezagutza eta arrazoimen dutenak; eta animalia eta landareen arteko aldea hain da txikia ezen haietarik inperfektuena hartu eta hauetarik perfektuena eta ez baituzue euren arteko alderik ia nabarmenduko. Horrela, izadiko atalik baxuen eta gutxien antolatuetara iritsi arte nonahi ohartuko gara, espezieak elkarri lotuta daudela eta bata besteagandiko berezitasunak ia ohartezinak direla. Eta gauza guztien egilearen jakituria eta ahalmen mugagabea gogoan hartzen badugu, pentsatu beharko dugu kreatura espezie ezberdinak gugandik haren jainkozko perfekziora apurka-apurka hurbiltzen direla, unibertsoa harmoniarekin eta diseinu handiarekin bat, eta arkitekto gorenaren ontasun infinituarekin ados. Beraz, arrazoiak ditugu sinetsita egoteko gugandik gorantza dauden kreaturak askoz gehiago direna gugandik beherantzakoak baino, zeren perfekzio gradutan askoz urrutiago baikaude Jainkoaren izaera infinitutik, ezerezero hurbiltzen denetik baino. Hala eta guztiz, ideia argi, bereizirik ez daukagu espezie ezberdin hauei guztiei buruz.

TEOFILO: Arestian baieztatu duzunaren antzeko zerbait esateko asmoa izan dut noizbait, jauna; lehenago ez esanagatik pozten naiz, ikusten baitut gauzak adierazten direla nik neuk egitea espero nezakeena baino hobeto. Filosofo prestuek ere jorratu dute gai hau, *utrum detur vacuum formarum*²⁰², esan nahi baita ea espezie posiblerik badagoen, izaterik duten arren existitzen ez direnak, naturak ahortzi izan bailituen. Badut motiburik sinesteko espezie ahalgarri oro ez direla ahalgarrikide unibertsoan, berau hain handia izanda ere; eta hau ez da soilik gertatzen aldi berean elkartuta existitzen diren gauzei dagokienean, gauzen segida osoari dagokionean ere berdina baita. Zera esan nahi dut: sinetsita nago badirela halabeharrez espezieak sekulan izan ez direnak eta izango ere ez direnak, Jainkoak aukeratutako izakien segidarekin ez baitira bateragarri. Baina unibertsoa harmonia perfektuaren baitan bil daitezkeen gauza guztiak bertan daudela sinesten dut. Urruneko kreaturen artean bitarteko batzuk izatea harmonia honekin ados dator, nahiz eta honek ez daukan zertan gertatu beti planeta edo sistema berean, eta espezie biren artean egoteak batzuetan zirkunstantzia batzuekin zerikusirik izan arren, ez ordea bestekin. Txoriak, gauza askotan gizakiaren hain ezberdinak izaki, hitzean hurbiltzen zaizkio; eta tximinoek hitz egiten balekitez papagaiek dakiten bezala, oraindik hurbilago leudeke. Jarraiaren legeak berekin dakar naturak ez dezala hutsunerik utzi bere erabidearen jarraian; baina forma edo espezie oro ez da erabide oroko. Izpiritu edo jeinuei dagokienez, sorturiko adimen orok gorputz antolatutakoak dituztela defendatzen dudalarik, hauen perfektioa, harmonia aurrezarriaren poderioz, gorputz horretan dagoen izpiritu edo adimenari egokitzen baitzaio, nire ustez gure ginetik dauden izpirituen perfektioaz zerbait bururatzeko lagungarri izango zaigu gorputz-organoetan ere irudikatzea gure gorputzekoak baino areago dauden perfektioak. Gure irudimenaren ginetik igo ahal izan gaitzen sasoikoena izanen da irudimenik biziena eta aberatsena, nola itzuli ez dakidan italierazko harako esakerak dioenez *l'invenzione la piu vaga*. Harmoniari buruzko nire sistema justifikatu nahian esan dudana, pentsa genezakeenez gaindi jainkoazko perfektioak goratzen dituen sistema, alegia, baliagarri izango dugu, halaber, orain arte izan ditugunak baino kreatura paregabeki handiagoen ideiak edukitzeko.

(§ 14) FILALETES: Substantzien baitan ere eskasa den espezieen errealitate itzuliz, galdera hau egingo dizut: ea ura eta izotza espezie ezberdinekoak diren.

TEOFILO: Nik ere neure aldetik zera galdetzen dizut: ea arragoan urtutako urrea eta lingoteetan hotzitutakoa espezie berekoak diren.

FILALETES: Galderak ez dio galderari erantzuten.

*Qui litem lite resolvit*²⁰³

Baina nirekin ados egongo zara honetan, alegia, gauzak espezetan murriztean gauza horietaz ditugun ideiei buruz ari garela soilik, eta izenez bereizteko aski da; baina bereizketa hau beren barne-eraketa errealean oinarrituta dagoela onartuko bagenu, eta naturak existitzen den gauza oro bereizten duela euren esentzia errealearen arabera diren bezainbat espezetan, guk geuk izendapen baten edo bestearen bidez espezetan bereizten ditugun modura, orduan errakuntza handitarako arriskutan sartuko ginateke.

TEOFILO: Espezie hitzean edota espezie ezberdineko izan esakeran datza arazo hauek guztiak sortarazten dituen anbiguetatea; hau ezabatzean ez dugu, jada, arazorik izango, ez bada, apika, izenari buruzkoa. Espeziea har dezakegu matematikoki edo fisikoki. Matematikaren zorrotasunean, bi gauza erabat antzeko ez izatea eragiten duen alderik ñimiñoenak behartzen ditu gauzok espezie ezberdinetakoak izatera. Geometrian zirkulu guztiak dira espezie berekoak, erabat antzeko baitira denak, eta zio beragatik parabola guztiak ere espezie berekoak dira; ez da, baina, gauza bera gertatzen elipseekin eta hiperboleekin, hauen mota eta espezieen kopurua amaigabea baita, espezie bakoitza ere edozein batek osatzen duten arren. Fokuen arteko distantzia eta gailurren artekoa proportzio berekoa duten elipse kontaezin guztiak dira espezie berekoak; baina

distantzia horien arteko proportzioak handieran soilik aldatzen direnez, horra zergatik amaigabeko elipse-espezie ezberdin guzti horiek genero bakarra osatzen duten, inongo azpisailik gabe. Aitzitik, hiru foku dituen obaloak bil ditzake generoak amaigabeko kopuruan, eta espezieak amaigabeki amaigabeko kopuruan, genero bakoitzak bere baitan bilduko bailuke espezie kopuru soilik amaigabea. Hartara, banako bi ez dira inoiz erabat antzeko izango, eta are gehiago, banako bera espeziez espezie ibiliko da, ez baita bere buruaren erabat antzeko instant batez baino. Baina gizakiak ez dira hain zehatzak espezie fisikoak finkatzerakoan, eta beraien esku dago lehendabiziko formara itzul daitekeen masak espezie bereko irautea eurentzako. Horrela esan ohi dugu urak, urreak, merkurioak eta gatz arruntak bere horretan dirautela eta aldakuntza arruntetan itxuraldatu baino ez direla egiten; baina gorputz organikoetan edota landareen eta animalien espezieetan belaunaldika definitzen dugu espeziea, halako moldez non jatorri edo hazi beretik datorren edo etor daitekeen ezein antzekok espezie berekoa beharko lukeen izan. Gizakiarengan, giza jatorriaz aparte, kontuan hartzen dugu animalia arrazoidunaren koalitatea; eta bizitza osoan zehar piztien antzeko gizakiak ere badiren arren, uste da hori ez dela gaitasun edo printzipioaren faltagatik, gaitasun horri traba egiten dioten eragozpenengatik baizik. Hala eta guztiz, suposamendu hau oinarrituko luketen kanpo-baldintza guztien inguruan ez dago oraindik adostasunik. Baina euren izendapenetarako eta izenei atxikitako eskubideei gizakiek ezarritako arautegiak, zenbatnahi izanda ere, araudi horrek, etenik gabea, lotua eta ulerkorra den heinean, beti izango du funtsa errealtatean, eta posibilitateak ere bere baitan biltzen dituen naturak beraiek baino lehenago egin edo bereizi ez dituenak ez dituzte sekulan susmatuko. Barnekoari buruz, barne-eraketan oinarrituta ez dagoen kanpoko itxurarik existitzen ez den arren, egia da itxura bat bera gerta daitekeela bi eraketa ezberdinetatik abiatuta; zerbait amankomun egongo da, dena den, eta hau da, hain zuzen, gure filosofoek hurbileko kausa formala deritzotena. Eta amankomunik ez balego ere, eta Mariotte jaunarekin ados²⁰⁴, ortzadarraren urdinak urdin turkesaren jatorri guztiz bestelakoa balu ere, kausa formal komunik gabe (ni ez nator honetan bat berarekin), eta ebatziko balitz izenak ezartzera garamatzan itxurazko natura batzuek barne-komunik batere ez dutela, hori guztia jakinda ere, gure definizioek espezie errealetan oinarrituta lirauteke; fenomenoak beraiek direlako errealtateak. Esan dezakegu, beraz, egiaz bereizten edo alderatzen dugun oro naturak ere bereizten eta egokiarazten duela, haren bereizketak eta alderaketak, guk ezagutu ez arren, gureak baino hobeak izan daitezkeelarik. Aparteko arreta eta esperientzia luzea behar dira espezieak eta generoak naturari nahiko hurbil doakion eran banatzeko. Botaniko modernoek ustetan, loreen formetan oinarritutako bereizkuntzak dira ordenamendu naturalari gehien hurbiltzen zaizkionak. Baina zailtasun ugari aurkitzen dute, hala eta guztiz, eta ondo legoke alderaketak eta sailkapenak egitea, ez oinarri bakarrean finkatuta, aipatu berri dudana bezalakoa, loreetatik hartua, agian orain arte irakasleen sistema eroso eta onargarri baterako egokiena baita berau, bai, ordea, landareen gainontzeko atal eta zirkunstantziei begira egindako beste oinarrietan, eta kasu honetan konparazio-funts bakoitzak bere taulak aparte edukiko lituzke; hori gabe hainbat menpeko genero, hainbat alderaketa, bereizketa eta behaketa baliagarri itzuriko litzaiguke. Zenbat eta gehiago sakondu espezieen ernalkuntzan, zenbat eta gehiago kontuan izan sailkapenetarako eskatzen diren baldintzak, orduan eta hurbilago egongo gara ordenamendu naturaletik. Zenbait pertsona jakintsuren ustea egiazkoa gertatuko balitz, zera dioena alegia, badela landarean ale edo hazi ezagunaz gainera, hau baitagokio animaliaen arrautzari, beste hazi bat ar izena mereziko ligukena, hau da, hauts bat (polen-alea, sarri ikus daitekeena, ikustezina beste batzuetan, halaxe da alea bera ere zenbait landaretan) haizeak edota berezko ezein halabehar arruntek hedatzen duena eta alearekin bat

eginarazi, hau batzuetan landare berekoa delarik, besteetan (kalamua kasu) espezie bereko landare hurbil batena, nolabait landare honek arraren analogiaz jokatu lukeelarik, nahiz eta emea, agian, inoiz ere ez izan polen-ale hori berori gabekoa; jakintsuen uste hau egia gertatuko balitz (diot) eta landareak ernarazten diren moduak ezagunago bagenitu, ez daukat zalantzarik ernaltze modu horietan aztertutako aniztasunek hornituko lizkiguketela bereizketa erabat naturaletarako oinarriak. Jeinu goren zenbaitek daukaten zorrotasuna bageneuka eta aski ezagutuko bagenitu gauzak, agian aurkituko genituzke atributu finkoak espezie bakoitzean, espezie horretako banako guztietan daudenak eta izaki bizi organiko berean beti dirautenak, gerta dakizkiokeen aldaera eta transformazio ororen gainetik; hala gertatzen da espezie fisikoetan ezagunena den giza espeziean, arrazoimena dela atributu finkoa eta galdu ezinezkoa norbanako guztietan, beti ohargarri ez bada ere. Baina ezagutza horiek gabe, gauzak bereizi eta alderatzeko, hots, espezieak eta motak antzemateko egokienak uste ditugun atributuez baliatzen gara: eta atributu hauek beti dituzte euren oinarri errealak.

(§ 14) FILALETES: Izaki substantzialak bereizteko uste arruntaren arabera, hau da, gauzen esentzia edo forma zehatzak baleude moduan eta ondorioz banako guztiak era naturalez espezieetan bereiziko bailiren, lehenik eta behin, (§ 15) ziur egon beharko genuke gauzen ekoizketan natura beti saiitzen dela hauek parte har dezaten zenbait esentzia arautu eta ezarritan, eredu gisa: eta bigarrenik (§ 16), ziur egon natura beti iristen dela helmuga honetara. Baina munstroek arrazoiak eskaintzen dizkigute batzuekin zein besteaz zalantzak izateko. (§ 17) Ebatzi beharko genuke, hirugarrenik, ea munstro horiek ez ote diren espezie ezberdin eta berri bat, aurkitzen baititugu halakoak oso gutxi dutenak beren jatorrizko omen den espezieko esentziaren koallitateetatik, jaiotzetik berea omen duten espeziekotik alegia.

TEOFILO: Munstroak ea espezie zehatz batekoak ote diren jakin nahian dihardugunean, sarritan susmo hutsetara murrizten gara. Horrek adierazten du, kanpokora mugatu barik zera asmatzen saiitzen garela, alegia, ea espezie horretako banakoetan komuna den barne-naturak (hala nola arrazoimena gizakiarengan) ezargarri jarraitzen duen (jaiotzez hala beharko lukeelarik) euren espeziea bereizten duten kanpo-ezaugarrietatik batzuk erakusten ez dituzten norbanakoetan. Baina gure zalantzak ez du ezertan ukitzen gauzen izakera, eta halako barne-natura komunik izatekotan, hau munstroarengan izango da ala ez, guk jakinda ala jakin gabe. Eta inongo espezieetako barne naturarik ez badago, orduan munstroa izan daiteke bere espezie propiokoa. Baina aztertu ditugunetarik inongo espezieetan aurkitzen ez badugu barne-natura hori, eta jaiotzea ere kontuan hartzen ez badugu, orduan kanpoko ezaugarriek zehaztuko lukete espeziea eta munstroa ez litzateke izango urrundu dugun espezie horretakoa, espeziea zentzu zabar eta laxoan hartzen ez badugu behintzat: eta kasu honetan espeziea asmatu nahian gure ahalegina alferrekoa izango litzateke. Hau da, agian, esan nahi duzuna, barne-esentzia errealeetatik datozen espezieei zuk egindako objektioetatik ondoriotzen dudanagatik. Frogatu beharko zenuke, jauna, ez dagoela barne espeziefiko komunik, kanpokoala hala ez denean. Giza espeziean jazotzen da kontrakoa, munstro-izaeratik zerbait duten haurrekin adinarekin arrazoimena erakusten baitute batzuetan. Zergatik ez da antzeko zerbait gertatuko beste espezieetan? Egia da esentzia horiek ezagutu ezik ezin garela beraietaz baliatu espezieak definitzerakoan, baina kanpokoak berdintsu jokatzeko, aitortu behar dugun arren hau ez dela aski definizio zehatza erdiesteko, eta definizio nominalak beraiek ere kasu hauetan aieruzko hutsak direla; lehenago ere hemen esanda daukat nolatan batzuetan behin-behinekoak baino ez diren. Adibidez, urrea faltsifikatzeko modua aurki daiteke, orain arte egin ohi diren frogak guztiak gaingintzeko eran; baina aurki zitekeen, halaber, urre naturala artifizioz egindako urre honetatik bereizteko egiaztapen saiakuntza berria. Bata zein bestea Augusto Saxoniako hautesleari²⁰⁵

egozten diote antzinako idazkiek; baina ni ez naiz nor hori baieztatzeko. Hori egia balitz, urrearen definizio perfektuagoa eduki genezakeen orain arte daukaguna baino, eta urre artifiziala ugari eta merke egiteko modua balego, alkimistek nahi duten modura, egiaztapen berri hau garrantzi handikoa litzateke; horren bidez gizadiak eutsiko bailioke urre naturalak bere urritasunagatik komertzioan damaigun abantailari, eta eskainiko liguke, aldi berean, materiale iraunkor, uniforme hau, banatzeko eta aztertzeke erraza eta bere txikian preziatua. Une hau aprobetxatu nahi dut zailtasun bat argitzeko (ikus Adimenari buruzko Entseia liburuan Izenak eta substantziak izenburua duen ataleko § 50). Objektatzen zaigu batzuetan, zera esanaz, alegia, , urrearen ideiaz ulertzen badugu zenbait koalitateen multzoa, finkotasuna barne, hori esatean baieztapen identikoa eta hutsala baino ez dugula egiten, zera esatea bezala: finkoa finkoa da; baina ideia horrek izaki substantziala adierazten badigu, nolabaiteko barne-esentziaz eta honen ondorio den finkotasunez hornitua, ez gara era ulergarrian mintzo, esentzia erreal hau guztiz ezezaguna delako. Nik erantzuten diot barne-eraketaz hornitutako gorputza kanpoko beste marka batzuek izendatzen dugula, eta hauen artean ez dugu finkotasuna kontuan hartzen; inork esango balu bezala: . Baina guztia behin-behineko hutsa da, zeren noizbait aurki baitaiteke gorputz hegaskor bat, hala nola merkurio mota berria, urrea baino astunago litzatekeena, zeinaren gainean urreak igeri egin lezan, berunak gure merkurioaren azalean igerikatzen duen moduan.

(§ 19) FILALETES: Egia da horrela ezin izango dugula inoiz zehazki jakin zenbat diren urrearen esentzia errearen menpe dauden propietateen kopurua, urrearen esentzia bera ezagutu ezik. (§ 21) Baina zenbait propietatetara zehazki mugatzen bagara, hori aski da definizio nominal zehatzak lortzeko, gaur egunerako baliagarriak, betiere aukera izango genukeelarik izenen adierazpenak aldatzeko, inoiz bereizketa berri erabilkorrik idoroko balitz. Baina definizioa egokitu beharko zaio, gutxienik, izenari eman ohi zaion usadioari eta honen ordezkioa egiteko gai izan beharko du. Honekin errefusa ditzakegu gorputzaren esentzia hedaduran datzala diotenak, zeren gorputzak beste gorputzari bulkada ematen diola esaten denean, absurdutasuna agirikoa litzateke hedadura hitza ren lekuan jarri eta esango bagenu hedadura batek bulkada bidez beste hedadura higiarazten duela, horrez gain solidotasuna era ezinbestekoa baita. Era berean, ez da inoiz esango arrazoimena, edo gizakia adimendun egiten duen gaitasuna, mintzo dela; ez baitu arrazoimenak soilik gizakiaren esentzia osatzen: animalia arrazoidunak dira elkarren artean mintzo.

TEOFILO: Zuzen zaudela uste dut: izan ere, ideia abstraktu eta osagabeen objektuak ez dira aski gauzen ekintza guztiei gaia eskaintzeko. Alabaina sinetsita nago izpiritu orori doakiola elkarriketa, pentsamenduak elkarri adierazteko. Eskolastikoak biziki ahalegintzen dira aingeruek nolatan elkarrekin mintzo daitezkeen jakin nahian; baina gorputz sotilak egotziko baliote, antzinakoen ildotik nik egin dudana moduan, ez lukete horretan eragozpenik kausituko.

(§ 22) FILALETES: Badira kreaturak gurearen antzeko forma dutenak, baina ilez estalita daude eta ez dute ez arrazoimenik ez hitzik erabiltzen. Badira gure artean inozoak gure itxura berekoak baina arrazoimenik gabeak, eta batzuek hitzik ere esan ezin dutenak. Ba omen dira, diotenez, arrazoimena eta mintzamina erabiltzen duten kreaturak, isats iletsua salbu, gurea bezelakoxe giza itxura osokoak; ez da behintzat ezinezkoa kreatura hauen existentzia. Beste batzuetan arrak bizargabeak dira eta emeak bizardunak. Kreatura horiek guztiak gizakiak diren ala ez galdera egitean, giza espeziekoak izatekotan argi dago galdera definizio nominalari soilik doakiola, edota izen honen bidez ezaguarazteko guk osatutako ideia konplexuari: barne-esentzia erabat zaigu ezezaguna, nahiz eta pentsatzera irits gaitzkeen ahalmenak eta kanpoko itxura hain ezberdinak direnean, barne-antolaketa ere ez dela berdina izango.

TEOFILO: Gizakiaren kasuan definizio erreala eta nominala aldi berean ditugula uste dut. Ez baitu gizakiak arrazoimena baino bereagorik ezer, eta hau gehienetan argi nabarmentzen da. Horren parean bizarrak eta isatsak ez dira aintzat hartzekoak. Gizon basatiak, iletsua izanda ere, gizaki dela azalduko du; makakoaren ilajea duelako ez dugu beste barik geure artetik egotziko. Inozoeak ez dute arrazoimenik erabiltzen; baina esperientziaz dakigu sarritan arrazoimena mozorrotzen dela eta batzuetan agertu ere ez dela egiten, eta hau gertatzen zaie arrazoia lehendik erakutsi eta gero ere erakutsiko dutenei; irizpide berau aplikatzen diegu egiantzez inozoei, gainontzeko zantzueta oinarriturik, hau da, gorputzaren itxuran. Haurrak gizakiak direla eta noizbait arrazoimena erakutsiko dutelako presuntzioa mota horretako zantzueta eta jaiotzan oinarritzen dugu; eta ez gara apenas tronpatzen. Baina animalia arrazoidunik balego azaleko itxuraz gure antzekoak, zalantzak izango genituzke. Honek frogatzen digu gure definizioak gorputzen azalekoan oinarritzen ditugunean imperfektuak direla eta behin-behinekoak. Norbaitek bere burua aingerutzat baleuka eta gure ahalmenen gainetik dauden gauzak ezagutu eta egiten jakingo balu, sinesgarri izatera iritsiko litzateke. Norbait ilargitik etorriko balitz, Gonzalez bezala²⁰⁶, aparailu harrigarri batean eta bere jaioterriko kontu sinesgarriak egingo balizkigu, ilargitartzat hartuko genuke, baina bertoko herritar agiria eta hiritar eskubideak gizaki tituluarekin batera eman ahal izango genioke, gure planetan arrotz izan arren; baina bataioa eta gure legearen jarraitzaile gisa onartua izatea eskatuko balu, nire ustez eztabaida latzak sortaraziko litzuzke teologoaren artean. Eta aipatu planeta-gizakiekin, Huygensen ustez arras gure antzekoak omen direnekin²⁰⁷, harremanak zabalik baleude, auziak kontzilio unibertsala deitzea mereziko luke, ea fedearen hedakuntzan gure planetatik kanpo ere saiatu beharko ote ginatekeen ebazteko. Askok defendatuko lukete, dudarik gabe, herrialde haietako animalia arrazoidunek, Adanen arrazakoak ez izaki, ez dutela Jesukristoren erredentzioan parterik; beste batzuek, apika, esango lukete ez dakigula aski ziur Adan existitu denentz, ez eta haren ondorengoekin gertatua; badira, izan ere, paradisua Ilargian kokatu izan duten teologoak²⁰⁸; eta agian soluziobide anitzen aurrean seguruen aukeratuko zen, hau da, zalantza gizaki horiek bataiatzea, (sub conditione) horretarako gai balira baldintzapean; hala eta guztiz, zalantzan jartzen dut inoiz Eliza Erromatarrean hauek apaizgora onartuak izatea, beren konsagrazioak beti izango bailira zalantza, eta jendea era horretan Eliza honen hipotesian idolatria materialaren arriskutan jartzea litzateke. Zorionez, gauzen izaerak eragozpen hauek guztietatik libratzen gaitu; halere, fikzio bitxi hauek badute espekulaziorako baliagarritasunik, gure ideien izaera ongi ezagutu ahal izateko.

(§ 23) FILALETES: Auzi teologikoetan ezezik beste hainbatean ere, batzuek arrazaren argudioaz baliatu nahi izango lukete agian, eta zera esan, alegia, animalietan ar eta emearen elkartze bidezko ugalketak eta landareetan hazi bidezkoak espezie erreal direlakoak beti mantentzen dituela ezberdin eta beren osotasunean. Baina horrela animalien eta landareen espezieak bakarrik finkatuko genituzke. Gainontzekoekin zer egin? Bestalde, horientzat ere ez litzateke aski, zeren historiari kasu egingo badiogu, zenbait emakume haurdun geratu da makakoen eraginez. Eta horra auzi berria: zein espezieetako da produktu hori? Sarritan ikusten ditugu mandoak eta astakoak, astoak eta behorak ernarazia lehena, zezenak eta behorak bigarrena (Ménageren²⁰⁹ hiztegi etimologikora jotzen badugu). Ikusi dut katuak eta arratoiak ernarazitako animalia eta bi piztion ezaugarriak zituen. Honi guztiari itxuragabeko ernariak gehitzen badizkiogu, ohartuko gara ez dela batere erraza ernalduratik abiatuz espeziea zehaztea; eta beste biderik ez balego, Indiara joan behar ote dut tigre baten aita-amak ikustera edota te landarearen hazia egiaztatzea, handik datozkigunen espezieak ziurtatzeko beste biderik ez balego bezala?

TEOFILO: Arraza edo jatorriak gutxienik presuntzio sendoa damaigu (esan nahi baita, behin-behineko froga) eta lehen ere esan dut sarritan gure susmoak aieruzkoak baino ez direla. Itxurak maiz gezurtatzen du arraza, umeak ez amaren eta ez aitaren antzik duenean, eta itxuren nahasketa ez da beti arrazen nahasketaren seinale; gerta baitaiteke eme batek beste espezie bateko dirudien animalia munduratzea eta amaren imajinario hutsa izatea irregulartasun honen eragile: aipatu ere ez dugu egingo mola delakoa²¹⁰. Baina nola behin-behinekoz arraza bidez espezieaz ebazten dugun, hala ebatziko dugu arrazaz ere, espeziea dela bide. Joan Kasimiro²¹¹ Poloniako erregeari hartz artean harrapatutako haur basati bat erakutsi ziotenean, piztien jokamoldeak eduki arren azkenik animalia arrazoidunaren ezaugarriak azaldu zituen, erregeak eskrupulurik gabe Adanen arrazakotzat hartu zuen haurra eta Jose izenaz bataiatu zuen, betiere, badaezpada, si baptizatus non es baldintzapean, Eliza Erromatarraren usadioari jarraiki, zeren bataio ostean berriro hartzen batek eraman baitzezakeen. Ez ditugu oraindik nahiko ongi ezagutzen animalien arteko nahasketen ondorioak zeintzuk izan daitezkeen: sarritan munstroak hazi beharrean desagertarazi egiten ditugu, luzaz biziko ez balira ere. Animalia hibridoak ez direla ugaltzen uste da; baina Estrabonen²¹² esanetan Kapadoziako mandoak ugaltzen dira, eta Txinatik idatzi didate auzoko Tartarian badirela arrazako mandoak: guk geuk ere egiaztatu dugu nolatan landare hibridoek espezie berriari eusten dioten. Ez da beti aise jakin ahal izaten animalietan arra eta emea, bietariko zein den, bata zein bestea den ala ez bata ez bestea, espeziea gehien zehazten duena. Kerkring defuntuak²¹³ hain sutsuki zabaldutako emakumeen arrautzen doktrinak gizonezkoen egitekoa murrizten zuen landareetan haize euritsuak duen eraginaren parera, honek ematen baitie haziei hazteko eta lurretik ernarazteko bide, Priszilianoren jarraitzaileek hain gustuko zituzten Virgilioren bertsoetan bezala:

Cum pater omnipotens foecundis imbris aether

Conjugis in laetae gremium descendit et omnes

*Magnus alit magno commistus corpore foetus.*²¹⁴

Labur esanda, hipotesi horren arabera, arrak ez luke euriak baino askoz gehiago egingo. Baina Leewenhoeck jaunak²¹⁵ bere balioa itzuli dio genero maskulinoari, beste sexua degradatuz, bide nabar, hazien ernalkuntzan lurra duen eginkizuna besterik ez baitio honi egozten, hots, lekua eta elikadura eskaini; eta hau gerta zitekeen arrautzen existentziari eutsiz ere. Hala eta guztiz, emakumearen irudimenak eragin handia dauka umegaiaren forman, arrak jadanik sortua izan bada ere animalia. Egoera horretan, izan ere, aldakuntza nabarmenak gertatu ohi dira eta arauz kanpokoak ere gerta daitezke. Diotenez, goi-mailako dama batek, elbarri bat ikustean zeharo hunkituta, laster jaiotzekoa zuen umegaiari eskua moztu omen zion irudimenez, eta esku hau gero umezorroan aurkitu omen zuten; egia denentz aztertzea merezi du honek. Norbaitek gura izan lezake, arima sexu batetik soilik etor daitekeen arren, bata eta besteak bi sexuek zerbait antolatua osotzea eta era horretan bi gorputzetatik bat sortaraztea; halatsu ikusten dugu nolatan sedarra animalia bikoitzaren antzekoa den, bere baitan intsektu hegalaria biltzen baitu beldar egiturapean: hartaraino gaude oraindik ere ilunpetan hain garrantzi handiko auzi honetan. Landareekiko analogiak, agian, noizbait argituko gaitu, baina gaur egun oso gutxi dakigu landareen beraien sorkuntzaz ere: arraren haziaren pareko polena jartzearen susmoa ez dago oraindik nahiko argi. Bestalde, landare atal batek sarritan ernaraz dezake landare berri osoa, eta horretan ez dugu animaliekiko inongo analogiarik ikusten; ezin esan dezakegu animalien hanka animalia bat denik, zuhaitz adaska bakoitza, aldiz, berekasa ugaltzeko gai bide den modura. Ezpezieen arteko gurutzatzeak, orobat, eta espezie berekoen mutazioak arrakastatsuak dira sarritan landareetan. Agian noizbait edota unibertsoan nonbait animalien espezieak gaur egun

gure artean direna baino aldagarriago izan ziren, dira ala izango dira, eta katuaren zerbait daukaten zenbait animalia, lehoia, tigrea edo katamotza kasu, arraza berekoak izan ziratekeen noizbait eta orain izan daitezke behinola katuen espeziea izandakoaren azpisail berriak. Berriro ere itzultzen naiz, horrela, hainbat aldiz esandakora, alegia, espezie fisikoen gure zehaztapenak behin-behinekoak direla eta gure ezagutzen araberakoak.

(§ 24) FILALETES: Espezieak sailkatzean gizakiek ez dituzte sekulan forma substantzialak kontuan hartu, salbu eta eskoletako hizkera ikasi dutenek; eta hau gu bizi garen lekuan soilik gertatu da mundu osoan.

TEOFILO: Azkenaldi honetan badirudi forma substantzialak izena bera zitala dela askorentzat, eta hartaz mintzatzeak lotsa ematen duela. Moda arazoa da agian, arrazoizkoa baino areago. Fenomeno partikularrak adierazterakoan eskolastikoek oker erabiltzen zuten nozio orokorra; baina akats honek ez du nozioa bera hondatzen. Giza arimak gure zenbait modernoren konfidantza lardaskatu egiten du apur bat. Batzuek aitortzen dute berau dela gizakiaren forma; baina aldi berean nahi dute natura ezagutuaren forma substantzial bakarra izan dadila. Horrela mintzo da Descartes, eta Regiusi²¹⁶ akatsa zuzenduz, honek arimaren forma substantzial koalitatea kritikatzan zuelako eta gizakiaren unum per se izakera, hots, zinezko batasunez hornitutako izakia zela ukatzen zuelako. Batzuen ustetan politikagatik egin du hori gizon bikain honek. Neure zalantzak ditut nik, horretan arrazoi zuela uste baitut. Baina ez zaio gizonari bakarrik aitortu behar pribilegio hau, natura zatika egina bailitzan. Arimen kopuruak ez daukala mugarik onartu behar dugu, edo orokorrago mintzatuz, jatorrizko entelekien kopuruak; hauek zerbait analogikoa baitute pertzepzioarekin eta grinarekin, eta denak dira eta betiko izango dira gorputzen forma substantzialak. Egia da espezie batzuk ez direla zinez unum per se (hau da, benetako batasunez hornitutako gorputzak, edota berauek printzipio eraginkor erabateko bilakatzen dituen izaki zatiezin batez), errota edota erlojua ere halakoak ezin izan diren moduan. Gatzek, mineralek eta metalek izan zezaketen halako eraketa, hots, erregularitasun maila bat eskaintzen duten egikera soil edo multzoak izan. Baina batzuen zein besteen gorputzak, hau da, arimadun gorputzak bezala bizigabeko eraketak ere barne-egiturak bereizten ditu, zeren arimadunetan ere, arima eta makina, bakoitza bere aldetik, aski baitira hura determinatzeko; biak bat datoz bete-betean, eta elkarrengana berehalako eraginik ez badute ere, elkar osatzen dute, lehenak batasun perfektuan biltzen baitu besteak aniztasunean barreiatu duena. Hartaz, espezieen sailkapenaz ari garelarik, alferrik eztabaidatzen dira forma substantzialak, nahiz eta beste zenbait arrazoiengatik jakingarri izan hauek ba ote diren eta nola; hori barik, arrotzak izango ginateke mundu intelektualean. Gainera, forma hauek mintzagai izan ziren grekoentzat eta arabeentzat, baita europarrentzat ere, eta arrunki haietaz mintzo ez bada, herri xehea ez da, halaber, mintzo algebrak, ez eta elkarneurgaitzez.

(§ 25) FILALETES: Hizkuntzak zientzien aurretik moldatu ziren eta herri xehe, ezjakinak gauzak murriztu egin ditu zenbait espezieetan.

TEOFILO: Egia da, baina gai hauen aztertzaileak nozio herrikoiak zuzenduz doaz. Ikertzaileek metalak bereizi eta banatzeko prozedura zehatzak aurkitu dituzte; botanikoek ikaragarri aberastu dute landareen doktrina, eta intsektuei buruz egindako esperientziek animalien ezagupide berriak urratu dizkigute. Halaz ere, oso urruti gaude oraindik geure ibilbide erditik.

(§ 26) FILALETES: Naturak eginak balira, espezieak ezin irudikatuko genituzke pertsona ezberdinok hain ezberdinki; gizakia oin biko eta atzazkal luzeko, luma gabeko animalia da batentzat; besteak, berriz, sakon aztertu ondoren, arrazoimena gehitzen dio. Askok bereizten dituzte animalien espezieak hauen kanpoko forman, ez jaiotzan, oinarriturik, behin baino gehiagotan izan baitira zalantzak ea zenbait giza foetus bataiorako gai

ziren ala ez, eta arrazoia hau besterik ez zen, alegia, euren kanpoko itxura ez zela ohiko haurrena; eredu ezberdinekoak arrazoimen bererako gai ote ziren jakin ezinezkoa zen, haien artean ere badira, izan ere, batzuk forma normalekoak izanda ere, bizitza osoan tximinoarena edo elefantearena baino arrazoimen gehiago erakutsiko ez dutenak, eta adimendun arimak gidatzen dituen zantzurik inoiz eskainiko ez dutenak: argi dago, beraz, kritikak baino jaso ez dituen kanpoko forma izan dela giza espeziearentzat esentziala, eta ez arrazoimena, inortxok ere ezin jakin baitezake honek noizbait huts egingo ote duen. Halakoetan teologo eta legelarik zuhurrenak euren definizio sakratuari uko egin beharrean aurkitzen dira, arrazoidun animalia aipatzen duen definizioari, alegia, eta giza espeziearen beste esentzia bat ezartzen dute haren ordeko. Ménagek deskribatzen digun (Menagiana, I. tomoa, 278 orrialdea, Holandan egindako argitalpena, 1694)²¹⁷ Saint-Martinen abade izandako baten adibideak aipamena merezi du. Berak dioenez, Saint-Martineko abade honek, mundura etorri zenean, giza itxurarik ez omen zuen ia, munstroa zirudien. Bataiatu ala ez, erabakitzeko denbora pasa behar izan zen. Bataiatu zuten azkenik eta gizaki deklaratu zuten behin-behinekoz, hau da, hura zer zen jakiterik ahal izan arte. Hain zori txarreko izan zen natura aldetik, bizi guztian deitu zioten Malotru abadea²¹⁸. Caengoa zen. Horra, forma soilagatik giza espezieetik kanporatze arriskuan egon zen haurraren kasua. Zen modukoa ozta-ozta salbatu zen, eta itxura traketsagoa izan balu giza maila ukatuko zitzaion betiko, eta gizakitzat hartu ezinean hil egingo zuten. Ezin dugu, baina, arrazoirik eman zergatik ezin izan zitekeen haren baitan arima arrazoidunik aurpegiera itsusiagoa izanda ere: aurpegi luzeagoak, sudur zapalagoak, aho zartatuagoak zergatik ezin eutsi zioten, gainontzeko itxura traketsak bezainbeste, gizon hura, elbarri izanagatik ere, Elizan apaiz duintasunerako gai egin zuten arimari eta koalitatei.

TEOFILO: Ez dugu orain arte aurkitu kanpo-itxuraz gugandik oso ezberdina den animalia arrazoidunik; horregatik, haurra bataiatzerakoan arraza eta itxura zantzu gisa erabili izan ditugu soilik, ea animalia arrazoiduna zen ala ez erabakitzeko. Teologoek eta legelariak horrela ez dute uko egin beharrik izan beren definizio klasikoari.

(§ 27) FILALETES: Baina Licetusek²¹⁹ aipatzen duen munstroa (I. liburua, 3. atala), gizakiaren burua eta txerriaren soina zuena, edota txakur, zaldi etabarren buruak giza soinari lotuak zituzten beste hainbat munstro bizirik utzi balituzte eta hizketarako gai zirela erakutsi balute, arazoa askoz handiagoa zatekeen.

TEOFILO: Hala aitortzen dut neuk ere, eta horrelakorik gertatuko balitz, edota norbaitek egingo balu harako antzinako fraile idazle hark bezala, izenez Hans Kalb (Joan Zekorra), zeinak berak idatzitako liburu batean bere erretratua egiten duen, eskuan luma eta zekor buruaz, eta honek sinestarazi zion zenbait jenderi era bitxian idazle honek benetan izan zuela zekor-burua; halakorik gertatuko balitz, diot nik, aurrerakoan ez ginateke munstroengandik aise libratuko. Zeren, itxuraz, arrazoia gailenduko bailitz teologo eta legelariengan, itxura gora-behera eta anatomiak medikuei hornituko lizkiekeen bereizkuntzak gora-behera; nire ezagun batzuek Parisen ikusitako giza erraien aldaketak bezain gutxi ukituko bailio honek giza izaerari; sona handikoa izan zen hura; bertan naturak,

Gibela kokatu zuen ezkerraldean,

Eta alderantzizko bide beretik

Bihotza eskuinean",

Hauek dira, oker ez banago, Alliot aita zenak²²⁰ (minbizien tratamendurako trebeziagatik ospea bereganatu zuen medikuak) mirari hari buruz idatzi eta erakutsi zizkidan bertsuak. Hau guztia gertatuko bide da animalia arrazoidunengan

konformazioaren ezberdintasuna urrunegi ez doan neurrian, non eta piztiak mintzo ziren garaietara itzultzen ez garen, zeren kasu horretan galdu egingo baikenuke arrazoiaren hobekuntza gainean eraiki dugun pribilegioa, eta gehiago erreparatuko genioke harrezkero jaiotzeari eta kanpokoari, bereizi ahal izateko Adanen arrazakoak edozein afrikar tximino-kantoiko errege edo patriarkagandik datozkeenetatik; eta gure idazle trebea zuzen zegoen zera esatean (§ 29), alegia, Balaamen asta-emeak bizitza osoan pentsatu izan balu, jabearekin behingo hartan bezain zuhur²²¹ (ikuskitzen profetikoa baino izan ez bazen), hala eta guztiz nekez lortuko zukeela emakumeen artean onarpen-maila eta toki.

FILALETES: Barregarri deritzazu, nonbait, eta idazlea ere txantxetan ibiliko zen, agian; baina seriooki mintzatuz, ikusten duzu nolatan ezin zaien beti muga finkoak ezarri espezieei.

TEOFILO: Hala dela aitortu dizut; izan ere, itxurak eta gauzen posibilitateei gagozkielarik, espezieetik espeziera urratsak somagaitzak gerta daitezke, eta ebatzea batzuetan hain zaila izanen litzateke, nola korapilatsua den jakitea gutxi gora-behera zenbat ile utzi behar dizkiogun gizakiari berau burusoil izan ez dadin. Indeterminazio hau egiazkoa litzateke kreatura horien barne-eraketa ezin hobe ezagutuz gero ere. Ez dut, baina, ikusten nola eragotzi diezaiekeen honek gauzei esentzia errealak edukitzea adimenarekiko menpetasunik gabe, eta guri hauek ezagutzea: izenak eta espezieen arteko mugak batzuetan neurri eta pisuen izenak modukoak izanen lirateke, eta hauen artean aukerak egin behar dira muga finkoak zedarritzeko. Halere, ez dugu zertan ikaratu, gertu-gertuko espezieak nekez aurki baitaitezke elkarrekin.

(§ 28) FILALETES: Badirudi hemen funtsean bat gatozela, gure hitzak apur bat aldatu baditugu ere. Neure aldetik aitortzen dizut substantzien izendapenean hautazko gutxiago dagoela modu konposatuen izenetan baino. Ez baitugu lotzen ohi ardiaren bee hotsa zaldi irudiarekin, ez eta berunaren kolorea urrearen pisu eta trinkotasunarekin; nahiago izaten dugu naturatik kopiak ateratzea.

TEOFILO: Eta hori ez da substantzieiako existitzen dena soilik kontuan hartzen dugulako, baizik eta ziur ez gaudelako ideia fisikoetan (sakonean nekez ulertuak berauek) konbinaketak ahalgarri eta baliagarri direnentz, oraingo existentzia bermetzat ez daukagunean. Baina gauza bera gertatzen da moduekin, berauen ilunean ulertezinak zaizkigunean ezezik, batzuetan fisikan gertatzen dena, argigaitzak direnean ere, eta honen adibide nahiko aurkitzen dugu geometrian. Batean zein bestean, zientzia hauetan, ez dago gure esku konbinaketak egiten hastea fantasiaren arabera; hala balitz, eskubide osoz mintzatuko ginatke dekaedro erregularrez, edota zirkuluerdian handitasun zentroaren bila hasiko ginatke, grabitate zentroa ere badagoela-eta. Harrigarria da, izan ere, bata existitzea eta bestea ez. Dena den, moduen kasuan konbinaketak ez direlarik beti arbitrarioak, substantzietan, alderantziz, batzuetan halakoxeak dira: eta gure esku dago sarritan koalitateak konbinatzea izaki substantzial berriak esperimintatu aurretik definitzeko, konbinatze posibilitatea aurreikusteko bezain ongi ulertzen ditugunean koalitate horiek. Landare zitrikoetan jakitun diren lorazainak arrazoiz eta arrakastaz saia daitezke espezie berri baten produkzioan eta beroni aurrez izena eman.

(§ 29) FILALETES: Beti onartuko didazu espezieak definitzerakoan konbinatzen diren ideien kopurua konbinatzailearen asmo, trebezia edo fantasia ezberdinaren araberakoa izango dela; landareen eta animalien espeziea zehazteko gehienetan irudiari erreparatzen diogun moduan, hazi bidez ekoiztuak ez diren gorputz natural gehienek kasuan koloreari begiratzen zaio batik bat. (§ 30) Egiaz, sarritan burutapen nahasi, baldar eta okerrak baino ez dira, eta espezie edo izen zehatz bati dagokion ideia sinpleen kopurua zehazterakoan halabeharrezko izaten da gizakiak bat etortzea, zeren etengabe lotuta dauden ideia sinpleak aurkitzeko beta, ahalegina eta trebezia ezinbestekoak

baitira. Hala eta guztiz, definizio oker hauek osatzen dituzten koalitate gutxi batzuk aski ditugu gure solasaldi arruntetan: eta genero eta espezieen iskanbila gora-behera, eskolek hainbat aipatzen dituzten formak ameskeria hutsak baino ez dira, eta ez digute deus laguntzen natura espezifikoaren ezagutzan abiatzerakoan.

TEOFILO: Konbinaketa ahalgarri bat egiten duen edonor ez dabil horretan oker, ez eta horri izen ematean ere; oker dabil, ordea, berak bururatu duen hura beste jakintsuago batzuek izen berarekin edo gorputz berean bururatu duten gauza bera dela pentsatzean. Genero arruntegi bat bururatzen du, agian, espezifikoago baten ordeztu. Honetan guztian ez dago deus eskolen kontrako, eta ez dakit zergatik oldartzen zaren hemen behin eta berriz generoen, espezieen eta formen kontra, zeren zeuk zerorrek ere halabeharrez arakatu beharko baitituzu generoak, espezieak eta barne-esentzia edo formak ere, hauek gauzaren natura espezifikoaren ezagutzeko erabiliak ez diren arren, oraindik ezezaguntzat hartzen baititugu.

(§ 30) FILALETES: Argi dago, bederen, guk espezieei ezartzen dizkiegun mugak ez datozela zehazki ados naturak ezarri dituenekin. Zeren jadanik erabiltzeko behar ditugun izen orokorren premian, ez gara ahalegintzen berauen koalitateak aztertzen, nahiz eta hauen bidez hobeto ezagutuko genituzkeen euren berezitasunak eta antzekotasunik esentzialenak: guk geuk, beraz, sailkatzen ditugu espezieak, edonork errepara ditzakeen itxuren eraginez, eta horrela errazago komunikatzen dugu elkar.

TEOFILO: Ideia bateragarriak konbinatzen baditugu, espezieei ezartzen dizkiegun mugak beti datoz zehazki ados naturarekin; eta orain elkarrekin dauden ideiak konbinatzen saiatzen bagara, gure nozioek esperientziaren arabera izaten jarraituko dute; eta behin-behinekoak soilik kontsideratzen baditugu, gorputz efektiboak dagokienean, salbu eta egindako esperientziak ala eginkizun denak gehiago deskubritzen duen, eta jakitunengana jotzen badugu izen honek arrunki aditzera ematen duen gai zehatz baten inguruan ari garenean, ez gara oker ibiliko. Horrela, naturak eskain ditzake ideia perfektuagoak eta erosoagoak, baina ez ditu dauzkagunak gezurtatuko, hauek ere onak eta naturalak baitira, onenak eta naturalenak ez diren arren.

(§ 32) FILALETES: Substantziei buruzko gure ideia generikoak, metalarena kasu, ez datoz erabat ados naturak proposatzen dizkien ereduarekin, bere baitan xaflakortasuna eta galdagarritasuna beste koaliterik gabe biltzen dituen gorputzik ezin baita inon ere aurkitu.

TEOFILO: Horrelako ereduak ez ditu inorrek eskatzen eta ez dago horretarako arrazoirik, ez baitira hauek aurkitzen ez eta noziorik bereizienetan ere. Multzoa oro har eta deus besterik nabarmentzen ez duen kopururik ez da inoiz aurkituko; ez eta hedadura besterik ez duen hedaturarik, edota solidotasunaz gain beste koaliterik ez daukan gorputzik: berezitasun espezifikoak positiboak eta kontrakoak direnean, batu egin behar ditu generoak eta haiekin parte hartu.

FILALETES: Gizakia, zaldia, animalia, landarea, etab., naturak gauzatutako esentzia errealek bereizten direla uste duenak natura esentzia errealetan guztiz eskuzabal irudikatu beharko du, gorputzarentzat bat ekoizten baitu, bestea animaliaarentzat eta bestea zaldiaarentzat, eta esentzia hauen guztien berri emango dio oparotsu Buzefalori; generoak eta espezieak, aldiz, gehiago ala gutxiago hedatu diren ikurrak baino ez dira.

TEOFILO: Esentzia errealek eredu substantzialtzat hartzen badituzue, hots, gorputza eta besterik ez, animalia eta beste ezer espezifikorik ez, banakako koaliterik gabeko zaldia, hauek kimeratzat hartzean zuzen zaudete. Nire ustez inork ere ez du nahi izan, ez eta behinolako errealarik handienek ere, generoak bezainbat substantzia generiko huts izatea. Ez du, baina, honek esan nahi, esentzia orokorrak hori ez izaki, ikur huts izatera murriztuko ditugunik; behin baino gehiagotan adierazi dizuet, izan ere, antzekotasunezko posibilitateak direla. Era berean, koloreak beti substantziak edo tindu

kengarriak ez izatetik ezin atera daiteke ondoriotzat haiek ustezkoak direnik. Gainera, inork ezin lezake natura eskuzabalegia irudikatu; asma dezakegun oro gaintitzen du, eta posibilitate bateragarri guztiak gauzatuak aurkitzen dira bere emankizunen antzoki zabalean. Garai bateko filosofoen artean bi axioma zeuden: bata, errealdistenak, natura eskuzabal aurkeztu nahi zuela zirudien, nominalistenak, aldiz, zikoitza deklaratzeko natura. Batzuen esanetan, naturak ez du hutsunerik onartzen, besteenetan, ez du deus alferrik egiten. Bata zein bestea, axioma biak dira onak, ondo ulertuz gero; zeren natura ugazaba jatorra bezala baita, behar denean aurrezten dakiena, gero tenore eta leku egokian eskuzabal izateko. Ondorioetan bikain da eta erabiltzen dituen kausetan zuhur.

(§ 34) FILALETES: Esentzia errealei buruzko auzian gehiegi nahastu gabe, aski dugu hizkuntzaren helburua zein den eta hitzak nola erabili jakitera iristea, hots, nolatan gure pentsamenduak labur adierazi. Mintzo nahi izanen banintz txori espezie batez, hiru-lau oin altuerakoak, luma eta ilearen bitarteko zerbaitez estalita daudenak, marroi ilunak, hegaliak gabeak, hegaleen ordeztatzaren antzeko bizpahiru adaskezt hornituak, soinean behera zango luze lodietara jaisten direnak, hiru atzapar soilezko oinez hornituak eta isatsik gabeak, deskribapen luze hau egin beharrean nago besteek uler nazaten. Baina animalia horren izena cassiowaris dela jakin dudanetik, izen horretaz balia naiteke mintzaldian zehar ideia konposatu hori izendatzeko.

TEOFILO: Gerta daiteke azalaren estalki moduan ideia zehatza edo beste atalen batena berez aski izatea animalia hori beste edozein ezagunetik bereizteko, berak egindako pausuz Herkules ezagutarazten zen moduan, edota lehoia apoaz ezagutzen den moduan, esaera latinoak dioenez. Baina zirkunstantziak ugaltzen diren neurrian definizioa behin-behinekotasuna galduz doa.

(§ 35) FILALETES: Kasu honetan ideia murriztu dezakegu, gauzari kalterik egin gabe: baina naturak murriztarazten duenean espezieak irautea arazo bihurtzen da. Adibidez: gorputz bat existituko balitz, errearen koalitate guztiak dituen, xaflakortasuna salbu, urre izango zen? Erabakia gizakien esku dago. Berauek zehazten dituzte, beraz, gauzen espezieak.

TEOFILO: Inola ere ez. Izena da horiek zehazten duten bakarra. Esperientzia horrek erakutsiko liguke, xaflakortasunak ez duela ezinbesteko loturarik errearen beste koalitateekin, hauek bat eginik. Posibilitate berri bat erakutsiko liguke horrek eta, ondorioz, espezie berria. Urre ez-malgu edo hauskorrari dagokionez, zikinkerien arabera izan ohi da, eta errearen gainontzeko frogan aurrean ez dauka indarrik; arragoak eta antimonioak kentzen diote xaflakortasunik eza.

(§ 36) FILALETES: Gure doktrinatik atera daiteke bitxi itxurako zerbait, alegia, izenen bat daukan ideia abstraktu orok espezie berezia osatzen duela. Eta zer egin, naturak hala nahi badu? Gustatuko litzaidake jakitea altzo-txakurra eta erbi-txakurra zergatik ez diren ehiza-txakurra eta elefantea bezain espezie ezberdinak.

TEOFILO: Espezie hitzaren esanahi ezberdinak gorago utzi ditut zehaztuta. Logikoki hartuz gero, edo matematikoki hobeto, alderik ñimiñoena aski litzateke. Horrela, ideia ezberdin bakoitzak espezie berria emango luke eta izenik duen ala ez, ez dio axolarik. Baina fisikoki mintzo garelarik, ez diegu inoiz aldaera guztiei erreparatzen, eta mintzo ohi gara batzuetan argi, itxurez soilik ari garenean, eta bestetan aieruz, gauzen barne-egiaz ari garenean; kasu honetan natura esentzial eta aldaezinen bat gainulertzen dugu, hala nola arrazoa gizakiarengan. Beraz, pentsatzen dugu aldakuntza akzidentalez soilik bereizten dena, ura eta izotza kasu, edota zilarbizi arrunta eta sublimatua, espezie bat berekoa dela; eta gorputz organikoetan espezie bereko ezaugarri behin-behinekoa belaunaldian edo arrazan ezarri ohi da, antzekoetan ugalketan ezartzen den moduan. Egia da ezinezkoa zaigula zehaztasunez ebatzea, gauzen mamia ezagutzen ez dugulako; baina behin baino gehiagotan esan dudanez, behin-behingo ezabaten dugu eta sarritan

aierutan oinarriturik. Hala ere, kanpokoaz soilik ihardun nahi dugunean, deus segururik ezin esanaren beldur garenean, esparru zabala dugu: orduan, halako berezitasuna espezifikoa den ala ez eztabaidatzea, izenaz eztabaidatzea da; eta zentzu honetan hain dira handiak txakurren artean dauden ezberdintasunak, ezen baieztatu baitaiteke Ingalaterrako ardi-txakurrak eta Boloniako txakurrak espezie ezberdinetakoak direla. Ez da, halere, ezinezkoa biak arraza bereko edo urrunetik antzekoak izatea, eta aurkitu ere aurkituko genuke arras gora jotzerik izango bagenu eta arbasoak antzekoak edo beraiek zirela kaustuz; eta aldakuntzen poderioz, batzuk oso handiak bilakatu dira, besteak berriz txiki-txikiak. Arrazoiari uko egin gabe sines daiteke, halaber, barne-natura komuna dutela haiek, iraunkorra, espezifikoa, birzaitua ez dagoena edota horrelako beste naturetan hemen aurkitzen ez dena eta, beraz, akzidente bidez baino alda ezin daitekeena; nahiz eta ezerk ere ez garamatzen pentsatzera horrek derrigorrez hala iraun behar duela guk espezierik baxuena (speciem infimam) deritzogun horretan. Ez dago, baina, ehiza-txakurra eta elefantea arraza berekoak izan daitezkeen inongo susmorik, ez eta natura espezifikoa komuna eduki dezaketenik. Horrela, txakur mota ezberdinez eta hauen itxurez ari garelarik, espezieak bereiz ditzakegu eta barne-esentziaz ari garelarik, erka ditzakegu; baina txakurra eta elefantea alderatzean, ez dago haiei ezartzerik, ez kanpotik, ez barnetik, espezie bereko agertaraziko dituen deusik. Ez dago, beraz, arrazoirik presuntzioaren aurkako inongo zalantzarik izateko. Gizakien artean ere bereiz daitezke espezieak ikuspuntu logikotik, eta azalean geratuz gero, fisikoki ere aurkituko genituzke espezifikotzat har daitezkeen berezitasunak. Bidaiariren bat izan da uste izan duena, beltzak, txinarrak eta amerikarrak ez zirela elkarren artean arraza berekoak, ez eta gure antzeko herriekiko ere. Baina gizakiaren barne esentziala, hots arrazoia, beti gizaki berarengan dirauena eta guztiengan dagoena ezagutzen dugunetik, eta erreparatzen dugunetik deus ez dagoela finkorik eta guretzat barnekoirik zatika daitekeenik, ez daukagu inongo susmorik gizakien artean ezberdintasun esentzial espezifikorik dagokeenik pentsatzeko barneko egiaren arabera; gizakien eta piztien artean, aldiz, piztiak enpirikoak baino ez izaki, lehen ere azaldu dudanez aurkitzen dira ezberdintasunak, eta esperientziak ez digu besterik pentsatzeko bide ematen.

(§ 39) FILALETES: Barne-egitura ezaguneko gauza artifizial bat hartuko dugu adibide gisa. Orduak markatu baino egiten ez duen erlojua eta orduak jotzen dituen errepika-ordularia deritzona espezie bat berekoak dira, hura izendatzeko izen bakarria erabili ohi dutenentzat; baina lehenari esku-erloju eta besteari horma-erloju deritzonarentzat²²² espezie ezberdinekoak dira. Izenak egiten du espeziea, ez barne-eraketak, hala ez balitz gehiegi bailirateke espezieak. Badira lau eta bost gurpileko erlojuak; kordadunak dira batzuk eta gurpil kiribilak dituzte, beste batzuek ez; batzuen dindil edo zintzilikaria librea da, beste batzuen giltz batek kiribilean eragina, beste batzuek basurde-zurdaz; hauetariko edozein ezberdintasun aski al da berezitasun espezifikoa osatzeko? Ezetz diot nik, erloju hauek guztiak izen bat bera duten bitartean.

TEOFILO: Nik baietz esango nuke bada, zeren izenetan geratu barik gailuaren aldaerei erreparatuko bainieke, batik bat zintzilikarioen ezeberdintasunari. Bibrazioak berearekin moldatzen dituen gailua erantsiz berdindu diren sakel-erlojuak itxuraz aldatu dira eta askoz ere zehatzagoak ditugu. Lehendik nonbait azaldua dut esku-erlojuei aplikagarri zaien beste berdintasun printzipio bat.

FILALETES: Barne-antolaketan ezagutzen dituen berezitasunetan oinarriturik, inork bereizketak egin nahi izango balitu, egin bitza; ez lirateke, baina, espezie ezberdinak izango eraketa hori ezagutzen ez dutenentzat.

TEOFILO: Ez dakit zergatik ezarri nahi dituzun beti bertuteak, egiak eta espezieak gure irizpide edo ezagutzapean. Hauek naturan daude, guk ezagutu eta ontzat eman ala ez. Beste nolabait esanda, gauzen izena eta ohiko lengoaia inongo arrazoirik gabe aldatzea

litzateke. Orain arte ere gizakiek beti sinetsi izan dute zenbait espezieetako horma-erlojuak eta esku-erlojuak daudela, espezie hauek zertan dautzan eta nola izenda ditzakegun jakin beharrik sentitu gabe.

FILALETES: Zuk, halere, duela gutxi aitortu duzu, espezie fisikoak itxura bidez bereizi nahi ditugunean, arbitrarioki moldatzen garela edota horretarakoxe bidea apropos aurkitzen dugula, alegia, zenbateko ezberdintasuna aurkitzen den eta zein helbururekin gabiltzan. Eta zeuk zerorrek aipatu duzu pisu eta neurrien erkaketa, gizakiak bere gustura arautzen baititu hauek eta izenak ematen dizkie.

TEOFILO: Aspaldiko partez orain hasi natzaizu ulertzen. Berezitasun espezifikoko logiko hutsen artean, honi ezarri dakioken definizio aldaketarik akzidentalena aski baita, eta berezitasun espezifikoko fisiko hutsen artean, esentzialean edo aldaezinean oinarrituak hauek, bien artekoa ezar daiteke baina berau nola zehaztu ez dakigu; itxurarik nabarmenen inguruan moldatzen gara, hauek erabat aldaezinak barik nekez aldatzekoak direlarik, esentzialetik bata bestea baino hurbilago. Eta ezagutzaile bat bestea baino areago joan daitekeenez, gauzak araugabekoa dirudi eta badu zerikusirik gizakiekin, eta erosoena da, antza, izenak ere berezitasun nagusi horien arabera egokitzea. Esan dezakegu, beraz, herri-alorreko berezitasun espezifikokoak direla edota espezie nominalak, berezitasun espezifikoko logikoetan eta fisikoetan aurkitzen direnak, oraintsu definizio nominalak izendatu ditudanekin nahastu gabe. Bestalde, erabilera arruntaz gain, legeek ere zilegi egin ditzakete hitzen esanahiak eta orduan espezieak legezko bilakatzen dira, hala nola nominati deritzen izen partikular batek sinatutako kontratuetan. Edota begira nola lege erromatarrek pubertate aroa 14 urte kunplutuetan ezartzen duen. Oharpide hauek guztiak gutxietsi gabe, ez diet honako probetxu handirik ikusten, zeren besterik ezean inoiz aplikatzen ikusi banauzu ere, ondorioa gutxi gora-behera bertsua izango da gizakien eskuetan uzten badugu azpizatiketak nahi duteneraino luzatzea eta ondorengo berezitasunen abstrakzioa egitea, berauek inondik ere ukatu beharrik gabe: eta gizakiei dagokie, halaber, egiazkoa hautatzea zalantzazkoaren ordeztu, izenak ezarriz, zenbait nozio eta neurri finkatzeko.

FILALETES: Pozik nago puntu honetan zirudiena bezain elkarrengandik urruti ez gaudelako. (§ 41) Ikusten dudana, jauna, onartuko didazu gauza artifizialek badituztela espezieak, naturalek dauzkaten moduan, zenbait filosofok kontrakoa uste duen arren. (§ 42) Baina substantzien izenei buruzkoa utzi aurretik zera erantsi nahi dut, alegia, dauzkagun ideia mota guztien artean substantzienak direla izen propio eta banakakoa duten bakarrak; gutxitan gertatzen da, izan ere, gizakiek sarri aipatu behar izana banakako koaliteren bat edota akzidentezko beste banakoren batena: banakako ekintzak, gainera, desagertzen lehenak dira eta bertan gertatzen den gora-beheren konbinaketak ez dirau, substantzien baitan, aldiz, bai.

TEOFILO: Batzuetan, halere, izena eman diogun banakako akzidenteren baten oroitzapena behar izaten da; beraz, zure arauak ohiko kasuetan balio du baina baditu salbuespenak. Erlijio inguruan, adibidez, badira zenbait; urtero ospatzen dugunez Jesukristoren Jaiotzearen oroitzapena, grekoek gertakizun honi Theogonia deitzen zioten, eta Erregeen Gurtzeari Epiphania. Hebraitarrek berehaldiko Passah deitu zioten aingeruaren pasaerari, egiptoarren lehen-semeak hil eta hebraitarrenak ukitu gabe utzi zituenekoa; hau ospatu behar zuten solemneki urtero. Gauza artifizialen espezieei dagokienez, filosofo eskolastikoek trabak ipini dizkiete euren predikamentuetan sartzen uzteko: baina gehiegizkoa zen haien sentiberatasuna, taula predikamental hauek gure ideien azteraldi orokorra egiteko baitziren. Ongi dago, halere, egiaztatzea substantzia perfektuen eta substantzien mihiztaketen (agregata) arteko ezberdintasuna, hauek izaki substantzial konposatuak baitira, batzuetan naturaren poderioz, besteetan gizakien artifizioz. Naturak ere baditu, izan ere, horrelako mihiztaketak, hala nola gorputzak, hauen nahasketa akastuna baita gure filosofoen hizkeran

(imperfecte mixta), hots, ez dutela unum per se²²³ osatzen eta ez daukatela euren baitan batasun perfektua. Gainera, nire ustez, elementuak deritzen lau gorputzak, bakuntzat hartu ohi direnak, eta gatzak, metalak eta perfektuki nahasiak omen diren gainerako gorputzak, temperamentuz jantzi ohi zaienak, hauek ere ez dira unum per se, are eta pentsatu beharko genuke uniforme eta antzekoak itxuraz baino ez direla, eta halako gorputza ere pilaketa litzateke. Labur esanda, gorputz arimadunentzat edota jatorrizko entelekiak hornituentzat gorde behar dugu batasun perfektua; entelekia hauek arimekiko analogia baitaukate eta haiek bezain zatiezin eta hilgaitzak baitira: beste nonbait zehaztu dut haien gorputz organikoak egiazko makinak direla eta makina hauek guk sortutako artifizialak gainditzen dituztela, naturalen sortzaileak gu gainditzen gaituen bezainbeste. Naturako makina hauek arimak beraiek bezain hilgaitzak dira, eta arimadun animaliak betiko dirau. Adibide bat erabiliko dut hobeto adierazteko, barregarri bada ere: Arlekinekin bezala gertatzen da; antzerkian biluztu egin nahi zuten baina inola ere ezin erdietsi, soinean bata bestearen gainean auskalo zenbat jantzi zituelako. Nahiz eta animaliairen baitan gorputz organikoen errepikapen infinituak ez izan jantziak bezain antzeko eta bata bestearen gainean hain egoki tolestuak, naturaren amarrua askoz ere sotilagoa da. Horrek guztiak erakusten digu filosofoak ez daudela hain oker gauza artifizialen artean eta benetako batasunaz hornitutako gorputz naturalen artean alde hain zabala ezartzean. Gure garaiari, ez besteri, tokatu zaio misterio hau argitzea eta beronen garrantzia eta ondorioak jakinaraztea, teologia naturala eta pneumatika deritzona ongi finkatzeko era zinez naturalean, guk esperimendatu eta uler dezakegunaren arabera; haiek eskaini behar dizkiguten garrantzizko gogoetetatik deus galtzera eramane gabe, ugal ditzatela harmonia aurrezarriak egin ohi duen moduan. Sinetsita nago izenei eta substantziei buruzko eztabaida luze honi amaiera emateko ez dagoela bide egokiagorik.

VII

Partikulak

(§ 1) FILALETES: Ideiak izendatzeko balio diguten hitzez gain, ideien arteko lotura edo proposizioak adierazten dizkigutenak ere behar ditugu. Hau da, hau ez da, ikur orokorrak dira baieztapenerako edota ezeztapenerako. Izpirituak, ordea, proposizioen atalez gain, esaldi edo proposizio osoak lotzen ditu (§ 2) baieztapen eta ezeztapen ezberdinen arteko lotura hau azaltzen duten hitzak erabiliz, partikulak deritzegunak, alegia; hauek zuzen erabiltzean datza nagusiki ongi mintzatzearen artea. Argudioak metodikoak eta jarraiak izan daitezten hitzek adierazi behar dute lotura, mugapena, bereizketa, aurkakotasuna, enfasia, etab. Hauek gutxiestea entzulearen eragozpenerako izaten da,

TEOFILO: Aitortzen dut partikulak oso erabilkorak direla; ez dakit, baina, ongi mintzatzearen artea beroietan ote datzan nagusiki. Norbaitek aforismoak edo tesi isolatuak baino esango ez balitu, unibertsitateetan sarri gertatu ohi denez edo legelariak libelu artikulatua deritzoten horretan, edota lekukoei adierazten zaizkien artikuluetan, orduan, proposizio hauek ongi ordenatuak badaude, ulertua izateko lortu dena, partikulak eta lotura ezarriz lortuko genukeenaren antzekoa izanen da gutxi gora-behera; irakurleak betetzen ditu hutsuneak. Esan behar dut, gainera, partikulak oker kokatzeak nahasten duela irakurlea, partikularik ezak baino gehiago. Uste dut, halaber, partikulek lotzen dituztela proposizioz osatutako diskurtsoaren atalak eta ideiez osatutako proposizioaren atalak ezezik, beste ideien konbinazioz era askotara osatutako ideiairen atalak ere. Preposizioek adierazten dute lotura mota hau, adberbioek, oster, eragina dute aditzaren baitan dagoen baieztapen zein ezeztapenean; eta konjuntzioak baieztapen eta ezeztapen ezberdinen arteko loturan. Zalantzarik ez dut, ordea, zu zeu ere horretaz jabetu zarela, zure hitzek besterik aditzera eman arren.

(§ 3) FILALETES: Partikulei buruzko gramatikaren atala baino landuagoa dago kasuak, generoak, moduak, denborak, gerundioak eta supinoak hurrenkera honetan eskaintzen

dituena. Egia da hizkuntza batzuetan partikulek euren lekua lortu dutela sailkapenean azpizatiketa bereizien bidez, eta itxuraz zehaztasun handikoak direla. Baina ez da aski katalogoak aztertzea. Norbere pentsamenduetan hausnartu behar da, izpirituak diskurtsoan hartzen dituen formak ohartemateko, partikulak izpirituaren ekintzaren ikurrak baino ez dira eta.

TEOFILO: Egia da partikulen doktrina garrantzi handikoa dela, eta xehetasunez aztertzea gustatuko litzaidake; adimenaren forma ezberdinak ezagutzeko hori baino bide egokiagorik ez dago. Generoek ez dute zereginik gramatika filosofikoan, baina kasuak preposizioen ondorio dira eta sarritan preposizioa izenaren baitan estalita dago, bertan absorbitua baileuden, eta aditz-flexioetan ezkutaturik aurkitzen ditugu beste zenbait partikula.

(§ 4) FILALETES: Partikulak behar bezala azaltzeko ez da aski hauek beste hizkuntzetan antzekoen dituzten hitzekin erlazionatzea (hiztegiek egin ohi dutena), esanahi zehatza ulertzea hain nekeza baita hizkuntza batean nola bestean; gainera, hizkuntza bitako hitz hurbilen esanahiak ez dira beti zehazki berak, eta hizkuntza bat berean ere aldatzen dira. Gogoan dut hebraieran letra bakarreko partikula bat dagoela berrogeita hamarretik gora esanahi dituena.

TEOFILO: Badira gizon jakitsuak latinezko, grekerazko eta hebraierazko partikulei buruz lan bereziak idatzi dituztenak; eta Strauchius legelari ospetsuak²²⁴ liburu bat idatzi du jurisprudentzia alorrean partikulen erabilerari buruz, hemen esanahiaren ondorioak ez baitira edonolakoak. Sarritan gertatu ohi da, ordea, adibide eta sinonimo bidez azaldu nahi izaten dela, eta ez nozio zehatzen bidez. Gertatzen da, halaber, ezin aurkitu izatea beti adibide guztietarako baliagarri den esanahi orokor edo formala, Bohlius zenduaren hitzetan²²⁵; hori gora-behera, murriz genitzake beti hitz baten erabilera guztiak esanahi kopuru zehatz batera. Eta hauxe da, hain zuzen, egin behar dena.

(§ 5) FILALETES: Halaxe da esanahien kopurua partikulena baino askoz handiagoa da. Ingeleseztik partikulak esanahi arraz ezberdinak ditu: zera diodanean: but to say no more, hots: , partikula horrek hau adieraziko bailuen, alegia, izpirituak gelditu egiten dela ibilbidia amaitu aurretik. Baina beste hau esatean: I saw but two planets, hots: , esan nahi duenaren xedea bere hitzetara mugatzen du izpirituak, gainontzeko edozer baztertuz. Eta zera diodanean: You pray, but it is not that God would bring you to the true religion, but that he would confirme you in your own, hots: , hauetariko lehen but edo baina partikulak izpirituaren susmoa adierazten du, behar ez litzatekeen zerbaiten susmoa, alegia; bigarrenak, aldiz, erakusten digu izpirituak buruz buru kontrajartzen dituela ondoren datorrena eta aurrean esandakoa. All animals have sense, but a dog is an animal, hots: . Hemen partikulak lehen eta bigarren esakunen lotura adierazten du.

TEOFILO: Frantsesezko mais egokitzen zaio kasu guztietan, bigarrenetan izan ezik; baina alemanierazko alein, partikulatzat hartua eta nolabait frantsesezko mais eta seulement biltzen dituena, baliagarri zaigu zalantzarik gabe but partikularen ordezkua egiteko kasu guztietan, azkenean salbu, hemen eztabaidagarri gertatzen baita. Alemanieraz mais batzuetan aber esaten da, besteetan sondern; hitz honek banaketa edo bereizketa adierazten du, alein partikulatik oso gertu. Partikulak ongi esplikatzeke hemen egin dugun azalpen abstraktua ez da aski; perifrasi bat aurkitu behar dugu partikularen ordezkua, definizioa definituaren lekuan ezar daitekeen moduan. Partikula guztietarako ordezkua perifrasi hauek, onargarri diren heinean, aurkitzen eta zehazten saia gaitezenean, orduan arauetuko ditugu esanahiak. Aurreko lau adibideak izango ditugu berriro aztergai. Lehenengoan esan nahi izan da: ; bigarrenetan: ; hirugarrenean: ; laugarrenean esan daiteke, . Adibide hauek guztiek mugak markatzen dizkigute, non plus ultra delakoa, gauzetan zein diskurtsoan. But hitzak amaiera edo helmuga ere

adierazten du, honela mintzo garenean, adibidez: . But, bute, zerbait finkoa, geldiunea esan nahi duen hitz teutoniko zaharra da. Beuten oraindik ere eliz abestietan aurki daitekeen antzinako hitzak iraun esan nahi du. Mais partikula latineko magis-etik dator, zera esan guran, antza: , esan nahi baita: edo . Baina hizkuntzen erabilera modu bitxian aldatzen denez, partikulen esanahia ongi arautzeko adibideak zehatz-mehatz aztertu beharko lirateke. Frantsesez mais bikoitza saihesteko cependant erabili ohi da; esan liteke, beraz: . Latinezko sed sasoi batean ains esaten zen, italiarren anzi, eta frantsesek aldatu dutelarik, euren hizkuntzari espresabide egoki bat ezabatu diote. Esate baterako, (§ 6) FILALETES: Gai hau azal-azaletik baino ez dut ukitu nahi izan. Honakoa erantsi nahi dut, alegia, partikulek sarri euren baitan biltzen dituztela etengabea edota egitura mota batean esakun osoaren esanahia.

TEOFILO: Baina zentzu osoaz ari garelarik, elipsi gisa soilik gertatzen da hau; esan nahi baita interjekzioek soilik dairautela berez, eta hitz bakar batez dena esan, hala nola, ai!, oi!... Mais, besterik erantsi gabe, diogunean, elipsia egiten dugu, hala nola esaldi honetan: (). Antzeko zerbait gertatzen da latinezko nisi-rekin: nisi non esset, bainarik ez balego. Gainerakoan, jauna, gustura hartuko nukeen apur bat sakonago eta zehatzago aztertu izan bazenitu partikulen erabilerak erakusten bide dizkigun izpirituaren sotiltasunak. Baina hitzak ikertzeari utzi eta gauzetara arin itzultzeko arrazoiak ditugunez, ez zaitut horretan gehiago luzaraziko; baina zinez uste dut hizkuntzak direla giza izpirituaren ispilurik onena, eta hitzen esanahiaren ikerketa zehatzak beste ezerk baino hobeto lagunduko ligukeela adimenaren egintzak ezagutzen.

VIII

Termino abstraktu eta konkretuak

(§ 1) FILALETES: Terminoak abstraktuak eta konkretuak direla kontuan hartzekoa da. Ideia abstraktu guztiak bereziak dira, beraz, bitarik bata ezin da inoiz izan bestea. Izpirituak intuiziozko bere ezagutzaz ikasi behar du hauen arteko diferentzia, eta ondorioz, ideia horietako bi ezin izango dira inoiz bata bestearen baieztapen izan. Edonork ikus lezake esakun hauen faltsutasuna: . Orokorrean onartutako edozein esaera bezain bistakoa da hori.

TEOFILO: Badugu oraindik, halere, esateko zerbait. Justizia bertute bat, ohitura (habitus), koalitatea, akzidentea etabar dela esaterakoan bat gatoz. Beraz, termino abstraktu bi aipa daitezke bata besteari buruz. Nik neuk bi abstraktu mota bereizi ohi ditut: termino abstraktu logikoak eta termino abstraktu errealak. Abstraktu errealak, edota errealtzat bururatu ohi ditugunak, esentziak dira edota esentziaren atalak, edo akzidenteak, hots, substantziari erantsitako izakiak. Termino abstraktu logikoak terminoetara murriztu diren predikazioak dira, zera esatea bezala: gizaki izan, animalia izan; eta zentzu horretan bata bestearen enuntziatu izan daitezke, esanaz: . Hau ezinezkoa da errealtateetan. Ezin baieztatu baitaiteke gizaki osoaren esentzia den gizatasuna edo hominitatea (hala nahi izanez gero) animalitatea denik, berau esentzia honen atal bat baino ez baita; hala eta guztiz, termino abstraktu errealez adierazitako izaki abstraktu eta osagabe horiek ere euren generoak eta espezieak dauzkate eta hauek ere termino abstraktu errealez ematen dira aditzera: beraz, euren artean predikazioa dago eta hori erakutsi dut, hain zuzen, justizia eta bertutearen adibidean.

(§ 2) FILALETES: Beti esan daiteke substantzietarako izen abstraktu gutxi ditugula; gizatasunaz, animalitasunaz, gorpuztasunaz oso gutxi mintzo izan da eskoletan. Horretarako ez da baimenik izan munduan.

TEOFILO: Termino hauetariko gutxi batzuk baino ez dira beharrezko izan adibidetarako eta substantziaren nozio orokorra argitzeko, ezin baikenuen hau erabat baztertu. Antzinakoek gizatasuna hitza erabili ez bazuten eskolen esanahian, haiek giza natura esan ohi zuten eta gauza bera da. Halaber, jainkotasunaz edo jainko-naturaz mintzo

ziren; eta teologoak bi natura mota hauetaz eta akzidente errealez mintzo beharrean aurkitu direlarik, eskola filosofiko eta teologikoetan biziki saiatu dira entitate abstraktu horien inguruan, legokiona baino gehixeago ere agian.

IX

Hitzen imperfekzioa

(§ 1) FILALETES: Azaldu dugu dagoeneko hitzen erabilera bikoitza. Batetik, gure pentsamenduak erregistratuz oroimenari laguntzeko, honek mintzarazten digularik; bestetik, gure pentsamenduak hitzen bitartez besteengana helarazteko. Bi erabilera hauek ezagutza ematen digute hitzen perfekzioa edo imperfekzioa. (§ 2) Geure golkorako baino mintzo ez garenean zeintzuk hitz erabiltzen ditugun berdin dio, hauen esanahiaz, inongo aldakuntzarik gabe, oroitzen garen bitartean. Baina (§ 3) komunikazioaren erabilera bi motatakoa da, zibila eta filosofikoa. Zibila elkarrizketa da hiriko bizi-giroan. Erabilpen filosofikoaren bidez hitzek nozio zehatzak osatu behar dituzte eta esakun orokorretan egia ziurrak adierazi.

TEOFILO: Halaxe da: hitzak markak (notae) dira guretzat (zenbaki ikurrak edo algebratzakoak izan daitezkeen moduan), baina besteentzat zeinuak: eta hitzak zeinu gisa erabiltzen ditugu agindu orokorrak bizitza praktikora edo norbanakoetara egokitzerakoan eta agindu hauek aurkitu edo egiaztatu nahi ditugunean; zeinuen lehen erabilera zibila da, bigarrena filosofikoa.

(§ 5) FILALETES: Zaila da hitz bakoitzak adierazten duen ideia ikastea eta gordetzea, bereziki orain aipatuko ditudan kasuetan: 1) ideiak oso konposatuak direnean; 2) ideia berriaosatzen duten ideiak elkarrekiko lotura naturalik ez dutenean, halako moldez non naturan ez baitago neurri finkorik, ez haiek arautu edo zuzen ditzakeen inongo eredurik; 3) eredia ezagutzea gaitz egiten denean; 4) hitzaren esanahia eta esentzia erreala bat ez datozenean. Moduen izendapenak zalantzazkoak eta imperfektuak izatera makurtuagoak daude lehen bi arrazoiengatik, eta substantzienak hurrengo biengatik. (§ 6) Moduen ideia konplexuegia denean, hala gertatzen da termino moral gehienetan, haiek oso gutxitan daukate esanahi zehatz bera bi pertsona ezberdinen izpirituetan. (§ 7) Eredurik ezak, halaber, hitzak ekiboko bihurtzen ditu. Zapuztu hitzaren inbentoreak eman dio hitz honi esanahirik aproposena eta geroztik hitz berau erabili dutenek ez diote galdetu zer esan nahi zuen zehazki eta hark ez zien eredu finkorik erakutsi. (§ 8) Eguneroko eralbilenak nahiko ongi arautzen du hitzen esanahia elkarrizketa arrunterako, baina deus zehatzik ez dago eta hizkuntzaren egokitasunari buruzko eztabaida egunerokoa da. Asko mintzo dira gloriak, baina gutxi izango dira hitz hau era berean ulertzen dutenak. (§ 9) Askoren ahotan soinu soilak baino ez dira, edota esanahiak guztiz zehaztugabeak daukate. Eta hitzaldian edo solasean ohoreaz, fedearaz, graziaz, erlijioaz, elizaz mintzo direnean, batez ere eztabaidetan, berehala ohartuko gara, hitzak berdinak izan arren, gizakiek hitz horiekiko nozio ezberdinak dituztela. Eta garaikideen terminoetan esanahia ulertzea nekeza egiten bazaigu, zailtasuna areagotu egiten da antzinako liburuak ulertzerakoan. Liburuok, ordea, alde batera utz ditzakegu, sinetsi edota egin beharrekoa irakasten ditugunean izan ezik.

TEOFILO: Ohar egokiak dira; baina antzinako liburuak dagokienean, Idazteuna batez ere ulertu behar dugunez eta lege erromatarak oraindik ere Europako zati handi batean oso erabiliak direnez, horrek garamatza beste hainbat antzinako liburutan kontsulta egitera: errabinoak, Elizako aita eta historialari profanoak. Antzinako medikuek ere gure arreta merezi dute. Greziako medikuntza-praktikak arabeen bitartez iritsi dira guganaino: iturburuko ur gardenak arabeen erreketan arretu dira eta berriro jatorrizko grekoetara itzuliz zuzendu dira gauza asko. Hala ere, arabeak oso baliagarriak dira eta esan ohi da, adibidez, Ebenbitarrek, Sinpleei buruzko bere liburuetan Dioscorides²²⁶ kopiautuz ionak, sarritan honenak argitzen laguntzen digula. Nire ustez, erlijioaren eta historiaren

ondoren, medikuntzan nagusiki, enpirikoa baita jakintza hau, lagungarri zaizkigu inoren oharra eta idazkietan gordeta dagoen antzinakoen tradizioa. Horregatik izan ditut beti estimu handitan antzinakoetan ikasiak diren medikuak; eta benetan sentitu dut Reinesius²²⁷, jakingai bitan nabarmendu zen gizona, antzinakoen errituak eta historiak argitzen ahalegindu izana haiek naturari buruz zuten ezagupideak ikertzen baino gehiago, alor honetan askoz ere arrakasta handiagoa lor zezakeelarik. Eta inoiz latinoak, grekoak, hebreoak eta arabeak agortuko bagenu, hor daude txinatarrak, antzinateko liburu hornituak, gure kritikoen jakinahia asetzeko. Eta pertsiarren, armeniarren, koptoen eta brahmandarren liburuak ere aipatzekoak dira, noizbait lurpetik aterako direnak, antzinateak tradizioz, doktrina bidez eta gertakarien historiez eskaini ahal izan digun argirik gutxietsi gabe. Eta antzinako libururik aztertzekeo geratzeko ez balitz, hizkuntzek hartuko lukete liburuaren lekua, hauek baitira gizadiaren monumenturik zaharrenak. Noizbait munduko hizkuntza guztiak sailkatu eta hiztegitan eta gramatikatan antolatuko dira, elkarrekin alderatuz; honek ondorio handiak izango ditu, bai gauzak ezagutzeko, izenak sarri haien berezitasunei egokitzen baitzaizkie (argi ikusten da hau herri ezberdinetan landareei ematen zaizkien izenetan), eta bai gure izpiritua eta honen egintzen ezberdintasun miresgarria ezagutzeko. Horrez gain, herrien jatorria jakiteko, hizkuntza ezberdinak erkatuz lortuko diren etimologia finkoak izango ditugu biderik egokiena. Baina horretaz lehen ere hitz egin dugu. Argi ikusten da, beraz, kritikaren balioa eta hedadura, filosofo prestu zenbaitek gutxiesten badu ere, errabismoaz eta filologiaren, oro har, mesprezuz mintzo direlarik. Argi ikusten da, orobat, kritikoak oraindik ere luzaroan arituko direla onerako, eta ongi egingo luketela txikikeriatan gehiegi jolastuko ez balira, hainbeste ikergai garrantzizko ditugularik eskutan; badakit, halere, txikikeriak sarritan ezinbestekoak direla, haien bidez kritikoak ezagutza garrantzitsuagoetara hel daitezten. Eta kritika hein handi batean hitzen esanahiaz eta idazle batik bat antzinakoen interpretazioaz ari delarik, hitzen eztabaidak eta antzinakoei zuk egindako aipamenak puntu ondoriotsu hau ukitzera narama. Eta izendapenari buruzko zure lau akatsetara itzulita, esan behar dizut, jauna, laurak zuzen daitezkeela, batez ere idazkera asmatu zenetik, eta akatsok indarrean badiraute gure ardurarik ezagatik dela. Gure esku dago, izan ere, esanahiak finkatzea, hizkuntza jakintsuetan bederen, eta Babeleko dorre hori desagiteko geure artean bat etortzea. Baina irtenbide gaitzeko bi eragozpen ditugu: bata, ideien bateragarritasunari buruzko zalantza, esperientziak subjektu bat beraren baitan konbinatuak eskaintzen ez dizkigunean, eta bestea, gauza sentikorren behin-behineko definizioak eman beharra, definizio osoagoak lantzeko behar bezainbeste esperientzia ez dugunean: bata zein bestea, eragozpen hauek lehen ere azaldu ditut hemen.

FILALETES: Zerbait esan nahi dut aipatu berri dituzun eragozpenok argitzeko, bai eta neuk azaldutakoetarik hirugarrena, hots, definizio hauek behin-behinekoak direla, antza; hau gertatzen da behar bezain ezagunak ez direnean gure eredu sentikorrak, hau da, gorputz-naturazko izaki substantzialak. Akats honen eraginez, ez dakigu zilegi ote den naturak konbinatu ez dituen koalitate sentikorrak konbinatzea, ez ditugulako sakonetik ulertzen. (§ 11) Modu elkartuetan erabiltzen diren hitzen esanahia zalantzazkoa bada, elkarketa berori egiaztatzekeo eredurik ezagatik, izaki substantzialen izenen esanahia guztiz alderantzizko arrazoiagatik da zalantzazkoa, hauek gauzen errealtateari doakiona adierazi behar omen dutelako eta naturak moldatutako ereductara egokitu.

TEOFILO: Behin baino gehiagotan azpimarratu dut aurreko gure solasaldietan hau ez dela substantzien ideietarako esentziala; aitortzen dut, halere, naturari egokitzen zaizkion ideiak direla seguruak eta erabilgarriak.

(§ 12) FILALETES: Naturak osoki egindako erduei jarraitzen bazaie, imajinazioak haien irudikapenak gorde beste zereginik ez duelarik, izaki substantzialen izenek erabilpen arrunterako erreferentzia bikoitza daukate, lehen ere erakutsi dudanez. Lehenik, gauzen barne-antolaketa erreala adierazten dute, baina eredu hau ezagutezina da eta, ondorioz, ez du balio esanahiak arautzeko.

TEOFILO: Gure solasgaia ez da hori; ereduak dituzten ideiez ari gara. Gauzaren baitan dago barne-esentzia, honek eredutarako balio ez digula ados egon behar dugun arren.

(§ 13) FILALETES: Bigarren erreferentzia izaki substantzialen izenek dute aldi berean substantzian existitzen diren ideia sinpleekiko bertatik bertara. Baina subjektu berean bildurik ideia hauen kopurua handia delarik, gizakiak subjektu horretaz ari direnean ideia arras ezberdinak eratzen dituzte, batzuetan, ideia sinpleekin egiten dituzten konbinaketa ezberdinagatik, besteetan, gorputzen koalitaterik gehienak beste gorputzetan aldaketak eragiteko eta berauek nozitzeko ahalmenak direlako; esandakoaren froga dira suaren eraginez metalerik baxuenetariko batek nozitu ahal ditzakeen aldaketak, eta askoz ere gehiago lirateke kimikari batek esku hartuko balu, beste gorputzak aplikatuz. Bestalde, aski izan ohi du batek pisua eta kolorea urrea ezagutzeko, beste batek moldakortasuna eta tinkotasuna ere aztertu nahi ditu, eta hirugarrenak aqua regia (§ 14) delakoan urgari dela ziurtatu nahiko du. Gauzak, halere, sarri elkarren artean antzekoak direlarik, batzuetan zaila izan ohi da bereizketak zehaztea.

TEOFILO: Egiaz, gorputzak aldatu, desitxuratu, faltsifikatu, imita daitekeenez, hauek bereizi eta egiaztatu ahal izatea garrantzi handiko puntua da. Urrea nahasian desgisatua agertzen da, baina dekanta daiteke bai hauspeatuz, bai ura destilatuz; eta imitazioko urrea edo faltsua antzeman edo garbi daiteke saiakera bidez; baina hau edonoren esku ez dagoelarik, ez da harritzekoa gizakiok urrearri buruz ideia ezberdinak edukitzea. Edozein gairi buruz ideia zehatzik inork izatekotan, horretan jakitun direnek.

(§ 15) FILALETES: Hala eta guztiz, aniztasun honek ez du hiritar merkataritzan hainbat arazo sortzen, nola ikerketa filosofikoetan.

TEOFILO: Praktikan eraginik izango ez balu eramangarriago izango zen, askotan ezin baita quiproquo delakoa onartu, eta gauzen berezitasunak jakin behar dira edota hauek ezagutzen dituztenak eskura eduki. Oraindik garrantzi handiagoa du honek drogen eta material garestien kasuan, une inportanteetan behar izaten ditugunak, alegia. Nahaspila filosofikoa, berriz, nabarmenago agertzen da termino orokorrak erabiltzean.

(§ 18) FILALETES: Ideia bakunen izenekin errakuntzak urriago dira eta oso gutxitan okertzen gara, eta horrelako terminoekin.

TEOFILO: Hala eta guztiz, termino hauek ere ez daude zalantzatik erabat libre; aipatua dut jadanik kolore mugakideen adibidea, bi generoen arteko ertzetan aurkitzen dira eta ertz hauen generoa zalantzakoa gertatzen da.

(§ 19) FILALETES: Ideia sinpleen izenen ondoren zalantzarik gutxien eskaintzen dutenak modu sinpleak dira, esaterako, irudienak edo zenbakienak. Baina (§ 20) modu konposatuek eta substantziek trabarik handienak dituzte. (§ 21) Inperfekzio hauek hitzei barik, gure adimenari egotzi behar zaizkiola esango da: eta nik honi erantzungo, hitzak tartekatzen direla gure izpiritua eta gauzen egiaren artean halako molde, non aldera baititzakegu, gure begiak lausotuz, objektu ikuskorren izpiak iragazten dituen bitartekoarekin; eta ia-ia sinetsi ere egingo nuke, hizkuntz akatsak sakonago aztertuko bagenitu, eztabaidarik gehienak berez isilduko liratekeela eta jakinbidea, eta bakebidea ere agian, gizakientzat hurbilago legokeela.

TEOFILO: Gizakiak ados jarriko balira zenbait arauditan eta hauek arretaz bete, une horretantxe amaituko lirateke, nire ustez, eztabaida idatziak. Baina zehazki, berehala eta aho biziz jokatzeko, mintzairak aldatu beharko luke. Beste nonbait aztertu dut gai hau.

(§ 22) FILALETES: Aldaketa horren zain gaudela, eta ez da berehalakoa izango, hitzen inguruko zalantzak zuhur jokatzera eraman beharko gintuen, batez ere inori inposatzerakoan antzinako idazleei guk ezartzen dizkiegun esanahiak: idazle greziarrek inajotzen baita haietariko ia-ia bakoitza era ezberdinean mintzo dela.

TEOFILO: Harrituta utzi nau, lekuz eta aldiz elkarren hain urruneko diren idazle greziarrak, hala nola, Homero, Herodoto, Estrabon, Plutarko, Luziano, Eusebio, Prokopio eta Fozio hain antzeko izateak; latindarrek, aldiz, dena aldatu dute, eta ingelesek, alemaniarrek eta frantsesek are eta gehiago. Greziarrek, izan ere, Homerogandik hasita, Atenas hiriaren loraldian are gehiago, beti izan dituzte idazle bikainak, geroak eredutzat hartu dituenak, idazkerarako bederen. Erromatarren menpe, dudarik gabe, greziarren hizkera arruntak aldatu behar izan zuen. Horra zergatik italiera ere ez den frantsesa bezainbeste aldatu, italiarrek garai batean ospe handiko idazleak izan zituztelarik imitaziorako eta estimuan dauzkate oraindik ere Dante, Petrarka, Boccaccio eta hainbat, frantsesak ezer gutxi ziren garaiko idazleak.

X

Hitzen abusua

(§ 1) FILALETES: Hizkuntzaren berezko akatsez gain, beste hutsegite batzuk nahita egiten dira axolagabekeriaz, hitzez neurri gabe baliatuz edota hauek oker erabiliz. Lehen neurrigabeko baliapena, eta denetan nabarmenena (§ 2), ideia argirik gabeko hitzekin egiten da. Bi motatakoak dira hauek: batzuek ez dute sekulan ideia zehatzik eduki, ez jatorrian, ez euren erabilera arruntean. Sekta filosofiko eta erlijioso gehienek horrelakoak bereganatu dituzte iritzi arrotzak adierazteko edota euren sistemako gune ahulak disimulatzeko. Hala eta guztiz, hitzok marka bereizgarriak dira alderdiotako jendearen ahotan. (§ 3) Beste hitz batzuek jatorrizko erabilera arruntean badute ideia argiren bat, baina gero goi- mailetako gaietara asimilatu dira, inongo ideia argirik eurenaganatu gabe. Horrela gizakien ahotan entzuten dira maiz, zuhurtasuna, aintza, grazia hitzak.

TEOFILO: Esanahirik gabeko hitzak uste baino gutxiago direla uste dut, eta arretaz eta borondate onaz hutsune hori bete edota zehazgabetasun hori egoki daitekeela. Zuhurtasuna, dirudienez, zorionaren zientzia baino ez da. Grazia, merezi gabe ere, premian daudenei egiten zaien ongia. Eta aintza, norbaiten gorentasunaren aldarrikapena.

(§ 4) FILALETES: Definizio horietaz zerbait esatekorik ba ote dagoen ez dut orain aztertuko; hitzen neurrigabeko baliapenaren zergatiak azalduko ditut. Lehenik eta behin, hitzak ikasten ditugu dagozkien ideiak ikasi aurretik, eta sehaskatik horretara ohitu diren haurrek bizitza osoan zehar erabiliko dituzte: are eta gehiago, elkarrizketan ulertaraztea lortzen dutelarik, ideiarik inoiz finkatu ez badute ere, adierazmolde ezberdinen bidez esan nahi dutena ulertarazteko. Hori dela eta, euren solasa hitz hutsalez beteta dago, batez ere moralaz dihardutenean. Auzokoek erabiltzen dituzten hitzak hartu ohi ditu gizakiak, haien esanahia ez dakiela inork pentsa ez dezan, eta barra-barra erabiltzen ditu inongo adiera zehatzik eman gabe: eta honelako diskurtsotan oso gutxitan dutelarik arrazoi, oso gutxitan etsituko dira, halaber, oker daudela; eta errakuntzarik atera nahi izatea arlote ibiltari bati lapurtu nahi izatea bezala da.

TEOFILO: Oso gutxitan gertatzen da, izan ere, inor behar bezainbeste arduratzea hitzak edo terminoak ulertzen; behin baino gehiagotan harritu nau haurrek horren azkar hizkuntzak ikasi ahal izateak, eta aldi berean helduen mintzo eskasak; eta kontuan hartu behar da oso gutxi arduratzen garela haurrak ama-hizkuntzan hezten eta helduak ez direla kezkatzen definizio zehatzak lortzen: are gehiago, eskoletan ikasitakoek kalean erabili ohi diren hitz arruntei muzin egiten dietelarik. Gainerakoan, aitortzen dut gizakiak sarri oker daudela serioski eztabaidatzen dihardutenean ere, edota euren

sentipenei jarraiki mintzo direnean; zenbait aldiz ohartarazi dut, halere, euren izpirituari buruzko eztabaida espekulatiboetan bi aldeetan dagoela arrazoia, elkarri egiten dizkioten kontrajarreretan izan ezik, bestearen pentsamoldea desegoki kontsideratzen baita: hitzen erabilera okerretik dator hau eta batzuetan, baita ere, kontraesan-izpiritutik eta handinahikeriatik.

(§ 5) FILALETES: Bigarrenik, hitzen erabilera batzuetan aldakorra da, batik bat jakintsuen artean. Azpikeria nabarmena da, eta nahita egiten badute, erokeria edo maltzurkeria. Norbaitek honela ihardungo balu kontuak ematerakoan (adibidez, X bat V-tzat hartzea) esaidazu, arren, nor sartuko litzateke horrekin harremanetan?

TEOFILO: Jakintsuen artean ezezik, mundu zabalean ere hain hedatua dabilen neurrigabeko erabilpen hau, nire ustez, ohitura txarragatik edota oharkabez gertatzen da maleziaz baino gehiago. Hitz beraren esanahi ezberdinek kidetasunen bat izan ohi dute elkarrekin; horrela, bata besteaz hartzea makurtzen gara eta esaten denari zehat-mehatz erreparatzeko behar beste astirik ez dugu izaten. Tropoetara eta figura erretorikoetara ohituta gaude eta edozein dotorezia edo distira faltsu aise geureganatzen dugu. Sarriegi baikabiltza plazerraren, jolasaren eta itxuren atzetik, egiarenetik baino areago: eta harrokeria ere hor dabil nahasian.

(§ 6) FILALETES: Hirugarren neurrigabeko erabilpena itxurazko iluntasunean datza, bai termino arruntei ohi ez bezalako esanahiak emanez, bai termino berriak adierazpenik gabe plazaratuz. Antzinako sofistek, Luzianok²²⁸ arrazoiz lotsagarri jarri zituenek, edozertaz mintzo nahi izaki, euren ezjakina hitzen iluntasunaren ohialdean estaltzen zuten. Sekta filosofikoen artean peripatetikoa gailendu zen akats hau dela eta; baina besteak ere, tartean modernoak, akats beronek kutsatu ditu. Batzuek, adibidez, hedadura hitza gehiegi erabiltzen dute eta gorputz hitzarekin nahasi behar dutela uste dute. (§ 7) Logika edo eztabaidaren arte hain estimatuak iluntasunari eusteko balio zuen. (§ 8) Horretan ihardun dutenak alferrak izan dira gizartearentzat eta batzuetan kaltegarri. (§ 9) Mekanikariak, aldiz, jakitunek gutxietsiak izan arren, giza bizitzarako onura izan dira. Hala eta guztiz, ezjakitunek miretsi izan dituzte doktore hits horiek; eta menderaezinak zirela uste zen, sastrakaz eta arantzaz baliatzen zirelako eta sasitza horretan nahasteko gogorik inork ez zuelako, ilunak soilik babesten baitzuen absurdua. (§ 12) Hitzak iluntzeko arte honek eragin duen gaitzik handiena izan da, giza ekintzetarako bi arau nagusiak lardaskatu dituela, erlijioa eta justizia.

TEOFILO: Bidezkoak dira zure arrangurak hein batean: egia da, halere, oso gutxitan izan arren, badirela iluntasun barkagarriak eta batzuetan laudagarriak: hala nola, enigmatiko izateko zin egiten denean eta enigma bidezkoa denean. Pitagorasek hala egin ohi zuen eta haxe da ekialdekoen jokabidea. Partaide gisa azaltzen diren alkimistek esaten dute artearen semeek, ez beste inork, entzun behar dietela. Ongi legoke hori, delako artearen seme horiek enigmaren giltza balute. Nolabaiteko iluntasuna zilegi izan daiteke: honek, ordea, asmatzea merezi duen zerbaite estali beharko luke eta enigmak soluziobidea izan behar du. Erlijioak eta justiziak, oster, ideia argiak eskatzen dituzte. Hauen irakaskuntzan ezarri den ordenamendu eskasak, antza, doktrina lardaskatu du; eta agian terminoen zehaztasun-eza iluntasuna bera baino kaltegarriagoa da. Baina pentsamenduen ordenamendua eta lotura irakasten duen artea logika denez, ez daukagu hura arbuiatzeko arrazoirik. Alderantziz, logika faltagatik tronpatzen dira gizakiak.

(§ 14) FILALETES: Laugarren neurrigabeko erabilpena hitzak gauzatzen hartzean datza, esan nahi baita uste dugula terminoak substantzien esentzia errealei lotzen zaizkiela. Filosofia peripatetikoan hezitakoetatik inork ez du uste predikamentuak adierazten dituzten hamar izenak zehazki lotzen direla gauzen naturarekin? edota forma substantzialak, arima begetatiboak, hutsaren izuak, espezie intentzionalak etabar errealak direla? Platonikoek ere badute euren munduaren arima, eta epikuroek euren atomoen joera higidurarantz, pausagunean daudela. More doktorearen²²⁹ aireko edo

etereko ibilgailuek munduko bazterren batean predikamenturik lortu izan balute, ez lukete horregaitik errealak izatetik galduko.

TEOFILO: Bereziki ez da hitzak gauzatzat hartzea, egiazko ez dena egiazkotzat hartzea baizik. Gizakien artean zabalduetia dagoen akatsa berau; ez da, baina, soilik hitzen neurrigabeko erabilpenaren ondorio, guztiz bestelako zerbait da. Predikamentuen helburua oso onuragarria da eta arbuia barik zuzendu egin beharko genituzke. Substantziak, koantitateak, koalitateak, egintzak edo pasioak eta erlazioak, hots, bost izaki mota orokor, aski lirateke hauen elkarketatik sortuak erantsiz gero, eta zuk zerorrek ere ideiak sailkatzean, ez al dituzu, bada, predikamentu gisa aurkeztu nahi izan? Forma substantzialez lehenago mintzatu naiz. Eta ez dakit zenbaterainoko funtsa daukagun arima begetatiboak arbuiaitzeko, zeren pertsona esperientziadun eta zuhurrek aitortzen baitute landare eta animalien arteko analogia handia, eta, dirudienez, zerorrek ere onartu omen duzu piztien arima. Hutsaren izua ongi uler daiteke, hau da, demagun naturak behin bete dituela espazioak eta gorputzak sartzinak eta kondentsaezinak direla, orduan ezingo luke hutsik onartu; nire ustez hiru suposizio hauek ongi oinarrituak daude. Ez da hori gertatzen arima eta gorputzaren arteko tratua egin behar dituzten espezie intentzionalekin, aitzakiarik aurki dezakegun arren objektutik urruneko organora doazen espezie sentikorrentzat, higiduren zabalkundea azpiulertutzat emanda. Platonen munduaren arima existitzen ez dela aitortzen dut, Jaungoikoa munduaren gainetik baitago, extramundana intelligentia, edo hobeto esanda supramundana. Epikureoen atomoen higidurarantzako joeraz ez dakit hauei egozten zitzaizen astuntasuna adierazi nahi duzuen; honek, zalantzarik gabe, ez dauka funtsik, zeren gorputz guztiak berez norantza bat berean doazela uste baitzuten. Henry Morus zenak²³⁰, eliza anglikanoko teologoa bera, gizon prestua izanda ere, hipotesi ez ulergarri eta ez sinesgarriak sortzeko joera nabarmena zuen, esaterako, materiaren printzipio hilarkikoa, bere menpe dituen astuntasunaren, malgutasunaren eta hainbat mirariren eragile. Beronen etereko ibilgailuei buruz ez daukat deus esaterik, ez baitut aztertu haien izakera.

(§ 15) FILALETES: Materia hitzari gagozkiola, adibide honek hobeto ulertaraziko dizu nire pentsakera. Naturan errealki existitzen den izakitzat hartzen da materia, gorputzaren ezberdin, inongo zalantzarik gabe; hala ez balitz, bi ideia hauek aukeran koka zitezkeen bata bestearen lekuan. Esan daiteke materia bakarrak osatzen dituela gorputz guztiak, ez haatik gorputz bakarrak materia guztiak osatzen dituenik. Ezta ere, ezin esan daiteke, nire ustez, materia bat bestea baino handiagoa denik. Materiak gorputzaren substantzia eta tinkotasuna azaltzen du; beraz, materia ezberdinak irudikatzen ez ditugun moduan, tinkotasun ezberdinik ere ez. Alabaina, zehaztasun hauen pean existitzen den zerbaiten izena bailitzan hartu dugunetik materia, pentsamendu horrek dirkurtsio ulertezinak eta lehen materiari buruzko eztabaida nahaspilatsuak sortu ditu.

TEOFILO: Adibide horrek, nire ustez, kondenatu baino gehiago zuritu egiten du filosofia peripatetikoa. Zilar oro irudidun izango balitz, edota zilar oro naturak edo arteak landua izan delako, ezingo ote dugu horratik baieztatu zilarra naturan existitzen den izakia dela, zehazki hartua, baxeratik eta monetatik ezberdina? Ezin esango dugu horregatik zilarra monetaren koalitate batzuk baino ez dela. Ez da, beraz, alferreko lana fisika orokorrean lehen materiari buruz arrazoitzea eta beronen izakera zehaztea; horrela jakingo dugu ea beti uniforme den, ea sartzintasunaz aparte beste berezitasunik baduen (hala frogatu dut, izan ere, Keplerri jarraiki, baduela zilarren inertzia dei dezakeguna), etabar, inoiz erabat purua aurkitzen ez den arren: zilegi zaigu, halaber, zilar puruaz arrazoitzea, etxean halakorik ez eduki arren, ez eta hura garbitzeko mediorik ere. Ez dut, bada, gaitzetsiko Aristotelesek lehen materiaz mintzo izana; baina ez ditut horratik kritikatu gabe utziko honetaz gehiegi ihardun direnak eta ameskeriak eraiki dituztenak filosofo

horren hitz txarto ulertuen gainean, berak, agian, errakuntza eta hitz mordoilo horietarako bide zabalegia eman baitu batzuetan. Ez ditugu, halere, gehiegi puztu behar idazle ospetsu honen hutsak, gauza jakina baita bere obra zenbait ez zuela berak burutu, ez argitara eman.

(§ 17) FILALETES: Bosgarren neurrigabeko erabilpena da hitzak kokatzea berauek adierazten ez dituzten eta inolaz ezin adierazi dituzten gauzen lekuan. Hala gertatzen da substantzien izenen bidez zerbait gehiago azaldu nahi izatean: nik urrea deritzodana xaflagarria izaki (funtsean urreak xaflagarri dena baino adierazten ez duen arren) ezin emango dut aditzera xaflagarritasuna urrearen esentzia errearen menpe dagoenik. Edota ontzat ematen dugu Aristotelesekin egindako gizakiaren definizioa, hots, animalia arrazoiduna, eta okertzat Platonena, lumarik gabeko eta atzazkal luzeko bi oindun animalia²³¹. (§ 18) Nekez aurkituko da inor pentsa ez dezanik hitzok esentzia erreala duen zerbait adierazten dutela, eta esentzia horren menpe daudela berezitasunak; hala ere, neurrigabeko erabilpen nabarmena da, esentzia hori ez baitago inondik ere hitzak adierazten duen ideia konplexuaren baitan.

TEOFILO: Nik neuk, halere, uste dut erabilera arrunta gaitzestea hutsegite nabarmena dela, zeren egia baita urrearen ideia konplexuan biltzen dela esentzia erreala duen zerbait izatea, eta honen eraketa zehazki ezaguna zaigu xaflakortasuna bezalako koalitateak beronen menpe daudelako soilik. Urrearen xaflakortasuna adierazteko tautologia hutsean edo errepikapenean eta pleonasmoean arriskuan jausi gabe (ikus 8. atala, § 18) gauza hori beste koalitateen bidez ezagutu ahal izan behar dugu, koloreaz edo pisuaz, adibidez. Zera esango bagenu bezala, alegia, gorputz galdagarri, hori eta oso astun bat da, urrea deritzana, eta bere izakerak mailupean malgutasuna ematen dio eta xafla guztiz finetan ebakia izateko koalitatea. Platoni egozten zaion gizakiaren definizioaz, honek, itxuraz, eredu gisa landu omen zuen eta ez dut uste zeuk ere seriooki alderatuko duzunik orokorki onartzen denarekin; argi dago definizio hau guztiz azalekoa dela eta behin-behinekoegia; arestian aipatu duzun cassiowaris hark (6. atala, § 34) atzazkal luzeak izan balitu, gizaki bilakatuko zen; hura lumatu beharrik ez baikenuke izanen, Diogenesek gizaki platonikoa bihurtu nahi zuen oilarra lumatu omen zuen moduan²³².

(§ 19) FILALETES: Modu elkartuetan, bertako ideia bat aldatzen denetik, berehala aitortu behar da beste zerbait dela; hala agertzen da begi-bistan hitz hauetan: ingelesezko murther hitzak (alemanierazko Mordt-ek bezala) lehenik pentsatutako gizahilketa esan nahi du; manslaughter hitzak, jatorrian gizahilketa esan nahi bazuen ere, orain nahita baina lehenik pentsatu gabe egindako gizahilketa esan nahi du; chancedmedly hitzak (esanahi literalez, azarez gertatutako liskarra) nahi gabe burututako gizahilketa esan nahi du; izen hauek adierazten dutena eta nire ustez gauzaren baitan dagoena (esentzia erreala eta esentzia nominala izendatu ditudanak) gauza bera da. Baina substantzien izenekin ez da hau gertatzen, zeren batek urrearen ideian ezartzen badu besteak kentzen duena, adibidez, tinkotasuna eta delakoan urtua izateko gaitasuna, jendeak ez du horregatik pentsatuko espeziea aldatu denik, bai ordea, batek besteak baino ideia perfektuagoa daukala, urrea deritzanaren esentzia erreala estaliak egiten duenari buruz, nahiz eta erlazio sekretu hori alferrekoa izan eta trabak baino sortzen ez dizkigun.

TEOFILO: Lehendik ere esana dudala uste dut; baina argi azalduko dizut berriro, arestian esan duzuna moduetan gertatzen dela, izaki substantzialetan bezainbat, eta barne-esentziarekiko erlazio hori gaitzesteko arrazoirik ez dagoela. Hona hemen adibide bat. Geometren zentzuan, parabola definitzeko esan daiteke lerro zuzen baten erradio paralelo guztiak islapenez foku izeneko puntuan bat datozenean sortzen den irudia dela.

Baina definizio honek azalekoa eta eragina baino ez du adierazten, eta ez barne-esentzia, hots, lehenik eta behin irudiaren jatorria ezagutzera eraman gaitzakeena. Hasieratik, halaber, zalantzak izan ditzakegu ea posible den funtzio hori egotzi nahi diogun irudia; honek jakinarazten dit niri definizioa noiz den nominal soila, ezaugarrietan oinarritua, eta noiz erreala. Baina nik eman berri dudana definizioa soilik ezagutuz, parabolaz mintzo dena eraketa edo antolakuntza zehatz bat daukan irudi bati buruz mintzo da, jakin ez dakiena baina irudia marrazteko gustura ikasiko lukeen eraketa. Horretan nik baino gehiago sakondu duenak erants dezake ezaugarriren bat eta aurkitu, adibidez, aipatu irudian kurbaren puntu bat beretik jaitsita, ordenatua eta perpendikularren artean etendako ardatzaren zatia beti dela iraunkorra, eta erpina eta fokuen arteko distantziaren berdina. Honekin aurrekoak baino ideia osotuagoa edukiko du eta aiseago marraztuko du irudia, oraindik ere agian lortuko ez duen arren. Eraketa oraindik ezkutuan badago ere, irudi bera dela ados egongo gara. Ikus dezakezu beraz, jauna, gauza substantzialak adierazten dituzten hitzen erabileran aurkitzen eta zati batean gaitzesten dituzunak orobat existitzen direla, ustez arrazoiz, modu elkartuak adierazten dituzten hitzen erabileran ere. Moduen eta substantzien artean ezberdintasunak zeudela sinestera makurtu zara ez dituzulako kontuan hartu eztabaida zaileko modu ulergarriak, orotan gorputzen antzekoak baina ezagutzeko are eta zailagoak.

(§ 20) FILALETES: Ez daukat, beraz, isildu beharrik, jauna, eta abusutzat hartzen nuenaren zergatia azalduko dizut. Kontua da oker gaudela naturak beti araupean jokatzen duela eta espezie bakoitzari bere mugak zedarritzen dizkiola sinestean, guk beraietan halakotzat ditugun esentzia espezifikiko edo barne-eratzeko horren bitartez, beti izen espezifikiko berari atxikita.

TEOFILO: Modu geometrikoen adibidean ikus dezakezu, jauna, barne-esentziez eta espezifikoez ari garenean ez gabiltzala guztiz oker, nahiz eta alde handia dagoen gauza sentigarrien eta modu ulergarri eztabaidagaitzen artean, substantziak direnean edo moduak, hauen definizio nominal behin-behinekoak baino ez baititugu eta errealean itxaropenik ez; zeren iritsi baikaitezke, azken finean, irudi geometrikoen barne-eraketara.

(§ 21) FILALETES: Onartzen dut ergelkeria izango litzatekeela nire aldetik, esentzia eta barne-eratzekiko erlazio hori gaitzestea, gure hitzak deusezaren edo ezjakinaren ikur bilakatzen ditugun aitzakiaz. Nolabait ezjakina dena beste nolabait jakinaraz daiteke eta barnekoa nolabait jakitera ematen zaigu bertatik sortzen diren fenomeno bidez. Eta fetu muntroa gizakia den ala ez galderari erantzungo diot: nire ustez, bertan ebatzi ezinezkoa delarik, ez du horrek esan nahi espeziea ez dagoela berez ongi finkatua, gure ezjakinak ez baitu ezertan aldatzen gauzen izakera.

TEOFILO: Geometrialari prestuei gertatu zaie zenbait irudi zein ziren ez jakitea, auzia argitzeko haien zenbait berezitasunen jabe izaki. Baziren, adibidez, lerro batzuk perlak zeritzenak; hauen laukidura, azalera neurria eta biraketan sortarazitako solidoena eskaintzen zen, eta azkenean jakin zen paraboloide kubiko batzuen osagai baino ez zirela. Hartaz, perla hauek espezie berezi gisa hartzea behin-behineko ezagutza baino ez zen izan. Horrelakoak geometrian gertatzen badira, askoz ere konplexuagoak diren gorputzeko naturaren espezieak zehaztearen zailtasunak harrituko al gaitu?

(§ 22) FILALETES: Hasieran emandako zerrendari atal batzuk ezabatzea ongi letorkiokeen arren, goazen seigarren neurrigabeko erabilpenera. Neurrigabeko erabilpen hau orokorra da, baina gutxitan aipatua; honetan datza, alegia, gizakiek usadio luzez ideia batzuk lotu dizkietelarik zenbait hitzari, uste dute lotura hau agerikoa dela eta mundu osoa horretan ados datorrela. Horregatik harritzen dira erabiltzen dituzten hitzen esanahia eskatzen zaienean, hau ezinbestekoa delarik ere. Gutxi dira iraintzat hartuko ez

luketenak, galdetuko balitzaie bizitzaz zer ulertzen duten, honetaz mintzo direnean. Halere, horretaz eduki dezaketen ideia lausoa ez da nahikoa jakin nahi dugunean ea jadanik hazian eratua dagoen landareak bizitza duen, edota txitatu gabeko arrautzean dagoen txitoak, edota zentzumenik eta mugimendurik gabeko gizaki ahituak. Eta gizakiek euren solasaldietako hitzen esanahia galdetzeko bezain ergel eta nekagarri agertu nahi ez badute ere, ez eta kritiko gogaikarri, besteei etengabe hitzen azalpena eskatzeagatik, hala eta guztiz, ikerketa zehatza denean ezinbestekoak dira azalpenok. Sarritan alderdi ezberdinetako jakintsuak elkarren aurkako argudioetan hizkera ezberdinak mintzatzera mugatzen dira gauza bera pentsatu arren, interesak baitira ezberdinak.

TEOFILO: Argi utzi dudala uste dut animaren baitango pertzepzioarekin bat egon behar duen bizitzaren nozioa; hala ez balitz, itxura besterik ez litzateke, Ameriketako basatiek erlojuei atxikitzen zieten bizitza bezala, edota txotxongiloak bizirik eta deabruak eraginda ari zirela uste zuten auzimaisu haiek bezala, hirian ikuskizun hau lehenengoz aurkeztu zuena aztitzat zigortu nahi izan zutenean.

(§ 23) FILALETES: Ondorio gisa, hitzek balio dute 1) gure pentsamenduak ulertarazteko, 2) hori aise egiteko, eta 3) gauzen ezagutza bidean abiatzeko. Lehen puntuan huts egiten dugu, hitz baten ideia zehatz eta iraunkorra ez daukagunean eta besteek ere ulertzen ez dutenean. (§ 23) Erraztasunean huts egiten dugu izen bereizirik gabeko ideia konplexuak ditugunean; sarritan hizkuntzen beraien akatsak izan ohi dira, izenik nahiko ez dutelako; besteetan gizakiarena, ikasi ez dituelako eta perifrasi handietara jo beste erremediorik ez duelako. (§ 24) Baina hitzek adierazten dituzten ideiak errealitatera egokitzen ez direnean, hirugarren puntuan huts egiten dugu. (§ 26) 1) Ideiarik ez baina hitzak bereganatu dituen, liburuen katalogoa soilik duena bezalakoa da. (§ 27) 2) Ideia oso konplexuak dituen, orrialdi soltez eta izenbururik gabeko liburu asko dituen bezalakoa da; liburua emateko orriak banan-banan eman beharko lituzke. (§ 28) 3) Ikurak erabiltzean beti bat ez dena, gauza ezberdinak izen bat bereaz saltzen dituen merkataria bezalakoa da. (§ 29) 4) Bere ideia partikularrak hitz arruntei egozten dizkionak ezin ditu besteak argitu berak izan litzakeen argiez. (§ 30) 5) Inoiz existitu ez diren substantzien ideiak buruan dituen ez du aurrera egingo ezagutza errealean. (§ 33) Lehenengoak alferrik hitz egingo du tarantulaz edo karitateaz. Bigarrenak animalia berriak ikusiko ditu, baina ezingo dizkie aise ezagutzera eman besteei. Hirugarrenarentzat gorputza izango da orain solidoa, orain hedadura baino ez; eta janurritasun () hitzaz adieraziko du batean bertutea eta bestean honen kontrako bizioa. Laugarrenak mandoari zaldi deituko dio eta berarentzat eskuzabal () izanen da mundu guztiak xahutzaile () deitzen duena; eta bosgarrenarentzat, Herodotorengan oinarriturik, tartariarrena begi bakardunen nazioa izanen da²³³. Ohartarazi nahi dut lehenengo lau akatsak substantzien izenekin eta moduekin dutela zerikusia, azkenak, aldez, substantziekin.

TEOFILO: Oso argigarriak dira zure oharrak. Nik erantsiko diet akzidenteen eta izamoldeen ideietan kimerazko zerbait badagoela, nire ustez; hartaz bosgarren akatsak badu zerikusirik substantzia eta akzidenteekin. Harako artzain xelebre hura ez zen xelebrea²³⁴ zuhaitzen atzean ninfak ezkututzen zirela sinesten zuelako soilik, beti nobelazko abentura bila zebilelako baizik.

(§ 34) FILALETES: Besterik gabe amaitzea pentsatu dut, baina zazpigarren eta azken neurrigabeko erabilpena etorri zait gogora, termino figuratuena edo aipamenena, alegia. Nekez hartuko dugu hau neurrigabeko erabilpentzat, umorea edo irudimena deritzoguna egia soila baino onartuagoa izan ohi baita. Atsegin izatea beste helbururik ez duten mintzaldiei oso ongi doakie; baina funtsean, ordenamendua eta argitasuna salbu, erretorikaren arte guztia, hitzen erabilera irudizko eta gezurrezko horiek ideia faltsuak

iradokitze baina ez dute balio, grinak piztarazteko eta adimena limurtzeko; trikimailu hutsak baina ez dira, beraz. Hala eta guztiz, falaziaz jositako arte honi lehen maila eta ohoreak eskaintzen zaizkio. Gizakiak, izan ere, oso gutxi arduratzen dira egiaz; engainatzea eta engainatuak izatea dute atsegin. Hain da hau egia, ezen dudarik ez baitut egiten arte horren aurka esan berri dudana ausardia izugarriaren ondorioztat hartua izango dela. Elokuentziak, sexu ederrak bezala, xarma boteretsuegiak dauzka, inor kontra jar dakion onartu ahal izateko.

TEOFILO: Zure egizaletasuna arbuiatu ezezik bidezkozat jo ere jotzen dut. Eta noizbait xedea lor dezan opa diot. Ez dut amore ematen elokuentziari bere armekin erasotzen diozula dirudielako, eta gainera zeuk baduzulako nolabaiteko elokuentzia, beste iruzurti hori baina bikainagoa; halatsu behin, Uranioko Venus, Maitasun jainkoaren ama, zeinaren aurrean ez zen aurkeztera ere ausartzen sasiko beste Venus hura, Maitasun itsuaren ama, semea begiak estalita²³⁵. Baina horrexek frogatzen du zure tesiak zuhurtzia apur bat behar duela, eta elokuentziaren zenbait apaindura egiazko Jainkoaren kulturako ere balio zuten egiptoarren ontziak bezalakoak dira. Gauza bera gertatzen da pinturarekin eta musikarekin; horietaz ere abusatu ohi da, bata sarri irudipen barregarri eta kaltegarriak ere errepresentatzen baititu, besteak, berriz, bihotza ahuldu, eta bi-biek alferreko jolasa eskaintzen dute; baina onuraz ere erabil daitezke, bata egia argitzeko, hunkigarri egiteko bestea; eragin berau atera behar diogu poesiari, erretorikan bezala musikan ere esku hartzen baitu honek.

XI

Aipatu diren akatsetan eta neurrigabeko erabilpenetan balia daitezkeen konponbideak

(§ 1) FILALETES: Ez da hau lekuri egokiena egiazko elokuentziaren erabileraz sesioan hasteko, are gutxiago zure kunplimenduari erantzuteko; hitzez diharduen gai honi amaiera eman behar diogu hor aipatu ditugun akatsei konponbideak bilatuz. (§ 2) Barregarria litzateke hizkuntzen berrikuntzan saiakeria edota gizakiak ezagutzaren heinean soilik mintzatzea behartzea. (§ 3) Ez da, baina, gehiegi filosofoak zehazki mintzo daitezen eskatzea, egiaren bila seriozki dabilzanen: hori barik dena legoke akatsez, setakeriaz eta tirabira hutsalez jositakoa. (§ 8) Hona hemen lehen konponbidea: ez erabili hitzik ideia bat atxikita ez duenik; usu erabili ohi ditugu irrika, sinpatia, antipatia eta antzeko hitzak esanahirik ezarri gabe.

TEOFILO: Arau zuzena da, baina adibideak egokiak ez ote diren nago. Irrika hitzaz mundu guztiak ulertzen du, antza, animalien joera komeni zaion zerbaitearantz, horretarako arrazoirik gabe; gizakiek beraiek ez lukete horrenbeste gutxietsi behar irrikok, beraieran ere eragina baitute, euren bizikera artifizialak ia erabat ezabatu dituzten arren; bere buruaren mediku denak ongi azaldu digu hori²³⁶. Sinpatia edo antipatia, sentipenik gabeko gorputzetan batzeko eta banatzeko irrikari erantzuna da, animalietan aurkitzen duguna. Eta tamalez joera edo zaletasun hauen kausaren ulertzerik ez eduki arren, badugu nahiko noziorik horretaz era ulergarri hausnartzeko.

(§ 9) FILALETES: Bigarren konponbidea moduen izenen ideiak zehaztuak bederen izatean datza, eta (§ 10) substantzien izenen ideiak existitzen denarekin bat etortzean. Norbaitek baieztatzen badu justizia legearekin ados dagoen inoren ondasunarekiko jokabidea dela, ideia hau ez dago ongi bereizita, legea zeri deritzagun ideia argirik ez badugu.

TEOFILO: Hemen esan genezake legea zuhurtziaren edo zorionaren zientziaren agindua dela.

(§ 11) FILALETES: Hirugarren konponbidea da ahal delarik onartutako usadioan erabiltzea terminoak. (§ 12) Laugarrena, hitzak zein zentzutan hartzen ditugun adieraztea, bai berriak erabiltzean, bai zaharrak esanahi berriaz darabiltzagunean,

bai usadioak oraindik esanahia ongi finkatu gabe daukan hitzetan. (§13) Aldea dago hemen ere. (§ 14) Definitu ezineko ideia sinpleen hitzak sinonimo bidez adierazten ditugu, hauek ezagunagoak direnean, edota gauza erakutsiz. Prozedura hauen bidez ulertarazi dakioke nekazariari zein den hosto hilaren kolorea, udazkenean jausten diren orbel iharren kolorea dela esanaz. (§ 15) Modu elkartuen izenak definizio bidez azaldu behar dira, daitekeena baita. (§ 16) Horregatik da morala frogagarri. Gizakia gorputzezko izaki razionaltzat hartu behar da, kanpoko irudiari erreparatu beharrik gabe, (§ 17) moralari buruzko gaiak definizio bidez argi adieraz baitaitezke. Hobeto egingo dugu justizia definituz gure izpirituan dugun ideiarri begira, gugandik at haren eredu bila, Aristide bezala, ibiliz eta handik definizio bat atereaz baino. (§ 18) Eta modu elkarturik gehienak inon ere elkarrekin existitzen ez direnez gero, definituz bakarrik finka ditzakegu, barreiatua dagoenaren zenbakitzearen bidez. (§ 19) Substantzietan aurkitu ohi ditugu zenbait artezpideko koalitete, artezpidekoak edo berezkoak, espezieko ideiarri bereizgarrientzat hartzen duguna; gure ustez, hauei atxikitzen zaizkie espeziearen ideia konplexua osatzen duten beste ideiak. Landare eta animalietan irudia da, eta gorputz bizigabeetan kolorea, eta batzuetan irudia eta kolorea, biak elkarrekin. Horregatik, (§ 20) Platonek gizakiari egindako definizioa Aristotelesena baino berezkoagoa da; edota munstro itxurako produkzioak ez genituzke hil behar, (§ 21) eta sarritan ikustea beste edozein ikerketa bezain baliagarri da; zeren urrea aztertzen ohituak daudenek ikuste hutsez bereiziko baitizute egiazko urrea eta faltsua, purua eta imitaziozkoa.

TEOFILO: Dudarik gabe, oro biltzen da definizioetan eta hauek jatorrizko ideietaraino joan daitezke. Gai batek zenbait definizio ezberdin onar ditzake, baina gai berari buruzkoak direla jakiteko arrazoimena erabili behar dugu, definizioak bata bestiaz frogatuz, edota esperientzia bidez, etengabe elkarri lotuta doazela erakutsiz. Moralari dagokionez, beronen atal bat arrazoitan oinarrituta dago erabat; bestea, aldiz, esperientzien menpe dago eta tenperamentuei dagokie. Substantziak ezagutzeko, irudiak eta koloreak, hots ikustekoek, ematen dizkigute lehen ideiak, horrela ezagutzen baititugu gauzak urrundik; baina ideia hauek behin-behinekoegiak egiten zaizkigu eta arduraz hartzen ditugun gauzetan, substantzia gertuagotik ezagutzen saiatzen gara. Gainerakoan, biziki harritzen nau berriro ere Platoni egozten zaion gizakiaren definizioa zu itzultzeak, arestian zuk zeuk esana baita (§ 16) moral esparruan gizakia izaki gorputzezko eta razionaltzat hartu behar dela, azaleko itxurari kasurik egin gabe. Egia da, halaber, egintzabide luze eta jarraian diharduenak begi hutsez bereiz dezakeela beste batek saio korapilatsuen ondoren agian susmatuko duena. Esperientzia handiko medikuek, ikusmen eta oroimen zorrotzekoak direnean, gaixoari behin begiratzuz emango dizute gaitzaren berri, besteak ondorio berorretara iristeko behin eta berriro galdetu eta pultsua hartu behar duelarik. Nolanahi den ere, ona da eskura ditugun zantzu guztiak batera biltzea.

(§ 22) FILALETES: Aitortzen dut, saiakeralari batek urrearen koalitete guztiak ezagutzera emango baligu, ikusmen hutsez baino gehiago ikasiko genukeela metal horri buruz. Baina urrearen barne-eraketa ezagutzera iritsiko bagina, urre hitzaren esanahia angelu hitzarena bezain aise zehaztua legoke.

TEOFILO: Berdin legoke zehaztua eta ez luke behin-behinekorik deus; baina ez litzateke hain erraz zehaztuko, zeren uste baitut bereizketa oso neketsua beharko litzatekeela urrearen egitura azaltzeko; gauza bera gertatzen da geometrian definizio luzeko irudiekin.

(§ 23) FILALETES: Gorputzetatik aske dauden izpirituek, zalantzarik gabe, guk baino ezagutza perfektuagoak dituzte, haiek nolatan ezagutza horiek bereganatzen dituzten

guk inongo noziorik eduki ez arren. Halere, guk triangeluari buruz daukagun ideia eta haiek gorputzen barne-eraketaz dituztenak berdin antzeko argiak izan daitezke.

TEOFILO: Lehen ere adierazi dizut, jauna, baditudala arrazoiak zera uste ahal izateko, alegia, ez dagoela izpiritu sorturik gorputzetatik erabat aske dagoenik; baina badira, bestalde, ziur aski gureak baino organo eta adimen askoz ere perfektuagoak dituzten izpirituak, kontzepzio mota guztietan gaintitzen gaituztenak, Frenicle jaunak²³⁷ edota aipatu nizun mutiko suediarrek baino areago, hauek ere gizaki gehienak baino prestuagoak baitira irudimenez egindako zenbaki kalkulutan.

(§ 24) FILALETES: Argi utzi dugu izenak adierazteko balio dezaketen substantzien definizioak gauzen ezagutzarekiko inperfektuak direla, izena ezartzen ohi baitugu gauzaren orde; izenak, beraz, definizioak baino gehiago azaltzen du, eta substantziak ongi definitu nahi baditugu historia naturala ikasi beharra daukagu.

TEOFILO: Ikusten duzu nolatan, adibidez, urrearen izenak berau ahoskatzen duenak dakiena baino gehiago adierazten duela; kolore horiko gorputz oso astun batez ari bide da hau, baina berak ez dakiena eta beste inork jakin dezakeena ere adierazten du urrearen izenak, hau da, pisua eta kolorea bezala beste hainbat ezaugarri ere sortarazten dituen barne-eraketaz moldatutako gorputza, eta ezaugarri hauek berak baino hobeto ezagutzen dituztenak badirela hark badaki.

(§ 25) FILALETES: Desiragarri litzateke, ikerketa fisikoetan aritu direnak ideia sinpleak jakinarazi nahi izatea, espezie bakoitzeko banakoek etengabe adostasunez hartzen dituzten ideia sinpleak, alegia. Baina mota horretako hiztegia osatzeko, hots, historia natural osoa barne hartuko lukeena, pertsona gehiegi, denbora gehiegi, neke gehiegi eta zuhurtzia gehiegi behar izango litzateke lan hori inoiz osotzea espero ahal izateko. Lagungarri litzauguke, dena den, hitzen alboan irudi xumea, kanpoko itxuraz ezagutzen ditugun gauzetan. Halako hiztegiak geroari egingo lioke mesede eta lan handia aurreztuko lieke etorkizuneko kritikoei. Mirtuaren (apium) iruditxoak, orkatzarena (ibex, basauntz mota bat) landare edo animalia horren azalpen luzeak baino baliagarriagoak lirateke. Latindarrek strigiles eta sistrum, tunica eta pallium zeritzotena jakinarazteko irudi batzuk alboan askoz ere adierazgarriagoak lirateke nolabaiteko sinonimo hauek baino: txarrantxa, zinbola, jantzi, soineko, kapa, haien ezagutzara nekez garamatzatenak. Gainerakoan, hitzekiko neurrigabeko erabilpenen zazpigarren konponbideari (termino bera esanahi bat berean beti erabiltzea edota esanahia aldatzen denean ohartaraztea) ez diot oraingoan kasurik egingo. Horretaz lehen ere nahiko hitz egin dugu.

TEOFILO: Aita Grimaldik²³⁸, Pekineko matematika tribunal-buruak, esan dit txinatarrek badituztela irudiz hornitutako hiztegiak. Bada izendegi bat, Nurembergen inprimatua²³⁹, hitz bakoitza era horretako irudi nahiko egokiz dakarrena. Horrelako hiztegi unibertsal irudidun bat beharko genuke eta egitea ez da hain zaila. Espezieen deskribapenari dagokionez, horretan datza, hain zuzen ere, historia naturala eta apurka-apurka aurrerantz doa. Elkarte edo Errege Akademien lehen sorkuntzetatik Europa asaldatu duten guduengatik ez balitz, askoz aurrerago izango ginатеke, gure lanei probetxu gehiago ateratzeko moduan; baina handikiek, gehienetan, ez dakite zeinen garrantzitsua den hau, ez eta nolako ondasunak galtzen dituzten ezagutza finkoen aurrerakuntza gutxiestean; gainera, bakearen plazerretara emanegiak edota gudu prestaketan lanpetuegiak daude hurbiletik ukitzen ez dituzten beste horietaz arduratzeko.

LAUGARREN LIBURUA

Ezagutza

I

Ezagutza oro har

(§ 1) FILALETES: Ideiez eta hauek irudikatzen dituzten hitzez ihardun dugu honaino; ideiek hornitzen dizkiguten ezagutzak izango ditugu orain hizpide, gure ideien inguru baitabiltza soilik. (§ 2) Ezagutza ez da, izan ere, gure bi ideien artean dagoen lotura edo egokitzearen pertzepzioa baino, edota aurkakotza edo ezegokitzearena. Irudikatuz, susmatuz edo sinetsiz, beti da gauza bera. Bide horretatik ohartzen gara, adibidez, zuria ez dela beltza eta triangeluaren angeluek bi angeluzuzen osatzeak ezinbesteko erlazioa daukatela.

TEOFILO: Ezagutza orokortasun handiagoz ere har daiteke, ideia edo terminoetan aurkitzen delarik, proposizioetara eta egiatara iritsi aurretik. Esan daiteke landareen eta animalien erretratu gehien, makinen irudi gehien, etxe edo gotorlekuen deskribapen edo marrazki gehien aztertu dituenak, nobela injeniotsu gehien irakurri dituenak eta ipuin jakingarri gehien entzun dituenak, horrek daukala, nik uste, inork baino ezagutza gehiago, nahiz eta deskribatu eta kontatu zaion horretan guztian egiazko hitzik bat ere ez egon; zeren izpirituan hainbat bururapen edo ideia espresu eta aktual irudikatzeko duen ohiturak proposatzen zaiona ohartemateko trebatzen baitu, eta seguruenik ere jantziagoa izanen da, trebeagoa eta egokiagoa deus ikusi, irakurri, entzun ez duena baino, non eta historia eta irudikapen horietan egia ez dena egiaztat hartzen ez duen, eta inpresio horiek traba ez badira erreala irudipenezkotik edota existitzen dena ahalgarritik bereizterakoan. Hori dela eta, erreformaren mendeko logikari zenbait, ramista²⁴⁰ kutsukoak beraiek, zuzen zeuden zera esatean, alegia, topikoek edo inbentu guneek (argumenta zeritzenak) hain ongi balio dutela gai ez-konplexu baten, hots, gauza edo ideia baten azalpen edo deskripzio karakterizaturako, nola gai konplexu baten, hots, tesi, proposizio edo egia baten frogarako. Tesia azaldu ere azal daiteke bere esanahia eta indarra ezagutzera emateko; baina horrek ez dakar haren egia edo frogia, sermoi edo homilietan ageri dagoenez, Izkribu Santuetako pasarte batzuk azaltzen direnean, edota aurrez egiaztat ematen diren herri edo lege kanoniko batzuei buruzko irakurketa edo berrikasketetan. Esan dezakegu, halaber, gai batzuk ideia eta proposizio baten bitarteko direla: hala nola, bai ala ez soilik eskatzen duten galdekizunak; hauek daude proposizioetatik gertuen. Beste batzuetan nolakoa ere galdetzen da edota zirkunstantziak etabar; hauek gehiago landu behar dira proposizioak moldatzeko. Deskripzioetan (gai ideal hutsen deskripzioetan ere) posibilitatearen egiaztapen tazitoea dagoela esan daiteke. Eta orobat egia da, faltsukeria baten frogari eta adierazpenari ekin diezaiokegula, eta sarri izaten da errefusatze biderik egokiena, baina deskribapenen artea ezinezkoaren gainbeherara ere eraman dezake. Ariostok jarraitutako Scandiano kondearen fikzioetan bezala gertatzen da hemen, eta Gaulako Amadis-en edota erromantze zaharretan, orain urte batzuk berriro modan jarri zaizkigun iratxoaren ipuinetan, Luzianoren²⁴¹ Egiazko historietan eta Bergeraceko Cyranoren bidaletan, eta pintoreen koadro groteskoak aipatu gabe utziko ditut. Gauza jakina da ipuinen teorikoentzat hauek progymnasmata generokoak direla, hau da, atariko ariketak. Baina ezagutza zentzu hertsian hartuz gero, hots, egiaren ezagutzeaz, zeuk hemen egin duzun moduan, bat nator zurekin egia ideiekiko egokitasun edo desegokitasunean dagoela beti oinarrituta diozunean, baina, oro har, egiaren gure ezagutza egokitasun edo desegokitasun horren pertzepzioa dela diotenekin ez nago ados. Zeren egia enpirikoki bakarrik ezagutzen dugunean esperimintatu dugulako, gauzen eta esperimintatu dugun horretan dagoen arrazoiaren arteko lotura jakin gabe, egokitasun edo desegokitasun horren pertzepziorik ez baitaukagu, hartaz ohartu gabe nahasian sentitzen dugula onartzen ez badugu. Baina zure adibideek

adierazten bide dutenez, zuk galdatzen duzun ezagutza lotura edo oposizioa antzeman behar da, eta honetan ezin naiteke zurekin ados egon. Gainera, gai konplexu bat azter daiteke egiaren frogak bilatuz edota beste nolabait azalduz eta argituz, gune topikoen arabera, lehen ere esan dudan bezala. Azken ohar bat zure definizioari: badirudi ideia bi, subjektua eta predikatua, biltzen dituen egia kategorikoetara egokitzen dela soilik definizio hori; bada, ordea, egia hipotetikoaren edo hauetara bil daitezkeen ezagutza ere (disjuntiboak eta beste); hauetan proposizio aurrekaria eta atzekariaren artean harremana sortzen denez, ideia bi baino gehiago sar daitezke.

(§ 3) FILALETES: Muga gaitzen hemen egiaren ezagutzara eta ideien arteko loturaz esatekoa egoki dezagun proposizioen arteko loturetar, horrela batera ulertuko ditugu ideia kategorikoak eta hipotetikoak. Nire ustez egokitasun / desagokitasun hori lau motetara laburbil dezakegu: 1) identitate edo dibertsitate, 2) erlazio, 3) koexistentzia edo halabeharrezko lotura, 4) existentzia erreala. (§ 4) Izpirituak berehala antzematen baitu ideia bat ez dela bestea, zuria ez dela beltza, (§ 5) elkarrekin alderatzean jabetzen baita bereizketaz; adibidez, oinarri berdineko eta paraleloen artean aurkitzen diren triangelu bi berdinak direla. (§ 6) Honen ondoren dator koexistentzia (hobeto esan, lotura), urrearen gainontzeko ideiekin beti finkotasuna datorren moduan. (§ 7) Eta azkenik, izpiritutik at existentzia erreala dago, zera esaterakoan, adibidez: Jainkoa existitzen da.

TEOFILO: Nire ustez, orokorrean hartutako harremana edo erlazioa besterik ez da lotura. Eta gorago azpimarratu dut harreman oro dela alderaketazkoa ala elkargunezkoa. Alderaketazkoak dibertsitatea ematen digu eta identitatea, erabatekoa batzuetan, zati batekoa besteetan; honek osatzen du berbera eta berezia, antzekoa eta ezberdina. Elkarguneak barne hartzen du zuk koexistentzia deritzozuna, hau da, existentziazko lotura. Baina zerbait existitzen dela diogunean, edota zerbaitek existentzia erreala daukala, existentzia hau berau da predikatua, esan nahi baita ideia horrekin zerikusirik duen nozioa duela, eta bi nozio hauen arteko lotura sortzen da. Ideia baten objektuaren existentzia objektu horren nirekiko elkargunetzat ere har daiteke. Hartaz, zilegi zaigu esatea alderaketa eta elkargunea besterik ez dagoela; eta identitatea eta dibertsitatea adierazten dituen alderaketa eta gauzaren nirekiko elkargunea direla gainerakoen artean nabarmendu behar ditugun harremanak. Honi buruz ikerketa zehatzagoak eta sakonagoak egin daitezke baina oraingoagatik emandako oharra aski direla uste dut.

(§ 8) FILALETES: Bada uneko ezagutza (connaissance actuel) bat, ideien arteko erlazioaren uneko pertzepzioa dena, eta ohiko ezagutza (connaissance habituelle), ideien arteko egokitasun / desagokitasunaz izpiritua hain argi ohartu denean eta bere oroimenean halako moldez ezarri, non proposizio horretaz hausnartzen duen aldi oro hasieratik ziur dagoen barne hartzen duen egiaz, inongo zalantzarik gabe. Gizakiek euren pentsamenduan uneko objektua besterik ezagutuko ez balute guztiz ezjakinak lirateke, ez baitira gai aldiko gauza bat baino pentsatzeko argi eta era berezian; eta guztietan jakintsuenak egia bat soilik ezagutuko luke.

TEOFILO: Egia da gure zientziarik frogagarrienak ere, sarritan dedukzio katea luzearen ondorio izaki, iraganeko frogapenaren baten oroitzapena hartu behar duela barnean, eta ondorioa erabakitzean ez dugu hau zehazki aintzat hartzen; bestela, frogapena etengabe errepikatzen ihardungo genuke; eta dirauen bitartean ezingo genuke ulertu osotasunean eta aldi berean ezinezkoa litzatekeelako haren atal guztiak batera gure izpirituan egotea; beraz, begien aurrean beti lehenagokoa edukiz, ezin izango ginateke sekulan ondoriora garamatza azkenerantza abiatu. Hartaz, idatzirik gabe nekez finkatuko genituzke zientziak, oroimena ez baita horretarako aski segurua. Baina idatzita ematen bada frogapen luze bat, Apolonioren kasu, eta honen atal guztiak, katebakiak bailira, banan-banan berrikusiko bagenu, gizakiak euren arrazoinamenduez ziur egongo

lirateke: horretarako dira frogak eta arrakastak dena justifikatzen du azken finean. Argi dago, halere, iraganean ikusitakoaren oroitzapenean edo arrazoi eta frogatan oinarritutako sineste orotan ez dagoela gure eskumenean ez eta gure aukera librepean sinestea ala ez sinestea, oroimena ez delako gure nahimenaren menpeko zerbait.

(§ 9) FILALETES: Gure ohiko ezagutza bi mota edo mailatakoa izan ohi dela egia da. Batzuetan gure oroimenean gordeta geratu diren egiak ez dira izpirituan agertzen, bertan dauden ideien arteko erlazioa honek soma dezan arte; batzuetan, ordea, aski du izpirituak sinesteaz oroitzea, frogarik gogoratu gabe eta sarritan, nahi izanda ere, hauek erakutsi ezinean. Pentsa genezake oroimenean sinestea dela, egia horren ezagutza erreala baino areago, eta noizbait iruditu zait iritzia eta ezagutzaren arteko erdigunea dela edota inoren testigutzan oinarritutako ezagutza sinplea gainditzen duen ziurtasuna. Baina honetaz asko pentsatu ondoren, ezagutza horrek bere baitan erabateko ziurtasuna daukala uste dut. Gogoratzen dut, hau da, ezagutzen dut (oroitzapena iraganaren berritzea baino ez baita) inoiz proposizio honen egiaz etsiturik egon nintzela, alegia, triangeluaren hiru angeluek bi angelu zuzen osotzen dutela. Hortaz, gauza aldaezin beraien arteko erlazioen aldaezintasuna orain bitartezko ideia da, inoiz berdinak izan badira horretan jarraituko dutela ikustera naramana. Horretan oinarrituta, frogapen partikularrek matematikan ezagutza orokorrak hornitzen dizkigute; hala ez balitz, geometrilari baten jakintza berak frogarako marraztu duen irudira mugatuko litzateke.

TEOFILO: Aipatzen duzun bitartezko ideia horrek gure oroitzapenaren leialtasuna ontzat ematen du; batzuetan, ordea, gure oroitzapenak iruzur egiten digu, eta behar ziren egiaztabideak egin-ezaz ohartzen gara, artean baietz uste bagenuen ere. Kontuak berraztertzerakoan nabarmentzen da hau. Ofiziozko ikuskatzaileak ere badira, hala nola Harzeko gure meatzeetan, eta meatze partikularretako diru-biltzaileek arduratsuago joka dezaten, zenbatze akats bakoitzeko diru-isuna ezarri da, baina hala eta guztiz aurkitzen dira oraindik ere. Egia da, bestalde, zenbat eta ardura gehiago hartu, orduan eta konfiantza gehiago mereziko digutela iraganeko arrazoinamenduek. Kontuak egiteko modu bat taxutu dut, zutabeetako batuketak egiaztatzean arrazoinamenduaren jarraia paperera aldatuz, eta hau ez da alferrekoa: beti itzul zaitezke aurrekoa ikustera eta azken akatsak zuzen ditzakezu, lehenengoetan eraginik sortu gabe; era berean, inoren berrazterketak ez du ia lanik, ikur horiek begi-bistan baititu. Gauzak banan-banan egiaztatzeko modua ere badago, froga guztiz eroso baten bidez eta honek ez du askorik gehitzen kontugintza lana. Honi guztioni esker, uler daiteke gizakiak iritsi daitezkeela frogapen zorrotzetara paperean, eta, zalantzarik gabe, egin dituzte makina bat holakoak. Baina zorrotzasun osoz burutu dituztela oroitzen ez badira, ezingo dute izpirituan ziurtasunik eduki. Zorrotzasuna honetan datza, alegia, halako moldez dagoela taxutua, non edozein atali buruz egindako oharpidea osotasunari begira ere berme izango den; katebegiak aztertzerakoan bezala, banan-banan ikusiz ea tinko dauden eta eskuz neurriak hartuz bat bera ere huts egin ez dezagun; horrela egon gaitezke ziur katearen sendotasunaz. Jokamolde horrekin lor dezakegu giza gaietan existi daitekeen ziurtasunik handiena. Matematikan irudi marraztu berriaren gainean egindako frogapen partikularrek ziurtasun orokorra damaigutela diozunean, ez nago ni zurekin ados; zeren jakin beharrekoa baita geometrialarien artean irudiek ez dutela frogarik eskaintzen, tankera ektetikoak²⁴² hori sinestarazi badigu ere. Frogapenaren indarrak ez du irudi marraztuarekiko menpetasunik, esan nahi dena ulertzeko eta adi egoteko baino ez baitu honek balio; proposizio unibertsalek eusten diote arrazoinamenduari, hots, definizioek, axiomek eta teorema frogatuek, eta irudirik gabe ere hala eutsiko liokete. Horregatik Scheubelius geometrilari jakintsuak Euklidesen irudiak aurkeztu zituen haiekin batera doan frogapenerako letrarik gabe; eta Herlinusek frogapen horiek guztiak silogismoetara eta prosilogismoetara bildu zituen²⁴³.

II

Gure ezagutzaren mailak

(§ 1) **FILALETES:** Izpiritua ohartzen denean ideia biren arteko egokitasuna edo desegokitasuna berezkoa dela, bitartekorik gabekoa eta beste ezein ideiarene eraginik gabekoa, ezagutza hori intuiziozkoa da. Horrela denean, izpirituak ez du nekerik hartuko egia frogatzen edo aztertzen. Begiak argia bezalaxe ikusten du izpirituak zuria ez dela beltza, zirkulua ez dela triangelua, bi gehi bat hiru dela. Giza ahultasunak eduki dezakeen ezagutzarik argiena eta ziurrena dugu hau; ezin zaio kontra egin eta izpirituari ez zaio duda izpirik ere agertzen. Guk nabaritu bezala, ideia izpirituan dagoela jakitean datza hau. Ziurtasun handiagorik eskatzen duenak ez daki zer eskatzen duen.

TEOFILO: Intuizioz ezagutzen diren lehen egiak, eratorrizkoak bezala, bi motatakoak dira. Arrazoizko egiak izan daitezke edota egitatezkoak. Arrazoizko egiak beharrezkoak dira, egitatezkoak beharbadakoak. Arrazoizko egia lehenei nik, oro har, identikoak deritzet, gauza bera errepikatu baino ez baitute egiten itxuraz, guri ezer berririk irakatsi gabe. Baiezkoak ala ezezkoak izan daitezke. Baiezkoak honelakoak dira: , edota nahi adina adibidetan, , Eta hipotetikoetan: . Kopulatiboek, disjuntiboek eta hainbat proposizioak identizitate berau adieraz dezakete eta baiezkotzat hartzen ditut ondokoak: , edota hipotetiko hau: edota . Ezezko identikoetara pasa gaitezen; kontraesan printzipiotik sortzen dira hauek, edo disparteetatik. Kontraesan printzipioa, oro har, hau da: proposizio bat egiazkoa da ala faltsua; bi enuntziazio egiazko biltzen dira hemen, bata, egiazkoa eta faltsua ez direla proposizio berean bateragarri, hau da, proposizio bat bera ezin daitekeela egiazkoa eta aldi berean faltsua izan; bestea, egiaren eta faltsuaren kontrakoa eta ukoa ere ez direla bateragarri, hots, ez dagoela bitartekotzarik egiazkoa eta faltsuaren artean, edota: ezinezkoa da proposizio bat ez egiazko, ez faltsu izatea. Burura daitezkeen proposizio guztietan da hau egia, baina batik bat honelakoetan, . Beraz, . . . Era askotara alda daitezke enuntziatuak eta kopulatiboetara, disjuntiboetara eta beste hainbatera egokitu. Ideia baten objektua ez dela beste ideia baten objektua dioten proposizioak disparteak dira, hala nola, edota gizaki oro animalia izan arren. Hau guztia baieztatu dezakegu inolako frogaren menpetasunik gabe, edota kontrakora edo kontraesan printzipiora murriztu gabe, ideioek analisi premiarik gabe nahiko ulergarri diren bitartean; hala ez balitz, geure buruak engainatzeko zorian geundeke, zeren esatean oker baixeundeke; izan ere, ondo aztertuz gero, argi dago hiru aldeak eta hiru angeluak beti doazela elkarrekin. Beste hau esatean ere huts egingo genuke, alegia: . Zeren gertatzen baita, denak angelu zuzenak eduki ditzakeen irudi bakarra laukia dela. Halaz ere, beti esan dezakegu abstraktuki edota triangeluaren eta trilateroaren arrazoi formalak ez direla berberak, filosofoek diotenez. Gauza bat beraren erlazio ezberdinak dira.

Orain arte esandakoa pazientziaz ulertu ondoren, norbaitek pazientzia hori galduta esango du aipamen arinetan luzatzen garela eta egia identiko horiek guztiek ez dutela ezertarako balio. Baina gai hauek ongi ez hausnartuaren ondorio da juzku hori. Logikatik ateratako ondorioak (adibidez) printzipio identikoez frogatzen dira; eta geometrialariek kontraesan printzipioa ezinbestekoa dute euren frogapenetan, absurdura eramanez egiten direnean. Muga gaitezen hemen arrazoinamendu bidez ateratako ondorioen frogapenetan erabiltzen diren identikoak erakustera. Nire ustez, kontraesan printzipio soila aski da silogismoaren bigarren eta hirugarren figurak lehenengoaren bidez frogatzeko. Adibidez, lehen figuran, Barbaran, ondorio hau ateratu dezakegu:

B oro da C,

A oro da B,

Beraz, A oro da C.

Demagun ondorioa faltsua dela (hots, A-ren bat C ez izatea), orduan premisetako bat faltsua izango da. Demagun bigarrena egiazkoa dela, orduan lehenengoak izan beharko du faltsua, hau da, B oro C dela dioena. Beraz, honen kontraesanezkoa egia izanen da, hots: B-ren bat ez da C izango. Eta hau argumentu berri baten ondorioa da, ondorioaren faltsutasunean eta aurrekoaren premisetako baten egian oinarritutako argumentuaren ondorioa, alegia. Hona argumentu berria:

A-ren bat ez da C

Faltsutzat hartu dugun aurreko ondorioaren kontraesanezkoa da.

A oro da B

Egiatzat hartutako aurreko premisa da.

Beraz, B-ren bat ez da C

Oraingo ondorio egiazkoa da, aurreko premisa faltsuaren kontraesanezkoa.

Argumentu hau hirugarren figurako Disamis moduan burutzen da eta nabarmen eta bat-batean frogatzen da lehen figurako Barbara modutik, kontraesan printzipioa soilik erabiliz. Gaztaroan, hauek aztertzen ari nintzela, ohartu nintzen bigarren eta hirugarren figurako modu guztiak lehenengotik erator daitezkeela metodo soil honen bidez, alegia, lehenengo figurako modua ontzat hartuz eta, beraz, honen ondorioa faltsua izaki (edota honen kontraesanezkoa egiazkotzat hartuz) eta premisetako bat ere egiazkotzat hartuz, beste premisaren kontraesanezkoa egiazkoa izan behar du. Eskola logikoetan nahiago izaten da konbertsio bidez figura xumeagoak lehenengotik, hots printzipaletik, eratorzea, erosoagoa delako hau, antza, ikasleentzat. Baina arrazoi frogatzaileen bila dabilzanentzat, eta hemen ahalik eta suposiziorik gutxien erabili behar da, ez da frogatuko konbertsio suposatuen bidez jatorrizko printzipio soilaz frogatzen daitezkeena, kontraesan printzipioz alegia, eta honek ez du deus supostutzat ematen. Beste oharpide azpimarragarri hau ere egin dut, alegia, figura xumeagoak soilik, zuzenak deritzenak, hau da, bigarrena eta hirugarrena, frogatzen daitezkeela kontraesan printzipio soilaren bidez: figura zeharkako xumeagoak ordea, laugarrenak alegia, arabiarren ustez Galenok²⁴⁴ aurkitu zuenak, guk honi buruz haren liburuetan deus ikusi ez dugun arren, ez eta gainontzeko idazle grekoetan ere, laugarrenak, diot, eragozpen hau dauka, alegia, ezin daitezkeela eratorri lehenengo edo printzipaletik metodo honen bidez soilik, eta beste suposizioen bat erabili behar dela, hots konbertsioak; halako moldez non bigarrena eta hirugarrena baino gradu batez urrunago dagoen, hauek maila berean daudelarik eta lehenengotik urrunera berdinean; laugarrenak, aldiz, bigarrenaren eta hirugarrenaren beharra dauka, frogatua izango bada. Gertatzen baita, hain zuzen ere, honek behar dituen konbertsioak bigarren eta hirugarren figuretatik frogatzen direla eta hauek konbertsioekiko menpetasunik gabe dira frogagarri, azaldu berri dudanez. Pierre de la Ramée²⁴⁵ izan zen figura bidezko konbertsioaren frogagarritasunaz ohartu zen lehena; eta (oker ez banago) figura horiek frogatzeko konbertsioa erabiltzen zuten logikariei gurpil zoroan jausten zirela kontraesan zien, nahiz eta ez izan gurpil zoroa, hain zuzen ere, objekziorik egokiena (ez baitziren figurez baliatzen konbertsioak justifikatzerakoan) hysteron proteron²⁴⁶ delakoa edo inbertsioa baizik; zeren konbertsioen frogatzen izan behar baitira figura horiek eta ez alderantziz, figurenak konbertsioak. Eta konbertsioen frogatzen izan behar baitira digularik askorentzat erabat txepelak diren identitate baiezkoren erabilpena, hemen azaltzea egoki ikusten dugu. Kontraposiziorik gabeko konbertsioetara mugatuko naiz, aski baita honako, bakunak edo akzidentezkoak deritzegunak, alegia. Bi motatakoak dira konbertsio bakunak: unibertsal ezezkoarena bata, hala nola, , beraz, ; eta partikular baiezkokoarena bestea, hala nola, , beraz, . Akzidentezko konbertsioa delakoa unibertsal baiezkokoari egokitzen zaio, hala nola, , beraz, . Laukizuzena angelu guztiak zuzenak dituen irudia da; eta karratua, lauki erregularra. Orain frogatuko ditugu hiru konbertsio mota hauek:

1. Ezein A ez da B, beraz ezein B ez da A.
2. A-ren bat B da, beraz B-ren bat A da.
3. A oro B da, beraz B-ren bat A da.

Lehen konbertsioaren frogapena, bigarren figurarena den Cesare-n:

Ezein A ez da B

B oro B da

Beraz, ezein B ez da A

Bigarren konbertsioaren frogapena, hirugarren figurarena den Datisi-n:

A oro A da

A-ren bat B da

Beraz, B-ren bat A da

Hirugarren konbertsioaren frogapena, hirugarren figurarena den Darapti-n:

A oro A da

A oro B da

Beraz, B-ren bat A da

Hemen ikusten da proposizio identikorik soilenak, alferrenak ere iruditu arren, zeinen erabilgarri diren abstraktuan eta orokorrean; horrek irakasten digu ez dugula gaitzetsi behar inongo egia. Ezagutza intuitiboen eredu gisa zuk aipatutako proposizio honi buruz, dienez alegia, hiru zenbakiaren definizioa baino ez dela argitu behar dizut; honela osatzen baitira, izan ere, definiziorik sinpleenak: bat eta bat bi dira, bi eta bat hiru, hiru eta bat lau, eta horrela jarraian. Egia da hor isilpeko aipamena dagoela, lehen ere adierazi dudana, hots, ideia horiek ahalgarriak direla: eta hau intuitiboki ezagutzen da kasu honetan, halako moldez non baieztatu daitekeen definizioek, ahalgarritasuna lehen unetik nabarmen denean, barne hartzen dutela ezagutza intuitiboa. Horrela, definizio egoki orok bere baitan dauzka arrazoizko lehen egia eta, ondorioz, ezagutza intuitiboak. Oro har eta laburbilduz, esan daiteke arrazoizko lehen egia oro arartegabekoak direla ideien arartegabetasunetik abiatuta.

Egitatezko lehen egiei dagokienez, arartegabeko barne esperientziak dira sentimentuzko arartegabetasunekoak. Hemen kokatzen da kartesiarren edo San Agustinen²⁴⁷ oinarritzeko egia: Pentsatzen dut, beraz, banaiz, hau da: pentsatzen duen gauza bat naiz. Jakin beharrekoa da, baina, proposizio identikoak orokorrak edo partikularrak izan daitezkeen moduan eta batzuk bezain argiak besteak (zeren hain argia baita A A da esatea, nola gauza bat dena da esatea), berdin gertatzen dela egitatezko lehen egiekin. Berehalakoan argi zait, izan ere, pentsatzen dudala, eta hori bezain argi pentsamendu ezberdinak ditudala, orain A pentsatzen baitut eta gero B, etabar. Hartaz, printzipio Kartesiarra ongi dago, baina ez da espezie horretan bakarra. Beraz, arrazoizko edo egitatezko lehen egia oro bat datoz honetan, alegia, egiazkoago den zerbaitetan oinarriturik ezin daitezkeela frogatu.

(§ 2) FILALETES: Atsegin zait, jauna, nik ezagutza intuitiboen alorrean ukitu baino egin ez nuena zuk hain sakon landu izana. Baina, ezagutza frogagarria ezagutza intuitiboen kateadura baino ez da, bitartezko ideien lotura guztietan. Sarritan izpirituak ezin ditu ideiak berehalakoan bata besteari erantsi, erkatu edo aplikatu, eta horrek behartzen gaitu bitartezko beste ideiez (bat ala zenbait) baliatzera, bila gabiltzan egokigarritasuna ala egokigarritasunik eza aurkitzeko, eta honi deitzen diogu arrazoitu. Triangeluaren hiru angeluek bi angelu zuzen osatzen dutela frogatzean, beste angelu batzuk ere aurkitzen ditugu triangeluaren hiru angeluen berdinak edota bi angelu zuzenena. (§ 3) Tartean esku hartzen duten ideia horiei frogak deritzegu eta izpirituak haiek aurkitzeko duen gaitasunari zuhurtzia. (§ 4) Aurkitu ondoren ere, ezagutza hori ez da nekerik gabe eta arretarik gabe lortzen, ez eta gainbegirada soil batez; apurka-apurka eta mailaka, ideien progresio jarraian sakondu behar da (§ 5), eta frogatu aurretik zalantzak izango dira. (§

6) Ez da intuitiboa bezain argia, ispilu askotan islatzen den irudia batetik bestera isla bakoitzean lausoagotzen den modukoa baita, azkenerako ia ezagutezina bihurtzen delarik, ikusmen ahulekoentzat batik bat. Beste horrenbeste gertatzen da froga sail luzearen ondorio den ezagutzarekin. (§ 7) Arrazoimenaren froga-urrats bakoitza ezagutza intuitiboan oinarritutakoa edo ikuste hutsezkoa izan arren, gizakiek sarritan faltsukeriak hartzen dituzte frogatzat, frogen erreskada luze horretan oroimenak ez baitu zehatz-mehatz gordetzen ideien lotura.

TEOFILO: Berezko zuhurtziaz edota ihardunean lortutakoaz gain, bada ararteko ideiak (medium-a) aurkitzeko trebezia bat: arte hau analisisia da. Kontuan hartu behar da hemen proposizio emanaren egia ala gezurra aurkitzen ari garela batetik, eta hau galdera motari erantzutea besterik ez da, hots, ea baden ala ez; eta bestetik, galdera zailago bati erantzun bila gabiltza (caeteris paribus)²⁴⁸, galde egiten baitugu, adibidez, norengatik eta nola? eta hemen erantzuna zabalagoa da. Proposizioaren atal bat zuritan (hutsik) uzten duten galdekizun hauei deitzen diete matematikariek problemak. Hala, adibidez, eguzkiaren izpi guztiak puntu batean bilduko dituen ispilua aurkitu nahi denean, honen irudia nolakoa den edota nolatan egin daitekeen jakin nahi da. Egia eta faltsua soilik eztabaidatu eta subjektuan eta predikatuan deus ere osatu beharrik ez daukaten lehen galdekizunei buruz asmaketa gutxiago dago, zerbait badagoen arren, eta aburu hutsa ez da aski. Dudarik gabe, gizaki zentzudunak, hau da, arreta eta zuhurtzia duenak, betaz, pazientziaz eta izpiritu askez, frogapenik zailena ere uler dezake egokiro planteatzen bazaio. Baina munduko gizakirik zuhurrena ere ez da beti gai izango, bestelako laguntzarik gabe, frogapen hori aurkitzeko. Beraz, honetan ere badago asmaketarik, eta geometrialarien artean behinola gehiago gaur baino. Analisisia gaur egun bezain landua ez zegoenean, zuhurtzia gehiago behar zen arrakasta izateko; hori dela eta, molde zaharreko zenbait geometrilarik edota oraindik ere metodo berrietara nahiko zabaldu ez direnek mirariak egiten dituztela uste dute, inork asmatutako teoremaren baten frogapena aurkitzen dutenean. Baina asmakizunaren artean adituek ondotxo dakite noiz den zerbait estimagarri eta noiz ez; adibidez, norbaitek argitara ematen badu lerro kurboa eta zuzenaren artean dagoen gunearen koadratura, beronen segmentu guztietan balioduna, nik orokorra deritzodana, frogapena aurkitu ahal izango diogu beti gure metodoekin, horretarako lanak hartzeko prest bagaude. Baina, atal batzuetan badira koadratura partikularrak, eta hauetan hain estalita egon daiteke gauza ezen ez baikara beti in potestate²⁴⁹ egongo hura desestaltzeko oraingoz behintzat. Gertatu ohi da, halaber, indukzioak egiak aurkezten dizkigula zenbakietan eta irudietan, hauen arrazoi orokorrik oraindik aurkitu ez badugu ere. Eta oso urruti gaude oraindik geometrian eta zenbakietan analisiaren perfekzioetik, batzuek iritsi garela uste izan duten arren, zenbait jakintsu urduriegi edota handizaleegiren fanfarroikeriatan oinarriturik.

Askoz ere zailagoa da egia garrantzitsuak aurkitzea, are eta zailagoa bilatzen duguna egiteko bideak aurkitzea, bila gabiltzanean hain zuzen, inork deskubritutako egien frogapena aurkitzea baino. Sarritan iristen gara egia ederretara sintesi bidez, bakunetik konposatura iraganez; baina asmotan duguna egiteko bidea aurkitu nahi dugunean, hain zuzen, sintesia ez da aski izaten ohi, eta behar diren konbinazio guztiak egin nahi izatea itsasoa irentsi nahi izatea litzateke, baztertze metodoan, alferreko konbinazio pila bat alboratuz, laguntza aurki dezakegun arren; naturak sarri ez du beste metodorik onartzen. Baina ez gaude beti honi jarraitzeko moduan. Analisiari dagokio labirinto honetan guri hari bat luzatzea, ahal denean, zeren batzuetan auziaren izakerak berak behartzen baikaitu handik eta hemendik itsuka aztakatzera, laburpenak ez baitira beti ahalgarri.

(§ 8) FILALETES: Frogatzeak beti dakartzalarik berekin ezagutza intuitiboak, nire ustez, honen ondorio dugu axioma hau, alegia, arrazoinamendu oro dator aurrez ezagutuak eta onartuak izan diren gauzetatik (ex praecognitis et praeconcessis). Baina axioma honen faltsukeriaz mintzatzeko aukera izango dugu, gure arrazoinamenduen oinarritzat bide okerretik hartzen ditugun maxime*i* buruz iharduterakoan.

TEOFILO: Hain bidezko dirudien axioma horretan zein faltsukeria aurkitzen duzun jakiteko irrikaz naukazu. Beti eta dena ezagutza intuitiboetara laburbildu beharko balitz, orduan frogapen oro lirateke maiz jasanezinezko gehiegikeriaz josita. Horregatik matematikariek zailtasunen arabera sailkatu dituzte zuhurki galdekizunak eta banan-banan frogatu dituzte erabateko probleman esku hartzen duten proposizioak. Hemen ere artea dago; zeren tarteko egiak (lekuz kanpo bide daudenean lemak deritzenak) era ezberdinetan landu daitezkeenez, ulermenarentzat eta oroimenarentzat lagungarri baita aise laburtzen direnak eta berez frogagarri eta oroigarri diruditenak hautatzea. Beste eragozpen hau ere badago, hots, ez dela erraza axioma guztiak frogatzea eta frogapenak ezagutza intuitiboetara osoki murriztea. Horrelako zerbait lortu nahi izan baten, geometria zientzia gisa ez genukeen oraindik eskuratuko. Baina, honetaz ihardun gara gure lehen solasaldietan, eta gero ere izango dugu mintzatzeko beta.

(§ 9) FILALETES: Laster itzuliko gara gai horretara. Orain behin eta berriro ukitutako iritzi arrunt hau azpimarratu nahi dut, alegia, zientzia matematikoak soilik direla ziurtasun frogagarria dutenak; baina, intuitiboki ezagut daitezkeen egokitasuna eta desagokitasuna ez direlarik zenbakien eta irudien ideiei bakarrik atxiki dakiekeen pribilegioa, matematikak soilik iritsi badira frogapenetara, agian gure aldetiko aplikazio ezagatik izan daiteke. (§ 10) Zenbait arrazoi bat etorri dira horretan. Zientzia matematikoak onura orokorrekoak dira; euren arteko diferentziarik xumeena nabarmen geratzen da. (§ 11) Gure baitan gertatzen diren itxura edo egoerei dagozkien gainerako ideia bakunek ez daukate euren maila ezberdinen inolako neurri zehatzik. (§ 12) Baina koalitate ikusgarrien aldea, adibidez, izpirituan ideia bereizi nabarmenak eragiteko bezain handia denean, urdinarenak edo gorriarenak kasu, frogapena orduan ahalgarri da, zenbakiaren eta hedaduraren kasuan den bezala.

TEOFILO: Matematiketarik kanpo baditugu kontuan hartzekoak diren frogan adibideak, eta esan daiteke Aristotelesek berak ere eskaini zizkigula batzuk bere Lehen Analitikoetan. Izan ere, logika frogapenerako gai da, geometria den bezainbeste eta esan daiteke geometrilarien logika edo Euklidesek proposizioez ari zenean azaldu eta erabili zituen argudio moduak logika orokorraren promozio edo luzapen partikularra baino ez direla. Guk ezagutzen ditugunetarik, Arkimedes izan zen frogapenaren artea lantzen lehena fisikaren alorrean Orekari buruz²⁵⁰ idatzi zuen liburuan. Esan daiteke, halaber, legelariak ere badituztela zenbait frogapen bikain; batez ere Erromako legelari zaharrek, berauen atal batzuk Pandectak izeneko idazkietan geureganatu ditugularik. Lorenzo Vallarekin²⁵¹ erabat ados nago; berak diosku idazle horiek gero eta gehiago miresten dituela, besteak beste, hain zehatz eta hain argi mintzo direlako, frogapenera arras hurbiltzen den eran arrazoitzen dutelarik, sarritan modu erabat frogagarrian. Erromatarrek grekoetatik hartutakoari ezer funtsezkorik gehitu dioten zientziarik ez dut ezagutzen, zuzenbidea eta armen zientzia salbu.

Tu regere imperio populos, Romane, memento,

Hae tibi erunt artes: pacique imponere morem,

Parcere subjectis, et debellare superbos.²⁵²

Adierazpen zehaztasun honi esker, Pandectetan agertzen diren legelari horiek guztiak, sarritan aldi ezberdinetakoak izan arren, idazle bat bera bailiran ari dira eta idazleen izenak atalburuetan agertuko ez balira, arazoak izango genituzke haiek bereizten; zaila litzateke, halaber, Euklides, Arkimedes eta Apolonio bereiztea, hiruok ukitu dituzten

gaiez frogapenak irakurriz. Aitortu beharra dago grekoek arlo matematikoan egundoko zehaztasunez arrazoitu dutela eta frogapenen artearen ereduak utzi dizkiotela ondare gizadiari: zeren babiloniarrek eta egiptoarrek zer baitetan gainditu bazuten geometria enpirikoa, ez zaigu horien arrastorik ere geratu; harritzekoa da, ordea, greko horiexen beherakada, zenbakiak eta irudiak apur bat baztertu eta filosofiaren eremuan sartu zirenetik. Harritzekoa da frogapen izpirik ere ez aurkitzea Platonengan eta Aristotelesengan (honen Lehen Analitikoak salbu) ez eta gainerako filosofo zaharretan. Proklo geometrialari bikaina zen, baina beste norbait dirudi filosofiaz ari denean. Demonstratiboki arrazoitzea matematiketan errazagoa izan da gehienbat, arlo honetan esperientziak une oro arrazoinamendua berma dezakeelako, eta gauza bera gertatzen da silogismoen figuretan. Baina metafisika eta moralean arrazoiaren eta esperientziaren arteko paralelismoa ez dago; eta fisika esperientziak nekea eta gastua dakarte berekin. Hartara gizakiak lehenik arreta erlaxatu eta jarraian desbideratu egin dira esperientziaren gidaritza zintzoa galdu dutenean, honek laguntzen eta eusten baitzien ibilbidean, umea ibili nahian jaustea eragozten duen gurpildun tresnatxo horrek egiten duen moduan. Succedaneum (ordeko) zer bait bazegoen, baina ez ziren eta ez dira oraindik ere horretaz aski jabetu. Gai hau ere jorratuko dugu bere garaia iristean. Nolanahi ere, urdinak eta gorriak, guk haietaz ditugun ideietatik, ozta-ozta eskaini ahal izango digute frogapenatarako gairik, ideia horiek nahasiak direlako. Koloreok ez dute arrazoinamendurako aukerarik ematen esperientzia bidez zenbait ideia bereiziez aurkitzen ez baditugu, baina euren ideia propioekiko lotura ez da hemen agertzen.

(§ 14) **FILALETES**: Gure bi ezagutza mailak osatzen dituzten intuizioak eta frogapenak kanpo, gainerakoa fedea da edo iritzia, inondik ere ez ezagutza, egia orokor guztiei dagokienean bederen. Baina izpirituak badu beste pertzepzio mota bat, gugandik at dauden izaki mugatuei erreparatzen diena, eta hau sentimenezko ezagutza da.

TEOFILO: Egiantzekoan oinarritutako iritzia ere merezi du agian ezagutza izena; hala ez balitz, ezagutza historiko ia guztiak eta beste hainbatek lurjoko ligukete. Izenen eztabaida alde batera utzita, nire ustez probabilitate mailen ikerketa garrantzizkoa litzateke eta hutsune hau gaurregungo gure logikariaren akats handia da. Auzi bat erabat ebatzi ezinean geratzen denean, gutxienik egiantzekotasun maila zedarritu zitekeen ex datis²⁵³, eta ondorioz, zentzuz erabaki daiteke zein bide hartu. Eta gure moralistek (zuhurrenez ari naiz, hala nola, jesuiten gaurko jeneralaz)²⁵⁴ ziurrena eta probableena kideren dituztenean eta ziurra probablea baino nahiago dutenean, ez dira probableenetik urruntzen; hemen, izan ere, ziurtasunaren auzia gaitz ikaragarri baten probabilitate eskasarena da. Puntu hau ia ukitu ere ez duten moralisten akatsa izan da probablearen nozio mugatu eta murriztegia izan dutela, Aristotelesen irizgarriarekin edo endoxoa delakoarekin nahasi baitute; zeren Aristoteles bere Topikoetan gainerakoan iritzietara egokitu baino ez baita egin, hizlariak eta sofistak egin ohi zuten moduan.

Endoxoa zeritzoten gehiengotik edota jakintsuenetik hartutakoari²⁵⁵: bere topikoak honetara murriztean oker egin zuen Aristotelesekin, eta bide horretatik hartutako maximetara mugatu zen, hauetarik gehienak lausoak, quolibet edo atsotitz soiluz arrazoitu nahi izango bailitzan. Probablea, ordea, eta egiantzekoa hedatuago daude: gauzen izaeratik eratorri behar ditugu; eta pisu handiko pertsonen itzala iritzi bat egiantzeko egiterakoan laguntza da, baina horrek ez du egiantzekotasun osoa burutzen. Kopernikek, ia inoren laguntzarik gabe, bere iritzia defendatzen zituenean, iritzi hauek askoz ere egiantzekoak ziren gainontzeko gizadi osoarenak baino. Halere, egiantzekoak zenbatzeko artearen ebazpena ez ote litzatekeen gure zientzia frogagarri gehienak baino baliotsuago ez dakit, baina hala uste izan dut behin baino gehiagotan.

FILALETES: Gugandik kanpoko izaki partikularren existentzia finkatzen duen sentimenezko ezagutza probabilitate hutsa baino areago luzatzen da; ez du, baina, aipatu

berri ditugun bi ezagutza mailen ziurtasun osoa. Kanpoko objektu batetik hartutako ideia gure izpirituan dagoela benetan da ziurra eta hau ezagutza intuitiboa da: batzuek, ordea, zalantzan jartzen dute ea hortik ziurtasunez erakar dezakegun ideia horri dagokion gugandik kanpoko zerbaiten existentzia, zeren gizakiok horrelako ideiak eduki baititzaiegun izpirituan aktualki antzekorik ezer existitzen ez denean. Nik neuk, halere, uste dut badela froga maila bat zalantza oroz haraindi garamatzana. Erabat gaude sinetsita egunez eguzkira begiratzean daukagun pertzepzioa eta gauez astro horretaz pentsatzean daukaguna arras ezberdinak direla; oroimenaren laguntzaz berritzen den ideia eta aktualki sentimenen bidez datorkiguna guztiz dira ezberdinak. Norbaitek esan dezake ametsak ondorio bera eragin dezakeela; eta nik erantzun, lehenik, zalantza hori argitzeak ez duela axola handirik, zeren oro ametsa balitz alferrekoak lirarteke arrazoinamenduak, egia eta ezagutza deusez hutsa izaki. Bigarrenik, onartuko duela uste dut norbera sutan dagoela amets egitearen eta egiazki sutan egotearen arteko aldea. Eta bere eszeptizismoan amore eman nahi ez badu, esanen diot aski dela ziurtasunez onartzea plazerra eta oinazea zenbait objektuen eragina dela gudan, objektuok egiazkoak ala ametsezkoak izan, eta ziurtasun hau gure zoriona edota zorigaitza bezain handia dela: eta bi gauza hauen haraindiko interesik ez daukagu. Beraz, hiru ezagutza mota bereiz ditzakegula uste dut: intuitiboa, frogagarria eta sentimenezkoa.

TEOFILO: Arrazoi duzula uste dut, jauna, eta gainera nire aburuz, ziurtasun espezie horiei edo ezagutza ziurrari erants diezaiekezu egiantzekoaren ezagutza; bi ezagutza mota leudeke, hartaz, bi froga mota dauden moduan, batzuek ziurtasuna ematen dute, besteek ezin dute probabilitatea gaintitu. Baina, azter dezagun eszeptikoek dogmatikoekin daukaten auzia, hots, gugandik kanpoko gauzen existentziari buruzkoa. Lehen ere aipatutako auzia dugu hau, baina bertora itzultzea komeni zaigu. Behinola eztabaida luzeak izan ditut horretaz, ahozkoak eta idatziz, Foucher erretore jaun defuntuarekin²⁵⁶, Dijonen kanonigo izaki, gizon jakintsu eta sotila baina bere akademikoei lotuegia; atsegin handiz berpiztuko zukeen hauen sekta, Gassendik Epikurorena eszenatokietara itzularazi zuen moduan. Recherche de la vérité-ri berak egindako kritikak eta jarraian argitaratu zituen liburuxkek haren izen ona ezagutzera eman zuten. Journal des savants argitalpenean, halaber, nire aurrezarritako harmoniaren sistemaren aurkako objektzioak argitaratu zituen, nik zenbait urtez hausnartu ondoren plazaratu nuenean; baina, heriotzak eragotzita, ez zuen nire erantzunari ihardesterik izan. Haren mezua izan zen beti aurritizien aurkako neurriak hartu behar direla eta zehaztasunik handienaz ihardun, baina bera ere ez zen bere aholkuetara makurtu beharrean sentitzen, eta honetarako bazuen aitzakiarik, eta nire ustez, beste inork kasu egingo ote zion ez zitzaion batere axola, inortxok sekulan ez ziolakoan jarraituko. Nik ezagutarazi nion gauza sentigarrien egia fenomenoaren loturan datzala soilik eta lotura honek bere zioa behar duela, eta honetan bereizten dela, hain zuzen, ametsetatik; baina gure existentziaren egia eta fenomenoaren kausarena izaera ezberdinekoak direla, substantziak finkatzen dituelako, eta eszeptikoek euren ongi esanak hondatzen zituztela urrunegi eramanez, euren zalantzak bitartegabeko esperientzietara eta egia geometrikoetaraino hedatu nahian, Foucher jauna honetan aritu ez bazen ere, eta arrazoizko gainerako egietara, honetan bai, eta agian gehitxoegi ere saiatu zen. Baina geurera itzuliz, zuzen zaude, jauna, zera diozunean, alegia, sentipenen eta irudipenen artean aldea egon ohi dela; eszeptikoek, ordea, esango dute espeziea ez dela aldatzen gehiagoa ala gutxiagoagatik. Bestalde, sentipenak irudipenak baino biziagoak izan ohi diren arren, badakigu kasu batzuetan pertsona irudikortsuak euren irudipenek hunkitzen dituztela, gauzen egiak beste batzuk hunkitzen dituen bezainbeste, ala agian gehiago; halako moldez non, nire ustez, objektu sentigarrien egiazko criterion fenomenoaren erlazioa den, hau da, leku eta aldi ezberdinetan gertatzen denaren lotura, bai eta gizaki

ezberdinen esperientzian, hauek elkarrekiko garrantzi handiko fenomenoak izaki gai honetan. Eta gugandik kanpoko gauza sentigarriei begira egitatezko egiak bermatzen dituen fenomenoen arteko lotura arrazoizko egien bitartez gauzatzen da, optikaren irudiak geometriak argitzen dituen modu berean. Esan beharra dago, halere, ziurtasun oro ez dela maila gorenekoa, zuk zeuk ongi aitortu duzunez. Ez baita ezinezkoa, metafisikoki mintzo, amets bat gizakiren baten bizia bezain luze eta iraunkor izatea; baina nahas-mahas jaurtitako inprenta-hizkiez azarean osatutako liburuaren fikzioa bezain arrazoiaren kontrako litzateke hau. Egia da, gainerakoan, fenomenoen arteko lotura dagoen bitartean bost axola zaiela ametsak deitu ala ez, esperientziak erakusten baitigu ez dugula huts egiten fenomenoak neurtzeko eran, horretarako erabiltzen ditugun neurriak arrazoizko egien arabera hartuak direnean.

(§ 15) FILALETES: Gainera, ezagutza ez da beti argia, ideia hala izanda ere. Triangeluaren angeluen eta bi angelu zuzenen berdinen ideiak munduan inongo matematikarik bezain argi izan ditzake norbaitek, baina elkarren arteko egokitzenaren pertzepzio guztiz iluna.

TEOFILO: Ideiak sakon ulertu ditugunean, euren egokitzenak eta desagokitzenak agertu egiten dira. Aitortzen dut badirela batzuk oso konposatuak, eta haien baitan gordeta dagoena azaleratzeko arretaz ibili behar dela; hartaz, zenbait egokitzen edo desagokitzen ilunpean gera daitezke. Zure adibideari dagokionez ohartarazi nahi dut irudimenean triangeluaren angeluak edukitzeagatik ez ditugula, beste barik, haren ideiak argi. Irudimenak ezin digu eskaini triangelu zorrotz eta kamutsentzat baliagarri den irudi bat bera, triangelu-idea bat bera izan arren guztiena; beraz, ideia hori ez da iruditan gauzatzen eta triangeluaren angeluak sakonean ulertzea ez da guk uste bezain erraza.

III

Giza ezagutzaren hedadura

(§ 1) FILALETES: Gure ezagutzak ez ditu gure ideiak gainditzen, (§ 2) ez eta euren egokitzena edo desagokitzenaren pertzepzioa ere. (§ 3) Ezin du beti intuitiboa izan, gauzak ezin direlako beti bitarteko gabe konparatu, adibidez, oinarri beraren gainean eraikitako bi triangelu berdin baina itxura ezberdinekoen dimentsioak. (§ 4) Gure ezagutza ere ezin da beti frogagarria izan, bitarteko ideiak ezin dituelako beti aurkitu. (§ 5) Azkenik, gure sentimenezko ezagutza aktualki gure sentimenak ukitzen dituzten gauzen existentziaz arduratzen da soilik. (§ 6) Beraz, gure ideiak mugatuak izateaz gain ideiak berak baino mugatuago dago oraindik gure ezagutza. Halere, nik ez dut zalantzarik giza ezagutza askoz urrutiago irits daitekeela gizakiak zintzoki saiaturiko balira egiaren perfekzioarako bideak aurkitzen, izpirituaren askatasun osoz eta faltsukeria apaintzen eta mantentzen, euren egin duten sistema edo hartutako bidea eta betebeharreko hitzarmenak defendatzeko jartzen duten arretaz eta trebeziak. Hala eta guztiz, guk dauzkagun ideiei buruz desira eta jakin dezakegun guztia bereganatzera ez da sekulan iritsiko gure ezagumena. Esaterako, ez gara, agian, inoiz gai izango karratu baten berdina den zirkulua aurkitzeko eta ea badagoen ziurtasunez jakiteko.

TEOFILO: Ideia nahasi zenbait badira, hala nola koalitete sentigarri batzuenak, sekula ere erabat ezagutzerik izango ez ditugunak. Baina, bereiziak direnean, edozer espero daiteke. Zirkuluaren berdina den karratuaz Arkimedesek jadanik frogatu zuen badela: diametroerdia eta zirkunferentzierdiaren artean aldea batezbeste proportzionala duena, alegia. Era berean zehaztu zuen lerro zuzen bat zirkuluaren zirkunferentziaren berdina, espiralari ukitzaile doakion lerro zuzenaren bitartez, beste batzuek koadratizaren ukitzaile bidez egin zutena; koadratura mota honekin Clavius erabat ados zegoen²⁵⁷; horrez gain, zirkunferentziari erantsi ondoren tenkatutako haria, edota zikloidea deskribatuz eta lerro zuzen bilakatuz jira-biran dabilen zirkunferentzia. Batzuen ustez, eraikuntza honetarako ezinbestekoak dira erregela eta konpasa, baina geometrian

problemarik gehienak ezin daitezke prozedura horrekin eraiki. Karratua eta zirkuluaren arteko proportzioa aurkitzean datza auzia. Baina, proportzio hau zenbaki razional eta finituen bidez adieraztezina delarik, zenbaki razionalak soilik erabiltzeko, proportzio hori zenbaki sail infinitu baten bidez adieraztea ezinbestekoa izan da, eta era nahiko sinplean iritsi naiz horretara. Gustatuko litzaiguke orain jakitea ea kopuru finiturik badagoen, sorgorra edota areago izanda ere sail infinitu hori adieraz dezakeenik, hau da, ea sail horrentzat laburpenik aurki dezakegun. Baina adierazpen finituak, irrazionalak direnean batik bat, sorgorrak baino areagokoetara iritsiz gero, mota gehiegitarra alda daitezke, guk zerrendatu ahal izateko eta beraiekin egin daitekeena aise zehazteko. Agian, nola edo hala lor genezake sorgortasun hau azalgarri izango balitz ekuazio arrunt batez, edota aparteko ekuazioz, berretzaile gisa irrazionalen bat edo ezezagunen bat ezarriko lukeena, baina kalkulu handia beharko litzateke ekuazio hau ebazteko, eta auzia ez da aise konponduko, irtenbiderako sinplifikazioen bat aurkitzen ez dugun bitartean. Ezin dira, baina, adierazpen finitu guztiak baztertu, eta hori neuk ere badakit; eta hauetarik onena zein den zehaztea arazo latza da. Honek erakusten digu giza izpirituak auzi oso bitxiak planteatzen dituela, batez ere infinituaren inguruan, eta ez garelako harritu behar irtenbideak guztiz neketsuak izateagatik; are eta gehiago, gai geometrikoetan hau guztia sarri sinplifikazio baten menpe dagoenean, hau ez dagoela beti egiterik, frakzioak ere ezin daitezke beti euren adierazpen bakunera murriztu ez eta zenbaki baten zatitzaileak aurkitu. Egia da zatitzaile horiek, ahal denean, eskura ditzakegula euren kopurua finitua delako; baina aztertzeko kopuruak infinituraino aldagarri direnean eta mailaz maila gehigarri, nahi duguna egiteko ahalmenik ez dugu eta zailegia da behar den beste egitea metodikoki adierazpen bakunera iristen saiatzeko edota progresioaren araupidera, aurrera jarraitu beharretik libratzen baikaitu honek. Eta honi ateratzen zaion etekinak ez duelarik hainbeste neke hartzerik merezi, lorpena geroari uzten zaio, geroak erdietsi ahal izango baitu konplexutasun eta luzakeria hauek murriz daitezenean, etorkizunak eskainiko dituen prestakuntza eta arazoaren planteamolde berriei esker. Ez du honek esan nahi noizbehinka ikerketa hauetan diharduten pertsonak aurrera egiteko behar den ahalegina jarriko balute ez litzatekeela denbora gutxian asko aurreratuko. Eta ez dezagun pentsa dena eginga dagoenik, zeren geometria arruntean ere ez baitaukagu oraindik eraikuntzarik onenak erabakitzeke metodorik, problemak apur bat konplikatzen direnean. Arrakasta izateko, sintesi-progresioa erantsi beharko genioke gure analisiari. De Witten pentsiodun jaunak²⁵⁸ gai honetaz hausnarketak egin zituela inoiz entzuna gogoan dut.

FILALETES: Beste zailtasun guztiz ezberdina da jakitea ea izaki material soilak pentsatzen duen ala ez; eta agian ez gara inoiz hori jakiteko gai izango, materiaren eta pentsamenduaren ideien jabe izan arren, arrazoi sinple honengatik, alegia, gure ideia propioen kontenplazioz, errebelaziorik gabe, ezagutzea ezinezkoa zaigulako, Jainkoak berak deritzon eran egokitutako materia multzo batzuei eman ez badie hautemateko eta pentsatzeko ahalmena, edota horrela moldatutako materiari materiagabeko substantzia pentsalaria erantsi ez badio. Gure nozioen arabera, ez zaigu ezinezko egiten ulertzea Jainkoak, nahi izanez gero, erantsi diezaiokeela gure materiaren ideiei pentsatzeko gaitasuna, edota pentsatzeko gaitasunari beste substantzia bat gehi diezaiokeela, guk ez baitakigu zertan datzan pentsamendua eta izaki ahalguztidun honek zein substantzia espezie aurkitu ote duen egoki ahalmen hori emateko, ezein sorkaritan, Sortzailearen ontasunagatik eta borondateagatik izan ezik, irauterik izango ez lukeen ahalmena.

TEOFILO: Aurrekoa baino neurrigabeki garrantzitsuagoa da arazo hau; esatera ausartzen naiz, halere, arimak ongirantz bideratzeko hunkitzea eta gorputzak gaitzaldietatik sendatzea hain erraza izan ledin gustatuko litzaidakeela, nola erraza den arazo honetan argi egitea. Soluziobidean abiatzeko aukera behintzat eskainiko didazula espero dut,

nire aldetik harrokeria ez bada edota maisukeriaz iharduten ez badut, arrazoi egokien faltan; beti zentzuz mintzo izateaz aparte, arazo honi arreta berezia eskaini diodala uste baitut. Onartu behar dizut, lehenik eta behin, pentsamenduari eta materiari buruz ideia nahasiak baino ez ditugunean, eta gehienetan hala izan ohi da, ez daukagula zertan harriturik arazo hauen irtenbideak ikusten ez baditugu. Goraxeago ohartarazi dizudan moduan, triangeluaren angeluez arrunki eduki ohi diren ideiak baino ez dituen pertsonari ez zaio inoiz ere bururatuko hauek bi angelu zuzenen berdinak direla beti. Kontuan hartu behar da, izaki osotzat hartutako materia (hots, materia bigarren, pasibo hutsa eta, beraz, osagabea den lehenaren kontraesanekoa, alegia) multzoa baino ez dela, edota multzoaren ondorioa, eta multzo errealak beti substantzia bakunak edo unitate errealak biltzen dituela bere baitan, eta unitate erreal horien izakera aztertzen dugunean, hots, pertzepzioa eta honen ondorioak, nolabait mintzo, beste mundu batera eramanez baikinaren sentitzen gara, esan nahi baita, substantzien mundu ulerkorrera, ordura arte sentimeneen fenomenoaren artean soilik egon garelarik. Eta materiaren baitako ezagutza honek erakusten digu zer nolako gaitasuna duen hark berez, eta Jainkoak arrazoinamendua adierazteko organo propioak emango dizkion aldi oro, arrazoitzen duen substantzia inmateriala ere eskainiko zaiola, eta hau guztia substantzien ondorio naturala den harmonia horren eraginez. Substantzia inmaterialik gabe, hots, unitaterik gabe, ezin du materiak iraun; zentzugabekeria da, beraz, galdetzea ea horiek emateko ala ez emateko libre den Jainkoa; eta substantzia horiek ez baleude aipatu berri dudana elkarren harmonian eta egokitapenean, Jainkoak ez luke ordenamendu naturalaren arabera jokatu. Ahalmenak emate edo luzatze soilaz mintzo garenean, eskoletako gaitasun hutsetara itzultzen gara, usoak usategira bezala sartu ala irten daitezkeen izaki subsistente txikiak irudikatzen ditugu. Ohartu gabe substantziak egitea da. Lehen ahalmenek substantziak osatzen dituzte eta ahalmen eratorriak edo, nahiago baduzu, gaitasunak substantzietatik eratorritako izateko moduak baino ez dira, eta ez datoz materiatik, berau makina baino ez delarik; hau da, abstrakzioz lehen materiaren izaki osagabea edo pasibo hutsa baino erreparatzen ez dugun bitartean. Ados egongo zarela uste dut, zera diogunean, alegia, makina soilaren ahalmen esparruan ez dagoela pertzepzioa, sentsazioa, arrazoiaren sortaraztea. Beste zerbait substantzialetan aurkitu beharko diegu, beraz, sorburua. Jainkoak beste nolabait jokatzeko duela eta gauzei substantzietatik eratorritako aldaerak edo izateko moduak ez diren akzidenteak ematen dizkiela uste izatea, hori, mirarietara jotzea litzateke edota eskoletan ahalmen obedientziala deritzan horretara, naturaz gaindiko goraldi mota baten bidez, hala nola teologo batzuen ustetan ifernuko suak erre ditzakeen arima banatuak. Hala balitz, zilegi litzazuke zalantza jartzea ea sua litzatekeen eragile ala Jainkoa bera efektu horren sortzaile, suaren ordezkaria eginez.

FILALETES: Zure argibideek apur bat txunditzen naute eta aurrea hartzen diezu gure ezagupenen mugei buruz esan nahi nizkizun hainbat gauzari. Esatera nihoakizun ez gaudela ikusmen egoeran, teologoen hitzetan, eta fedea eta probabilitatea aski behar ditugula izan auzi askotan, arimaren inmaterialtasunari begira bereziki; moralaren eta erlijioaren helburu guztiak oinarri nahiko onen gainean daudela eraikiak, filosofiatik ateratako inmaterialtasun honen frogen beharrik gabe; eta agirian dagoela gu hemen izaki sentikor eta adimendun izatera erakarri gintuenak eta izakera horretan urte askotan iraunarazi gaituenak ahal eta nahi izanzen duela guk antzeko sentsibilitatez gozatzea beste bizitzan eta bizitza honetako jokamoldearen arabera gizakientzat erabaki duen saria eskuratzeko gai egin gaituela; azkenik, ikus dezakegula nolatan arimaren inmaterialtasunaren alde edo aurka lerratu beharra ez den euren iritziz propioen alde jende sutsuegiek komentzitu nahi gaituzten bezain larria. Hori guztia eta zentzu horretan gehiago ere esan nahi nizun, baina orain ikusten dut zeinen ezberdina den esatea

sentikorrak, pentsalariak eta hilezkorak naturaz garela, eta ez mirariz. Miraria dela onartu beharko litzateke, nire ustez, arima ez balitz inmateriala: baina mirariaren iritzi honek, funtsik gabekoa izateaz gain, ez du onik aski egingo jende askoren izpirituan. Ongi ikusten dut, halaber, auzia nola aztertzen den, arrazoibidez argi daitekeela arazoa, ikusmen egoeraz gozatu beharrik gabe eta goiko jeinu horien laguntzarik gabe; jeinu horiek gauzen barne eraketan azkarki sakontzen badute ere eta haien ikusmen bizi eta zorrotzak eta ezagutza eremu zabalak susmarazi diezagukeen arren nolakoa den haien zoriona. Gure ezagumenaren guztiz gainerik zegoela uste nuen nik sentsazioa materia hedatuarekin lotzea, eta existentzia hedadurarik batere ez duen zerbaitekin. Horregatik nengoen etsituta honetan parte hartzen dutenek pertsona batzuen funtsik gabeko metodoari jarraitzen diotela; eta pertsona horiek ikusten dutelarik gauzak ulertezinak direla ikuspegi batetik begiratuta,itsu-itsuan aurkakora pasatzen dira, berau ulergarriagoa izan ez arren; eta hau horrela zen, nire ustez, batzuek izpiritua materialen hondoratuegia izaki, nolabait esateko, ezin ziotelako inolako existentziarik ezarri materiala ez zenari; eta bestea, pentsamendua materiaren gaitasun naturalen barne ez dagoela uste izatean, ondorio honetara iristen ziren, alegia, Jainkoak berak ere ezin diola bizia eta pertzepzioa eman substantzia solidoari, bertan substantzia inmaterialen bat ezarri gabe. Orain, ordea, ikusten dut hori egingo balu, mirakuluz litzatekeela eta arimaren eta gorputzaren batasunaren edota sentsazioa eta materiaren arteko elkartasunaren ulertezina amaituko litzatekeela substantzia ezberdinen arteko aurrezarritako akordioaren zure hipotesiarekin.

TEOFILO: Hipotesi berri honetan, hain zuzen ere, ez dago deus ulertezinik, animari eta gorputzei egozten baitzaizkie guk geure baitan eta haiengan sumatzen ditugun aldaerak; orain arte uste izan dena baino arautuagoak eta elkarri lotuagoak direla, ez du besterik ebazten. Gainerako zailtasuna ulergarri baino ez dena imajinatu nahi dutenentzat da, soinuak ikusi edota koloreak entzun nahi izango bailituzten; hauek dira hedatua ez den orori existentzia ukatzen diotenak, eta bide horretatik Jainkoari berari; uko egiten diete, beraz, hedaduratik eta natura pasibo hutsetatik ezin datozkeen kauei, ez eta natura aktibo partikular eta apalagoetatik substantzia gorenaren aktu huts eta unibertsalik gabe.

FILALETES: Objekzio bat daukat oraindik materiak era naturalez egin ditzakeen gauzei buruz. Gorputza, guk hartaz dakigunetik, beste gorputz bat kolpatzeko eta ukitzeko gai da soilik, eta higidurak ezin du higidura besterik sortarazi; beraz, gorputzak plazerra edo oinazea sortarazten duela diogunean, edota kolore baten edo soinu baten ideia, badirudi arrazoiak baztertu eta gure ideiez haraindi gabiltzala, egintza hori gure Sortzailearen kapritxo hutsari leporatuz. Zein arrazoi dugu, beraz, materiaren pertzepzioan gauza bera gertatzen ez dela erabakitzeke? Erantzun litekeena ikusten dut gutxi gora-behera, eta honi buruz behin baino gehiagotan zerbait esan baduzu ere, lehen baino hobeto ulertzen dizut orain, jauna. Halere, atseginez entzungo dut berriz ere zure erantzuna abagune garrantzitsu honetan.

TEOFILO: Zuzen pentsatzen duzu, jauna, esango dudala materiak ezin duela gure baitan plazerrik, oinazerik edo sentipenik sortarazi. Arimak berak sortarazten ditu materialen gertatzen denaren arabera. Eta modernoan artean pertsona prestu batzuk hasi dira adierazten ez dituztela kausa okasionalak ulertzen, nire modura ez bada. Hortik abiatuz, ez da deus ulertezinik gertatzen, salbu eta ez garela gai gure pertzepzio nahasietan sartzen den oro garbitzeko, infinitura iristen baita eta gorputzei gertatutakoaren adierazpen zehatza baitira. Eta Sortzailearen kapritxoari buruz esan behar da gauzen izakerei lotuta arautzen dela, halako moldez non horri dagokiona bakarrik sortzen eta irautarazten duen eta euren izakeretatik azal daitekeena, orokorrean bederen; xehetasunak gaingitzen gaitu sarritan, hareazko mendi baten hondar garauak irudien ordenamenduaren arabera sailkatzeko

ahalmenak eta arretak bezala, nahiz eta multzoan ez dagoen ezer ulergaitzik. Bestela, ezagutza horrek berez gaindituko bagintu eta ezinezkoa balitzaigu arima eta gorputzaren arteko harremanen arrazoia, oro har, bururatzea eta azken finean Jainkoak emango balizkie gauzei euren naturetatik aske dauden ahalmen akzidentalak, eta beraz, arrazoitik orokorki urrunduak, ataka faltsu bat litzateke hori ezein izpirituk beregana litzakeen koalitate estaliegia eta arrazoirik gabeko gaitasunen iratxo horiek gogoratzeko.

Et quidquid Schola finxit otiosa.²⁵⁹

antzerkietako jainkoak edota Amadis-en hadak bezala agertzen diren iratxo laguntzaileak, eta behar izanez gero filosofoak nahi duena egingo dute lanik eta tresnarik gabe. Baina hau guztia jatorrian Jainkoaren kapritxoari leporatzeak ez dirudi ongi doakionik arrazoi gorena den horri, oro araututa, oro lotuta daukanari. Kapritxoa ez litzateke ez ona, ez atsegin, Jainkoaren ahalmen eta jakituriaren artean betiereko paralelismoa ez balego.

(§ 8) FILALETES: Identitatearen eta dibertsitatearen gure ezagutza gure ideiak bezain urrun iristen da, baina gure ideiek (§ 9, 10) subjektu bereko koexistentziarekiko duten erlazioaz dakiguna akastuna da oso eta ia baliorik gabea, (§ 11) batik bat bigarren koalitatei dagokienean, koloreak, soinuak et gustuak kasu, (§ 12) ez baitakigu zein den hauen lotura lehen koalitateekin, hots, (§ 13) nolatan dauden hauek irudiaren eta higiduraren muntaren menpe. (§ 15) Bigarren koalitate horien elkarrezintasunari buruz apur bat gehiago dakigu; zeren, adibidez, subjektu batek ezin baititu eduki bi kolore aldi berean; eta opaloan edo lignum nephriticum delakoan²⁶⁰ hala ikusten bide badira ere, objektuaren atal ezberdinetan gertatzen da hori. (§ 16) Beste horrenbeste gertatzen da gorputzen ahalmen aktibo eta pasiboekin. Kasu hauetan, esperientziaren menpean egin behar ditugu ikerkuntzak.

TEOFILO: Koalitate sentigarrien ideiak nahasiak dira eta hauek sortarazi behar dituzten ahalmenek nahasmendun ideiak baino ezingo dituzte hornitu: hartaz, ideia horien loturak, esperientziaz izan ezik, ezin ezagutuko ditugu, lagun dituzten ideia bereizietara murrizten ez baditugu, hala egiten da (adibidez) ortzadarraren koloreekin eta prismekin. Metodo honek hastapena ematen dio analisiari eta oso erabilia da fisikan; eta zalantzarik gabe, medikuntzak jarraituko balio asko aurreratuko luke, batez ere jendeak orain arte baino arreta gehiago eskainiz gero.

(§ 18) FILALETES: Erlazioen ezagutzari dagokionez, hau da gure ezagutzen esparrurik zabalena, eta zaila da jakitea noraino heda daitekeen. Bitarteko ideiak aurkitzeko trebezian dautza aurrerapenak. Algebra ez dakitenez ezin susma dezakete zeinen gauza harrigarriak egin daitezkeen alor honetan zientzia horren bitartez. Eta ez dut uste erraza izango denik zehaztea gure ezagutzaren beste atalak perfektzionatzeko zein bide berri aurki ditzakeen izpiritu zorrotz batek. Kantitateari buruzko ideiak, bederen, ez dira frogagarri bakarrak; badira beste batzuk, agian gure kontenplazioen atalik garrantzitsuena osatzen dutenak, eta hauetarik ezagutza tinkoak atera genitzake, bizioak, grinak eta interesak zuzenean kontrajarriko ez balitzaizkie eginkizun hau burutzerakoan.

TEOFILO: Zuk diozun hori baino egia handiagorik ez dago, jauna. Substantzien izaeraz, unitateaz eta aniztasunaz, identiteaz eta dibertsitateaz, banakoen erakuntzaz, hutsaren eta atomoen ezinez, kohesioaren sorburuaz, jarraiaren legeaz eta izadiko gainontzeko legeez zehaztu duguna baino garrantzitsuagorik ez dago ezer, egiazkotzat hartuz gero; eta batik bat gauzen harmoniaz, arimen inmaterialtasunaz, arima eta gorputzaren arteko batasunaz, heriotzaz haraindiko arimen iraupenaz, animaliarena barne. Eta aipatu ditugunetan ez dago deus nik frogatutzat edo frogagarritzat ematen ez dudarik.

FILALETES: Egia da zure hipotesiak oso ongi egituratua eta erraztasun handikoa dirudiela: Frantzia gizon prestu batek errefusatu nahi izan zuen eta jendaurrean aitortu

behar izan du bere porrota²⁶¹. Eta, nik ikusten dudanetik, erraztasun guztiz emankorra da. Doktrina hau egunetik egunera argituz joatea ona izango da. Baina, gehien axola zaizkigun gauzez ari garelarik, morala etorri zait burura, eta aitortzen dut zure metafisikak oinarri miresgarriak eskaintzen dizkigula moral horretarako: hainbeste sakondu gabe ere, baditu berak oinarri nahiko tinkoak, agian hain urrutira hedatuko ez direnak (gogoan dut zuk inoiz hala azpimarratua), zurea bezalako teologia natural bat funtsean ez dagoenean. Bizitza honetako ondasunen gogoeta soilak balio digu giza elkartearen araupidean garrantzizko ondorioak ebazteko. Bidezkoaz eta ezbidezkoaz epaia eman daiteke matematiketan bezain era ukaezinean; proposizio hau adibidez: injustiziarik ezin da egon jabegorik ez dagoenean, Euklidesen edozein froga bezain egiazkoa da; jabegoa gauza baterako eskubide baita eta injustizia eskubide baten hausketa. Berdin gertatzen da beste proposizio honekin: ezein gobernu ez du ontzat ematen erabateko askatasuna. Gobernua, izan ere, lege zehatz batzuen antolakuntza da eta hauek betetzea eskatzen du, eta erabateko askatasuna norberak nahi duen guztia egiteko ahalmena da.

TEOFILO: Jabego hitza beste esanahi batekin erabili ohi da, gauzaren gain norberak duen eskubide gisa ulertzen baita, beste inoren eskubidea ukatuz. Beraz, jabegorik ez balego eta oro denona balitz ere injustizia egon zitekeen. Jabegoaren definizioan, bestalde, gauza hitzaren esparruan ekintza ere sartu behar da; hala ez balitz, gauzen gain eskubiderik ezean injustizia litzateke beti, beharrezana dutenean, gizakiei ekintza eragozteko. Baina azalpen honen arabera, jabegorik eza ezinezkoa da. Erabateko askatasunarekiko gobernuaren elkartezinaren proposizioa, berriz, korolario bat da, hots, azpimarratzea aski den proposizio horietakoa. Jurisprudentzian badira mota horretako proposizio konplexuagoak, hala, adibidez, *jus accrescendi*²⁶² deritzonari buruzkoa edota baldintzei eta beste zenbait gairi buruzkoak; frogatua dut nik hori, baldintzei buruzko tesiak gaztaroan argitara eman nituenean, hauetariko batzuk egiaztatuz. Eta berriro argitaratuko nituzke, horretarako betarik hartuko banu.

FILALETES: Askoren jakinmina aseko luke eta aurrez ukitu barik plazaratu nahiko lukeenarentzat abisu litzateke.

TEOFILO: Horrelako zerbait gertatu zitzaion nire Konbinazioen arteari eta horretaz kexatu izan nahiz lehen ere²⁶³. Nire lehen adoleszentziako lan bat zen eta handik urteetara berrinprimatu zuten niri kontsultarik egin gabe eta bigarren edizioa zela aipatu gabe; hori dela eta, batek baino gehiagok pentsatu zuen, nire kaltetan, horrelako lana nola argitara nezakeen heltzaroan; bertan gaur ere onartzen ditudan pentsamendu eta ondorio batzuk egon arren, beste zenbait ikasle gazte batentzat soilik ziren egokiak.

(§ 19) FILALETES: Irudiak laguntza bikaina dira, nire ustez, hitzek zalantzak sortzen dituztenean, baina ideia moraletan ezin da horrelakorik egon. Gainera, moralezko ideiak matematiketan kontsideratu ohi diren irudiak baino konplexuagoak dira; hartaz, izpirituak lanak ditu ideia moraletan parte hartzen duten konbinazio zehatzak gogoratzeko, dedukzio luzeak burutzeko behar den adinako perfekzioz. Aritmetikan, zehazki ezagunak zaizkigun ikurrez leku ezberdinak adieraziak ez baletoz eta horrela agirian ez baliraute, ia ezinezkoa litzaiguke kontu handiak egitea (§ 20). Definizioek konponbide apur bat damaigute moralean eten gabe erabiltzen ditugunean. Bestalde, ez da aise aurrizkusten zein metodo iradoki ditzakeen algebrak edo antzeko edozein bitartekok, gainontzeko eragozpenak saihesteko.

TEOFILO: Erhard Weigel jaun defuntuak²⁶⁴, Jenan (Turingian) matematikaria bera, gauza moralak adierazteko irudiak inbentatu zituen trebeki. Eta Samuel de Puffendorf²⁶⁵ bere ikasle zenduak Jurisprudentzia unibertsaleko elementuak argitaratu zuenean, Weigelius jaunaren pentsaerarekin nahiko ados, Jenako argitalpenean

matematikari honen Esfera morala erantsi zitzaion. Baina irudi hauek alegoria modukoak dira, Cebesen taula²⁶⁶ bezala gutxi gora-behera, hain ezaguna ez den arren, eta mesede gehiago egiten diote oroimenari ideiak gorde eta sailkatzerakoan, ezaguerari ezagutza demostratiboak erdiesterakoan baino. Halere, izpiritua suspertzeko balio dute. Irudi geometrikoek gauza moralak baino errazagoak diruditen arren, ez dira hala jarraiak bere baitan infinitua biltzen duelako, eta hemendik dago hautatu beharra. Adibidez, elkarren perpendikular diren bi lerro zuzenez triangelu bat lau atal berdinetan zatitzea erraza dirudi, baina nahiko zaila da. Ez da hori gertatzen moraleko auziek, hauek arrazoi soilez zehaz daitezkeenean. Gainera, hau ez da de proferendis scientiae demonstrandi pomoeris mintzatzeko lekua edota frogatzeko artea lehengo mugez haraindi hedatzeko bide jatorrak aurkeztekoa, muga horiek orain arte matematika arloaren ia berdinak izan direlarik. Jainkoak horretarako behar dudana astia ematen badit, egunen batean saioen bat egitea espero dut bide horiek egiazki praktikan ezarriz, neure burua agindu soiletara mugatu barik.

FILALETES: Egitasmo hori behar den moduan burutzen baduzu, jauna, ni bezala Filaletes direnak, hau da, egia zintzoki ezagutu nahi duen jendeak amaigabeko esker ona zor izango dizu. Egia berez da atsegin izpirituentzat, eta gezurra baino itsusiagorik eta adimenarekiko bateraezinagorik ez dago ezer. Ez dugu, baina, inor egitasmo horietan biziki iharduterik espero behar, aberastasunen eta boterearen desirak eta estimuak gizakiak modako iritziak onartzera eramaten dituen bitartean eta ondoren argumentuak aurkitzera, onartutzat emateko batzuetan, itxuraz aldatu eta desitxura estaltzeko besteetan. Eta talde ezberdinek euren iritziak, faltsuak ala egiazkoak diren aztertzeko betarik eman gabe, menpean eduki ditzaketenei haiek onartzera bultzatzen dieten bitartean, zein argi berri espero daiteke moralaren inguruko zientzietan? Uztarripean dagoen gizadiaren atal horrek argiaren orde, munduko lekuri gehienetan, ilunbeak espero beharko lituzke, Egiptokoak bezain beltzak, Jaunaren argiak gizakien izpiritua argitzen iraungo ez balu, giza ahalmen orok sekulan erabat itzaliko ez duen argi sakratuak, alegia.

TEOFILO: Noizbait leku baketsuagoren batean gizakiak orain baino arrazoitsuagoak izango direla ez dut itxaropenik galtzen. Ez dugu, izan ere, deusen itxaropenik galdu behar; eta gizadian aldakuntza handiak gertatuko direla uste dut, onean eta txarrean, baina azken finean onerako gehiago txarrerako baino. Demagun egunen batean printze handi bat datorrela, Asiria eta Egiptoko antzinako erregeek bezala edota Salomon berri baten antzera, luzaro bakean aginduko duena; eta bertutea eta egia maite dituen izpiritu zabal eta sakoneko printze hau gizakiak zoriontsuagoak egiten saiatzen dela eta euren artean harmoniatsuagoak eta izadiaren gain ahaltsuagoak: zer nolako mirariak egingo lituzkeen printze honek urte gutxitan! Zalantzarik gabe kasu horretan hamar urtetan gehiago egingo litzateke, gauzak beren betiko erritmoan utzita, ehun edota agian mila urtetan baino. Eta hori gabe ere, behingoz bidea zabalik balego, jende asko abiatuko litzateke bide horretan barna, geometrialariak bezala, plazerrez baino ez bada ere edota ospea lortzeko, beste barik. Jende jantziagoak orain arte baino gehiago joko du egunen batean medikuntzaren aurrerapenerantz; herrialde guztietan plazaratuko dira Historia naturalak almanake gisa edota Mercure galant-ak²⁶⁷ bezala; ez da egongo zerrendetan jaso gabeko ikerlan onik; honetan saiatzen direnei laguntza eskainiko zaie; behaketak egiteko artea eta hauen aplikazioa garatuko da, aforismoak ebazteko. Eta noizbait mediku onen kopurua hain izango da handia, eta premia gutxiagoko beste lanbideetako jendeen kopurua proportzioan murriztuko da eta jendea gero eta prestuago egongo da naturaren ikerkuntzan ahalegintzeko, medikuntzaren aurrerapenean batik bat, eta zientzia garrantzitsu hau orduan gaurko egoeratik arras urrunduko da eta begi bistan garatuko da. Kulturaren atal honek, nire ustez, arretarik handiena merezi du

gubernariengandik, bertutearen ostean, eta moral edo politika onaren emaitzarik handienetakoa izango da guretzat medikuntza hobea lortzea, gizakiak diren baino zuhurragoak izaten has daitezenean eta handiek aberastasunak eta boterea euren zorionerako hobeto erabiltzen ikas dezatenean.

(§ 21) FILALETES: Existentzia errearen ezagutzari dagokionez (eta ezagutzen laugarren mota da hau), esan behar da gure existentziaren ezagutza intuitiboa daukagula, Jainkoaren existentziaren ezagutza frogagarria eta gainontzeko gauzen ezagutza sentimenezkoa. Honetaz luze mintzatuko gara jarraian.

TEOFILO: Ezin zitekeen deus bidezkoagorik esan.

(§ 22) FILALETES: Ezagutzaz jadanik mintzo izan garelarik, gure izpirituaren oraingo egoera hobeto aztertzeke egoki deritzot beronen alderdi ilunari apur bat erreparatzeari eta gure ezjakinez jabetzea; izan ere, infinituki handiagoa baita hau gure ezagutza baino. Hona ezjakite horren kausak: 1) ideiak falta zaizkigu; 2) dauzkagun ideien arteko loturak ezin ditugu aurkitu; 3) haien jarraipenean eta azterketa zehatzean ez dugu arretarik jartzen. (§ 23) Ideien eskasiari buruz dauzkagun ideia sinple bakarrak barne zein kanpoko sentimenezkoak datozkigu. Beraz, unibertsoa izaki askorekin eta haien koalitateekin alderatuz,itsuak kolorearekiko diren bezala gara gu, ez baitauekagu haiek ezagutzeko ezinbesteko diren gaitasunik ere; eta itxura guztien arabera, izaki adimendun ororen artean gizakia azken mailan kokatzen da.

TEOFILO: Gurea baino maila apalagorik ba ote dagoen ez dakit. Zergatik apaldu behar gara horretarako premiarik gabe? Agian, animalia arrazoidunen artean maila nahiko ohoretsua da gurea; goragoko jeinuek eduki ditzakete beste mota bateko gorputzak eta hauei ez legokieke animalia izena. Ezin esan daiteke, halaber, gure eguzkiak beste hainbat eguzkiren artean ez ote dituen gehiago gainean edo azpian eta gu ote garen haren sisteman ondoen kokatuak: zeren Lurra planeten artean erdigunea betetzen baitu, eta distantzia ongi aukeratua dauka bertan bizi behar duen animalia kontenplatioa kontuan harturik. Bestalde, gure zoria dela eta, askoz ere motibu gehiago ditugu pozerako kexurako baino eta gure gaitzik gehienak geure erruen ondorio dira. Batez ere gure ezagutzaren akatsen kexu izatean oker handia egingo genuke, izadiak esku zabalez eskaintzen dizkigunak hain gutxi erabiltzen ditugulako.

(§ 24) FILALETES: Egia da, halere, gure ikusmenera dauden munduko ia atal guztien distantzia izugarriak gure ezagutzarako aztertezinak bilakatzen dituela, eta, dirudienez, ikusten duguna azkengabeko unibertso honen ataltxo baino ez da. Espazioaren zoko txiki batean ezkutaturik gaude, hots, gure eguzkiaren sisteman, eta ez dakigu zer gertatzen den gure bola bezala eguzki beronen inguruan jira eta bira dabilztan gainontzeko planetetan. (§ 25) Ezagutza eskuraezinak ditugu horiek handitasunarengatik eta urruntasunarengatik; beste gorputz batzuk, aldiz, euren txikitasunarengatik ezkututzen zaizkigu eta hauexek ezagutzea, hain zuzen, interesatzen zaigu gehien; zeren hauen egikeratik atera baikenezake ikus daitezkeen usadioak eta ihardunak, eta jakitera iritsi gaitzke zergatik arabarbak purgatzan duen, astaperrexilak hiltzen eta opioak lokarrarazten. (§ 26) Horrela, giza jeinuak gauza fisikoetan filosofia esperimentalaren urrunera eramanezakeen arren, gai horietan ezagutza zientifikora inoiz ere helduko ez garela sinestera behartuta sentitzen naiz.

TEOFILO: Desira bezain urruti sekula ere ez garela joango uste dut; baina etorkizunean aurrerapen galantak egingo dira zenbait fenomenoren azalpenen, zeren orain burutu daitezkeen saiakuntzen kopuru handitik data soberan atera baititzakegu eta horietaz nola baliatu falta zaigu soilik, eta ildo horretan ziur nago lehen urratsak emango direla, analisi infinitesimalak geometria eta fisika elkartzeko bidea eskain diezagunean eta dinamika naturaren arau orokorrak hornitu bezain pronto.

(§ 27) FILALETES: Izpirituak are urrutiago daude gure ezagutzatik; ezin dugu ideiarik ere osatu haien ordenamendu ezberdinez, baina hala eta guztiz, adimenaren mundua handiagoa da eta ederragoa, inongo zalantzarik gabe, mundu materiala baino.

TEOFILO: Kausa erazleei dagokienez, mundu horiek beti dira erabat paraleloak, ez ordea kausa xedezkoei dagokienean. Izpirituek materia menperatzen duten heinean ordenamendu miresgarriak eragiten dituzte bertan. Hala agertzen da gizakiek lurgaina apaintzeko egin dituzten aldakuntzetan, unibertsoaren arkitekto handiaren antzeko jainko txikiak bailiran, gorputzen bidez eta hauen arauz baino ez bada ere. Zer ez dugu bada susmatuko gu gainditzen gaituzten izpirituen berealdiko kopuru horrengandik? Eta izpirituek bat eginik Estatuaren antzekoa osatzen dutelarik Jainkoaren menpe, zeinaren gobernua akatsik gabea den, guri ulergaitz egiten zaigu mundu adigarri horren sistema, eta arrazoirik zehatzenarekin ados, merezi dutenentzat dauden zigorrak eta sariak ezin irudikatu ditugu, edota ezin antzeman dezakegu ezein begik ikusi ez duena, ezein belarrik entzun ez duena eta giza bihotzean inoiz sartu ez dena. Halere, honek guztionek jakinarazten digu gorputzak eta izpirituak ezagutzeko behar diren ideia bereizi guztiak dauzkagula, ez ordea egintzetarako behar den xehetasuna, ez eta ideia nahasiak zuzentzeko adinako sentimen zorrotzak edota denak ohartermateko bezain zabalak.

(§ 28) FILALETES: Dauzkagun ideiekiko lotura ezezagunari buruz esatera nindoakizun gorputzen afekzio mekanikoez ez daukatela inongo harremanik koloreen, soinuaren, usainen eta gustuen, plazerraren eta oinazearen ideiekin; hauen lotura Jainkoaren gutziaren eta araugabeko gogoaren menpe dagoela soilik. Baina oroitzen naiz zure ustetan egokitzen betegina dagoela, antzekotasun osoa beti gertatzen ez bada ere. Onartzen duzu, halaber, barne diren gauza txikien gehiegizko xehetasunak ezkutukoaren azaleratzea eragozten digula, zure ustetan nahiko hurbilduko gatzazkion arren; eta beraz, ez zaizula gogoko gure idazle ospetsuarekin esatea (§ 29) halako ikerketan ahalegintzea denbora alferrik galtzea dela, sineskera honek zientziaren aurrerapenari kalte egingo dion beldurrez. Orobat, mintzatuko nintzaizun arima eta gorputzaren arteko lotura azaltzeko orain arte izan dugun zailtasunaz, bururatu ezinekoa baita pentsamenduak gorputzean mugimendua eragitea edota mugimenduak izpirituan pentsamendua. Baina aurrezarritako harmoniaren zure hipotesia ulertu dudanetik, behinola etsigarria zen traba bat-batean, liluraz bailitzan, desagertu da. (§ 30) Gure ezjakinaren hirugarren zergatia geratzen zaigu, hots, dauzkagun edo eduki ditzakegun ideiei ez gatzazkiela lotzen, eta ez garela saiatzeko tarteko ideiak aurkitzen; horrela zaizkigu ezezagunak matematikazko egiak, gure gaitasunetan akatsik ez izan arren, ez eta gauzetan inongo zalantzarik. Hitzen erabilera okerra izan dugu trabarik handiena ideien egokiera edo desegokiera aurkitzerakoan; eta matematikariek, izenei kasurik egin gabe pentsamenduak osatzen dituztelarik, eta soinuak barik ideiak berak izpiritu aurrean eduki ohi dituztelarik, traba hori alboratu dute hein handi batean. Gizakiek mundu materialeko euren aurkikuntzetan jokatu izan balute adimenezko munduarekikoetan egin duten moduan, eta dudazko adiera duten hitzen nahaspilan oro mordoilatu balute, amairik gabeko eztabaidatan leudeke lurraldeez, itsasaldiez, untzigintzaz eta bideez; lerroaz haraindi ez lirateke inoiz iritsiko, eta antipodak euren existentzia defendatzea heresia zela aldarrikatu zenean bezain ezezagunak lirateke gaur egun.

TEOFILO: Gure ezjakinaren hirugarren kausa hau bakarrik dugu arbuiagarri. Eta barne hartzen duela ikusten duzu, jauna, urrunago joan ahal izateko desesperantza. Etsipen honek kalte handia egiten du, eta pertsona jakitun eta inportante zenbait traba izan dira medikuntzaren aurrerabidean, horretan ihardutea alferreko ahalegina zela uste izan zutelako. Erreparatzen badiezue behinolako filosofo aristotelikoei meteoroez mintzo direnean, ortzadarraz esate baterako, ikusiko duzue nolatan uste zuten pentsatu ere ez genuela egin behar fenomeno horri azalpen bereizi bat ematen; eta Maurolicoren²⁶⁸

ahaleginak eta geroxeago Dominisenako Marko Antoniorenak Ikaroren hegaldiaren parekotzat hartuak izan ziren. Hala ere, denboraren joan-etorriak jendea desliluratu du. Egia da hitzen erabilera okerrak eragin duela gure ezagupideetan ditugun hainbat nahas-mahas, moralean eta metafisikan, hau da, adimen mundua deritzozun horretan ezezik, bai eta medikuntzan ere, hor ere hitzen gehiegikeria hau egunetik egunera ugalduz baitoa. Ezin gara, geometrian bezala, beti irudiez baliatu; baina algebrak erakusten digu aurkikuntza handiak egin daitezkeela beti gauzen ideiez beraiez ihardun behar gabe. Antipoden ustezko heresiari buruz bide nabar esango dut egia dela Bonifaziok, Mainzeko artzapezpikuak, Salzburgeko Virgilio salatu zuela gai honetaz haren kontra Aita Santuari idatzitako eskutitzean, eta Aita Santuak, antza, bere erantzunean Bonifaziori nahiko arrazoi ematen diola; ez dirudi, baina, salaketa horrek bestelako ondoriorik ekarri zuenik²⁶⁹. Virgiliok bereari eutsi zion beti. Aurkari biak santutzat hartu izan dira, eta Bavariako jakintsuek Virgilio Karintiako eta auzoko herrietako apostolutzat daukate eta haren oroitzapena errebindikatu dute.

IV

Gure ezagutzaren errealitatea

(§ 1) FILALETES: Ideia onak edukitzearen garrantziaz eta hauen egokiera edo desegokiera ulertzearenaz jabetu ez den edonork pentsa lezake hain arretatsu arrazoitzean gazteluak airean eraikitzen ari garela eta, beraz, gure sisteman gauza idealak eta irudimentsuak baino ez daudela. Irudimen beroko pertsona bitxiak ideia biziago eta ugariagoen abantaila izango du; ondorioz, ezagutza gehiago ere bai. Gizaki gartsuaren ikuspegietan bezainbeste ziurtasun dago zuhurraren arrazoinamenduan, gartsua zentzuz mintzo dadin bitartean; eta harpia bat zentauroa ez dela esatea, karratua zirkulua ez dela baieztatzea bezain egia izanen da. (§ 2) Nire erantzuna da gure ideiak gauzekin adosten direla. (§ 3) Baina kriterionaz galdetuko zait. (§ 4) Lehenik eta behin, erantzuten dut adostasun hori nabarmena dela gure izpirituaren ideia sinpleei begira, zeren berez ezin osa daitezkeelarik, izpirituan eragina duten gauzek sortarazi beharko dituzte; eta bigarrenik, (§ 5) gure ideia konplexu oro (substantzienak salbu) izpirituak berak egindako arketipoak izaki, zernahiren kopia izateko inongo asmorik gabe eta euren jatorrizkoen gisako deusen existentziara egokitzen ez direlarik, ideia horiek ezagutza errealerako premiazko diren gauzekiko adostasun osoa behar dute.

TEOFILO: Laburra litzateke gure ziurtasuna edota agian deusez, ideia sinpleen oinarri bakarra sentimenetatik datorrena izango balu. Ahaztu zara, jauna, nola frogatu dudan ideiak jatorrizkoak direla gure izpirituan eta pentsamenduak ere geure sakonetik datozkigula, gainontzeko sorkariek ezin eduki dutelarik artez-artezko eraginik ariman. Bestalde, egia unibertsal eta betierekiko gure ziurtasunaren funtsa ideietan bertan datza, sentimenetatik aske eta era berean ideia huts eta ulergarriak ez daude sentimenen pean, hala nola, izakiarena, batarena, berberarena, etab. Baina koalitate sentigarrien ideiak, kolorearena, zaporearena etab. (fantasma hutsak direnak) sentimenetatik datozkigu, hots, gure pertzepzio nahasietatik. Eta gauza kontingente eta singularren egiaren funtsa honetan datza, alegia, sentimenen fenomenoak egia ulerkorrek eskatzen duten moduan ertsiki lotuta egotean. Hori da finkatu behar den bereizketa, eta ez zuk hemen ezartzen duzuna ideia sinple eta konposatuaren artekoa eta substantziei eta akzidenteei dagozkien ideia konposatuaren artekoa; bereizketa honek ez du, nire ustetan, funtsik, zeren ideia ulergarri guztiek baitauzkate euren arketipoak gauzen betiereko ahalgarritasunean.

(§ 6) FILALETES: Egia da gure ideia konposatuek ez dutela arketipoen premiarik izpiritutik at, existitzen den substantzia bat denean baizik, zeinak gugandik kanpo benetan batu beharko dituen ideia konplexu horiek eta beroien osagarri diren ideia sinpleak. Egia matematikoen ezagutza erreala da, gure ideien ingurumarian baino ez badabil ere, eta zirkulu zehatzik inon ere aurki ezin daitekeen arren. Hala eta guztiz, ziur gaude existitzen diren gauzak bat etorriko direla gure arketipoekin, jakintzat ematen

duguna egiaz existitzen dela ikusten dugun neurrian. (§ 7) Eta honek guztiak balio digu, besteak beste, gauza moralen errealitatea justifikatzeko. (§ 8) Eta Zizeronen betebeharrak²⁷⁰ ez dira egia gutxiago munduan inortxok ere ez duelako bere bizitza zehazki moldatzen Zizeronek deskribatzen digun gizon zintzoaren eredura. (§ 9) Baina, esan daiteke, ideia moralak gure asmakizun badira, zeinen nozio bitxia eduki behar dugun justiziaz eta neurritasunaz? (§ 10) Nire erantzuna da ziurgabetasuna hizkuntzan soilik dagoela, ez baita beti ulertzen esaten dena, edota ez behintzat beti era berean.

TEOFILO: Zure erantzuna izan zitekeen, halaber, eta nire ustez askoz ere egokiagoa, justiziazko eta neurritasunezko ideiak ez direla gure asmakizun, zirkuluarena eta karratuarena ere ez diren moduan. Ongi frogatuta utzi dudala uste dut.

(§ 11) FILALETES: Gugandik at dauden substantzien ideiei buruz daukagun ezagutza erreala da arketipo horiekin ados dagoen heinean: eta honetan izpirituak ez ditu ideiak arbitrarioki konbinatu behar, are eta gehiago, ideia sinple oso gutxiz ziurta dezakegunean naturan elkarrekin existi daitezkeela edo ez, behaketa sentigarrietan dirudienaz haraindi.

TEOFILO: Behin baino gehiagotan esan dut hala gertatzen dela, ideia horiek nahasiak direlako, beraien bateragarritasunaz edo loturaz arrazoimenak ezin ebatzi duenean, hala nola, sentimenen koalitate partikularren ideiak.

(§ 13) FILALETES: Existitzen diren substantziei begira, izenetara ez mugatzea komeni da, ez eta izenek zehaztu bide dituzten espezieetara. Gizakiaren definizioaz nahiko sarri izan dugun eztabaidara itzularazten nau honek. Zeren berrogei urtez adimen izpirik erakutsi gabe bizi izan den inozoaz ari garelarik, ezin al liteke esan gizakiaren eta piztiaren arteko erdibidean dagoela? Paradoxa ausarta lirudike agian honek edota, akaso, ondorio guztiz arriskutsuko faltsukeria. Halere, behinola uste nuen, eta uste horretan daude oraindik ere nire lagun batzuk eta ez nieke honetan desliluratu nahi, gizaki eta piztia izenek bi espezie ezberdin adierazten badizkigute, suposizio faltsu horretan oinarritutako aurriritziagatik dela soilik; eta esentzia errealek hain ongi bereizten dituzte naturan espezie horiek, ezin baita tartean beste inongo espezierik izan, gauza guztiak moldean hustuak izan bailiran esentzia horien kopuru zehatzaren arabera.

(§ 14) Lagunei galdetzen diedanean zein animalia mota diren inozo horiek, ea ez gizaki ez piztia ote diren, inozoak direla esatea aski dela erantzuten didate. Beste munduan zer gertatuko zaien galdetzen diedanean, gure lagunek erantzuten didate ez zaiela batere axola hori jakitea edo ikertzea. Hura zutik ala eroria dagoen, nagusiaren arazoa da (Errom., XIV, 4), eta nagusia ona da eta zintzoa, eta ez ditu bere sorkariak erabiltzen gure pentsamenduen edo gure irizpide partikularren muga estuei begira, eta ez ditu haiek bereizten guri irudikatzea atsegin zaigun izenen eta espezieen arabera; aski bekigu jakitea horren ezagutzara iristeko gai direnak euren jokabideen kontua ematera deituak izango direla eta ordaina jasoko dutela gorputzean bizi garelarik egindakoaren arabera (II Kor., V, 10). (§ 15) Euren argudioen gainontzekoa ere aurkeztuko dizuet. Beraiek diotenez, inozoei etorkizuneko egoera ukatu behar ote zaien arazoa bi suposizio hauen gainean datza (bata bezain faltsua bestea): lehenengoa, gizakiaren forma eta kanpo-itxura duen izaki oro hilezkortasunezko egoerara dagoela destinatuta bizitza honen ostean; eta bigarrena, gizaki jaio den orok gozatu behar duela pribilegio honetaz. Utzi alde batera irudipen hauek eta berehala ikusiko duzue auzi mota hauek bakanak direla eta funtsik gabeak. Lehenengo suposizioa arbuiatu behar dela uste dut, eta ez dugula eduki behar izpiritua materialen hain murgildua betiko bizitza inongo masa materialaren itxurari zor zaiola pentsatzeko, halako moldez non masa horrek betiereko sentipenak eduki beharko dituen, irudi horren moldera egina izan delako. (§ 16) Baina bigarren suposizioa dator aurrekoaren laguntzan: inozo hau arrazoidun gurasoengandik datorrela esanen da eta, hartaz, arrazoidun arima eduki beharko duela. Ez dakit nik logikazko zein arauren ondorio izan daitekeen hori eta nolatan ausar daitekeen inor, honen ostean,

produktu oker eratuak edo desitxuratuak suntsitzera. O!, esango didate, munstroak dira! Hala bitez. Baina, zer izanen da beti tratagaitz gertatzen den inozo hori? Gorputzeko akatsak munstroak egiten ditu, eta izpirituko akatsak ez? Errefusatu dugun lehen suposiziora itzultzea litzateke, hots, azalekoa aski dela suposatzen. Ongi moldatutako inozoa gizakia da, uste denez, arrazoimenezko arima dauka, inondik ere agertzen ez bada ere: baina, ezar itzazu belarriak luzetxoagoak eta zorrotzagoak edota sudurra ohikoa baino zapaltxoagoa, eta zalantzak sortuko zaizkizu. Ezar iezaiozu aurpegi estuagoa, lauagoa, luzeagoa, eta ez dago gehiago arazorik. Eta burua animalia baten itxurakoa badu, zalantzarik ez munstroa dela; horra, arrazoimenezko arimarik ezaren frogak eta, beraz, hura suntsitu beharra. Hau da orain nire galdera: non aurkitu arrazoimenezko arima berekin ekarri beharko lukeen neurri zehatza eta azken muga horiek? Badira fetotxoak, erdi piztia, erdi gizaki direnak; beste batzuek hiru laurden dute batetik eta laurden bat bestetik. Nola bereizi zehatz-mehatz arrazoimenaren adierazleak? Eta gainera, ez al da munstro hau gizakia eta piztiaren bitarteko espezieren bat izango? Horrelakoxea da gure inozoa.

TEOFILO: Nahiko aztertzea dugun gai honetara itzultzeak harritzen nau, eta hau behin eta berriz gertatzen zaizu, eta zure lagunak hobeto ez katekizatu izana ere harrigarri gertatzen zait. Gizakia eta piztia arrazoimen bidez bereizten baditugu, ez dago erdigunerik; aztertzen ari garen animaliak arrazoimena edukiko du ala ez: baina gaitasun hau batzuetan agerikoa ez delarik, itxuretatik epaitzen da eta hauek ez dute deus egiaz frogatzen arrazoimen hori agertzen ez den bitartean: batzuek arrazoimena galdu dutelako, beste batzuek, aldiz, berreskuratu dutelako, esperientziaz da gauza jakina haren eraginak etenaldiak izan ditzakeela. Jaiotzeak eta itxurak ezkutuan dagoenaren susmoak ematen dizkigute. Baina jaiotzeak damaigun susmoa ezabatu dezake (eliditur) gizakiarenetik urrun dagoen beste itxura batek; hala gertatu zen Zelandan emakume batengandik jaiotako animaliarekin, Levinus Lemniusek kontatua (I. liburua, 8. atala)²⁷¹: moko gakoduna omen zuen, lepo luze biribila, begiak distiraz, isats puntaduna eta lehen unetik gelan korrika egiteko arintasun harrigarria. Esan daiteke, ordea, badirela munstroak edo lonbardiarren anaiak (hala deitzen zieten behinola medikuek, Lonbardiako emakumeek izaten omen zituztelako honelako haurraldiak) giza itxuratik gertuago daudenak. Hala izango da. Nolatan zehatz daitezke orduan (esango didazu) gizakitzat hartzeko behar diren itxuren mugak? Nire erantzuna da aieruak oinarri dituen edozein gaitan ez dagoela ezer zehatzik. Eta horrekin amaitu da auzia. Inozoak ez duela arrazoimenik erakusten ihardetsiko zait, eta gizakitzat hartzen dugula, halere; munstro itxura izanen balu, ordea, ez genukeela gizakitzat hartuko; beraz, kasu gehiago egiten zaiola itxurari arrazoimenari baino. Baina, erakusten al du arrazoimenik munstro horrek? Zalantzarik gabe, ez. Argi dago, beraz, inozoak baino hutsune gehiago dituela. Arrazoimena erabili ezina aldi batekoa izaten da sarri, baina hutsune ezezik txakur-burua ere dutenengan betikoa izango da. Bestalde, giza itxura duen animalia gizakia ez bada, zalantzak dirauen bitartean hura bizirik zaintzeak ez du kalterik. Eta arrazoimenezko zein arrazoimen gabeko arima eduki, Jainkoak ez zuen hura deusen truke sortuko; lehen haurtzarokoaren antzeko egoeran beti bizi diren gizakiei buruz esan ohi da, euren etorkizuna sehaskan hiltzen diren haurren arimena bezalakoa izan daitekeela.

V

Egia, oro har

(§ 1) FILALETES: Mendetan zehar egin dugu galdera hau: zer da egia? (§ 2). Gure lagunaren ustetan, zeinuen konjuntzioa da batzuetan, banaketa besteetan, gauzak beraiekin artean egokitzen diren ala ez diren heinean. Zeinuen konjuntzio edo banaketa diogunean, proposizio hitzaz ere adierazten duguna ulertu behar da.

TEOFILO: Baina epitetoak ez du proposizioa egiten; esaterako, gizaki zuhurra. Halere, bi hitzen konjuntzioa dago hor. Ezeztapena, bestalde, banaketaz aparteko beste zerbait da, zeren gizaki esatea eta etenaldi baten ondoren zuhurra, hori ez baita ezeztapena. Egokitzapena edota desegokitzapena ez ditugu berez proposizioan adierazten. Bi arraultze elkarrekin egokitzen dira, bi etsai desegokiak dira elkarrekiko. Egokitze desegokitze modu guztiz berezia da hau. Beraz, nire ustez, definizio honek ez du argitzen solasgai dugun puntua. Baina egiari zuk egindako definizioan gutxien gustatu zaidana hau da, hots, hitzetan aurkitu nahi duzula egia. Horrela, esanahi bera latinez, alemanieraz, ingelesez, frantsesez adierazia ez da egia bat bera izango, eta Hobbesekin esan beharko genuke egia gizakion kapritxoaren menpe dagoela²⁷²; hitz egiteko oso modu bitxia da hau. Jainkoari ere egotzi izan zaio egia, baina nirekin bat etorriko zara, Hark zeinu premiarik ez duela diodanean. Laburbilduz, behin baino gehiagotan harritu nau zure lagunen umore zentzuak, esentziak eta espezieak egia nominalak bihurtzen jolasten baitira.

FILALETES: Astiroago, mesedez. Zeinu bidez ideiak ulertzen dira. Hartaz egiak edo adimenezkoak izanen dira edo nominalak, zeinuen espezieak nolakoak diren.

TEOFILO: Egia literalak ere izango ditugu orduan, eta bereizi ahal izanen ditugu paperezkoak eta pergaminozkoak, tinta beltz arruntezkoak eta inprentako tintazkoak, egiak zeinu bidez ezagutzeak izatekotan. Hobe, beraz, egiak objektuen ideien arteko erlazioan kokatzea, honek eragiten baitu bata bestearen baitan izatea ala ez izatea. Hau ez dago hizkuntzen menpe eta Jainkoarekin eta aingeruekin batera dugun zerbait da; eta Jainkoak egia bat erakusten digunean, haren adimenean dagoena geureganatzen dugu, zeren, alde infinitua egon arren haren ideien eta gureen artean perfektioari eta hedadurari dagokionean beti izanen baita egia erlazio berean bat datozela. Erlazio honetan kokatu behar dugu egia, eta bereizi ahal izango ditugu gure kapritxotik at dauden egiak eta geure kaxa sortzen ditugun adierazpenak.

(§ 3) FILALETES: Egia handia da gizakiek, euren izpirituan ere, gauzen ordeztuak hitzak jartzen dituztela, ideiak konplexuak edo zehaztugabeak direnean batik bat. Eta egia da, halaber, zeuk aipatu diguzunez, izpirituak orduan aski duela egia izendatzearekin, oraingoz hura ulertzen ez badu ere, ziur baitago nahi duenean hura ulertzea bere esku izango duela. (§ 5) Baieztatzean eta ezeztatzean eragiten dugun ekintza ulergarriagoa zaigu gure baitan gertatzen denaz hausnartuz, hitzez adierazita baino. (§ 8) Hori dela eta, ez dugu txarto hartu behar hoberik ezean elkarrekin batzeaz edota banatzeaz mintzo bagara. (§ 8) Proposizioak, bederen, hitzezkoak dei ditzakegula aitortuko duzu, halaber, eta hauek egiazkoak direnean, hitzezkoak ezezik errealek ere badirela, zeren (§ 9) izenak euren ideien egokitzeaz ala desegokitzeaz barik, beste nolabait lotzean oinarritzen baita faltsukeria. Gutxienik ere (§ 10) hitzak egiaren eramaile nagusiak dira. (§ 11) Egia morala ere badago, gauzei buruz gure izpirituaren sinestearen arabera mintzo garenean; eta azkenik egia metafisikoa, hau da, gauzen existentzia erreala, guk haietaz dugun ideiekin bat datorrena.

TEOFILO: Egia moralari egizaletasuna deritzote batzuek, eta egia metafisikoa izakiaren atribututzat hartzen dute arrunki metafisikoek, baina alferrikako atributua da eta ia zentzurik gabea. Izpirituan dauden proposizioen eta gogoan hartzen ditugun arteko egokitzapenean egia bilatzearekin kontent egon gaitzke. Nik neuk ere egia ideiei egotzi diedala badakit, ideiak egiazkoak ala faltsuak direla esanez; baina hori esatean, ideiari buruzko objektuaren ahalgarritasuna baieztatzen duten proposizioen egiaz ari naiz. Adiera beronetan esan dezakegu, halaber, izaki bat egia dela, hots, haren existentzia aktuala edota gutxienik existentzia posiblea baieztatzen duen proposizioa egiazkoa dela.

VI

Proposizio unibertsalak, hauen egia eta hauen ziurtasuna

(§ 2) FILALETES: Gure ezagutza osoa egia orokor eta partikularrei buruzkoa da. Lehenak dira garrantzitsuenak eta ez ditugu sekulan ongi ulertaraziko, eta hitzen bidez bururatu eta adierazita ez bada, oso gutxitan ulertuko ditugu guk gerauk ere.

TEOFILO: Beste ikur batzuez ere balia gintezke, agian, horretarako; halatsu ikusten da txinatarren idazkeran. Karaktere unibertsalak heda zitezkeen guztiz herrikoiak eta txinatarrena baino idazkera egokiagoa, hizkiez barik zirrimarra bidez gauza ikusgarriak irudikatuko lizkiguketen marrazki txikiak erabiliko bagenitu, eta ikustezinak alboko ikusgarrien bidez; eta ikur gehigarri batzuk erantsiko genizkieke, flexioak eta partikulak hobeto ulertzeko lagungarri. Honek balioko liguke, lehenik eta behin, urrutiko nazioekin harremanetan erosoago jartzeko; baina gure artean ere hedatuko balitz, ohiko idazkera baztertu gabe, idazkera berri honen erabilera guztiz baliagarri litzaiguke irudimena aberasteko eta oraingoa bezain sorgor eta hitzezkoa ez den beste pentsamolde bat lantzeko. Egia da, baina, marrazkigintzaren artea ez dagoelarik guztion eskura, era honetan inprimatutako liburuetan izan ezik (hauek mundu guztiak aise irakurriko lituzke) gehienok ezingo ginateke hartaz baliatu inprimategi baten moduko erara ez balitz, alegia, irudi grabatuak edukiko genituzke paperean inprimatzeko prest eta lumaz erantsiko genizkieke gero flexioen eta partikulen ikurrak. Gerora mundu guztiak ikasiko luke gaztarotik marrazten, zinez begietara mintzoko liratekeen irudizko karaktere hauek eskura edukitzeko, eta herriaren gustukoa izango zen; orain ere nekazariak badituzte zenbait almanake, hitzik gabe adierazten dizkietenak euren intereseko hainbat gauza; eta gogoan ditut neuk ikusitako inprimaki satiriko batzuk estanpetan apur bat enigmatikoak, berez adierazgarriak ziren irudiekin, hitzekin nahasian; gure hizkiak eta karaktere txinatarrek, ordea, gizakion borondatez soilik dira adierazgarri (ex instituto)²⁷³.

(§ 3) FILALETES: Pentsatzen duzun hori noizbait gertatuko dela uste dut, hain deritzot idazkera horri atsegin eta naturala; eta itxuraz, garrantzizko ondorioak izango lituzke gure izpirituen perfekziorako eta gure burutapenak errealago bihurtzeko. Baina, ezagutza orokorretara eta hauen ziurtasunera itzuliz, azpimarratu behar da badela egiazko ziurtasuna bai eta ezagutzazko ziurtasuna ere. Hitzak proposizioan lotuta daudenean, halako moldez non zehatz-mehatz azaltzen duten egokiera ala desegokiera benetan den bezala, orduan egiazko ziurtasuna da; ezagutzazko ziurtasuna, berriz, ideien egokiera ala desegokieraren apertzepzioan datza, berau proposizioetan adierazia den heinean. Honi deritzogu guk proposizio batez ziur egotea.

TEOFILO: Ziurtasun mota hau hitzik gabe ere aski izango da eta egiaren ezagutza osoa baino ez da; aurreko ziurtasun mota, aldiz, egia bera baino ez da, itxuraz.

(§ 4) FILALETES: Baina, ezein proposizio orokorren egiaz ziur ezin egon gaitezkeelarik, berau osotzen duten hitzen esanahien muga zehatzak ezagunak ez bazaizkigu, espezie bakoitzaren esentzia ezagutu beharko genuke, eta hau ez da zaila ideia sinpleei eta moduei dagokienean. Baina substantzietan, zeinetan nominala ez den esentzia erreal batek determinatzen bide dituen espezieak, termino orokorraren hedadura guztiz zehaztugabea da, ez baitugu esentzia erreal hori ezagutzen; ezin gaitezke, beraz, ziur egon substantzia hauei buruz egindako ezein proposizio orokorrez. Pentsatzen badugu, ordea, substantzien espezieak banako substantzialen murriztapena baino ez direla zenbait motatara, izen orokor batzuen arabera sailkatuak, izen hauekin izendatzen ditugun ideia abstraktu ezberdinekin ados egon ala ez, orduan ez dagoke zalantzarik behar bezala ezagutzen dugun proposizio baten egiaz.

TEOFILO: Ez dakit, jauna, zergatik itzuli zaren gure artean nahiko eztabaidatu dugun eta nik agortutzat ematen nuen puntu horretara. Baina atseginez lotuko natzaio, berriro ere zu desliluratzeko parada ezin hobea ematen didazula uste baitut. Esango dizut, beraz, ziur egon gaitezkeela, adibidez, urreari buruzko milaka egiaz, hots, barne esentzia hemen ezagutzen denik astunena daukalako edota malgutasunik handienagatik edota

beste ezaugarri batzuegatik bereizten dugun gorputz horri buruz. Baiezta baitezakegu ezagutzen dugun gorputzik malguena gorputz ezagun guztietan astunena ere badela. Ez da, baina, ezinezkoa guk orain arte urrean aurkitu ditugun ezaugarriak egunen batean elkarren artean koalitate berri zenbaiten bidez bereizgarri liratekeen bi gorputzetan aurkitzea, eta orduan ez litzateke urrea orain arte behin-behingo onartzen dugun muturreko espeziea. Gerta liteke, halaber, gorputz horietako bat oso bakana izatea eta bestea ugaria; egiazko urre izena bakanarentzat soilik mantentzea komeni dela erabakiko zen eta horrela moneta gisa legozkioken entseiu berrien bidez erabiltzeko gordeko zen. Eta hau guztiau ikusita, inortxok ere ez luke zalantzarik egingo bi espezie hauen barne-esentzia ezberdina dela; eta orain existitzen den substantzia baten definizioa alderdi guztietatik ongi zehaztua ez balego ere (kanpoko itxurari dagokionean gizakiarena ez dagoen moduan), hala eta guztiz, gai horretaz proposizio orokorrak amaigabeko kopuruan izango genituzke, arrazoimenaren eta beragan aurkitzen ditugun gainontzeko koalitateen ondorio. Proposizio orokor hauei buruz esan daitezkeen guztia da, gizakia muturreko espezieztat hartuz gero eta Adanen endara mugatuz gero, ez dugula gizakiaren ezaugarririk izango, in quarto modo deritzegunak alegia, edota elkarrekiko proposizioz edo bihurtzarik eskain daitezkeenak, behin-behingo ez bada, ondokoa esatean bezala: gizakia da animalia razional bakarra. Gure arrazakoak soilik hartzen baditugu gizakitzat, behin-behinekoa da ezagutzen ditugun animalia razionalak bakarrik dela suposatzea; gerta baitaiteke noizbait beste animalia batzuk izatea, gaurko gizakiengan onartzen ditugun berezitasunez hornituak, beste jatorri batekoak izan arren. Inoiz fikziozko australiarrek gure lurraldeetara samaldan etorriko balitzaizkigu, haiek guregandik bereizteko modurik aurkituko genukeela uste dugu. Bereizte modurik aurkituko ez bagenu eta arrazen arteko nahasketa Jainkoak debekatu zuela eta Jesukristok gure arraza bakarrik berrerosi zuela sinetsita, euren artean bereizteko marka artifizialak egin beharko genituzke. Barneko ezberdintasuna legoke, zalantzarik gabe, baina berau somatu ezinean jaiotze izendapen estrintsekoa murriztu beharko ginateke eta honi erantsiko genioke ezaugarri artifizial iraunkor bat, izendapen intrintsekoa eta gure arraza besteetatik bereizteko bide finkoa emango ligukeena. Hauek guztiak fikzio hutsa baino ez dira, ez baitugu bereizkuntza hauetara jo beharrik, planeta honetako izaki razional bakarrak geu garelako. Halere, fikzio hauek laguntzen digute ideien, substantzien eta hauei dagozkien egia orokorren izakera ezagutzerakoan. Baina, gizakia mugako espezieztat hartuko ez bagenu edota Adanengandiko animalia razionalen arrazakotzat eta honen ordeztu zenbait espezie biltzen dituen generoa adieraziko balu, gaur denak arraza ezagun bat berekoak, nahiz eta besteetako kide ere izan zitezkeen, hauek jaiotzez ala beste ezaugarri naturalez bereizgarri liratekeelarik, hala adibidez balizko australiarrekin, orduan, diot nik, genero horrek elkarrekiko proposizioak edukiko lituzke eta gizakiaren gaurko definizioa ez litzateke behin-behinekoa izango. Gauza bera gertatzen da urrearekin; demagun egunen batean bi urre mota bereizgarri edukiko ditugula, bata bakana orain arte ezagutzen dena, eta bestea arrunta, artifiziala ere agian, denboraren poderioz aurkitua: urrearen izenak gaurko espezieari atxikita jarraitu beharko balu, hots, urre natural eta bakanari, horrela urrezko monetaren erosotasunari eusteko, berau materia horren bakantasunean baitago oinarrituta, urrearen definizioa orain arte izendapen intrintsekoen bidez ezaguna, behin-behinekoa zatekeen eta definizio horri aurkitutako seinale berriak erantsi beharko genitzake, urre bakana, espezie zaharrekoa, urre berri artifizialez bereizteko. Baina bi espezieotarako urre izen bat bera nahi izanez gero, hau da, urre esanda ulertu behar bada orain arte azpizatiketarik ezagutu ez duen generoa eta guk muturreko espezieztat hartzen duguna (behin-behineko bakarrik, azpizatiketarik inoiz aurkitu arte) eta noizbait idoroko balitz espezie berriren bat, hots, urre artifiziala, erraz egitekoa eta

arrunta bihur daitekeena, kasu honetan, diot nik, genero horren definizioa ez dela behin-behinekotzat hartu behar, behin-betikotzat baizik. Eta gizaki eta urre izenak alboratuz ere, edozelan izendatuta ere generoa edo azken espezie ezaguna, eta izenik ere emango ez bagenie, esan berri dudanak egia izaten lirauke ideiei, generoei edo espezieei buruz, eta espezieak behin-behinekoz soilik definituak izango dira batzuetan generoen definizio bidez. Hala eta guztiz, beti izango da zilegi eta arrazoizko, generoari edota espezieei elkarrekiko proposizioz dagokien barne-esentzia erreala dagoela ulertzea, kanpoko seinalez ezagutarazi ohi dena, alegia. Aditzera eman dut honainokoa arrazak ezin duela gainbeherarik ez aldakuntzarik jasan: baina arraza bera beste espezie batera aldatuko balitz, are eta behartuagoak geundeke orduan beste seinalelara eta izendapen estrintseko edo intrintsekoetara jotzera, arrazari atxiki gabe.

(§ 7) FILALETES: Substantzien espezieei ezarri ohi dizkiegun izenak justifikatzen dituzten ideia konplexuak zenbait koalitatetako ideia-sailak dira, substantzia izeneko euskarri ezezagunean koexistitzen ikusi ditugun koaltateak, alegia. Ezin dugu, ordea, ziur jakin zeintzuk beste koaltate koexistitzen diren halabeharrez konbinazio horiekin, arik eta aurkitzen ez dugun bitartean haien menpekotasuna euren lehen koaltateekiko.

TEOFILO: Inoiz lehen ere azaldu dut gauza bera gertatzen dela akzidenteen ideiekin, hauen izakera sakona denean, hala nola, geometriazko irudietan; adibidez, izpi paralelo guztiak foku gisako puntu batera biltzen dituen ispiluaren irudiaz dihardugunean, ispilu honen berezitasun zenbait aurki ditzakegu beronen eraiketa ezagutu aurretik, baina ezjakinean egongo gara gerta dakizkiokeen beste hainbat gora-beherez, ispiluaren baitan substantzien barne-eraketari dagokiona aurkitu arte, hau da, ispiluaren irudiaren eraiketa, hau izanen baita ondorengo ezagutzarako gakoa.

FILALETES: Baina gorputz horren barne-eraketa ezagutu izan bagenu ere, bertan aurki genezakeen gauza bakarra hau da, alegia, lehen koaltateek, zuk agerikoak deritzezunek, eduki dezaketen harekiko menpekotasuna, hots: jakingo genuke zeintzuk neurri, irudi eta indar higikor dauden haren menpe; baina ez genuke sekulan jakingo haiek bigarren koaltateekin edo nahasiekin eduki dezaketen lotura, adibidez, kolore, gustu eta beste koaltate sentigarriekin.

TEOFILO: Kontua da zure ustez koaltate sentigarri horiek edo, hobeto esanda, haietaz dauzkagun ideiak ez daudela berez irudien eta higiduren menpe, Jainkoaren kapritxo hutsaren menpe baizik, beronek ematen baitizkigu ideia horiek. Ahaztu egin duzu, antza, behin baino gehiagotan iritzi horren aurka nik irakatsitakoa, pentsarazi nahi bainizun ideia sentigarri horiek irudien eta higiduren espezifikotasunaren menpe daudela eta hauek zehazki adierazten dituztela, nahiz eta guk ezin argitu espezifikotasun hori gure sentimenak ukitzen dituzten ekintza mekanikoen multzo eta xumetasun handiegiaren erdian. Baina zenbait gorputzen barne eraketara iritsi izan bagina ikus genezakeen, halaber, noiz legozkiekeen koaltate horiek, zeinak berez murriztuko liratekeen euren arrazoi ulergarrietara; ez legoke, halere, inoiz gure esku haiek nabarmenki bereiztea gorputzen ekintzek guregan nahasiki eragindako ideia sentigarri horietan; hala gertatzen da orain berdearen analisi perfektua daukagunean urdinean eta horian, eta horretaz beste galderarik ia ez daukagunean, osagarri horiei dagokienean, baina hala eta guztiz, ezin ditugu bereizi urdinaren eta horiaren ideiak berdearen gure ideia sentigarrian, ideia nahasia delako hain zuzen ere. Antzekoa gertatzen zaigu gurpilaren hortzekin, ezin baitugu hauen ideia gurpiletik, hau da, kausatik bereizi gardentasun artifizial baten pertzepzioan; nik neuk aurkitu dut hau erlojugintzan, gurpil hortzduaren biraketa azkarrak hortzak desagertarazten baititu hauen ordeztuzko garden etengabea agertzen delarik, hortzen eta hortzarteko hutsuneen tankera jarraiak osatua, hain azkar baitabil gurpila gure irudimenak ezin duela bata bestetik bereizi. Gardentasun honen nozio berezian hortzak ditugu, jakina, ez ordea pertzepzio sentigarri

nahasian, horretan baitatza, hain zuzen, honen izakera, nahasia izatean eta nahasia irautean, alegia; hala ez balitz, nahaspila amaituko balitz (edota higidura geldoagoa balitz, gurpil atalak eta euren segidari erreparatzeko modukoa) ez litzateke bera izango, hots, ez litzateke gardentasun fantasma hori izango. Eta irudiztatu beharrik ez dugunez Jaungoikoa kapritxo guri fantasma hori ematen eta berau gurpilaren hortzen eta hauen hutsuneen higiduratik aske delarik eta alderantziz uste dugularik higidura horretan gertatzen denaren itxura nahasia baino ez dela, eta itxura hori da jarraian gauzak nahasten ditugulako ustezko aldiberetasunean, hartara aise erabaki dezakegu berdin gertatuko dela gainontzeko fantasma sentigarriekin, berauen analisia oraindik ere burutu gabe daukagun arren, koloreak, adibidez, edota gustuak etabar. Izan ere, fantasma izena zinez egokiago doakie koalitateak edo ideiak baino. Ikuspegi orotatik aski genuke gardentasun artifizial hau bezain ongi ulertuko bagenu, eta ezinezko da eta ez da arrazoizko hauetaz gehiago jakin nahi izatea; zeren fantasma nahasi horiek iraun arren, fantasiak euren osagarriak bereiz ditzakeela baieztatzea kontraesana baita; nork bere burua ikuspegi atsegin batek engainatuta ikusi nahiaren plazerra litzateke, eta aldi berean engainuaz jabetzea, eta hau iruzurra hondatzea litzateke. Kasu honetan ere azken finean

nihil plus agas

Quam si des operam, ut cum ratione insanias.²⁷⁴

Sarri gertatzen zaie gizakiei, baina, nodum in scirpo²⁷⁵ bilatu nahi izatea eta ez dagoen lekuan ere trabak sortaraztea, ezinezkoari buruz galdetuz eta ondoren ezintasunaz eta euren argiaren mugez arranguratuz.

(§ 8) FILALETES: Urre oro da finko dioen proposizioaren egia ezin ezagutuko dugu ziurtasunez. Izan ere, urretzat hartzen badugu naturak emandako esentzia errealak bereizten duen gauzen espezie bat, orduan ez dakigu zeintzuk substantzia partikularrak diren espezie honetakoak; beraz, ezin baieztatuko dugu ziurtasunez, ez eta urrea izanda ere. Eta urretzat hartzen badugu gorputz bat nolabaiteko kolore horizkoa, xaflakorra, urtugarria eta ezein gorputz ezagun baino astunagoa, ez da zaila jakitea zer den eta zer ez den urrea; baina gauzak horrela izanda ere, ezin baieztatu dezakegu ez eta ukatu ere ziurtasunez urrearen beste inongo koalitatekin, ideia honekiko lotura edo elkartuezin argigarria duena ez bada. Eta finkotasunak ez duenez inongo lotura ezagunik kolorearekin, pisuarekin edota ustez urreari buruz gure ideia konplexua osatzen duten gainontzeko ideia sinpleekin, ezinezkoa zaigu ziurtasunez ezagutzea dioen proposizioaren egia.

TEOFILO: Hemen ezagutzen ditugun gorputz orotatik astunena finkoa dela ia-ia hain ziur dakigu, nola ziurtasunez dakigun bihar eguna argituko duela. Ehun mila aldiz espermentatu dugulako ziurtasun experimentalak da eta egitezkoa, guk ezagutu ez arren finkotasunak gorputz horren gainontzeko koalitatekin duen lotura. Gainera ez dago zertan kontrajarri komunztatzen diren eta azken finean bat datozen gauza bi. Aldi berean horia, urtugarria eta arragoan erregaitza den gorputz bat gogora ekartzen dudanean esentzia bereziko gorputza dut gogoan eta esentzia honek, bere baitan ezezaguna izan arren, koalitate horiek sortarazten ditu funtsean eta hauen bidez ezagutarazten da, nahasiki bada ere. Ez dut okerrik ikusten hemen, ez eta behin eta berriro erasopean egoterik merezi duen ezer.

(§ 10) FILALETES: Oraingoz aski dut gorputzik astunenaren finkotasunaren ezagutza hori ideien egokitasun edo desegokitasunaren arabera ezagutua ez izatearekin. Eta neure artean uste dut gorputzen bigarren koalitateen eta hauei dagozkien ahalmenen artean ez genituzkeela bi aurkituko euren halabeharrezko koexistentzia edo elkartuezina ziurtasunez ezagutzeko modukoak dituztenak, salbu eta sentimen bereko koalitateak,

ezinbestez elkar baztertzen dutenak, zera esan daitekeenean adibidez, alegia, zuria ez dela beltza.

TEOFILO: Halere, agian aurki daitezkeela uste dut; adibidez, gorputz ukigarri oro (edota ukimenez senti daitekeena) ikusgarri da. Gorputz gogor orok, airean kolpatuz gero, zarata egiten du. Soken edo harien doinuak hauen tentsioa eragiten duten pisuen indar azpibikoitzean daude. Egia da, halaber, eskatzen duzun hori bakarrik izan daitekeela, ideia sentigarri nahasien ondoan ideia bereiziak bururatzen direnean.

(§ 11) FILALETES: Ez dugu beti pentsatu behar gorputzek euren koalitateak berez dituztela, beste edozerekin zerikusirik gabe. Urre zati batek, beste ezein gorputzen inpresiorik eta eraginik gabe, berehala galduko luke bere kolore horia eta bere pisua; agian birringarri ere bilakatuko litzateke eta bere xaflakortasuna galduko luke. Landareak eta animaliak zenbateraino dauden lurraren, airearen eta eguzkiaren menpe badakigu; nork daki urruneko izar finkoek zenbaterainoko eragina izan dezaketen guregan?

TEOFILO: Guztiz bidezkoa zure oharra. Eta hainbat gorputzen egitura ezaguna izan dakigunean haien ondorioak ebatzi ahal izango ditugu hauek ukitzen eta zeharkatzen dituztenen barnegunea ezagutu gabe.

(§ 13) FILALETES: Hala eta guztiz, gure irizpidea ezagutza baino areago joan daiteke. Oharkizunak egiten dihardutenak urruti iritsi daitezke eta behaketa zehatzean oinarritutako probabilitate bidez eta aproposki bildutako zenbait itxurantzekoren bidez, esperientziak oraindik aurkitu ez dien alorren bateko aieru zuzenak egin ditzakete sarri; aierutan geratzen dira, ordea, beti.

TEOFILO: Baina esperientziak ondorio horiek eten gabe justifikatzen baditu, ez al duzue zuek uste bide horretatik proposizio ziurrak ere aurki daitezkeela? Ziurrak diot, ondokoa bederen ziurtatzeko gai direnak, adibidez, gure gorputzetarik astunena finkoa dela eta bigarren astunena, hegazkorra; zeren nire iduriko, esperientzia soil ez da ideien loturaz edo analisis geureganatutako proposizio horien ziurtasuna (moralak, noski, edo fisikoa) onartua da gure artean eta arrazoiz, ez, ordea, euren beharrez (edo ziurtasun metafisikoa).

VII

Maximak edo axiomak deituriko proposizioak

(§ 1) FILALETES: Bada proposizio mota bat, maximak edo axiomak deituak, zientzien printzipiotzat hartzen direnak, eta berez direlako nabariak, mundu guztiak deritze sortzetikoak; baina inortxo ere ez da ahalegindu, nik dakidanik behintzat, hauen berebiziko argitasunaren arrazoia eta funtsa erakusten eta, nolabait esateko, honek behartzen gaitu hauei gure baimena ematera. Ez da, halere, alferrekoa ikerketa honi ekitea eta ikustea ea nabaritasun hori proposizio hauei soilik doakien, eta aztertzea, halaber, zenbateraino lagungarri zaizkien gainontzeko gure ezagutzei.

TEOFILO: Ikerketa oso baliagarria da eta garrantzi handikoa. Baina ez ezazu pentsa, jauna, guztiz baztertua izan denik. Ehundaka lekutan aurkituko duzu, nolatan Eskolako filosofoek esan zuten, proposizio horiek nabariak direla ex terminis, berauen terminoak ulertzen diren heinean; etsi-etsian uste zuten, izan ere, sinestearen indarra terminoen ulertzean zetzala, hau da, euren ideien arteko loturan. Baina geometrilariak areago joan dira, sarritan saiatu baitira hura frogatzen. Proklok Miletoko Tales, antzinateko geometrilaririk ospetsuenatakoari leporatzen dio geroago Euklidesek nabaritzat emandako proposizioak frogatu nahi izana²⁷⁶. Diotenez, Apoloniok frogatu omen zituen beste zenbait axioma eta Proklok ere. Roberval zena, laurogei urte inguru zituenean, Geometriako elementu berriak argitaratzeko asmotan zebilen; hauetaz lehenago mintzatu natzaizula uste dut. Artean oso ezagunak ziren Arnaud jaunaren

Elementu berriek izan zuten, agian, horretan eragina²⁷⁷. Zientzien Errege-Akademian erakutsi zuen zerbait hauei buruz eta batzuek honako hau kontraesan zioten: ontzat ematen bada axioma hau, bi magnitude berdinei magnitude berdinak eransten badizkiegu emaitzak ere berdinak izango dira, antzeko ebidentzia duen beste hau ere frogatzen dela, hots, bi magnitude berdinei magnitude berdinak kentzen badizkiegu emaitzak berdinak izango dira. Biak ontzat eman behar zituela esaten zen edota biak frogatu. Ni ez nengoen ados, uste bainuen axiomen kopurua murriztea beste horrenbeste irabaztea zela. Eta, zalantzarik gabe, batuketa kenketa baino lehenagokoa eta sinpleagoa da, bi terminoak bata zein bestea erabiltzen direlako era berean batuketan, eta ez da hala kenketan. Arnaud jaunak Robervalen alderantzizkoa egiten zuen. Euklidesek baino gauza gehiago ematen zituen honek ontzat. Maxime dagokienez, proposizio erabakitzat hartzen ditugu batzuetan, ebidenteak izan ala ez. Eskrupuluz diharduten hasiberrientzat lagungarri izan daiteke hau; baina zientzia eraikitzerakoan bestela jokatu behar da. Halakotzat hartzen ditugu sarri moralean eta logikariek ere euren topiko ugarietan, nahiz eta asko eta asko ilunak eta lausoak izan. Gainera, aspalditik azaldu dut bai publikoki, bai bakarka, gure axioma bigarrentiar guztiak frogatu beharko genituzkeela, lehen axiometara murrizturik erabili ohi baititugu, arartegabekoak eta frogaezinak beraz, nik azkenaldi honetan eta beste noizbait ere identikoak neritzenak.

(§ 2) FILALETES: Ezagutza berez da nabaria ideien egokitzapena edo desagokitzapena berehalakoan sumatzen denean. (§ 3) Baina, egia batzuk ez ditugu axiomatzat onartzen, berez besteak bezain nabariak izan arren. Ikus dezagun ea arestian aipatu ditugun egokitzapenezko lau espezieak (1. atala, § 3 eta 3. atala § 7), hots, identitatea, lotura, erlazioa eta existentzia erreala gai diren batzuk eskaintzeko. (§ 4) Identitateari eta dibertsitateari dagokionez, ideia bereziak bezainbeste proposizio nabari dauzkagu; uko egin baitiezaiokegu batari bestearekin, zera esatean adibidez, gizakia ez da zaldia, edo gorria ez da urdina. Gainera, hain da nabaria dena da esatea, nola nabaria den beste hau: gizakia gizakia da.

TEOFILO: Egia da; eta lehen ere azpimarratu dut hain nabaria dela ektetikoki hau esatea zehazki: A A da, nola den beste hau esatea orokorki: dena da (on est ce qu'on est). Baina, eta hau ere lehendik esana daukat, ez da beti segurua elkarrengandik ezberdinak diren ideien subjektuak ukatzea; baten batek esan gura izango balu bezala hirukia (edo hiru alde dituen) ez da triangelua, hirukitasuna ez baita, izan ere, triangelutasuna; halaber, norbaitek esan izan balu Slusius jaunaren perlak (hauetaz ere arestian mintzo izan natzaizu) ez direla parabola kubikoaren lerroak, oker zegokeen nahiz eta askorentzat hori nabaria izan. Hardy jaun defuntuak²⁷⁸, Pariseko Châteleteko kontseilaria, geometrialari eta orientalista bikaina eta antzinako geometrilariez asko zekienak, Euklidesen Data-ei buruz Marinusen iruzkina argitaratu zuen²⁷⁹ eta hain zegoen sinetsita konoaren zatiketa zehar, elipse deritzona, zilindroaren zatiketa zehararen ezberdina dela ezen Serenusen frogaren berarentzat paralogistikoa baitzen eta nire aholkuek ez zuten beragandik ezer lortu; esan behar dut, ordea, elkar ikusi genuenean berak Roberval jaunaren adina zuela, ni, aldiz, artean gaztea nintzen eta adinean alde honek ez zidan sinesgarritasunean laguntzen, bestalde elkarrekin oso ongi moldatu baginen ere. Bide nabar, adibide honek erakusten digu zer nolako eragina duen aurriritziak jende prestuengan ere, halakoxea baitzen bera, eta Descartes jaunaren gutunetan estimu handiz mintzo da Hardy jaunaz. Hemen aipatu nahi izan dut, agertu nahian soilik, zenbateraino engaina gaitezkeen inoren ideiak ukatzerakoan, behar zen bezain sakon aztertu gabe.

(§ 5) FILALETES: Konexioari eta koexistentziari buruz proposizio berez nabari oso gutxi dauzkagu; badira, halere, eta berez proposizio nabaria dela dirudi ondoko hau, alegia, bi gorputz ezin dira leku berean egon.

TEOFILO: Kristau askok eztabaidatuko dizute hau, lehen ere azaldu dudanez, bai eta Aristotelesekin berak ere eta honi jarraituz, kondentsazio errealak eta zehatzak onartzen dituztenek, gorputz bat bera osorik murriz baitezakete lehendik betetzen zuena baino leku txikiagora egokitzeraino; Comenius jaunak²⁸⁰ ere honetaz propio idatzitako liburuskari, beste horiek bezala, filosofia modernoa buruz behera ipini nahi digute haize-arkabuzaren esperientzia bidez eta ez datoz bat zurekin. Gorputza masa sartzina gisa hartzen baduzu, zure enuntziatua egia izango da identikoa edo oso antzekoa izanen baita; baina gorputz erreala halakoa dela ezeztatuko dizute. Esan daiteke, bederen, Jainkoak beste nolabait ere egin zezakeela gorputza; beraz, sartzintasun hori soilik onar daiteke Jainkoak eratutako eta esperientziak ziurtzat eskainitako gauzen ordenamendu naturalari lotuta bailegon, nahiz eta bestalde aitortu behar den arrazoiarekin ere oso ados datorrela.

(§ 6) FILALETES: Moduen erlazioez matematikariek zenbait axioma moldatu dituzte berdintasunezko erlazioaren gain soilik, hala nola, arestian aipatu duzun hori, alegia, gauza berdinetatik gauza berdinak kentzen badira, kendura berdina geratuko da. Hau bezain nabaria iruditzen zait, bat gehi bat bi direla esatea edota esku bateko bost atzamarretatik bi kendu eta beste eskuko bostekotik beste bi, atzamar kopuru bera geratuko dela bi eskuetan.

TEOFILO: Bat eta bat bi direla ez da zehazki egia, bi-ren definizioa baizik. Egia eta nabaria da, baina, izan daitekeen zerbaiten definizioa dela. Euklidesen axioma atzamarrei egotziz gero, zurekin nago honetan, atzamarrez diosuna bururatzea bezain erraza dela, alegia, A eta B hizkietan ikustea; baina, sarri gauza bera egiten ez iharduteagatik orokorrean irudikatzen dugu eta hortik aurrera subsuntzioak egitea aski da. Bestela, zenbaki partikularrekin egindako kalkulua arau unibertsalak baino nahiago izatea litzateke; eta horrela ahal dena baino gutxiago lortzen da. Hobe baita ariketa orokor hau ebatzea, alegia, aurki itzazu bi zenbaki zeinen batura aurrez emandako zenbakia den eta kendura, halaber, aurrez emandako beste zenbaki bat, beste ariketa hau baino: bila itzazu bi zenbaki soilik zeinen batura 10 izan dadin eta kendura 6. Bigarren ariketa honetan zenbakizko algebraren ildotik abiatzen banaiz, espeziotasaz²⁸¹ nahasita, honela litzateke kalkulua: $a + b = 10$ delarik, eta $a - b = 6$; eskuineko atala eskuinekoari erantsiz eta ezkerrekoa ezkerrekoari, beste honetara iristen gara: $a + b + a - b = 10 + 6$, esan nahi baita, $(+ b \text{ eta } - b \text{ elkar baliogabetzen dutelarik}) 2a = 16$ edo $a = 8$. Eta eskuineko atalari eskuinekoa kenduz gero eta ezkerrekoari ezkerrekoa $(a - b \text{ kentzea } - a + b \text{ gehitzea bezala denez})$ honela geratuko litzateke: $a + b - a + b = 10 - 6$, hau da, $2b = 4$ edo $b = 2$. Horrela lortu dut jakitea zeintzuk zenbaki ziren a eta b (8 eta 2) eskatu zaidanari erantzuteko, hots, baturak 10 egitea eta kendurak 6; baina horrela ez dut metodo orokorra eskuratu, 10 eta 6 zenbakien ordeez ezarri nahi ditugun gainontzekoentzat; metodo hau, ordea, 8 eta 2 bezain erraz aurki nezakeen, x eta v ezarriz 10 eta 6 zenbakien ordeez. Aurreko ildotik hona iritsiko ginateke: $a + b + a - b = x + v$ hau da, $2a = x + v$ edo, $a = 1/2 (x + v)$ eta era berean, $a + b - a + b = x - v$ hau da, $2b = x - v$ edo, $b = 1/2 (x - v)$. Eta kalkulu honek teorema edo canon orokor hau eskaintzen digu, alegia, bi zenbaki eskatzen direnean, zeinen batura eta kendura aurrez emanak dauden, eskatutako zenbakirik handienarentzat emandako batuketak eta kenketak osotzen duten baturaren erdia hartu behar da; eta eskatutako zenbakirik txikienarentzat emandako batuketaren eta kenketaren kenduraren erdia. Bazter utz nitzakeen hizkiak, ikus daitekeenez, zenbakiak hizkien ordeez eman banitu, hots, $2a = 16$ eta $2b = 4$ barik, beste hau idatzi izan banu, alegia, $2a = 10 + 6$ eta $2b = 10 - 6$, emaitza honetara iritsiko ginateke: $a = 1/2 (10 + 6)$ eta $b = 1/2 (10 - 6)$. Horrela, kalkulu partikularrean kalkulu orokorra ere edukiko nuke, 10 eta 6 datuak zenbaki orokortzat hartuz, x eta v hizkiak bailiran; era horretan egia edo metodo orokorragoa edukiko genuke. Eta 10 eta 6 ikurrak

hartzen baditugu beraiek adierazten duten kopurutzat, horra froga gisa ere balio digun adibide argi bat. Eta Viètek²⁸², orokortasun gehiago lortu nahian, zenbakien ordeztasunak ezarri zituen moduan, nik zenbakien ikurrak berrezarri nahi izan ditut, hauek hizkiak baino egokiagoak direlako algebra espeziosan ere. Guztiz erabilgarria da hau kalkulu handietan akatsak ekiditeko eta frogak egin ahal izateko, hala nola, 9-aren frogak kontuaren erdian, guztizko emaitzaren zain egon behar gabe; hizkien ordeztasunak baino ez daudenean egin daiteke hau; sarritan egin daiteke hau zenbakiak erakusle gisa erabiltzen direnean jarreretan, halako moldeak non suposizioak egiazko gertatzen diren partikularrean; horrez gain, erabilgarria da erlazioak eta ordenamenduak ikusteko, hizki soilekin ezin baititu sarritan izpirituak hain erraz bereizi; lehendik ere azaldua dut hau, karakteristika egokia giza izpirituarentzat laguntzarik onena dela aurkitu nuenean.

(§ 7) FILALETES: Ideietan nabarmendu daitekeen egokitzapenaren laugarren espezietan bezala sailkatu nuen existentzia erreala ezin digu axiomarik eskaini, ez baita ukagutza kanpoko izakiaren inongo ezagutza frogagarriarik, Jainkoa salbu.

TEOFILO: Beti baieztatu daiteke dioen proposizioa erabat nabaria dela edota arartegabeko egia, proposizio hau ezin daitekeelako frogatu beste batetik abiatuz. Eta esatea ez da zehazki pentsamendutik abiatuta existentzia frogatzea, pentsatzea eta pentsatzaile izatea gauza bera baita; eta esatea esatea da. Halere, proposizio hau axiomaren multzotik kanpo utzi dezakezue arrazoiz, egiteko proposizioa baita bertatik bertarako esperientzian oinarrituta, eta ez beharrezko proposizioa, ideien artez-artearen egokieraren beharrezko erakusten duten horietakoa. Alderantziz, Jainkoak bakarrik ikus dezake nolatan bi hitz hauek, ni eta existentzia, elkarrekin lotzen diren, hots, zergatik existitzen naizen. Baina axiomatzat hartzen badugu arruntasun zabalagoz edozein egia arartegabeko edo ez-frogagarri, orduan esan daiteke proposizio hau axioma dela eta edozein modutan ere ziur egon gaitezke lehen egia dela edota unum ex primis cognitis inter terminos complexos²⁸³, hau da, enuntziatioetan lehenik ezagunetarikoa, gure ezagutzapenen ordenamendu naturalean ulertua, gizakiren batek agian proposizio zehatz hau moldatzerik ere inoiz ez pentsatua gerta baitaiteke, sortzetikoa zaion arren.

(§ 8) FILALETES: Beti uste izan dut axiomek eragin eskasa zutela gure ezagumenaren gainontzeko ataletan. Baina amore ematera behartu nauzu, identikoen erabilera garrantzitsua erakutsi diguzunean. Hala eta guztiz, behin eta berriro jasan beharko duzu, jauna, gai honetaz pentsatu nuenari buruzko nire azalpena; horrela zure argitzapenak beste zenbait irtenaraziko ditu okerbideak. (§ 8) Eskoletan ezaguna da harako arau hura, alegia, arrazoinamendu oro datorrela aurrez ezagutu eta onartutako gauzetatik, ex praecognitis et praekoncessis. Arau honek, antza, maxima horiek erreparatzen ditu gainontzekoak baino lehenago izpirituak ezagututako egia gisa, eta gure ezagumenaren beste atalak, axiomei lotutako egia gisa. (§ 9) Frogatutzat ematen nuen (I lib., 1. atala) hauek ez direla lehenik ezagutzen ditugun axiomak, haurrak askoz lehenago jakingo baitu erakusten diodan makilatxoa ez dela berak dastatu duen azukrea, zure gustuko ezein axioma baino. Baina zeuk ere bereizi dituzu aparteko ezagutzak edo egintzen esperientziak eta ezagutza unibertsal eta halaber beharrezkoaren printzipioak (honetarako aitortzen dut axiometara jo beharra dagoela) eta bereizi dituzu, halaber, ordena akzidentala eta naturala.

TEOFILO: Eta horri erantsi diot ordena naturalean lehenago baieztatzen dela gauza bat dena dela beste zerbait ez dela esan baino; ez gara ari hemen gure aurkikuntzen historia egiten, berau ezberdina baita gizaki ezberdinen artean; egien arteko loturaz eta ordena naturalaz ari naiz, eta hau beti da bat eta bera. Baina haurrak ikusten duena egintza baino ez dela diozunean, oharpen honek hausnarketa zabalagoa merezi du; zeren sentimenteren esperientziek ez baitizkigute egia erabat ziurak ematen (zuk zeuk duela gutxi adierazi duzunez), liluraren arriskutik erabat kanpo gelditzen diren egia, alegia.

Zilegi bazait metafisikoki burutu daitezkeen hipotesiak egitea, azukrea makilatxo bilaka daiteke era ohartezinean haurrak gaizki portatu direnean zigortzeko, Gabon bezperan gurean ura ardo bilakatzen den moduan, ume txintxoaren sari. Baina makilak eragindako oinazea (esango didazu) ez da sekulan izango azukreak ematen duen gozoaren atsegina. Hona nire erantzuna: proposizio berezi batez honetaz jabetzeko, axioma hau antzemateko beste denbora behar du haurrak, alegia, ezin dela egiaz esan dena ez dela aldi berean, atseginaren eta oinazearen aldea hautemateko gai izan arren, edota hautematearen eta ez hautematearen aldeaz oso ongi jabetu arren.

(§ 10) FILALETES: Hona, bestalde, beste hainbat egia, berez maxima hauek bezain nabariak. Adibidez, bat eta bi hiru dela dioen proposizioa beste axioma hau bezain nabaria dugu, hots, oroa elkarrekin hartutako bere atal guztien berdina da.

TEOFILO: Ahaztu ote zara bada, jauna, nolatan behin eta berriz azaldu dizudan bat eta bi hiru dela esatea hiru hitzaren definizioa baino ez dela, halako moldez non bat eta bi berdin hiru dela esatea gauza bat bere berdina dela esatea baita. Beste axioma honi buruz, hots, oroa elkarrekin hartutako bere atal guztien berdina da, Euklidesek ez du espreski erabiltzen. Axioma hau ere mugatu beharra dago, zehaztekoa baita atal horiek ez dutela euren arteko atal komunik eduki behar, zeren 7 eta 8 12-ren atal izaki ere, elkarrekin 12 baino kopuru handiagoa osatzen baitute. Soingaina eta giza enborra elkarrekin hartzen baditugu, gizakia baino gehiago dira, bularra bietan sartzen delako. Baina Euklidesek dio oroa bere atala baino handiagoa dela eta honetan ez dago zalantzarik. Eta gorputza enborra baino handiagoa dela esatean Euklidesen axiomatik honetan soilik aldentzen gara, alegia, axioma hori behar denera soilik mugatzen dela: baina adibideak egiterakoan eta gorputzez jazterakoan ulerkorra sentikor bilakatzen dugu; izan ere, oro delako bat beronen ataletariko hura baino handiagoa dela esatea, oro bat bere atala baino handiagoa dela dioen proposizio bera da, baina gehigarri edo argitzapenez jantzita; AB dioenak A esatea bezala. Ez ditugu, beraz, hemen axioma eta adibidea kontrajarri behar, honi buruzko egia ezberdin bailiran; axioma adibideari erantsita eta adibide hau egia bihurtzen kontsideratu behar dugu. Bestela gertatzen da adibidean ebidentziarik antzematen ez denean eta adibidearen baieztapena proposizio unibertsalaren ondorio bat denean eta ez subsuntzio soil, axiomatan ere gerta daitekeena.

FILALETES: Puntu honetaz hau dio gure idazle prestuak: egitatezkoa ez den ezein beste ezagutza printzipio orokorren, sortzetikoen eta berez nabariaren menpe dagoela uste duten jaun horiei galdetu nahi nieke zein printzipioz baliatzen diren eurak bi eta bi lau dela frogatzeko. Izan ere (idazlearen ustez), proposizio mota hauen egia ezagutzera iristen gara inongo frogaren laguntzarik gabe. Zer diozu zuk horretaz?

TEOFILO: Puntu honetan ongi prestatuta aurkitzen nauzula diotsut. Bi eta bi lau izatea ez da inondik ere egia erabat arartegabekoa, aurrez suposatutzat eman bada hiru eta bat-ek lau adierazten duela. Begira nola frogatu daitezkeen hori:

Definizioak:

- 1) Bi, bat eta bat da.
- 2) Hiru, bi eta bat da.
- 3) Lau, hiru eta bat da.

Axioma:

Gauza berdinak bata bestearen ordeztartzen baditugu, berdintasunak bere horretan dirau.

Frogapena:

2 eta 2, 2 eta 1 eta 1 da (1. definizioa)	$2+2$
2 eta 1 eta 1, 3 eta 1 da (2. definizioa)	$2+1+1$
3 eta 1, 4 da (3. definizioa)	$3+1$
	4

Beraz, axiomaren arabera, 2 eta 2 4 da. Hauxe frogatu behar zen.

2 eta 2, 2 eta 1 eta 1 barik esan nezakeen 2 eta 2 berdin 2 eta 1 eta 1 da, eta horrela gainontzekoekin. Baina hala uler daiteke urrats guztietan, arinago iharduteagatik; eta hori honako beste axioma honi jarraiki, alegia, gauza bat bere berdina da, edota gauza bera dena berdina da.

FILALETES: Ondorioa ezagunegia izateagatik soberan dagoen frogapen honek balio digu erakusteko zeinen lotuta dauden egiak definizioetara eta axiometara. Horrela aurrikusten dut zer erantzungo diezun axiomen erabileraren aurka egiten diren hainbat objektziori. Printzipio kopuru zenbakaitza egongo dela objektatzen da; baina hau gertatzen da printzipio gisa zenbatzen ditugunean definizioetatik axiomaren baten laguntzaz eratortzen diren korolarioak. Eta definizioak edo ideiak zenbakaitzak direnez, zentzu horretan printzipioak ere halaxe izango dira, bai eta zurekin ados, frogaezinezko printzipioak axioma identikoak direla suposatutzat ematen denean ere. Zenbakaitzak bihurtzen dira exenplifikazioagatik baina funtsean $A=A$ da, eta $B=B$ da, ezberdin jantzitako printzipio bat bera direla ikus daiteke.

TEOFILO: Gainera, ebidentzia maila ezberdin honek narama zure idazle ospetsuarekin ados ez egotera hau dioenean, alegia, printzipioak deritzen egia horiek guztiak, berez lehen axioma frogaezinetatik hurbil daudelako ebindentetzat dauzkagunak, erabat independenteak direla eta ezin dutela batzuek besteengandik inongo azalpenik edo frogarik onartu. Izan ere, beti murrizt ditzakegu edo axioma beraietara edo axiometatik gertuago dauden beste egiatara; halaxe erakutsi berri dizu bi eta bi lau dela dioen egiak. Arestian kontatu dizut nolatan Roberval jaunak murrizten zuen Euklidesen axioma kopurua, bata bestera bilduaz batzuetan.

(§ 11) FILALETES: Gure solasaldietarako parada eman digun idazle zuhur honek aitortzen du maximek badutela beren onura, baina bere ustez egokiagoak dira setatsuei ahoa ixteko zientziak lantzeko baino. Atseginez hartuko nuke, dio berak, norbaitek erakutsiko balit axioma orokorren ganean eraikitako zientziaren bat, axioma horiek barik ere ezin finka daitekeela frogatuz.

TEOFILO: Zalantzarik gabe, geometria da zientzia horietariko bat. Euklidesek berariaz erabiltzen ditu axiomak frogapenetan, eta honako axioma hau: bi magnitude homogeenoe berdinak dira, bata bestea baino ez handiago, ez txikiago denean, Euklidesen eta Arkimedesen lerromakurren magnitudeen gaineko frogapen oinarria da. Euklidesek behar izan ez zituen axiomak erabili ditu Arkimedesek; hala nola, bi lerrotan, bakoitzak bere ahurtasuna beti alde beretik duelarik, handienak biltzen du bestea. Geometrian ezin ditugu axioma identikoak alboratu, esaterako, kontraesan printzipioa edota ezinezkora garamatzaten frogapenak. Eta hauetatik abiatuz, frogagarri diren beste axiomak ere albora genitzake, absolutuki mintzo, eta identikoetatik eta definizioetatik ondorioak ararte gabe atera; baina hainbeste frogapenak eta ezinbestean egingo genituzkeen amaigabeko errepikapenek nahasmen ikaragarria erakarriko lukete, behin eta berriro ab ovo²⁸⁴ ekin behar izango bagenio; aurrez frogaturik dauden bitarteko proposizioak suposatuz, aldiz, aise joan gaitezke urrunago. Egia ezagunen suposaketa hau egokia da, batez ere axiomei begira, hain sarri agertzen baitira hauek, geometrialariek eten gabe erabili behar dituztela, aipatu ezik ere; gure aldetik errakuntza litzateke ez daudela pentsatzea beti oharretan aipatuak ikusten ez ditugulako, beste gabe.

FILALETES: Baina teologiaren adibidea dakar berak, objekzio modura. Errebelaziotik datorkigu (dio) erlijio santu honen ezagutza eta laguntza hau gabe maximak ez ziratekeen sekulan gauza izango guri hura ezagutarazteko. Beraz, argia gauzetatik bertatik datorkigu edota Jainkoaren egiatasun hutsezinetik ararte gabe.

TEOFILO: Nik esango banu bezala: medikuntza esperientzian dago oinarrituta, beraz, arrazoiak ez du hor ezertarako balio. Arimen zinezko medikuntza den teologia kristaua esperientziari erantzuten dion errebelazioan dago oinarrituta; baina gorputz bete osatzeko teologia naturala erantsi behar diogu, betiereko arrazoietatik datozen axiometatik eratorritako teologia, alegia. Egiatasuna Jainkoaren dohaina da, dioen printzipio hau berau, errebelazioaren ziurtasunaren oinarri gisa onartzen duzuna, ez al da teologia naturaletik hartutako maxima bat?

FILALETES: Gure idazlearen ustez, bereizi egin behar dira ezagutza lortzeko eta berau irakasteko bideak, edota irakastea eta komunikatzea. Eskolak eraiki zirenetik eta besteek asmatutako zientziak hedatzeko irakasleak agertu zirenetik, irakasle hauek maximak erabili dituzte zientziak ikasleen izpirituan ezartzeko eta axioma bidez hauek zenbait egia partikularrez konbentzitzeko; lehen asmatzaileak, aldiz, egia partikularrez baliatu ziren egia aurkitzeko, maxima orokorrik gabe.

TEOFILO: Ustezko prozedura hori zenbait egia partikularren adibideez justifikatuta egotea gustatuko litzaidake. Baina gauzak ongi aztertuz, ez dugu inoiz aurkituko zientzien egituratzean honelako praktika-rik. Asmatzaileak egia partikularra besterik aurkitzen ez badu, erdizka soilik da asmatzaile. Pitagorasek ikustatu balu 3, 4 eta 5-eko aldeak dituen triangeluak soilik egiaztatzen duela harako propietate hura, alegia, hipotenusaren karratua aldeen karratuen batuketaren berdina zela (hau da, $9 + 16, 25$ dela), triangelu angeluzuzen guztiak biltzen dituen eta geometrilarien maxima bilakatu den egia handi horren asmatzailea bera izan ote zen? Egia da azarez hartutako adibideak eraman dezakeela sarritan gizaki adimentsua egia orokorraren aurki bidera, baina aurkitze honek arazoak ditu gehienetan; gainera, asmakizun bide hau ez da onena, ez eta erabiliena ere, ordenaz eta metodoz dihardutenen artean; beste metodo hobeekin aski ez dutenean soilik jotzen dute bide horretara. Uste izan dute batzuek Arkimedesek parabolaren karratura aurkitu zuela parabola eran landutako egur zati bat pisatuz, eta esperientzia partikular honek eraman zuela egia orokorraren aurkikuntzara; baina gizon handi honen zorroztasuna ezagutzen dutenek ondotxo dakite laguntza horren premiarik ez zuela. Horrez gain, egia partikularren bide enpiriko hau aurkikuntza guztietarako abagunea izan balitz ere, ez zen aski izango besteengana helarazteko; eta asmatzaileek beraiek ere gogatsu arakatu dituzte maximak eta egia orokorrak, haietara iristea lortu dutenean; hala ez balitz, euren asmakizunak guztiz imperfektuak lirateke. Eskolei eta irakasleei egotz dakieke, beraz, maximak eta gainontzeko egia orokorrak biltzea eta sailkatzea; eta Jainkoaren nahia izan balitz areago eta ardura eta aukera handiagoz egin ahal izatea, zientziak ez lirateke gaur hain sakabanatuak eta hain nahasiak aurkituko. Aitortzen dut, halere, sarritan aldea dagoela zientziak irakasteko erabiltzen dugun metodoa eta hauek aurkitzera eraman gintuen metodoaren artean; baina ez da hau gure solasgaia. Batzuetan, lehen ere azaldu dut hau, azareak eskaini die aurkikuntzei abagune. Kontuan hartuak izan balira abagune hauek, eta berauen oroitzapena ondorengoentzako gorde izan balitz (zinez, mesede handia izango zen), xehetasun honek arteen historian atal gogoangarria beteko zukeen, baina sistemak osatzeko ez zen egokia izango. Noizbehinka asmatzaileak ere benetan razionalki ihardun izan dira, baina zeharbide luzeetan barna. Nire ustez, aldi garrantzitsuetan idazleek jendeari zerbitzu onuragarria egingo zioteten, euren idatzietan zintzoki erakutsi nahi izan balute saiakuntza bideetako urratsak; baina, zientziaren sistema oinarri horren gain eraikitzea etxe eraikian arkitektoak eraikuntzan erabili duen tresneria gordetzea bezala litzateke.

Irakaskuntzarako metodo onak izango dira zientziaren aurkikuntzara eraman gintzaketen bideak; beraz, zientziak enpirikoak ez badira, hots, egiak arrazoien bidez edo ideietatik eratorritako frogen bidez irakasten badira, hau beti egingo da axiomen, teoremen, arauen eta beste proposizio orokorren bidez. Bestelakoa da bidea, egiak aforismoak direnean, Hipokratesenak kasu²⁸⁵, hau da, egitatezko egiak edo orokorrak edota gutxienik egiazkoak, behaketaz ikasitakoak gehienak edo esperientzietan oinarritutakoak, arrazoi erabat sinesgarriak ez dutenak. Ez da, baina, hau gure solasaren gaia, egia horiek ez baitira ideien arteko lotura bidez ezagunak.

FILALETES: Hona, gure idazle adimentsuaren ustez, nola sartu zen maximen premia. Eskolek eztabaida ezarri zutenean jendearen trebetasuna frogatzeko, guda-zelaia utzi gabe azken hitz egiten zuena izaten zen garaile. Baina nolabait egosgogorrek limurrarazteko maximak finkatu behar ziren.

TEOFILO: Filosofia eskolek hobeto egingo zuketena, zalantzarik gabe, praktikarekin teoria lotu izan balute, medikuntza, kimika eta matematika, eskolek egin ohi duten modura; eta saria eman baliote ondoen egingo zukeenari, batik bat moralaren esparruan, ondoen mintzo zenari eman ordez. Baina, zenbait alorretan diskurtsoa bera delarik ondorioa, eta ondorio bakarra batzuetan eta gizaki baten trebezia erakus dezakeen maisu-lana, hala nola gai metafisikoetan, arrazoiz erabaki izan da inoiz edo behin zenbait pertsonaren gaitasuna, hauek hitzaldietan lortutako arrakastatik. Gauza jakina da, halaber, Erreforma aldiko lehen garaian protestanteek euren aurkakoak gonbidatzen zituztela solasaldi eta eztabaidetara eta batzuetan eztabaida hauetan lortutako arrakastak bultzatuz zuela jendea Erreformaren alde. Gauza jakina da, baita ere, mintzoaren arteak eta arrazoiak argitzeko eta sendotzeko gaitasunak edota, nolabait esateko, eztabaidatzeko trebeziak zer nolako ahalmena duen Estatu Kontseilu batean edo gerra-kontseiluan, epaitegian, kontsulta medikoan eta solasaldian bertan ere. Abagune horietan bide horri eutsi behar diogu, hitzez baliatu, egitez barik, etorkizun diren gertakizunak eta egintzak eztabaidatzen baitira, eta ondoriotik egiara iritsi orduko berandu litzateke. Hartaz, eztabaidarako gaitasuna edo argudioz borrokatzekoa (eta hemen sartzen ditut nik agintariekiko jazarpenak eta adibideak) oso zabala da eta garrantzi handikoa; baina, tamalez, oker araututa dagoelako, sarritan ez da deus ondorioztatzen edota ondorio okerretara iristen da. Behin baino gehiagotan izan naiz eskutan ditugun teologoek solasaldiei buruz ohar batzuk egiteko asmotan, bertan aurki daitezkeen akatsak azpimarratu eta erabil daitezkeen irtenbideak erakusteko. Negozio-eztabaidetan ahalmena dutenek izpiritu sendoa ez badute, agintea eta elokuentzia garaile irten ohi dira egiaren aurrez aurre. Labur esanda, solasaren eta eztabaidaren artea berregin beharko litzateke erabat. Azken mintzatzearen abantailari dagokionez, honek ez du zerikusirik solasaldi libreetan; kontseilutan, izan ere, sufragioak edo botoak bata bestearen atzetik doaz, azken mailatik hasi, nahiz amaitu. Egia da lehendakariari dagokiola gehienetan hastea eta amaitzea, hots, proposamenak mahairatu eta ondorioak ateratzea, baina ondorioak botoen kopuruaren arabera izan ohi dira. Eta eztabaida akademikoetan erantzule edo azterketariak du azken hitza eta ia beti gudu-zelaian irauten du, ohiturak hala aginduta. Aztertu egin behar baita eta ez nahastu, arerioarena egin nahi ez bada. Eta zinez, une horietan egiak ez du ia axolarik; katedra berean egun ezberdinetan kontrako tesiak defendatu ohi diren moduan. Sorbonako aretora bisitan, esan omen zioten Casauboni²⁸⁶; eta berak erantzun: .

FILALETES: Eztabaida infinituraino luza ez zedin saiatu dira eta trebetasun berdineko bi lehiakideren artean ebazpidea aurkitu nahi izan da silogismoen segida infinitua saihesteko. Eta bidea izan da, proposizio orokor zehatz batzuk ezartzea, berez nabariak gehienak eta gizaki orok baiespen osoz onartzeko modukoak izaki, egiaren neurri orokortzat hartu beharko liratekeenak eta printzipioen egitekoa bete (lehiakideek

besterik ezarri ez dutenean), batak zein besteak gaintitu ezinezko eta eurenganatu beharreko printzipioak, alegia. Horrela, maxima horiei printzipio izena eman zitzaien, eztabaidan ukatu ezinezko printzipioak eta auziari amaiera ezartzen ziotenak, eta (nire idazleak dioenez) ezagupenen iturburu eta zientzien oinarritzat hartu dituzte huts egitez.

TEOFILO: Ai molde horretan erabiliak izango balira eztabaidetan! Ez legoke inongo eragozpenik eta zerbait, bederen, erabakiko litzateke. Eta zer egin daiteke kalapita murriztea baino hoberik, hau da, egia eztabaidatuak egia nabari eta eztabaidaezin bilakatu baino hoberik? Ez al litzateke hori egiak era frogagarrian finkatzea? Eta nork jar dezake zalantzan eztabaidak amaitu eta egia ezartzen duten printzipio hauek ez ote diren aldi berean ezagupenen iturburuak? Zeren arrazoinamendua egokia izaki, bost axola nola egiten den, nork bere langelan isilean edota jende aurrean katedratik aldarrikatuz. Eta printzipio hauek axioma barik, eskabideak balira, eskabideak ez Euklidesen esanahian, Aristotelesenean baizik, hots, frogatzeko beta izan bitartean onartutzat eman nahi diren suposizioak, printzipio horiek beti erabilpen hau edukiko lukete, alegia, euren bitartez gainontzeko auzi guztiak proposizio kopuru txiki batera murriztuko liratekeela. Hala gertatzen zait munduko pertsonarik harrituena izatea ni laudagarri deriztan zerbait gutxien ikusten dudanean, ez dakit nik zein prebentzioengatik; eta zure idazlearen adibidean ongi ikusten denez, gizakirik zuhurrenak ere jausi daitezke horretan arreata faltaz. Eztabaida akademikoetan, tamalez, besterik gertatu ohi da. Axioma orokorrak finkatu orde, ahal dena egiten da hauek makaltzen, bereizketa hutsalen eta estuen bidez, eta gainera, liburu handiak bete dituzten zenbait arau filosofiko erabiltzen dira, zehaztugabeko eta zalantzazko arauak, bereizketa bidez hauetatik itzuri egiteak atsegin ematen baitigu. Hau ez da eztabaidari amaiera emateko bidea, bai ordea, eztabaidak amaigabeak bihurtzeko eta lehiakidea ahiturik uzteko. Leku ilun batera eramango bagenu bezala da, eta bertan edonondik, edonola jipoitu, inork sekulan epaia emateko modurik gabe. Aurkikuntza bikaina da sostengatzaileentzat (respondentes) zenbait tesi defendatzen ahalegintzen direnean. Vulkanoren ezkutuak bezala, zaurtezinezko bihurtzen ditu; edota Plutonen kasketak bezala, Orci galea²⁸⁷, ikustezin. Oso dorpeak beharko dute izan edota zoritxarrekoak, horrekin guztiarekin ere harrapatuko badituzte. Egia da arau batzuek salbuespenak dituztela, zirkunstantzia ugari biltzen dituzten gaietan batik bat, hala nola jurisprudentzian. Baina hauen erabilera ziurtatzeko, salbuespen hauek ahal den neurrian zehaztu behar ditugu kopuruz eta esanahiz: eta orduan gerta dakiguke salbuespenak bere azpisalbuespenak izatea, hau da, bere erreplikak eta erreplikak euren duplikak, etab., baina nolanahi den ere, salbuespen eta azpisalbuespen hauek guztiek, oso ongi zehaztuta eta arauarekin bat eginda, unibertsaltasuna osatu behar dute. Honen adibide nabarmenak eskaintzen dizkigu jurisprudentziak. Baina, salbuespenez eta azpisalbuespenez jositako arau mota hauek eztabaida akademikoetan parte izan beharko balute, luma eskuan dugularik eztabaidatu beharko litzateke, alde batean eta bestean esaten denaren aktaren modukoa eginez. Eta hau, bestalde, are eta premiazkoagoa litzateke etengabe silogismo mota ezberdinez eztabaidatuko balitz, noizean behin bereizketekin aldrebestuta, munduko oroimenik onena ere nahastarazteko moduan. Baina inork ere ez du lan hau beregain hartzen, ez eta silogismoak dagokien eran aurrera ateratzen, eta hauek egia aurkitzeko gogoratzten, egiak saririk ez duenean; nahi izanda ere ezinezkoa litzateke arik eta bereizketak baztertzen ez diren bitartean edota, gutxienik, egokiago arautzen.

FILALETES: Egia da, halere, eta gure idazlea ohartu da horretaz, Eskolako metodoa lardaskatzaileen ezpainak lotzeko asmotan eskoletatik kanpoko solasaldietara hedatzeak ondorio onik ez duela ekarri. Izan ere, ararteko ideiak edukiz gero ezin daiteke loturarik egon maximen laguntzarik gabe, eta hauek sortu arte; aski litzateke hau jende zintzo eta xeratsuen artean. Baina eskoletako metodoek gizakiak baimendu eta bultzatu dituztenez egia nabariei

aurre eta kontra egitera, kontraesanetara behartuak izan arte edota printzipio finkatuei eraso arte, ez da harritzekoa ohoregarri dena eta eskoletan bertutetzat hartzen dena elkarritzeta arruntean lotsarik gabe egiten badute. Idazlearen esanetan, halaber, munduan sakabanaturik dagoen zentzuzko jendeak, heziketak oraindik ere kutsatu gabeak, nekez sinetsiko du egiaren maitale aurkezten diren pertsonen halako metodoari men egin izana, bizi guztian erlijioa edo natura ikertzen ihardun ondoren. Ez dut hemen aztertuko (dio berak) heziketa mota honek zenbateraino alden dezakeen gazteen izpiritu maitasunetik eta egiaren bilaketa jatorretik; aldiz, munduan egia zinezkorik ba ote den edota atxikimendurik merezi duenik ba ote dagoen, zalantzak sortarazten dizkie. Benetan sinesten dut, ordea, (gehitzen du berak) maxima hauek ez direla inon ere hartuak izan zientzien oinarri gisa edota gauzen ezagutzan aurrera egiteko laguntza handikotzat, salbu eta filosofia peripatetikoa euren eskoletan onartu duten lekuetan, hauetan agindu baitu mendeetan zehar munduari eztabaidarako artea beste gabe irakatsiz.

TEOFILO: Zure idazle prestuaren ustetan, eskolek berez eratu dituzte maximak, inoren laguntzarik gabe; baina, gizadiaren sena orokor eta guztiz zuhurra izan da sortzailea. Hala ikus dezakezu nazio guztietan erabiltzen diren esaera zaharretan, jendearen adostasunez onartutako maximak baino ez baitira hauek. Eta zentzuzko pertsonen egiaren aurkako deritzogun zerbait esaten dutenean, justiziaz pentsarazi behar zaie esakeran dagoela akatsa, ez pentsamoldean: eta hau baieztatzen dut nik hemen gure idazlearengan, eta maximen aurka hartu duen jarreraren zergatia zein den susmatzen hasia naiz dagoeneko. Diskurtso arruntetan, eskoletan bezala lehiatzen ez garenean, amore eman aurretik konbentzimendua agertu nahi izatea nahasketa sortzea da; bestalde, gehienetan gogo hobeko izan ohi gara premisa nagusi ulergarriak ezabatuz eta entimemekin aski izaki, eta sarritan premisarik ere osatu gabe aski izan ohi da medius terminus soila edo erdiko ideia ezartzea, izpirituak lotura nahiko ongi ulertzen baitu, adierazi beharrik gabe ere. Eta ongi doa hau lotura zalantzarik gabekoa denean; baina, zuk zeuk ere badakizu, jauna, sarritan arinegi ematen dela halakotzat, eta hortik datoz paralogismoak, halako moldez non esapideetan maiz gehiago erreparatu behar zaion segurtasunari eta ez hainbeste laburtasunari eta dotoreziari. Alabaina, maximen aurka zure idazleak duen aurriritziak egiaren eraikuntzan hauen erabilgarritasuna erabat gaitzestera darama, eta berauei leporatzen dizkie solasaldiko hutsegiteak. Egia da, bestalde, ariketa akademikoetan ihardun duten gazteak nekez moldatzen direla munduan, gehiegitsu arduratzen baitira ariketan eta behar bezainbeste ez ariketari ahalik eta etekinik handiena, hau da, ezagutza, ateratzen. Eta hauen saihesbide bat izan ohi da egia ez onartzea norbaitek begien aurrean erabat nabarmen jartzen dien arte, zintzotasunak eta gizatasunak horraino iristen utzi beharko ez liekeen arren, ezeroso bilakatzen direlako eta euren inguruan irudipen txarra sortarazten dutelako. Sarritan letradunak kutsatzen dituen bizioa dela hau, aitortu behar da. Errorea ez datza, baina, egiak maxima bihurtu nahian, garaiz kanpo eta premiarik gabe hori egin nahi izatean baizik, giza izpirituak gauza asko beregana baititzake bat-batean eta urrats bakoitzean geldiaraziz eta egiten duen guztia azaltzera behartuz izpiritu hau gogaitarazten dugu. Saltzailearekin edo etxeakoandrearekin kontuak egiterakoan seguruago egon nahian, guztia atzamarrez zenbatzera behartuko bagenu bezalatsu da. Ergela edo kapritxosoa izan behar da, edo gurati, hori eskatzeko. Batzuetan zentzuzko aurkitzen dugu Petronio zera esan zuenean, *alegia, adolescentes in scholis stultissimos fieri*²⁸⁸, hots, gazteak ergel bihurtzen direla eta batzuetan burugabe, zuhurtziaren eskola behar luketen lekuetan; *corruptio optimi pessima*²⁸⁹. Askoz ere maizago bihurtzen dira, ordea, hutsal, nahastaile eta nahasi, apetatsu, gogaikarri, eta hau guztia egokitu zaizkien maisuen umorearen arabera. Horrez gain, nire ustez, argitasun gehiegi eskatzea baino akats askoz ere larriagoak daude

solasaldian. Alderantzizko bizioan jausten gara gehienetan, nahiko argi eskaintzen edota eskatzen ez dugunean. Bata ezerosoa bada, bestea tamalgarri eta arriskutsu.

(§ 12) **FILALETES**: Halakoxea izan ohi da maximen erabilera ere batzuetan, nozio faltsu, hutsal edo zalantzasukoetara lotzen ditugunean; orduan maximek gure errakuntzetan finkatzera eta kontraesanak frogatzera garamatzate. Adibidez, Descartesi jarraiki, gorputza hedaduran soilik datzala, norbaitek pentsatzen badu, dioen maxima bidez aise iritsiko da frogatzera hutsunerik, hau da, gorputzik gabeko espaziorik ez dagoela. Bere ideia ezagutzen duelako, badaki ideia hau dena dela, ez besterik; hartaz, hedadura, gorputza eta espazioa berarentzat esanahi bera duten hiru hitz izaki, hain zaio egiazko esatea, nola baieztatzea. (§ 13) Baina era berean, gorputza zerbait hedatua eta solidoa dela uste duen beste norbait aise iritsiko da ondorio honetara, alegia, , ondoko maxima honen bidez frogatekeenean ezein proposizio bezain seguru: ezinezkoa da zerbait izatea eta aldi berean ez izatea.

TEOFILO: Maximen erabilera okerrak ez gaitu eraman behar hauek orokorki arbuiatzera; egia guztiek daukate eragozpen hau, hots, faltsukeriekin nahasita ondorio faltsuetara edota kontrajarrietara erakar gaitzaketela. Eta aurreko adibidean, hutsegitearen eta kontraesanaren zergatia egozten zaien axioma identiko horien premiarik ez dugu ia. Argi ikusiko genuke hau, definizioz espazioa gorputza da edota espazioa ez da gorputza onartzen dutenen argumentua forman murriztua balego. Gehiegizko zertxobait ere badago ondorio honetan: gorputza hedatua da eta solidoa, beraz hedadura, hots, hedatua ez da gorputza eta gauza hedatua ez da gauza korporala; lehendik ere azpimarratu dut badirela ideien adierazpide premiagabekoak, gauzak ugaltzen ez dituztenak, norbaitek esango balu bezala: , eta hortik ondorio gisa atera hiru aldeko oro ez dela triangelu. Kartesiar batek esan dezake, beraz, hedadura solidoaren ideia era horretakoa dela, esan nahi baita, premiagabekorik badagoela bertan; era berean, hedadura zerbait substantzialtzat hartuz gero, hedadura oro izanen da solidoa, edota hedadura oro izanen da gorputzekoa. Zilegi izango du kartesiarrek bere ideiatik edo ideia itxuratik ondorioztatzea hutsa ez dela existitzen, ideia hori egokia bada; eta beste norbaitek bere ideiatik ondoriozta dezake, arrazoirik gabe, existi daitekeela hutsa; nik neuk, iritzi kartesiarrekin ados egon ez arren, hutsik ez dagoela uste dut, eta nire aburuz, adibide honetan ideiak okerrago erabiltzen dira maximak baino.

(§ 15) **FILALETES**: Dirudienez behintzat, hitzeko proposizioetan edonola erabilita ere, maximek ezin diezagukete eskaini gugandik kanpo existitzen diren substantzien ezagutzarik ñimiñoena ere.

TEOFILO: Ez nator bat zurekin. Esate baterako, naturak biderik laburrenetatik edota zehatzenetatik diharduela dioen maxima berez da aski, optika, katoptrika eta dioptrika ia osoaz, hau da, gugandik kanpo argiaren eraginez gertatzen denaz arrazoitzeko; inoiz erakutsi izan dut hau, eta Molineux jaunak Dioptrika bere liburu bikainean hala onartzen du²⁹⁰.

FILALETES: Halere, gizakia edo birtutea bezalako ideia konposatuak adierazten dituzten hitzez osatutako proposizioak frogatzeko printzipio identikoak erabiltzen direnean, erabilpen hau guztiz arriskutsua dela uste izaten da eta eraman gaitzake faltsukeria egia nabarmena bailitzan ikustera eta onartzera. Halaber, pentsatzen da hala gertatzen dela gizakiek uste dutelako termino berak mantenduz proposizioak ere gauza beren jira-biran dabiltzala termino horiek adierazten dituzten ideiak ezberdinak izan arren; halako moldez non, gizakiek hitzak gauzatzen hartzen dituztenean, egin ohi dutenez, maxima horiek proposizio kontraesankorrak frogatzeko balio duten arrunki.

TEOFILO: A zer nolako bidegabekeria zorigaiztoko maximek leporatzea terminoen erabilera okerraren eta hauen akatsen errua! Arrazoi berauengatik gaitzets genitzake silogismoak, terminoak ekibokoak direnean ondorioa ere okerra baita. Ez da, baina,

silogismoaren errua, kasu horretan lau termino daudelako, silogismoaren arauen kontra. Bide beretik gaitzets genitzake aritmetikarien eta algebralarien kalkuluak, zeren V-ren lekuan, konturatu barik, X jarritz gero, edota a hartzen bada b-ren ordeztu, ondorio faltsuak eta kontraesankorrak ateratzen baitira.

(§ 19) **FILALETES**: Ideiak argi eta bereizi ditugunean bederen, maximek ez digutela askorik balio uste dut; beste zenbaiten ustetan ez dute orduan ezertarako ere balio; eta esango dizute egoera horietan maxima mota horiek gabe egia eta faltsukeria bereizteko gai ez denak maxima bidez ere ezingo duela hori erdietsi; gure idazleak (§ 16, 17) aditzera ematen du ez digutela balio ez eta zerbait gizakia den ala ez ebazteko ere.

TEOFILO: Egiak oso sinpleak direnean eta nabariak, eta identikoetatik edota definizioetatik gertu daudenean, egia horiek ondorioztatzeke ez dugu ia maximen premia berariazkorik, izpirituak birtualki erabiltzen baititu eta bere ondorioa ateratzen du bat-batean eta arartekorik gabe. Baina jakineko axiomarik eta teoremarik gabe nekez egingo lukete aurrera matematikariek; ona baita, izan ere, ondorio luzeetan noizbehinka atsedean hartzea eta bidea nolabaiteko mugarriez seinalatzea, ondoren etorriko direnentzat ere adierazgarri²⁹¹. Hori gabe, bide luze horiek deserosoegiak izango ziren eta ilunak eta nahasiak lirudikete eta gauden lekua besterik ezingo genuke bereizi eta zehaztu. Itsasoz gau ilunean konpasik gabe ibiltzea bezala da, deus ikusi ezinean ez hodeiertzik, ez lehorrik, ez izarrik; edota lautada amaigabeetan zehar ibilkatzea bezala, ez zuhaitzik, ez gailurrik, ez errekarik; edota luzerak neurtzeko mailadun katea bezala, zientoka maila jarraian elkarren antzekoak dituenak, errosarioak ale lodiagoez izan ohi dituen etenik gabe, hau da, katemaila lodiagorik edo beste inolako eten motarik gabe, oinak, toesak, pertigak etab. markatzeko. Aniztasunean batasuna atsegin duen izpirituak ondorioetarik batzuk biltzen ditu bitarteko konklusioak eratzeke; horretarako dira maximak eta teoremak. Bide honetatik plazer gehiago dago, argi gehiago, oroitzapen gehiago, erabilgarritasun gehiago eta errepika gutxiago. Analistaren batek bi maxima geometriko hauek kalkulatzeko suposatu nahi izango ez balu hipotenusaren karratua angelu zuzenaren bi aldeek karratuen berdina dela, eta antzeko triangeluetan pareko aldeak proportzionalak direla, bere ustez, teorema horien frogak daukagulako euren baitango ideien loturagatik, alde batera utzi baititzake aise eta ideiak berak ezarri horien lekuan, analista hori urrun legoke bere helburuetatik. Baina ez pentsa, jauna, maxima hauen erabilpen egokia zientzia matematikoetara soilik mugatzen dela, jurisprudentzian ere erabiltzen baita eta errazago egiteko bide nagusietariko bat eta beronen ozeano luze-zabala mapa geografiko batean bezala begiztatzeke bidea hauxe dugu, hain zuzen: erabaki partikularren multzoa printzipio orokorragoetara biltzea. Ikus daiteke, adibidez, *in factum*²⁹² deritzenen hainbat arau, digestu, ekintza edo salbuespen nolatan dauden maxima honen menpe: *ne quis alterius damno fiat locupletior*, hau da, ez litzatekeela inor besteren gaitzaz profitatu behar; nolana ere, zehazkiago adierazi beharko genuke hau. Egia da zuzenbidezko arauetan bereizketa handiak egin behar direla. Arau onei buruz ari natzaizu, ez doktoreek ekarri dizkiguten brokardiko (*brocardica*)²⁹³ zenbaiti buruz, ilunak eta ustelak baitira; nahiz eta arau horiek sarritan aproposak eta baliagarriak bilaka litezkeen, egokituz gero; oraingo amaigabeko bereizketekin, aldiz, (*cum suis fallentiis*) nahasmendurako baino ez digute balio. Arau egokiak aforismoak edota maximak dira eta maximen multzoan sartzen ditut bai axiomak, bai teoremak. A priori-zko arrazoiz barik, indukzioz eta behaketaz osotutako aforismoez dihardugunean, zuzenbide ezarria aztertuz jende prestuak landutako aforismoez alegia, orduan bai, badu erabilgarritasunik... (Paulo) legelariaren pasarte honek, zuzenbidezko araez diharduen digestoen atalean²⁹⁴: *non ex regula jus sumi, sed ex jure quod est regulam fieri*, esan nahi baita, eskubide ezagunaren arauetatik ateratzen direla, haiek hobeto gogoratzeko,

baina ez dela ezartzen arau hauen gaineko eskubiderik. Baina, badira oinarrizko maximak, zuzenbidea bera osotzen dutenak eta ekintzak, salbuespenak, erantzunak etabar gauzatzen dituztenak; hauek arrazoi hutsez irakatsiak direnean, eta Estatuaren araugabeko ahalbidetik ez datozenean, zuzenbide naturala gauzatzen dute, eta halakoxea da aipatu berri dudan araua, probetxu kaltegarria debekatzen duena. Badira, bestalde, salbuespen gutxiko beste arau batzuk, unibertsaltzat hartzen direnak. Hala nola, Justiniano enperadorearen Erakundeei buruzko araua (Ekintzen atalean § 2) zera dioena, alegia, gorputzezko gauzetan ekintzen egileak ez dauka deus bererik, salbu eta enperadorearen esanetan digestuetan azaltzen den kasu bakarrean. Salbuespen honen bila dabilta oraindik ere. Egia da, batzuen ustetan, sane uno casu dioenean sane non uno²⁹⁵ irakurri behar dela. Eta batzuetan kasu batetik asko atera daitezke. Medikuen artean, Barner jaun defuntuak²⁹⁶ Sennertus berria edo aurkikuntza eta iritzi berriei egokitutako medikuntza sistema eskainiko zigula uste genuen, eta bere Prodrumus-en aurrean digu medikuek euren praktikarako sistemetan sendatzeko artea azalduz dihardutela, gaitzak bata bestearen ondoren zainduz, giza gorputz-atalen ordenaren arabera, edota gaitz eta sintoma ezberdinentzat praktikan arau komun unibertsalik landu gabe, eta honek amaigabeko errepikapenetara eramaten dituela; halako moldez non, bere esanetan, Sennertusen hiru laurdenak ezaba ditzakegun eta proposizio orokorren bidez zientzia arras laburbildu, batez ere Aristotelesen καθoον πρῶτον hura doakien proposizioen bidez, hots, elkarrekikoak edota elkarren hurbilekoak. Metodo hau aholkatzeko arrazoiak daukala uste dut, batez ere aginduez ari denean, medikuntza arrazoikatzailea baita alor honetan; baina enpirikoa den heinean ez dira aise ez eta ziur osatuko proposizio unibertsalak. Gainera arazoak sortu ohi dira eritasun partikularretan, hauek substantzien pareko baitira, eritasun bakoitza landare edo animalia baten antzeko, norbere historia partikularrekin; esan nahi baita, izateko moduak ala erak direla eta gorputzei edo gauza substantzialei buruz esan ditugunak dagozkiela, urrea eta zilarbizia bezain bereizgaitz zaigularik laurdeneko sukarra. Beraz, agindu unibertsalak gora-behera, eritasun espezieetan osakuntza metodoak eta zenbait oharpideri eta zenbait aldibereko kausari doazkien erremedioak aurkitzea komeni zaigu eta batez ere esperientzian oinarritutakoak biltzea. Sennertusek ez zuen hau ongi burutu, pertsona jakintsu batzuek ohartarazi baitigute hark proposatutako errezetak sarritan ex ingenio, edo kalkuluz, daudela osatuak eta ez esperientziaren baiespenaz, eta hala beharko lukete haien eraginaren segurantzaz eduki nahi izatekotan. Uste dut egokiena izango dela bi bideek bat egin dezaten eta errepikapenez kexurik ez izatea medikuntza bezain alor delikatu eta garrantzizkoan, zeinetan somatzen baitut falta zaigula nire ustez jurisprudentzian soberan duguna, hau da, kasu partikularrei buruzko liburuak eta aztertutakoen bildumak. Uste baitut legelarien liburuen milarenarekin aski genukeela eta aldi berean medikuntza arloan ez genukeela gehiegikorik deus, mila aldiz oharpide ongi hornitu gehiago edukita ere. Legeek eta ohiturek espreski markatu ez duten esparruan, jurisprudentzia erabat dago arrazoietan oinarrituta; zeren legerik ezean, beti atera baitaiteke ondorioren bat lege edo eskubide naturaletik, arrazoimen bidez. Eta herrialde bakoitzeko legeak finituak dira eta mugatuak edota halakoak izatera iritsi daitezke; medikuntzan, aldiz, esperientziazko printzipioak, hots, oharpideak, ezin daitezke gehiegi ugaltu eta arrazoimenari bide zabalagoa ematen zaio naturak erdizka baino ezagutzera eman ez digun hura ulertzeko. Ez dut, bestalde, inortxo ere ezagutzen, zure idazle prestuak agintzen duen moduan axiomak erabiltzen dituenik (§ 16, 17), beltz bat gizakia dela haur bati frogatzeko harako printzipio hartaz baliatuko bailitzan, , zera esanaz: beltzak arrazoimenezko arima dauka; arrazoimenezko arima eta gizakia gauza bera da; beraz, arrazoimenezko arima edukita gizakia ez balitz, faltsua litzateke delako hori, edota gauza bera aldi berean izango zen eta ez zen izango. Eta hemen aukerakoak

ez diren eta arrazoiketan parte zuzena hartzen ez duten maxima horiek erabili gabe, ezertarako balio ez dutenez, aski luke edonork honela arrazoitzea: beltzak arrazoimenezko arima dauka; arrazoimenezko arima daukan edonork gizakia da; beraz, beltza gizakia da. Eta norbaitek pentsatuko balu agertzen ez zaigun bitartean ez dagoela arrazoimenezko arimarik eta ondorio honetara iritsiko balitz, alegia, haur jaio berriak eta inozoak ez direla gizaki (eta idazleak diosku hala defendatu zuela hori ezeztatzen zuten pertsona oso adimentsuen aurrean), ez dut uste dioen maximaren erabilera okerrak liluratuko zituenik; maxima horretan pentsatu ere ez zuten pentsatuko arrazoiketa hori egitean. Errakuntzaren iturburua gure idazlearen printzipioaren hedapena litzateke, beronek ukatzen baitu arimak hautematen ez duen ezer ariman bertan egon daitekeenik; jaun horiek, aldiz, arima bera ere ezeztatzen iritsiko lirateke, besteek hartaz apertzepziorik ez dutenean.

VIII

Azaleko proposizioak

FILALETES: Zinez sinesten dut zentzuzko pertsonak ez direla arduratzen axioma identikoak guk hemen azaldu ditugun moduan erabiltzen. (§ 2) Badirudi, halaber, maxima identiko huts horiek azaleko proposizioak edo nugatoriae baino ez direla, eta hala deritze eskoletan. Eta ez nintzen ni kontent geratuko hala dirudiela esanaz, identikoen bidezko konbertsioaren frogapenaren zure adibide harrigarriak bultzatu ez banindu kontu handiz ibiltzera hemendik aurrera zerbait mesprezatzekoan. Halere, hemen azalduko dizut zer adierazten den erabat azalekoak direla jakitera ematen denean: (§ 3) lehen ikuspegitik antzematen zaiela, alegia, ez dutela beren baitan inolako argipiderik, ez bada inoiz gizakiren bati ohartaraztea nola jausi den absurdutasunean.

TEOFILO: Huskeriatzat hartzen duzu hori, jauna, eta ez duzu onartzen proposizio bat absurdura murriztea honen kontraesankorra frogatzea dela? Ez dut uste inorentzat argigarri izan daitekeenik esatea ez duela gauza bera aldi berean baieztatu eta ezeztatu behar, baina pentsatu gabe ateratzen dituen ondorioen indarra erakusten badiogu, zerbait ikasiko du. Nire iritziz, nekez bazter ditzakegu erabat demostrazio apagogikoak, hots, absurdura daramatenak, eta ostentsibo deritzenen bidez, nekez froga dezakegu oro; eta honen jakinminez dabiltzan geometrilariak nahiko esperimintatu dute alor honetan. Hala adierazten du noizbehinka Proklok, Euklidesen ondoko geometrialari zaharrek berarena baino frogapen, ustez, zuzenagoa aurkitu dutela somatzen duenean. Baina iruzkintzaile zahar honen isiltasunak argi uzten digu ez dela beti hala egin.

(§ 3) FILALETES: Onartuko duzu, bederen, milioika proposizio era daitezkeela neke handirik gabe, deus gutxirako baliagarri izaki ere; zeren, ez al da bada azalekoa, adibidez, ostra ostra dela esatea eta ez al da faltsua hau ezeztatzea edota ostra ez dela ostra adieraztea? Hori dela eta, umorez honela dio gure idazleak, alegia, ostra hori orain subjektutzat, orain atributu edo predicatum-tzat hartuko lukeen norbait tximinoaren tankerakoa litzatekeela, ostrarekin esku batetik bestera jolasean, eta horrek asetuko lukeela tximinoaren gosea, proposizio horiek giza adimena ase dezaketenez bezain ongi.

TEOFILO: Nire ustez idazle horrek, zuhurtasunez beteta eta agudieziak hornituta, munduko arrazoi guztiak ditu horrela erabiltzen dituztenen aurka mintzatzeko. Baina ongi ikusten duzu nolatan erabili behar diren identikoak baliagarriak izan daitezen, hau da, ondorioen eta definizioen bidez erakutsiz frogatu nahi ditugun beste egiak haietara murrizten direla.

(§ 4) FILALETES: Hala dela aitortzen dut eta ongi dakusat askoz ere arrazoi gehiagor egoki daitezkeela hau azalekoak diruditen eta sarritan halakoxeak diren proposizioetara, zeinetan ideia konplexuaren atal bat baieztatzen den ideia horren objektuari buruz ondoko hau esatean, adibidez: beruna metala da; hitz horien esanahia dakien gizakiaren izpirituan, eta berunak gorputz oso astuna, galdagarria eta xaflakorra adierazten duela

dakienarentzat, metal hitza esan beste biderik ez dago, banan-banan aipatzen hasi barik ideia bakun horiek denak batera adierazteko. (§ 5) Gauza bera gertatzen da, definizioaren zati bat baieztatzen denean hitz definituaz, zera esaterakoan, adibidez, urre oro da galdagarri, urrea gorputz hori, astun, galdagarri eta xaflakor bezala definitu dugunean. Berau gertatzen da triangeluak hiru alde dituela diogunean edota gizakia animalia dela, palefroi (zaldi mota bat adierazteko antzinako frantses hitza) irrintzi egiten duen animalia dela, horiek guztiek hitza definitzekoak baitira, eta ez definiziotik at ezer ikasteko. Baina gizakiak Jainkoari buruzko nozioa daukala edota opio-belarrak gizakia loaldian murgiltzen duela esatean zerbait irakasten zaigu.

TEOFILO: Proposizio erabat identikoei buruz esan dudana gain, erdizka identikoek ere badute euren baliagarritasun berezia. Hala nola: gizaki jakintsua beti da gizaki; hemen adierazten zaigu ez dela hutsezina, hilkorra dela etab. Arriskuan dagoelarik, norbait pistolarako bala baten premian aurkitzen bada eta horretarako molde egokian urtzeko berunik ez, lagun batek esaten dio: boltsan daukazu zilarra ere galdagarria dela ohar zaitez; lagun honek ez dio irakatsi zilarraren koalitate bat; zilarrari eman diezaiokeen erabilpen bat gogorarazi dio, larrialdi horretan pistolarako balak egiteko. Egia moral gehienak eta idazleen esaera eder asko mota honetakoak dira: ez digute sarritan ezer berririk irakasten baina lehendik dakigunaz pentsarazten zaigu. Tragedia latinoko janbo senario hau,

*cuius potest accidere, quod cuiquam potest.*²⁹⁷

hain dotore ez bada ere, honela azal dezakegu: norbaiti gerta dakiokeena edonori gerta dakioke; esaera horrek gizakion izaera gogoratu besterik ez digu egiten, *quod nihil humani a nobis alienum putare debemus*²⁹⁸. Legelarien arau honek: *qui jure suo utitur, nemini facit injuriam* (bere eskubideaz baliatzen denak ez dio inori kalterik egiten) azaleko itxura eman dezake. Baina, batzuetan erabilpen guztiz egokia dauka eta behar dugunean pentsatzera garamatza. Hala nola, norbaitek eraikiko balu bere etxea arauekin eta usadioekin ados eta horrela auzoren bati ikusmiraren bat kenduko balio, eskubide-arau berorrekin aski leukake hasieratik auzoak kexuren bat aurkeztekotan. Horrez gain, egitatezko proposizioak, edo esperientziak, opioa narkotikoa dela dioena kasu, arrazoi hutsezko egiek baino urrunago garamatzate, hauek ezin baikaituzte eroan gure ideia bereizietan dagoena baino areago. Gizaki orok Jainkoaren nozio bat daukala dioen proposizioa arrazoizkoa da, nozioak ideia adierazten duenean. Nire ustez, gizaki ororengan sortzetikoa baita Jainkoaren ideia: baina nozio honek aktualki pentsatzen dugun ideia adierazten badu, hori gizadiaren historiaren menpe dagoen egitatezko proposizio bat da. (§ 7) Eta azkenik, triangeluak hiru alde dituela esatea ez da dirudien bezain identikoa, arreta apur bat behar baita poligonoak angelu bezainbat alde izan behar dituela ikusteko; poligonoak angelu baino alde bat gehiago luke, itxia izango ez balitz.

(§ 9) FILALETES: Substantziei buruz osatzen diren proposizio orokorrak egiazkoak direnean, badirudi gehienetan azalekoak direla. Substantzia, gizakia, animalia, forma, arima begetatiboa, sentimenezkoa, arrazoimenezkoa, hitz hauen esanahia dakienak osa ditzake berauekin zenbait proposizio zalantzarik gabekoak baina alferrikakoak, bereziki arimari buruzkoak, sarritan mintzo ohi baita honetaz benetan zer den ere jakin gabe. Edonork ikus ditzake tankera honetako proposizioak, arrazoinamenduak eta ondorioak metafisikazko, teologia eskolastikozko eta fisika mota bateko liburuetan; hauen irakurketak ez digu irakatsiko Jainkoaz, izpirituez eta gorputzez liburuok irakurri aurretik ez genekienik deus ere.

TEOFILO: Egia da metafisikazko liburuek eta sarri ikusten diren antzeko beste zenbaitek hitzak baino ez dizkigutela irakasten. Zera esatea, adibidez, metafisika izakiaren zientzia dela oro har, honen printzipioak eta honengandik isurtzen diren sentipenak

azaltzen dizkiguna; izakiaren printzipioak esentzia eta existentzia direla; eta sentipenak izan daitezkeela batzuetan lehenak, hala nola, bata, egia, ona bestetan eratorriak, ber-bera eta ezberdina, bakuna eta konposatua, etab.; eta hitz hauetariko bakoitzaz ihardutean nozio ilunak eta hitzen arteko bereizketak baino ez eskaintzea, zinez da zientzia izena era ezegokian erabiltzea. Hala ere, zuzenbidezko da men egitea eskolastikorik sakonenei, Suarez, esate baterako (zeinari Grotiusek arreta handia egiten baitzion)²⁹⁹, eta aitortu behar da euren arteko eztabaidak batzuetan nabarmentzekoak izan zirela, hala nola jarraiaz edota infinituaz, kontingentziaz, abstraktuen errealtateaz, banatze printzipioaz, formen jatorriaz eta hutsaz, arimaz eta honen ahalmenez, kreaturen gaineko Jainkoaren probidentziaz etab. eta moral arloan, nahimenaren izakeraz eta justiziaren printzipioez; laburbilduz, onartu behar da zepa hauen artean ere urrea aurki daitekeela baina pertsona argitsuak soilik profita daitezkeela honetaz; eta gazte jendea gogaitarazten badugu alferrikako multzo honekin, handik edo hemendik zertxobait onik aurki daitekeelako, munduko gauzarik preziatuena den denbora lardaskatzea litzateke. Gainera, substantziei buruz egiazko eta jakingarri diren proposizio orokorrik gabe ez gaude: badira Jainkoari eta arimari buruz egia handi, ederrak, gure idazle prestuak irakatsiak, bere-bereak batzuetan, aurrekoengandik ikasiak bestetan. Guk ere zerbait erantsiko genuen, agian. Eta gorputzei buruzko ezagutza orokorre dagokienez, zenbait aipagarri gaineratu zaizkie Aristotelesekin utzitakoei, eta aitortu behar da fisika, orokorra ere barne hartzen dugularik, antzinakoa baino askoz ere erreala dela orain. Metafisika erreala, berriz, eraikitzen hasi berriak gara eta substantziei, oro har, dagozkien egia garrantzitsuak aurkitu ditugu, arrazoian oinarrituak eta esperientzian sendotuak. Arimaren eta izpirituen ezagutza orokorrean ere zertxobait aurreratuko genuela uste dut. Halakoa zen Aristotelesekin eskatzen zuen metafisika, GREKO(?) , desiratu zeritzona³⁰⁰, edota berak aurkitu nahi zuena, zeinak gainontzeko zientzia teoretikoekiko izan behar baitzuen zorionaren zientzia beronek behar dituen arteekiko den modukoa eta arkitektoa langileekiko dena. Horregatik esan ohi zuen Aristotelesekin gainontzeko zientziak metafisikaren menpe daudela, berau delako orokorra eta euren printzipioak metafisikatik hartu beharko lituzketela, bertan frogatu ondoren. Jakin behar da, halaber, egiazko morala metafisikarentzat praktika teoriarentzat bezalakoa dela, zeren substantzien doktrinaren menpe baitago izpirituen ezagutza, bereziki Jainkoarena eta arimarena, honek eskaintzen baitio neurriko hedadura justiziari eta bertuteari. Lehendik ere adierazia baitut, probidentziarik eta geroko bizitzarik ez balego, gizaki zuhurra mugatuagoa legokeela bere bertutezko ekintzetan, oro izango bailitz uneko pozerako eta poz hau, Sokratesengan bezala Marko Antonio enperadorearengan, Epiktetorengan eta Antzinateko beste hainbatengan agertzen dena, ez legokeela hain ongi oinarritua, ordenak eta unibertsoaren harmoniak mugagabeko etorkizuneraino irekitzen dizkiguten ikuspegi eder eta handi horiek gabe; hala ez balitz, arimaren sosegua halabeharrezko pazientzia delako hori baino ez litzateke, halako moldez non baieztatu baitaiteke atal teoretikoak eta praktikoak osatzen duten teologia naturalak bere baitan biltzen dituela aldi berean metafisika erreala eta moralik perfektuena.

(§ 12) FILALETES: Zalantzarik gabe, ezagutza hauek guztiak azalekoak edota berbazkoak soilik izatetik oso urrun daude. Baina, badirudi azken hauek elkarren baieztapena diren abstraktu biren motakoak direla; adibidez, aurrezkia neurritasuna da edo esker ona justizia da diogunean; eta proposizio hauek eta beste hainbatek batzuetan lehen begiradan engainagarri diruditen arren, ongi zurrupatur gero, hori guztiori hitzen esanahiari lotzen zaiola aurkituko dugu bestegabe.

TEOFILO: Baina hitzen esanahiek, hots definizioek, axioma identikoei erantsita, frogapen guztien printzipioak adierazten dizkigute: eta definizio hauek aldi berean ideiak eta berauen ahalgarritasuna ezagutarazten digutenez, nabarmen geratzen da haien

menpekoa ez dela beti hitzezkoa soilik. Esker ona justizia da (justiziaren atal bat hobe) dioen adibidea ez da gutxiestekoa, ezagutza ematen baitigu actio ingrati deritzonak, edota esker gaiztokoan aurkako kexuak, arreta handiagoa merezi beharko lukeela auzitegietan. Erromatarrek onartzen zuten jazarpen hau libertoen edo emantzipatuen aurka, eta gaur egun oraindik ere onartzekoa da emaitzen indargabetze kasuetan. Gainerakoan, lehen ere azaldu dut ideia abstraktuak ere elkarri egotzi dakizkiokeela, hala nola generoa espezieari, zera diogunean: iraupena jarraia da, bertutea ohitura da; baina, justizia unibertsala ez da bertute bat soilik, bertute moral gorena baizik.

IX

Gure existentziari buruz daukagun ezagutza

(§ 1) FILALETES: Gauzen esentziak baino ez ditugu aztertu honaino, eta gure izpirituak abstrakzio hutsez ezagutzen dituelarik, gure adimenean ez dagoen edozein existentzia partikularretik aske, haiek ezin digute eskaini inongo existentzia errealearen inolako ezagutzarik. Eta egiazki ezagutu ditzakegun proposizio unibertsalak ez dagozkio existentziari. Bestalde, egiazkoa ez den proposizioz genero edo espezie bateko banakoari zerbaite egotzen zaion aldi oro, gauza bera egotziko balitzaio generoari edo espezieari oro har, proposizioa existentziarena litzateke soilik eta partikulari existitzen diren gauzen arteko lotura akzidentala besterik ez liguke ezagutza emango, zera diogunean bezala, alegia, gizaki hura jakituna da.

TEOFILO: Oso ongi, eta zentzu horretan filosofoek hain sarri bereizten dutenean esentziaren eta existentziaren esparrua, existentziari egotzen diote akzidentala edo kontingentea den oro. Sarritan jakin ere ez dakigu, esperientzia hutsez ezagunak zaizkigun proposizio unibertsalak ez ote diren, agian, akzidentalak ere, gure esperientzia mugatua delako; hala, adibidez, ura izotzen ez den herrialdeetan, ura beti jariakortasun-egoeran dagoela dioen proposizioa ez da esentziala, eta horretaz jabetuko da herrialde hotzagoetara datorrena. Modu murriztuagoan har dezakegu, ordea, akzidentala eta beronen eta esentzialaren artean erdigune bat ezarri; eta erdigune hau naturala litzateke, hots, ez dela halabeharrez gauzarena baina berez dagokiola, ezerk eragotzen ez badu. Norbaitek, beraz, defenda lezake urari ez zaiola zinez esentziala, bai ordea naturala, jariakor izatea. Defenda litekeela esan dut, ez da, baina, gauza frogatua eta ilargiko biztanleek, baldin eta han inor biziko balitz, arrazoian erabat oinarrituta sinets lezakete urari naturala zaiola izotz izatea. Beste batzuetan, ordea, naturala ez da hain zalantzazko, esaterako: argi izpia ingurune berean beti doa zuzen, islarazten dion gainazal batekin akzidentez topo egiten ez duen bitartean. Aristotelesek materiari egotzi ohi dio gauza akzidentalen iturburua; baina hor bigarren materialiaz dihardu, hau da, gorputzen multzo edo masaz.

(§ 2) FILALETES: Lehen ere esan dut, Adimenari buruzko entseia-ren idazle ingeles ospetsuari jarraiki, gure existentzia intuizioz ezagutzen dugula, Jainkoarena frogapenez eta besteena sentipenez. (§ 3) Gure existentzia geuri ezagutarazten digun intuizio horrek ebidentzia osoz ezagutza garamatza, frogatu ezina izaki eta froga beharrik gabe; halako moldez non, gauza ororen zalantzak izango banitu ere, neure existentziaren zalantzarik izatea ez bailitzaidake zilegi. Imajina daitekeen ziurtasun mailarik gorena daukagu, beraz, honetan.

TEOFILO: Guztiz ados nago. Eta erantsi nahi dut, gure existentziaren eta gure pentsamenduen arartegabeko apertzepzioak eskaintzen dizkigula a posteriori edo egitatezko deritzen lehen egiak, hau da, lehen esperientziak, proposizio identikoek a priori-zko edo arrazoizko lehen egiak, hots, lehen argiak beren baitan biltzen dituzten moduan. Frogaezinak dira batzuk zein besteak, eta arartegabeak deritzeke: harako haiei, arartegabetasuna dagoelako adimen eta beronen objektuaren artean; eta beste hauei, arartegabetasuna dagoelako subjektua eta predikatuaren artean.

X

Jainkoaren existentziari buruz daukagun ezagutza

(§ 1) FILALETES: Jainkoak gure arimak gaitasunez hornitu zituenean bere testigantza ere eman zigun; sentimenek, adimenak eta arrazoimenak, izan ere, beraren existentziaren froga nabarmenak eskaintzen baitizkigute.

TEOFILO: Bera ezagutzeko arimari gaitasun egokiak eman ezezik, Jainkoak bertan ezarri ditu arima markatzen duten ikurrak, gero ikur horietaz jabetzeko gaitasunen premia izango badu ere. Ez dut hemen berriro azaldu nahi sortzetiko ideiei eta egiei buruz lehen ere gure artean eztabaidatu duguna, haien artean kokatzen baitut nik Jainkoaren ideia eta beronen existentziaren egia. Egintzez ihardungo dugu.

FILALETES: Jainkoaren existentzia arrazoiz frogatzeko egiairik errazena izanda ere, eta honen ebidentzia, oker ez banago, frogapen matematikoen parekoa izan arren, hala eta guztiz ere, arreta eskatzen digu. Aski da, beste barik, gu gerautaz eta geure ezbairik gabeko existentziaz hausnartzea. (§ 2) Horrela nire ustez, norberak daki aktualki existitzen den zerbait dela, eta beraz, izaki erreala dagoela. Norbait balego bere existentzia propioaren zalantza egin lezakeena, esan behar dut ez naizela horrekin mintzo. (§ 3) Badakigu, halaber, ikuste hutsezko ezagupidez, deus hutsak ezin duela izaki erreala sortarazi. Hortik ondorio honetara iristen gara froga matematikoz, betidanik zerbait existitu dela, alegia, zeren hasiera duen edozerk beste zerbaitek sortarazia behar baitu izan. (§ 4) Beste izaki batek eragindako existentzia daukan izaki orok harengandik hartu ditu, halaber, daukan guztia eta bere gaitasunak. Beraz, izaki guztien betidaniko sorburua hauen ahalmen guztien jatorria ere bada, halako moldez non betiereko izaki honek aldi berean ahalguztidun ere izan behar duen. (§ 5) Gainera, gizakiak ezagutza aurkitzen du bere baitan. Beraz, izaki adimenduna da. Ezinezkoa da, bestalde, ezagutzarik eta pertzepziorik gabeko zerbaitek izaki adimenduna sortzea, eta sentipenik gabeko materiaren ideiarekin kontrakoa da nork bere burua sortaraztea. Beraz, gauzen sorburua adimenduna da eta betidanik existitu da izaki adimendun bat. (§ 6) Betiereko izaki oso ahaltsu eta oso adimentsuari deritzo JAINKOA. Norbaitek arrazoi eskasez uste izango balu gizakia ezagumen eta jakituria duen izaki bakarra dela eta azare hutsez moldatua izan dela, eta ezagutzarik gabeko printzipioitsu beronek gidatzen duela unibertso osoa, Zizeronen kritika (De legibus, 2. liburua) astiro aztertzeak aholkua emango nioke, kritika erabat sendoa eta enfasiz betea baita. Inork ez luke hain ergelki harro izan behar, dio berak, bere baitan adimena eta arrazoia dagoela pentsatzeko batetik, eta zeruak eta unibertso zabal hau gobernatzen duen adimenik ez dagoela uste izateko bestetik. Esandakoaren ondorio argia da, Jainkoaren ezagutza ziurragoa daukagula gugandik kanpoko beste edozerena baino.

TEOFILO: Bene-benetan diotsut, jauna, frogapen horren kontrako zerbait esan beharrean guztiz ezeroso aurkitzen naizela; baina hala egingo dut, zuri hutsuneak bete ahal izateko abagunea eman nahian. Zerbait betidanik existitu delako ondorioari (§ 3) buruz da batik bat. Anbiguoak aurkitzen dut puntu hori. Horrek esan nahi badu inoiz ere ez dela izan deus existitzen ez zen denborarik: ados nago eta hori aurreko proposizioen ondorio zuzena da, dedukzio matematiko hutsez. Zeren inoiz deus existitu izan ez balitz, beti izanen zen deus, deusak ezin baitu izakirik sortu; hartaz, gu geu ere ez ginen izango, eta hau esperientziazko lehen egiaren aurka doa. Baina jarraian diozunak adierazten du, betidanik existitu den zerbaitez mintzo zarelarik, betiereko gauza batez ari zarela. Baina honaino esandakotik ezin ondoriozta dezakegu, beti zerbait izan bada, gauza zehatz bat izan dela beti, hots, betiereko izakia existitzen dela. Izan ere, aurkako zenbaitek esan dezakete ni beste zerbaitek sortarazi nauela eta beste zerbait hau beste batzuetatik datorrela. Gainera, batzuek betiereko izakiak onartzen badituzte ere (hala nola epikuroek euren atomoak), ez dute horregatik halabeharrez sinetsi beharko betiereko izaki bat gainontzeko izaki guztien jatorri bakarra dena. Zeren onartuko balute ere

existentzia ematen duenak gauzaren gainontzeko koalitateak eta ahalmenak ere ematen dituela, ezeztatu egingo dizute gauza bakar batek gainontzekoei existentzia ematea eta gauza bakoitzerako beste zenbaiten eragina behar dela. Horrela ez gara iritsiko ahalmen guztien jatorri bakar batera. Baina, guztiz da zentzuzkoa bat dagoela uste izatea eta unibertsoa jakituri az gubernatua dagoela. Baina materiak sentipena beregana dezakeela onartuz gero, gertu egon gaitezke beste hau ere sinesteko, alegia, ez dela ezinezko materiak sentipena sortaraztea. Behintzat, horretarako inolako gaitasunik ez duela, aldi berean erakutsiko duen frogarik nekez ekarri ahal izango da; eta gure pentsamendua izaki pentsalari batengandik datorrela onartuz, ontzat eman behar al da frogapenaren kalterik gabe izaki hori Jainkoa izan behar dela?

(§ 7) FILALETES: Niri frogapen hau eskaini didan gizon prestuak berau hobetzeko gai izanen dela ez dut zalantzarik; eta horretan saia dadin ahaleginduko naiz, jendearen mesedetan izanen delako. Zuk zeuk ere hala nahi duzu. Horrek pentsarazten dit ateak isiltzeko ez dela zure ustea Jainkoaren ideia gure baitan existitzen delakoaren inguru oro ezartzea; hala egiten dute batzuek, aurkikuntza pozgarri honi gehiegizko atxikimenduz, Jainkoaren existentziaren gainontzeko frogapen guztiak errefusatzearaino, edota gutxienik hauek indargetu eta erabilera galarazteraino, ahulak edo faltsuak bailiran: funtsean, halere, izaki subirano horren existentzia argiro eta modu sinesgarrian frogatzen dute, gure existentziaren hausnarketatik abiatuz, bai eta nire ustez gizon zuhurrak arbuia ezin dezakeen unibertsoaren atal sentigarrietatik ere.

TEOFILO: Sortzetiko ideien aldeko nauzu eta bereziki Jainkoaren ideien aldeko, baina Jainkoaren ideian oinarrituta cartesiarrek atera dituzten frogapenak ez dut uste perfektuak direnik. Luze eta zabal erakutsi dut, bestalde (Leipzigeko agirietan eta Trévouxeko Oroitidazkietan), Descartsek Anselmo Canterburyko artzapezpikuagandik hartutako frogapena zinez dela ederra eta burutsua, baina hor ere badirela betebeharreko hutsuneak³⁰¹. Artzapezpiku ospetsu hau, bere garaiko gizonik prestuenetarikoa zalantzarik gabe, zorionez beterik agertzen da, eta arrazoiz, Jainkoaren existentzia a priori frogatzeko bidea aurkitu duelako, Jainkoaren beraren nozio beretik, emaitzetara jo beharrik gabe. Eta hona, gutxi gora-behera, argudioaren indarra: Jainkoa da izakirik handiena edo, Descartesen hitzetan, perfektuena, hau da, haren handitasunak eta perfekzio gorenak maila guztiak ditu. Horra Jainkoaren nozioa. Nozio honetatik existentzia ondorioztatuko dugu orain. Existitzea ez existitzea baino gehiago da, hots, existentziak gradu bat gehitzen dio handitasunari edo perfekzioari eta, Descartsek dioenez, existentzia berez da perfekzioa. Beraz, handitasun eta perfekzio maila hau, edota perfekzioan datzan existentzia, izaki goren, handien eta perfektuena den honengan dago: hala ez balitz graduren baten hutsunea legoke, eta hau haren definizioaren aurka doa. Ondorioz, izaki goren hau existitzen da. Eskolastikoei, doktore angelikoa barne, gutxietsi egin dute argudio hau, paralogismotzat hartuz³⁰²; guztiz oker ibili dira horretan eta Descartsek, filosofia eskolastikoa Flècheko jesuiten ikastetxean luzaroan ikasi zuenak, arrazoiz atera du berriro argitara. Ez da paralogismoa, frogapen perfektua baizik, frogatu beharreko zerbait suposatzen duena, ebidentzia matematikozkoa izateko; tazitoki aditzera ematen dena hau da, alegia, izakirik handienaren edo perfektuenaren ideia hori ahalgarri dela eta kontraesanik ez duela bere baitan. Eta bada zerbait ondokoa frogatzera iristea, hots, Jainkoa ahalgarritzat joz gero, existitzen dela; onura hau jainkotasunarena da soilik. Zilegi zaigu aurrez somatzea edozein izakiren ahalgarritasuna, batez ere Jainkoarena, kontrakorik frogatzen ez den bitartean. Argudio metafisiko honek ondorio moral frogatzailea eskaintzen digu, eta ondorio horrek baieztatzen du gure ezagupenen oraingo egoeraren arabera, Jainkoa existitzen dela baitetsi behar dugula eta baieztapen honi dagokion moduan ihardun. Onuragarri litzateke, halere, pertsona argitsuek frogapen hau burutuko balute ebidentzia matematikoaren

zorrozetasunaz; horretarako baliagarri izan daitekeen zerbait noizbait azaldu dudala uste dut. Descartes jaunaren beste argudioa³⁰³, Jainkoaren ideia gure ariman dagoelako eta jatorrizkotik eratorria behar duelako haren existentzia frogatu nahi duena, are eta funts gutxiagokoa da. Lehenik eta behin, argudio honek, aurrekoarekin bat, akats hau duelako, alegia, ontzat ematen duela gure baitan Jainkoa ahalgarri delako ideia izatea. Descartesez dioena, alegia, Jainkoaz mintzo garelarik badakigula zertaz ari garen, beraz, ideia daukagula, adierazle engainagarria da, zeren eta higidura mekaniko betiraunkorraz aritzean, adibidez, badakigu zer diogun, baina halere, higidura hau ezinezkoa da, eta beraren ideia itxurazkoa baino ezin dezakegu osatu. Eta bigarrenik, argudio honek beronek ez du aski frogatzen Jainkoaren ideia, edukitzekotan ere, jatorrizkotik datorkigula. Baina, ez naiz orain honetan luzatuko. Zeuk esango ote didazu agian, jauna, gure baitan Jainkoaren ideia sortzetikoa onartuz gero, ezin dudala esan zalantzan jarri daitekeela bat ba ote dagoen? Nik ez dut, ordea, zalantza hau onartzen, ideian soilik oinarritutako frogapen zorrotz batez ez bada. Bestela ere Jainkoaren existentziaz eta ideiaz nahiko ziur gaudelako. Eta gogoan izango duzu nik frogatu dudala nolatan ideiak gure baitan dauden, ez beti gu haietaz ohartzeko moduan, bai ordea beti geure sakonetik atera eta antzemangarri bihurtzeko moduan. Horixe sinesten dut Jainkoaren ideiarri buruz, zeinaren ahalgarritasuna eta existentzia behin baino gehiagotan frogatu ditudan. Eta aurrezarritako harmoniak berak ere ezbairik gabeko bidea eskaintzen digu. Uste dut, gainera, Jainkoaren existentzia frogatzeko erabili diren ia bide guztiak egokiak direla eta hobetuz gero baliagarri liratekeela, eta gauzen ordenamendutik ateratakoa ez dut uste gutxiestekoa denik inondik ere.

(§ 9) FILALETES: Agian egoki izango da apur bat sakontzea arazo hau, ea izaki pentsalaria etor daitekeen sentitzeko edo ezagutzeko inongo gaitasunik ez duen izaki ez-pentsalari batetik, esate baterako, materiatik. (§ 10) Materiaren atal bat berez ezer ekoizteko edota bere burua mugiarazteko gai ez dela nahiko agerian dago; beraz, higidurak betierekoa beharko du izan edota izaki ahaltsuago batek ezarria. Betiereko higidura balitz, ez luke inoiz ere ezagutza sortarazteko ahalmenik izango. Zatika ezazue materia nahi beste ataltxotan, izpiritualizatzeraino, emazkiozue nahi dituzuen irudiak eta higidurak, bilaka ezazue esfera, kubo, prisma, zilindro, etab. berauen diametroak gry baten milioiren bat baino ez direlarik, grya lerroaren hamarrena izaki, lerroa pulgadaren hamarrena, pulgada oin filosofikoaren hamarrena, berau, berriz, penduluaren herena, eta penduluaren bibrazio bakoitza 45 graduko latitudean segundo bat: materiaren partikula hau, hain txikia izanda ere, bere handiera-proporzioko beste gorputzekiko portaerak ez du zertan ezberdina izan hatz edo oinbete diametroko gorputz artekoen elkarrekiko jokamoldetik. Eta sentipena, pentsamenduak eta ezagutza sortaraztea arrazoi berarekin espero daiteke, irudi zehatz edota higidura zehatz baten materiaren atal handiak batuz, nola munduan izan daitezkeen materiaren atalik txikienean bidez. Azken hauek elkarrekin topo, elkarri bultza eta gogor egiten diote handiek bezalaxe, eta ezinbestean jokatzen dute horrela. Materiak bere baitatik sentipena, pertzepzioa eta ezagutza sortarazi ahal izango balu ararte gabe eta bitarteko tresnarik gabe edota irudien eta higiduren laguntzarik gabe, orduan materiaren ezaugarri bananduezina litzateke eta materiaren atal guztiena ere bai. Honi erants dakioko materiari buruz daukagun ideia orokor eta espezifikokoak garamatzala hartaz mintzatzeraz gauza bakar bat bailitzan, baina materia oro ez da, zehazki, izaki materiala bailitzan existitzen den gauza banakoa edota ezagutzen dugun edo burura dezakegun gorputz berezia. Materia izango balitz, izan ere, betiereko lehen izaki pentsalaria, ez legoke izaki eternal, infinitu eta pentsalari bakar bat, baizik eta betiereko izaki pentsalari eta infinituak amaigabeko kopuruan, elkarrengandik askeak, indar mugatukoak eta pentsamendu bereizikoak, eta, ondorioz, inoiz ere ezingo lukete sortarazi gaur egun naturan miresten ditugun antolamendua, harmonia, edertasuna. Hortik, eta halabeharrez, ondorio hau ateratzen da: materia ezin izan daitekeela betiereko lehen izakia. Aurreko

frogapenaren egile ospetsutik hartutako arrazoinamendu honek askietsiko zaitula uste dut, haren frogapenak, itxuraz, asebate zintuena baino gehiago, bederen.

TEOFILO: Arrazoinamendu hau dagoenik tinkoena da niretzat, zehatza ezezik sakona ere bai, eta halako egileari dagokiona. Erabat ados nago berarekin zera dioenean, alegia, materiaren ataletan, txikietan txikienak izanda ere, pertzepzioa sortaraz dezakeen konbinaziorik edo aldaketarik ezin daitekeela izan; zati handiek ere ezin eragin lezakete (agi denez) horrelakorik, eta atal txikietan oro dela proportzionala handietan gerta daitekeenarekiko. Egileak hemen materiari buruz egindako oharra, bestalde, garrantzitsua da, hots, materia ez dugula gauza bakartzat hartu behar, edota (nik esan ohi dudanez) monada edo batasun egiazko eta perfektu gisan, kopuru infinituko izakien multzoa baita. Nire sistemarekin bat egiteko, egile bikain horri urrats bat baino ez zaio falta. Nik, izan ere, perfektzioa eranstean diet izaki infinitu horiei guztiei, bakoitza animalia modukoa delarik, arimaz hornituta (edo haren egiazko batasuna gauzatzen duen beste antzeko printzipio eragile batez) eta pasiboa izateko izaki horrek behar duenez eta gorputz organiko ere jantzita. Beraz, izaki horiek kausa orokor eta goren batengandik bereganatu dute euren natura bai aktiboa, bai pasiboa (esan nahi baita, daukaten gai inmateriala eta materiala), zeren hala ez balitz, idazleak oso ongi azaltzen duenez, elkarren dependentziarik ez dutelarik, inoiz ere ezingo lukete gauzatu naturan miresten dugun ordenamendu hori, harmonia hori, edertasun hori. Baina, era horretan, nik ekarritako harmonia espezie berriak, hau da, harmonia aurrezarriak, erabateko beharrian metafisikora bultzatzen du ziurtasun morala baino eskaintzen bide ez digun argudio hau. Zeren arima horietako bakoitzak bere modura adierazten duenez kanpoan gertatzen dena, eta gainontzeko izaki partikularretatik inolako eraginik izan ezinean, edo hobeto esan, adierazpen hori bere naturaren funtsetik atera beharrean aurkitzen delarik, bakoitzak ezinbestez hartu beharra izango du natura hori (edo kanpoan dagoenaren adierazpenen barne arrazoi hori) izaki guztiak bere menpe hartu eta bakoitza beste edozeinekin erabat ados egotea eta bete-betean egokitzea lortzen duen kausa unibertsal batetik; hau ezinezkoa da ezagutza eta ahalmen infiniturik gabe eta egundoko tresna bidez ez bada, batik bat makina eta arima razionalaren ekintzekiko berezko baiespenari buruz. Bere Hiztegi miresgarrian³⁰⁴ hemen azaldutakoari eragozpenak ipini zizkion idazle ospetsuak zalantzak ere izan zituen horrenbesteko jakituria izan ote zitekeen, Jainkoa berarena ere, haren ustez, ez baitzen aski ondorio horretarako, eta onartu zuen, bederen, jainkozko perfektioez izan ditzakegun burutapen ahulei ez zaiela sekulan horrenbesteko garrantziarik eman.

(§ 12) FILALETES: Zure pentsamenduak eta nire idazlearenak bat etortzeak zenbat pozten nauen ez dakizu. Gai honetaz haren arrazoiketaren azken atala jakinarazten badizut ez zarela, beraz, nirekin haserretuko espero dut. Lehenik aztertzen du ea izaki pentsalaria, zeinaren menpe dauden gainontzeko izaki adimendun guztiak (are eta gainontzeko izakiak), materiala ote den ala ez. (§ 13) Bere buruari eragozten dio ea izaki pentsalaria materiala izan zitekeen. Eta erantzuten du, hala izanda ere, aski duela jakituria eta ahalmen infinitua daukan betiereko izakia izatearekin. Gainera, pentsamendua eta materia bereizita egon badaitezke ere, materiaren betiko existentzia ez da izango izaki pentsalari baten betiko existentziaren ondorio. (§ 14) Jainkoa materialtzat daukatenei galdera egin dakieke ea euren ustez materiaren atal orok pentsatzen duen. Hala balitz, materiaren partikula bezainbeste jainko leudeke. Baina, materiaren atal bakoitzak pentsatzen ez badu, izaki pentsalaria atal ez-pentsalariez osotuta legoke, eta hau dagoeneko errefusatutzat eman dugu. (§ 15) Eta materiaren atomoen batek soilik pentsatzen badu eta gainontzeko atalek ez, haiek ere betierekoak izanda, horrek esan nahi izango luke, eta dohainik, materiaren atal bat bestea baino infinituki gorago dagoela eta izaki pentsalari ez-eternalak sortarazten dituela. (§ 16)

Eta betiereko izaki pentsalari eta materiala atal ez-pentsalariz osotutako materia-multzo berezi bat izatea nahi izanez gero, dagoeneko errefusatutzat eman dugun hartan jausten gara berriro ere: materiaren atalak, izan ere, elkar daitezke, lekuzko erlazio berri bat sortuz, baina inoiz ez zaie hortik ezagumena etorriko. (§ 17) Multzo hori pausagunean egon ala higitu, horrek ez dio axola. Pausagunean, ekintzarik gabeko multzoa baino ez da, atomo baten gain inongo pribilegiarik gabe; higitzen bada eta beste ataletatik bereizten duen higidura honek pentsamendua sortu beharko balu, pentsamendu hauek guztiak akzidentalak eta mugatuak lirateke, atal banako bakoitza pentsamendurik gabe bailegoko eta ezerk ere ez lituzke honen mugimenduak arautuko. Beraz, hor ez legoke ez askatasunik, ez aukerarik, ez jakituririk, materia gordin soilean baino gehiago ez behintzat. (§ 18) Batzuentzat materia, gutxienik, Jainkoa bezain betierekoa izango da. Ez diote, baina, zergatik: haiek onartzen duten izaki pentsalariaren sorkuntza materiarena baino askoz ere zailagoa da, hau ez baita hura bezain perfektua. Eta agian, (dio idazleak) ideia arruntetatik apur bat urrundu nahi izango bagenu, gure izpirituari hegaldi askea errazteko, eta gauzen izakerari buruz egin dezakegun azterketarik sakonenari lotuko bagintzaizkio, iritsiko ginateke bururatzera, inperfektuki baino ez bada ere, nolatan hasieran sortua izan zatekeen materia, eta nolatan hasi zen existitzen, betiereko lehen izaki haren poderioz. Eta aldi berean, erreparatu ahal izango genuke izpiritu bati izate ematea ahalmen eternal eta infinitu horren egintza dela, eta askoz ere ulergaitzagoa. Eta saio horrek, agian, gehiegi aldenduko ninduelakoan, gaineratzen du idazleak, munduan gaur egun filosofiaren oinarri diren nozioetatik, hainbeste urruntzeko arrazoi justifikaturik ez nukeela edukiko, edota gramatikak zilegiztatzen duen heinean ikertzeko, arrunki onartutako iritzia funtsean sentipen partikular honen kontrakoa bada; oker nengoke, diot nik, eztabaida honi eutsiko banio, batez ere lurralde honetan, hemen onartzen den doktrina aski egokia baita nire asmorako, bertan zalantzarik gabe adierazten da-eta honako hau, alegia, behin bakarrik onartzen bada hutsetik datorren ezein substantziaren hasiera edo sorkuntza, erraztasun beraz suposa dezakegula beste edozein substantziaren sorkuntza, Sortzailea berarena salbu.

TEOFILO: Atseginez hartu dut, jauna, zure idazle prestuaren pentsakera sakon horri buruz argitu didazuna, zuhurtzia arretatsuegiak hura osorik burutzea eragotzi baitzion berari. Pena litzateke hark deuseztuko balu, eta gu honaino iritsi ondoren, ezta ezpainen eta dastatu ezinik geratzea. Egon ziur, jauna, nire ustez zerbait eder eta garrantzitsu ezkututzen dela enigma itxurako honen azpian. SUBSTANTZIAK, letra handitan, zera susmatzera eraman gaitzake, alegia, materiaren sorkuntza akzidenteena bezalatsu irudikatzen duela, eta hauek ezerezatik eratortzeak ez du eragozpenik: eta haren pentsakera bitxia bereizten dudanean gaur egun munduan edo gure lurraldean hedatzen den filosofiatik, ez dakit platonikoez ari ote zen, hauentzat materia zerbait iheskor eta iragankorra baitzen, akzidenteak bezala, eta izpirituei eta arimek buruz ideia guztiz ezberdina baitzuten.

(§ 19) FILALETES: Azkenik, batzuek kreazioa ukatzen badute, hutsetik gauzak sortzea ezin onartu dutelako, arima eta gorputzaren batasunaren kausa aurkitu duzula jakin aurretik, ihardesten die gure idazleak, ez dutela, orobat, ulertzen nolatan arimaren nahiak eragiten dituen nahitazko mugimenduak gorputzean, baina hala eta guztiz, esperientziak bultzata, horretan sinesten dutela: eta arimak, mugimendu berririk eragin ezinean, animalien izpirituen determinazio berri bat baino ez duela sortzen erantzuten dutenei ihardesten die, arrazoiz, bata bezain bururaezina dela bestea ere. Eta ondoren dioena baino ezer hoberik ezin zitekeen esan: Jainkoaren ahalmena guk uler dezakegunera mugatu nahi izatea gure ulermenari hedadura infinitua ematea dela, edota Jainkoa bera izaki finitu bilakatzea.

TEOFILO: Nire ustez, arima eta gorputzaren arteko batasunaren zailtasuna dagoeneko gaudituta egon arren, arazoak beste nonbait aurki ditzakegu. Harmonia aurrezarriaren bidez frogatu dut, a posteriori, monada guztiek Jainkoagandik dutela jatorria eta beraren menpe daudela. Ez dakigu, baina, zehazki nola; eta haien iraupena, funtsean, sorkuntza jarraia besterik ez da, eskolastikoez oso ongi aitortu dutenez.

XI

Gauzen existentziari buruz daukagun ezagutza

(§ 1) FILALETES: Jainkoaren existentzia soil a gurearekin halaberrez lotuta dagoelarik, guk edozertaz eduki ditzakegun ideiek ez dute gauza horren existentzia frogatzen, gizaki baten erretratuak beronen existentzia munduan frogatzen ez duen neurri berean. (§ 2) Halere, sentipen bidez paper gaineko zuriaren eta beltzaren nire ziurtasuna nire eskuaren higidurarena bezain handia da, eta honek gure existentziari eta Jainkoarenari, ez besteri, ematen dio amore. (§ 3) Ziurtasun honek ezagutza izena merezi du. Inortxo ere ez baita, nire ustez, seriozki hain eszeptiko sentituko ikusten eta sentitzen dituen existentzia zalantzak izateko. Bere zalantzak hain urrun eraman ditzakeenak ez du inoiz nirekin auzirik izango, bederen, inoiz ere ez baita ziur egongo nik esandakoa, zernahi izanda ere, bere sentipenaren kontrakoa denik. Gauza sentigarrien pertzepzioak (§ 4) gure sentimenak ukitzen dituzten kanpoko kausek eraginda datoz; izan ere, pertzepzio horiek ez ditugu sekulan organorik gabe, eta organoak gai balira, etengabe eragingo lituzkete. (§ 5) Batzuetan, gainera, ohartzen naiz ezin galarazi dezakedala hauek nire izpirituari sor daitezen, hala nola argia, egun argia sar daitekeen lekuan begiak zabalik ditudanean; oster, oroimenean ditudan ideiak uxa ditzaket. Beraz, gaudituz ezineko eragina duen zirrara bizi horrek kanpoko kausaren bat beharko du izan. (§ 6) Pertzepzio hauetariko batzuk oinazez gertatzen dira gudan, jarraian inolako minik gabe haiez oroitzen bagara ere. Frogapen matematikoak sentimenen pean ez dauden arren, irudi bidez egin ohi dugun haien azterketa oso baliagarria da gure ikusmenaren ebidentzia frogatzeko, eta, honi eskaintzen dio, dirudienek, frogapenetik oso hurbil dagoen ziurtasuna. (§ 7) Gure sentimenei, halaber, elkarren testigantza ematen dute sarritan. Sua ikusten duenak hura sentitu ere egin dezake, zalantzarik izatekotan. Eta hau idazten ari naizela, paperaren itxurak alda ditzakedala sumatzen dut, eta iragar dezakedala zein ideia berri aurkeztuko dion izpirituari; baina hizkiak moldatuz gero, ezinbestez ikusiko ditut diren modukoak, eta gainera, hizki horiek ikusten dituen beste norbaitek nire soinu berak ahoskatuko ditu. (§ 8) Inork uste badu hau guztia amets luze bat baino ez dela, bere ametsetan entzun dezake, atsegin bazi, nire erantzun hau, alegia, sentimenen testigantza oinarritutako gure ziurtasuna naturak beregana dezakeen eta gure izaerak eskatzen duen bezain perfektua dela. Kandela piztuta ikusi eta erremina eragiten dion suaren beroa sentitzen duenak atzamarra erretiratzen ez badu, ez da izango horretarako ziurtasun handiagoa eskatzen duelako, eta ameslariak bere horretan balirau, laster iratzarriko litzateke. Aski dugu, beraz, honelako ziurtasuna, atsegin eta oinazea bezain egiazkoa baita; eta bi hauen gainetik ez daukagu inolako interesik gauzen ezagutzan eta existentzian. (§ 9) Baina, gure oraingo sentsazioaren gainetik ez dago ezagupiderik, egiantzekotasuna baino ez da, munduan gizakiak existitzen direla sinesten dudanean bezala: guztiz egiantzekoa baita hau, nahiz eta oraintxe, bakarrik nire gelan, ez dudan inortxo ere ikusten. (§ 10) Era berean, zorakeria litzateke gauza bakoitzari bere frogapena erantsi nahi izatea, edota iharduteari uko egitea egia argi eta nabarien aurrean, hauek frogagarri ez direlako. Hala jokatu nahi izango lukeen gizakia gauza batez soilik egon liteke ziur, denbora laburrean hondatuko dela, alegia.

TEOFILO: Lehenago ere gure solasaldietan adierazi dut gauza sentigarrien egia, hauen loturaz egiten dela bidezko, eta lotura hau arrazoian oinarritutako adimenezko egien menpe dagoela, eta arrazoiak agerian ez daudenean, gauza sentigarri berauen

etengabeko behaketen menpe. Eta arrazoi eta behaketa horiek etorkizunaz ebazteko bide ematen digutenez gure interesekin lotuta eta gure arrazoizko irizpideari arrakastak laguntzen dion heinean, ezin eska eta ezin eskura genezake objektu horien gaineko ziurtasun handiagorik. Orobat, azter ditzakegu amets beroien arrazoiak eta beste fenomeno batzuekiko hauen lotura eskasa. Baina, nire ustez, ezagutzaren eta ziurtasunaren deitura oraingo sentipenak baino areago heda daiteke, argitasuna eta ebidentzia areago iristen baitira, eta ziurtasunaren espezieltzat hartzen ditut nik: erokeria litzateke, zalantzarik gabe, munduan gizakirik ba ote den seriozki zalantzan jartzea ikusten ez ditugunean. Seriozki zalantzan jartzea praktikari begira zalantzatzea da, eta ziurtasuna egiaaren ezagutzatzat har dezakegu, zeinarekin praktikari begira zalantzarik ezin daitekeen egin, erotuta ez bada; eta batzuetan orokorkiagotzat hartzen dugu eta gaitzespenik gabe zalantzan ezin jar daitezkeen kasuetara aplikatzen da. Ebidentzia, ordea, ziurtasun argitsua litzateke, hots, ideien artean agerian dagoen loturagatik zalantzatzea ezinezkoa. Ziurtasunaren definizio honen ildotik, ziur gaude Konstantinopla munduan dagoela eta Konstantino, Alexandro Handia eta Julio Zesar bizi izan zirela. Agian, Ardenetako nekazari batek, informaziorik ezagatik, zalantzan jar lezake, eta arrazoiz; baina mundu-giroko gizaki ikasiak ezingo luke hori egin, izpiritu nahasiaren eraginez ez bada.

(§ 11) FILALETES: Oroimenak zinez sentiarazten digu ziur iraganeko gauza askotaz, baina oraindik ere ba ote dirauten ezin ebatz dezakegu ziurtasunez. Ura ikusi nuen atzo, eta urak sortarazitako burbuletan zenbait margo eder. Ziur nago orain burbuila horiek existitu zirela ura bezain egiazki, baina uraren oraingo existentziaz ez daukat burbuilenaz baino ezagutza ziurragorik, lehena askoz egirudiko izan arren, frogaturik baitago ura iraunkorra dela, burbuilak, aldiz, desagertu egiten direla. (§ 12) Azkenik, gu edota Jainkoa ez den beste izpiriturik ez dugu ezagutzen, errebelazioz izan ezik, eta haiei buruz daukagun ziurtasun bakarra fedezkoa da.

TEOFILO: Oroimenak noizbehinka engainatzen gaituela gorago aipatu dugu. Eta guk sinestea eskaintzen diogu ala ez haren bizitasunaren arabera eta dakizkigun gauzekiko nolako lotura duen kontuan harturik. Funtsean ziur egon arren, xehetasunetan izan ditzakegu zalantzak sarritan. Gizon bat ezagutu nuela oroitzen naiz, haren irudia ez zaidalako berria, ez eta beraren ahotsa; ezaugarri bikoitza biotarik bat baino berme egokiagoa da, baina ezin dut gogoratu non ikusi nuen. Halere, gertatu ohi da batzuetan, oso gutxitan, pertsona bat ametsetan ikustea, errealtatean ikusi aurretik. Gorte ezagun bateko andereño batek gero berarekin ezkonduko zen galaia eta ezteiak ospatuko ziren aretoa ametsetan ikusi zituela ziurtatu didate, eta bere lagunei deskribatu ziela, gizona eta lekua ikusi eta ezagutu aurretik. Ez dakit nik zein aurrenentipen sekreturi egozten omen zitzaion; baina, azareak horrelakoak eragin ditzake, nahiko arraroa baita hori gertatzea, eta gainera ametsetako irudiak iluntsuak izaki, gero beste batzuei atxikitzeo askatasuna eskaintzen digute.

(§ 13) FILALETES: Demagun, bukatzeko, bi proposizio mota daudela: partikularrak batzuk eta existentziari buruzkoak, adibidez, elefantea existitzen dela; orokorrak besteak eta idien menpekotasunari buruzkoak, adibidez, gizakiek Jainkoari zor diotela obedientzia. (§ 14) Proposizio orokor eta ziur hauetarik gehienei betiereko egiak deritze eta halaxe dira denak, izan ere. Ez, eternitate osoko atalen batean aktualki antolatutako proposizioak izanagatik, edota betidanik existitzen zen ereduren batetik izpirituan moldatuak izanagatik, bai ordea, ziur gaudelako, gaitasunez eta baliapidez behar bezala horniturik, kriptura batek pentsamenduak bere ideien gogarpenera erabiltzen dituenean, proposizio hauen egia aurkituko duela.

TEOFILO: Zure zatiketa nirera biltzen dela dirudi, egitatezko proposizio eta arrazoizko proposizioetara, alegia. Egitatezko proposizioak orokorrak ere bilaka daitezke nolabait,

baina indukzioz edo behakuntzaz, halako moldez non antzeko egintza multzoa baino ez diren, hala nola edozein zilarbizi suaren indarrez lurrintzen dela erreparatzen dugunean, eta horrek ez du orokortasun perfektua osatzen, ez baita horren beharrezkotasunik ikusten. Arrazoizko proposizio orokorrak ezinbestekoak dira, nahiz eta arrazoiak ere erabat orokorrak ez diren batzuk sortarazten dituen, eta egiantzekoak baino ez dira, hala nola, ideia bat ahalgarritzat ematen dugunean, ikerlan zehatzago batean kontrakoa aurkitu arte. Badira, azkenik, proposizio mistoak, premisetatik eratorriak; hauetariko batzuk egintzetatik eta behaketetatik datoz, eta besteak beharrezko proposizioak dira: halakoak dira, esaterako, lur esferari eta izarren ibilbideari buruzko hainbat ondorio geografiko eta astronomiko, bidaia-arien eta astronomoen behaketak geometriako eta aritmetikako teoremekin konbinatuz sortu direnak. Baina, logikarien ohituraren arabera, ondorioak premisarik ahulenari darraio, eta ezin duenez haiek baino ziurtasun handiagorik eduki, proposizio misto horiek behaketei dagozkien ziurtasuna eta orokortasuna baino ez daukate. Betiereko egiei buruz, kontu egin behar da funtsean baldintzazkoak direla denak eta zera diotela: hau onartzen bada, beste hau da. Ondokoa diodanean, adibidez: hiru alde dituen irudi orok hiru angelu ere izanen ditu, hau besterik ez diot, alegia, hiru alde dituen irudirik balego, irudi horrek berorrek hiru angelu izanen dituela. Horrek berorrek diot, eta honetan bereizten dira proposizio kategorikoak, funtsean baldintzazkoak izan arren baldintzarik gabe adieraz daitezkeenak, hipotetikoak deritzenetatik, hala nola proposizio hau: irudi batek hiru alde baditu, irudi horren angeluek bi angelu zuzen osatzen dute; hemen argi dago, proposizio aurrekariak (hots, hiru alde dituen irudia) eta ondorekoak (hots, hiru alde dituen irudiaren angeluek bi angelu zuzen osatzen dute) ez dutela subjektu bat bera, lehengo kasuan zeukaten moduan, hango aurrekaria hau baitzen: irudi honek hiru alde ditu, eta ondorekoa: irudi honek beronek hiru angelu ditu. Hipotetikoa ere sarritan kategorikoa bilaka daiteke, hitzak apur bat aldatuz gero, esate baterako, aurreko hipotetikoaren ordez beste hau azalduko banu: hiru alde dituen irudi ororen angeluek bi angelu zuzen osatzen dituzte. Eskolastikoek askotan eztabaidatu dute de constantia subjecti delakoaz, hau da, nolatan subjektu bati buruzko proposizioak beregana dezakeen egia erreala, subjektu hau existitzen ez bada. Izan ere, baldintzazkoa baino ez da egia, eta egia horrek adierazten du, subjektua inoiz existitzekotan, hala gertatuko dela. Baina oraindik ere galde dezakegu ea zertan oinarritzen den lotura hori, zeren eta sekulan okertzen ez duen errealitatea baitago barrunbe horretan. Erantzuna da ideien loturan datzala. Baina ihardetsi daiteke ea non egongo ziren egia horiek izpiriturik existituko ez balitz, eta ea zer bihurtuko zen orduan betiereko egien ziurtasun horren oinarri erreala. Honek garamatza, azkenik, egien azken oinarria, hau da, derrigorrez existitu behar duen izpiritu goren eta unibertsal horretara, zeinaren adimena betiereko egien barrutia baita zinez, San Agustinek aitortu eta era bizian erakusten duenez³⁰⁵. Eta beragana jotzea beharrezkoa ez dela pentsa ez dezagun, kontuan izan behar dugu beharrezko egia hauek berekin dauzkatela arrazoi determinatzailea eta existentzien beraien printzipio arautzailea eta, labur esanda, unibertsoaren arauak. Hartaz, beharrezko egia horiek, izaki kontingenteen existentziak baino lehenagokoak izateagatik, ezinbesteko substantzia baten existentzian oinarrituta egon behar dute. Hor aurkitzen dut nik gure arimetan itsatsita dauden ideien eta egien jatorria, ez proposizioen gisan, baizik eta iturriak bailiran, hauen aplikazioak, gora-beherekin batera, esakuntza aktualak sortaraziko dituztelarik.

XII

Gure ezagupenak gehitzeko bideak

(§ 1) **FILALETES**: Dauzkagun ezaguera espezieez hitz egin dugu. Aipa ditzagun orain gure ezagutza areagotzeko edota egia aurkitzeko bideak. Jakintsuek onartu ohi dute

maximak direla ezagutza ororen oinarriak, eta zientzia bakoitza aurrez ezagunak diren gauzetan (praecognita) finkatzen dela. (§ 2) Aitortzen dut matematikek mesede egiten diotela, itxuraz, metodo honi beren arrakastagatik, eta zu zeu ere horren alde egon zara. Baina, oraindik ere zalantzak daude ideiek ez ote duten horretan laguntza eman euren lotura bidez, hasieran aurkeztutako bizpahiru maxima orokorrek baino areago. Bere gorputza hatz txikia baino handiagoa dela badaki mutil gazteak, baina ez, hain zuzen, osoa bere osagaia baino handiagoa dela dioen axiomaren bidez. Proposizio partikularretatik hasi da ezagutza; baina, jarraian oroimenari kendu nahi izan zaio, nozio orokorren bidez, ideia partikularren multzo nahasia. Hizkuntzak, bere imperfekzioan, izango ez balitu osoa eta osagaia hitz erlatiboak, gorputza hatza baino handiagoa dela jakiteko ez al ginateke gai izango? Nire idazlearen arrazoiak aurkeztu dizkizut, bederen, dagoeneko esan duzunaren arabera, zure erantzuna zein izango den susmoak ditudan arren.

TEOFILO: Ez dakit nik zergatik diegun maxime horrenbesteko seta, behin eta berriro haiei erasotzeko; aitortzen duzunez, ideia partikular askoren zama kentzen badiote oroimenari, oso baliagarriak behar dute izan, beste ezertarako balio ez badute ere. Zehaztu nahi dut, ordean, ez direla jaiotzen, ez baititugu indukzio bidetik aurkitzen, adibideetatik abiatuz. Bederatzi baino hamar gehiago dela dakienak, edo gorputza hatza baino handiagoa dela, edo atetik ihes egin ahal izateko etxea handiegia dela dakienak, proposizio partikular hauetariko bakoitza ezagutzen du arrazoi orokor bat beraren bidez, proposizioei erantsitako arrazoiak, alegia, haiek argituz, margoz jositako marrakerak ikusi ohi ditugun modura, hauen proportzioa eta taxukera zehazki lerroetan datzalarik, zeinahi izanda ere margoa. Arrazoi arrunt hau axioma bera da, inplizituki ezaguna, nolabait esateko, nahiz eta hasieratik era abstraktu eta bereizian ezaguna izan ez den. Adibideek axioma itsatsitik erauzten dute euren egia, eta axioma ez da adibideetan errotzen. Eta egia partikular horien arrazoi arrunt hau gizaki ororen izpirituan dagoenez, argi ikus dezakezu, osoa eta osagaia hitzak, axiomaren jabearen mintzairan aurkitzeko inongo premiarik ez duela arrazoi arrunt horrek.

(§ 4) FILALETES: Ez al da, baina, arriskutsua, susmoak zilegiztatzea, axiomak direlako aitzakipean? Halakok, antzinako zenbait idazlerekin, pentsatuko du oro dela materia; besteak, Polemonekin³⁰⁶, mundua Jainkoa dela; hirugarrenak eguzkia dela dibinitate nagusia sinetsiko du etsi-etsian³⁰⁷. Begira zer nolako erlijioa geneukakeen hori zilegi balitz. Hartaraino da arriskutsu auzipean jarri gabe printzipioak onartzea, batez ere haiek morala ukitzen dutenean. Norbaitek itxaron zezakeen, izan ere, Aristipok³⁰⁸ irakatsitako geroko bizitzaren antzekoa; honek gorputzaren plazerretan ezartzen baitzuen zoriona; beste batzuek, Antistenesekin³⁰⁹, bertuteak egiten gaituela zoriontsu uste izango lukete. Eta Arkelaok³¹⁰ printzipio gisa aurkeztu duenean bidezkoa eta ez bidezkoa, zuzena eta makurra legeek soilik erabakitzen dituztela, ez naturak, ongi eta gaizki moralarentzat neurri ezberdinak erabiliko ditu, zalantzarik gabe, giza eraketen aurreko betebeharrak onartzen dituztenekin alderatuz. (§ 5) Printzipioek, beraz, ziurrak behar dute izan. (§ 6) Baina, ziurtasun hau ideien parekatzetik etor daiteke soilik; horrela ez dugu printzipio gehiagoren beharrik izanen, eta arau honi bakarrik jarraiki, gure izpiritua inoren nahierara makurtuta baino urrunago iritsiko gara.

TEOFILO: Maximen aurka, hau da, printzipio nabarien aurka hartu duzun jarrerak harritzen nau, dohainik bide diren printzipioen aurka irakur baitaiteke, eta hala behar da. Zientzietan praecognita edo zientzia oinarritzeko balio duten lehenagoko ezagutzak eskatzen direnean, printzipio ezagunak eskatzen dira, ez azalpen arbitrarioak, euren egia ezaguna ez zaigunean. Halaxe da, Aristoteles aburuz ere, alegia, menpeko zientzia apalagoek euren printzipioak goragoko beste zientzietatik hartzen dituztela, hauetan

frogatuak izan baitira, salbu eta zientzietarik lehena, metafisika deritzoguna, honek, Aristotelesen esanetan, gainontzekoei deusik eskatu ezezik, haiek behar dituzten printzipioez hornitzen baitie; eta zera dioenean: $\delta\epsilon\iota\pi\iota\sigma\tau\epsilon\mu\epsilon\iota\nu\ \tau\omicron\nu\ \mu\upsilon\nu\alpha\nu\omicron\nu\tau\alpha$, ikasleak sinetsi egin behar dio maisuari³¹¹, esan nahi baitu, oraindik goi-zientzietan jantzia ez delarik, ikasi bitartean sinetsi egin behar duela, hots, behin-behingoaz soilik. Hartara, dohaineko printzipioak ez dira hain erraz ontzat ematen. Honi erantsi behar zaio ziurtasun osokoak ez diren printzipioek ere eduki dezaketela baliagarritasunik, euren gainean era frogagarriaz soilik eraikitzen bada. Halakoetan, izan ere, ondorio guztiak baldintzazkoak baino ez balira ere, eta printzipio hori egiazkoa izatekotan bakarrik balioko balute, hala eta guztiz, lotura bera eta baldintzazko azalpenak frogatuak leudeke, bederen; horrela idatzitako liburu ugari izatea desiragarri litzateke, irakurlea edo ikaslea baldintzaz oharturik, ez bailegoke huts egiteko arriskurik. Suposizioa nolabait egiaztatu arte, ez litzateke praktika arautuko ondorio horietan oinarrituta. Metodo honek berak sarri balio du suposizioak edo hipotesiak egiaztatzeko egia ezaguneko ondorio ugari sortzen direnean, eta batzuetan honek itzulera perfektua eskaintzen digu, hipotesiaren egia frogatzeko nahikoa. Conring jaunak³¹², lanbidez osagilea bera, baina erudizio alor guztietan jantzia, matematiketan salbu agian, gutuna idatzi zion adiskide bati, zeina Viottusen frogapenak eta Aristotelesen Analitiko ondorengoak azaltzen biziki saiaturia zen, filosofo peripatetiko ospetsuaren liburu berrinprimatzen ari baitzen Helmstaedten. Gutuna liburuari erantsi zitzaion, eta bertan Conring jaunak Pappus-i kontuak hartzen dizkio honek dioelako analisiak ezezaguna aurkitu nahian diharduela, berau suposatutzat emanaz, eta bide horretatik, dedukzioz, egia ezagunak erdietsiz; hau logikaren aurka doa, zioen berak, bertan irakasten baita faltsutasunetik ezin daitezkeela egia ondorioz atera. Baina, nik geroago jakinarazi nion analisiak erabili ohi dituela definizioak eta beste elkarrekiko proposizioak, hauen bitartez itzulbidea egin dezakegularik eta frogapen sintetikoak aurkitu. Eta itzulera hori frogagarri ez denean ere, hala nola fisikan, batzuetan egiantzekotasun handikoa da, hipotesiak nekerik gabe fenomeno asko azaltzen dituenen hori gabe adierazgaitzak liratekeenak eta elkarrengandik oso aldenduak. Egiaz uste dut, jauna, ideien eta esperientzien erabilpen zuzenean datzala, nolabait, printzipioen printzipioa; baina, bertan sakonduz gero, ideiei dagokienean, definizioak axioma identikoez lotzea baino ez dela, aurkituko dugu. Halere, ez da beti gauza xamurra izaten azken analisi honetara iristea, eta geometrilariak, antzinakoek bederen, horra iristeko gogo bizia erakutsi duten arren, ez dute oraindik erdietsi. Giza Adimenari buruzko entseia idatzi zuenak mesede galanta egingo lieke ikerketa hori burutzea, berak uste baino ikerketa zailtxoagoa bada ere. Euklidesek, adibidez, axiomen artean ipini zuen berriro ere zera dioskuna, alegia, bi lerro zuzen behin baino ezin daitezkeela elkartu. Sentimenen esperientzia oinarrituta, irudimenak bi lerro zuzenen elkartzeko bat baino gehiago irudikatzeko ez digu biderik ematen; irudimenak ez du, ordea, izan behar zientziaren funtsa. Eta norbaitek uste badu irudimen horrek ideia bereizien lotura eskaintzen duela, horrek ez daki aski egien sorburuaz, eta aurrekoetatik abiatuz froga daitezkeen zenbait proposizio arartegabekotzat hartuko lituzke. Euklides kritikatu duten askok ez dute hau kontuan hartu; irudi mota horiek ideia nahasiak baino ez dira eta lerro zuzena hortik soilik ezagutzen duena ez da deus frogatzeko gai izango. Bereiziki azaldutako ideiarik ezean, hots, lerro zuzenaren definiziorik gabe (berak ordurarte eskainitakoa iluna baita eta bere frogapenatarako baliorik gabea), horra zergatik Euklides bi axiomatara itzultzer behartuta dagoen, hauek definizioarena egin diotelarik, eta horregatik erabiltzen ditu axioma horiek frogapenetan: bata da bi lerro zuzenek ez dutela atal komunik; eta bestea, ez dutela espaziorik hartzen. Arkimedesek utzi zigun lerro zuzenaren definizio modukoa, bi punturen arteko lerrorik laburrena zela esatean. Baina, esan gabe ere, suposatutzat ematen du

(bere frogapenetan Euklidesenak moduko elementuak erabiliz, aipatu berri ditugun bi axiometan oinarrituta) axioma horiek ukitzen dituzten afekzioak berak definitutako lerroarekin bat datozela. Horrela, ideien egokitzapen eta desegokitzapenaren aitzakiaz, uste baduzu oraindik ere, zure lagunekin bat, geometrian zilegi zela eta dela irudiek dioskuena onartzea, frogapenetan definizio eta axioma bidezko zorrotzasunik bilatu gabe, antzinekoek zientzia horretan ohi zuten legez (askok informazio eskasagatik pentsa bide dezakeenez), esan behar dizut aski izan daitekeela hori geometria praktikoa soilaz arduratzen direnentzat, ez, ordea, praktika bera ere hobetzeko balio duen zientzia bereganatu nahi dutenentzat. Eta antzinakoek honela iritzi izan baliote eta puntu hori ahaztu izan balute, ez dut uste askorik aurrera egingo zuketenik eta geometria enpirikoa baino ez ziguten utziko, egiptoarrena omen zen modukoa, eta, itxuraz, txinatarrena oraindik ere den modukoa: hartara, ez genituzke geure esku edukiko geometriari esker aurkitu ditugun ezagutza fisiko eta mekaniko bikainak, gure geometria ezezaguna den lekuetan ez dauzkatenak. Bestalde, dirudienez, sentimenei eta hauen irudiei jarraituz gero, akatsetan jausiko ginatekeen; gutxi gora-behera, geometria zehatza ikasi ez dutenei gertatzen zaien bezala, hauek egia ziurtzat hartzen baitute, euren irudipenaren fedean, eten gabe hurbilduz doazen bi lerrok azkenean nonbait topo egin behar dutela; geometrilariak, berriz, alderantzizko adibideak aurkezten dituzte, asintotak deritzeten lerro zenbaiten kasutan. Baina, horrez gain, geometrian gehien estimatzen dudan hura galaraziko liguke kontenplazioari dagokionean, alegia, betiereko egien benetako iturburua nolabait begiztatzen zaigula eta hauen premia ulertarazteko bidea, sentimenen irudien ideia nahasiek sekula ere bereiziki sumarazi ezin digutena. Euklidesek, halere, zenbait axiomatara mugatu behar izan duela esango didazue, eta axioma horien ebidentzia ez dela nabari, irudien bitartez era nahasian ez bada. Batzuetan axioma horietara mugatu zela onartzen dut, baina bakunenak zerizkion izakera horretako egia-kopuru txiki batera mugatzea eta horietatik gainontzekoak, zehaztasun gutxiagoko norbaitek frogapenik gabe egiazkotzat hartuko lituzkeenak, ondorioz ateratzea hobe zen haietarik asko frogarik gabe uztea baino, edota, okerrago oraindik, umorearen arabera jendeari euren ardurarik eza gehitzeko askatasuna ematea baino. Argi dago beraz, jauna, ideien arteko loturaz, egien benetako iturburu bailiran, zuk eta zure lagunak esandakoak azalpena behar duela. Lotura hori nahasian ikustearekin pozik gelditu nahi baduzu, frogapenen zehaztasuna ahultzen ari zara, eta, zalantzarik gabe, Euklidesek askoz hobeto egin zuen, oro definizioetara eta axioma kopuru txiki batera murriztuz. Ideien lotura hau bereiziki nabaria eta adierazia izan dadin nahi baduzu, definizioetara eta axioma identikoetara jo beharko duzu, eta hau izan da nire asmoa; eta batzuetan, hain lehenak ez diren axiomatara jo beharrean aurkituko zara, Euklidesi eta Arkimedesi gertatu zitzaizen moduan, analisi bat erabat burutzeko nekeak dituzunean, eta horrela hobe egingo duzu haien bitartez aurki zenitzakeen aurkikuntza ederrak gutxietsiz edo gerokotuz baino: lehenago ere azaldu dizut nire ustez ez geneukakeela orain geometriarik (zientzia frogagarria esan nahi dut), erabili behar zituzten axiomak frogatu arte antzinakoek aurrera egin izan ez balute.

(§ 7) FILALETES: Orain ulertzen dut zer den zehazki ezagututako ideien arteko lotura, eta argi ikusten dut zer nolatan diren axiomak beharrezko. Ongi ikusten dut, halaber, gure ikerketetan darabilgun metodoak nolatan behar duen izan, ideiak aztertzerakoan, matematikarien egitaraua bezala antolatua, hauek, abiapuntu oso argi eta oso errazetatik (hots, axiomak eta definizioak) apurka-apurka gorantza egiten baitute argudioen etengabeko kateadura bidez, hasieran giza gaitasunaren gainetik ziruditen egien aurkikuntza eta frogapeneraino. Frogak aurkitzeko arteari esker, eta ararteko ideiak kanporatzeko eta antolatzeko aurkitu dituzten metodo miresgarri horiei esker burutu dira aurkikuntza hain harrigarriak eta hain ustekabeak. Nik orain zehaztu nahi ez dudana, ordea, hau da, alegia, ea geroan aurkitu ahal izanen dugun gainontzeko ideientzat baliagarri litzatekeen antzeko metodoren bat eta, orobat, magnitudeari legozkiokeen

ideientzat. Gutxienik ere, beste ideiareen batzuk aztertuko balira matematikarien metodo arruntaz, hauek eramango lituzkete gure pentsamenduak guk sinets dezakeguna baino askoz ere urrunago. (§ 8) Eta hau, batez ere, moralean gertatuko zen, behin baino gehiagotan esan dudanez.

TEOFILO: Arrazoi ematen dizut, jauna, eta neure aldetik, zure iragarpenak bete daitezen, aspalditik nago lanari ekiteko prest.

(§ 9) FILALETES: Gorputzen ezaguerari buruz, hartu beharreko bidea kontrakoa da, hain zuzen; euren esentzia errealean gainean ideiarik ñimiñoena ere ez izatean, esperientziara jo beharrean aurkitzen baikara. (§ 10) Halere, ez dut nik ukatuko arrazoizko esperientzia arautuak egiten dituen gizakia ez dela gai izango beste norbaitek baino aieru zuzenagoak osatzeko oraindik ezagutzen ez ditugun haien propietateei buruz, baina judizioa da eta iritzia, ez ezagutza edo ziurtasuna. Horrek guztiak pentsarazten dit fisika ez dela gai gure eskuetan zientzia mailara iristeko. Hala eta guztiz, esperientziez eta behaketa historikoez balia gaitezke gure gorputzen osasunerako eta bizitzaren erosotasunei begira.

TEOFILO: Honetan bat nator zurekin, alegia, fisika bere osotasunean ez dela inoiz zientzia perfektua izango gure artean, baina ez diogu, horregatik, zientzia fisikoren bat eduki ahal izateari uko egingo, eta gainera, baditugu dagoeneko horren erakusbide batzuk. Adibidez, magnetologia horrelako zientziazat har dezakegu, zeren esperientzian oinarritutako zenbait suposizio bidez, ondorio ziurrez froga baititzakegu, arrazoiak adierazten digunez, benetan gertatzen diren hainbat fenomeno. Ez daukagu zertan itxaron esperientzia guztien arrazoiak eman ahal izan arte, geometrilariak beraiek ere ez baitituzte oraindik euren axioma guztiak frogatu; baina, teorema kopuru handia arrazoiaren printzipio kopuru txiki batetik ondorioztatzea haientzat aski izan den moduan, aski izango da, orobat, fisikariak esperientziazko zenbait printzipioren bitartez hainbat fenomenoren arrazoiak ematea, eta praktikan aurrikusi ahal izatera ere iristea.

(§ 11) FILALETES: Gorputzen barne-egiturak bereizi ahal izateko gure gaitasunak ez direlarik egokiak, pentsatu behar dugu aski dela haiek guri Jainkoaren existentziaren berri eskaintzea, eta gu geuron ezagutza ongi garatua, egitekoez eta gure funtsezko ardurez jabetzeko modukoa, batez ere betikotasunari lotuta. Eta horietatik ondorio hau ateratzeko eskubide dudala uste dut, alegia, morala dela zientzia bera eta gizakion, oro har, arazo nagusia, eta bestalde, naturaren atal ezberdinei dagozkien arte ezberdinak gizabanakoen ondare direla. Abibidez, naturak ondasun ugariz hornitutako Ameriketako herrialdeetan bizitzeko erosotasun gehienak falta badira, burdinaren erabileraren ezjakinagatik dela esan daiteke. Beraz, naturaren zientzia gutxietsi ezezik, (§ 12) nire ustez, ikerketa hau ongi bideratuz gero, gizadiarentzat orain arte egin den guztia baino baliagarriago izan daiteke; inprentaren asmatzaileak, iparorratzaren erabilera aurkitu zuenak edota kininaren dohainak ezagutarazi zigunak, ezagutzaren zabalkundean eta bizitzarako erosotasunen aurrerapenean gehiago lagundu dutela uste dut, eta hilobitik jende gehiago salbatu dutela, ikastetxe, ospitale eta karitaterik ospetsueneko eta kostu itzelez eraikitako hainbat monumentuk baino.

TEOFILO: Ezin atseginagoa zait, jauna, esan duzuna. Egiazko moralak edo pietateak arteak lantzerantz eramane behar gaitu, zenbait kietista nagiren alferkeria erraztu barik. Eta duela gutxi esan nuenez, polizia hobe batek egunen batean eramane gaitzake gaurkoa baino medikuntza askoz hobera. Bertutea zaintzearen ondoren, ez dugu hau inoiz aski aldarrikatuko.

(§ 13) FILALETES: Esperientziaren alde agertzen banaiz ere, ez ditut nik hipotesi probableak gutxiesten. Aurkikuntza berrietara eramane gaitzakete eta oroimenaren mesedetan dira beti. Baina gure izpiritua arinegi joan ohi da eta itxura leun batzuekin

konforme izaten da, behar den astia eta nekea hartu gabe hipotesi probable horiek fenomeno askotara aplikatzeko.

TEOFILO: Fenomenoen kausak edo egiazko hipotesiak argitara ateratzeko artea, deszifratzeko artea bezala da; arte honetan susmo zorrotz batek bidea laburtzen digu maiz. Lord Bacon³¹³ hasi zen esperimentatzeko artea agindutara biltzen, eta Boyle zaldunak arte horren praktikan prestutasuna erakutsi zuen. Baina honi eranstean ez badiogu esperientziez baliatzeko artea, haiei ondorioak ateratzeko, erregearen ondasunez ere ez ginateke iritsiko adimen zorrotzeko gizakiak hasieratik aurki zezakeenera. Descartes jaunak, gizon adimentsua bera inongo zalantzarik gabe, bere gutunetako batean³¹⁴ horren antzeko oharpidea egiten du, Ingalaterrako kanzelariaren Metodoaz ari dela; Spinozak (eta berau aipatzeko eragozpenik ez daukat zentzuzko gauzak esaten dituenean), Oldenbourg jaun zenduari idatzitako gutunetarikoa batean, Ingalaterrako Errege Elkarteko idazkaria berau, (gutunak, judu sotil honen obren hilondoko argitalpenean agertu ziren), antzeko hausnarketa egiten du Boyle jaunaren obra bati buruz, zeina, egia esan, gehiegi saiatzen den esperientzia ederren amaigabeko kopurutik ondorio bat baino ez ateratzen, printzipiotzat ezar zezakeen ondorioa, hain zuzen, hots, oro mekanikoki gertatzen dela naturan; printzipio honen ziurtasuna arrazoiak frogatzeak, esperientziek, aldiz, inoiz ere ez, zenbatnahi izanda ere.

(§ 14) FILALETES: Izen finkoen bitartez ideiak argi eta bereiz utzi ondoren, gure ezagutzak hedatzeko bide nagusia ararteko ideiak aurkitzeko artean datza, hauek erakutsi ahal izango baitigute bi muturretako ideien arteko lotura ala elkartuezina. Maximek, behintzat, ez digute horretarako balio. Demagun norbaitek ez daukala angelu zuzenari buruz ideia zehatzik; alferrik nekatuko da tringelu angeluzuzenari buruzko edozer frogatzen: eta erabilitako maximak edozein izanda ere, nekez frogatzeak angelu zuzen hori osatzen duten aldean karratuak hipotenusaren karratuaren berdinak direla. Behin eta berriro, luzaroan mamur ditzake axioma horiek, matematiketan sekulan argi-izpirik sumatu gabe.

TEOFILO: Axiomen hausnarketak ez du deus balio, haiek zeri egokitu ez badaukagu. Ideiak elkartzeko dira sarritan axiomak; baliagarritasun handikoa da, adibidez, zera dioen maxima: bigarren eta hirugarren dimentsioko izaki hedaduradun antzekoak arrazoi bikoitz eta hirukoitzaren indarrean daude lehen dimentsioko hedaduradun izakiekiko; eta Hipokratesen³¹⁵ lunularen koadratura, adibidez, hortik dator, lehenik zirkuluen kasuan, bi irudiok aldi berean elkarri lotzean, euren kokaera zehatzak horretarako erraztasuna ematen duenean; era berean, euren arteko alderaketak, jakina denean, ezagupideak agintzen dizkigu.

XIII

Gure ezagutzari buruz gogarren gehiago

(§ 1) FILALETES: Oraindik, agian, gehitu dezakegu gure ezagutzak lotura handia duela ikusmenarekin, eta honetan bezala beste zenbait gauzatan ere ez dela erabat premiazko, ez eta erabat borondatezko. Begiak argitara zabalik ditugula, ezin da ez-ikusi, baina beste objektuetarantz alda dezakegu begirada (§ 2) eta hauetan arreta gehiago ala gutxiago jarri. Horrela, behin gaitasuna bideratuz gero, ezagutza zehaztea ez dagokio nahimenari; eta gizakiak ezin dio bere buruari ikusten duena ikustea eragotzi. Baina ikasi nahi badu, gaitasunak egokiro erabili beharko ditu.

TEOFILO: Lehen ere mintzatu gara honetaz, eta gizakiaren menpe ez dagoela oraingo egoeran sentipen hau ala bestea izatea ezarri dugu, baina beraren esku dago hura geroan edukitzeko edota ez edukitzeko prestatzea; eta horrela, iritziak zeharka baino ez dira borondatezkoak.

XIV

Juzgamena

(§ 1) FILALETES: Gizakia ez litzateke gauza izango erabakirik hartzeko, bere bizitzako ekintzarik gehienetan, ez baleuka gidaritzaren bat ezagutza ziurrik gabeko uneetan. (§ 2) Aski izaten da batzuetan probabilitatezko argiune soila. (§ 3) Eta hartaz baliatzeko gaitasuna juzgamena da. Sarritan aski izaten da bera, baina sarritan, baita ere, ardurarik eza izaten da, pazientziarik eza, abileziarik eza. (§ 4) Baiespena deritzogu, edota ezespena, eta zerbait aurrez uste izatean gertatzen da, hau da, frogatu aurretik egiaztat hartzen denean. Irizpide zuzena da gauzen errealitatearekin ados gertatzen denean.

TEOFILO: Zenbaitzuek iritzi esaten diote, zergatiak jakin ostean juzgatzen dugun aldi oro burutzen den ekintzari; beste batzuek juzkua eta aburua bereiziko dizkizute, lehena hain ez-ziurra izango ez bailitzan. Baina, nik ez dut inor epaitu nahi hitzei ematen dien erabilera dela-eta; zuri, ordea, zilegi zaizu juzgamena sentipen gertagarri gisan hartzea. Presuntzioari buruz, eta hau legelarien hizkeratik hartutako hitza dugu, egoki erabiltzen dutenean aierutik bereizten dute. Areagoko zerbait da, behin-behingo egiaztat hartu behar dena, kontrakoaren frogarik ez dugun bitartean; zantzua ez bezala, aierua sarritan neurtu egin behar dugu beste aieru baten aurrez aurre. Hartaz, norbaitengandik dirua zorretan hartu duela aitortzen duenak ordaindu egin behar duen presuntzioa dago, arik eta ordaindu duela frogatzen ez duen bitartean, edota zorra beste nolabait kitatzekoa zela. Beraz, presuntzioa ez da, zentzu horretan, frogatu aurretik uste izatea, hau ez baita zilegi, baizik eta aurrez uste izatea baina funtsez eta kontrakoaren frogarik ez dugun bitartean.

XV

Probabilitatea

(§ 1) FILALETES: Frogapenak ideien arteko lotura erakusten badigu, probabilitatea lotura honen itxura baino ez da, konexio aldaezina ikusten ez den frogen gain oinarritua. (§ 2) Onarpen mailak daude segurtasunetik hasi eta aierura, zalantzara, mesfidantzara. (§ 3) Ziurtasuna daukagunean, intuizioa dago arrazoinamenduaren atal guztietan, hauek adierazten dutelarik haren lotura; baina sinestera naramana zerbait arrotza da. (§ 4) Beraz, dakigunarekiko adostasunetan oinarritzen da probabilitatea, edo zerbait dakitenen testigutzan.

TEOFILO: Nahiago nuke hura egiantzekotasunaren edota egiarekiko adostasunaren gainean oinarrituta dagoela sinesten irautea; eta egiazkoak ere eduki ohi du inoren testigutza bere mesedetan, gure esku dauden egintzekiko. Esan daiteke, beraz, probableak egiazkoarekin daukan antza gauzatik beretik datorkiola edota gauza arrotzen batetik. Erretorikoek bi argumentu mota planteatzen dituzte: artifizialak, arrazoinamendu bidez gauzetatik eratortzen direnak; eta inartifizialak, gizakiaren edota, agian, gauzaren berarizko testigutzan soilik oinarrituak. Badira nahasiak ere, testigutzak berez, argudio artifiziala moldatzeko balio duen egintza eskaintzen duenean.

(§ 5) FILALETES: Egiarekiko antzik ezak garamatza dakigunarekin zerikusirik ez duena aise ez sinestera. Hartaz, enbasadore batek Siameko erregeari esan zionean gure herrialdeetan ura neguan hain gogor bilakatzen dela non elefantea gainetik hondoratu gabe ibil daitekeen, erregeak erantzun zion: orain arte gizon zintzotzat izan zaitut; orain, aldiz, argi daukat gezurretan ari zarela. (§ 6) Baina, besteen testigutzak egintza bat probable bihur badezake, besteen iritzia ez dugu berez eta beste barik probabilitataren egiazko oinarritzat hartu behar. Gizakiengan, izan ere, akatsak gehiago dira ezagutzak baino, eta gure ezagunen eta adiskideen sineskera baiespenerako funts zilegia bada, arrazoiz lirateke gizakiak Japonian paganoak, Turkian mahomatarrak, Espainian aitasantuzaleak, Holandan kalbindarrak eta Suedian luteranoak.

TEOFILO: Zalantzarik gabe, iritziak baino pisu handiagoa dauka gizakien testigantzak; horregatik, hain zuzen, egiten zaio kasu gehiago. Halere, gauza jakina da epaileak

batzuetan sineskortasun zina delakoa eskatzen duela; eta lekukoei galdeketetan itauntzen zaie ikusi zutenaz ezezik, euren iritziaz ere, irizpide horren arrazoiak, bide batez, arakatuz, eta dagokion hausnarketa eskaintzen zaio honi. Epaileek, halaber, alor bakoitzean jakitunen aburuei eta sentipenei garrantzia ematen diete; partikularrak ere horretara behartuak daude, nork bere azterketari ekitea komeni ez zaien heinean. Hartaz, haurrak edota horretan haurraren antzeko egoeran dagoen edozein pertsonak, egoera berezia izan arren, herrialdeko erlijioa ikasi behar du, horretan kalterik ikusten ez duen bitartean eta beste ezer hobeagorik ba ote dagoen ikertzeko gai ez den bitartean. Eta morroi-zaindariak, ezein alderdikoa izanda ere, jauntxoaren erlijioa praktikatzen dutenak joan ohi diren Elizara eramango ditu menpekoak. Kontsulta egin daiteke Nicole jauna³¹⁶ eta besteen arteko eztabaidetan gehienen argudioari buruz fedezko gaietan, batzuetan zenbaitek gehiegi amore ematen duelako eta beste batzuek arreta gutxi jartzen dutelako. Badira antzeko beste aurre iritziak, eta hauengatik gizakiak gustura alboratuko lukete eztabaida. Tertulianok honetaz idatzitako tratatuan preskripzioak³¹⁷ deritze; antzinako legelariengandik hartutako hitza da, haien hizkera ongi ezagutzen baitzuen; haiek salbuespen mota ezberdinei eta prebentziozko alegazio arrotzei deitzen zieten horrela, gaur egun, ordea, denborazko preskripzioari atxikitzen zaio hitz hori ia beti, legeek ezarritako epemuga barnean aurkeztua izan ez delako, norbaiten eskabidea arbuia nahi denean. Horra zergatik, aurre-iritzi legitimoak argitaratzeko arrazoiak izan dituzten bai Erromako Elizak, bai protestanteenak³¹⁸. Batzuek zein besteek elkarren aurkako berriak agertu dituzte zenbait ikuspegitan: hala nola, protestanteek elizgizonen antzinako ordenazio-elizkizunak hein handi batean alde batera uztean, eta erromatarrek Idazteuneko Itun Zaharreko liburuen antzinako kanona aldatzean, idatzizko eztabaida batean nahiko argi frogatuta utzi nuen moduan, Meaux-eko gotzain jaunaren erantzun eta guzti, zeina azken egunotan jakin dudanagatik hil berria den³¹⁹. Erasoak bi aldetakoak izaki, gai hauetan akats-zantzuren bat eskaintzen duen arren, berria ez da froga ziurra.

XVI

Baiespen mailak

(§ 1) FILALETES: Baiespen mailei dagokienez, kontuan hartu behar da dauzkagun probabilitate-oinarriek ez dutela horretan eragiten bertan aurkitzen den edo aztertu denean aurkitu izan den itxura maila baino areago. Aitortu behar da, izan ere, baiespenak ezin duela beti oinarritua egon izpirituan gailendu diren arrazoiaren oraingo ikuspegiari, eta oroimen miresgarria daukatenentzat ere oso zaila litzateke baieztapenen bati atxikitze behar izan dituzten froga guztiak beti gogoratzea, arazo bakarraren frogak batzuetan liburu osoa beteko bailukete. Aski da, behin materia zintzoki eta arretaz arakatu badute eta horrekin, nolabait esateko, auzia itxi badute. (§ 2) Hori hala ez balitz, gizakiek oso eszeptikoak izan beharko lukete, edota une oro iritziz aldatu, norbaitekin dihardutenean, norbait honek arestian aztertua duen arazoa eta une horretan, oroimen edo asti faltagatik, egokiro ezin erantzun dituzten argudioak aurkezten badizkie. (§ 3) Aitor dezagun, hori dela eta, gizakiak akatsean setatzen direla: errua ez da, baina, oroimena euskarritzat hartu izana, aurretik oker iritzi dutela baizik. Zeren sarritan gizakiek ikerketa eta arrazoiaren ordeztu jartzen baitute konstatazio hau, alegia, inoiz ere ez dutela besterik pentsatu. Baina, euren iritziak gutxien aztertu dituztenak izan ohi dira arrunki hauei gehien atxikitzen zaizkienak. Halere, norbaitek ikusitakoari atxikitzea laudagarria bada ere, ez da gauza bera gertatzen sinetsiarekin, agian ohartu gabe atzean utzi baitzatekeen oro alda dezakeen zerbait. Batetik eta bestetik iritzi ezberdinak mantentzen dituen arazoen froga guztiak biltzeko asti, pazientzia eta tresnak dauzkan inortxo ere ez dago, apika, munduan, froga horiek alderatu eta ondorio ziur

honetara iristeko, alegia, areago jakiteko ez daukala deus besterik aztertzeke. Bizi beharrak eta gure interes handiagoak zaindu beharrak ez digu, ordea, luzapenik onartzen eta guztiz beharrezkoa dugu ebazpena zehaztea, ezagutza segurua lortu ezin dugun arazoetan.

TEOFILO: Ona eta gezurtaezina da esan duzun guztia, jauna. Desiragarri litzateke, ordea, gizakiek batzuetan idatzizko laburbildumak (argibide gisa) edukitzea, garrantzizko sentipenen batera eraman dituzten arrazoiena, jarraian sarritan euren buruen aurrean edota inorenean arrazoitutako beharko duten sentipena baita. Bestalde, justizia alorrean zilegi izan ohi ez denez erabakitako epaietan atzera egitea eta arazo itxiak berrikustea (hala ez balitz beti egongo baikinake kezkatan eta iraganekoen berri beti gorde ezinean, are eta jasanezinago bihurtuko litzateke), halere auzitegiak berririo jo daiteke, justiziaz, datu argigarri berrietan finkaturik, eta lor daiteke in integrum³²⁰ delako itzultzea, aurrez ebatzitakoaren aurka. Era berean gure arazoetan, batez ere munta handiko gaitan, sakon inplikatzeko edo bertan behera uztea zilegi delarik oraindik, eta kontuz ibiltzea eta egite-aldiaren etetea kalterako ez denean, probabilitateetan oinarritutako gure izpirituen erabakiak ez ditugu inoiz hartu behar in rem judicatum, legelariak deitu ohi dietenez, hau da, ez digute inoiz balio behar arrazoinamenduaren berrikusketari uko egiteko, kontuan hartzea merezi duten kontrako arrazoi berriak sortzen direnean. Baina deliberatzeko astia agortu denean, hartutako ebazpenari lotu behar zaio hutsezina balitz bezain estuki, ez, ordea, beti hain zorrozki.

(§ 4) FILALETES: Gizakiek ekidin ezin dutelarik, epaitzerakoan, hutsegite arriskua, ez eta sentipen ezberdinak izatea gauzak ikuspegi ezberdinetik ikustean, euren artean bakea jagon behar dute eta gizateriaren berariazko eginkizunak bete, iritzi ezberdinak onartuz, gure objekzioen aurrean inork bere aburu ongi finkatua bat-batean aldatu beharra nahi izan gabe, batez ere lehiakidea interesez, handinahiz edo beste edozein aitzakia partikularrez ari dela pentsatzeko ziorik baldin badu. Gehienetan, besteei euren sentipenak inposatu nahi dizkietenek ez dituzte eurek gauzak ongi aztertu. Zalantzatik irteteko adina eztabaida sakondu dutenak hain gutxi dira eta besteak kondenatzeko hain arrazoi gutxi aurkitzen dute ezen haien aldetik ez baitugu bortxazkorik deus espero behar.

TEOFILO: Benetan, eskubiderik handienaz gizakiengan zentsura merezi duena ez da euren iritzia, inorena gaitzesteko duten irizkeria baizik, beraiek bezala pentsatzen ez duena ergela edo gaiztoa izan beharko bailitzan; grina eta gorroto horien eragileak eta jende artean hedatzen dituztenak, oreka eskaseko izpiritu harroak dira, menperatzaileak eta inongo kontraesanik jasan ezin dutenak. Sarri askotan besteen iritziak gaitzesteko arrazoi faltarik ez da izaten, baina zuzentasun-arauzko izpirituz egin behar da hori eta giza ahultasunaren urrikiak. Egia da doktrina okerrean aurka neurriak hartzeko eskubide dugula, hauek ohituretan eta pietatearen praktikan eragina izan dezaketelako; baina, neurri horiek ez dira pertsonen eskuetan euren kalterako utzi behar, aurrez frogarik egin gabe. Berdintasunak pertsonak parekatu nahi baditu, pietateak agintzen digu, euren dogmen eragin gaiztoa zertan datzan zehaztea, kaltegarriak direnean, eta halaxe dira Jainko guztiz jakintsu, zintzo eta zuzenaren probidentziaren kontra doazenak, edota haren justiziaren ondorioak sentitzeko gai egiten dituen arimen hilezkortasunaren kontra doazenak, eta horiez gain, beste hainbat iritzi arriskutsu moralari eta ordenari begira. Badakit zenbait pertsona prestu eta asmo onekok defenditzen duela iritzi horiek uste baino eragin gutxiago dutela praktikan, eta badakit, halaber, izakera bikaineko zenbait pertsonari iritziek ez dietela sekulan deus ezduinik eginaraziko; bestalde, hutsegite horietara espekulazio bidez iritsi direnak berez gizaki arruntak baino urrunago egon ohi dira bizioetatik, eta gainera arreta handiz ibili behar dute euren agintepean dagoen sektaren duintasunarekin; baieztatu daiteke, adibidez, Epikurok eta Spinozak bizimolde

guztiz eredugarria izan zutela. Baina, arrazoi hauen indarra gehienetan galdu egiten da ikasleengana eta jarraitzaileengana iristean, hauek, probidentzia jagolearen eta mehatxuzko etorkizunaren beldur gogaikarritik liberatzen direnean, euren grina basatiak askatzen baitituzte, eta euren izpirituak bideratzen dituzte besteak limurtzera eta kutsatzera; eta handinahiak eta izakera zakarrekoak badira, iritsi daitezke plazer edo irabazpide pertsonalerako lurrari lau aldeetatik su emateko gauza izatera: ezagutu izan ditut nik horrelako tenperamentuzko zenbait, heriotzak eramanak dagoeneko. Gainera, nire ustez, hauen antzeko iritziak eta negozioak menperatzen dituzten mundu handiko arauemaileen izpirituan sartuz doaz apurka-apurka, eta modako liburuetan zehar zabaltzen dira, eta jende mota horrek denetarik daukala uste dut, mehatxupearan dagoen Europaren iraultzarako; eta antzinako greziarrengandik eta erromatarrengandik munduan geratzen diren sentipen emankorrak deuseztuko dituzte, aberriaren eta herri-onuraren maitasuna eta geroari begiramena nahiago baitzuten haiek dirua eta bizitza bera ere baino. Delako publiko spirits³²¹ horiek, hala baiteritzete ingelesek, gero eta gutxiago dira eta modatik kanpo daude; eta oraindik gutxiago izango dira, moral zintzoak eta berezko arrazoiak erakusten digun egiazko erlijioak bere babesa uka diezaientean. Agintzen hasi den aurkako taldeko prestuenek, beraiek ohorea deritzenaz aparte ez daukate beste printzipiorik. Baina, euren artean gizaki zintzoaren eta ohorezko gizakiaren ezaugarria haxe da soilik, hots, euren arauetan zatarkeriatzat dutena ez egitea. Eta handinahiagatik edota kapritxoak norbaitek odol-uholdeak isuriaraziko balitu edota oro azpikoz gora irauliko balu, horrek ez luke axolarik, eta antzinakoen Herostrato³²² edo Le Festin de pierre liburuko Don Joan heroitzat hartuak lirakeke. Aberri-maitasunari burla egiten diote ozenki, herri-onuraz arduratzen direnei irri egiten diete, eta norbait asmo onez geroan gertatuko denaz mintzo denean, erantzuten dute: gerta dadina gertatuko da. Baina gerta dakieke pertsona hauei, besteentzat direlakoan, gaitzak beren gain jasatea. Dagoeneko bistan dauzkagun ondorio zitaleko gaixotasun izpiritual kutsakor hau sendatzea lortuko bagenu, agian gaitz horiek aurrez galarazterik izango zen; baina gaixotasunak aurrera egiten badu, bertatik sortuko den iraultzaren indarrez eramango ditu probidentziak zuzenbidera gizakiak: hala gertatzekotan, dena izango da hoberako, oro har, nahiz eta hau ezin gerta daitekeen eta gertatu behar ere ez duen horretara eraman gaituztenen zigorrik gabe, euren ekintza gaiztoak, azken finean, onerako izan badira ere. Baina irizpide makurren eta hauek arbuizatzeko eskubidearen kontsiderazioak ekarri gaituen zeharbidea utzi, eta berriro harira itzul gaitezen. Beraz, teologian zentsurak beste alor askotan baino urrunago joan ohi direlarik eta batzuek, euren ortodoxian oinarriturik, sarritan aurkakoak kondenatzen dituztelarik, honen aurka agertzen badira ere alderdi berean lehiakideek sinkretistak deritzenak, hau dela eta, gudu zibilak piztu izan dira alderdi baten baitan gogorren eta amor emaleen artean. Hala eta guztiz, beste nolabait pentsatzen dutenei betiko salbazioa ukatzea Jainkoaren eskubideetan sartzea litzatekeenez, kondenatzaileetarik zuhurrenek arima erratuen egoera, euren ustetan, arriskutsua besterik ez dute aipatzen, eta Jainkoaren paregabeko miseriardiaren eskutan uzten dituzte gaiztakeriaz profitatzeko bezain maltzurak izan direnak, eta horiek egoera hain arriskutsutik ateratzeko, burura daitezkeen eginahal guztiak egitera behartuak sentitzen dira. Inoren arriskuaz horrela pentsatzen dutenak, azterketa egoki baten ostean, ondorio horretara iritsi badira, eta hortik desbidera daitezkeen modurik ez badago, ez dugu zertan euren jokabidea kritikatu, bide leunak baino erabiltzen ez dituzten bitartean. Baina bide horietatik irten bezain pronto, berdintasunaren arauak hausten dituzte. Pentsatu beharko bailukete, besteek ere, eurak bezainbeste sinestuta, badutela beren sentipenak defendatzeko eskubide, are eta hedatzeko ere, garrantzi handikotzat badituzte. Salbuespen dira krimenak irakasten dituzten pentsamoldeak; hauen aurrean ezin da amore eman eta bide gogorrez ere

itoarazteko eskubide daukagu, nahiz eta egia izan, defendatzen dituenak ezin diola defendatzeari uko egin: gauza bera egiteko eskubide daukagu, izan ere, piztia pozointsuarekin, berau guztiz errugabea izan arren. Baina ni sekta zapaltzeaz ari naiz, ez gizakiak, hauei gaitz egitea eta dogmatizatzea galaraz baitakieke.

(§ 5) FILALETES: Baiespenaren funtsera eta mailetara itzultzeko, proposizioak bi motakoak direla aditzera eman behar da: batzuk egitatezkoak dira, behaketaren menpekoak, eta giza testigantzan oinarrituak egon daitezke; besteak espekulaziozkoak, gure sentimenek argitara atera ezin dizkigutelarik, antzeko testigantzarik eskaintzeko gai ez dira. (§ 6) Egintza partikularra bat datorrenean gure etengabeko behaketekin eta gainontzeko behaketen erlazio berdinekin, ezagupide segurua balitz bezain sendo finkatzen gara gu bertan; eta, jakin dezakegun heinean, mende orotako gizaki ororen testigutzarekin bat datorrenean, hori da probabilitate lehena eta mailarik gorenekoa: esate baterako, suak berotu egiten duela edota burdina uretan hondora joaten dela. Horrelako oinarrien gain eraikitako gure sineskera segurtasunera iristen da. (§ 7) Gainera, historialari guztiek kontatuko dizute, norbaitek nahiago izan duela interes partikularra, herriarena baino, eta beti ikusi izan denetik hori dela gizaki gehienon ohitura, historia horiei eman diezaiekedan baiespena konfiantza bihurtzen da. (§ 8) Gauzen izakerak ez daukanean ez aldekorik, ez kontrakorik, susmagarri ez den norbaiten testigantzak baieztatutako egintza, esaterako, Julio Zesar bizi izan zela, sineskera finkoz onartzen da. (§ 9) Baina testigantzek elkar kontraesaten dutenean edota naturaren norabide arruntaren kontrakoak direnean, probabilitate mailak infinituraino banan daitezke, hortik datoz guk honela deritzegun mailak, hots, sineskera, aierua, zalantza, ziurgabetasuna, mesfidantza; eta horrelakoetan behar da zehaztasuna, iritzi zuzenera iristeko eta probabilitate mailei gure baiespena eskaintzeko.

TEOFILO: Legelariak frogez, presuntzioez, aieruez eta zantzuez mintzo izan direnean honi buruzko gauza onik asko esan dituzte eta xehetasun azpimarragarritz jorratu dute gai hau. Nabarmentasunetik hasten dira, eta hemen ez dugu inongo froga premiarik. Ondoren froga osoetara pasatzen dira, edo halakotzat ditugunetara, eta hauetaz, bai, aburua eman dezakegu, gai zibiletan bederen; arazo kriminaletan, ordea, mugatuago aurki gaitezke; eta inongo errakuntzarik gabe eska ditzakegu froga erabatekoak eta areago, bereziki, corpus delicti³²³ delakoa, egintzaren izaeraren arabera. Beraz, froga batzuk erabatekoak baino areago dira eta beste batzuk erabateko arruntak. Gero presuntzioak datoz, behin-behingo froga osotzat hartuak, kontrakoa frogatzen ez den bitartean. Beste froga batzuk erdi-erabatekoak baino areago dira (zehazki mintzo); hauetan oinarritzen denari zilegi zaio zin egitea, osagarri gisa (juramentum suppletorium); beste batzuk erdi-erabatekoak baino gutxiago dira; hauetan alderantziz gertatzen da, hau da, egintza ukatzen duenari zaiola zilegi zin egitea, bere burua zuritzeko (juramentum purgationis). Hauez gain, aieru eta zantzu mailak hainbat eta hainbat dira. Arazo kriminaletan, bereziki, badira zantzuak (ad torturam) arazora iristeko (eta honi ere bere mailak markatzen dizkiote ebazteko formulek); zantzu batzuek (ad terrendum) aski dute torturarako tresnak erakutsi eta dena prestatzearekin, tortura gauzatu nahi izango balitz bezala. Beste batzuek (ad capturam) susmagarriaren inguruan ziurtasuna lortzeko; baita ere (ad inquirendum), ezkutuan eta isilpean informazioa eskuratzeko. Ezberdintasun hauek baliagarri izan daitezke, orobat, antzeko aukeratan. Eta justiziaren eremuan prozeduren moldeak berez logika moduko zerbait baino ez da, zuzenbidezko arazoetara bideratua. Sendagileek maila eta diferentzia asko ezartzen dituzte euren artean ikus daitezkeen ikurretan eta oharretan. Matematikari garaikideak azareez arduratzen hasi dira jokoetan. De Méré zaldunak, izpirititu zorrotzeko gizona, jokalaria eta filosofoa berau, Agréments eta beste zenbait obra inprimaturen egileak jokaldiei buruzko galderak planteatzearekin sortarazi zuen kezka

hau, berak jakin nahi baitzuen zenbat balio lezakeen jokoak gunen batean edo bestean etenez gero. Hartara, Pascal adiskidea berarekin eraman zuen gai hauek aztertzeraz. Auziak eztanda egin zuen eta Huygens jaunari bere De Alea³²⁴ argitaratzeko abagunea eskaini zitzaion. Beste zenbait jakintsuk ere parte hartu zuten auzian. Printzipio batzuk ere ebatzi ziren, eta hauetaz baliatu zen de Witt pentsioduna biziarteko errentez holanderaz argitaratutako hitzalditxoan³²⁵. Eraikuntza honen funtsa prostaferesia da, eta era berean onargarri diren zenbaiten artean batezbesteko aritmetiko bat aukeratzean datza. Gure nekazariak aspalditik erabili izan dituzte bide horiek, euren matematika naturalari jarraiki. Adibidez, ondare edo lursailen bat saltzerakoan, zenbatzaileak hiru taldetan banatzen dituzte; talde hauei Schurzen deritze Saxonia Behereko hizkuntzan, eta talde bakoitzak balioztatze bat egiten dio ogasun horri. Demagun, beraz, batek 1.000 ezkututan zenbatu duela balioa, besteak 1.400ean eta hirugarrenak 1.500ean; hiru hurbilketen batuketaren emaitza 3.900 da; hiru talde izan direlarik, kopuru honen herena, hau da, 1.300 onartzen da, eskatutako batezbesteko baliozat; edota, gauza bera dena, hurbilketa bakoitzaren herenen batuketa. Axioma hau da: *aequalibus aequalia*, hots, suposizio berdinetan gogoeta berdinak onartu behar ditugu. Baina suposizioak ezberdinak direnean euren artean konparatzen dira. Demagun, adibidez, bi dadorekin bata 7 puntu eginez irabazi behar duela eta besteak 9 puntu eginez; galdera da: nolako proportzioa daukate bata ala besteak irabazteko probabilitateetan? Nire ustez, bigarrenaren probabilitatea lehenaren heren bi baino gehiagokoa ez da, zeren lehenak dadoaren bi alderekin 7a osa dezake hiru modutan, hots, 1 eta 6, 2 eta 5 edota 3 eta 4; besteak, aldiz, bi modu baino ez ditu 9a osatzeko, 3 eta 6 edota 4 eta 5. Eta jokaldi horiek guztiek posibilitate bera daukate. Beraz, posibilitate berdineko probabilitateak 2tik 1 izango dira edota 1etik 2/3. Behin baino gehiagotan esan dut logika mota berria beharko genukeela probabilitate mailez iharduteko, gai hau baita Aristotelesek bere Topikoetan gutxien landu duena; zenbait herri-arauetan ordena apur bat ipintzearekin konformatu da, guztiekiko lekuen arabera antolatuz; eta hauek inoiz izan daitezke baliagarri, diskurtoa handitu eta itxuratu nahi denean, horretarako iritzi sendoa burutzeko itxurak neurtzen astirik hartu gabe. Gai hau landu nahi izango lukeenari azarezko jokoan azterketa sakontzea ongi letorkioke; eta, oro har, gustatuko litzaidake matematikari prestu batek joko mota guztiei buruz lan luzea, ongi dokumentatua eta arrazoitua egingo balu; asmatzeko artea hobetzeko guztiz baliagarria litzateke, giza izpiritua hobeto agertzen baita jokoetan, gairik serioenetan baino.

(§ 10) **FILALETES**: Ingalaterrako legeak ontzat ematen du arau hau, alegia, gertaera baten berregintza frogatzea dela lekukoek benetakotzat hartuz gero; lekukotza ona izan arren, ordea, eta testiguak izen handikoak, kopiaren kopia ez dela inoiz frogatzat onartuko auzitan. Oraindik ere ez diot inori entzun arreta hau gaitzesten. Ondorio hau gutxienik atera dezakegu, hots, gauzaren muinean dagoen jatorrizko egia urruntzen den heinean galtzen duela indarra testigantza; halere, pertsona batzuek guztiz alderantziz gertatzen da, zaharragoak eta are indartsuagoak dira irizpideak, eta duela mila urte lehenik baieztatu zuenaren garaikide zuzenari egiantzeko ere irudituko ez litzaiokeena gaur egun ziurtatzen da testigantza hartatik abiatuz, zenbaitzuek hala eutsi diotelako.

TEOFILO: Historia alorreko kritiketan arreta handia ematen zaie gauzen testigu garaikideei; hala eta guztiz, garaikideak gertaera publikoei buruzkoetan soilik merezi du sinesgarritasun hori; baina zioez, sekretuez, isileko gakez eta gai eztabaidagarriez mintzo delarik, hala nola, pozoiketez edota hilketez, gutxienik ere, jende askok sinetsi zuena jakiten dugu. Sinesgarri da Prokopio Belisariok bandaloen eta godoen aurka egindako gudaz mintzo denean³²⁶; baina Pasadizoak bere liburuan, Teodora enperatrizaren aurka gaitzesaka barruak hitz ikaragarrietan husten dituenean, sinets

biezaio nahi duenak. Oro har, kontu handiz sinetsi behar dira satirak: ikusten ditugu gure egunotan argitaratutako zenbait, edozein itxura motaren kontrakoak, ezjakinek irrika biziz irentsiak, halere. Egunen batean, agian, esango da: nola izan liteke, garai hartan horrelakorik argitaratzea ageriko inongo oinarririk gabe? Eta hori inoiz esango bada, okerreko irizpena izango da. Munduak, halere, satirikoa ontzat emateko joera du; adibide bat baino ez: Du Maurier semea jaun defuntuak duela zenbait urte inprimatutako bere Oroitzapenetan, ez dakit nik zein kapritxurengatik, argitara atera zituen funtsik gabeko zenbait gauza Hugo Grotius Frantziar Suediako enbasadore zenaren kontra³²⁷, bere aitaren lagun ospetsu honen oroitzapenaren aurkako zer edo zerk bultzata, dirudienez; eta idazle asko ezagutu ditut, hark idatzitakoak gogoz errepikatu dituztenak, nahiz eta gizon horren negozioek eta gutunek nabarmen erakusten diguten alderantzizkoa. Historiaren baitan nobelagintzarako lizentzia ere hartu ohi da, hala nola, Cromwellen azken biografiaren idazleak³²⁸ pentsatu zuen, nonbait, historia arintzeko zilegi zitzaiola, usurpatzaile trebe honen bizitza pribatuaz mintzo zelarik, Frantziar zehar bidaiatzera eramatea, eta Parisen ostatzat ostatu laguntzen dio bere aholkulari izan bailitzan. Eta Carringtonek³²⁹, ongi informatu ondoren, idatzitako Cromwellen historian, Richard bere semeari haren jagole zenean eskainia, agertzen denez, Cromwell ez omen zen sekulan Britainiar Irletatik irten. Zehaztapenak, batik bat, ez dira batere ziurak. Batailen kontakizun onik ez daukagu kasik; Tito Livioaren gehienak irudimenezkoak bide dira, eta Kinto Kurtzioarenak ere beste horrenbeste. Alderdi bateko zein besteko jende zehatzen eta horretarako gai direnen kontaktak beharko genituzke, Dahlbergeko kondearen³³⁰ planoen antzekoak burutzeko gauza liratekeenak alegia, honek Karlos Gustavo Suediako erregeari zerbitzu bikainak eskaini zizkiolarik eta Livoniako gobernadore jenerala izaki, arestian Riga defendatu zuelarik, idatzita utzi baitzituen printze honen batailei eta ekintzei buruzkoak. Hala eta guztiz, historiagile on bat ez dugu gutxietsi behar printze edo ministroen batek noizbait hura kritikatzat esandakoagatik edota atsegin ez zaion arazoren batengatik, bertan, agian, egiazko akatsen bat izanda ere. Karlos Bosgarrenak Sleidan-en³³¹ zerbait irakur ziezaioten eskatzeko, esaten omen zuen: . Karlowitzek, bere garaian garrantzi handiko saxoniar izandakoak, esaten omen zuen, Sleidanen historiak desegiten zituela historia zaharrei buruzko iritzi on guztiak bere izpirituan. Honek, nire ustez, ez dauka inolako indarrik ongi informatutako pertsonen izpirituan Sleidanen historiaren eragina gainbehera jartzeko, lan horren atalik onena biltzar eta asanbladetakoa agiri publikoen eta printzeek baimendutako idazkien bilduma baita. Eta horretaz inolako zalantzarik geratuko balitz, Seckendorffeko jaun adiskide argitsu defuntuak³³² idatzitako historia bikain argitara berriak ezabatuko ditu denak (kritikatu beharrean aurkitzen naiz, halere, liburu honen izenburuan agertzen den luteranismo hitza, Saxeko ohitura txar baten eraginez); historia honetan gauzarik gehienak justifikatzen dira bere esku zituen artxibategi saxoniarretatik ateratako obra ugarien laburpenetan oinarrituta, nahiz eta horretan biziki saiaturako Meauxeko jaunak³³³, liburua bidali nionean, erantzun zidan liburu hori xehetasun higuinarriz egina dela; bide horretatik bi aldiz luzeago izatea gustatuko litzaidake. Zenbat eta luzeago izan, aukera gehiago ematen zaio kritikari, puntu kritikagarriak errazago aukeratzen baitira; badira, gainera, estimu handian dauzkagun obra historikoak, askoz ere luzeagoak. Horrez gain, eurak baino askoz ere aldi zaharragoez mintzo zaizkigun idazleak ez dira beti gaitzesgarriak, gauza nabarmenak kontatzen dizkigutenean. Eurak baino zaharragoen atalak gorde izan dituztela gertatzen da sarri. Adibidez, zalantzak izan ziren ea zein familiatakoa izan zen Suibert, Bambergeko gotzaina, gero aita santu izendatu zutena, Klemente II.aren³³⁴ izenaz. Brunswicktarren historiaren historia idatzi zuen historialari anonimo batek, XIV. mendean bizi izan zenak,

aipatu zuen zein familiatik zetorren, baina gure historian jakitun direnek ez zioten jaramonik egin; nik aurkitu dut, ordea, kronika bat, askoz ere zaharragoa, oraindik inprimatu gabea, non gauza bera esaten den xehetasun gehiagorekin; eta honen arabera, badirudi Hornburgeko antzinako jaun alodialen familiakoa zela (Wolfenbutteletik hurbil), eta hauen lurrak bertako azken jaunak Halberstadteko eliza katedralari eman zizkiola³³⁵.

(§ 11) FILALETES: Ez beza inortxok ere pentsa, nik esandakoagatik, historiaren garrantzia eta erabilgarritasuna inondik ere murriztu nahi izan ditudanik. Iturri honetatik hartzen ditugu ebidentzia sinesgarritz gure egia erabilgarri gehienak. Antzinatek geratzen zaizkigun oroitzapen horiek baino preziatuagorik ez dut deus ikusten, eta askoz ugariago eta aldakuntza gutxiagoz geuregana daitezen nahi nuke. Baina egia da, aldi berean, ezein kopiak ez duela inoiz jatorrizkoaren ziurtasuna gaindituko.

TEOFILO: Gauza segurua da, antzinako idazle bakarra dugunean egintza baten bermatzaile, honen kopiazaile guztiek ez diotela inongo sinesgarritasunik erantsiko, ez direla, beraz, kontuan hartzekoak. Eta areago oraindik diotena τῶν ἀπ᾽ λεγμένων multzokoa denean, hau da, behin bakarrik esan diren horietarikoa; Ménage jaunak³³⁶ liburu bat osatu nahi izan zuen horrelakoeekin. Eta gaur egun ere, ehun mila idazle txatxu hasiko balira, adibidez, Bolsecen³³⁷ gaitzesanak errepikatzen, zentzuzko pertsonak ez lieke txorien iskanbilari baino kasu gehiago egingo. Legelariek idatzi dute de fide historica³³⁸; baina gaiak mereziko luke azterketa zehatzagoa, eta jaun horietako batzuk gupidatsuegiak izan dira. Urruneko antzinateari dagokionez, egintza nabarmenetariko batzuk badaezpadakoak dira. Zenbait jakintsuk zalantzan jarri du, eta ez arrazoirik gabe, Romulo izan ote zen Erromako hiriaren lehen fundatzailea. Zioren heriotzaz eztabaidak daude, eta Herodoto eta Ktesiasen arteko lehiak zalantzak sortarazi ditu asiriar, babiloniar eta pertsiarren historiaren inguruan. Nabukodonosorren historiak, Juditenak eta Esterren Asuerorenak zailtasun larriak aurkezten dizkigute. Tolosako urreaz mintzo direnean erromatarrek kontatzen digutena Kamilok galiarrak suntsitu zitueneko historiaren kontrakoa da. Batez ere, norberaren herriaren historia pribatua egiten denean sinesgarritasun falta izan ohi da, jatorrizkoak oso zaharrak ez direnean edota historia publikoarekin oso ados ez dagoenean. Horregatik, antzinako errege germaniarrez, galiarrez, britainiarrez, eskoziarrez, poloniarrez eta besteez guregana iritsi diren kontakizunak arrazoiz hartzen dira sinestezinezkotzat eta kapritxoz egindakotzat. Trebeta, Ninoren semea, Treveseko fundatzailea, edota Bruto, britano edo bretoien sortzailea, Amadis baino sinesgarriagoak ez dira. Tritemiok, Abentinok, Albinok eta Sifrid Petrik berak ere³³⁹ antzinako printze frankoez, bavariarrez, saxoniarrez eta frisoiez errexitatu zituzten ipuinak, alegilari batzuegandik hartuak, eta Saxon Gramatikariak eta Eddak Iparraldeko antzinate urrunaz kontatzen dizkigutenek ez daukate Kadlubkok³⁴⁰ baino sinesgarritasun gehiagorik, Julio Zesarren suhia zen Poloniako erregeetariko baten lehen historialaria berau. Baina herri ezberdinetako historiak bat datozenean, itxuraz behintzat, elkarri kopiatu gabe, egiaren tankera handia ematen du horrek. Herodoto, esaterako, bat dator Testamentu Zaharreko historiarekin hainbat gauzatan, adibidez, Megidoko gudaz mintzo denean, Egiptoko erregea eta Palestinako siriarren, hots, juduen artean; bertan, juduen historia sakratuaren arabera, Josias erregea zauritu eta hilzorian utzi zuten³⁴¹. Era berean, historialari arabiar, pertsiar eta turkoen adostasuna grekoekin, erromatarrekin eta Mendebaldeko beste hainbatekin, ekintza haiek ikertzen dituztenentzat atsegingarri da; orobat, antzinatek geratzen zaizkigun dominak eta idazkiak testigantzak dira gureganaino iritsi diren liburu zaharren mesedetan, hauek ere, azken finean, kopien kopiak baitira. Ez dakigu oraindik zer irakatsiko digun eta zenbaterainoko sinesgarritasuna gordeko duen bere baitan

Txinako historiak, berari buruz irizpenak emateko era egokiagoan izan gaitezenean. Jatorriak ezagutu nahiaren plazerrean datza nagusiki historiaren erabilpena, gailendu diren gizakiei egiten zaien justizian, kritika historikoaren ezarpenean eta, batez ere, historia sakratuarenean, beronek eusten baitie errebelazioaren oinarriari, eta (genealogiak eta printzeen eta ahaltsuen eskubideak alde batera utzita) ereduak eskaintzen dizkiguten irakasbide egokietan. Antzinako gaiak azken xehetasunetaraino iragazteari ongi deritzot, garrantzi handiko gauzetarako baliagarri izan baitaitezke sarritan haietatik kritikoek ateratako ezaupideak. Begi onez ikusten dut, adibidez, jantzien historia lantzea eta jostunen artearena, hasi juduen pontifizeen soinekoetatik edota, nahi izanez gero, Jainkoak Paradisutik egoztean lehen bikoteari eskaini zizkion larruzko jantzietatik, eta gaur eguneko zorongak eta apainkeriak (Falt-blats) arte, eta honi guztiari gehitu, eskultura zaharretan eta duela zenbait mendetik hona egin diren pinturetan ikas daitekeena. Baten batek nahi izanez gero, neronek eskainiko dizkiot joan den mendeko augsburgotar baten memoriak, haurtzarotik hirurogeita hiru urte kunplitu arte erabili dituen jantzi guztiekin erretratatu baitu bere burua. Eta ez dakit nork esan zidan Aumonteko duke jaun zenduak ere³⁴², antzinako artederretan aditua bera, halako jakingura izan zuela. Honek, agian, balioko liguke monumentu autentikoak faltsuetatik bereizteko, besteak beste. Eta gizakiei jolas egitea zilegi bazaie, lan mota huekin jostatzea zilegiago izango zaie, zeregin esentzialek honela deus galtzen ez badute. Nire desira litzateke historiari daukan gauzarik baliagarriena ateratzen bereziki saia daitezen pertsonak aurkitzea, esate baterako, bertutearen eredu bikainak, bizitzako erosotasunari buruzko azalpenak, politikarako eta gerrarako estratagemak. Eta ildo honetatik, propio, historia unibertsal moduko bat osatzea gustatuko litzaidake, aipatutakoak bakarrik erakutsiz, eta agian munta handiagoko beste zenbaitzuk; batzuetan, izan ere, historia-liburu handiren bat irakurtzen dugu, jakituriaz betea, taxuz idatzia, egilearen helburuari ongi egokitua eta bere generoan bikaina, baina irakaspen baliagarriarik ia ez daukana; eta ez naiz hemen eredu moral soilez ari, hauek *Theatrum vitae humanae*³⁴³ eta horrelako beste idatz-bildumatan ugari aurki daitezke; mundu guztiak beharrezko izan arren, sarritan ez dakizkien oharkizunez eta ezagupideez ari natzaizu. Gustatuko litzaidake, orobat, bidaia-liburuetatik mota honetako gauza probetxugarri asko norbaitek ateratzea, eta gaien ordenamenduaren arabera sailkatzea. Harrigarria da, ordea, hainbat eginkizun izanda, gizakiak egindakoarekin olgatzen direla ia beti, edota ardurarik gabeko huskeriekin edota, onenean ere, axola gutxien duenarekin; eta nik ez diot honi erremediorik ikusten, garai baketsuagotan jendea horietaz gehiago arduratzen ez den bitartean.

(§ 12) **FILALETES:** Atsegin eta onura ekartzen dizkigute zure bazter-solasek. Baina, egintzazko probabilitateetatik zentzumenen esparruan sartzen ez diren gauzei buruzko iritzizko probabilitateetara pasako gara. Hauek ez daukate inongo testigantzarik, adibidez, izpirituen, aingeruen, deabruen, etabarren izaeraren existentziaz, edota planetetan eta unibertso zabal honen bazterretan izan daitezkeen gorputzezko substantziez eta, azken finean, izadiko emaitza gehienen jokamoldeaz; horiei guztiei buruz susmoak besterik ez ditugu eta alor horretan probabilitatearen arau nagusia analogia da. Berretsi ezinekoak izaki, ezin dute probable itxurarik bereganatu, egia finkoekin gehiago ala gutxiago kidetzen diren heinean baizik. Bi gorputzen arteko igurtzi bortitzak beroa, eta sua ere batzuetan, sortarazten du, gorputz gardenen errefrakzioek koloreak agertarazten dituzte; hortik abiatuz, uste dugu sua ataltxo ikustezinen eraginaldia dela, eta antzeko errefrakziotik datozela jatorri ezezaguneko koloreak; eta giza behaketaren pean euren arteko hutsune nabarmenik gabe egon daitezkeen izadiko atal guztien artean mailazko lotura dagoela kontuan harturik, gauzak emeki-emeki eta ezarian perfekziorantz doazela pentsatzeko arrazoi guztiak ditugu.

Sentigarria eta arrazioduna non hasten den eta gauza bizidunen mailarik apalena zein den esatea ez da batere erraza; kono erregular batean kopurua nola gehitzen ala gutxitzen den esatea bezalatsu, gutxi gora-behera. Gizaki batzuen eta animalia basati batzuen artean gehiegizko aldea dago; baina konparatzen badugu gizaki batzuen adimena eta gaitasuna zenbait piztienarekin, alde hain txikia aurkituko dugu ezen zail egingo baitzaigu ziurtatzea gizaki horien adimena argiagoa eta zabalagoa dela piztia horiena baino. Beraz, mailaketa hain sumagaitza aurkitzen dugularik izadiko atalen artean, hasi gizakitik eta beronen azpitik dauden atalik apalenetara, analogiaren arauak probabletzat ezartzen digu, antzeko mailaketa dagoela gure gainean eta gure behaketen esparrutik kanpo dauden gauzekiko, eta probabilitate mota honetan datza hipotesi arrazoigarrien funts nagusia.

TEOFILO: Analogia honen gainean oinarrituta, Huygens jaunak bere Cosmotheoros-en³⁴⁴ diosku gainontzeko beste planeta nagusien egoera gurearen berdintsua dela, salbuespen honekin, alegia, eguzkitik haietara dagoen alde ezberdinak beste barik sor litzakeen diferentziak; eta Fontenelleko jaunak, alde zurratik munduen aniztasunari buruz bere Solas jakintsu bezain argitsuak argitaratu zituenak³⁴⁵, gauza politak esan ditu horretaz eta halako gai astuna arintzeko artea kausitu du. Ia-ia esan liteke Arlekinen ilargiko inperioan³⁴⁶ dena hemen bezala gertatzen dela. Egiaz, sateliteak soilik diren ilargiei buruz guztiz bestela pentsatzen dugu, planeta nagusiekin konparatuz. Keplerrek ilargiaren egoeraz fikzio asmotsua dakarren liburuska bat utzi digu³⁴⁷ eta ingeles argitsu batek, berak asmatutako espainiar bat alaiki deskribatu digu, pasako txoriek ilargira zeramatela; eta ez dugu Cyrano aipatuko, espainiar horren bila joan zena, alegia³⁴⁸. Gizaki argitsu batzuek, hurrengo bizitzaren koadro maitagarria eskaini nahian, arima zoriontsuak munduz mundu paseatzen darabiltzate; eta jeinuei eskain dakizkiekeen ihardunbide atseginen zati bat aurkitzen du hor gure irudimenak. Zinez saiatu beharko dugu, bai, aurkitu nahi bada, gu eta jeinu horien bitartean aldea handiegia baita batetik, eta ugari ere ugari jeinuak bestetik. Eta Descartes jaunak agindu zizkigun betaurreko haiek eskuratzen ez ditugun bitartean, ilargiaren esferan gure etxeak baino handiagoak ez diren atalak bereizteko moduko betaurrekoak, ezin zehaztuko dugu guretik kanpoko inongo planetan zer dagoen. Gure gorputzeko barne atalei buruzko aieruak baliagarriagoak izanen ditugu eta egiazkoagoak. Sarritan aieru hutsa gaudituko dugula espero dut, eta oraintxe bertan ere uste dut aipatu berri duzun suaren atalen igurtzi bortitza ez dugula gauza probable soiltzat hartu behar. Ikus daitekeen unibertsoaren atalen egiturari buruz Descartes hipotesia, zoritxarrez, ez dute apenas berretsi geroztik egin diren ikerkuntzek eta aurkikuntzek, eta tamalgarria da, halaber, Descartes berrogeita hamar urte geroago ez bizi izana, gaurko ezagutzei buruz bere garaikoez bezain hipotesi argitsuak eman ahal izateko. Espezieen mailakako loturaz lehen ere mintzatu gara zerbait aurreko solasaldi batean, eta bertan adierazi nizun filosofoek arrazoitu zutela jada formatako edo espezieetako hutsuneaz. Izadian oro doa mailaz maila, deus ez jauzika, eta aldakuntzeekiko arau hau nire jarraipen-legearen atal bat da. Baina, izadiaren edertasunak pertzepzio bereiziak nahi ditu eta jauzien antzekoak eskatzen ditu, eta, nolabait esateko, musika-kadentzien gainbeherak fenomenoetan; horregatik, espezieak nahasten aurkitzen du atsegin. Hartaz, beste munduren batean gizakia eta piztiaren arteko espezie batzuk egon litezkeen arren (hitz hauei ematen diegun adieraren arabera) eta itxuraz gaintitzen gaituzten animalia arrazoidun batzuk nonbait egon arren, gugandik haiek urruntzea nahi izan du naturak, planeta honetan gure nagusitasuna ezbairik gabekoa ager dadin. Tarteko espezieez ari naiz eta ez nuke nahi piztien antzeko giza norbanakoetara mugatu, zeren itxuraz horrek ez baitu gaitasunik eza esan nahi, gaitasun hori erabiltzeko eragozpena baizik; beraz, nire ustetan, gizakirik

ergelena (naturaren aurkako egoeran gaixotasunaren poderioz ez bada, edota gaixotasunagatiko akats iraunkorren batez) askozaz arrazoitsuagoa da eta sotilagoa, piztia orotan izpiritualena baino, inoiz kontrakoa esaten bada ere joko jeinutsu gisan. Gainerakoan, biziki bultzatzen dut analogien ikerketa: landareek, intsektuek eta animalien anatomia konparatiboak gero eta oparoago hornituko dizkigute hauek, batez ere mikroskopioaz orain arte baino gehiago balia gaitezenean. Eta gai orokorragoetan ikusiko da noranahi hedatzen diren monadei buruzko nire irizpideak haien iraupen amaigabekoaz, arimadun animaliaaren kontserbazioaz, egoera zehatz batean eskas berezitateko pertzepzioez, hala nola, animalia sinpleen heriotzan, jeinuei zentzu osoz atxiki dakizkien gorputzez, arimen eta gorputzen harmoniaz, nork bere legeak perfekzioz errespetatzera garamatzan harmoniaz, inoren trabarik gabe eta gurazkoa eta nahi gabekoa bereizi beharrekoak izan gabe; ikusiko da, diot, irizpide hauek guztiak erabat ados datozela erreparatzen ditugun gauzen analogiarekin, eta gure behaketez haraindi hedatzen ditut nik gauza horiek, materiaren esparru batzuetara edo ekintza mota batzuetara mugatu gabe, eta ikusiko da, orobat, ezberdintasun bat baino ez dagoela, hots, handitik txikira eta sentigarritik sentiezinera.

(§ 13) FILALETES: Kasu batean, halere, esperientziak ezagutzera ematen dizkigun gauza naturalen analogiari amore gutxiago ematen diogu hortik urruntzen den egintza bitxi baten kontrako testigantzari baino. Izan ere, naturaz gairik gertakizunak bat datozenean izadiaren norabidea aldatzeko ahalmena duenaren helburuekin, haiek sinesteari uko egiteko arrazoirik ez daukagu ongi finkatuak direnean; mirakuluekin gertatzen da hori, hauen sinestea euren baitan aurkitu ezezik, halako egiaztapenaren premia duten beste egietara ere zabaltzen baita. (§ 14) Bada, azkenik, beste edozein baiespen motaren gain dagoen testigantza bat, eta hau errebelazioa da, hots, Jainkoaren testigantza, ezin engaina dezakeena eta ezin daitekeena engaina; guk horri ematen diogun baieztatzeko fedea deritzo, eta honek zalantza guztiak baztertzen ditu, ezagutzarik ziurrenak bezain osoki. Kontua da, ordea, errebelazioa Jainkoarena ote den ziurtatzea eta guk haren benetako esanahia ulertzen ote dugun jakitea; hala ez bada, fanatismoaren eta interpretazio okerrarengatiko errakuntzen arriskuan aurkitzen gara. Eta errebelazioaren existentzia eta esanahia probableak baino ez direnean, baieztapenean ezingo dugu frogetan baino probabilitate handiagorik aurkitu. Luzeago mintzatuko gara horretaz.

TEOFILO: Teologoek oso ongi bereizten dituzte sinesgarritasunaren zioak (hala deitzen diete), haietatik sortarazi behar diren eta zio horiek baino probabilitate gehiagorik ezin eduki dezakeen baiespen naturalarekin, eta naturaz gairik baiespena, jainkozko graziaren ondorio dena. Fedearen azterketari buruz liburuak idatzi dituzte, euren artean ados jartzen ez badira ere, baina horretaz jarraian ihardungo dugu eta dagokionean esan beharrekoaren berri ez dut orain eman nahi.

XVII

Arrazoimena

(§ 1) FILALETES: Fedez zehazki mintzo aurretik, arrazoiak arituko gara. Batzuetan printzipio argi eta egiazkoak adierazten ditu, beste batzuetan printzipio horietatik ateratako ondorioak, eta noizbehinka kausa, eta bereziki kausa xedezkoa. Hemen gaitasun gisa kontsideratzen dugu, gizakia piztiatik bereizten bide duen gaitasuna, honetan, bistako denez, nabarmen gairitzen baitu gizakiak piztia. (§ 2) Arrazoimenaren premia daukagu, nola gure ezagutza hedatzeko, hala gure irizpidea arautzeko, eta ongi begiratzeko gero, bi gaitasun biltzen ditu, bata erdiko ideiak aurkitzeko zolitasuna, eta ondorioak ateratzeko edota erakartzeko gaitasuna bestea. (§ 3) Lau maila hauek bereiz ditzakegu arrazoimenean: 1) Frogak aurkitu. 2) Euren lotura ikusteko

moduko ordenean sailkatu. 3) Dedukzioaren atal bakoitzean loturaz jabetu. 4) Ondorioa atera. Frogapen matematikoetan errepara ditzakegu maila hauek.

TEOFILO: Arrazoia egia ezaguna da, zeinaren loturak hain ezaguna ez zaigun beste egia batekin, azken honi gure baiespena ematera eramaten gaituen. Baina bereziki eta batez ere, arrazoia deritzogu gure iritziaren kausa ezezik, egia berarena ere badenean; honi a priori arrazoia ere esaten zaio, eta gauzetan kausa dena egiatan arrazoia da. Horregatik arrazoi deritzo sarritan kausari, batik bat xedezko kausari. Eta azkenik, egien arteko lotura honetaz ohartzen den gaitasunari, edo arrazoitzeko gaitasunari, arrazoimena deritzogu eta honetaz ihardungo dugu hemen. Gaitasun hau, egiaz, hemen behean gizakiari dagokio soilik eta ez da gainontzeko animalietan agertzen; lehen ere erakutsi dut piztietan somatzen den arrazoi-geriza hori iraganekoaren antzeko gertakizun baten esperantza baino ez dela, arrazoia bera den jakin gabe. Gizakiek ere ez dute besterik egiten enpirikoak izatera mugatzen direnean. Baina egien arteko loturak antzematen dituztenean, berez egia beharrezko eta unibertsalak osatzen dituzten loturak alegia, piztien gainetik gailentzen dira. Lotura hauek ezinbestekoak dira iritzi bakarria sortarazten ez badute ere, ikerketa zehatzen ondoren probabilitatearen gailentasuna froga daitekeenean, jakingarri den heinean; frogapena dago, beraz, orduan, ez gauzaren egiarena, zuhurtasunaren aholkuz hartu beharreko erabakiarena baizik. Arrazoimen gaitasuna bananduz gero, bi atal agertzen zaizkigu nire ustez, eta nahiko zabalduta dagoen pentsamoldearen arabera, asmamena eta juzgamena bereizten dira. Frogapen matematikoetatik hartu dituzun lau mailei buruz, lehena, hau da, frogak aurkitzea, orokorrean eta gure desiren aurka oso gutxitan agertzen dela uste dut. Sintesiak izan ohi dira, batzuetan analisirik gabe eta bestetan analisisa baztertu ondoren aurkituak. Geometrialariek lehenik frogatu beharreko proposizioa aipatzen dizute, eta frogapenera hurbildu aurretik emandakoa irudi batez erakusten dute. Ektesia deritzo honi³⁴⁹. Ondoren, prestakuntzari ekiten diote eta arrazoinamendurako behar izango dituzten lerro berriak marrazten dituzte; prestakuntza aurkitzean datza sarritan arte gorena. Hau egin eta gero, arrazoinamendua bera osatzen dute, ektesian emandakoari eta prestakuntzak gehitutakoari ondorioak atereaz; eta egia ezagunak edo frogatuak horretarako erabiliz, ondorioa iristen dira. Batzuetan, halere, ektesia eta prestakuntza alde batera uzten dituzte.

(§ 4) FILALETES: Uste izaten da, oro har, silogismoa dela arrazoimenaren tresna nagusia eta gaitasun hau erabilgarri egiten duen bitartekorik egokiena. Neure zalantzak ditut nik, frogan arteko lotura adibide soil batean ikusteko baino ez baitu silogismoak balio; adibide horretatik kanpo deus ez; izpirituak hori gabe ere aise erreparatzen dio loturari, eta agian hobeto. Irudiak eta moduak nola erabili dakitenek silogismoaren erabilera suposatutzat ematen dute maisuengan duten euren baitango fedearen poderioz, horretara daramatzan arrazoia ulertzen ez badute ere. Silogismoa ezinbestekoa bada, inork ere ezin zuen ezer ezagutu arrazoimen bidez, hura asmatua izan aurretik; eta esan beharko genuke, Jainkoak gizakia bi oindun kreatura egin ostean, Aristotelesen esku utzi zuela hura animalia arrazoidun bilakatzea; silogismoen oinarriak aztertzei gai den gizatalde horretaz ari naiz, jakina; eta oinarriotan hiru proposizioak osatzeko dauden hirurogeitik gora moduen artean hamalauren bat baino ez dira seguruak. Baina Jainkoak gizakienganako bihozberatasun askoz ere handiagoa erakutsi du eta arrazoitzeko gai den izpiritu eman die. Eta ez diot hau Aristoteles inondik ere apaldu nahian, niretzat antzinateko gizakirik handienetakoa baita bera, oso gutxi izan direlarik haren pareko izpirituaren hedaduran, sotiltasunean, zorrotzasunean eta juzgamenaren indarrean; eta argumentazioaren formen sistema txiki hau asmatu zuenetik egundoko zerbitzua eskaini die jakintsuei, oro ukatzeko lotsarik ez daukatenen kontra. Hala eta guztiz, forma horiek ez dira arrazoitzeko bide bakarria, ez eta onena ere; eta Aristotelesekin ez zituen aurkitu

formen beraien bidez, ideien arteko egokitzen nabarmenaren jatorrizko bidetik baizik; eta honi buruz frogapen matematikoen ordenamendu naturalari esker lortzen den ezagutzak hobea dirudi, inongo silogismoaren laguntzarik gabe. Eratortzea, proposizio bat egiazkotzat ateratzea da aurretik egiazkotzat planteatutako beste batetik, ararteko ideien loturaren bat suposatuz. Adibidez, gizakiak beste munduan zigortuak izan daitezenez eratorriko da euren hemen erabakiak har ditzaketela berez. Hona hemen lotura: gizakiak zigortuak izango dira eta Jainkoa da zigortzaile; beraz, zigorra bidezkoa da; beraz, zigortua errudun da; beraz, beste nolabait joka zezakeen; beraz, berez da libre; eta azkenik, berez erabakiak hartzeko ahalmena dauka. Bospasei silogismo lardaskatueta baino argiago ikusten da hemen lotura; ideiak tokiz aldatu, errepikatu eta forma artifizialean tartekatuko bailirateke silogismoetan. Erdiko ideia batek silogismoan zer nolako lotura duen muturrekoekin, hori da jakin beharrekoa: baina, hain zuzen ere, ez dago silogismoarik, hori erakutsiko digunik. Izpirituak, bai, hauteman ditzake itsaspen moduko batez horrela kokatutako ideia horiek, berezko atzematearen eraginez. Zertarako balio digu orduan silogismoak? Eskoletan erabiltzeko, inortxok ere ez baitu hori lotsarik nabarmenki egokitzen diren ideien arteko egokitzena ukatzeko. Horra zergatik gizakiek ez duten sekulan silogismoarik egiten beren baitan egia bila dabiltzanean, edota egia zintzoki ezagutu nahi dutenei erakusten dietenean. Ondoko ordenamendu hau:

gizakia - animalia - biziduna

hots, gizakia animalia da, eta animalia biziduna da; beraz, gizakia biziduna da, naturalagoa gertatzen da silogismo honena baino:

Animalia - biziduna. Gizakia - biziduna

Gizakia - animalia

hots, animalia biziduna da, gizakia animalia da; beraz, gizakia biziduna da. Egia da silogismoez baliu gaitzkeela erretorikaz jantzitako apaizaren distirapean ezkatzen den faltsutasuna agirian ipintzeko, eta inoiz pentsatu ere pentsatu izan dut ezinbestekoa zela silogismoa, diskurtso loratuz mozorrotutako sofismen aurrean erne egoteko; baina, ikerketa sakon baten ostean aurkitu dut aski dela ondorioa daramaten ideiak alferrikakoetatik bereiztea eta haiek ordenamendu naturalaren arabera sailkatzea inkoherentzia nabarmen uzteko. Gizon bat ezagutu dut silogismoaren araurik batere ezagutzen ez zuena, baina lehen hitzetik ohartzen zena diskurtso luze, artifiziosu eta txalogarri baten ahuleziak eta arrazoinamendu faltsuez, diskurtso horrek berorrek liluraturik utziko bazituen ere logikaren sakoneraz jantzitako beste hainbat pertsona; eta nire irakurleen artean gutxi izango dira horrelakoak ezagutzen ez dituztenak. Hori horrela ez balitz, euren koroari eta duintasunari dagozkien auzietan printzeak silogismoez baliatuko lirateke eztabaidarik garrantzitsuenetan, baina mundu guztiak ikusten du hori barreagarri. Asian, Afrikan eta Amerikan, europarren menpe ez dauden herrietan, inortxok ere ez du sekulan silogismoez tutik ere entzun. Eta azken finean, forma eskolastiko horiek ere errakuntza arriskuari atxikita daude; gutxitan isilaraziko duzu inor metodo eskolastiko honekin, are gutxiago komentzituko edo zeureganatuko. Gehienik ere aitortuko dizute lehiakidea abilagoa izan dela, baina euren auziaren justiziari eutsiko diote. Eta falaziatan oinarritutako arrazoinamenduak estali badaitezke silogismoetan, falazia horiek silogismoak ez diren baliabidez ipini behar dira agirian. Hala eta guztiz, silogismoak gaitzestearen alde ez nago, adimenari lagungarri izan dakioken edozein baliabide ukatzearen alde ere ez nagoen moduan. Begi batzuek beturrekoen premia izateagatik, beturrekodunek ez dute esan behar inork ere ezin duela ongi ikusi beturrekorik gabe. Natura gehiegi jaistea litzateke, zerbait zor dioten arte baten mesedetan, agian; baldin eta gertatu ez bazaie, beste askori bezala, beturrekoak gehiegi erabiltzearen edota beharrezana baino lehenagotik ikusmena

lausotu egin zaiela, halako moldez non ezin ikusi duten dagoeneko betaurrekoen laguntzarik gabe.

TEOFILO: Silogismoa gehiegi ez erabiltzearen aldeko zure arrazoinamendua ohar trinko eta ederrez josita dago. Silogismoen forma eskolastikoa munduan oso gutxi erabilia dela onartu behar da, eta seriozki erabili nahi izanez gero, luzeegia eta korapilatuegia gerta daitekeela. Halere, sinestezina badirudi ere, silogismoen formaren asmakizuna giza izpirituaren lorpenik ederrenetarikoa izan dela aitortzen dut, eta ezaugarrienetarikoa, halaber. Halako matematika unibertsal baten modukoa da, zeinaren garrantzia ez den aski ezaguna; esan daiteke hutsezintasunaren artea biltzen duela bere baitan, ongi erabiltzen jakin eta ahal izanez gero; hau ez da, ordea, beti zilegi. Jakin behar da, baina, argumentu formalak aipatzen ditudanean ez dudala nik ulertzen kolegioetan erabili ohi den argudio modu eskolastikoa, formaren eraginez ondorioztatzen den arrazoinamendu oro baizik, deus ordezkatzetik behar ez duena, halako moldez non sorite bat, errepikapena eragozten duen beste silogismo-sarea, edota zuzen egindako kontu bat, algebrak kalkulu edota infinitesimalen azterketa argumentu ia-ia formalak izango ditut, aurrez frogatua izan baita euren arrazoinamendu era; ziur gaude, beraz, horietan ez garela okertuko. Gutxi falta izaten da Euklidesen frogapenak gehienetan argumentu formalak izan ez daitezen; zeren, itxuraz entimemak egiten ari denean, alboko oharrek ordezkatzeko baita falta dela dirudien proposizio ezabatua, eta ohar horrek argitzen du non aurki daitekeen proposizio hura frogatuta; honela, indarrik kendu gabe, laburtu egiten da arrazoinamendua. Hark erabiltzen dituen arrazoiak alderantzaketa, konposaketa eta zatiketa hauek matematikariek lantzen duten gaiak argumentatzeko forma bereizi eta partikularrak baino ez dira; eta forma hauek logikaren forma unibertsalen laguntzaz frogatzen dituzte. Jakin beharrekoa da, gainera, ondorio asilogistiko zuzenak ere badirela, ezein silogismok frogatzen ezinezkoak, beronen terminoak nolabait aldatu gabe; eta termino aldaketak horrek, hain zuzen, eragiten du ondorio asilogistikoa. Adibideak asko dira; hala nola, besteak beste, *a recto ad obliquum*³⁵⁰: . Edota logikariek erlazio alderantzaketa deitutakoa, esate baterako, ondoko dedukzioa: . Eta dedukzio hauek frogatzen daitezke, halaber, euren menpe silogismo arruntak ere badituzten egien bidez. Silogismoak, bestalde, kategorikoak ezezik hipotetikoak ere badira, disjuntiboak ere barne hartzen direlarik. Esan daiteke, orobat, kategorikoak bakunak edota konposatuak direla. Kategoriko bakunak arrunki oharrekin ditugunak dira, hau da, figuren moduen arabera: eta nik aurkitu dut lau figuretako bakoitzak sei modu dituela, beraz, hogeitalau modu direla guztira. Lehen figuraren lau modu arruntak ondoko ikur hauen esanguraren ondorio baino ez dira: , , . Eta deus aipatu gabe ez uztearren, gehitzen ditudan beste biak proposizio unibertsalen azpitxandaketak baino ez dira. Bi modu arrunt hauetatik, alegia; dioena, eta beste hau: ; bi modu arrunt hauetatik ondoriozta daitezke beste bi modu gehigarri hauek: , eta beste hau: . Azpitxandaketa frogatzea eta honen ondorioak frogatzea ez baita beharrezkoa: eta ; hau frogatzerik badago, halere, identikoen bidez eta lehenengo figuratik hartutako modu batzuen bidez, honela: , edota: . Hartaz, lehenengo figuraren bi modu gehigarrikoak figura berorren lehen bi modu arrunt bidez frogatzen dira, azpitxandaketaren artekaritzaz, berau ere frogagarri delarik figura beraren gainontzeko bi moduen bidez. Eta antzeko moldez, bigarren figurak bi modu berri hartzen ditu. Horrela, lehenengoak eta bigarrenak sei dauzkate; hirugarrenak betidanik eduki ditu sei; laugarrenari bost ematen zitzaizkion, baina batuketa-printzipio beragatik sei dauzka honek ere. Jakin behar da, halere, forma logikoak ez gaituela arrunki erabili ohi den proposizio ordenamendu honetara behartzen, eta zurekin bat nator, jauna, beste antolamendu hau egokiagoa dela diozunean: , eta silogismo horien sarea diren soriteen kasuan balio digu honek bereziki. Izan ere, beste hau ere esango balitz, alegia: , aurreko biak elkartuz, errepikatu barik

esan zitekeen: . Hemen alferrikako proposizioa, dioena, ez dugu aipatu; beraz, bi silogismoek ezinbestekoa zuten proposizio horren alferrikako errepikapena baztertu egin dugu; hemendik aurrera proposizio hau alferrikakoa izango da eta loturak argumentazio betegina eta egokia osatu du bere forman proposizio hau gabe ere, elkartzearen indarra behin-betiko silogismo bi horien bidez frogatu denean. Lotura mota osatuagoak asko dira, beraietan silogismo bakunen kopuru handiak parte hartzen dutelako ezezik, silogismo osagarriak ezberdinagoak direlako ere elkarren artean, zeren sartaraz baititzakegu kategoriko bakunez gain kopulatiboak ere, eta kategorikoak ezezik, hipotetikoak ere; eta silogismo osoak soilik barik, entimemak ere bai, non nabariak diruditen proposizioak kendu egiten diren. Eta horrek guztiak, ondorio asilogistikoekin eta proposizioen transposizioekin lotuta, bai eta proposizioak estaltzen dituzten zeharbide eta pentsamendu ugarirekin, izpirituak laburtzera jotzen baitu berez eta partikulen erabileran zati batean agertzen diren hizkuntzaren ezaugarriengatik, horrek guztiak, diot, arrazoinamendu sare bat osotuko du, edozein argumentazio irudikatuko duena, bai eta hizlariarena ere, baina bere gordinean eta apaingarririk gabe eta forma logikora murriztua, ez eskolastikoki, baina betiere haren eragina ezagutzeko moduan, idatziz antolatutako logikaren arauen, hots zentzutasunaren, arabera; eta idatzi aurretik herrialde baten ohiturak idatzi ostera egiten duen aldea baino ezberdintasun handiagorik ez dute egingo. Ezberdintasuna izan daiteke idatzita ikuspegi batez errepara daitekeela, eta horrela, argi gehiago eskaintzen duela bultzatzeko eta erabiltzeko orduan; zeren edozein arrazoinamendu artearen laguntzarik gabe aztertzean, berezko zentzunak ondorioak indartzen saiatu beharko baitu batzuetan, adibidez, moduren bat estaltzen dutenean, zinez ona baina gutxi erabilia dena. Eta lotura horiek inork ere ez erabiltzea nahi lukeen logikaria, edota erabili nahi ez dituen, argumentazio konplexu oro, besterik ezinean, silogismo bakunetara murriztu beharrekoak direlakoan, nik esandakoaren arabera, zerbait erostean saltzailea zenbakiak banan-banan zenbatzera behartuko lukeen gizonaren antzekoa litzateke logikari hau, hatzamarrez egiten den moduan, edota herriko erlojuaren orduak zenbatzen diren bezala; bere tentelkeriaren ezaugarri izango litzateke hau, bestela zenbatzeko gauza izango ez balitz eta atzamar puntuez soilik iritsi ahal izango balitz 5 eta 3 8 dela jakitera; edota kapritxo bat ere izan zitekeen, laburpen horiek jakin eta beraietaz inor baliatzerik nahi izango ez balu. Frogatuak izan diren axiomak eta teoremak erabiltzerik nahi ez duen gizona modukoa ere izango litzateke, arrazoinamendu oro lehen printzipioetara bildu behar direlakoan beti, horietan ikusten baita ideien arartegabeko lotura, bitarteko teorema hauek, izatez, ideia horien menpe daudelarik.

Forma logikoen erabilera, nire ustez, egokia azaldu ondoren, berriro ere zure gogarpenetara itzuliko naiz. Ez dakit nolatan onar dezakezun, jauna, silogismoak frogen lotura ikusteko adibide bakar batean balio izatea. Ez da, ordea, gertatzen izpirituak aise erreparatzea beti ondorioak, ikusten baitira batzuetan adibideak (inoren arrazoinamendutan bederen), zeinetan lehenik zalantzak sortzen diren, haien frogapena ikusi arte. Adibideak erabili ohi dira ondorioak justifikatzeko, baina hau ez da beti erabat segurua, nahiz eta adibideak artez aukeratu, hauek ez bailirateke sekulan egiazkoak izango ondorioa egokia izango ez balitz. Ez nekien nik, ondo gobernatutako eskoletan zilegi zenik ideien egokitasun nabarmenak inongo lotsarik gabe ukatzea, eta ez dut uste horiek erakusteko silogismoa erabiltzen denik. Ez da hau, behintzat, haren erabilera bakarra eta nagusia. Uste baino sarriagotan aurkituko da (idazleen paralogismoak aztertzean) logikaren arauen kontra egin dutela bekatu, eta nik neronek ere espermentatu izan dut fede oneko pertsonekin eztabaidetan, idatziz ere batzuetan, ez garela elkar ulertzen hasi argudioen nahaspila askatzeko formalki argumentatzeari ekin diogun arte. Nabarmen geratuko litzateke, zalantzarik gabe, garrantzizko

ebazpenetan eskolastiko erara argudiatu nahi izatea, arrazonamolde honen gehiegikeria neketsu eta gogaikarriengatik eta hatzamarrez zenbatzea bezala delako. Zinez da bene-benetakoa, halere, erabakirik garrantzitsuenetan, bizitzarekin, Estatuarekin, osasunarekin zerikusia duten erabakietan, gizakiak gehiegi itsutzen dituztela agintearen pisuak, elokuentziaren distirak, oker erantsitako adibideek, deuseztatuaren ebidentzia desegokiro suposatzen duten entimemek eta dedukzio makurrek; behar-beharrezkoa lukete, beraz, logika zorrotza, eskolakoa ez den beste logika mota bat ordea, ziurtasun itxura gehienak zein alderditan dauden zehazteko, besteak beste. Horrez gain, gizaki arruntak logika artifiziala ezagutu ez arren ongi arrazoitu ahal izatea, batzuetan logikan adituak baino zuzenago ere, ez du haren ezgaitasuna frogatzen; aritmetika artifizialaren ezintasuna frogatuta geratuko ez litzatekeen moduan, pertsona batzuek egoera arruntetan ongi zenbatzen jakiteagatik, irakurtzen eta idazten jakin gabe eta luma eta abakuaren txotxa erabiltzen ikasi gabe, kalkuluak egiten ikasi duen norbaiten akatsak zuzentzeko bezain ongi, baina ikurrekin eta marrekin zabartu eta nahastu, halere. Egia da silogismoak eurak ere sofistikoak bilaka daitezkeela, baina euren arauetaz ezagutarazi ahal izango ditugu betiere; eta silogismoek ez digute beti iritziz aldarazten, ez eta sinestarazten, baina hala gertatzen da oker ulertutako terminoen eta bereizkuntzen gehiegikeriak luzeegia egiten duelako haren erabilera, jasanezina bihurtu arte azken muturreraino eramanez nahi duenarentzat.

Zure argudioa hausnartu eta osatzea besterik ez zait geratzen, arrazoinamendu argiaren eredu gisan aurkeztu zenuena, alegia, logikarien ikuspegi formalik gabe: Jainkoak gizakia zigortzen du (ustezko getakaria), Jainkoak zigortzen duena zuzen zigortzen du (frogatutzat har daitekeen arrazoizko egia da), beraz, Jainkoak zuzen zigortzen du gizakia (ondorio silogistikoa da, asilogistikoki hedatua a recto ad obliquum), beraz, gizakia zuzen zigortua da (bere nabaritasunagatik ezabatzen den erlazio-inbertsioa da), beraz, gizakia errudun da (entimema da, zeinetan ezabatu dugun definizioa baino ez den proposizio hau: zuzen zigortua errudun da), beraz, gizakiak beste nolabait joka zezakeen (proposizio hau ezabatzen da: errudunak beste nolabait jokatzeko aukera izan du), beraz, gizakia libre izan da (oraingoan hau ezabatu dugu : beste nolabait jokatzeko aukera izan duena libre izan da), beraz, (libre hitzaren definizioz) determinatzeko ahalmena izan du. Eta hauxe zen, hain zuzen, frogatu behar genuena. Bertan erreparatzen dut beraz horrek bere baitan daramala proposizio azpiulertua (libreak determinatzeko ahalmena duela dioena, alegia) eta terminoak errepika ez daitezen balio du. Zentzu horretan deus ez da aipatu gabe utzi, eta argudioa erabatekotzat har daiteke. Argi dago arrazoinamendu hori logikarekin guztiz bat datorren silogismo-sarea dela; oraingoz ez dut aztertu nahi arrazoinamendu horren gaia, agian zenbait ohar egin beharko genizkiokeelako edota zenbait zehaztasun eskatu. Adibidez, norbaitek ezin duenean beste nolabait jokatu, kasu batzuetan norbait hori errudun izan daiteke Jainkoaren aurrean, hala nola, lagun urkoa lagundu ezinaz poztuko balitz, horretarako aitzakia duela eta. Eta aitortzen dut, ondorio gisan, argudiatzeko era eskolastikoa ezerosoa izan ohi dela, eskasa eta gaizki moldatua, baina aldi berean esan behar dut formalki eta egiazko logikaz argudiatzeko artea baino garrantzitsuagorik ez dagoela deus, hau da, gaiari dagokionez bete-betean eta ondorioen ordenamendu eta indarrari dagokionez argitsu, hauek berez direnean nabariak edota aurrez frogatuak.

(§ 5) **FILALETES**: Silogismoak probabilitateetan erabilgarritasun eskasagoa edota agian erabilgarritasunik batere ez zuela uste nuen nik, argumentu topiko bakarra garatzen duelako. Baina orain ikusten dut sendo frogatuta utzi behar dela argumentu topikoan bertan seguru zer dagoen, hots bertan aurkitzen den itxura, eta ondorioaren eragina forman datzala dakusat, halaber. (§ 6) Hala eta guztiz, silogismoek ebazteko balio badute, asmatzeko ere balioko ote duten zalantzak ditut, hau da, frogak aurkitzeko eta

deskubrimendu berriak egiteko. Esate baterako, ez dut uste Euklidesen lehen liburuko 47. proposizioaren aurkikuntza logika arruntaren arauari esker izan zenik, aurrez ezaguna baita eta jarraian gai izaten gara forma silogistikoz hura frogatzeko.

TEOFILO: Silogismoen esparruan sartzen baditugu silogismo-sareak eta nik argumentazio formala deritzodan guztia, esan daiteke berez nabaria ez den ezagutza dedukzioen bidez lortzen dela eta hauek dagozkien formak dauzkatenean soilik direla baliagarriak. Lehen aipatutako proposizioan, alegia, hipotenusaren karratua bi aldean karratuen berdina dela dioenean, karratu handia zatitan ebakitzen da eta bi txikiak ere, eta gertatzen da bi karratu txikien zatiak denak aurki daitezkeela handian, ez gehiago ez gutxiago. Berdintasuna formalki frogatzea da hau, eta formalki egiaztatutako argumentuen bidez frogatzen dira zatien arteko berdintasunak ere. Antzinakoen analisia, Pappusek dioenez³⁵¹, honetan zetzan, alegia, frogatu nahi dena hartu eta hortik ondorioak atera ezarria edo ezaguna den zerbaitetara iritsi arte. Hori gerta dadin proposizioak elkarrekikoak izan behar dutela azaldu dut, frogapen sintetikoaren analisiaren aztarnei jarraiki alderantzizko bidetik egin ahal izateko, baina hori ondorioak ateratzea izango da beti. Hemen esan beharko da, halere, hipotesi astronomikoetan eta fisikoetan ez dagoela itzulbiderik; baina arrakastak berak ere ez du hipotesiaren egia frogatzen. Probable egiten du, bai, baina probabilitate hau logikaren arauarekin bat ez bide datorrenez, logikak irakasten baitu faltsutik egiazkoa ondoriozta daitekeela, beraz, arau logikoak ez direla arazo probabletan osoki beteko esan daiteke. Nire erantzuna da ahal dela faltsutik egiazkoa ondorioztatzea, ez, ordea, beti probablea, batik bat hipotesi soil batek egia askoren arrazoiak eskaintzen duenean, baina hau ezohikoa da eta oso gutxitan gertatzen da. Cardanorekin³⁵² baieztatu dezakegu probableen logikak beharrezko egien logikaren ondorio ezberdinak dituela. Baina ondorio hauen probabilitatea bera frogatu behar da beharrezkoen logikaren ondorioen bidez.

(§ 7) FILALETES: Logika arruntaren apologia egiten ari zarela dirudien arren, argi ikusten dut zure ekarpena logika sublimeago batetik datorrela, zeinarentzat logika arrunta erudizioarentzat abezeko lehen urratsak bezalatsu baitira; gogora dakarkit honek Hooker³⁵³ zuhurraren pasarte bat, bere -n (I. liburua, § 6) uste baitu idazle honek, jakituriaren eta arrazoitzeko artearen egiazko laguntzak ezarriko bagenu, hauetaz gutxi jakin eta apenas arduratzen garelarik argitsutzat daukagun mende honetan, juzgamenaren irmotasunari dagokionean honetaz baliatuko liratekeen gizakien eta gaurko gizakien artean ezberdintasuna hain handia litzateke, nola den gaur egungo gizakien eta ergelen artean dagoen aldea. Pozgarri litzateke, gure solasaldiak izpiritu zorrotzeko gizon ospetsu horrek aipatzen dituen artearen egiazko laguntza horiek aurkitzeko parada eskainiko balio norbaiti. Ez dira haren imitatzaile hutsak izango, abereak bezala betiko bideari lotzen zaizkionak (imitatorum servum pecus)³⁵⁴. Esango nuke, hala eta guztiz, gure mende honetan badirela pertsonak hain juzgamen indartsukoak eta izpiritu hain zabalekoak non ezagutzaren aurrerapenerako bide berriak urra ditzaketen, nik azaldutakorantz itzuli nahi izango balituzte euren pentsamenduak.

TEOFILO: Oso ongi zehaztu duzu, jauna, Hooker jaun defuntuarekin, jendea oso gutxi saiatzen dela horretan; hala ez balitz, badira eta izan dira, nire ustez, hori lortzeko gai direnak. Aitortu behar dugu, halere, baliabide handiak dauzkagula orain, bai matematikaren arloan, bai filosofiaren, eta hauen artean zure adiskide prestuaren Giza adimenari buruzko Entseiuarenak ez dira apalenak. Ea bada, horiei guztiei onura ateratzeko modurik aurkitzen dugun.

(§ 8) FILALETES: Beste hau ere esan behar dizut, jauna: silogismoaren arauetan oker nabarmen bat zegoela uste nuen, baina elkarrekin mintzo izan garenetik, horren kezka

sortarazi didazu. Dena den, nire kezka azalduko dizut. Esan ohi da ezein arrazoinamendu silogistiko ezin izan daitekeela behin-betiko, ez badauka berarekin gutxienik proposizio unibertsal bat. Baina badirudi gauza partikularrak bakarrik direla gure arrazoinamenduen eta gure ezagutzen arartegabeko objektu; eta hauek ideien egokitasunari edo desegokitasunari soilik dagozkio, hauetariko bakoitzak existentzia partikular bat baino ez duelarik, eta gauza bakan bat baino irudikatzen ez duelarik.

TEOFILO: Gauzen antzekotasuna ulertzen duzun heinean, areagoko zerbait ere ulertzen duzu, eta horretan datza unibertsaltasuna. Ez duzu inoiz gure argumenturik proposatuko, horretarako egia unibertsalak erabili gabe. Ongi dago, halere, ohartzea proposizio singularrak (formari dagokionean) unibertsalen pean daudela. Izan ere, egia den arren San Pedro Apostolu bat baino ez dagoela, esan daiteke, edozein izanda ere, San Pedro Apostoluak ukatu egin zuela maisua. Hartaz, silogismo honetan, , proposizio singularrak baino ez dauden arren, proposizio horiek baieztatu unibertsalak direla uste da, beraz, hirugarren figurako darapti modua izanen da.

FILALETES: Orobat, esan nahi nizun silogismoen premisak aldatu eta ondokoa esatea: hobeto ikusten dudala, beste hau baino: . Baina zuk esandakoagatik, badirudi ez dagoela alderik eta bata zein bestea, bi moduak, bat beratzat hartzen direla. Beti da egia, eta hala adierazi duzu, antolamendu ez-arrunta dela egokiena silogismo ezberdinak elkarri lotzeko.

TEOFILO: Erabat ados nago zurekin. Baina uste izan da, antza, didaktikoagoa zela proposizio unibertsalekin hastea, nagusiak direlarik hauek lehen eta bigarren figuretan; eta badira oraindik ere ohitura horri darraioten hizlariak. Zuk aurkeztutakoan, ordea, argiago agertzen da lotura. Inoiz azaldu izan dut Aristotelesek arrazoi bereziren bat izan zezakeela, agian, antolamendu arrunterako; berak, izan ere, esan beharrean, esan ohi baitu. Honela enuntziatuta, zuk eskatzen duzun lotura bera aurkeztuko zaio jasotako antolamenduan. Ondoko hau barik, , honela enuntziatuko baitu berak: . Adibidez, Aristotelesek ez dizu esango: ; horren ordeztu, proposizioak lekuz aldatu gabe, erdigunea erdiko terminoarentzat mantenduko du, terminoak alderantzitu, eta proposizioak honela enuntziatuko dizkizu Aristotelesek: . Eta enuntzia-molde hau ez da gutxiestekoa, zeren predikatua subjektuan baitago edota predikatuaren ideia subjektuaren ideiak biltzen baitu bere baitan. Esaterako, isogonoa lauki zuzenean dago, lauki zuzenaren angelu guztiak zuzenak eta berdina direlako, beraz, lauki zuzenaren ideien baitan angelu guztiak berdina dituen irudiaren ideia dago, eta haxe da, hain zuzen ere, isogonoaren ideia. Enuntzia-molde arruntak banakoak begiratzen ditu, Aristotelesena, aldiz, ideiei edo unibertsalei erreparatzen die. diodanean, esan nahi dut gizakiak oro animalia ororen esparruan sartzen direla; eta aldi berean ulertzen dut, animalien ideia gizakiaren ideien barne dagoela. Animaliak gizakiak baino banako gehiago biltzen ditu, baina gizakiak ideia edo formaltasun gehiago darama barne; bata adibide gehiago ditu, besteak errealitate maila gehiago; bata hedadura zabalagoa, besteak intentsitate sakonagoa. Esan daiteke, halaber, teoria silogistiko osoa frogatu daitekeela de continente et contento, edukitzaile eta edukiaren teoria bidez, alegia; eta honek ez dauka zerikusirik osoa eta osagarriaren teoriarekin, osoak beti gainditzen baitu osagarria, eta edukitzailea eta edukia batzuetan berdina dira, hala nola, elkarrekiko proposizioetan.

(§ 9) FILALETES: Logikari buruz orain arte izan dudana ideia aldatzen hasi naiz erabat. Ikasleen jolastzat hartzen nuen, baina, orain, zuk ulertzen duzun moduan, matematika unibertsal baten antzekoa badagoela ikusten dut. Ai Jainkoak orain artekoa baino areago izatera eramango balu! Horrela aurkituko genitu bertan Hookerrekin aipatzen zituen arrazoiaren benetako laguntzaile horiek, gizakiak oraingo egoeratik askoz gorago eramango lituzkeen laguntzak. Arrazoimenak haren premia dauka, hedadura nahiko mugatuko eta sarritan gutxiegi gaitasuna delako. Hala gertatzen da 1) sarritan ideiarik aski ez

dugulako (§ 10), eta 2) ideiak sarritan ilunak eta imperfektuak direlako: hauek argiak (eta bereiziak) direnean, hala nola zenbakietan, ez dugu zailtasun gaindiezinik aurkitzen eta ez gara inongo kontraesanetan jausten. (§ 11) 3) Batzuetan, ararteko ideiarik ezak sortarazten dizkigu eragozpenak. Gauza jakina da giza trebeziaren froga argitsu den algebra delako lanabes handi hori aurkitu aurretik, gizakiek txunditurik ikusten zituztela matematikari zaharren hainbat frogapen. (§ 12) Gertatu ohi da, halaber, 4) printzipio faltsuen gainean eraikitzen dela, eta honek zailtasunak erakar ditzake, arrazoimena argitu beharrean, areago nahasi baino egiten ez duten zailtasunak, alegia. (§ 13) Eta azkenik, 5) zalantzazko esanahia duten hitzak arrazoimenarentzat traba dira.

TEOFILO: Ez dakit nik uste den bezainbateko ideien premia dugun, ideia bereiziez ari naiz. Ideia nahasiei edo irudiei edo, nahiago baduzu, inpresioei dagokienez, hala nola, koloreak, gustuak, etab., berez zenbait ideia labur eta bereizien emaitza direnak, bereiziki hautematen ez baditugu ere, hauen amaigabeko kopurua falta zaigu, guri baino egokiago doazkielako beste zenbait kreaturari. Inpresio hauek guri senak emateko dira eta esperientziazko behaketak oinarritzeko, arrazoimenari gaia hornitzeko baino gehiago, salbu eta pertzepzio bereiziz datozenean. Ideia nahasietan ezkututzen diren ideia bereiziei buruzko gure ezagutzarik ezak geldiarazten gaitu gu gehienbat, eta oro gure sentimenen eta gure izpirituaren aurrean zehazki agertzen denean, kontuan hartu beharreko hainbat gauzak nahastu egiten gaitu batzuetan. Esate baterako, begien bistan mila bala ditugularik, ongi zehaztu nahi izanez gero multzo horren kopurua eta berezitasunak, argi dago irudika sailkatzea legokigukeela, dendetan egin ohi den modura, haien ideia bereiziak osatzeko eta behin eta berriro haiek zenbatu beharrik izan ez dezagun, egokiro finkatzeko. Hainbat gogapenen eraginez, orobat, zailtasunak handiak dira zenbakien zientzian, laburtzapenen bila gabiltzalako, batzuetan jakin gabe, ea naturak bere misterioetan ba ote duen laburbiderik kasu zehatz horietarako. Ba al dago, esaterako, ezer itxuraz sinpleagorik zenbaki lehena delakoa baino, hots, ezain beste zenbakik, salbu unitateak edota zenbakiak berak, zati ezin dezakeen zenbaki osoa? Hala eta guztiz, hauek ziurtasunez bereizteko ez daukagu oraindik ezaugarri positibo eta errazik; zenbaki lehen horren erro karratua baino txikiagoak diren zatitzaile lehen guztiekin aproba egin beharra daukagu. Asko dira ezaugarriak, kalkulu handirik gabe, zenbaki bat lehena ez dela jakiteko, baina zenbakia lehena denean, hala dela ziur jakinaraziko ligukeen bide erraz baten bila gabiltza. Horregatik da algebra, oraindik ere, imperfektua, berak erabiltzen dituen ideiak baino gauza ezagunagorik ez dagoen arren, oro har, zenbakiak baino ez baitute adierazten; jendeak ez dauka laugarren mailaz goragoko ezain ekuazioen erro irrazionalak ateratzeko modurik (kasu oso berezi batean izan ezik), eta Diofantok, Eszipion Ferreok eta Ferrarako Luisek³⁵⁵ erabili dituzten metodoak bigarren, hirugarren eta laugarren mailako ekuazioak lehenengo mailara laburtzeko, edota ekuazio afektatua purura laburtzeko, denak dira elkarren metodo ezberdinak, hau da, maila baterako balio duena maila batez bereizten da bestearentzat balio duenetik. Hartaz, bigarren maila, edo ekuazio karratua, lehen mailara laburtzeko aski da bigarren gaia ezabatzea. Hirugarren maila, edo ekuazio kubikoa, ebatzi da ezezaguna zatikatuz, bigarren mailako ekuazio bilakatzen delako, zorionez. Eta laugarren mailan, edo ekuazio birkarratuetan, ekuazioaren bi osagaiei eransten zaie zerbait batetik zein bestetik ebazgarri gerta dadin, eta honetarako ere, zorionez, ekuazio kubikoaren premia dugu soilik. Baina, hau guztia zoria edo azarea artearekin edo metodoarekin konbinatzea baino ez da. Eta azken bi mailotan saiaturaz gero, ez dakigu arrakastarik izango ote lukeen. Era berean, beste artezi motaren bat behar dugu, bosgarren eta seigarren mailako ekuazio supersolido eta birkubikoetan arrakasta izateko. Eta Descartesek pentsatu izan badu ere berak laugarren mailako ekuazioan erabilitako metodoak beste bi ekuazio karratuen emaitza gisan hartzeak (metodo honek

ez du Ferrarako Luisenak baino areago lortzen) berdin joka lezakeela seigarren mailarekin, ez da hala gertatu³⁵⁶. Eragozpen honek adierazten digu ideiarik argienek eta bereizienek ez digutela beti eskaintzen guk nahi duguna eta haietatik atera zitekeen guztia. Eta honek pentsarazten digu algebra ez dela inondik ere asmatzeko artea, berak duelako, algebrak, arte orokorrako baten premia; eta esan daiteke, halaber, algebra espeziosoa oro har, hau da, ikurren artea laguntza miresgarria dela, irudimena arintzen duelako. Diofanoren aritmetika eta Apolonioaren eta Pappusen liburu geometrikoak ikusita, ez dago zalantzarik antzinakoak honelako emaitzetara iritsi zirela. Vietek hedadura zabalagoa eman dio, eskakizuna ezezik, emandako zenbakiak ere ikur orokorren bidez adieraztean, eta berak horrela kalkulatzean, Euklidesek arrazoitzean egiten zuen gauza bera egiten du, eta Descartesek kalkulu honen aplikazioa geometriara hedatu du, marrazki ekuazio bidez irudikatuz. Hala eta guztiz, gure algebra modernoaren aurkikuntza ostean, Bouillaud jaunak (Ismael Bullialdus)³⁵⁷, Parisen ezagutu dudana geometrilari bikainak, txunditurik jarraitzen zuen Arkimedesek espiralari buruz egindako frogapenez, eta ezin ulertu zuen nolatan bururatu zitzaion gizon ospetsu honi lerro horren ukitzalea erabiltzea zirkuluaren neurria erabakitzerakoan. Badirudi Aita Gregoire de Saint Vincent-ek³⁵⁸ igarri duela nolabait, bere ustez, espiralak parabolarekiko duen paralelismotik iritsi baitzen hona. Bide hau, ordea, partikularra baino ez da; infinitesimalen kalkulu berriak, aldiz, aldean bidetik datorrena, nik aurkitua eta jendaurrean arrakastaz azaldua³⁵⁹, bide orokorra damaigu, zeinetan espiralaren bidezko aurkikuntza hori jolas bat eta entseurik xumeenetariko bat baino ez den, lehendik kurben dimentsioei buruz aurkitutako ia guztia bezala. Kalkulu berri honen abantailaren arrazoiak ere hau da, alegia, Descartesek bere Geometriatik kendutako problemetan irudimena arintzen duela; horretarako aitzakia gisan erabili zuen Descartesek problema horiek gehienetan mekanikariarengana eramaten gintuztela, baina funtsean bere kalkulari egokitzen ez zitzaizkiolako egotzi zituen. Hitz ilunetatik datozkigun errakuntzetan, gure esku dago haiek saihestea.

FILALETES: Kasu batean ezin da arrazoiak erabili, ez eta honen beharrik ere, arrazoiak baino gehiago balio baitu ikusmenak kasu honetan. Ezagupide intuitiboan gertatzen da hau, ideien eta egien arteko lotura berehala ikusten delako. Horrelakoa da zalantzagabeko maximen ezagutza, eta halakoxea dela esango nuke aingeruek orain daukaten ebidentzia maila, eta perfekziora iritsi diren gizaki zuhurren izpirituek etorkizuneko egoeran edukiko dutena gaur egun gure adimena gaingitzen duten mila gauzei buruz. (§ 15) Baina, erdiko ideietan finkatutako frogak ezagupide arrazoitua eskaintzen digu, erdiko ideia eta muturrekoak halabeharrez lotzen direlako, eta horrela agertzen da ebidentziazko justaposizio bidez, oihalak neurri berdinekoak direla frogatzeko batari zein besteari ezartzen zaion kana bezalatsu. (§ 16) Lotura probablea baino ez denean, judizioak iritzia ematen du soilik.

TEOFILO: Jainkoak, eta ez beste inork, dauzka ezagupide intuitibo soilak. Arima zoriontsuek, gorputz trakets hauetatik oso aske egonagatik, eta jeinuek beraiek ere, goitiarrak izan arren, guk baino askoz ere ezagutza intuitiboagoa edukiko dute, eta guk denboraren eta nekearen poderioz ondorioen eraginez aurkitu duguna sarritan begiraldi batez idoroko dizute, baina haiek ere izango dituzte zailtasunak, zeren, hala ez balitz, ez bailukete aurkikuntzak egitearen atseginik sentituko, eta hauxe da, hain zuzen ere, plazerrik handienetakoa. Eta beti aitortu beharko da egia kopuru amaigabea ezkutatuko zaiela, betiko edo aldi batez, eta hauetara ondorio bidez eta froga bidez iritsi beharko dute, bai eta sarritan aieru bidez ere.

FILALETES: Beraz, jeinu horiek gu baino animalia perfektuagoak dira, ez besterik; ilargiko enperadorearekin, oro hemengo antzera dela esatea bezala³⁶⁰.

TEOFILO: Ez erabat, baina gauzen funtsean hala dela esango dut, perfekzioz ko moduak eta mailak infinituraino aldatzen baitira. Funtsa, ordea, beti da bat, eta hau niretzat oinarriko maxima da, nire filosofia osoan agintzen duena. Eta gauza ezezagunak edota era nahasian ezagunak bururatzen ditut bereiziki ezagunak bururatzen ditudan modu berean; horrela, eroso bihurtzen dut filosofia, eta hala erabili behar dela uste dut. Eta filosofia hau funtsean sinpleena bada, formetan aberatsena ere bada, naturak mugarik gabe eta asmaezineko eran ugal baititzake ordenak eta apaindurak, eta hala egin ohi du itxuragabeki. Horregatik, nire ustez, ez dago jeinurik, ez eta gorena izanda ere, bera baino gorago izaki kopuru infinitua ez duenik. Hala eta guztiz, hainbat izaki adimendudun baino apalagoak izanda ere, ezbairik gabe lehen lerroaz gozatzen dugun lur planeta honetan, itxuraz behintzat, ez gaude kontrolatuak; eta ezjakintasun sakonean murgilduak egon arren, gu gainditzen gaituen deus ez ikustearen plazerra daukagu beti. Eta harroputzak izanda, Zesarrek bezala pentsa genezake, nahiago baitzuen honek herrixka baten lehena izan, Erroman bigarren izan baino. Gainerakoan, izpiritu horien ezagutza naturalez ari natzaizu soilik hemen, ez irudipen beatifikoaz, ez eta Jainkoak eskain diezaizkiekeen naturaz gaindiko argitasunez.

(§ 19) FILALETES: Arrazoimena norberarentzat edota inori begira erabili ohi dugunez, lau argumentu mota hartuko ditugu hausnargai, hauek erabili ohi baititugu gizakiok besteak geure pentsakerara erakartzeko edota, gutxienik, kontraesatea eragotziko dien nolabaiteko errespetua sortarazteko haiengan. Lehen argumentuari argumentum ad verecundiam deituko diogu, jakituriagatik, gizarte-mailagatik, ahalmenagatik edo beste nolabait ospea lortu dutenen iritzia aipatzen denean; eta norbait berehala makurtzen ez bada haren irizpideetara, harroputza dela leporatuko zaio eta lotsagabekeriazko ausardia egotziko zaio. (§ 20) Bigarrenari argumentum ad ignorantiam deritzogu: lehiakideari froga onartzea exijitzen zaio, edota beste froga hobea ekartzea. (§ 21) Hirugarrena argumentum ad hominem da, berak esandakoaz estutu eta premiatzen dugunean lehiakidea. (§ 22) Eta azkenik, argumentum ad iudicium daukagu, hau da, ezagutzaren edo probabilitatearen jatorrietariko batetik ateratako frogak erabiltzea. Eta guztietatik hau da zerbait irakasten eta aurreratzen uzten digun bakarra; izan ere, errespetuz ausartzen ez banaiz kontraesatera, edota esateko ezer hoberik ez badut, edota neure buruarekiko kontraesanean jausten banaiz, horrek ez du esan nahi zuk duzula arrazoi. Xumea, ezjakina izan naiteke eta erratuta egon, baina zu zeu ere erratuta egon zaitezke.

TEOFILO: Zalantzarik gabe, bereizi behar ditugu esateko egoki dena eta sinesteko egia dena. Baina egirik gehienak ausarki defenda daitezkeenez, gordetzekoa den iritziaren aurka zenbait aurriritzi dago. Ad ignorantiam delako argumentua egokia da presuntzio kasuetan, kontrakoa frogatzen ez den bitartean iritzi bati eustea arrazoizko gertatzen denean. Ad hominem argumentuaren eraginez erakusten zaigu, bata ala bestea, baiezipen bat faltsua dela eta, nolanahi hartu ere, lehiakidea oker dagoela. Erabili ohi diren beste zenbait argumentu mota ere ekar ditzakegu hona, esaterako, ad vertiginem dei dezakeguna, honela arrazoitzen denean: Froga hau onartzen ez bada, ez dago beste biderik eztabaidagai dugun puntuari buruz ziurtasunera iristeko, eta hau absurdua da. Argumentu hau egokia da kasu zehatz batzuetan, adibidez, norbaitek arartegabeko lehen egiei uko egin nahi dienean, hala nola, deus ezin dela aldi berean izan eta ez izan, edota gu gerau existitzen garela, zeren, zuzen balego, deus ezagutzeko modurik ez bailegoke. Printzipio batzuk finkatu eta jagon nahi ditugunean, hala ez balitz hartutako doktrina baten sistema osoa hondatuko litzatekeelako, argumentua ez da erabakigarria; bereizi behar baita gure ezagupenak defendatzeko ezinbestekoa dena eta guk hartutako dotrinen eta gure ihardunbideen euskarri dena. Antzeko arrazoibidea erabili dute batzuetan legelariak ustezko sorginen kondena edo tortura zuritzeko, krimen beraren akusaziopean zeuden beste batzuen salaketei kasu eginez, esan ohi baitzen: Argumentu honek porrot

egiten badu, nola komentzituko ditugu, bada? Auzi kriminaletan, batzuetan, zenbait idazlek uste izaten du, konbentzimendura iristea zaila gertatzen denean froga arinagoak aski izan daitezkeela. Baina, hori ez da arrazoia. Horrek frogatzen du, soilik, arreta handiagoz ibili beharra dagoela eta ez ondorioak arinkeria gehiagoz atera, salbu eta krimen guztiz arriskutsuetan, adibidez, goi traiziozko auzietan, non kontsiderazio hau eragingarria den, ez gizakia kondenatzeko, bai haren ondorio kaltegarriak galarazteko; halako moldez non egon baitaiteke erdigune bat, errudun eta ez-errudunaren artean barik, kondena eta barkamenaren artean, legeak eta ohiturak hala onartzen duten epaietan. Antzeko argudioa erabili izan da azken aldi honetan Alemanian moneta akastunak egin dituzten fabrikak zuritzeko; izan ere (esaten zen), indarreango arauak egokituz gero ezin izango baitzen txanponik egin dirua galdu gabe. Beraz, aleazioa hondatzeak zilegi izan behar du. Baina, pisua soilik murriztu behar zen eta ez aleazioa edo izendapena, iruzurrak errazago saihestu zitezkeen; eta horrez gain, inolaz ere beharrezkoa ez den praktika hori halakotzat jotzen da; ez baitago ez zerutiko ez giza legerik, meatzerik edo zilar-barrak eskuratzeko modurik ez dutenak moneta egitera behartzen dituenik; eta txanpona txanpon bihurtzea ohitura txarra da eta berekin dakar narria. Nola erabili, orduan, txanpontzeko dugun erregalia? Erantzuna erraza da. Legezko zilarrez txanpon ezazue diru kopuru txikia, apur bat galduta ere, benetan interesatzen bazaizue txanpon-moldean agertzea, baina ez daukazue mundua zuen txanpon faltsuez bete beharrik.

(§ 23) FILALETES: Hitz batzuk esan ditugu gure arrazoimenaren eta gainontzeko gizakien arteko erlazioaz; zerbait erantsiko diogu orain Jainkoarekiko erlazioaz, beronek bereiztarazten baitugu arrazoiaren kontrakoa eta arrazoiak gaindikoa. Lehen sailekoa da gure ideia argi eta zehatzekin elkartzina den oro; bigarrenekoa, hausnarketatik eta sentipenetik abiatuz, arrazoimenaren laguntzarekin, egia edo probabilitatea ondorioztatzen duen pentsamolde oro. Horrela, Jainko bat baino gehiagoren existentzia arrazoimenaren kontrakoa da, hilen piztuera, berriz, arrazoimenaz gaindi dago.

TEOFILO: Arrazoiak gaindi dagoenari zuk jarritako definizioari ohar bat egin behar diot, esaldi honi eman ohi zaion erabilerarekin lotzen baduzu, bederen; nire ustez, definizio honen planteamendua urrutiegi baitoa batetik, eta bestetik murriztegi geratzen da; eta horrela onartuz gero, ez dakigun guztia eta gaurko gure egoeran jakin ezin dezakeguna arrazoiak gaindi legoke; esaterako, halako izar finkoa eguzkia baino handiagoa ala txikiagoa dela, edota Vesuvio sumendiak halako urte zehatzean sua kanporatuko duela, gure ezagumenaren esku ez dauden egintzak dira, ez arrazoimenaz gaindi daudelako, sentimenen gaindi daudelako baizik; gorputz-atal eginagoak eta inguruko informazio hobe izango bagenu, arazo horietaz gure iritzia askoz ere osoagoa litzateke. Beste zenbait eragozpen gure gaurko gaitasunarentzat gaindiezinak dira, baina ez arrazoimen ororentzat; adibidez, gure artean ez dago astronomorik eklipse baten xehetasunak kalkulatzeko pater noster baten denboran luma eskuan hartu gabe; eta bestalde, egon daitezke nonbait jeinuak hori jolas baten gisan egin lezaketanak. Hartaz, gauza horiek guztiak ezagunak edo praktikagarriak bilaka daitezke arrazoimenaren laguntzaz, egintzen informazio ugariagoz, gorputz-atal perfektuagoz eta izpiritu landuagoz.

FILALETES: Eragozpen horrek indarra galtzen du definizioa gure sentipenari edo hausnarketari ezezik sortutako beste edozein izpiritu ahalgarriri ere lotzen badiogu.

TEOFILO: Horrela ulertuta, zuzen zaude. Baina hor dirau beste eragozpenak, alegia, gure definizioaren arabera, ez dagoela ezer arrazoiak gaindi, Jainkoak betiere eskaini ahal izango baitzikigu edozein egia sentipenaz eta hausnarketaz geureganatzeko bitartekoak; horrela, misteriorik handienak Jainkoaren testigutzari esker zaizkigu ezagunak, eta Jainkoa erlijioaren funtsa diren sinesgarritasun zioen bidez ezagutzen dugu. Eta zio hauek, zalantzarik gabe, sentipenaren eta hausnarketaren menpe daude. Beraz,

arazoaren muina ez da ea egintza baten existentzia edo proposizio baten egia ondoriozta daitekeen arrazoimenak erabiltzen dituen printzipioetatik, hau da, sentipenetik, hausnarketatik edota kanpoko eta barneko sentimenetatik; arazoa da ea sortutako izpiritua gai den egintza honen nolakotasuna edota egia honen a priorizko arrazoa ezagutzeko; hartaz, esan daiteke arrazoiak gairik dagoena ikas daitekeela baina ez ulertu sortutako arrazoimenaren indarrez eta bidez, handia eta gailena izanagatik berau. Jainkoari bakarrik dagokio hura ulertzea eta berari bakarrik doakio, halaber, hura gauzatzea.

(§ 24) FILALETES: Egoki deritzot gogoeta honi eta nire definizioa horrela hausnartua izan dadin nahi dut. Eta gogoeta beronek ziurtatzen nau nire iritzian, zera diodanean, alegia, arrazoa eta fedea elkarren aurka jartzen dituen mintzamoldea, baimendua egon arren, desegokia dela; arrazoi bidez egiaztatzen baitugu sinetsi beharrekoa. Fedea baiespen tinkoa da, eta behar bezala finkatutako baiespenak arrazoi egokietan behar du oinarrituta egon. Hartaz, sinesteko inolako arrazoirik gabe sinesten duena bere fantasiekin maiteminduta egon daiteke, baina ezin esan daiteke egiaren bila dabilela ez eta bere maisu jainkotiarrari zor dion menpekotasuna eskaintzen diola, nahiago baitu honek errakuntzatik babesteko berak hornitutako gaitasunak erabil ditzan. Hala izan ezik, bide zuzenetik badabil, kasualitate hutsa da; eta bide okerretik badabil, berea du errua eta kontuak errendatu beharko dizkio Jainkoari.

TEOFILO: Txalo beroak merezi dituzu nire partetik, jauna, fedeak arrazoian oinarritua izan behar duela diozunean: hori barik, zergatik nahiago izan behar genuen guk Biblia, Korana edo brahamandarren antzinako liburuak baino? Hala aitortu dute gure teologoei eta beste hainbat jakintsuk ere eta horregatik dauzkagu kristau erlijioa egiari buruz lan hain ederrak eta hainbat frogak bikain paganoen eta lehengo eta oraingo beste sinesgabeen aurka ezarriak. Pertsona zuhurrentzat beti izan dira susmagarri sinesteko arrazoi eta frogak bila nekerik hartu beharrik ez dagoela nahi izan dutenak; gainera, hau ezinezkoa da sinesteak esan nahi ez badu errezitatzea edo errepikatu eta nekerik hartu gabe iragaten uztea, askok egin ohi duten modura eta nazio batzuen iharduera denez, beste batzuen baino areago. Horra zergatik XV. eta XVI. mendeetako zenbait filosofo aristotelikori, eta askoz geroagokoei ere haien eraginez (hala ikus daiteke Naudé jaunaren gutunetan³⁶¹ eta Naudeana deritzenetan), elkarren aurkako bi egia, bata filosofikoa eta bestea teologikoa, defenditu nahi izan zituztenean, aurrez aurre kontrajarri zitzairen, eta arrazoiz, Letrango azken kontzilioa³⁶² Leon X.aren agindupean, lehen ere adierazi dizudanez. Honen oso antzeko liskarra piztu zen Helmstaedten antzina, Daniel Hofmann teologoa eta Corneille Martin filosofoaren artean³⁶³, diferentzia batez, ordea, hots, filosofoak moldatu egiten zituela filosofia eta errebelazioa, teologoak, ordea, ez zuela jokabide hau onartzen. Halere, Jules dukea, unibertsitatearen sortzailea, filosofoaren alde jarri zen. Egia da, halaber, gure egunotan goren mailako pertsona batek esan ohi zuela fede-gaietan begiak erauzi behar genituela argi ikusteko³⁶⁴; Tertulianok ere nonbait honela dio: Egiazkoa da hau ezinezkoa delako; eta sinetsi behar da absurdua delako. Baina honela mintzo direnen asmoa ona izanda ere, adierazpideak dira beti gehiegizkoak eta huts egitera eramanez gaitzakete³⁶⁵. Zehatzago mintzo da San Paulo zera dioenean, alegia, Jainkoaren jakinduria zorakeria dela gizakientzat³⁶⁶; hala gertatzen da gizakiek euren esperientzia soilaren arabera ebazten dituztelako gauzak, eta esperientzia hau guztiz mugatua izan arren, beronekin ados ez dagoena absurdutzat hartzen dute. Baina ebazpen hau ausartegia da, infinituak baitira gauza naturalak ere entzunez gero absurdutzat hartuko genituzkeenak, gure ibaiak estaltzen dituen izotzarena kontatu ziotenean Siameko erregeari absurdua irudituz zitzaion moduan. Baina naturaren ordenamendua, inolako halabehar metafisikoren

menpe ez dagoelarik, Jainkoaren nahikundean soilik dago oinarrituta, halako moldez, non handik urrun daitekeen grazia baino goragoko arrazoen poderioz; baina honen euskarri azaltzen diren frogak oso sendoak izan beharko dute, Jainko beraren testigutzatik datozenak, eta Jainkoari amore eman behar zaio erabat, haren eragina behar bezala egiaztatua dagoenean.

XVIII

Fedea eta arrazoa eta berauen muga zehatzak

(§ 1) FILALETES: Dena den, mintzamolde arruntera egoki gaitezen eta esanguraz arrazoa eta fedea nolabait bereizten direla eraman dezagun. Esangura hori, ordea, oso argi azaldu behar da eta bi horien arteko mugak nabarmen ezarri; eztabaida handiak eta agian nahaste tamalgarriak ere sortarazi ditu, izan ere, muga horien zalantzak. Bistan dago, esan beharrik gabe, mugok zehaztu bitartean auziak ez duela zentzurik, arrazoimena erabili behar baita fedez eztabaidatzeko. (§ 2) Nire ustez, sekta bakoitza bere gogora baliatzen da arrazoimenaz, bertatik onuraren bat ateratzea espero duen heinean; baina arrazoiak huts egiten dienean aldarrika hasiko zaizkizu, arrazoiak gaindiko fede artikulua dela. Baina antagonistak ere bide bera erabili zezakeen liskarrean beraren aurka arrazoitzen zenean, aurrez argitu ez bada zergatik ez zaion hori berari zilegi parekoa dirudien egoeran. Gure gaitasun naturalak erabiliaz, hau da, sentipenez eta hausnarketaz lortutako ezagutzetatik atera diren proposizioen ziurtasunaren edo probabilitatearen aurkikuntza dela hemen arrazoa suposatzen dut; fedea, berriz, errebelazioan oinarritutako proposizio bati ematen diogun baiespena, hau da, Jainkoak gizakioi ezagutzera eman digun ezohiko agerpenean finkatutakoa. (§ 3) Baina Jainkoak argitutako gizakiak ezin die besteei ezein ideia berri, bakun jakinarazi, hitzez edo bestelako ikurrez baliatu beharko baita soilik, eta hauek pizten dituzte gudan ohiturak atxikitako ideia bakunak edota berauen konbinazioa; eta San Paulok, hirugarren zerura eramana sentitu zenean, bereganatutako ideia berriak ugari izanagatik, horri buruz hau baino ezin adierazi izan zigun, inoiz giza begiak ikusi ez duena, belarriak entzun ez duena eta gizakiari inoiz bururatu ez zaiona³⁶⁷. Demagun, Jupiter planetan kreaturak bizi direla sei sentimenez hornituta eta Jainkoak sobrenaturalki gutariko gizaki bati haien seigarren sentimenezko ideiak eskaintzen dizkiola; ezin izango ditu ideioek sekulan sortarazi hitzen bidez gainontzeko gizakion izpirituan. Bereizi behar ditugu, hartaz, jatorrizko errebelazioa eta tradiziozkoa. Lehena Jainkoak eragiten du zuzenean izpirituan eta guk ezin diogu mugarik ezarri; bestea, komunikazioaren ohiko bideetatik datorkigu soilik eta horregatik ezin digu inolako ideia bakun, berririk agertu. (§ 4) Egia da arrazoi bidez aurkitutako egiak errebelazio tradizionalaz ere iragar dakizkigukeela, Jainkoak gizakioi teorema geometrikoak azaldu nahi izan balizkigu bezala, baina ideien arteko loturatik ateratako frogapenak ematen digun adinako ziurtasunez, inoiz ere ez. Uholdearen berri zehatzagoa zuen Noek, guk Moisesen liburitik dakiguna baino; era berean, Moises idazten ikusi eta haren inspirazioa egiaztatzen zuten mirakuluen testigu izan zenaren ziurtasuna gurea baino handiagoa zen (§ 5). Horregatik ezin da errebelazioa arrazoizko ebidentzia argiaren kontrakoa izan, zeren, jatorrizkoa eta arartegabea izanda ere errebelazioa, ebidentziaz jakin behar baitugu hura Jainkoari egoztean ez diogula geure buruari iruzur egiten, eta errebelatuaren mezua zuzen ulertu dugula; eta ebidentzia hau ez da inoiz izango gure ezagutza intuitiboarena baino handiagoa; beraz, ezin onartuko dugu ezein proposizio Jainkoaren errebelaziotzat arartegabeko ezagutza honen aurkakoa denean kontraesankorki. Hala ez balitz, ez legoke munduan ezberdintasunik egia eta faltsuaren artean, ez eta sinesgarriak eta sinestezinerak neurririk. Pentsaezina gertatzen zaigu, zerbait Jainkoagandik, gure izatearen egile onginahitsu horrengandik etorri, eta egiazkotzat hartzean gure ezagupenen funtsak aldaraztea eta gure gaitasun guztiak ezgai

bihurtzea. (§ 6) Eta errebelazioa bitartekoz, hau da, ahozko zein idatzizko tradizioz eurenganatu dutenek arrazoiaren premia handiagoa dute ziur egoteko. (§ 7) Halere, gure aurkitzeko ahalmen naturalez gaindi daudenak dira fedearen gai propioak, hala nola, aingeru erboltarien gainbehera eta hilen piztuera. (§ 9) Horietan entzun behar zaio errebelazioari soilik. Eta proposizio probableen kasuan ere, errebelazio nabariak probabilitatearen aurka erabakitzea eramango gaitu.

TEOFILO: Fedea sinesgarritasun zioetan (hala baiteritze) oinarritutakotzat soilik hartzen baduzu eta izpiritua bertara zuzenean finkatzen duen barneko graziatik aske kontsideratuz, orduan diozun guztia da erantzun ezinezkoa. Aitortu behar da, zio horien menpekoak baino judizio askoz nabariagoak badirela. Batzuk besteak baino aipatuagoak eta jende askok orain arte inoiz ere ezagutu gabeak izaki, are gutxiago kontuan hartuak, ondorioz, probabilitate motibotzat har daitekeena ere ez daukate. Baina Izpiritu Santuaren barne grazia bat-batean betetzen du hutsune hau goi indarrez eta horregatik seguraski deitzen diote teologoek jainkozko fedea. Sinestarazten diguna arrazoiaren oinarrituta dagoenean bakarrik datorkigu fede hau Jainkoaren eskutik; hala ez balitz, egia ezagutzeko bideak suntsituko lizkiguke eta beroaldiari ateak irekiko; ez da, baina, beharrezko jainkozko fedear jantzitako guztiek arrazoi horiek ezagutzea, eta are gutxiago beti begien bistan izatea. Osterantzean, xumeek eta ezjakinek, gaur egun bederen, ez lukete sekulan egiazko fedea eurenganatu, eta adimentsuenek ere, bestalde, agian premiarik handiena beraiena delarik, ez lukete federik, ezinezkoa baitzaie sinesteko arrazoiak beti gogoratzea. Teologiaren arloan arrazoiaren erabiltzearen auzia astinduenetarikoa izan da, bai sozinianoen eta oro har katoliko dei diezaiekegunen artean, bai erreformatuen eta ebangelisten artean, hala baiteritze luteranoen Alemanian gehienbat, askorentzat desegokiro. Gogoan dut inoiz irakurri izana oraindik, nik dakidala, inprimatu gabe dagoen Metafisika, Stegmannus³⁶⁸ delako batek idatzia, sozinianoa bera (ez Josué Stegmann, sozinianoen kontra idatzi zuena); bestalde, Keslerus delakoak³⁶⁹, Saxoniako teologoa bera, Logika idatzi zuen eta beste zenbait zientzia filosofiko, sozinianoen aurkako asmo aproposarekin. Oro har, esan daiteke sozinianoek arinegi jotzen dutela naturaren ordenamenduarekin bat ez datorren ororen aurka, horren ezintasuna frogaezina gertatzen zaienean ere. Euren lehiakideak ere batzuetan urrunegi joan ohi dira, misterioa kontraesanaren ertzeraino bultzatuz; mesede eskasa egiten diote horrela eurek defendatzen duten egiari; harriduraz ikusi nuen behin A. Honoré Fabryren³⁷⁰ teologia bilduman, bere ordenako gizonik jakintsuenetarikoa da berau, jainkozko gaiez ziharduelarik, nolatan ukatzen zuen (gaur oraindik teologo batzuek ukatzen duten moduan) printzipio handi hau: hirugarren baten berdinak diren gauzak elkarren berdinak dira. Honela, pentsatu ere gabe, garaipena ematen zaie lehiakideei eta ziurtasun oro kentzen zaio ezein arrazoinamenduri. Printzipio hori oker aplikatu ohi dela esan behar zen. Idazle honek beronek gaitzesten ditu bere Filosofian eskotistek gauza kreatuetan ezartzen dituzten bereizketa birtualak, bere ustez, kontraesan printzipioa hondatuko luketelako; eta Jainkoaren baitan bereizketa horiek onartu behar ditugula eragozten zaionean, bere erantzuna da fedeak hala agintzen duela. Nolatan agin dezake, baina, fedeak printzipio bat hondatzen duen zerbait, zernahi izanda ere, printzipio hori gabe sineskera oro, baiespen zein ukapen oro hutsal gertatzen bada? Beraz, egiazko bi proposizio ezin daitezke inola ere aldi berean erabat kontraesankorrak izan; eta A eta C gauza bera ez badira, A-ren berdina den B ezingo dugu C-ren berdina den B-ren zentzuan hartu. Nicolaus Vedelius³⁷¹ Genevako eta Deventerreko irakasleak Rationale Theologicum izeneko liburua argitaratu zuen aspaldi, eta Jean Musaeus³⁷² Jenako irakasleak (Jenakoa da unibertsitate ebangelikoa Thuringian) erantzuna igorri zion gai bereko beste liburu batekin, alegia, Arrazoiaren erabilera teologian. Bi liburuok

inoiz aztertu ditudala gogoan dut eta ohartu nintzen funtseko eztabaida alboko auziek estaltzen zutela, esaterako, ondorio teologikoa zer den eztabaidatzen denean, ea ondorioa osatzen duten terminoez ebatzi behar den ala hura frogatzen duen bidez; beraz, ea Ockamek arrazoi ote zuenentz, ondorio bat berera iristen den zientzia, edozein froga bide erabilita ere, bat bera dela esan zuenean³⁷³. Eta hitzen gora-behera baino ez diren beste hainbat txikieria hutsaletan geratzen dira. Hala eta guztiz, Musaeus akort zegoen beharrezkotasun logikoz beharrezkoak diren arrazoizko printzipioak, hots, aurkakoak kontraesana dakarrenean, teologian erabili ahal eta behar direla ziurtasunez; baina ukatu ere uka zezakeen beharrezkotasun fisiko soilez beharrezkoa (hau da, naturan gertatzen denaren indukzioan edo naturaren legeetan oinarritua, lege hauek, nolabait, Jainkoak ezarriak direlarik) aski dela misterio baten edo mirakulu baten sinestea errefusatzeko, Jainkoaren esku baitago gauzen norabide arrunta aldatzea. Horrela, naturaren ordenamenduaren arabera, ziurta daiteke pertsona bat ezin daitekeela aldi berean izan ama eta birjina, edota giza gorputza derrigor dagoela sentimenen pean, nahiz eta bataren zein bestearen kontrakoa Jainkoarentzat ahalgarri izan. Vedelius ere bereizketa honekin bat datorrela dirudi. Baina noizbehinka printzipio batzuk dira eztabaidagai, ea logikoki diren beharrezko ala fisikoki bakarrik. Sozinianoekin eztabaida izan zen, esaterako, ea substantzia aniztu daitekeen esentzia singularra bere horretan geratuz; eta zwinglianoekiko³⁷⁴ eztabaida, ea gorputz bat ezin den leku bat baino gehiagotan egon. Aitortu premian gaude, beharrezkotasun logikoa frogatu ezin den aldi oro, beharrezkotasun fisiko bat baino ezin dela ontzat eman proposizio batean. Dena den, arazo bat geratzen dela uste dut, aipatu berri ditudan idazleek behar bezainbeste aztertu gabeko arazoa, eta hau da: demagun, batetik Eskritura Santuko testu baten hitzez hitzeko esanahia aurkitu dela, eta bestetik ezintasun logikoaren itxura nabarmena edota, gutxienik, ezintasun fisiko onartua; zer da arrazoizkoago, hitzez hitzeko esanahiari uko egitea ala printzipio filosofikoari? Puntu batzuetan argi dago letra alboratu dezakegula eragozpenik gabe, hala nola, Eskriturak Jainkoari eskuak ezartzen dizkionean edota Jainkoaren kolera, damua eta beste zenbait giza sentipen aipatzen dituen; hala ez balitz, antropomorfistekin lerratu beharko ginatke edota fanatiko ingeles haiekin, zeinak sinetsita baitzeuden Herodes benetan azeri bilakatu zela Jesukristok izen horrekin deitu zionean. Honelakoetan onartzen ditugu interpretazio arauak eta hauek maxima filosofikoaren alde egiategatik hitzez hitzeko esanahiaren aurka ez badoaz, eta bestalde hitzez hitzeko esanahiak Jainkoaren inperfekzioen bat edo pietatearen praktikarako arriskuren bat inplikatzeko ez badu, orduan, seguruago da eta arrazoizkoago beroni kasu egitea. Aipatu berri ditudan bi idazle hauek oraindik ere eztabaidan ari dira Kekermanen³⁷⁵ ahaleginaz, honek arrazoi bidez Hirutasuna frogatu nahi baitzuen, behinola Ramon Llull³⁷⁶ saiatu zen moduan. Musaeusek, ordea, nahiko egokiro aitortzen du, idazle erreformatuaren frogapen zuzena eta bidezkoa izan balitz, ez zegoela gehiago zer esanik; eta orduan arrazoizko mantentzen zezakeela, artikulu horri buruz, Izpiritu Santuaren argia filosofiak piztutakoa izan zitekeela. Beraiek astindu zuten, halaber, harako auzi famatu hura: Testamentu Zahar zein Berriaren errebelazioa ezagutu gabe pietate naturalaren sentipenetan hil direnak ea salbatuak izan daitezkeen bide horretatik, eta euren bekatuak barkatuak. Gauza jakina da Alexandriako Klemente, Justino Martiria eta San Joan Krisostomo³⁷⁷ baiezkoaren aldekoak zirela; noizbait erakutsi nion nik Pellisson jaunari³⁷⁸ Erromako Elizan hainbat doktore gailenek, protestante ez-setatsuak kondenatu barik, paganuak eta aipatu berri ditudanak ere salbatu ahal izana defendatu dutela, kontrizio bidez, hau da onginahiezko maitasunean errotutako penitentziaz, honen eraginez Jainkoa gauza guztien gainetik maitatzen baita, haren perfekzioek subiranoki maitagarri egiten dutelako. Era horretan, jarraian norbera

bihotz osoz haren nahiarekin ados egotera bultzatua sentitzen da eta haren perfekzioak imitatzen, berarekin hobeto batzeko, halako sentipenak dutenei Jainkoak bere grazia ez ukatzea bidezko ikusten baita. Eta Erasmus eta Luis Vives³⁷⁹ aipatu gabe, Diego Payva Andradiusen³⁸⁰ iritzia azaldu nuen, bere garaian ospetsua izandako doktore portugaldarrarena, alegia; Trentoko kontzilioan teologo ihardundako honek esan baitzuen aurrekoarekin ados ez zeudenek Jainkoa krudel egiten zutela gradu gorenean (neque enim, inquit, immanitas deterior ulla esse potest). Pellissonek nekez aurkitu ahal izan zuen liburu hau Parisen, eta hori seinalea da euren garaian estimatuak diren idazleak gero, sarritan, gutxietsiak izan ohi direla. Horregatik uste du Baylek Andrade aitatu izan dela Chemnitius³⁸¹ bere antagonistaren aipuetan soilik. Egia izan daiteke, baina nik behintzat irakurria nuen berataz mintzo aurretik. Alemanian ospea beraganatu zuen Chemnitiusekin izandako eztabaida dela medio, jesuiten alde eta idazle horren kontra idatzi zuelako, eta bere liburuan aurki ditzakegu zenbait xehetasun Konpainia famatu horren sorreraren inguruan. Inoiz azaldu dut zenbait protestantek andradianoak zeritzela aipatu berri dudan gaiari buruz hark bezala pentsatzen zutenei. Idazle batzuek, printzipio hauetan oinarrituta, Aristotelesen salbazioaz propio idatzi dute zentsoreen baiezenarekin. Oso ezagunak dira, halaber, Collius³⁸² liburua latinez eta La Mothe Le Vayer jaunarena³⁸³ frantsesez paganuen salbazioaz. Franciscus Puccius delakoa³⁸⁴, bestalde, urrunegi joan zen. San Agustín, hain jakintsua eta zorrotza izan arren, kontrako muturrera oldartu zen, bataiorik gabe hildako haurrak kondenatzeraino, eta eskolastikoei, arrazoiz antza, abandonatu egin zuten; hala eta guztiz, zenbait pertsona prestuk, meritu handikoak batzuk, baina honi buruz aire nahiko misantropoko jendea, San Agustinen doktrina hau berpiztu nahi izan dute eta urrunegi ere joan dira ildo horretatik. Izpiritu honek izan du, agian, eraginik zenbait doktore suharregien eta Txinako misiolari jesuiten arteko eztabaidan, hauek iradoki baitzuten antzinako txinatarrek garai hartako egiazko erlijioa izan zutela eta egiazko santuak ere, eta Konfuzioren doktrinak ez zuela idolatra ez ateo kutsurik. Erroman, dirudienek, zentzun gehiago izan dute, ez baitute kondenatu nahi izan, aurrez ulertu gabe, naziorik handienetako hori. Ondotxo dakigu Jainkoa gizakiok baino filantropoagoa dela. Ezagutzen ditut nik pertsona batzuk, euren garra sentipen gogorretan adierazi beharraren beharraz, uste dutenak ezin daitekeela jatorrizko bekatuan sinets euren irizpideez ez bada, eta horretan daude oker. Bestalde, paganoak eta laguntza arruntarik gabekoak salbatzen direla uste dutenak ez pentsa, naturaren indarren eragin soilaz mintzo direnik (Aita batzuek hala pentsatu badute ere), zeren defenda baitaiteke Jainkoak beraien baitan kontrizioa sortarazteko grazia ematean eskaintzen diela, esplizitoki ala birtualki, baina beti goi-indarrez, salbatzeko behar duten fedearen argia eta karitatearen kementa, hiltorian dauden azken mementuan bederen. Horrela agertzen zuten erreformatuek Vedeliusengan³⁸⁵ Zwinglioren pentsamentua, berau Erromako Elizako doktoreak bezain esplizituki mintzo baitzen paganismoa pertsona zintzoen salbazioaz. Doktrina honek ez du, beraz, deus komunik pelagianoen edo erdipelagianoen³⁸⁶ doktrina partikularrarekin, eta gauza jakina da Zwingliok ez zeukala hauekin inongo zerikusirik. Eta pelagianoen aurka, fededunengan naturaz gairik gabeko grazia irakasten delarik (eta honetan bat datoz indarrean dauden hiru erlijioak, salbu eta, agian, Pajonen³⁸⁷ jarraitzaileak), eta haur bataiatuei fedea suposatzen zaielarik, edota hurbileko sentipenak bederen, ez da hain aparteko gertatzen beste horrenbeste ematea, hiltorian daudenean bederen, era arruntean kristautasunean heziak izateko zoriona izan ez duten borondate oneko pertsonen. Dena den, zuhurrena litzateke hain ilun dauden puntu hauei buruz deus ez zehaztea eta ebatzea, oro har, Jainkoak ezin duela deus egin

ontasunez eta justiziaz beteta egongo ez denik: *Melius est dubitare de occultis quam litigare de incertis* (Agustin, 8. lib., Genes. ad lit., 5. atala)³⁸⁸.

XIX

Irrikitasuna

(§ 1) **FILALETES**: Ai, teologoez eta San Agustinek berak ere aurreko pasartean adierazitako maxima praktikatu izan balute beti! Gizakiek, ordea, uste dute izpiritu dogmazalea dela euren egiazaletasunaren erakusgarri, eta alderantziz da erabat. Den moduan egia ezagutzeko frogak aztertzen ditugun heinean maite dugu zinez egia. Eta judizioak arineketan hartzen direnean, horretara eraman gaituzten zergatiak ez dira hain zintzoak. (§ 2) Goranahia izan ohi da bat, eta nork bere ameskerietan nolabaiteko atsegina, irrikitasuna sorrarazten duena, bestea. (§ 3) Honela deritzo arrazoiari oinarririk gabe bat-bateko errebelazioa imajinatzen dutenen akatsari. (§ 4) Eta arrazoiak Jainkoagandiko errebelazio naturala dela esan daitekeen moduan, Jainkoa bera delarik naturaren egile, esan daiteke, halaber, errebelazioa naturaz gaindiko arrazoiak dela, hau da, Jainkoagandik bitartekorik gabe datozkigun aurkikuntzen funts berriak eraikitako arrazoiak. Baina, bereizten badakigula jakintzat ematen dute aurkikuntza horiek, eta horretan datza arrazoiak; eta errebelazioari leku egiteko arrazoiak galaraztea Jupiterren sateliteak teleskopioz hobeto ikusteko begiak erauztea bezala litzateke. (§ 5) Irrikitasunaren iturri da bat-bateko errebelazioa erosoagoa gertatzen dela eta laburragoa, arrazoinamendu luze eta neketsua baino, eta honi, gainera, ez zaiola beti etekin zoriontsua ateratzen. Beti izan dira gizaki batzuk, malenkoniak nahasitako debozioz eta euren buruez zuten aburu onez, sinestera iritsi direnak gainontzeko pertsonak baino adiskidetasun hurbilagoa zutela beraiek Jainkoarekin. Halako kidetasuna hark berei agindu ziela uste dute, eta haren herria osatzen dutela beste inoren aurretik. (§ 6) Euren fantasia argitasun bilakatzen da eta jainkozko itzal, eta euren xedeak zeruak agindutako norabide hutsezinak, beraiek derrigor jarraituko dutena. (§ 7) Irizpide honek ondorio handiak ekarri ditu eta gaitz latzak eragin, gizakiak, izan ere, oldartsuago jokatzen du bere kabuz dabilenean eta Jainkoaren nahia gure joeran errotzen dugunean. (§ 8) Zaila da hortik inor ateratzea frogarik gabeko ustezko ziurtasunak harrokeria lausengatzen baitu eta ezohikoari diogun maitasuna suspertzen. Euren iritzia ikusmenarekin eta sentipenarekin parekatzen dute fanatikoek. Jainkoaren argia ikusten dute, guk eguerdiko eguzkiarena bezain garden, arrazoiaren oskorriak deus erakutsi beharrik gabe. (§ 9) Seguru daudelako sentitzen dira seguru, eta euren persuasioa zuzena da, beste barik, indartsua delako, horretara mugatzen baita haien hizkera irudikorra. (§ 10) Baina bi pertzepzio mota daudenez, proposizioarena bata eta errebelazioarena bestea, galde diezaiekegu non dagoen argia. Proposizioaren ikuspuntuan badago, zertarako da errebelazioa? Errebelazioaren sentipenean beharko du orduan. Nola jakin dezakete, baina, Jainkoa dela errebelazioaren iturri, eta ez gorpil zoro honen inguruan darabiltzan grina eroa, alegia: nik barru-barrutik sinesten dudalako da errebelazio, eta hala sinesten dut errebelazioa delako. (§ 11) Ba al dago errakuntzara bide zuzenagorik, gidarizat irudimena hartzea baino? (§ 12) San Paulo, kristauak gartsuki jazartzen zituenean, engainatuta zebilen. Gauza jakina da deabruak ere martiriak izan dituela, eta etsi-etsita egotea aski bada, nekez bereiziko ditugu Satanen ilusioak eta Izpiritu Santuaren inspirazioak. (§ 14) Arrazoiak garamatza, beraz, errebelazioaren egia ezagutzera. (§ 15) Gure sineskeria balitz haren frogak, arestian aipatu dudan gorpil zoroan jausiko ginatke. Jainkoagandiko errebelazioz jantzitako santuek kanpoko zantzuak zituzten barne-argi horren egiaz jabetzeko. Moisesek sasitza ikusi zuen sutan eta erre gabe, eta sasitik zetorkion ahotsa entzun zuen, eta bere anaiak askatzera Egiptora bidali zuenean, Moises bere eginkizunean sendotzeko, suge bihurtutako makilaren mirakulua egin zuen Jainkoak. Aingeru batek bidali zuen Gedeon Israelgo herria madianiten uztarritik

askatzera. Hala eta guztiz, ezaugarri bat eskatu zuen honek agindua Jainkoagandik zetorkiola ziurtatzeko³⁸⁹. (§ 16) Ez dut nik ukatuko Jainkoak noizbehinka gizakion izpiritua argitzen duela zenbait egia garrantzitsu ulertzea emateko edota Izpiritu Santuaren berehalako laguntzaz eta eraginez egintza onetara eramateko, eragin honen inolako ezaugarri berezirik gabe. Baina kasu hauetan ere arrazoa daukagu batetik eta Eskritura bestetik, biak ere arau hutsezinak argikuntza horiek epaitzeko orduan, zeren arauokin bat datozenean, Jainkoak inspiratutzat hartu eta ez dago inolako arriskurik, hau ere izango ez den arren, agian, arartegabeko errebelazioa.

TEOFILO: Irrikitasuna izen egokia zen hasieran. Eta sofismak jakituriaren ariketa propioki markatzen duenez, irrikitasunak esan nahi du gure baitan jainkotasun bat dagoela. Est Deus in nobis³⁹⁰. Sokratesek uste zuen jainko batek ala demonio batek barne-oharpideak ematen zizkiola³⁹¹, halako moldez non irrikitasuna jainkozko sena izango baitzen. Baina gizakiek euren grinak, euren fantasiak, euren ametsak eta euren sumina ere jainkozko zerbaitzat hartu dutenetik, irrikitasunak berak jotako pertsonengan omen zegoen jainkotasunen batek eragindako izpirituaren desoreka adierazten hasi zen irrikitasuna; aztiekin (gizonezko nahiz emakume) zoroarena egiten baitzuten, euren jainkoak bereganatzen zituenean, esaterako, Cumasen Sibila Virgilioren kasuan³⁹². Ondoren, funtsik gabe sinesten dutenei euren mugimenduak Jainkoagandik datozela egotzi zaie. Aipatu berri dugun poetaren obran, Nisusek, halako zirrara batek ekintza arriskutsu batera bultzata, arrazoizko zalantza betetako hitz hauekin zera proposatzen dio berarekin hil zen lagunari:

Di ne hunc ardorem mentibus addunt

Euryale, an sua cuique Deus fit dira cupido?³⁹³

Sen honi jarraitu zion azkenik, jakin ez bazekien ere nondik zetorkion, Jainkoagandik ala bere burua nabarmentzeko gogo malerusetik. Baina lortu izan balu, berriro ere baimena hartuko zukeen, jainkozko ahalmen batek bultzata ari zela sinetsirik. Gaur egun ere, irrikitasunaz jantzitako pertsona gogatsuek uste dute Jainkoagandik hartzen dituztela dogmak, euren izpirituaren argigarri. Kuakeroak halaxe daude etsi-etsian sinetsita, eta Barclayk³⁹⁴, euren lehen idazle metodikoak, uste du beren baitan aurkitzen dutela berez ezagutzera ematen den argia. Zergatik, ordea, argia deitu deus ikustarazten ez duenari? Badakit txinpartak eta zer argitsuagoak ere ikusteko gaitasuna duten pertsonak badirela, baina izpirituak irrikitasunaz dauzkatenean argi korporal biziko irudi honek ez dio inolako argirik eskaintzen izpirituari. Zenbait pertsona ergelek, irudimena asaldatuta daukatenean, lehendik ez zituzten burutapenak gauzatzen dituzte; euren ustetan, gauza ederrak esateko egoeran daude edota biziki esateko eran, bederen; beraiek miresten dute eta besteek mirets dezaten nahi dute inspirazioa deritzoten etorri hau. Grinak animatutako irudimen ahaltsuak eragiten du lorpen hau hein handi batean, bai eta oroimen bikainak ere, zeinak oso ongi gorde dituen liburu profetikoek mintzamoldeak, irakurritz edo inori entzunda bereganatu dituztenak: Antoinette de Bourignonek³⁹⁵ mintzatzeko eta idazteko zuen erraztasuna erabiltzen zuen bere jainkozko misioaren froga gisa. Eta nik ezagutzen dudana ameslari batek bere misioaren froga oinarritzen du nekatu gabe eta eztarria lehortu gabe ia egun osoz ozenki mintzo eta errezatze duen trebezian. Badira batzuk, austeritate ariketak praktikatu ondoren edota aldi batez triste egon ondoren, ariman halako bake eta kontsolamendu kilikagarria sentitzen dutenak, eta hainbesteko gozotasun hori Izpiritu Santuak eragina dela uste dute. Egia da Jainkoaren handitasun eta ontasunaren gogaetan, haren nahia betetzean eta bertutea lantzean aurkitzen den atsegina Jainkoaren grazia handienetakoa dela; ez da, baina, beti naturaz gaindiko laguntza berriaren premia duen grazia, jende zintzo hauetariko askok uste duten modura. Duela gutxi ikusi ahal izan da

andereño bat³⁹⁶, gainontzekoan oso zintzoa, gaztarotik uste zuena Jesukristorekin mintzo zela eta haren emaztea zela modu guztiz berezian. Ama ere, diotenez, irrikitasun horretan sinetsita zegoen, baina gaztetatik horretan ziharduen alaba askoz ere urrunago joan zen. Haren betetasuna eta poza egundokoak ziren, haren jakituria jokamoldean agertzen zen eta izpiritua haren hitzaldietan. Hain urrun iritsi ziren gauzak, ezen andereñoak Gure Jaunari igorritako gutunak eskuratzen hasi baitzen eta eskuratu bezala, itxita itzultzen zituen; erantzunak idatzitakoari zegozkion batzuetan eta beti ziren arrazoizkoak. Gero gutunak hartzeari utzi zion, zaratatsuegi gerta zitekeela eta. Espainian bizi izan balitz, Santa Teresa berria zatekeen. Ez dute, ordea, berdin jokatzeko halako irudikapenak dituzten guztiek. Batzuek sektak antolatu edota konplikazioak sortarazi nahi izaten dituzte; Ingalaterran daukagu honen exenplu bitxia. Pertsona hauek fede onez dihardutenean oso nekez zentzitzen dira; batzuetan euren asmoen porrotak bideratzen ditu, beranduegi gehienetan. Duela gutxi hildako ameslari batek hilezkortzat zeukan bere burua, adinekoa izanik, sasoiatsu aurkitzen zelako, eta arestian ingeles batek argitaratutako liburua³⁹⁷ irakurri ez bazuen ere (liburu honek sinestera eman nahi baitu Jesukristo mundura etorria zela benetako sinesdunak gorputzaren heriotzatik libratzera), idazle honen iritzikoa zen aspaldiko urteetan; baina bere burua hiltzorian ikusi zuenean, erlijio mota guztien zalantzak izan zituen, ez baitzioten hauek bere ameskeriari erantzuten. Quirin Kulman³⁹⁸, silesiarra, gizon zuhurra eta izpirituala izan arren, bi irudipen motatan jausi zen, biak ere arriskutsuak: irrikizaleena bata, alkimistena bestea; Ingalaterran, Holandan eta Konstantinoplan eskandalu latza harrotu ondoren, Moskura joatea erabaki zuen eta han ministeritzaren aurkako zenbait azpikeriatan nahasi zen, Sofia printzesa agintean zegoen garaian; gizon hau sutara kondenatu zuten, baina ez zen hil berak predikatutako doktrinaz konbentziturik. Euren arteko eztabaidek pentsarazi beharko lieke jende hauei ustezko barne-testigantza hori ez datorrela Jainkoagandik; beste ezaugarri batzuk beharko lituzkeela hala izan ledin. Labadistak³⁹⁹, adibidez, ez datoz bat mademoiselle Antoinetterekin, eta William Penek⁴⁰⁰ kontatzen digun Alemaniara egindako bidaian asmoa izan bazuen ere nolabait bateratzeko testigantza honetan oinarritzen direnak, ez zuen, itxuraz behintzat, arrakasta handirik lortu. Benetan izango litzateke desiragarri jende zintzoa ados etortzea eta batera jokatzeko; gizadia hobea eta zoriontsuagoa izan ledin biderik egokiena litzateke, baina lehenik eurek beharko lukete izan jende zintzoa, hots, ongileak eta gainera otzanak eta arrazoizkoak; eta gaur egun alderantzizkoa gertatzen da, etengabe egozten zaie debotu deritzenei gogorrak, harroputzak eta tematiak izatea. Euren arteko liskarrek erakusten dute euren barne-testigantza gutxienik kanpotiko egiaztapenaren premian dagoela, guk sinestea nahi badute eta guk profetatzen eta inspiratzen onartzeko eskubide izan dezaten, mirakuluak egin beharko dituzte. Inspirazioak, halere, beren baitan bil ditzake goiko argiaren frogak. Hala lirateke, esaterako, ezagutza berezi baten aurkikuntza garrantzitsuaz zinez argituko balute norbaiten izpiritua, kanpoko laguntzarik gabe, aurkitzailearen ahalmenen gainetikoa direnean ezagutza hauek. Jakob Boehme⁴⁰¹ Lusaziako zapatagin famatuak, zeinaren izkribuak Filosofia Teutonikoa izenburuz alemanieratik beste zenbait hizkuntzataraz itzuliak izan diren, lanbide horretako gizonak idatziak izateko nabarmenak eta ederrak direlako, gizon honek urrea egiten jakin izan balu, eta hala uste zuen zenbaitek, San Joan Ebanjelariak jakin izan omen zuen moduan, haren ohoretan egindako himnoaren arabera:

Inexhaustum fert thesaurum

Qui de virgis fecit aurum,

Gemmas de lapidibus,⁴⁰²

ohi kanpoko zapatagin hau sinesgarriago litzateke, zalantzarik gabe. Eta mademoiselle Antoinette Bourignonek eman izan balio Bertrand Lacoste Hamburgetako ingeniari frantsesari, honen ustez harengandik hartutako zientzietarako argia, eta hala azaltzen du bere Zirkuluaren koadratura⁴⁰³ liburuko eskaintzan (bertan Antoinette Bertrandi teologian A zeritzon, berak matematikan bere burua B-tzat zeukalarik), ez legoke deus esaterik. Baina jende horien artean ez dauzkagu mota horretako arrakasta nabarmenen adibideak, ez eta gero gauzatu diren iragarpen ongi zehaztuak. Drabitiusen, Poniatoviaren eta beste batzuen profeziak, Comenius⁴⁰⁴ ondraduak bere Lux in tenebris liburuan argitaratuak eta enperadorearen lurralde heredakorretan nahasmendua ekarri zutenak, faltsuak gertatu ziren eta zoritxarrekoak izan ziren haiek sinetsi zituztenak. Ragozky, Trantsilvaniako printzea, Poloniako ekintzara eraman zuen Drabitiusek; han galdu zuen hark armada eta, jarraian, Estatuak eta bizitza; eta Drabitiusek gizarajoari handik urte askotara, 80 urte zituela, lepoa moztu zioten enperadorearen aginduz. Hala eta guztiz, ez dut zalantzarik egiten gaur egun ere, profezia horiek garaiz kanpo berpiztu nahian dabiltzanak badirela, gaurko Hungariako nahasmendu egoeraz profitatuz, kontuan hartu gabe ustezko profeta horiek euren garaiko gertakizunaz ari zirela; honetan, gutxi gora-behera, beste haren antzekoak lirateke, Brusselako bonbardaketa ostean txartel hura argitaratu zuenaren antzekoak, alegia: inprimaki horretan mademoiselle Antoinetteren liburu batetik hartutako pasarte bat agertzen zen; pasarte honetan dio berak ez zuela Brusselara etorri nahi izan (zuzen oroitzen banaiz) sutan ikusi zuelako hiri hori ametsetan; baina Antoinette hil eta urte askotara gertatu zen bonbardaketa. Nire ezagun bat Frantziara joan zen Nimegako bake-itunarekin amaitutako gerra garaian, Montausierreko eta Pomponneko jaunak⁴⁰⁵ zirikatzen Comeniusek argitaratutako profeziekin; bera ere zeruak argitua sentituko zen (nik uste) proposizio horiek gurea moduko garai batean defendatu behar izan balitu. Honek erakusten digu kasketaldi horien funtsik eza eta arriskua. Profezia faltsuen edota oker ulertuen eragin gaiztoez beteta daude historiak; hala ikus daiteke De officio viri boni circa futura contingentia, Jacobus Thomasius Leipzigerako irakasle defuntuak⁴⁰⁶ egindako hitzaldi burutsu eta zuhurrean. Egia da, halere, sinespen horiek batzuetan eragin ona izan dezaketela eta ekintza handietarako baliagarri izan daitezkeela: Jainkoa, izan ere, errakuntzaz balia daiteke egia ezartzeko edota jagoteko. Ez dut, baina, uste guri aise zilegi zaigunik helburu on baten aitzakitan iruzur debotuez baliatzea. Eta dogma erlijiosoei dagokienez, ez dugu errebelazio berrien premiarik: aski dugu norbaitek arau osasungarriak proposatzea haiek kunplitzeko obligazioa senti dezagun, proposatzaileak mirakulurik egin gabe ere. Jesukristok berak ere, mirakuluak egiteko ahalmena izaki, ezaugarriak eskatzen dituzten arraza gaiztokoen atseginerako ez zituen egin, beraren predikuairen mezua bertutea baino ez baitzen eta lehendik ere profetek eta arrazoi naturalak irakatsitakoa.

XX

Okerkuntza

(§ 1) FILALETES: Egia ezagutzera edo susmatzera garamatzaten bide guztiez nahiko mintzo garelarik, zerbait aipatu behar dugu orain geure errakuntzez eta judizio okerreiz. Euren artean hainbeste eztabaida izaki, gizakiek sarritan huts egin beharko dute derrigor. Horren arrazoiak lau hauetara laburbil daitezke: 1) Frogen eskasia. 2) Hauetaz baliatzeko abilezia gutxi. 3) Berauek erabiltzeko gogo falta. 4) Probabilitateen arau faltsuak. (§ 2) Frogen eskasia aipatzen dudanean, barne hartzen ditut horretarako tresnak eta egokiera izanez gero aurki zitezkeenak; baina horiexek, hain zuzen, falta zaizkigu gehienetan. Halakoxea da gizakion egoera, bizitza ematen baitugu bizibide bila; hain gutxi dakite munduan gertatzen denaz, nola beti bide beretik dabilen zama-zaldiak jakin lezakeen herrialdeko mapaz. Hizkuntzak,

irakurgaia, solasa, naturaren behaketa eta esperientzia artistikoak beharko lituzkete. (§ 3) Hori guztia euren egoerari ez badoakio, gizaki gehienak zorionera edo zoritxarrera azare itsuak daramatzala esatera ausartuko al gara? Garaiko irizpideen menpe edo herrialdeko gidari baimenduen esku abandonatu beharko ote dira betiko zorionari edota zoritxarrari dagokionean ere? Edota zoritxarreko izan liteke betiko norbait herrialde honetan jaiotzeagatik eta ez beste nonbait? Hala eta guztiz ere, aitortu behar da inor ere ez dagoela hain lanpetuta bere bizibidearen arduraz, non ez duen aparteko astirik bere arimaz pentsatzeko eta erlijioaz ikasteko, hauei eskainiko balie gauza askoz ere hutsalagoei ematen dien arreta.

TEOFILO: Demagun gizakiak berez eskolatzeko moduan daudela eta, zuhurki jokatzuz, egia zailen bila abiatzeko ezin dutelarik alde batera utzi euren familiaren bizibiderako ardura, euren lurraldeko arau baimenduak errespetatu beharrean aurkitzen direla ezinbestean; pentsatu beharko da egiazko erlijioa inongo frogarik gabe daukatenengan barne-graziak ordezkatzeko duela sinesgarritasun motiborik eza; eta karitateak, bere aldetik, pentsarazten digu, lehendik adierazi dizudan bezala, errakuntzarik arriskutsuenen iluntasun zarratuan hezitako gogo oneko pertsonen alde Jainkoak egiten duela bere ontasunak eta justiziak eskatzen duen guztia, agian guri ezezaguna zaigun modu batez egin arren. Badira historia batzuk, Erromako Elizan txalotuak, laguntza salbatzailerik gabe gera ez zitezen propio berpiztuak izan diren pertsonenak. Jainkoak, ordea, lagun ditzake arimak Izpiritu Santuaren barne-eraginez, mirakulu handi horren premiarik gabe; eta gizadiarentzat ona da eta kontsolagarria jakitea Jainkoaren grazian egoteko aski dela gogo ona, berau zintzoa eta serioa denean. Onartzen dut gogo on hau berau ere ezin dugula Jainkoaren graziarik gabe eduki, ondasun oro, natural zein naturaz gaindiko, beragandik baitator; baina aski da, halere, gogoia baino behar ez izatea, ezinezkoa baitzen Jainkoak baldintza errazagoa eta arrazoizkoagoa eskatzea.

(§ 4) FILALETES: Batzuk nahiko gustura aurkitzen dira euren zalantzak argitzeko erosotasun guztiekin; baina artifizioz jositako traba nahiko nabarmenek hortik desbideratzen dituzte, eta ez ditugu trabok hemen zehaztuko. (§ 5) Eskuan, nolabait esateko, dituzten frogez baliatzeko abileziarik ez duten horietaz nahiago dut hitz egin, ez baitira gai ondorio zerrenda luzea oroitzeko, ez eta zirkunstantzia guztiak neurtzeko. Batzuk silogismo bakarrekoak dira, beste batzuk bikoak. Ez da hau leku egokia akats hori arimen beraien arteko diferentziak ala organoen artekoak eragina den edota gaitasun naturalak lantzen dituen ariketarik ezaren menpe ote dagoen zehazteko. Hura ageriko izatearekin aski dugu hemen, eta horretaz jabetzeko joan besterik ez dago Palaziotik edo Burtsatik ospitaletara edota babestokietara.

TEOFILO: Pobreak ez dira behartsu bakarrak, zenbait aberatsek eurek baino premia handiagoak baitituzte, aberatsok gehiegi eskatzen dutelako eta gogapen garrantzitsuak hausnartzea eragozten dien borondatezko pobrezia mota batean sartzen direlako. Ereduak eragin handia dauka. Gure hurbilekoen ereduari jarraitzera gaude atxikita eta kontrako izpiriturik agertu gabe hura praktikatzera behartzen gaituzte; horrek egiten gaitu denok antzeko. Arrazoiari eta ohiturari aldi berean atsegin ematea oso zaila da. Horretarako gauza ez direnak, halere, uste baino gutxiago izango dira, trebezia eskatzen ez denean zentzua eta ahalegina aski baitira, nire ustez. Aurrez suposatzen dut zentzua, ez baitut uste egiaren bilaketa eskatuko diezuenik zoroetxeetako egoileei. Egia da gaixo hauetarik gehienek berreskura lezaketela arrazoimena horretarako bidea jakingo bagenu; eta gure arimen arteko jatorrizko diferentziak izan arren (eta badaudela uste dut), beti da gauza segurua bata bezain urrun bestea joan daitekeela (nahiz eta agian ez hain arin) behar bezala eramaten jakinez gero.

(§ 6) FILALETES: Beste jende mota bati kemena falta zaio. Plazerrari atxikimendu bortitzak, euren fortunari begira etengabeko ahaleginak, nagikeria edo arduragabekeria orokorrak, eta

ikerketari eta meditazioari gorroto bereziak ez diete uzten egiari buruz serioski pentsatzen. Batzuek beldurra ere badiote alderdikierarik gabeko ikerketari, euren aurreiritziei eta asmoiei ondoen doazkien ikuspegietara ez ote diren agian iritsiko. Gauza jakina da batzuek nahiago izaten dutela berri txarrak ekar ditzakeen gutuna ez irakurtzea, beste batzuk, berriz, kontuak ez burutzen ahalegintzen dira edota haziendaren egoeraren berri ez jakiten, inoiz jakiterik nahi ez luketena jakitearen beldurragatik. Batzuek errenta oparoak dituzte eta gorpuzaren atseginerako erabiltzen dute dena, adimenaren hobekuntzan pentsatu ere gabe. Ardura handiak hartzen dituzte beti jantzi garbi eta distiratsuz agertzeko eta ez dute euren arima mesfidantzaren eta errakuntzaren zarpail tristez estalita egotearen penarik, biluztasuna, hots, ezjakina, agertzen bada ere. Etorkizuneko egoeraz hartu beharreko ardura ez ezik, mundu honetako bizitzan ezagutu beharrekoak ere ez die batere axola. Eta bitxia gertatzen da, benetan, agintea eta boterea jaiotzaz edo fortunaz bereganatua uste dutenek sarritan arduragabeki abandonatzea eurak baino maila apalagoko jendearen esku, jakituriaz jantziagoak daudelako; ikusten duenak gidatu behar baitu itsua, zuloan jausiko ez bada, eta ez dago adimenarena baino esklabutza gaiztoagorik.

TEOFILO: Geure benetako interesei begira, gizakion axolagabekeriaren frogarik argiena dugu osasunaren mesedetan zeinen gutxi arduratzen eta saiatzen garen, eta osasuna da, hain zuzen, gure ondasunik preziatuenetarikoa; eta axolagabekeria honen ondorio txarrak handikiak ere ukitzen dituen arren besteak bezainbeste ala gehiago, ez dute horregatik amore ematen. Fedeari dagokionean, gaia eztabaidatzera eramien dezakeen pentsamendua bera deabruaren tentaziotzat daukate askok, eta izpiritua beste zerbaitetara bihurtzea uste dute dela tentaldi hau gainditzeko modu bakarra. Plazerrak baino maite ez dituzten gizakiek edota zereginen batera lotzen direnek gainontzeko arazoak laga egiten dituzte. Jokalariak, ehiztariak, zurrutariak, alprojak, bai eta huskeriazaleak ere, fortuna eta ongizatea galduko dizute auzi bati hasiera eman edota jende prestuarekin solastatu baino lehen. Honorio⁴⁰⁷ enperadorea bezalakoak dira, honek Erromaren galeraren berri jakin zuenean, izen hori bera zuen oilo kutunari buruz ari zirela uste zuen, eta egiak baino gehiago sumindu zuen albiste horrek. Desiragarria litzateke boterea dutenek jakituria ere proportzio horretan izatea; zientziei, arteei, historiari eta hizkuntzei buruz zehaztasunen jabe ez badira ere, irizpide sakona eta esperientziaduna, bederen, eta gauza handi eta orokorren ezagutza, hots, *summa rerum*⁴⁰⁸, aski litzaieke. Augusto enperadoreak estatuko indarren eta beharrianen bilduma zeukan moduan, berak *Breviarium Imperii*⁴⁰⁹ zeritzona, era berean osa zitekeen giza interesen bilduma, *Enchiridion Sapientiae* izenburua mereziko lukeena, gizakiek gehien axola zaienaren ardura hartu nahi izango balute.

(§ 7) FILALETES: Gure akatsik gehienak, azkenik, geuk hartzen ditugun probabilitate neurri faltsuetatik datoz, bai arrazoi nabariak izan arren, judizioa esekita uztean, bai eta berau ematean ere, aurkako probabilitateak egon arren. Neurri faltsuok hauek dira: 1) printzipiotzat hartutako zalantzazko proposizioak; 2) onartutako hipotesiak; 3) grina eta joera menperatzaileak, eta 4) agintea. (§ 8) Normalean egiaz ebatzi ohi dugu guk printzipio erantzun ezinezkotzat hartzen ditugunekiko adostasunaren arabera, eta horrek inoren testigantza gutxiestera garamatza, bai eta gure sentimenena ere batzuetan, haien kontrakoak direnean edota halakotzat hartzen ditugunean; dena den, haietaz hain seguru fidatu aurretik xehetasunik handienaz aztertu beharko genituzke. (§ 9) Aitak, amak, inudeek, irakasleek eta ingurukoek errepikatutako proposizioak bereganatzen dituzte haurrek, eta proposizio horiek errotzen direnean sakratuak dira eurentzat, Jainkoak berak ariman ezarritako *Urim et Thummim*⁴¹⁰ bat bailitzan. (§ 10) Barne-orakulu hauen aurkakoa nozitzea nekeza da eta, aldi berean, absurdurik handienak ere irensten ditugu haiei egokitzen bazaizkie. Hala dirudi iritzi kontrajarriak, fedezko artikulua bailiran, biziki sinesteko zenbait pertsonarengan antzematen den itsukeria gartsuan, hauek ere sarritan beste haiek bezain absurduak izan arren. Hartazue zentzuzko

pertsona bat maxima honetaz konbentzituta, alegia, jaunartzean sinesten dena sinetsi behar da, Wittenbergen⁴¹¹ edo Suedian irakasten den moduan, eta ikusiko duzue nolatan dagoen guztiz prest konsubstantziazioaren doktrina eragozpenik gabe onartzeko, hau da, gauza bera haragi eta ogi aldi berean dela sinesteko.

TEOFILO: Badirudi, jauna, ez zaudela ongi informatua ebanjelikoen sentimenduetan, hauek onartzen baitute gure Jaunaren gorputzaren presentzia erreala Eukaristian. Mila aldiz azaldu dute ez dutela onartzen ogiaren eta ardoaren konsubstantziazioa Jesukristoren haragiarekin eta odolarekin, eta are gutxiago sinesten dute gauza bera haragi eta ogi izatea aldi berean. Irakasten dute, soilik, sinbolo ikusgarri horiek hartzean, Salbatzailearen gorputza geureganatzen dugula era ikustezin eta naturaz gaindikoz, hark ogi barruan ezkutatu beharrik gabe. Eta beraiek ulertzen duten presentzia ez da lekuzkoa edo, nolabait esateko, espaziala, hots, bertan dagoen gorputzaren dimentsioek mugatua: horrela, horren kontra sentimenek eduki dezaketen edozerk ez die axolarik. Eta arrazoimenetik erator daitezkeen eragozpenak ere ez zaizkiela axola adierazteko, baieztatzen dute beraientzat gorputzaren substantzia ez datzala hedaduran edo dimentsioan; eta trabarik gabe onartzen dizute Jesukristoren gorputz dohatsuak nolabaiteko presentzia arrunta eta lekuzkoa daukala, dagoen leku gorenean bere egoerari doakiona, gure solaseko presentzia sakramentalaren guztiz ezberdina, edota Eliza gobernatzeko duen presentzia mirakulutsu horren ezberdina, ez baitago Jainkoa bezala nonahi, berak egon nahi duen lekuan baizik: begiratuenean pentsatzen dute horrela; beraz, doktrina hori absurdua dela erakusteko, frogatu beharko litzateke gorputzaren esentzia hedaduran datzala soilik eta hedaduraren neurripean dagoenean, baina hau ez du, nik dakidala, inork orain arte frogatu. Horiek horrela, zailtasun beroiek ukitzen ditu erreformatuak ere, alegia, galikanoen eta belgiarren sinesbideari jarraitzen diotenak, bai eta Sendomirreko asanbladako⁴¹² agiriaren jarraitzaileak ere; sinesbide augustano eta helvetikoko jendeek osatzen zuten asanblada hau Trentoko kontziliarako prestatu zen sinesbide saxoniarrekin ados; erreformatuen fede-aitorpena, Uladislav Poloniako erregearen agindupean deitutako Thorn-eko⁴¹³ elkarrizketara etorri zirenean, alegia; eta Kalvinen eta Bezaren⁴¹⁴ doktrina iraunkorra, hauek munduko ozentasunik eta segurtasunik handienaz aldarrikatua, hau da, alegia, sinboloek egiazki hornitzen digutela irudikatzen dutena, eta gu Jesukristoren gorputzaren eta odolaren substantziaren partaide egiten garela. Eta zigilu gisako pentsamenduzko partaidetza metaforikoarekin edota fede-batasunarekin kontentatzen direnei ihardetsi ondoren, Kalvinek eranstean du errealtate hori ezartzeko ezingo dela sendorik deus baieztatutako berak sinatuko ez lukeenik, lekuen mugatzeari eta dimentsioen difusioari dagokiona saihestuz gero; halako moldez non, funtsean haren doktrinak Melanchtonena⁴¹⁵ baitzirudien eta Lutero berarena ere (hala ematen du aditzera Kalbinek bere gutun batean), salbuespen honekin, alegia, Lutero askiesten duen sinboloen pertzepzioaren baldintzaz gain, Kalbinek fedearen baldintza eskatzen duela, duin ez direnen parte hartzea aldentzeko. Eta komunio erreala honetaz bere idazkietako ehundaka pasartetan bai eta, inolako premiarik gabe, senitarteko gutunetan ere hain konbentzituta aurkitu dut Kalvin, artifizio hutsetan ote zebilen susmatzeko arrazoirik ez dut inondik ikusten.

(§ 11) FILALETES: Jaun horietaz mintzo, irizpide arrunta erabiliagatik barkamena eskatzen dut. Orain gogoratzen dut inoiz ohartu naizela Eliza anglikanoko teologo txit jakintsu zenbait agertu izan direla parte-hartze erreala honen alde. Baina printzipio ezarrietatik pasa gaitezen onartutako hipotesietara. Hipotesiak baino ez direla onartzen dutenek gartsuki eusten diete sarritan, printzipio ziurtatuak bailiren ia-ia, aurkako probabilitateak mesprezatuz. Jasan ezinezko gertatuko litzaioke irakasle prestu bati irakasle etorri berriak instant batean aginpidea lurjota utziko balio bere hipotesiak

errefusatzuz; hogeita hamar, berrogei urtez arrakastari eutsi dion aginpidea, esan nahi dut, neke handiz lortutakoa, grekoz eta latinezko putzu sakonaren gainean eraikia, tradizio orokorrak eta bizar beneragarriak sendotua. Bere hipotesiaren faltsutasunaz konbentzitzeko erabil daitezkeen argumentu guztiek ez dute eraginik izango haren izpirituan; Boreasek bidaiariari kapa erantzartzeko ahaleginak izan ez zuen bezalatsu, zenbat eta haizeak bortitzago jo orduan eta tinkoago eusten baitzion honek.

TEOFILO: Egia da. Kopernikarrek frogatu ahal izan dute euren aurkariengan halakotzat hartzen diren hipotesiak ere grina biziz defendatzen direla. Eta kartesiarrak euren partikula ildokatuen eta bigarren elementuko bolatxoan alde, Euklidesen teoremak balira bezain gartsu agertzen dira; gure hipotesien aldeko sugarra, dirudienez, geure buruak errespetarazteko daukagun grinaren ondorio baino ez da. Egia da Galileo epaitu zutenentzat lurraren pausagunea hipotesia baino zerbait gehiago zela, Eskriturarekin eta arrazoiarekin ados zegoelako, euren ustez. Gero frogatu da arrazoiak behintzat ez diola askorik eusten; eta Eskriturari dagokionez, Aita Fabry⁴¹⁶ San Pedroko penitentiariak, teologo eta filosofo bikaina bera, Eustakio Divini optikari famatuaren azterketen apologia Erroman bertan argitaratzera ausartu zenak, erreparurik gabe azaldu zuen testu sakratuan eguzkiaren benetako mugimendua behin-behingo soilik ulertzen zela, eta Kopernikoren pentsamoldea inoiz egiaztatuko balitz, eragozpenik gabe azal zitekeela, Virgilioren pasarte hau bezala:

*terraeque urbesque recedunt.*⁴¹⁷

Hala eta guztiz, Italian eta Espainian eta enperadorearen menpeko herrialdeetan, oraindik ere galarazita dago Kopernikoren doktrina zabaltzea, nazio horien kalterako, bertako izpiritua aurkikuntza ederragoetara gailenduko baitziren askatasun razionalaz eta filosofikoaz gozatuko balute.

(§ 12) FILALETES: Zuk diozunez, grina menperatzaileak dira, antza, hipotesienganako zaletasunaren iturburu; hauek, ordea, askoz ere urrutirago hedatzen dira. Munduko probabilitaterik handienak ez dizu ezertarako balio diruzale eta gutziatsu bati bere injustizia begi bistan jartzeko; eta amorantea engainatzeko munduko erraztasun guztiak izango ditu andre maitatuak, hain da egia nahi duguna aise sinesten dugula, eta Virgiliok dioenez:

*qui amant ipsi sibi somnia fingunt.*⁴¹⁸

Horregatik daude bi ihesbide probabilitaterik agerikoenetatik urruntzeko, hauek gure grinei eta gure aurriritziei erasotzen dietenean. (§ 13) Lehena da guri eragozpenak ezartzeko erabiltzen den argumentupean ezkutaturik sofismakeriaren bat egon daitekeela pentsatzea. (§ 14) Eta bigarrena, guk ere lehiakidea azpiratzeko, horrenbesteko argumentuak edo agian hobeak ere kontrajar genitzakeela suposatzea, argumentuok aurkitzeko behar ditugun aukera, abilezia eta laguntza edukiko bagenu. (§ 15) Konbentzimendutik norbera defendatzeko bitarteko hauek onak dira batzuetan, baina bestetan sofismak izan daitezke gaia nahiko argi dagoenean eta deus ahaztu ez denean, zeren hau eginez gero badugu modurik, oro har, probabilitatea zein alderditan aurkitzen den jakiteko. Horrela, ez dago zalantzarik animaliak eragile adimendun batek zuzendutako mugimenduen bidez osatuak izan direla onartzeko, eta ez atomoen arteko ustekabeko pilatzeaz; era berean, ez du inork zalantza ñimiñorik ere egingo hitzaldi ulergarri bat osatzen duten inprenta-ikurrak pertsona arretatsu batek elkartu dituela, ez berezko nahaspilak. Horrelakoetan esango nuke ez dagoela gure esku baiezkoa ukatzea; baina, egin dezakegu probabilitatea hain nabari gertatzen ez denean, eta orduan froga ahulagoekin ere aski izan dezakegu, hauek gure joerei hobeto badoazkie. (§ 16) Benetan deritzot ezinezko gizakiak probabilitaterik gutxien ikusten duen alderdirantz jotzea; pertzepzioa, ezagutza eta baiespena ez dira arbitrarioak, eta ez dago nire esku ideia biren arteko egokitzapena ikustea ala ez ikustea, nire izpiritua haienganantz bideratzen denean. Halere, nahita gerarazi dezakegu gure ikerketen aurrerapena; ezjakina edo okerkuntza ez

litzateke hori gabe inoiz bekatu izango. Hor erabiltzen dugu gure askatasuna. Egia da interesik gabeko egoeretan irizpide arruntari jarraitzen diogula edota lehenik mintzo zaigunarenari, baina gure zoriona edo zoritxarra ukitzen duten gaietan izpirituak serioскиago neurtzen ditu probabilitateak, eta nire ustez, kasu honetan, hots, arreta jartzen dugunean, ez dago gure esku nahi dugun alderdirantz jotzea, bi aukeren artean ezberdintasun nabarmenak daudenean; probabilitaterik handienak ebatziko du gure baiespera.

TEOFILO: Funtsean zeure iritziko nauzu eta horretaz nahiko mintzo izan gara aurreko solasaldietan, askatasunaz hitz egin dugunean. Orduan adierazi dut ez dugula inoiz sinesten guk nahi duguna, itxurazkoen ikusten duguna baizik: hala eta guztiz, ordea, sinestarazi diezaiokegu geure buruari zeharka guk nahi duguna, gai ezatsegin batetik arreta apartatuz eta atsegin zaigun beste batez arduratuz; baina honek berekin darama, gure gai kutunaren arrazoiei lehentasuna ematen diegularik, azkenean egiantzekoentzat hura hartzen dugula. Arretarik ia jartzen ez diegun irizpideak arrazoi arinez onartu egiten ditugu, kontrajartzen zaien ezer kontuan hartu ez eta ohartarazi zaigun iritzia are eta gehiago gaintitzen duelarik kontrakoa, eta honek ez du deus aldekorik gure pertzepzioan; batetik eta bestetik arrazoi anitz balego bezala, zeren 0 eta 1aren arteko diferentzia edota 2 eta 3aren artekoa, 9 eta 10aren artekoa bezain handia baita, eta ez gara abantaila horretaz jabetzen, ebatzeko burutu beharko litzatekeen azterketa ez kontsideratzean, horretara inork gonbidatzen ez bagaitu ere.

(§ 17) FILALETES: Azpimarratu nahi dudana probabilitatearen azken neurri faltsua oker ulertutako agintea da, honek jende gehiago iraunarazten baitu ezjakinean eta okerkuntzan gainontzeko guztiek batera baino. Zenbat pertsona ikusten dugu euren pentsamoldearen funtserako gure adiskideen irizpide arruntak eta gure lankideenak besterik ez dituztenak edota gure taldekoa edo herrikoa? Antzinate benegarriak onetsi du halako doktrina; niganaino iritsi da aurreko mendeen berronespenarekin; beste askok onartzen dute; beraz, hura onartzean okerraren arriskutik babestuta sentitzen naiz. Arau horiek jarraitzea bezain funts egokia litzateke nork bere iritzia lion ala kastillo-ka erabakitzea. Edonor oker daitekeenez gain, jankintsuak eta taldeburuak eragiten dituen arrazoi sekretuak ikusi ahal izango bagenitu, sarritan egiaren maitasun garbia ez den zerbait aurkituko genuela uste dut. Gauza ziurra da, dena den, ez dagoela funts horietan oinarrituta onar ez daitekeen irizpide absurdurik, errakuntza ia guztiek izan baitituzte euren jarraitzaileak.

TEOFILO: Aitortu behar da, halere, sarritan ezinbestean makurtu beharra dagoela agintearen aurrean. San Agustinek idatzi zuen liburu irakurgarri eta nahiko bitxi hau, *De utilitate credendi*; onartutako irizpideek euren mesedetan daukate legelariak presuntzioa deritzoten horrek dakarrenaren antzeko zerbait; eta frogarik gabe errespetatu beharrik ez badugu ere, ez zaigu zilegi haiek inoren izpirituan deusezte kontrako frogarik gabe. Ezin baita deus arrazoirik gabe aldatu. Nicole jaun defuntuak Elizari buruzko bere liburua⁴¹⁹ argitaratu zuenetik asko eztabaidatu da pentsamolde bat onesten dutenen gehiengoaren argumentuari buruz; baina, arrazoiaren bat onesteko, ez egintza bat testifikatzeko, argumentu horretatik atera daitekeena esan berri dudanean laburbildu behar da derrigor. Ehun zaldik zaldi bakar batek baino arinago korritzen ez duten bezala, indar gehiagok tira balezakete ere, halatsu gertatzen da ehun pertsona eta bakarra konparatzen ditugunean: zuzenago ezingo dira joan, bai ordea lan eragingarriagoa egin; ezin dute hobeto ebatzi, baina epaia burutu dadin material gehiago biltzeko gauza dira. Hortik esaera zaharraren esanahia: *plus vident oculi quam oculus*⁴²⁰. Biltzarretan ikusten da hau, mahaiaren gainera aurkezten direnean bati ala biri itzuri egingo litzaizkiekeen hainbat burutapen; sarritan, ordea, burutapen horien guztien artean aukera egiterakoan, alderdirik onenaren alde ez erabakitzearen arriskua izaten da, hausnartzeko eta baloratzeko pertsona prestuak ez daudenean. Horregatik Erromako alderdiko zenbait

teologo zuhur konturatu dira Elizaren agintea, hots, kargu gorenekoak eta jendetzak gehien aupatzen duena ezin dela finko ziurtatu arrazoinamenduzko arazoetan eta aginte hori egintzen testifikazio hutsera murriztu dute eta horri tradizioa deitu diote. Hau izan zen Henri Holden⁴²¹ ingelesaren iritzia, Sorbonako doktorea bera, Fedearen azterketa liburuaren egilea; bertan defendatzen du, Vincent de Lerinsen Commonitorium-en⁴²² printzipioen ildotik, Elizan ezin dela ebazpen berririk hartu eta kontzilioan bildutako gotzainek egin dezaketen gauza bakarra dela euren elizbarrutietan indarrean dagoen doktrinaren testigantza eman. Printzipio hau engainagarria da gehientsuenen arlora mugatzen garelako; egintzetara hurbilduz, ordea, gertatzen da herrialde ezberdinetan irizpide ezberdinak izan dituztela aspaldidanik; eta herrialde berean ere zuritik beltzera aldatu izan da, aldaketa sentiezinen aurkako Arnaud jaunaren argumentuak gora-behera⁴²³; gehienetan gainera, testigantza ematera mugatu beharrean epaiak ematen nahasi dira. Berdin pentsatzen du funtsean Gretserrek, Bavierako jesuita famatuak⁴²⁴, bere Ordenako teologoen onartutako Fedearen azterketa berriaren egilea berau; honen ustez, Elizak ebatzi dezake eztabaidetan fedeko artikulua berriak xedatuz, Izpiritu Santuaren babesaren promesa baitu, nahiz eta gehienetan sentipen hau maskaratu nahi izaten den, Frantzian batez ere, lehendik ezarritako doktrinak argitzea izango bailitzan Elizaren eginkizun bakarra. Argitzapen hau izan daiteke lehendik onartutako enuntziazioa edota onartutako doktrina horretatik ondorioztatu uste dugun doktrina berria. Lehenengo zentzuari praktika kontrajartzen zaio gehienetan; eta bigarren zentzuari ezartzen den enuntziazioa, zer besterik izan daiteke fedeko artikulua berria ez bada? Hala eta guztiz, erlijio-gaietan ez naiz ni antzinakoa mesprezatzearen aldeko; eta gainera, esan daitekeela uste dut Jainkoak babestu egin dituela doktrina salbatzailearen kontrako oker guztietatik orain arte zinez ekumenikoak izan diren kontzilioak. Gainerakoan alderdien prebentzioa gauza bitxia da: ikusi izan dut jendea gartsuki irizpide bati atxikia, euren ordenean onartua izan delako, beste arrazoirik gabe, edota soilik irizpide hau beraien gustukoa ez den pertsona, erlijio edo naziokoaren kontrakoa delako, nahiz eta arazo horrek ia zerikusirik ez izan, ez erlijioarekin, ez herrien interesekin. Beraiek ere agian ez zekiten hau zela euren afanaren egiazko iturburua: nik, ordea, argi ikusten nuen norbaitek hau edo beste idatzi zuela jakin bezain pronto bibliotekak arakatzen hasten zirela eta euren basa izpirituak zorrozten, hura errefusatzeko zerbaiten bila. Oraindik ere sarritan praktikatzen da hau doktoradutzarako tesiak unibertsitateetan defendatzen dutenen artean, aurkarien kontrako jarrera azpimarratu nahi dutelako. Eta zer esango dugu alderdi bakoitzeko liburu sinbolikoetan preskribitutako dotrinez, protestanteenak barne, sarritan zinpean onartu beharrekoak? Liburu edo formulario horiek Eskritura Santutik hartu dutenaren aitortza egiteko obligazio soilak ezartzen digute batzuek, beste batzuek, ordea, kontra egiten diete. Erromako alderdiko ordena erlijiosoetan, berriz, euren Elizak erabakitako doktrina gutxi balitz ere, muga are eta estuagoak ezarri dizkiete eurak irakatsiari. Froga gisa, Claude Aquaviva jesuiten jeneralak⁴²⁵ (oker ez banago) euren eskoletan irakastea debekatu zuena. Ongi legoke (bidenabar) kontzilioek, aita santuek, gotzainek, fraideburuek eta fakultateek ebatzitako eta zentsuratutako proposizioen bilduma sistematikoa egitea, Elizaren historia osatzeko balioko bailuke. Pentsamolde bat irakastearen eta hartzearen artean bereizketa egin daiteke. Ez dago munduan zinik, ez debekurik pertsona bat iritzi berean mantentzera derrigortu dezakeenik, pentsakerak berez baitira nahi gabekoak; baina, doktrina arriskutsua irakasteari uko egin ahal eta behar zaio, salbu eta kontzientziak horretara behartzen ez zaituen. Eta kasu horretan zintzoki adierazi eta lanpostua utzi egin behar du irakasteko kargua duenak, hori egiteak arrisku larririk ekarriko ez badio; arrisku kasuan, ixilean uztera behartuta legoke. Nekez aurkituko da

beste biderik publikoaren eta partikularren eskubideak adosteko: bata, izan ere, gaizki deritzona eragotzi behar baitu, besteak, oster, ezin die uko egin bere kontzientziaren aginduei.

(§ 18) FILALETES: Publikoa eta partikularren arteko kontrajartze hau edota iritzi publikoak eta alderdi ezberdinena ere ezinbesteko gaitza da. Baina sarritan kontrajartzeak itxurazkoak baino ez dira, formulatan dautza soilik. Orobat esan behar dut, gizateriari justizia egiteko, uste izaten den beste jende ez dela errakuntzan bizi; ez dut esan nahi egia bereganatu dutela, doktrina hain zaratsuen artean ez baitaukate inongo ideia positiborik, eta deus azertu gabe eta auzipean dagoen arazoaz izpirituan ideia xumeenik ere ez dutelarik, euren alderdira lotzen dira bete-betean, defendatzen dutena aztertzeke atsedetik hartzen ez duten soldaduek bezala; eta bere bizitzaz norbaitek adierazten badigu ere ez daukala erlijioaren inongo ardura zintzorik, irizpide arrunta defendatzeko eskua eta mihia prest izatearekin aski du, lagun diezaioketenen gomendioa lortzeko.

TEOFILO: Gizateriari eskaintzen diozuen justizia honek ez dio mesede handirik egiten; gizakientzat barkagarriago litzateke euren irizpideei zintzoki jarraitu izana, hauek interesagatik desitxuratzea baino. Agian, halere, zuk aditzera ematen duzun baino zintzotasun handiago dago haien egintzetan. Izan ere, inongo kausa-ezagutzarik gabe iritsi ahal izan baitira fede inplizitura orokorrean, eta batzuetan itsuki, sarritan on-ustean ere, eurek inoiz aginpide eman dietenen iritzietara makurtuz. Egia da horretan aurkitzen duten interesa menpekotasunaren mesedetan dela, baina hala eta guztiz, azken finean iritzia osatu egiten da. Erromako Elizan aski da, hor nonbait, fede inplizitu hau, agian errebelaziotiko fede artikulurik ez dagoelako erabat oinarritzkoa denik eta necessitate medii derrigorrezkotzat har daitekeenik, hau da, salbaziorako guztiz ezinbestekoa litzatekeena hura sinestea. Halakoxeak dira denak necessitate praecepti, Elizari zor zaion obedientzia irakasten baita eta beronek proposatzen duenari arretarik handiena, hau guztia bekatu larriaren zigorpean. Baina, halabehar honek arrazoizko menpekotasuna eskatzen du, ez zaitu absolutuki baiespena behartzen, Eliza horretako doktorerik jakintsuenen iritziz. Baina, Belarmino kardinalaren⁴²⁶ beraren ustez ere, ez zegoen ezer hoberik hauraren fede hau baino, ezarritako aginpideari makurtzen zaiona, alegia; eta, ontzat hartuz, kontatzen digu berak hilzorian zegoen baten ateraldia, deabrua urrundu nahian sarritan entzuten omen zitzaion eta, gurpil zoro hau:

Elizak sinesten duen guztia sinesten dut,

Nik sinesten dudana sinesten du Elizak.

XXI

Zientzien banaketa

(§ 1) FILALETES: Helmugara iritsi gara eta argitu ditugu adimenaren ekintza guztiak. Ez gara gure ezagutzei buruzko xehatasunetan sartuko, baina, amaitu aurretik, haien berraztertze orokorra egiteko abagune ona izan daiteke, zientzien banaketa kontuan hartuz. Giza adimenaren esparruan sar daitekeen oro berez da edo gauzen izakera edota bigarrenik, bere helbururantz, zorionerantz bereziki, joera duen gizakia eragile gisa, edo hirugarrenik, ezagutza gureganatzeko eta hedatzeko bideak. Horra zientzia, hiru espezieetan banatuta. (§ 2) Lehen, fisika edo filosofia naturala da, gorputzak eta euren legeak ezezik, kopurua eta irudia besteak beste, izpirituak, Jainkoa bera eta aingeruak ere barne hartzen dituen. (§ 3) Bigarrena, filosofia praktikoa edo morala, gauza onak eta erabilgarriak lortzeko modua irakasten duena, eta egiaren ezagutza ezezik, zuzenaren praktika ere helburu duena. (§ 4) Hirugarrena, azkenik, logika edo zeinuen ezagutza, (GREKOZ logos) hitza baita grekoz. Eta gure artean pentsamenduak elkartrukatzeko gure ideien zeinuak behar ditugu, bai eta gure usadiorako jaso nahi baditugu ere. Berezi eta ahalik eta ardurarik handienaz gogoan hartuko bagenu azken zientzia-espezie hau ideien eta hitzen inguru osatzen dela, agian orain arteko logika eta

kritika gaur egun ezberdinak lirateke. Hiru espezie hauek, fisika, morala eta logika adimenaren munduko hiru herrialde handi bezala dira, elkarrengandik erabat aske eta ezberdinak.

TEOFILO: Banaketa hau famatua izan zen antzinekoen artean, logikaren izenpean hartzen baitzuten, zuk zeuk bezala, hitzei eta gure pentsamenduen azalpenari dagokion guztia: artes dicendi. Bada, halere, zailtasunik hemen; arrazoitzeko, juzgatzeko eta asmatzeko zientzia, izan ere, oso bestelakoa baitirudi hitzen etimologiaren ezagutzarekin eta hizkuntzen erabilera zehazgabe eta araugabekoarekin konparatzen badugu. Gainera, hitzen esanahia azaltzeko zientzietara jo beharra daukagu, hiztegieta ikusten denez; eta, bestalde, ezin da zientzia ukitu terminoen definizioak aldi berean eman gabe. Baina zientzien banaketa honetan aurkitzen dugun eragozpen nagusia hau da, alegia, atal bakoitzak, itxuraz, guztia biltzen duela, lehenik morala eta logika fisikaren esparruan sartuko baitira, berau azaldu berri dugun orokortasunean hartuta; zeren eta izpirituez mintzo garenean, hau da, adimena eta nahimena duten substantziez, eta adimen hau sakonetik azaldu nahi dugunean, logika sartuko baita; baina bestalde, izpirituen doktrinan nahimenari dagokiona azaltzean, ona eta txarra, zoriona eta miseria aipatu beharko genuke, eta doktrina hau apur bat aurrera bultzatzea aski izango duzu bertan filosofia praktiko osoa sartzeko. Eta alderantziz ere, dena sar daiteke filosofia praktikoan gure zorionerako den heinean. Badakizu teologia, arrazoiz, zientzia praktikotzat hartu dela, eta lege-jakintza eta medikuntza ez dira gutxiago; beraz, giza zorionaren eta gure ongiaren eta gaizkiaren doktrinak ezagutza horiek guztiak bereganatuko ditu, arrazoimenak planteatzen duen helbururako balio duten bitarteko guztiak doiki agertu nahi izanen ditugunean. Hala ulertu du dena Zwingerusek bere Giza bizitzako antzerki metodikoan, gero Beyerlingek ordena alfabetikoan⁴²⁷ ipintzean hondatu bazuen ere. Eta gaiak oro hiztegi bidez lantzean ordena alfabetikoaren arabera, hizkuntzen doktrinak (antzinakoeekin ados, logikan kokatzen duzuna), gogoetazkoak alegia, beste bien esparrua hartuko du. Horrela, entziklopediako zure hiru lurralde handiak etengabeko gudan arituko dira, elkarren eskubideetan nahasi nahian. Nominalistek uste izan dute egiak bezainbeste zientzia partikular izan direla eta gero guk moldatu ahala osatzen direla; beste batzuek, berriz, gure ezagutzen multzoa ozeanoarekin parekatzen dute, ozeanoa bakarra baita berez eta lerro arbitrarioek zatikatzen dute kaledoniar, atlantiko, etiopiar eta indiarrean. Egia bat eta bera leku ezberdinetan koka daiteke, barne dituen atalen arabera, bai eta bera menpeko duten bitarteko atalen eta kausen arabera edota beragandik atera daitezken ondorioen eta efektuen arabera ere. Proposizio kategoriko bakunak bi termino baino ez ditu; proposizio hipotetikoak lau izan ditzake, enuntziatu konposatuak aipatu gabe. Historia gogoangarri bat historia unibertsalaren ataletan sar dezakegu baita berau gertatu zen herrialdeko historiaren baitan ere edota parte hartu zuen pertsona baten historian. Eta agindu moral bikaina bada edo gudako estratagemaren bat edota gizakion osasunerako edo bizimodu erosorako balio duten arteetarako asmaketa baliagarria, historia hau berau dagokion zientzia edo arteari atxikiko zaio onuraz eta aipatua izan liteke zientzia beraren atal ezberdinetan, esaterako, jakintzagaien historian egiazko aurrerakuntza agertzeko eta aginduetan, hauek eredu bidez argitzeko eta ziurtatzeko. Adibidez, Cisneros kardinalaren bizitzan kontatzen da⁴²⁸ emakume mairu batek sendatu ziola sukar hektiko larria igurtzi soilez; gertaera honek lekua merezi du medikuntza sisteman, bai sukar hektikoaren atalean, bai senda-dietaz edo ariketez diharduenean; eta esperientzia honek balioko digu, halaber, gaitz horren zergatiak hobeto ikertzeko. Horrez gain, medikuntza-logikan ere aipagarri litzateke, sendagaiak aurkitzearen arteaz baita, edota medikuntzaren historian ere, sarri gizakiok sendabideak nola deskubritzen ditugun jakinarazteko, maiz deskubritu izan baita enpiriko sinpleen edota berriketazaleen bidez. Beveroviciusek⁴²⁹ antzinako medikuntzaz idatzitako liburu bikaina, mediku ez zirenen idazleetan oinarritua, askoz ere bikainagoa litzateke idazle modernoak ere erabili izan balitu. Argi dago, beraz, egia batek berak leku asko bete ditzakeela, erants dakizkiokeen erlazio

ezberdinen arabera. Bibliotekak sailkatzen dabiltzanek ez dakite sarritan zein leku dagokien liburu batzuei, hiruzpalau leku egokiren zalantzak izaten dituzte. Baina gatozen doktrina orokorretara, albora utzita gertakari zehatzak, historia eta hizkuntzak. Bi erabide nagusi aurkitzen ditut doktrinazko egia guztietan, bakoitza bere garrantziarekin, eta batu egin beharko genituzke. Sintetikoa eta teorikoa litzateke bata, frogen arabera egiak sailkatzen dituen, matematikak egin ohi duenez, halako moldez non proposizio bakoitza bera menpean hartzen dutenen ondoren etorriko bailitzateke. Beste erabidea analitikoa eta praktikoa litzateke, giza helburuetatik, hots, ondasunetatik hasita, hauen gailurra zoriona delarik, eta ondasun horiek eskuratzeko eta horien aurkako gaitzak galarazteko bideak aurkituz lehenespen-hurrenkeraz. Eta bi metodo hauek enziklopedian kokatzen dira, oro har, batzuek dagoeneko zientzia partikularretan praktikatu dituzten eran; geometria bera ere, Euklidesek sintetikoki zientzia gisa erabili zuen, beste batzuek, aldiz, arte gisa hartzen dute eta demostratiboki ere erabil zitekeen, bere asmaketa erakutsiko lukeen eran; irudi lau guztiak neurtzen norbait saiaturiko balitz bezala: lerrozuzenekoetatik hasita, triangelutan bana daitezkeela ohartuko litzateke eta triangelu bakoitza paralelogramo baten erdia dela, eta paralelogramoak errektangelutara labur daitezkeela, eta hauek aise neurtzen dira. Baina entziklopedia idatziko balitz bi erabide hauei jarraiki, erreferentziazko aurkibideak antolatu beharko lirатеke, errepikapenak saihesteko. Bi erabide hauei hirugarrena erantsi beharko litzateke, terminoena alegia, eta hau nolabait zerrenda litzateke, sistematikoa batzuetan, nozio guztiei doazkien zenbait predikamenturen arabera terminoak sailkatuz, edota alfabetikoa, jakintsuen artean onartzen den hizkeraren arabera. Ezinbestekoa litzateke zerrenda hau, terminoa modu nahiko nabarmenean sartzen den proposizio guztiak elkartzeko; izan ere, aurreko bi ikuspuntuen ildotik, egiak euren jatorriaren ala euren erabileraren arabera sailkatuz, termino bat berari doazkion egiak ezingo lirатеke elkarrekin aurkitu. Adibidez, angeluaren erdia nola aurkitu irakasten zuenean Euklidesek ezin zuen erantsi herena aurkitzearen bidea, sekzio konikoez mintzo behar zelako eta artean hauek ezin ziren ezagutu inguru hartan. Zerrendak, ordea, adierazi ahal eta behar du gai berari doazkion garrantzizko proposizio guztien kokapena. Horrelako zerrenda baten premia daukagu geometrian, eta balio handikoa litzateke asmakuntzari bide egiteko eta zientziaren aurrerakuntzan, oroimenarentzat atsedean izango baitzen eta ez genuke sarritan berriro ikertu beharrik izango lehendik aurkituta dagoena. Zerrenda horiek, arrazoi askorengatik, arrazoimenak botere eskasagoa duen gainontzeko zientzietan ere guztiz erabilgarriak lirатеke, eta medikuntzan batez ere ezinbestekoak. Zerrenda hauek osatzeko artea ez zen samurrenetakoa izango. Kontuan hartuz hiru erabide hauek, guztiz bitxia aurkitzen dut zuk berreskuratutako banaketa zaharrarekin bat datozela: honen arabera, zientzia edota filosofia sailkatzen baita teorikoan, praktikoa eta dikurtsiboan edota fisikan, moralean eta logikan. Erabide sintetikoa teorikoari dagokio, analitikoa praktikoa eta terminoen arabera zerrendarena logikari; antzinako banaketa hau oso egokia da erabide horiek azaldu ditudan moduan ulertuz gero, hots, ez zientzia ezberdinak bailiran, egia beraien sailkapen ezberdinak bezala baizik, errepikatzea komenigarri zaigun heinean. Zientzien banaketa zibila ere egin daiteke, fakultateen eta lanbideen arabera. Unibertsitateetan eta biblioteketako fitxategietan arras erabilia da; Draudiusek eta Lipenius⁴³⁰ haren jarraitzaileak, liburu katalogorik handiena, ez onena, utzi zigutenek, Gesnerren⁴³¹ Pandecten metodo erabat sistematikoari jarraitu beharrean, gaien banaketa handia nahiko izan zuten (liburu-saltzaileak modura gutxi gora-behera) lau fakultateen arabera (hala deritze), teologia, jurisprudentzia, medikuntza eta filosofia; eta liburuen izenburuetan agertzen diren termino nagusien ordenamendu alfabetikoaren arabera sailkatu dituzte fakultate bakoitzeko izenburuak; ihardunbide eroso egile horientzat, horrela ez baitute liburua ikusi beharrik ez eta liburuak lantzen duen gaia menperatu beharrik, baina ez da aski gainontzekoentzat, antzeko esanahia duten beste izenburuetara igorpenak egiten ez badira; zeren, akatsak aipatu gabe ere, sarritan agertzen

baita gauza bera izen ezberdinez, hala adibidez: observationes juris, miscellanea, conjectanea, electa, semestria, probabilia, benedicta⁴³² eta antzeko hainbat inskripzio; legelarien liburu horiek guztiak zuzenbide erromatarren bildumak baino ez dira. Horregatik da egokiena, zalantzarik gabe, gaien erabide sistematikoa, eta honi erantsi diezaiokegu aurkibide alfabetiko zabalak terminoen eta egileen arabera. Lau fakultateen arabera jaso dugun banaketa zibila ez da gutxietsi behar. Teologiak betiko zorionaz dihardu eta honi dagokion guztiaz, arimaren eta kontzientziaren menpe dagoen heinean; de foro interno deritzonari buruzko jurisprudentzia modukoa da eta substantzia eta adimen ikustezinak darabiltza. Jurisprudentziaren gaiak gobernua eta legeak dira, xedetzat gizakion zoriona dutenak, kanpotik eta era sentigarritz mesede egin dakioken neurrian; baina izpirituaren izaeraren menpe dagoenari erreparatzen dio nagusiki eta ez du askorik sakontzen izaera jakinekotzat dituen gorputzezko gauzen xehetasunetan, gero haietaz baliatzeko. Horrela, abiapuntutik saihesten du giza gorputzaren osasunari, sasoiari eta perfektzioari lotutako puntu garrantzitsua, medikuntza fakultatean irakasten baita honen zainketa. Batzuen ustez, eta arrazoiz, fakultate ekonomikoa erantsi geniezaieke aurrekoei, arte matematikoak eta mekanikoak barne hartuz eta giza iraupenaren eta bizitzako erosotasunen xehetasunari dagokiona, nekazaritza eta arkitektura barne. Eta nagusi deritzen hiru fakultateek biltzen ez dutena filosofia fakultatearen esku uzten da; ez dago ongi egina, ez baitaie praktikaz perfektzionatzeko aukerarik ematen laugarren fakultatekoei, gainontzekoetan irakasten ari direnek egin dezaketen moduan. Horrela, matematika salbu, filosofiako fakultatea besteetan sartzeko atarizat hartzen da. Horregatik nahi izaten da bertan gazte jendeak historia eta solas-arteak ikas ditzan, bai eta teologiaren eta jurisprudentzia naturalaren lehen gai batzuk, jainko eta giza legeetatik at, metafisika edo pneumatika, moral eta politika izenburuaz, fisika apur batez nahastuta, mediku gazteentzat probetxuzko izan dadin. Zientzien banaketa zibila da hau, irakasle jakintsuen talde eta lanbideen arabera, eta ez ditugu hemen aipatuko idatzi gabe jendearentzat lan egiten dutenak, benetako jakintsuen gidaritzapean egon beharko luketenak, jakintza egokiro antolatuko balitz. Eskulanik nobleenen artean ere jakintza oso ongi kideratu da egikera praktikoarekin, hobeto egin zezakeen arren. Hala elkartzen dituzte medikuntzan, ez antzinakoak bakarrik (medikuak zirujau eta botikari ere bazirenean), gaur egun ere, batik bat kimikarien artean. Praktika eta teoriaren arteko elkarlan hau gerra garaian gertatzen da edota ariketak deritzena irakasten dutenen artean, baita pintore, eskultore, musikari eta beste virtuosi taldeetakoen artean ere. Lanbide eta arte edota bizibide hauen guztien oinarriak era praktikoan filosofoei irakatsiko balitzaizkie, edota beste nolabaiteko jakintsuen fakultatean, jakintsu hauek lirakeke gizateriaren arauemaileak. Horretarako aldatu egin beharko genuke gauza askotan literaturaren eta gazteen heziketaren gaurko egoera eta, ondorioz, Estatuaren antolamendua. Eta gizakiak zenbat aurreratu duen azken mende pare honetan, eta askoz ere urrunago iristea eta zoriontsuago izatea zeinen erraz litzaiokeen pentsatzen dudanean ez dut etsipenerako aitzakiarik; aro lasaiago batean hobekuntza nabarmenak etorriko direla espero dut, Jainkoak gizateriaren onerako sortaraz lezakeen printze handi baten manupean.

Oharrak

1 Irakaskuntza akroamatikoa ahozkoaren transkripzio soilean oinarritzen zen, zuzenean idatzitako doktrinen aurrez aurre.

2 Aristoteles, Arima, III, 4 429a 15, 429b 30.

3 (San Paulo, Erromatarrei, 2, 15).

4 Hala deritze Euklidesek (Elementuak, I. liburua, III), eta honen ildotik antzinako hainbat matematikok.

5 Julio Zesar Scaliger (1484-1558) mediku eta filologo italiar ospetsua. Hitz hauek Electa Scaligerea, 1634an argitaratutako maxima eta agindu hautatuen bildumatik hartu dira. (betikotasunaren haziak), (su biziak).

6 Errusiako iparraldean, Arktiar Ozeano artxipelagoa.

7 Robert Boyle (1627-1691) fisikari eta kimikari ingeles ospetsua; hemen aipatzen den liburua Discourse about the absolute rest in bodies da, 1669an argitaratua eta 1671ean latinera itzulia.

8, Virgilioren aipu ezegokia (Georgikoak, IV, 393).

9 Bayleren Dictionnaire historique et critique, 1697an argitaratua. Ikus Rorarius artikulua.

10 Etimologikoki Pneumatika hitzak Izpituaren Zientzia esan nahi du.

11 Baylek zuzendutako aldizkari honetan 1687ko uztaillean Leibnizen gutun baten laburpena agertu zen, .

12 Descartes, Principes de philosophie, III, XLVIII eta LII.

13 Mateo, IX, 24; Markos, V, 39; Lukas, VIII, 52; Joan, XI, 11.

14 Aristoteles, Metafisika, XI. liburua, VIII. atala.

15 Averroesek (1126-1198) arimaren hilezkortasun pertsonala ukatu zuen. Averroismoa kondentatua izan zen 1277an, baina XV. mendean indarberrituta berpiztuko zen.

Kietismoaren eragile nagusia Miguel de Molinos espainiarra izan zen (1627-1696), eta Madame Guyon (1648-1717) haren laguntzaile. Arimaren pasibotasuna, kanpoko egintzei erdeinua, lasaieria eta irrika mistikoa aldarrikatzen zuten.

16 Edward Stillingfleet (1635-1699) teologo ingelesak Locke kritikatu zuen bere Discourse in vindication of the doctrine of the Trinity hitzaldian (1697).

17 Philosophiae naturalis principia mathematica, Newtonen obra funtsezkoa izan zen, 1687an argitaratua.

18 (Ovidio, Tristes, I, 8, 7).

19 Simon de Loubère (1642-1729) Siamen ibili zen mandataritza diplomatiko frantsesaren buru 1687an. 1691n bidaialdiko deskribapena idatzi zuen, Du royaume de Siam, eta Leibnizi bidali zion.

20 Robert Fludd (1574-1637) mediku eta mistiko ingelesa. 1638an argitaratutako Philosophia mosaica idatzi zuen. Doktrina mekanizistaren aurka agertu zen.

21 Lockeren Giza adimenari buruzko Entseiu filosofikoa-ren 1. atalak izenburu hau du: . Leibnizen liburu honetan, oro har, atal guztietako izenburuek Lockerenak ukitzen edota errepikatzen dituzte.

22 Nikolas Malebrancheren (1638-1715) obrarik ezagunena da De la recherche de la verité, 1674an argitaratua.

23 Pierre Gassendi (1592-1655) sona handiko filosofoa izan zen bere garaian. Epikureismoa birsortarazi zuen.

24 François Bernier (1620-1688) filosofo frantsesa, Abrégé de la philosophie de Gassendi-ren egilea (1674).

25 Lockeren lagun mina. Bere etxean zaindu zuen filosofoa azken gaixoaldian; emakume honek Leibnizekiko harreman idatzia izan zuen 1703-1705 urteetan.

- 26 Ralph Cudworth (1617-1688) izan zen Cambridgeko eskola platonikoaren ordezkari nagusia. The true intellectual system idatzi zuen (Londres 1678).
- 27 Catherine Trotter-Cockburni buruz ari da, beronek idatzi baitzuen 1702an Defense of the Essay of Human Understanding, Lockeren Essay-ren alde.
- 28 Descartesez bere Hausnarketa metafisikoak liburuko Bostgarren objektzioetan laburbiltzen eta kritikatzeko dituen Gassendik obra honi egindako oharak.
- 29 Pariseko Journal des savants, Leipzigecko Acta eruditorum eta Holandako Nouvelles de la République des lettres aldizkarietan plazaratu zuen lehenik Leibnizek harmonia aurrezarriaren bere Sistema.
- 30 Jeronimo Rorarius, Klemente VII.a Aita Santuaren nuntzioa izan zen Hungariako Fernando erregearen gortean.
- 31 Platon, Timeo, 28a.
- 32 Aristoteles, Metafisika IX, 8, 1050a, 21-23 eta De Anima II, I, 412a, 27-28.
- 33 Plinio Zaharra, Historia Naturala, VII, 55, 189.
- 34 Jeronimo Cardan (1501-1570), XVI. mendeko pertsonaia interesgarrienetakoa. Bere erronka matematikoez egin zuten ospetsu, baina italiar hau mediku eta filosofo ere izan zen. Laugarren mailako ekuazioa ebaztera iritsi zen. Hemen aipatzen den obra De subtilitate izan daiteke (1552) bertan garatzen baitu argiari eta beroari buruzko teoria animista.
- 35 Tommaso Campanella (1568-1639), Inkisizioak heresiaren salaketapean kondenatutako fraide domingotarra. De sensu rerum liburuan (1620) izaki guztien baitan sentikortasuna dagoela defendatzen du.
- 36 Conwayko kondesak Cambridgeko biltzar platonikoan parte hartu zuen. 1690ean argitaratu ziren bere lan filosofikoak.
- 37 François-Mercure van Helmont (1618-1699) alkimista, Leibnizen adiskide mina. Opuscula philosophica idatzi zuen (Amsterdam, 1690); bertan mintzo zaigu organismoari itsatsita dauden bizitzaren eta higiduraren printzipioez, Leibnizek aurreraxeago aipatzen dituen printzipioez alegia.
- 38 Henry More (1614-1687) Cambridgeko eskolako filosofo eta teologoa. H. More Cantabrigientis opera omnia izenburuarekin argitaratu ziren bere lanak 1679an.
- 39 Descartes, Passions de l'Ame, I, 41.
- 40 Ovidio, Metamorphosis, XV, 158.
- 41 Jakob Harmanszoon, Arminius (1560-1609). Teologo holandar honek izena eman zion arminianismo zeritzon mugimendu erlijioso erreformistari; predestinazioari buruzko doktrina kalvinistaren aurka biziki borrokatu zen.
- 42 Gerhardten edizioan testuak jauzi egiten du gune honetan (§ 19)raino. Berlineko Akademiaren testuari lotu gatzazkio gu, Lockeren liburuari hobeto egokitzen zaiolako.
- 43 Premisetariko bat agertzen ez den silogismoari deritza entimema.
- 44 Menon, 82 b-85 b.
- 45 .
- 46 Filaleteak aipatzen duen maxima hau ez da zehazki Lockeren liburuan agertzen dena. dio hark; Leibnizek aldatu egin du: .
- 47 Sir Kelm Digby (1603-1665) filosofo eta jakintsu ingelesa. Gorputzen izaeraz idatzi zuen liburu bat.
- 48 Honako 42. oharrean azaldu dugun Gerhardten edizioarekiko aldakuntza.
- 49 Leibnizek frogatu zuen π zenbakia kalkulagarria zela sail erregularrez, barne-arau batekin. Honako hau frogatu zuen:
- 50 XVII. mendean p zenbakiari Ludolforen zenbakia deitzen zioten, Van Ceulen Ludolf matematikari holandarra saiatu zelako zenbaki horren balioa kalkulatzeko, beronen 35 hamartar aurkitu arte.
- 51 Horazio, Epistolak, I, 16, 54: .

- 52 Karibetarren aipu hau Locke P. de la Martinière Nouveau voyage vers le Septentrion (1671) liburutik hartua da.
- 53 Garcilaso de la Vega (1530-1568) jatorri peruarreko historialaria. Historia de los Incas, I. liburua, 12. atala.
- 54 Martin von Baumgartenek 1594an idatzi zuen Voyage en Egypte, Arabie, Palestine et Syrie.
- 55 San Paulo, Erromatarrei, II, 15. Aipu berau agertzen da 3. oharrean.
- 56 Juvenalen aipamena, Satirak, XV, 159: ().
- 57 . Florentinoren maxima (Digeste, I, 1, 3).
- 58 Tazito, Annales, VI, 6.
- 59 Gorgias, 524 e.
- 60 .
- 61 . Identifikatu gabeko aipua.
- 62 Joseph Scaliger (1540-1609), 5. oharrean agertzen den Julio Zesar Scaligerren semeak bere Cyclometrica Elementa, Leydenen 1594an argitara emandako liburuan Euklidesen eta Arkimedesen frogapenak kritikatzten ditu.
- 63 Thomas Hobbes (1588-1679). Filosofo ingeles ospetsu honek Geometrilarien printzipioez eta arrazoinamenduaz 1666an idatzitako liburuan frogatzen digu hauen idazkietan aurkitzen den faltsukeria eta ziurtasunik eza fisikari eta moralisten liburuetan aurkitzen direnak bezainbestekoak direla.
- (Opera, IV, 460-462 orrialdeak).
- 64 Herbert de Cherbury (1583-1648), metafisikari, duelukide, diplomazialari, historialari eta poeta ingelesa. De veritate, metafisikazko tratatua idatzi zuen (Paris, 1624). Bertan bereizi nahi ditu egia, errebelazioa, sinesgarritasuna, ahalgarritasuna eta errorea.
- 65 Aristoteles, Nikomakori Etika, II, 6, 1106 b 36- 1107 a 2.
- 66 Boileau, Satire VIII, 63-65. Aipua ez da guztiz zehatza.
- 67 Crocus, III. mendeko errege bandaloa.
- 68 Pitagorikoek metempsikosiaren teoria defendatu zuten. Pitagoras eurentzat Euforbo, Hermotimo etab. berraragiztatua zen. (Diogenes Laertzio, VIII, 1, 4).
- 69 Thevenot eta Jean de Lery aipatzen ditu Locke Soldaniako badiatz ari denean; De la Martinière, (Voyage des pays septentrionaux) karibetarrez ari denean, eta Nicolás del Techo (Ex Paraquaria de Caaiguarum conversione) Paraguay duenean hizpide. Ikus Entseia, I. liburua, III. atala, § 8).
- 70 Jean Louis Fabricius, teologo eta filosofo suizarra (1632-1697). Bere Apologia generis humani contra calumniam atheismi 1662an argitaratu zen.
- 71 Nicolas Witsen (1636-1708) teologo holandarra Leibnizekin gutun harremanetan aritu zen, hizkuntza exotikotara itzulitako Pater Noster otoitzaren bilduma osotu nahian.
- 72 Ertasiako erresuma.
- 73 Charles Le Gobien (1653-1708) jesuita frantsesak Histoire des îles Mariannes idatzi zuen.
- 74 Roberval (1602-1675) matematikari frantses ospetsuari buruz xehetasun gehiago jakiteko, ikus IV. liburuan, 7. atalaren hasiera.
- 75 Apolonio Pergamokoa (K.a. III. mendea), astronomo eta matematikari grekoa. Konikoak izeneko tratatua da haren lanik aipagarriena.
- 76 Proklo (412-485) filosofo greko neoplatonikoa.
- 77 Kartesianismoaz ari da.
- 78 John Norris (1657-1711), Malebrancheren ikaslea. Lockerekin harremanetan ibili zen eta honen Essay kritikatu zuen 1690ean argitaratutako Christian blessedness izeneko liburuan.

- 79 Zeusek bere hilezkortasuna banatu zuen kondairazko bizki hauekin; lurrean eta infernuetan txandaka bizi biren.
- 80 Johannes Sleidannus, Sleidan (1506-1556) Erreformaren historialari alemaniarra.
- 81 Jean Buridan, Pariseko Unibertsitateko errektorea 1350. urtean hil zen. Dilema hau aurkeztu zuen bere eztabaidetan: egarri bezain gose den astoari ura jartzen badiogu alde batean eta oloa bestean, ebatzi ezinean hilko ote da?
- 82 Edme Mariotte (1620-1684) fisikari frantsesak eman zion izena Boyle-Mariotte legeari. Argiaren eremuan giza begiaren deskubritu zuen eta Nouvelle découverte touchant la vue liburuan argitara eman zuen 1668an.
- 83 Vertex: garezurraren gainaldea.
- 84 Torricelli (1608-1647) fisikari eta geometrialari italiar ospetsuak asmatu zuen , hau da, barometroa.
- 85 Otto de Guericke (1602-1686). Bere Experimenta nova Magdeburgia de vacuo liburuan Magdeburgoko hemisferioen esperimientua azaltzen digu eta hutsartearen existentzia aztertzeke erabili zuen makina pneumatikoa.
- 86 Newton baino lehenago Kepler eta Roberval mintzo izan ziren .
- 87 Atzamarrak elkarrekin gurutzatzeak eragindako irudipen hau beste zenbaitetan ere deskribatzen du Descartesek.
- 88 Girard Desargues (1593-1662) matematikari frantsesa, geometria deskriptiboan aditua. 1640an Leçons des ténèbres idatzi zuen, oraindik ere ezkutuan dagoen testua. Desarguesen perspektibari buruzko teoriak Abraham Bossek argitara eman zituen 1648an bere Manière universelle de M. Desargues pour pratiquer la perspective par petit pied, comme le Geometral. Ensemble les places et proportions des fortes et faibles touches, teintes ou couleurs liburuan.
- 89 William Molyneux (1656-1698) fisikari irlandarra, Dioptrica nova (Londres, 1692), optikari buruzko liburuaren egile ospetsua. eragin iraunkorra izan zuen pertzepzioari buruzko teorietan XVIII. mendean zehar.
- 90 Felipe II.a, Orleansko dukeaz ari da, antza.
- 91 Anton Günther kondea; 1667an hil zen.
- 92 A. Dominique Bouhours (1628-1702), gramatikari frantsesak La Manière de bien penser dans les ouvrages de l'esprit (Paris, 1687) idatzi zuen.
- 93 Lukano, La Farsalia, I, 128:
- 94 John Graves (1602-1652) matematikari eta orientalista ingelesak Pyramidographia idatzi zuen (Londres, 1646).
- 95 .
- 96 Christian Huygens (1629-1695). Berak 1673an idatzitako Horologium oscillatorium liburuan denboraren neurria penduluaren mugimenduan oinarritzen du. Eragin handia izan zuen Leibnizen ikusmolde fisikoetan.
- 97 Gabriel Mouton (1618-1694) astronomo eta matematikari frantsesak Observationes diametrorum solis et lunae idatzi zuen 1670ean.
- 98 Tito Livio Buratini, Misura universale tratatuaren egilea. Bertan erakusten du munduko edozein lekutan aurki daitezkeela neurri eta pisu unibertsalak (Vilna, 1675).
- 99 Lessius (1554-1623) jesuita flandestarrak idatzi zuen De perfectionibus moribusque divinis 1620an.
- 100 Apost. Eginak, XVII, 28.
- 101 Virgilio, Georgikoak, I, 463:
- 102 Aristoteles, Fisika, IV, 11. 219 b 1-2.
- 103 Hirurogeita Hamarren (LXX) testua onartu zuten apostoluek ofizialtzat eta berau izan zen lehen mendeetako Bibliaren funtsa.I. mendetik III.era grekoz idatzi zen LXX deritzon testua.

- 104 Salomon, I. Erregeak, VIII, 27.
- 105 Zenbaki hautsia: zenbaki zatikiarra. Zenbaki sorra: zenbaki irrazionala.
- 106 Ez dakigu esaera honen iturburua zein den. Dena dela, Leibnizek berak aurreraxeago (XXI. atalean, § 47) honela itzuliko du: .
- 107 Code diplomatique du droit des gens, Leibnizek 1693an idatzitako obra juridikoa.
- 108 Ia edizio guztietan concupiscence hitza agertzen da hemen. Gerhardtenean, aldiz, concuiscence.
- 109 Ingelesezkoko uneasinees frantsesera inquiétude itzultzen du Costek. Leibnizen iritziz, itzulpen guztiz egokia.
- 110 Fedon, 60 b-c. (Sokratesen oinetatik kateak kendu berri dituzte).
- 111 Aristoteles, Fisika, III, 1, 201 a 11; Metafisika, XI, 9, 1065 b 16.
- 112 Leibnizen arrazoinamenduak komentzituta, Malebranchek alde batera utzi du talkaren legeen ikuspegi cartesiarra. Des lois de la communication des mouvements, 1692an idatzitako liburuan plazaratu zuen Malebranchek bere pentsakera berria.
- 113 Paolo Casati (1617-1707) teologo eta matematikari italiarrak Mechanicorum libri octo idatzi zuen.
- 114 Simon Bisschop, Episcopus, (1583-1643) gotzain holandarrak De libero arbitrio idatzi zuen.
- 115 Ikus, Diogenes Laertzio, VII, 1.
- 116 Etika Nikomakori, III, 4, 1111 b 6-10.
- 117 Ovidio, Metamorphosis, VII, 20: .
- 118 Assasinoak (hashihi) XI. eta XII. mendeetan hedatutako sekta islamikoa zen. Buruzagiei deitzen zitzairen. Zeruko ikuskizunak eta paradisura ibilaldiak hasish-aren eraginez lortzen ziren.
- 119 Virgilio, Georgikoak, I, 513: .
- 120 San Paulo, I Korintoarrei, 2, 9.
- 121 Petronioren Satirikon, XXX. Trimalzionen jaialdiaz ari da.
- 122 San Paulo, I Korintoarrei, 15, 32.
- 123 .
- 124 Ovidio, Heroidak, XIX.
- 125 Leibnizen garaian jada garatzen hasia zen probabilitateen kalkuluaren teoria, Pascali esker batik bat.
- 126 Van Helmont eta beste hainbat adiskide teosofo izan zituen Leibnizek. Hauekin landu zuen oroimenaren artea.
- 127 .
- 128 Mademoiselle Scudéryren (1656) nobela famatua.
- 129 Plautoren Menecmos-en (275) agertzen da esakera hau: .
- 130 Batarena zein besteara.
- 131 Meditationes de cognitione, 1684.
- 132 Cyrano de Bergerac (1619-1655). Gassendirekin ikasi zuen eta Descartesen, Epikuroren eta Lukrezioaren eragin handia izan zuen. L'autre monde, ou les Etats et empires de la lune et du soleil idatzi zuen.
- 133 .
- 134 Descartes, Traité des Passions, I, § 31-35.
- 135 Tomas Aquinokoa, Summa Theologica, I, qu. 52.
- 136 Jacques Rohaut (1620-1675) fisikari frantsesak bere Traité de physique liburuan (Paris, 1671) teoria cartesiarrak fisikari erantsi zizkion.
- 137 Froidmont edo Fromondus (1587-1653) Harcourten jaio zen eta Lovainan hil. Labyrinthus sive de compositione continui argitaratu zuen 1631n.
- 138 Hannoverko Sofia, Leibnizen laguna eta babeslea.

- 139 Atenastarrek urtero itsasuntzi bat bidaltzen zuten Delosera, Teseo Kretara eraman zuen untzia bailitzan. Urtero apaintzen zuten untzi hau, Plutarkok bere Gizon ospetsuen bizitzan kontatzen digunez.
- 140 Sextus Pomponius, Digestos, 41, 3 1. 30 pr.
- 141 Kokzixa haustezina zen eurentzat eta gorputzaren berpizterako abiapuntu.
- 142 Ikus Van Helmonti buruz 37. oharra.
- 143 Esate baterako, Méditations sur la métaphysique, abbé Lanionek 1678an idatzia.
- 144 Luzio Apuleio, (125-180) filosofo neoplatoniko afrikarrak Metamorfosia edo Urrezko Astoa idatzi zuen.
- 145 Nicolas Tulp, Tulpius (1593-1674), mediku holandarrak idatzi zuen Observations médicales.
- 146 E. Tyson anatomilari ingelesak 1699an argitaratu zuen bere Orang-outang, sive homo sylvestris.
- 147 Papagaiaren istorio hau Cyrano de Bergeracen Histoire comique des états et empires du soleil liburuan agertzen da. Ikus (132).
- 148 E. Spenserren The Faerie Queue-n agertzen da. , Perraulten Contes de ma mère l'oye liburuan.
- 149 Ikus (144).
- 150 Ikus (38).
- 151 Van Helmontek idatzi zuen arimen transmigrazioari buruz De revolutione animarum (1690). Ikus (37).
- 152 Origenes (185-254) Alexandriako San Klementeren jarraitzailea izan zen.
- 153 Identifikatu gabeko pertsonaia.
- 154 .
- 155 III. mendeko jeneral erromatar honek enperadore aldarrikatu nahi izan zuen bere burua.
- 156 Virgilioren esaldia: .
- Zizeronena: .
- Eta aurreraxeago: .
- 157 Persio, Satirak, II, 74: .
- 158 Méditations sur la connaissance, la vérité et les idées (1684).
- 159 Plinio, Historia Naturalis, XXV, 72.
- 160 Anamorfosiak, ispiluan eta ikuspuntu batetik soilik ikus zitezkeen koadroak.
- 161 Berlineko Akademiak egindako edizioan parentesi bat agertzen da puntu honetan:
- 162 Frantsesez jeton hitza agertzen da, hau da, behinola kalkulu aritmetikoak egiteko erabili ohi ziren fitxak.
- 163 Ikus (1).
- 164 Persio, Satirak, I, 2-3:
- 165 Mila alde dituen poligono erregularra.
- 166 Nabaria ez dena baliozkotzat hartzeari deritzo obrepzioa.
- 167 Aristoteles, Meteorologia, I, 8, 345 a 25-31.
- 168 San Alberto Magno (1193-1280). deitu zioten domingotar ospetsu honi. Aquinoko Tomasen irakasle izan zen. Aztitzat salatu zuten bere garaian, Baylek bere Dictionnaire-en kontatzen digunez.
- 169 Hala agertzen da Bayleren Dictionnaire-n, Hobbes artikuluan.
- 170 Octavio Pizani, XVII. mendeko legelari italiarrak idatzi zuen Licurgus italicus.
- 171 Jacques Golijs (1596-1667) matematikari eta orientalista holandarra Martiniren lankide izan zen Atlas Sinicus idatzi zenean.
- 172 Adrien Koerbagh-ek bere hiztegia 1668an argitaratu zuen.

- 174 Georges Dalgarno Eskoziako Aberdeen-en jaio zen. *Ars signorum*, vulgo *Characteristica universalis et lingua philosophica* idatzi zuen.
- 175 John Wilkins (1614-1672) Londresen Royal Societyko idazkaria. *Essay towards a real character and a philosophical language* idatzi zuen.
- 176 A. Antonio Nazareu, Aprakuniq-ekoa, Parisen bizi izan zen 1674an.
- 177 A. Labbé (1607-1667). *Grammatica linguae universalis* idatzi zuen.
- 178 Nithard, IX. mendeko historialari frantsesak Strasburgeko Itunen bertsio alemaniarra eta erromatarra eskaini zigun 842an.
- 179 Ebangelioen Liburua Wissenburgeko Otfriedek itzuli zuen 868an; Flacius Illyricus-ek 1571n argitaratu.
- Johann Schilter (1632-1707) historialari eta legelari alemaniarrek *Thesaurus antiquitatum teutonicarum* idatzi zuen.
- 180 Kaedmon monjeak idatzi zuen VII. mendean parafrasi poetiko hori.
- 181 Codex Argenteus, IV. mendean Ulfila gotzainak hizkuntza gotikora itzulitako Bibliaren eskuizkribua.
- 182 Pandektak, Justiniano enperadoreak berrogeita hamar liburutara bildutako obra juridikoak.
- 183 Irlandako hizkuntza.
- 184 Esklavoniako hizkerari deritzo esklavera.
- Vistula eta Volga ibaien artean kokatzen da Sarmazia, godoek III - IV. mendeetan suntsitutako herria.
- 185 Mongoliarrei deritze kalmuko edota mugal.
- 186 Jakob Boehme (1575-1624), filosofo eta mistiko alemaniar ospetsu honek Adamiera deritzo Adanen jatorrizko lehen hizkerari.
- 187 Virgilio, Eneida, VIII, 91: .
- 188 Samuel Bochart (1599-1667) artzain protestante frantsesak idatzi zuen *Geographia sacra seu Paley et Chanaan* (1646).
- 189 Jean Bécan van Gorp, Goropius Becanus zeritzanak (1518-1572) *Hermathena* idatzi zuen (1580), flandesera jatorrizko lehen hizkuntza zela frogatu nahian.
- 190 Johann Clauberg (1622-1665) filosofo alemaniarrek doktrina cartesianak hedatu zituen Alemanian. *Linguistika germanikoan egindako ikerketen fruitu*, argitara eman zuen 1663an *Collectanea linguae teutonicae*.
- 191 Gerardus Meier (1646-1708) filosofo eta hizkuntzalariak idatzi zuen *Glossarium linguae saxonicae*.
- 192 Ikus (179).
- 193 Jean Bauhin (1541-1613) botanikari suitzar ospetsua. Berak idatzia da, besteak beste, *De plantis absinthii nomen habentibus*.
- 194 Martin Guerre abenturazale euskaldunak, bere ibilaldietariko batetik itzuli eta, familia erabat engainaturik, etxean beste norbaitek (Arnaud Tilh-ek) bere lekua eta nortasuna hartu zuela aurkitu zuen. Sona handiko prozesua izan zen eta iruzurtiaren exekuzioarekin amaitu zen.
- 195 Berriro ere, *Méditations sur la connaissance, la vérité et les idées* (1684).
- 196 Fisika III, 1, 201 a 9-11.
- 197 Arima II, 7, 418 b 4; 418 b 10 eta 419 a 11.
- 198 Alkimistek zeritzoten zilarrari. Leibnizek aipatutako Boyleren obretariko bat da *An Historical account of degradation of Gold* (1678). Ikus (7).
- 199 Versura: inori dirua zorretan eskatu, beste norbaiti ordaintzeko.
- Corban: Jainkoari egindako eskaintza.
- 200 Horazio, Epistolak, II, 1, 47: .
- 201 , Boylek 1667an argitaratutako liburuaren izenburua.

202

203 Horazio, Satirak, II, 3, 103: .

204 Mariottek koloreei buruzko bere teoria obra hauetan lantzen du: *Essais de physique* (1681), *De la nature des couleurs* (1681). Ikus (82).

205 Augusto I.ak (1526-1586) alkimistekin harreman estuak izan zituen.

206 The man of the moon, Godwinek (1561-1633) idatzitako nobelaren protagonista.

207 Huygens munduen aniztasunaren auziaz aritu zen bere *Cosmotheoros*-en.

208 San Alberto Magno, *Summa theologiae*, p. II, tr. 13, qu. 79.

209 Gilles Ménage (1613-1692), *Dictionnaire étymologique*-ren egilea.

210 Mola: uteroan gauzatzen den masa formagabea; noizbehinka eskeleto ataltxoak ere bere baitan izaten dituelako munstro itxura hartzen zioten.

211 Joan Kasimiro, Poloniako erregea (1648-1668).

Aurreraxeago, latinezko Bataio formulaz: .

212 Estrabon, K. a. I. mendeko geografialari greziar ospetsua. *Res geographicæ*, XII, 11.

213 Teodoro Kerckring (1640-1693) anatomista holandar ospetsuak teoria hau landu zuen bere *Anthropogenia ichonographia*-n.

214 Virgilio, *Georgikak*, II, 325-327: . Priszilianoren ikasleek abesten omen zituzten bertso hauek euren orgiatan, San Jeronimok kontatzen digunez. Ikus, *Epist.* 133 *adversus Pelagium ad Ctesiphontem*.

215 Leeuwenhoeck (1632-1723) naturalista holandarrak aurkitu zituen espermatozoideak. Ikus, *De natis ex semine genitali animalculis* (*Philos. transactions*, 142 zenb. abendua 1677, otsaila 1678).

216 Henrik de Roy, Regius (1598-1679), Descartesen adiskide eta ikasle izan ondoren, harengandik aldendu zen, gizakia akzidentez dela izaki defendatzearen, gorputzaren eta arimaren artean ez baitago, bere iritzi, batasun substantzialik.

217 *Ménageri* buruz, ikus (209).

218 Malotru hitzak desitxuratua, itsusia esan nahi du frantsesez.

219 Fortunio Liceti (1577-1657) mediku italiarrak idatzi zuen *De monstruorum causis, natura et differentiis*.

220 Pierre Alliot mediku frantsesak ospe handia lortu zuen minbiziaren erremedioa aurkitu omen zuelako. Frantziako erregina eta Luis XIV.aren ama zen Austriako Anarekin egin zuen proba.

221 Balaamen astemea nagusiaren aurrean kexatu zen, honek hiru aldiz zigortu zuelako. Balaamen aginduari jaramonik ez eta ibiltzeari uko egitea, asteme zintzoak adierazi zionez, Jainkoaren aingeruak bidean traba egiten ziolako zen. Ikus, *Zenbakiak*, XXV, 28-30.

222 Frantsesez, *montre* eta *horloge*.

223 .

224 Johan Strauchius (1614-1679) Leibnizen osaba zen. Berak bultzata doktoratu zen Zuzenbidean. *Lexicon particularum juris* liburua aipatzen da hemen.

225 Samuel Bohl, Bohlius (1611-1639) teologoa saiatu zen adiera formal hau aurkitzen Bibliaren terminoetan. *Disputationes*, XIII, (1637-1638).

226 Ibn-el-Beitar edo Ebenbitar, botanikari arabiarra (1197-1248). Dioskorides, I. mendeko botanikari greziarrak idatzi zuen *Simplicium medicamentorum, reique medicae*.

227 Thomas Reinesius (1587-1667) mediku alemaniarrek filologia ere landu zuen. Berak idatziak dira *Chimiatría* eta *Syntagma inscriptionum antiquarum*.

228 Meniporen pertsonaia (*Dialogues des morts*).

229 Henry Morek idatzi zuen *The immortality of the Soul*. Ikus (38).

230 Ikus (38).

- 231 Ikus Aristoteles, Etika Nikomakori I, 6, 1098 a 12-14, eta Platon, Definizioak, 415 a.
- 232 Diogenes Laertziok kontatzen digu hori bere Filosofo ospetsuen bizitza-n, VI,2, 40.
- 233 Herodoto, Historiak, III, 116 eta IV, 27.
- 234 Thomas Corneillek 1653an idatzitako Le Berger extravagant liburuaren aipua.
- 235 Ikus Platon, Oturuntza, 180 c - 181 d, eta Zizeron, De natura Deorum, III, 59 eta hurrengoak.
- 236 Leibnizek hemen J. Delvaux-en Le médecin de soi-même aipatu nahi duela dirudi.
- 237 Bernard Frenicle de Bessy (1605-1675) matematikari frantsesa ospetsu egin zen, zenbaki-problema korapilatsuak erraztasun harrigarriaz ebazten zituelako, berak asmatutako metodoaz. *Traité des triangles rectangles en nombre* idatzi zuen.
- 238 Aita Grimaldi jesuitarekin gutun harremana izan zuen Leibnizek.
- 239 Wörterbüchlein Lateinisch und Teutsch, Nürenbergen argitaratua 1700. urtean.
- 240 Pierre de la Ramée (Petrus Ramus) (1515-1572) logikari frantsesak logika aristotelikoa kritikatu zuen. *Aristotelicae animadversiones et Dialecticae partitiones* idatzi zituen.
- 241 M. Bojardo, Scandianoko kondeak Orlando inamorato idatzi zuen 1495ean. Ariostok 1516an Orlando furioso.
- Tassok, Bojardok, Perraultek eta Spenserrek maitagarrien istorioak idatzi zituzten.
- Lucianoren *Histoire veritable* aipatzen da hemen.
- 242 Egia orokorki hartu eta adibide partikular edo irudi partikular bati egokitzeari deritzo frogatzeko estilo ektetikoa.
- 243 Euklidesen liburuen argitalpenak sustatu zituzten bi idazle hauek: Johann Scheybl, Scheubeliusek, 1550ean, eta Herlinusek 1566an.
- 244 Klaudio Galeno (130-200) filosofo eta mediku ospetsuak idatzi zuen beste zenbait libururen artean, *Institutio logica*. Silogismoaren laugarren figura (galenikoa zeritzona) berak asmatu zuela uste izan da.
- 245 Ikus (240). Hemen aipatzen dena *Scholae dialecticae*-n azaltzen du Pierre de la Raméek (VII, 4, col. 211).
- 246 Esapide greko honek zera adierazten du: ordenamendu naturalean ondoren datorrena arrazoinamenduaren hasieran kokatzea.
- 247 Gauza jakina da cogito cartesiarra lehendik ere agertu izan dela San Agustinen hainbat testutan, hala nola, *De libero arbitrio*, II, 3-an.
- 248 .
- 249 .
- 250 Leibnizek hau idatzi zuenean ez zen oraindik ezagutzen Arkimedesen Metodoari buruzko *Tratatua*, eta liburu honetan, hain zuzen, azaltzen ditu arrazoinamendu demostratiboa fisikari aplikatzeko oinarri kontzeptualak.
- 251 Lorenzo Valla (1406-1457) filologo italiarrak hala dio bere Hizkuntza latinoaren dotoretasunak liburuan.
- 252 Virgilioren *Eneida*-tik (VI, 851-853): .
- 253 .
- 254 Tirso Gonzalez (1705ean hila) jesuiten jeneral izendatu zuten 1687an. *Theologiae moralis fundamentum* idatzi zuen. Doktrina probabilisten aurka agertzen da bertan.
- 255 Aristoteles, *Topikoak*, I, 100 b 21-23.
- 256 Foucher abadea (1644-1696) Parisen ezagutu zuen Leibnizek. *Critique de Malebranche* idatzi zuen.
- 257 Clavius (1537-1612) matematikari alemaniarrek argitaratu zituen Euklidesen *Elementuak* 1574an.

Ondoren datorrenari buruz, ikus (49).

258 Jan de Witt (1625-1672) Holandako estatu-gizon ospetsuak *Elementa linearum curvarum* idatzi zuen.

259 .

260 Lurringintzan eta botikan erabiltzen den egur mota berezia.

261 François Lamyri buruz ari da (1636-1711). Beneditar frantses honek idatziak dira, *Réfutation de Spinoza* eta *De la connaissance de soi-même*.

262 Oinordeko-kidea alde batera uztean beste oinordekoari ematen zaion eskubidea. Leibnizek aipatzen dituen tesi juridikoak *Disputationes juridicae de conditione* dira.

263 Leibnizen *De arte combinatoria* 1666an argitaratu zen eta berriro, egilearen baimenik gabe, 1690ean. Hori dela eta, protesta plazaratu zuen 1691ko *Acta Eruditorum*-en.

264 Erhard Weigel (1625-1699) Leibnizen irakaslea izan zen Jenako Unibertsitatean; eta eragin handikoa haren matematika eta filosofia arloetan. *Arithmetische Beschreibung der Moralweisheit von Personen und Sachen* idatzi zuen.

265 Pufendorf (1632-1694) legelari alemaniarra, zuzenbide naturalaren eskolan garrantzi handiko teorizatzailea.

266 Cebesena taula, bertute eta bizioei buruzko elkarrizketa alegorikoa, Cebes izeneko Sokratesen ikasleak idatzi omen zuena. Ikus, Epikteto: *Enchiridium una cum Cebetis Thebani Tabula*, 1670.

267 De Visék 1672an sortutako aldizkaria.

268 Francisco Maurolico (1494-1575) fisikari eta matematikariak ortzadarra ikertu zuen, *Photismi de lumine et umbra* bere liburuan.

Marco Antonio de Dominis (1566-1624) fisikari eta teologo dalmaziarrek gai berau landu zuen *De radiis visus et lucis*-en.

269 San Bonifazio (680-756) Germaniako apostolua izan zen. San Virgilio, fraide irlandarra, Salzburgoko gotzaina, 789an hil zen. Ikus, *Epistolae Sancti Bonifacii*, 1605, 134 eta 140. eskutitzak.

270 *De officiis* edo Lanbideen tratatua Zizeronen obretariko bat da.

271 Livin Lemneus (1505-1568). Naturaren mirakulu ezkutuak tratatua idatzi zuen. Ikus, I. liburua, 8. atala.

272 Ikus, *De corpore*, 3. atala, § 8.

273 .

274 Terentzio, Eunukoa, 62-63: .

275 . Plautok aipatzen du esakera latino hau Menekmos-en. Ikus (129).

276 Proklok bere Euklidesen *Elementuei* buruzko Iruzkinetan azaltzen digu diametroak zirkulua bi zati berdinetan banatzen duela frogatzen nola ahalegindu zen Tales Miletokoa, Kristo a. 640.ean jaiotako jakintsu greziarra. Proposizio hau Euklidesen *Elementuak*, I. liburuan, 17. definizioan agertzen da.

277 Antoine Arnauld (1612-1694) filosofo eta teologo jansenista ospetsuak idatzi zuen *Nouveaux éléments de géométrie*.

278 Slusius, geometrilari flandestarraren *Perlak* lehenago ere aipatu ditu Leibnizek III. liburuan, 10. atala, § 21.

Claude Hardy, matematikari frantsesa, Descartesen laguna, Euklidesen argitaratzailea 1678an hil zen.

279 Marinus, matematikari greziarra, Prokloren ikasle izan zen. *Protheoria* idatzi zuen, Euklidesen *Data*-ren atari gisa. Serenus Antinoakoa, III - IV. mendeko matematikariak zilindroaren eta konoaren sekzioei buruz idatzi zuen.

- 280 Amos Comenius, Komensky, (1592-1670) teologo eta pedagogo txekiarra. Didactica magna, Via lucis eta Physicae ad lumen divinum reformatae synopsis idatzi zituen. Azken honen 3. atalaz ari da Leibniz.
- 281 Letren erabileran oinarritutako algebra.
- 282 François Viète (1540-1603) matematikari frantsesa, algebra modernoaren sortzaileetarikoa bat.
- 283 .
- 284 .
- 285 Hipokrates antzinako medikurik ospetsuenak (460-375) idatzitakotzat hartzen dira Aforismoak, agindutan emandako medikuntzari buruzko tratatua.
- 286 Isaac Casaubon (1559-1614) filologo frantsesak idazle klasikoaren argitalpenak prestatu zituen, Estrabon, Aristoteles, Poliameno, Teofrasto etab.
- 287 . Orkus, infernuetako jainko latinoak.
- 288 Petronio, Satirikon, I.
- 289 . Ikus Aristoteles, Politika IV, 2, 1289 a 39.
- 290 Unicum opticae, catoptricae et dioptricae principium, Leipzigekeko aldizkarian (1682, 185-190 orr.) argitaratu zuen Leibnizek.
- Molyneuxek 1692an idatzitako Dioptrica nova-ri buruz, ikus (89).
- 291 Gerhard argitalpenean agertzen da. Berlineko Akademiaren argitalpenean akatsa zuzentzen da: .
- 292 .
- 293 Lege-aforismo honek Burkard, Wormseko gotzainaren izena gogorazten digu. 1000. urte inguruko kanonista ospetsu honen esakerak oso ezagunak izan ziren urte haietan.
- 294 Esaera hau Digestoak-en agertzen da (50, 17, I). Aurreraxeago Justiniano aipatzen da. Erakundeak, 4, 6, § 2.
- 295 .
- 296 Jacques Barner (1641-1686) Van Helmonten ikasle izan zen. Prodrum Sennerti novi idatzi zuen.
- Daniel Sennert (1572-1637) mediku alemaniarra antzinako medikuen eta alkimisten teoriak sintetizatzen saiatu zen.
- 297 Publilius Sirius, Kristo aurreko I. mendeko idazle latinoak, behin eta berriro aipatua agertzen da Senekaren idazkietan.
- 298 Terentzio, Heautontimoroumenos, I, 1, 77: .
- 299 Francisco Suarez (1548-1617) filosofo eskolastiko espainiarrak idatzi zuen, besteak beste, Disputationes metaphysicae.
- Hugo Grotius (1583-1645) legegizon eta historialari holandarra, zuzenbide naturalaren sortzaileetarikoa bat izan zen.
- 300 Aristoteles, Metafisika A 2, 982 a 4-b 10 eta VII 1, 1028 b, 2-7.
- 301 Frogapen ontologikoari kritika, Leibnizen Méditations sur la connaissance, la vérité et les idées (Acta eruditorum, 1684ko azaroan), bai eta Lettre touchant la démonstration cartésienne de l'existence de Dieu (Mémoires de Trévoux, 1701eko irailean).
- 302 Santo Tomas Aquinokoari deritzo Doctor Angelicus.
- 303 Descartes, Gogoeta Metafisikoak III.
- 304 Bayle, Dictionnaire historique et critique, Rorarius artikuluan.
- 305 San Agustin, De libero arbitrio, II, III-XV, 7-39.
- 306 Atenasko Polemon (340-273), Xenokratesen ondorengoa Akademia platonikoaren zuzendaritzan, estoizismoaren hasieran garrantzi handikoa.
- 307 Ferekydesi buruz ari da. Ikus Diels, Fragmente der Vorsokratiker 7 (71) A 9.

308 Zireneko Aristipo Kristo aurreko 435 inguruan jaio zen. Sokratesen ikaslea, Zirenekoa deritzon eskola hedonistaren fundatzailea.

309 Antistenes, Sokratesen ikaslea hau ere, Platonen lehiakidea, eskola zinikoaren fundatzailea izan zen. Ikus, Diogenes Laertzio II, 90 eta VI, 11.

310 Arkelao, Anaxagoraren ikaslea; tradizioaren arabera, Sokratesen irakaslea. Ikus Diels, *Fragmente der Vorsokratiker* 60 (47), A 1.

311 *Réfutations sophistiques*, 2, 165, b 3.

312 Conring (1606-1687) jakintsu frisiarrak gutun-harremanak izan zituen Leibnizekin. Aurreraxeago aipatzen den adiskidea A. Frolingius da, 1661ean B. Viottusen *De demonstratione* argitaratu zuena.

Pappus, IV. mendeko geometrilari alexandriarrari esker ezagutzen dugu antzinako Greziako matematikaren historia.

313 Francis Bacon jaunak (1561-1626) Aristotelesen Organon ordezkatzeko idatzi zuen *Novum Organum*.

314 Descartsek Mersennerri 1632ko maiatzaren 10ean idatzitako eskutitza. Aurreraxeago Spinozarekiko gutun-harremanetan VI. eskutitza.

315 Kioseko Hipokrates, Kristo aurreko v. mendeko geometrialari greziarrak zirkuluaren koadratura ikertu zuen.

316 Pierre Nicole (1625-1695) filosofo eta teologo jansenistak osotu zuen Arnauldekin elkarlanean Port-Royaleko logika. Ikus (277). Nicolek idatzitakoen artean nabarmentzen dira *Préjugés légitimes contre les calvinistes* eta *De l'unité de l'Eglise*.

317 Tertuliano, II - III. mendeko kristau apologista ospetsua izan zen. *De praescriptione haereticorum* idatzi zuen.

318 Bi liburu ditu egileak gogoan. Bata, arestian aipatutako Nicolerena kalbinisten aurka (316). Bestea, Jurien protestanteak papisten aurka 1685ean idatzitakoa, *Préjugés légitimes contre le papisme*. Jurien Bayleren babeslea izan zen.

319 Bossuet 1704ko martxoaren 12an hil zen.

320 .

321 .

322 Herostratok Efesoko tenplua erre zuen Kristo aurreko 356an bere izena hilezkor bihur zedin, beste gabe.

Aurreraxeago, Molièren *Don Juan ou le festin de pierre* (1665) aipatzen du Leibnizek.

323 .

324 Méré (1610-1685), Pascalen adiskidearen zenbait liburu argitaratu ziren 1692an. Huygensek probabilitateen kalkuluari buruz idatzitako liburua, *De ratiociniis in ludo aleae* 1657an argitaratu zen.

325 Jan de Witt buruz, ikus (258). Hemen aipatzen da Waerdije van Lijfrentennaar *proportie van Los-renten*.

326 Prokopio, Bizantzioko historialariak Justiniano enperadorearen guduak kontatu zizkigun. Pasadizoak edo Historia ezkutua, bi izenburuez ezaguturiko liburua idatzi zuen.

327 Louis Auberg du Maurierrek *Mémoires pour servir à l'histoire de la Hollande* idatzi zuen (1680).

Grotiusi buruz, ikus (299).

328 Gregorio Leti (1630-1701) historialari italiarra. *Vie de Cromwell* idatzi zuen.

329 Carringtonek Cromwelli buruz idatzitako liburua, *The History of the live and death of his most Serene Highness*, 1659an argitaratu zen.

330 Dahlberg (1625-1703), ingeniari suediarra.

331 Ikus (80).

- 332 Seckendorf (1626-1692) estatu-gizon alemaniarrek idatzi zuen *Commentarius historicus et apologeticus de lutheranismo*.
- 333 Hemen ere Bossuetek ari da.
- 334 Suibert edo Swidger aita santu izan zen 1406tik 1407ra.
- 335 Gauza jakina da Leibnizek urte askotan lan egin zuela Brunswicktarren historia ikertzen.
- Jaun alodialak, hau da, heredentzian hartutako ondasunen jabeak; beraz, erregeari zergarik zor ez ziotenak.
- 336 Ikus (209).
- 337 Jeronimo Bolsec, XVI. mendeko polemista, ospetsu egin zen Kalbinoren eta Teodoro de Bèzeren aurka idatzitakoengatik.
- 338 , hots, historialariei eskaini dakiekeen konfidantza. Izenburu hau dauka Johann Eisenhart (1643-1707) legelari alemaniarren liburu batek.
- 339 Tritemio (1452-1516) historialari alemaniarrek frankoen jatorria ikertu zuen.
- Johann Thurmaierrek (1466-1534) *Annales Boiorum* idatzi zuen.
- Peter Albinus (1534-1598) historialariak Saxonia eta Turingiako herrien jatorriak ikertu zituen.
- Gramatikari Saxoniarra deritzon XII. mendeko historialariak idatzi zuen *Danorum regum heroumque historiae* (1514).
- Sifrid Petrik *De Frisiorum antiquitate* (1590) idatzi zuen.
- , XIII. mendean idatzitako eskandinabiar ipuin eta kondairen bilduma.
- 340 Wincenty Kadlubeck edo Kadlubdco (1161-1223) historialari poloniarrek bere *Historia polonica-n*, XVI. epistolari, aipatzen du Lesko III.a, Julio Zesaren koinatua (ez suhia).
- 341 Herodoto, *Historiak* II, 159, eta *Biblian*, II. Erregeak, 23, 29.
- 342 Aumonteko dukea (1632-1704), *Académie des Inscriptions et Belles-Lettres*eko partaidea.
- 343 *Theatrum vitae humanae*, T. Zwinger mediku suitzarrak (1533-1588) idatzitakoa. Liburu honen azken atalean berriro aipatzen da idazle hau.
- 344 Christian Huygensen obra hau 1698an argitaratu zen. Ikus (207).
- 345 Fontenellek izenburu berorrekin argitaratu zuen liburu ospetsua 1686an.
- 346 1683an argitaratutako *Nolant de Fatouvilleren Arlequin*, empereur dans la lune liburuaz ari da.
- 347 Keplerren ametsa ilargi astronomiari buruzko liburua 1634an argitaratu zen.
- 348 Godwinen nobelari buruz, ikus (206).
- Cyranorena, ikus (132).
- 349 Ektesi edo azalpenari buruz, ikus (242).
- 350 .
- 351 Pappus, *Bilduma matematikoa*, VIII. liburua, *Hitzaurrea*.
- 352 Ikus (34).
- 353 Richard Hooker (1554-1600) teologo ingelesak idatzi zuen *The laws of Ecclesiastical polity*.
- 354 Horazio, *Epistolak*, I, XIX, v. 19: .
- 355 Diofanto, IV. mendeko matematikari greziarrak eman zien izena ekuazio diofantikoei. Hartarako sinbolo egokirik gabe algebra landu zuen eta zenbait ekuazio mota ebaztera iritsi zen.
- Eszipion du Fer, matematikari italiarra, 1567an jaio zen.
- Ferrarako Luis (1522-1562), Cardanen ikaslea.
- 356 Descartes, *Geometria* (Adam-Tannery argitalpena) VI, 476-484 orr.

357 Ismael Bouilliaud (1605-1695) astronomo eta matematikari frantsesak interes berezia azaldu zuen espiralez eta horri buruz idatzi zuen *De lineis spiralibus demonstrationes*.

358 Grégoire de Saint-Vincent (1584-1667) geometrilari flandiarrek idatzi zuen *Opus quadraturae circuli et sectionum con*.

359 Leibnizen *Nova Methodus pro Maximis et Minimis* 1684ko urrian argitaratu zen *Acta Eruditorum* aldizkarian.

360 Ikus (346).

361 Gabriel Naudé (1600-1653) Mazarino kardinalaren bibliotekaria. Bere *Gutunak* 1667an argitaratu ziren. Naudeanak, anekdota bilduma, 1701ean.

362 Letrango Kontzilioa 1512tik 1517ra ospatu zen.

363 Daniel Hofmannek zenbait liburu argitaratu zituen 1580 eta 1600 bitartean, bereziki tratatu bat gai honetaz: ea fede alorrean silogismoak lekuri baduen.

Corneille Martin edo Martinik (1567-1621) Anverseko filosofo aristotelikoak erantzun zion.

364 Kristina Suediako erreginaz ari da.

365 Tertuliano, *De carne Christi*, 5. atala, Kristoren heriotzeaz eta piztueraz ari delarik.

366 I. Korintoarrei., I, 20.

367 I. Korintoarrei., II, 9.

368 Christophe Stegmannek idatzi zuen 1635ean *Metaphysica repurgata*.

Soziniano, Sozinen (1525-1562) jarraitzaileek Kristoren jainkotasuna eta Hirutasun Santua, kristauen dogma nagusiak, ezezten zituzten.

369 Andreas Kesler (1595-1643) teologo alemaniarrek doktrina sozinianoak kritikatu zituen alor fisikoan, metafisikoan eta logikoan.

370 Honoré Fabry (1606-1688) matematikari eta teologoarekin gutun-harremanak izan zituen Leibnizek. *Summula theologica* eta *Philosophia* idatzi zituen.

Duns Scoto (1266-1308). Filosofo eta teologo frantziskotar honen bereizketari buruzko teoriak, ikus E. Gilson, *La Philosophie au moyen âge*, 599 eta hurr.

371 Hemen aipatzen den liburua 1628an argitaratu zen.

372 Jean Misaens (1613-1681) teologo alemaniarrek Jenan argitaratu zuen bere *De usu principiorum rationis in theologia*.

373 Gilermo Ockhamgoa (1270-1347) nominalismoaren ordezkariarik nabarmenetakoa. Hemen aipatzen den baieztapena bere *Quodlibeta*, V, 1.ean aurki dezakegu.

374 Ulriko Zwinglio (1484-1531) erreformadore suitzarraren ikasleak.

375 Berthold Keckermann (1573-1609) jakintsu alemaniarren *Systema theologiae*, I. liburua, 3. atala.

376 Ramon Llull (1235-1315) filosofo ospetsuak garatu zuen Hirutasunari buruzko teoria hau bere *Disputatio fidei et intellectus*, II. eta III. ataletan.

377 Klemente Alexandriakoa, III. mende hasierako doktore kristauak azpimarratu zuen kristautasuna eta filosofo greziarren moralaren arteko lotura.

Justino (89-167), kristau federa konbertitutako filosofoa, kristautasuna filosofia paganoaren betetasuna zela frogatzen saiatu zen.

San Joan Krisostomo (344-407), Elizako Gurasoen artean ospetsuenetarikoa, eskola paganoetan ikasia zen.

378 Paul Pellisson (1624-1693) historialari frantsesari azaldu zizkion Leibnizek Elizen Batasuna lortzeko zituen egitasmoak.

379 Luis Vives (1492-1540) filosofo eta humanista espainiarra, Erasmoren laguna.

380 Diego Payva de Andrade (1528-1586) garai hartan ospetsua, Martin Chemnitz pentsalari protestantearen aurka idatzitako *Explicaciones ortodoxas* liburuagatik. Latinezko aipuaren itzulpena: .

- 381 Martin Chemnitz (1522-1586), teologo protestantea, Melanchtonen ikaslea, Examen du Concile de Trente liburuaren egilea. Luteranismoan izandako eraginagatik etsai katolikoek epigrama hau erantsi zioten: Martinus non fuisset, Martinus vix stetisset, hots, .
- 382 F. Collio (1640an hila), teologo italiarrak Paganoen arimei buruz idatzi zuen liburu bat.
- 383 François de la Mothe le Vayer (1588-1672), filosofo frantsesa, eszeptizismo ortodoxoaren ordezkaria, Montaigne eta Bayleren artean erdibidean. De la vertu des païens idatzi zuen.
- 384 Francesco Pucci, XVI. mendeko teologoak De Christi servatoris efficacitate idatzi zuen.
- 385 Ikus N. Vedelius, Rationale Theologiam, I. lib., 9. atala.
- 386 Pelagio (360-425) fraide britaniarra San Agustinen doktrinen aurka agertu zen, jatorrizko bekak eta grazia ukatuz; haren ustez, beraz, pertsona bere indarrez, graziaren laguntzarik gabe salba daiteke. Efesoko kontzilioak (431) kondenatu zuen doktrina hau. Erdipelagianak V - VI. mendeetan berpiztu ziren; hauen ustez, grazia beharrezkoa dugu gizakiok, baina duinei soilik ematen zaie grazia.
- 387 Claude de Pajon (1625-1684) teologo protestante frantsesak ere grazia ukatzen zuen. Berak idatzi zuen Examen du livre qui a pour titre .
- 388 .
- 389 Exodoa, III, 2, eta VII, 15.
- 390 Ovidio, Fastes, VI, 5.
- 391 Platon, Sokratesen apologia, 31 c-d, 40 a-c.
- 392 Virgilio, Eneida, VI, 45-50.
- 393 Virgilio, Eneida, IX, 184...:
- 394 Robert Barclay (1648-1690), kuakero eskoziarra. Bere obrak dira Theses Theologiae eta An Apology for the true Christian Divinity.
- 395 Antoinette Bourignon (1616-1680). Jarraitzaile asko izan zituen emakume mistiko frantses honek Holandan, Frantzia eta batik bat Eskozian. Bayle artikulu bat eskaintzen dio bere Dictionnaire-n.
- 396 Assebourgeko Rosamunda.
- 397 J. Asgillek 1700.ean argitaratutako liburuaz ari da: bertan defendatzen baita heriotza ez dela betiko bizitzarako ezinbesteko urratsa.
- 398 Quirinus Kuhlmann (1651-1689), Boehmeren ikaslea.
- 399 Jean de Labadie (1610-1674) jesuita izan ostean protestante eta labadisten taldea fundatu zuen, lehen kristauen fede erroetara itzuli nahian. Réforme de l'Eglise par le pastorat idatzi zuen.
- 400 William Penn (1644-1718) kuakeroak utzi zigun bidaia horren deskribapena, An account of W. Penn's travels in Holland and Germany, anno 1677.
- 401 Ikus (186).
- 402 Adan de San Victor XII. mendeko poeta erlijiosoaren Sekuentziak liburutik: .
- 403 Zirkuluaren koadraturari buruzko liburu hau latinez 1663an argitaratu zen.
- 404 Comeniusi buruz, ikus (280).
- Ragozky printzea Rakoczy Jorje II.a da (1621-1660).
- 405 Nimegako itunekin amaitu zen Holandako guda 1678an.
- Montausier (1610-1690), Grand Dauphinen gobernadorea.
- Pomponne (1618-1699), Kanpo Arazoetarako Estatu Idazkaria, Nimegako itunak negoziatu zituen.
- 406 Jacobo Thomasius (1622-1684) Leibnizen irakaslea izan zen.
- 407 Honorio (384-423) enperadore zelarik setiatu zuen Alarikok Erroma 410ean.
- 408 .

- 409 Suetonio, De vita Caesarum, Augustus, 101,4.
- 410 Juduen apaiz nagusiak jantzi ohi zituen apaingarriak.
- 411 Saxoniako hiri honetako eliz atarian aldarrikatu zituen Lutherrek bere tesiak 1517an.
- 412 Sendomirreko Asanbladan, Polonian, 1570ean, alderdi erlijioso ezberdinen konponbidea aurkitzen ahalegindu ziren.
- 413 Thorneko batzarra Saxonian bildu zen 1645ean.
- 414 Theodorus Beza (1519-1605), Kalvinen ikasle eta adiskidea.
- 415 Philippe Schwartzerde (1497-1560), ezizenez Melanchton, Lutherren ikasle eta adiskidea, humanista eta teologoa.
- 416 Ikus (370). Aipatzen den liburua 1661ean argitaratu zen.
- Eustakio Divini (1620-1695) optikari ospetsuak mikroskopia eta teleskopioetarako lenteak egiten zituen.
- 417 Virgilio, Eneidak, III, 72: .
- 418 Virgilio, Bukolikoak, VIII, 108: .
- 419 Ikus (316).
- 420 .
- 421 Henri Holden (1576-1665). Fedearen azterketa 1652an argitaratu zen.
- 422 Lerinseko San Bizente v. mendean bizi izan zen. Commonitorium peregrini idatzi zuen nestorianismoaren aurka.
- 423 Ikus De la perpétuité de la foi, I, 1. liburua, VIII-XII atalak.

- 424 Jakob Gretser (1561-1625) filosofoa eta teologoa.
- 425 Claude Aquaviva (1543-1615) jesuiten bosgarren jenerala izan zen, batzuentzat bigarren fundatzailea. Ratio atque institutio studiorum idatzi zuen.
- 426 Roberto Francesco Romolo Belarmino, San Roberto Belarmino (1542-1621) jesuita eta kardinalak parte hartu zuen Galileoren lehen galdeketa. De potestate summi pontificis in rebus temporalibus eta De arte bene moriendi idatzi zituen.
- 427 Ikus (343).
- 428 E. Fléchier, Histoire du Cardinal Ximénes (1963), 127. orrialdea.
- 429 J. van Beverwijck (Beverovicus) (1599-1647) mediku holandarrak idatzi zuen Idea medicinae veterum.
- 430 Georges Draud (1572-1635) bibliografo alemaniarrek idatzi zuen Bibliotheca classica.
- Martin Lipeniusek (1630-1682) burutu zuen aurrekoaren obra bere Bibliotheca realis-ekin.
- 431 Konrad von Gesner (1516-1565) naturalista alemaniarren Historia animalium zoologia modernoaren abiapuntutzat hartzen da. Leibnizek hemen idazle beronen Pandectarum sive partitionum universalium aipatzen du.
- 432 Observationes juris: ohar juridikoak. Miscellanea: orotarik. Conjectanea: aieruak. Electa: atal hautatuak. Semestria: sei hilabete behingo berrien bilduma. Probabilia: onargarriak. Benedicta: asmo bikainak.

Kronologia

1646: Gottfried Wilhelm Leibniz Leipzigen jaio zen uztailaren 1ean, Alemanian errotutako familia eslaviar lutertar batean. Aita, Friedrich Leibniz, legelaria eta Unibertsitatean moral irakasle zen; ama, Catharina Schmuck, zuzenbide irakasle baten alaba. Locke baino 14 urte gazteago zen Leibniz, 1632ko irailaren 29an jaioa baita filosofo ingelesa.

1652: Leibnizen aitaren heriotza.

1652-1672: Ikasturteak

1652-1661: Lehen ikasketak Nicolai-Schule-n. Kultur Mintegiak aitaren bibliotekan, Antzinako idazle eta filosofoez eta idazle eskolastikoez. Latina eta grekoa ikasi.

1661: Leipzigekeko Unibertsitatean sarrera.

1662: Jakob Thomasius, filosofiaren historia irakasle ospetsuaren ikastaldietan filosofo modernoak irakurtzen hasi zen, Bacon eta Hobbes bereziki.

1663: Batxilergo tesia, banatze-printzipioaren auziari buruz; Leibnizek irtenbide nominalista onartzen

zuen. Erhard Weigel metafisikari, legelari eta matematikariaren ikastaroak egin zituen Jenako Unibertsitatean. Lehen urratsak logikan.

1664: Leibnizen amaren heriotza

(otsailak 6). Leibniz bere osaba Johann Strauch legelariaren etxera aldatu zen. Ikasketa juridikoak.

1666: De Arte combinatoria idatzi zuen. Bertan permutazioen metodoa ikertzen du eta elementu bakunetan deskonposatutako ideien gain eraikitako sinbolika unibertsala laburbiltzen du. Altdorf-en, Nürenbergetik gertu, zuzenbide tesia defendatu zuen, De casibus perplexis in jure (Zuzenbideko kasu zailak). Nürenbergeko Rose-Croix sekta alkimistan sarrera.

1667: Joan Kristobal Boineburg baroia, Mainz-eko Hauteslearen kontseilari politikoa, ezagutu zuen. Nova methodus discendae docendaeque jurisprudentiae (Jurisprudenzia ikasteko eta irakasteko metodo berria) idatzi zuen eta Boineburgen aholkupean pertsonalki aurkeztu zion liburua Hautesleari. Lasser legelariaren laguntzaile hasi zen lanean.

1667-1668: *Confessio naturae contra atheistas* (Naturaren aitortza atoeen aurka) idatzi zuen, Eliza kristauak bateratzeko asmoaz burututako obra apologetikoa.

1668: Eginkizun politikoak: Egiptoko konkistaren egitasmoa, Luis XIV.aren armadak Europatik atera nahian.

1669: Lan logiko-politikoak: *Specimen demonstrationum politicarum pro eligendo rege Polonorum, novo scribendi genere ad claram certitudinem exactum* (Poloniako erregearen hautespenerako demostrazio politikoen eredua, ziurtasun nabarmenera goratua, idazkera berriari esker). Obra honetan Leibnizek zientifikoki frogatzen du printze alemaniarra, Neuburgeko kondea zehazki, hautatu beharra. Lan logiko-teologikoak: *Defensio Trinitatis per nova reperta logica* (Trinitatearen defentsa, aurkikuntza logiko berriei esker), sozinianoen aurka idatzi zuen liburu hau. Lan filosofikoak: *Lettre à Thomasius* idazkian antzinekoen eta modernoek teoria fisikoak elkartzeko ahalegina aurkeztu zuen.

1670: Mainz Hauteslerriko epaitegi gorenean aholkulari izendatu zuten. Lan politikoak: Alemaniako kanpo eta barne-segurtasun publikoa ziurtatzeko bideez Hitzaldiak. Fisikazkoak: *Hypothesis physica nova* (Hipotesi fisiko berria). Liburu honen bi sailak, Higidura abstraktuaren teoria, eta Higidura konkretuaren teoria hurrengo urtean Pariseko Zientzi Akademiara eta Londreseko Royal Society-ra bidali zituen. Lan filosofikoak: Nizoliusen estilo filosofikoari buruz Hitzaldia; Nizolius, XVI. mendeko humanista italiarraren *Antibarbarus* liburuan hitzaurre gisa argitaratua; bertan Leibnizek antzinako eta erdiaroko filosofoen defentsan dihardu.

1670-1671: Lagunekin izandako eztabaida baten ostean, Locke giza adimenaren ahalmena ikertzeko bere proiektua gauzatu du.

1671: Leibniz eta Arnaulden artean gutunak, substantziaren, hedaduraren eta materiaren arazoez.

1672-1676: Bidaia urteak

1672 (martxo): Leibniz Parisera aldatu zen mandataritza diplomatikoan. Egiptoko espedizioaren porrota. Parisen geratu zen 1676ko urrira arte, 1673.aren hasieran Londresera egindako joan-etorria salbu. Arnauld, Malebranche, Huygens etabarrekin elkarriketak; Pascalen eskuizkribu matematikoen ikerketa; kalkulu infinitesimalaren deskubrimendu atariko lanak. Abenduan, Boineburgen heriotza.

1673 (urtarrila-martxo): Londresera bidaia; Boyle fisikariarekin eta Wren, Pell eta Oldenburg matematikariekin (Spinozaren adiskidea azken hau) elkarriketak. Otsaila: Mainzeko Hauteslearen heriotza. Eliza kristauen batasunaz lehen solasaldiak Pelissonekin.

1676: Kalkulu infinitesimalaren aurkikuntza. Joan Federiko Brunswick-Luneburgeko dukeak eskainita, Hannoverreko bibliotekari lanpostua onartu zuen; Hannoverrera aldatu aurretik Londresera itzulia egin zuen Newtonekin eta Collins matematikariarekin elkartzera. Hilabetez geratu zen Holandan eta bertan Spinozarekin egoteko parada izan zuen.

1676-1716: Heldutasun urteak

1677-1679: Era ezberdineko lan ugari (politika, dinamika, logika, metafisika). Bossuetekin harremanetan hasi zen, Elizen birbateratze proiektua zela eta; Harzeko meategien berriztatzeaz arduratu zen. 1678an kontseilari auliko izendatu zuten Hannoverren.

1680: Joan Federikoren heriotza; Ernesto Augustok, anaiak, ondozkatu zuen.

1682: Leipzigecko *Acta eruditorum* aldizkariaren sorkuntzan lan egin zuen Leibnizek.

1684: *Nova methodus pro maximis et minimis*, kalkulu infinitesimalaren azalpen osoa. *Méditations sur la connaissance, la vérité et les idées*.

1685: Urte honetan adierazi zuen Leibnizek "betetasunera iritsia zela", bere pentsakera filosofikoan oreka aurkitu zuelako. Brunswick etxeko historiografo izendatu zuten.

1686: Discours de Métaphysique, Leibnizek frantsesez egindako bere filosofiaren azalpen orokorra; hurrengo urteetan Arnauldekin gutun-truke garrantzitsua izan zuen Discours horretako gaiez. Generales inquisitiones de analysi notionum et veritatum (Nozioen eta egien analisiari buruzko ikerketa orokorrak). Systema theologicum delakoan Leibnizek eliza ezberdinak elkar ulertzeko adiskidatze formula proposatzen du. Brevis demonstratio erroris memorabilis Cartesii (Descartesen errore gogoangarri baten demostrazio laburra): gorputzen talkaren lege kartesiarak kritikatzeko ditu; hau izan zen Baylerekin izan zuen gutun-trukearen abiapuntua.

1687-1690: Austriara, Alemaniara eta Italiara bidaiak, Brunswick etxearen historiako dokumentu bila. Bidaia hauetan Leibnizek adiskide asko egin zituen maila politikoa eta intelektualean.

1690: Lockeren Essay concerning human understanding liburuaren lehen edizioa (gero etorriko ziren hurrengoak, gehituak eta zuzenduak, 1694., 1697., 1699. eta 1705. urteetan). Leibnizek harmonia aurrezarriaren bere teoria burutu zuen; berau da substantzien komunikazioaren eta, bereziki, gorputzaren eta arimaren arteko batasunaren problemaren soluziobide.

1691: Si l'essence du corps consiste dans l'étendue liburuskak.

1692: Hannoverreko Estatua hautesleri eraikitzen lagundu zuen Leibnizek.

1693: Codex juris gentium diplomaticus (jendearen eskubide kode diplomatikoa).

1694: Sur la réforme de la philosophie première et sur la notion de substance.

1695: Système nouveau de la nature et de la communication des substances, aurrezarritako harmoniaren doktrinaren azalpena, Journal des Savants-en argitaratua.

1696: Ernesto Augustoren kontseilari sekretu egin zuten Leibniz. Lockeren Essay-ri buruz hausnarketak idatzi zituen.

1697: Sur l'origine radicale des choses liburuskak, gure mundu hau mundu ahalgarri guztietan onena egiten duen mekanismo metafisikoaren azalpena.

1698: Ernesto Augustoren heriotza; Jorje Luis bere semeak ondozkatu zuen. De ipsa natura sive de vi insita actionibusque creaturarum (Natura berberaz edota creaturen barne-indarraz eta ekintzez); obra honetan erakusten digu Leibnizek nola naturaren eta jomugaren ideien berri tapena denbora berean eta abantailaz izan daitekeen mekanismo modernoaren lorpenekin. Hurrengo urteetan zenbait liburuskatan garatu zituen arimari buruzko teoriak, indar, bizi, berezkitasun gisa hartuta, eta "pertzepzio txikien" doktrina.

1700: Lockeren Essay frantsesera itzulia argitaratu zen Pierre Costeren ardurapean. Berlineko Zientzien Elkartearen eraikuntza (gero Zientzien Akademia bihurtu zena). Leibnizek aurkeztu zion asmo hau gero Prusiako Federiko I.a izango zen Branderburgeko Hautesleari.

1701: Brunswick etxearen historiari buruz eta Alemaniako historia zaharrari buruz berak bildutako dokumentuen argitalpena hasi zuen Leibnizek.

1703: Nouveaux Essais liburuaren lehen idazketa.

1704 (Urriak 28): Lockeren heriotza.

1705: Théodicée liburuaren hitzaurre izango zen Discours de la conformité de la foi et de la raison idatzi zuen.

1706: De Bossesekin gutun-trukea hasi zen; monaden arteko lotura substantzialaren arazoa ukitzen du bereziki.

1710: Théodicée argitaratu zuen; bertan Leibnizek Bayleren argudioei erantzun zien eta giza askatasunaren eta gaizkiaren existentzia adosten saiatu zen Jainkoaren ontasunarekin eta ahalguztiarekin.

1711: Pedro Handiarekin elkartu zen Leibniz Torgaun; Errusiaren garapen politiko, ekonomiko eta zientifikorako egitasmoa aurkeztu zion.

1712-1714: Karlos VI.a enperadorearen kontseilari partikular gisa Vienan izan zuen egoitza; enperadorea eta tsarraren arteko aliantzaren alde ahalegindu zen. Eujenio Saboiako printzea ezagutu zuen eta honen aginduz idatzi zuen 1714 inguruan bere filosofiaren bi laburbilduma, *Monadologie* eta *Principes de la nature et de la grâce fondés en raison*.

1714 (Ekainak 8): Sofia printzesaren heriotza; Ernesto Augustoren alarguna zen eta Jorje Luisen ama. Abuztuak 12: Ana erreginaren heriotzak Ingalaterrako tronoa Hannoverreko Jorje Luisen eskutan utzi zuen, Jorje I.aren izenaz errege izango zena; Ingalaterran jarraitzeko Leibnizen eskaerari uko egin zion errege berriak. Berriro ere Hannoverren geratu zen Leibniz.

1715-1716: Clarke Newtonen lagunarekin gutun-trukea, gai hauek

jorratuz: Jainkoa, espazioa, denbora.

1716: Hezueriak jota Leibniz Hannoverren hil zen azaroaren 14an. Hileta xumea.

1717: Pariseko Zientzi Akademian Fontenelleren gorespen hitzaldia.

1765: Nouveaux Essais liburuaren lehen argitalpena.